Labur esanda: Euskara Klasikoko gure NZ-hitz metatuko adibide urriok erakusten dute galdetzaile biren konbinazioek beste hizkuntza batzuetarako esan denarekin bat egiten dutela eta, printzipioz zehar-galderak diren arren, galdera horien erantzunean (edo erantzunaren interpretazioan) pare zerrendak espero behar direla.

3.2. Euskara Klasikoa

Euskara Klasikoan ere galdetzaile metatuen adibide gehiago aurkitu ditut, kasu batzuetan zalantzan izan naizen arren.¹⁶ Adibide asko ez direla-eta, jarraian ematen ditut denak, hurrenkera (ustez) kronologikoan.

Ziburuko Etxeberri

- (40) Hargatik oraño hura / Bera dut guardaturen, / Zeren guardian baitzaude / *Nor nola* bizi garen. (*Elizara erabiltzeko liburua*, 1636: 249)

¹⁶ Haranburuk bere *Devozino eskuarra* (1635) liburuaren hasieran *Noiz nor ezin esposa daiten* idazen du; ondoren datorren azalpenak ez du duda izpirik uzten izenburuaren interpretazioaz: *noiz nor ezin esposa daiten* horrek 'noiz bat, edozein, ezin den ezkondu' esan nahi du. Kasu horretan, *nor* ez dut galdetzailetzat hartu.

Axular

- (41) Eta zure prestutasunaz, ohoreaz, eta aitzineko eta ondoko, fama on fama-tuaz, *nork zer* erranen du? (*Gero*, 1643: 2)
- (42) Hunek zer iragaiten den, zer begitarte izaiten duen, eta *nor nola* mintzo den, abisu eman diazadan (*Gero*, 1643: 6)
- (43) Bada xinhaulriaren gobernuaz, zuhurtziaz, traillauez, ethorkizuneko egiten duen probisioneaz, hornizoiñaz, eta biltzen duen mantenuaz, *nork zer* erranen du? (*Gero*, 1643: 22)
- (44) Zeren nola gau ilhunean dabillanak ezpaitu ezagutzen *zerk zer kolore* duen: zein den berde, eta zein more; hala gizon koleratuak ere eztu ezagutzen, noiz mintzo den ongi, eta noiz gaizki: noiz dohan artez, eta noiz makhur. (*Gero*, 1643: 189)
- (45) Bertzerik ezpaliz ere, bere amoranteak berak ekhartzen dio berri franko: *nork zer* dioen, *nor nola* mintzo den, direnak eta eztirenak garraiatzen derautza. (*Gero*, 1643: 237)

Harizmendi

- (46) Xehe, larri, poblu, prinze, / Guztiak xehatuko: / *Nor zein* diren ungi ditu, / Iau onak bahatuko. (*Ama birjinaren ofizioa*, 1658: 18)

Tartas

- (47) Ene soldadoa ezta oraino batheiatu, haren ugazaita behar duzu izain plazer baduzu, ohore hori zuk egiten badrozu, zure izenaren, zure armen pian, noren beldur izanenda? haren kontre *nork zer* erranendu? *nork zer* eginendu? (*Onsa hilzeko bidia*, 1666: 2)
- (48) Ofensazaliari barkhatu bere ofensa, *nork zer* erranen zian Ienkoaren kontre, edo erranik ere deus zer ansia zukian Ienkoak neoren erranaz, Ienkoa sobera da handi, ... (*Onsa hilzeko bidia*, 1666: 116)

Pouvreau

- (49) Ordea fermuki zinetsten duena bere buruko iujeamendua hobe dela bertzeena baino *nork nola* senda lezake? Nolatan iarriko ahal da bertzeren iujeamenduaren azpian, hura eztadukanaz gero berea bezain on. (*Gudu espirituala*, 1665: 39)
- (50) Iguzkiaren azpian den guzia ikusten dut, eta badakit *nor nola* dabillan, zer darabillan bihotzean, zer nahi duen, eta zertara hedatzen duen bere gogoia (*Jesusen imitazionea*, 1669: 162)

Aranbillaga

- (51) Badakizu *nori zer zaion konbeni*; zuri dagotzu eta ez guri ezagutzea zergatik bat bertzea baiño gehiago edo gutiago den fagoratuia (*Jesu Kristoren imitazionea*, 1684: 22)

Sarako Etxeberri

- (52) Mintzorik eta hitzkuntzarik izan ezbaliz, *nork zer* irakhatsiko zuen? Legeak nork eta nola egingen zituen? Mundua nork gobernatuko zuen? (*Gomendiozko gutuna*, 1718: 382)
- (53) eta nor gerlara prestatuko lizateke? (erraiten deraue oraino Apostolu handiak) baldin nihork ezin adi zetzaken hitzez eta hitzkuntzaz mintzatzen baziren, ea *nork zer* adituko zuen hek zer mintzo ziren? (*Gomendiozko gutuna*, 1718: 395)
- (54) Hau da mandari bat aitzinat berri jakitera bezala dohana, eta bide-nabar ikhustera, *nork zer begitarte egingen dioen*; zeren perpausen esplikazinoa [...] eta bertze gainerako Gramatikari dagozkan gauzak, hunen begira baitaude, hunek zer iragaiten den edo nolako begitarte izaiten duen eta *nor nola* mintzo den ikhusi eta jakin eta ondoan, kanporat ilkhitzeko edo barrenean gelditzeko (*Gomendiozko gutuna*, 1718: 403)
- (55) Badakit, Eskuararen berririk ezta kitenei gauza hau ezin sinhetsizkotzat idurituko zaiela, zeren bisaja batean hirur presuna diferentent iduriak edo imajinak ezin pintaditezken, zerentariak egundaino ezbaita izan hain pintore habilik bisaja batean hirur presuna diferentent iduriak edo imajinak elkarharrekin nahastakatuak *zein zein* diren ezagutzen direlarikan athera ahal izatu tuenik, ... (*Eskuararen hatsapenak*, 1718: 91)


Haraneder

- (56) Eta gurutzefikatu izan zutenean, partitu zituzten haren bestimendak, zortzerat etxaturik *nork zer* eramane zuen (*Jesu Kristoren ebanjelio saindua*, 1740: Mk 15, 24)
- (57) Bizkitartean bere erresumaz jabe egin ondoan, bihurtu zen eta erakharri zituen bere zerbitzariak, zeinei eman izan baitzaroen dirua, jakiteko *nork zer* irabazi zioen (*Jesu Kristoren ebanjelio saindua*, 1740: Lk 19, 15)

NZ-hitza metatuen adibideak ugariago dira Euskara Klasikoan Arkaikoan baino, bai, baina perspektiba galtzea ere ez da komeni eta hemen datu deigarrienak iruzkinduko ditut: (a) funtsean, Axularren harako *nork zer erran zuen* tankerako adibideak errepikatu egiten dira autoretik autorera, eta garai honetako adibide guztietarik erdia baino gehiago dira (11/21; %52,3). Proporzioa handiagoa (%54,5) bihurtzen da (44) adibideko *zerk zer kolore* ere gehitzen badugu; (b) bigarrenez, *nor/nork nola + adizki jokatua* formula ere, non lehen galdetzaila subjektuari dagokion, sarritan agertzen da (6/21 adibide: %28,5); eta (c) bere tankerako bakarrak diren hiruzpalau adibide daude (cf. 1. irudia).

Esan bezala, Axularren (41) adibideko *nork zer erranen du?* motako adibidea, [Nork_{subjektua} zer_{osagarria} adizki jokatua] egituraduna alegia, dugu ugariena eta, Axularrengan ez ezik (adibide bi), Sarako Etxeberrirengan (hiru), Tartasengan (beste hiru) eta Haranederrengan ere (beste bi) sumatzen dugu. Mota honetako hamar (edo hamar maika, (44) adibidea bera antzeko subjektu-osagarri adibidea denez) adibideetarik sei perpau nagusietakoak dira; hau nabarmendu beharra dago Boškovićen planteamenduak aurreikusten baitu perpau nagusien eta mendekoen artean halako asime-

tria bat egon daitekeela; hemen datuen urriari so eginik ez da halako asimetriarik sumatzen.



1. irudia

Euskara Klasikoko galdetzaile konbinazioen adibideak

Era berean, ohartzekoak dira beste bi datu: Tartasen adibideak (bi gutxienez bai) Axularrenen antz-antzekoak dira (eta kasu bietan liburuaren hasierako orrialdeetan aurkitzen dira) eta agian azken honek lehenaren lanetan eduki zuen eraginaren bidez esplika daitezke (cf. Salaberri 2002: 86); bestalde, Haranederren adibide biak Leizarragak NZ-hitza metatuen bidez emandako pasarte berberei dagozkie (cf. 56-57 vs 26-27) eta hori ere ez dateke kasualitatea.

Mota honetako adibide guztietan, okerrik ez bada, erantzun pareak behar dira: (56) adibidearen irakurketatik «x-k hau eramanen zuen, y-k beste hau eramanen zuen, eta abar» bezalako erantzun pareak espero litezke. Berdin gertatzen da (44) interpretatzean ere («zerk zer kolore duen» ez ezagutzeak gauzen eta koloreen parekatzea ez ezagutzea esan nahi du). Sotilagoa da *nork zer erranen du?* sasi-galderen irakurketa; hor, de Rijken (2008: 441) oharra dator harira: «a multiple question often functions as a rhetorical device to express a strong denial». Alegia, (41) adibidearen kasuan Axularrek ez du benetako informazioa eska luzatzen, bai baitaki inork ez duela ezer esango Etxauzen prestutasunaz eta ohoreaz. Baina galderaren zentzua, hain zuzen ere, erantzun bikoteen ukapena da, pertsona-iritzien ukatzea ('x-k ezer; y-k deus, z-k ere ezer ... ez dute erranen'). Alde horretatik, adibide honek eta antzekoek ohikoa den interpretazioa (edo, *de facto*, interpretazio horren ezezkoa) onartzen dute eta bateragarriak dira goragotasun efektuarekin.

Bigarren motako adibideek ere goragotasunarekin bat egiten dute, *nor* edo *nork* galdetzaile horiek subjektuari dagozkiolako eta *nola* modifikatzaile bati, perpausaren egitura beharago dagoen elementu bati alegia; Pouvreaurenaz beste guztiak zehar-

galderak dira. Bestetik badirudi erantzun pareak bideratzen dituztela. Hots, Axularraren honetan:

(58) hunek... *nor nola* mintzo den abisu eman diezadan (= 42)

iduri du *nor nola* horren erantzun arrunta ‘Urliak hauxe dio, Berendiak beste hau, ...’ eta abar litzatekeela: mintzodunen eta iritzien parekatzeak alegia.¹⁷

Azkenik, deslai geratzen dira arestiko (46), (51) eta (55) adibideak. Harizmendi eta Sarako Etxeberriren NZ-hitz metatuen adibideak *subjektu-predikatu osagarri* hurrenkeraren araberakoak direla iruditzen zait, goragotasuna konplitzen dutenak alegia; eta interpretazio aldetik ere erantzun bikoteak eskatzen dituzte: hots, jaunak bereiziko du *nor zein* motakoa den (x motako batekoa, y beste batekoa, eta abar). Antzera Ziburuko Etxeberriren adibideaz.

Interes handia dauka, amaitzeko, Aranbillagaren (51) adibideak: *komeni* aditza NOR-NORI motakoa da eta, esan izan den bezala (Artiagoitia 2000: 406hh), aditz mota hauetan batzuetan datiboa jo behar da subjektutzat eta gorago dagoen argumentutzat. Badirudi *komeni* datibo subjektua duten aditzetarikoa dela, uztardura harremanek egia badiote behintzat:

(59) a. ?? Etxe biak bata bestearen jabeei *komeni* zaizkie
b. Jabe bie i bata bestearen etxeak *komeni* zaizkie

(60) a. *Miren bere buruari (bakean) *komeni* zaio
b. Mireni bere burua (bakean) *komeni* zaio

Hau da, datibodun zein datibo barruko anafora nekez uztartzen du argumentu absolutiboak *komeni* aditz horrekin; baina datiboak erraz uztartzen du absolutibodun edo absolutibo barruko anafora. Datu horrek datiboa absolutiboa baino gorago dagoela iradokitzen du. Testuinguru honetan, Aranbillagaren adibidea espero dezakeguna besterik ez da: *nori zer* konbinazioa behar du izan, goragotasunari eutsiko bazaio.¹⁸

4. Ondorioak

Artikulu honetan ahalegina egin dut euskarazko NZ-hitz edo galdetzaille metatuen gaia tipologikoki kokatzeko. Badirudi ezaugarri honek euskara batez ere (baina ez soilik) hizkuntza eslaviarretara hurbiltzen duela, berauek (bulgariera, errusiera, serbokroaziera eta abar) direlako halako ezaugarria beren-beregi aitortu zaien hizkuntza.

¹⁷ Pouvreauren *nork nola senda lezake* (48) adibidearekin ere zalantza egon daiteke, baina uste dut baliabide erretoriko berdina datekeela hor; ukatu egiten da *inork inola* ere ezin sendatzea, sendatzaile eta sendamodu pareen ukapena ari da aditzera ematen, alegia.

¹⁸ *Gurutzaketa Ahula* deritzon fenomenoak ere norabide bertsuan seinatzen du:

(i) a. ?? Zein agente_i/nor_i *komeni* zaio bere_i jokalaria?
b. Zein jokakari_i/nori_i *komeni* zaio bere_i agentea?

Perpau horiek ??nor_i maite du bere_i ama_i? vs nor_i maite du bere_i ama? bezalakoekin erka daitezke; gorago dagoen subjektu-galdetzailleak izenordaina aldagai gisa uztartu ahal du; galdetzaillea behegero dagoen osagarriari dagokionean, aldiz, makurragoa da perpaua.

tzak gramatika sortzailearen zenbait lanetan. Iduri luke hizkuntza horiek guztiek eta euskarak partekatzen dutela NZ-hitzen aurreratzea eta foku edo galdegaiarena modu berdintsuan tratatzea, baina kontu hau ikergai irekia da gaur-gaurkoz (cf. Etxepare 2018).

Euskara Arkaikoa eta Klasikoa barrena topatzen dira NZ-hitz metatuen zenbait adibide; adibideok erakusten dute NZ-hitz metatuak jada 16. menderako hizkuntzaren ezaugarri zirela eta iradokitzen dute, halaber, beste datu batzuekin osatuta ordurako euskarak NZ-hitzen aurreratzea bazeukala, beste autore batzuek ere (Aldai 2011; Duguine & Irurtzun 2014) azpimarratu duten moduan. Egiaztatuta dago perpaus nagusietan ez dela NZ-hitz metatuen adibiderik sumatzen Axularren *nork zer erranen du?* adibide ezagunera arte. Azkenik, garai biotan aurkitzen diren galdetzaile konbinazioak (*nork zer*, *nor/nork nola* gehienbat) bat datoz (edo bateragarriak dira behintzat) goragotasunaren murrizketarekin eta bat egiten dute [espez, Konp] posizioa egiten den mugimenduaren ondorioz galdetzaile anitzek eduki ohi duten pare zerrendaren interpretazioarekin. Datozen ikerketek lagunduko ahal digute gai hau hobeto ulertzen.

Erreferentziak

- Aldai, Gontzal. 2011. Wh-questions and SOV languages in Hawkins' (2004) theory: Evidence from Basque. *Linguistics* 49(5). 1079-1135.
- Andrés, Mercedes. 1996. *Perpaus konposatuaren joskera (J. Leizarragarengan oinarriturik)*. Bilbo: Deustuko Unibertsitateko doktorego tesia.
- Artiagoitia, Xabier 2000. *Hatsarreak eta Parametroak lantzen*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia & UPV/EHU.
- Boeckx, Cedric & Kleanthes K. Grohmann (arg.). 2003. *Multiple Wh-Fronting*. Amsterdam: John Benjamins.
- Boeckx, Cedric & Kleanthes K. Grohmann. 2003. Introduction. In Cedric Boeckx & Kleanthes K. Grohmann (arg.), 1-16. Amsterdam: John Benjamins.
- Bošković, Željko. 1997. Superiority effects with multiple wh-fronting in Serbo-Croatian. *Lingua* 102. 1-20.
- Bošković, Željko. 1999. On Multiple Feature Checking: Multiple Wh-Fronting and Multiple Head Movement. In Samuel David Epstein & Norbert Hornstein (arg.), *Working Minimalism*, 159-187. Cambridge: MIT Press.
- Bošković, Željko. 2001. On the interpretation of multiple questions. *Linguistic Variation Yearbook* 1(1). 1-15. <https://doi.org/10.1075/livy.1.03bos>.
- Bošković, Željko. 2002. On multiple wh-fronting. *Linguistic Inquiry* 33(3). 351-383. <http://dx.doi.org/10.1162/002438902760168536>.
- Bošković, Željko. 2003. On wh-islands and obligatory wh-movement contexts in South Slavic. In Cedric Boeckx & Kleanthes Grohmann (arg.), *Multiple wh-fronting*, 27-50. Amsterdam: John Benjamins.
- Bošković, Željko. 2007. A note on wh-typology. In Peter Kosta & Lilia Schürcks (arg.), *Linguistic investigations into formal description of Slavic languages: Contributions of the sixth European conference held at Potsdam University*, 159-170. Frankfurt am Main: Peter Lang.

- Bošković, Željko. 2015. Wh-movement. In Antonio Fábregas, Jaume Mateu & Michael T. Putnam (arg.), *Contemporary Linguistic Parameters*, 251-279. London: Bloomsbury.
- Chomsky, Noam. 1973. Conditions on transformations. In Stephen Anderson & Paul Kiparsky (arg.), *A Festschrift for Morris*, 232-286. New York: Holt, Rinehart and Winston.
- Dryer, Matthew S. 2013. Position of Interrogative Phrases in Content Questions. In Matthew S. Dryer & Martin Haspelmath (arg.), *The World Atlas of Language Structures Online*. Leipzig: Max Planck Institute for Evolutionary Anthropology. <http://wals.info/chapter/93> (2022-09-23).
- Duguine, Maia & Aritz Irurtzun. 2014. From obligatory WH-movement to optional WH-in-situ in Labourdin Basque. *Language* 90(1). e1-e30.10.1353/lan.2014.0006.
- Ettxepare, Ricardo. 2018. Ohar bat zer nork hurrenkeraren ezinaz euskaraz. *Lapurdum* 21. <https://doi.org/10.4000/lapurdum.3762>.
- Ettxepare, Ricardo & Jon Ortiz de Urbina. 2003. Focalization. In José Ignacio Hualde & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*, 459-516. Berlin: Mouton de Gruyter.
- Euskaltzaindia. 1987. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-1*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordea. 2021. *Euskararen Gramatika*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Hagstrom, Paul. 1998. *Decomposing questions*. Cambridge: MITeko doktorego tesia.
- Hornstein, Norbert. 1995. *Logical Form: From GB to Minimalism*. Oxford: Blackwell.
- Irurtzun, Aritz. 2021. Why questions break the Residual V2 restriction (in Basque and beyond). In Gabriela Soare (arg.), *Why is 'Why' Unique? Its Syntactic and Semantic Properties*, 63-114. Berlin: De Gruyter Mouton.
- Jeong, Youngmi. 2004. Multiple superiority effects in Basque. *University of Pennsylvania Working Papers in Linguistics* 10(1). 103-114.
- Jeong, Youngmi. 2007. Multiple Wh-Fronting in Basque. In Anastasia Conroy, Chunyuan Jing, Chizuru Nakao & Eri Takahashi (arg.), *University of Maryland Working Papers in Linguistics* 15, 98-142. College Park: UMWPI.
- Lafitte, Piarres. 1962. *Grammaire basque (navarro-labourdin littéraire)*. Baiona: Ikas.
- Laka, Itziar. 1986. Azpikotasunaren Baldintzaz: Muga Adabegiak Euskaraz. In Patxi Goenaga (arg.), *Euskal Sintaxiaren Zenbait Arazo*, 97-127. Bilbo: UPV/EHU.
- Lakarra, Joseba Andoni. 1997. Euskararen historia eta filologia: arazo zahar, bide berri. *ASJU* 31(2). 447-535.
- Michelioudakis, Dimitris & Ioanna Sitaridou. 2016. Recasting the typology of multiple wh-fronting: Evidence from Pontic Greek. *Glossa: a journal of general linguistics* 1(1): 40. 1-33. <http://dx.doi.org/10.5334/gjgl.72>.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1989. *Parameters in the grammar of Basque*. Dordrecht: Foris.
- Oyharçabal, Beñat. 1988. Operatzaile isila euskarazko perpaus erlatiboetan. *ASJU* 22(1). 93-97.
- Rijk, Rudolf P. G. de. 2008. *Standard Basque. A progressive grammar*. Cambridge: MIT Press.
- Rudin, Catherine. 1988. On multiple questions and multiple wh-fronting. *Natural Language and Linguistic Theory* 6. 445-501.
- Salaberri, Patxi. 2002. *Iraupena eta lekukotasuna*. Donostia: Elkar.
- Saltarelli, Mario. 1988. *Basque*. London & New York: Croom Helm.
- Sportiche, Dominique, Hilda Koopman & Edward Stabler. 2014. *An Introduction to Syntactic Analysis and Theory*. Chichester: Wiley Blackwell.

- Stoyanova, Marina. 2008. *Unique Focus. Languages without multiple wh-questions*. Amsterdam: John Benjamins.
- Wachowicz, Krystyna. 1974. Against the Universality of a single Wh-question movement. *Foundations of Language* 11. 155-166.

Erabilitako corpusak

Ereduzko Prosa Dinamikoa: <https://www.ehu.es/eu/web/eins/ereduzko-prosa-dinamikoa-epd->

Euskal Klasikoen Corpusa: <https://www.ehu.es/ehg/kc/>

Klasikoen Gordailua: <https://klasikoak.armiarma.eus/>

Euskalkien sailkapen berria dela eta *On the new Basque dialect classification*

Gotzon Aurrekoetxea

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Xarles Videgain*

Université de Pau et des Pays de l'Adour (UPPA)

ABSTRACT: The purpose of this paper is to revise the opinions and the data that appear in the earliest reviews of the book *Euskalkien sailkapen berria* (Aurrekoetxea, Gaminde, Ormaetxea & Videgain 2019). We classify these opinions and the data therein into two groups: first, we address the most unknown relevant features of the giant project *Euskal Herriko Hizkuntza Atlas- EHHA*. Then, we discuss the methodology utilized in the new classification of Basque dialects.

KEYWORDS: classification of dialects; geolinguistics; *EHHA*.

LABURPENA: Euskalkien sailkapen berria *deitu liburuak* (Aurrekoetxea, Gaminde, Ormaetxea & Videgain 2019) izan dituen lehen kritiketan agertzen diren datu eta iritziak zuzentzea du xede artikulu honek. Iritzi eta datuok bi multzotan sailkatzen ditugu: batetik, Euskal Herriko Hizkuntza Atlas- EHHA egitasmo erraldoiaren ezaugarri ezezagun nabarmenenen berri emango da. Bestetik, euskalkien sailkapen berrian erabilitako metodologiak jardungo da.

HITZ GAKOAK: *dialektoen sailkapena; geolinguistika; EHHA.*

1. *Euskalkien Sailkapen Berriaz*

Euskalkien sailkapen berria lanak (Aurrekoetxea, Gaminde, Ormaetxea & Videgain 2019) bi kritika artikulu jaso ditu (Zuazo 2020; Coyos 2020). Hain azkar ager-tzeak irakurketa desberdinak izan ditzakeen arren, lanaren balioaren seinaleztat jo-tzen dugu eta alde horretatik eskertzen ditugula esatea baino ez zaigu gelditzen. Hari beretik tiratuz, esan behar da ikerketan kritika beti dela beharrezko, ezagutza berria eskuratzeko bidean.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Xarles Videgain. IKER UMR 5478-CNRS. Gaztelu Berria, 15 Paul Bert plaza (64100 Baiona). – charles.videgain@univ-pau.fr

Nola aipatu / How to cite: Aurrekoetxea, Gotzon; Videgain, Xarles (2023). «*Euskalkien sailkapen berria dela eta*», *ASJU*, 57 (1-2), 89-104. (<https://doi.org/10.1387/asju.25984>).

Jasoa/Received: 2022-10-05; Onartua/Accepted: 2023-01-13.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago

2. *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*-EHHaren onurez

Badirudi *EHHA* egitasmoan erabili diren iturri, metodologia eta helburuen gainean ezjakintasun handia dagoela euskal hizkuntzalariengan. Hala azaltzen da *Euskalkien sailkapen berria* (aurrerantzean *ESB*) liburuari egin kritiketan. Hori dela eta, *EHHA*ren oinarriaz eta balioaz jardungo dugu lehen-lehenik.

2.1. *EHHA*ren galdesorta eta haren iturriak

Zuazok *EHHA* egitasmoaz jaulki dituen kritikek ertz asko dituzte, baina horietako batzuk bederen ezjakintasunean oinarritzen dira. Nabarmena da hori *EHHA*ren galdesortaren hastapeneko iturriez ari denean, izan ere Mitxelenaen *FHV*, Azkueren *Erizkizundi Irukoitza* eta Irizarren *Contribución a la dialectología...* aipatzen baititu iturri nagusi gisa (Zuazo 2020: 272), eta hori okerra da: bestelakoek osatu dute *EHHA*ren galdesortarako oinarria. Galdesorta osatzeko, nola beste puntu askotan, kanpoko aditurik hoberenak zein ziren so egin eta haiekin harremanetan sartu ginen lana nazioarteko estandarretan egin izan zedin. Lexikorako iturriak inguruko atlasen galdesortak izan ziren. Aipamen berezia behar dute lehenik aztertu genituen Alvarren *ALEARN-Atlas lingüístico y etnográfico de Aragón, Navarra y la Rioja* eta Séguyren *ALG-Atlas linguistique de la Gascogne* atalasek. Ondoren Galiziako *ALGA-Atlas Lingüístico galego*; Veny-ren *Atlas Lingüístico del Domini Català-ALDC* eta Alvarren beste batzuk, Frantziako *Atlas linguistique de la France-ALF, Atlas linguistique de la Lyonnais* (Gardette 1951) eta Europako beste hizkuntza atlas batzuk ere kontsultatu genituen. Egile batzuekin elkarriketatu ere egin ginen: Ravier (*ALLOC-Atlas linguistique et ethnographique du Languedoc Occidental*), Fossat eta Allièreekin, J. Ph. Dalbera (fonologiaz) eta M. J. Dalbera-Stefanaggirekin (*Atlas linguistique de Corse*), Veny, Rafel eta Cerdá katalanekin, Alsaziako hizkuntza atlasaren informatizazio-arduradun zen Philippsekin (ikus Philipps, Bothorel-Witz, Spindler 1984), Goebblekin (*Sprachatlas des Dolomitenladinischen und angrenzender Dialekte-ALD*) eta honi kartografia egin zion enpresa-buruarekin; Le Dû (*Nouvel atlas linguistique de la Bretagne*), Rebuschi (1984), Frantziako atlasen ardura zuten Bouvier (1982) eta Simoni-Aurembourekina eta CNRS-ko arduradunekin ere elkartu ginen. Mapagintzarako Bertinen lanak (1967) eta Brunetenak (1987) ikertu genituen eta *Mappemonde* agerkaria ateratzen zuen Reclus ikerzentroko arduradunekin ere bildu ginen. Euskararen atlasaren asmoa behingoan gauzatu behar bazen, besteek eskuratutako ezagutzaren berri izan nahi genuen. Eta zinez, laguntza intelektual handia lortu genuen.

Gramatikari dagozkion galderak geuk sortu genituen, Lafonen (1980) eta Allièresen lanak (1979) gida izanik. Euskararen bilakaeraren arau fonologikoez ez ginen arduratu, lexikoan eta gainerakoan biltzea itxaroten zen informazioak behar adinako datu emango zuelakoan. Prosodiarako Gaminderen lanak erabili ziren, metodologia bera erabiliz euskararen eremu osoko datuak argitaratuak zituelako.

5.000 galdera biltzen zituen galdesortaren lehen bertsioa eskuetan, adituekin kontsultak egin genituen (besteak beste, Mitxelenaekin), baina etsipenetik gehiago jaso genuen, euskararen hizkuntza atlasaren historiaurrea ez baita gozoa izan (Etxebarria 1986). Haietako batzuen iradokizunak jarraituz, galdesorta 2.857 galderatarako laburtzea erabaki zen (2.165 lexikoari lotuak, 333 izenaren morfologiari, 260 adi-

tzarenari, 62 sintaxiari eta 37 fonetikari) eta Euskaltzaindiaren «V. Dialektologi jardunaldietan» (Aurrekoetxea 1985) onartu. Irakurlea ohartuko denez, *EHHA*ko galdesorta egitean ez zen ez Mitxelenaren *FHV*, ez Azkueren *Erizkizundi Irukoitza*, ez eta Yrizarren lan itzela erabili.

Hau da benetan gertatu zena *EHHA*ren galdesorta prestatzean. Hasiberriak bai, baina urrats ziurrak emanez aitzineratu nahi genuen. Horrenbestez, okerra da gai honetaz Zuazok eskaintzen duen gainbegirada.

Bigarren kritika: *EHHA*ko galdesortako erantzun bakarra edo mapa mononimoak sortzen dituzten galderak ez omen dute interesik dialektologian (Zuazo 2020: 275-276):

Galdera ugari egin ziren, bai, baina horietako asko interes dialektal gabekoak dira, orokorrak direlako, Euskal Herri osoan berdin esaten direnak: *seme* bezala, *adar*, *aldi*, *ama*, *ardi*, *aste*, *asto*, *atzo*, *begi*, *beso*, *erbi*, *erdi*, *erle*, *etzi*, *gatz*, *gorri*, *gose*, *idi*, *lodi*, *mendi*, *odol*, *sagar*, *txar*... Eta, ostera, euskalkien arabera aldatzen diren beste gauza asko ez ziren galdetu, 1980 aldean ezezagunak zirelako, edo galdetegia egituratu zutenek ezagutzen ez zituztelako.

Zilegi du Zuazok pentsatzea ez jakintasunetik abiatu ginela galdetegiaren egileok. Alabaina, ez dea hori ikerketan abiatu aurretik edozein ikertzailearen egoera? Egia da «euskalkien arabera zer aldatzen den zuzen» osoki ez ezagutzea gertatu zaigula guri, askori bezalaxe. Horregatik egiten dira hizkuntza atlasak eta egin zen hain zuzen ere *EHHA*. Baina pasarte hori idatzi duenak ez dakien konturen bat edo beste ere bada aipuan. Batetik, *EHHA* egitasmoa nazioarteko geolinguistika proiektuen barne kokatzen da eta haiekin partekatzen du hizkuntzen barietateari buruzko ezagutza. Denen gaitetik *ALE-Atlas Linguarum Europae* dugu (Viereck 2006), zeinetan partaide eta euskal datuen iturri den. Bada, aipuko zerrendako ia hitz guztiak *ALE*n sartzen dira. Horrek, gure ikuspegian, erabateko bermea ematen dio gure hautuari, Zuazok *ALE* ezagutu zein ez.

Bestetik, azalpena aipuko hitz guztiek duten arren, ez dira banan-banan aztertuko. Nolanahi ere, esan nahi genuke, hasteko, zerrenda horretako hitzen bat edo beste bere golkotik atera duela (*aldi* edo *lodi* adibidez), ez baitira *EHHA*n galdetzen. Gehiago, honezkero jakin behar du, *EHHA* kontsultatu badu, zerrenda horretako hitz batzuk ez direla mononimoak: «oveja/brebis/ewe» (726. mapa) nozioa adibidez; ekialdean *arres* erantzuna ere badela, alegia. Horrez gain, ‘ardi’ hitza egokia da oso *-r-* hotsaren ebakera desberdinen berri izateko eta interesa genuen erakusteko. Are gehiago, jakin nahi genuen non bereizten den «oveja/brebis/ewe» eta «ganado ovino/espèce ovine/sheep», singular/plural bereizkuntzaz gain, bestelakorik bazen, alegia. Berdintsu esan daiteke *adar* hitzaz («449-rama/branche/branch» mapa); hitz horrez gain, *erramal/branka* maileguak non esaten diren eta hitz beraren aldaera fonetikoak (*aar*, *abar*...) ere erabiltzen direla ikasiko da. *Erdi*, *erditu* aditza sartu nahi izan genuen baikenekien gramatikaren aldetik *erditu* ez zela esaten leku frankotan eta Iparraldean *erdi da* erabiltzen zela; erregistroaren aldetik informazioa bildu nahi genuen *erdi* anderea batez ala kabale batez berdin erabil daitekeen. Iparraldean *zure anderea ume eder batez erditu da* entzunen zuen gizonak iraintzat hartuko zuen. Kasu hau balia dezagun erregistroko markak kontuan hartu ditugula esateko, horren berri eman dutelarik eta horretan ere aldaketak badaude euskalkien artean. Kasu be-

rezia da *erle* hitza; hiru esanahi ditu: 1. 'intsektua'. 2. 'erlekume' (arbolatik dilindan dagoen intsektu multzoa). 3. 'kofointara' (kofoin edo erletxe batek jesaiten duen intsektuen multzoa) (*OEHK* lehena eta hirugarrena agertzen ditu). Horren berri bagenuen Oztibarreko etxekandere batek aipatu zigularik «etxen erle biziki» bazuela, berrogoi bat hor nonbait, erakusten zuelarik erle hitzak ez zuela beraz 'intsektu' bakarra adierazten; eta, azkenik, informazio entziklopedikoa ere bildu nahi genuen, Azkueren (1942) edo Barandiaranen (1974, 1975) ildotik. *EHH*Ako liburukietan ez, baina datu-basean bada informazio ugari (erleari zuka mintzatzea, ez gora, ez bortizki, etxeko norbait hiltzen delarik erleak abisatu beharra, *erlekumea* auzo baten lurretan biltzen delarik gizalegez egin behar dena, etab.). *Txar*: hortaz galderarik ez dago *EHH*A n baina bai *zahar* hitzaz; alta Mitxelenaren oharra ezagutzen genuen, dioelarik Baztanen adibidez ongi bereizten direla *gizon xaarra* «el hombre viejo», *g. tzarra* «el h. perverso», *g. txarra* «el h. de mal genio», *g. xarra* «el viejecito», *g. ttarra* edo *ttalla* (infantil?) «el h. *pequeñito*» (*FHV*, 191, 26. oh.). Forma hauei *zar* eta hasperenduak gehi behar zaizkie: *zahar*, *xahar*. *Gose* dela eta («2213-hambriento/affamé» mapa) gramatikaren aldetik genuen interesa: *goseak nago*, *gose naiz*, *gose daukat* eta abar bilduz. *Lodi* nozioari dagokion galderarik ez dago, tamalez, ezen *lodi* eta *gizen* ez baitira sinonimo, geosinonimo izan arren.

Agian, kontu hauek txikikeriak irudituko zaizkio kritikatzaileri, baina jakin behar du galdera horiek berariaz egin zirela, ez direla inkestaren hutsa, ez akatsa, ez eta arduradunen ezjakintasuna. Dialektologia egiteko erabiltzen duen marko teorikoan, beharbada, ez dira beharrezko izango, baina bai beste marko teoriko batzuetan. Honek erakusten du Zuazok interes gabekotzat eta ezjakintasanaren ondoriotzat jotzen dituen galdera gehienak nahitara hautatu genituela duten interesaren arabera.

Amaitzeko, aipatu nahi genuke badirela mapa mononimo gehiago, nahiz zerrendan agertzen ez diren. Horietako bat «lluvia/pluie/rain» nozioari dagokiona da. «Euri» motez bost galdera genituen arren, bagenekien gure galdesorta labur geldituko zela, aurretik Videgainek (1989: 109) Oztibarren ondokoak bilduak baitzituen: *eurri*, *tenpesta*, *elementak*, *denbora bihurri*, *zirimoleria*, *erauntsi*, *eazarri*, *euribarrasta*, *zurru-pitaka ari*, *lantzar*, *lanbrots*, *axeriain ezteiak*.

2.2. Inkesta-fitxa

Galdesortako *itemak* informazio-emaleei nola aurkeztu behar zitzaizkien aztertu zen ondoren. Hortik sortu zen inkesta-fitxa, zeinetan galdera bakoitzak bere fitxa zuen, inkestagintza-unean jarraitu behar zena. Helburua zen herri guzietan galdera guztietan lekukoek estimulu bera izatea, erantzunak guti edo aski erkarriak izan zitezzen; guztiz beharrezko zitzaigun talde-lana baitzen *EHH*Arena.

Inkesta-fitxok alor desberdinez osatuta zeuden: zer-nola galdetu, lekukoa laguntzeko tresnak, hitz aiposen zerranda... Batetik, bilatzen zen *itema* agertzen zen, frantsesez, gaztelaniaz eta behar zelarik latinez adierazia. Maiz zehaztasun gehiago ere biltzen zen, hala nola termino nahasiak zirenean, adiera desberdinetan erabiliak izan zitezkeenak edo ezezagunak zirenean, lexiko teknikoan, etab.

Itemen ondoren galdera zehazten zen. Lexikoan, gehienetan, perifrasi bidez adierazten zen: definizio bat, agertzen zen lekua, keinuz, seinalatuz, argazki edo irudia erakutsiz... hots, informazio-emaleari laguntzen zitzaion bilatzen ari ginen hi-

tza edo ezaugarria eman zezan. Behin hitza eta haren inguruko zehaztasunak lortuta, absolutibo mugagabeen lortzeko testuinguru konkretu batean emanik lortzen zen; adibidez, *azeria*, *axeria*, *asalaria*... lortu ondoan, *azeri*, *axerü*, *asagari*... forma mugagabeak bildu behar ziren. Ondoren, fitxan nozio horrentzat agertzen ziren hitzen zerrenda erabiliz, ezagutu zitzakeen hitzak proposatu egiten zitzaizkion lekukoari, ezagutzen edo erabiltzen zituen galdetuz. Hala, Bizkaiko mendebaldean *asagari* hitza lortu ostean *luki* hitza ezagutzen zuten galdetu zen eta hainbat herritan lortu ere (hala dakigu Sondikan, Zeberion edo Zornotzan ere ezaguna dela). Hitz horiek biltzean Mujika (1973), Lhande (1926), Larrasket (1939) eta Azkue (1905) hiztegiak arakatu genituen. Esparru berezituetakako terminoak jasotzeko zenbait monografia ere arakatu genuen; esate baterako, lurra lantzeko tresnen alor teknikoa dela eta (*golde*, *nabar*, *are*, etab.) prestatzeko, kanpoko eta hemengo (Aguirre 1922-1926; Azkue 1942; Barandiaran 1974, 1975) monografia andana bat erabili genuen. Xavier Ravierren *ALLOc-Atlas linguistique et ethnographique du Languedoc Occidental* ere oso kontuan hartua izan zen, batez ere proposamenak aztertze aldera (Ravier 1985; Aurrekoetxea 1986).

Gramatikari dagokionez, *itemak* lortzeko erdara erabiltzea erabaki zen, nahiz aditz jokatueta eta, behin pertsona bati zegokion erantzuna jaso ondoren, inkestagileak aukera zuen beste pertsoneri zegozkien adizkietarako bestelako erak ere erabiltzeko. Hain zen zehatza fitxaren esparru hau, ezen balizko arriskuak ere aipatzen zituen; oso hurbilekoak ziren nozioak edo gramatika ezaugarriak bereizteko, besteak beste. Adibide bat jartzearen, itzultzeko eskatzen zitzaion esaldia modu batean baino gehiagotan egin zitekeenetan denak biltzearen aldeko apustu garbia egiten zen (*igandean joango naiz / igandearekin joanen naiz*... kasurako edo adizkietan forma jokatuak biltzearen aldeko apustua nominalizazioez gain, **edin / *ezan* adizkietan). Nekez aurkitu da euskara jasotzeko hain galdesorta landurik.

Bidenabar, nahiz eta jaso kritiketan ez den aipatzen, inkesta-lekuen sarea hautatzea borroka luzearen osteko garaipen handia izan zen. Guk 145 leku eta mugaz gaidikoa izatea proposatzen genuen eta lortu, baina jakin beharra dago euskaltzain batzuk prest zirela 30 lekurekin lan egiteko.

Galdesortekin vs. gabe aritzea dela eta, galdesortez ez fidatuz, gabe ibiltzea gusatzatzen bazaio norbaiti ez dugu arazorik ikusten. Arazoa, ordea, 145 herritan informazio homogeneoa, konparagarria, geosinonimo edo diatopismoak lortu behar direnean agertzen da. Ez dugu guk ukatuko badirela dialektologoen artean galdesortari buruzko filiak eta fobiak. Filiak lan geolinguistikoetan adituek, hizkuntza atlasen egileek, herrietako datu konparagarriak behar izan dituztenek erakusten dituzte. Fobia dutenen artean kokatzen dira monografia hutsak egin dituztenak eta herri batean jasotako datuak beste nonbait bildutako datuekin konparatu beharrik ez dutenak. Zuazoren (2020: 274) ustea, «*EHHA* bezalako galdetegiak sekula ere ez dira erabat ziurrak», oso urrun dago Trudgill ospetsuaren ikusmoldetik (1983: 46): «One, of course, cannot rely exclusively on tape-recorded conversation. Questionnaires are essential for obtaining lexical material, and useful of obtaining rarely occurring features».

Dena den, esan behar da nazioartean egin diren ahozko hizkuntza-bilketa handienak galdesortan bidez egin direla: *BDLC-Banque de Données de la Langue Corse*, *THESOC-Trésor de la langue Occitane*, *Syntactische Atlas Van de Nederlandse Dialecten-SAND* (Barbiers et al. 2005-2006), *The Linguistic Atlas of England* (1998), Ale-

maniako *Wenker* atlasa (*DiWA*), Frantziako hizkuntza atlasa *ALF* famatua (eta ondorengo *Nouvel atlas linguistique de la France-NALF* proiektu erraldoia), Italiako hizkuntza atlasa-*ALI*, Estatu Batuetan, mundu hispanikoan ezin konta ahala atlas eta datu-base egin da, denak galdesortekin... Haien galdesorta ez dela fidagarria ez da askotan entzuten. Horrelako galdesortak ez direla fidagarriak esatea ez dator bat munduan zehar egiten denarekin.

2.3. Inkestagintza

Inkestagintza moldeez asko irakurri genuen *EHHA* egitasmoaren hasieran eta esperientzia ere jaso genuen ikerketa pertsonaletan. Ahalaz, galdera-erantzuna metodoa baztertua izan zen. Galdesorta elkarrizketa gidaturako oinarria zen, gaien hurrenkera gidatzeko; izan ere inkestagintza amaigabeko elkarrizketa gidatua bihurtzea zen helburua.

Lana taldean egin behar zenez, bilketa eredu zehaztu ostean inkestagileak prestatzeari ekin zitzaion. Lantaldea osatzeko Euskaltzaindiak dei publikoa egin zuen eta aukeratu ziren hiru filologo formazioerako ikastaro teoriko-praktikoa eratu zen: galdesorta zehatz aztertu zuten, galdera bakoitzeko helburua eta izan zitezkeen zailtasun eta arriskuak aztertu; ondoren, alfabeto fonetikoan berdintsu transkribatzeko trebatze ariketa bateratuak egin ziren, erantzun guztiak fonetikoki transkribatu behar baitziren. Azkenik, hainbat biltze-saiotan ere izan ziren, galdesorta nola aplikatzen zen ikas zezaten. Nekez ikusi da euskal dialektologian hain formazio-programa zehatzik. Hau dena, Aurrekoetxea eta Videgainen zuzendaritzapean.

Herri bateko datuak biltzeko hasieran hilabeteko epea eman bazen ere, nekez bete zen eta zenbait kasutan 2 hilabeteraino ere behar izan zen. Berak «hilabete edo bi hilabete eman dut zenbait urtez aztergai nuen lekuan» (Zuazo 2020: 275) badio ere, ez dugu guk gutxiago egin. Besterik da gure epeak zein izan diren ezagun duen.

Ettxeko ala kanpoko inkestagileen egokitasunaz eztabaida zaharra da dialektologian; topiko bihurtu da. Alde biek dute onetik eta txarretik: nor den, nola prestatzen duen inkesta, zein trebezia duen... jakin behar da ezer esan baino lehen. Inkestako hizkuntzaz ere bi uste izan dira: batetik, inkesta erdaraz egin behar zela eta, bestetik, inkestagilea herrikoa izan behar zela. Gaiari Zuazok (2020: 275) ere oratu dio, nola ez?: «Gauza da galdegilea, bere eskualdean dabilenean, laster ohartzen dela galdetuak herriko hizkera zintzo erabiltzen duen ala ez; baina galdegileak berea ez den eskualdetik urrundu eta jasotzen ari den hizkera behar bezala ezagutzen ez duenean, ez dauka horretaz jabetzeko modurik». Alabaina, uste hau berdin aplikatu dakioke herri baten hizkerari buruzko lan monografikoa osatzen duenari —beraz, berari ere—, ez bakarrik inkestagileoi. Eta horren lekuko «Ni neu lanean ibili naizen lekuetan ere, hain zuzen, *EHHA*eko emaitzak eta nik bildu ditudanak ez dira sarri bat etorri» (Zuazo 2020: 275). Baina ez du zergatia analizatzen. *EHHA*n erabilitako lekukoek nekez eman zezaketen herriz kanpoko hitzik edo formarik, ezen beraien soslaia *NORM* (*nonmobile, older, rural, male*) deritzona izatea erabaki zen (Chambers & Trudgill 1998: 29). Hots, bere hizkeran ongien eta alboko hizkeretan okerren moldatzen zirenak. Eta ziurta genezake, euskal hizkuntzalaritzan kanpo-lana egin behar izan diren proiektuetan hausnarketa sakonena egin ondoren aukeratutako lekukoak direla. Argi utzi behar da *EHHA*ko inkestagileak ez zirela itsu-itsuan joaten agintzen zitzaien he-

rrietara eta, besterik gabe, aurkitzen zuten lehena inkestatzen hasi. Hori baino konplexuagoa zen prozedura, nahiz ez den beharbada inon argitaratu. Beraz, emaitzak bat ez etortzeaz hausnarketa eta azterketa beharrezkoa da, ezer esan baino lehen.

Gehiago ere badio: «Ziur nago —halaxe egiaztatu dudalako— *EHHA*ean denetarik dagoela. Iruditzen zait galdegileen inguruko herrietako emaitzak zuzen samarrrak izango direla, baina gainerakoetakoak zuhurtzia handiz hartu behar dira» (Zuazo 2020: 275). Beste behin, datuetan funtsatu gabeko iritzi hutsa; ez dugu uste zientifikoa denik «iruditzen zait...», «zuhurtzia handiz hartu behar dira» eta antzeko esamoldeekin lan bat kritikatzeko edo ezbaian jartzeko.

*EHHA*ko inkestageileak arau zehatza zuen: galdera egin, erantzunaren inguruan elkarrizketa sortu hitzaren testuinguruaz jabetzeko, hitzaren erabilera soziolinguistikoa ziurtatzeko eta gaiari buruzko ezagutza etnografikoa lortzeko. Galdetzaileak ez ziren konformatu behar erantzun batekin/bakarrarekin, sakondu behar zuen besterik ba ote zen erabilgarri lekuko burmuinean; jaso behar zen ez bakarrik haren ezagutza aktiboa, ezen ezagutza pasiboa ere. Hori guztia gertatu da *EHHA*n garbi izan zelako hasiera-hasieratik lekukoek haien bizitzan erabiltzen zuten hizkuntza ahalik eta modu osoenean bildu behar zela. Molde honetan, bestela herrian galdutzat emango ziren, hitz eta forma asko jaso dira (Aurrekoetxea 2002). Diogunaren adibide ederra da «1730-en cualquier lugar/n'importe où/anywhere» mapa. Metodologia hau ez bazen erabili ez ziren *-nahi*-osagaiarekin osatutako (*nainon*, *nonahi*, *nunahi*) edo «edo+» (*edonon*, *edonun*), forma asko Bizkaiko, Gipuzkoako eta Hegoaldeko Nafarroan: Bizkaian *edonon-edonun* 23 aldiz lortu da proposatu ostean eta 5 kasutan *nainon*, eta Gipuzkoan eta Nafarroan 36 *nonahi-nunahi* kasu bildu ditugu. Metodologia honen bidez erantzun ezak, maileguak eta besteak beste arkaismoak detektatu dira.

Esan behar da inkesta guztiak grabatu zirela (4.000 ordu baino gehiago bildu ziren) eta edonork kontsultatzeko moduan daudela (Videgain 2021: 28). Inork zalantzarik badu *EHHA*ko datuez badu hori frogatzeko bidea. Gu ausartak izan ginen hasieratik eta deontologia zientifikoa ezereen gaineratik ezarri genuen. Eskaintzen diren baliabideak kontsultatu gabe, mapa zenbait begiratuta, egitasmoa eta egitasmoaren arduradunak kritikatzeko dituenik ere bada, baina horrek ez gaitu gure ekinbidetan etsiarazten, ez eta gure lanaren balioa apaltzen ere, beste inork eman ez duen eta beste inon ez den altxor erraldoia emateko gai izan garelako zuzen jokatuz.

2.4. Informazioaren kudeaketa

Bildutako datuak transkribatzeko erantzun-koadernoak erabili ziren, herri bakoitzeko 5 koaderno (guztira 1.450 orrialde batz besterik). Argitaratutako monografia askok nahiko lukete informazio-kopuru hori izatea. Ondorioz, esan liteke *EHHA* egitasmoan 145 herritako monografia dialektalak bildu direla. Zinez diogu, monografia hauek ez dira bekaitz euskal dialektologian argitaratu diren monografia askoren. Zuazok (1998) aipatzen dituen ama desberdinetako 51 monografia asko baino osoagoak. Hau ikusi ondoren, «Helduleku bakarra baliatu dute lan honetan: Euskaltzaindiaren (2008-) *Euskararen herri hizkeren atlasa (EHHA)*. Egileen iritzian, oinarri egokia da, baina nik badauzkat neure dudak» (2020: 271) horrela bestelako inolako argumentaziorik eta daturik gabe zalantzat ipintzea inoren lana ez dugu uste zientifikoa denik.

Ororen buru, uste dugu, inkesta bera, inkestalekuen sarea, lekukoen hautaketa eta transkribaketa, metodologia trinko eta zehatz batean sartu genituela. Ematen du trinkotasun horren berri adituek ez dutela izan eta garaia badela hortaz mintza gaitezen luze eta zabal, alderdi askotatik ez baitu gaurkotasuna guztiz galdu.¹

2.5. Mapagintza

Kartografia eredu bilaketan geolinguistikaren eredu desberdinak izan genituen eskuartean: hala nola eredu erromanikoak, batetik; Orton, Sanderson eta Widdowson-ek argitaratutako *The Linguistic Atlas of England*, bestetik; Hans Goebek bere lan dialektometrikoetarako erabiltzen zuen Voronöiren poligonazioa, eta abar.

Kostatu zitzaigun mapagintza ereduarekin asmatzea, bi arrazoiengatik. Lehena teknikoa zen, mapazola Thiessen poligonoen arabera antolatu behar zelako (ez zen inoiz egina izan hizkuntza atlasgintzan), erantzunak lemaka multzokatu behar baitziren. Bigarrena ez zen teknikoa izan; aditu anitzek pentsatzen zuten gure mapagintza eredu interpretatiboegia zela. Baina argudiatu genuen ALFeko eta gainerako hizkuntza erromanikoetako puntuz puntukako mapagintza ezin zela gure eredu izan.

Gure mapagintza berritzailea izan zen hizkuntza atlasgintzan eremukako mapak eraikiz. Gainera, mapetan erantzunak ez eze, proposamen onartuak (hitzak proposatu ondoren lekukoek herrikotzat hartuak) ere azaltzea lortu zen. Hala, mapa ikusgarriagoak lortu dira. Are gehiago, *EHH*Ako kartografia polimorfismoa aztertzeke ezin hobe dela esan behar da: mapetan zein erantzutegietan erruz aurkituko du irakurleak galdera bakoitzeko erantzun (edo aldaera) bat baino gehiago duten herriak. Eta hori ez da kasualitate hutsa, edo euskarak duen ezaugarri berezia; horren bila berriaz joan izan gara datu-bilketan lekukoak kilikatuz, hitzak proposatuz, etab. Jakinik hizkerak bariazioan baino ez direla bizi eta hizkuntzaren izaera dela bariazioa.

3. Hizkerak sailkatzeko metodoez

Ordu da *ESB*ren metodologiak hartu dituen kritikak aipa ditzagun. Dialektometriari (DM aurrerantzean) sartzen da argi eta garbi liburua. DMk datu-kopuru handiak behar izaten ditu; hori dela eta, gehienetan hizkuntza atlasetako emaitzak erabiltzen ditu. Euskalkien sailkapena egiteko *EHH*Ako datuak, eraldatuz, erabili dira. Argitaratutako liburukietatik edanez, datu fonetikoetan irakurtzen direnak forma ortografikoan idatzi dira *ESB*rako artxiboetan eta lematizazio berria egin. Deigarria da Zuazok (2020: 276) hizkerak sailkatzeko metodoez diharduelarik erabilitako oinarritzko datuak bakarrik aipatzen dituela kritiketan eta aipamen txikienik ere ez duela egiten sailkatzeko metodo eta teknikez.

¹ Izatez, oso lan gutxi argitaratu da *EHH*Ak eskaintzen dituen datuak aztertzea helburu dutenak; bakan horien artean aipatu behar da Abaitua (2018, 2021).

3.1. Metodologia

Hizkerak sailkatzeko metodoez diharduenean «ezaugarri komunak, Euskal Herri osoan erabiltzen diren gertakariak, ikerketa dialektaletan alde batera uztea da zentzuzkoena» dela dio (2020: 277). Garbi islatzen du bere metodoa isoglosetan oinarritutakoa dela, dialektologia tradizionalen erabiltzen dena eta zaharkitua gelditu dena (ikusi behean erreferentziak). Metodo horrekin soberan dira eremu osoa hartzen duten ezaugarriak, ez baitute isoglosarik eragiten. Berak erabiltzen duen marko teorikoan (dialektologia tradizionalen) soberan diren ezaugarriak dira.

Egungo ikerketan, aldiz, unibertso osoa (eremua bere osotasunean hartzea) ezinezko denean lagin ordezkagarriak erabiltzen dira. Dialektologian ere horretara jo behar dela deritzogu, soziolinguistikari eta zientzietan egiten den bezala. Guk ere bide hori jorratu dugu, bai hizkuntza ezaugarrietan eta baita herrien edo euskararen aldaeretan. Desberdintasunak soilik hartzen badira kontuan ez da hizkuntza bere osotasunean hartzen.

Metodoez dihardugularik, gure artean ezezagunak badira ere, hizkerak konparatzeko eta sailkatzeko metodo bat baino gehiago dago. Bonaparte eta Zuazok erabili duten «isoglosen metodoa», batetik; «egituraren metodo geografikoa», euskararen eremuan N. Moutardek (1975) erabilia, bestetik; edo berriago den dialektologia kuantitatiboa (edo dialektometria), besteak beste. Ez dago ahulgunerik ez duen metodorik; ezaguna da isoglosen metodoak kritika zorrotzak ezagutu dituela oso aspaldidanik (ikus, besteak beste, Bloomfield 1933: 321-345, Kessler 1995, Inoue 1996 eta Nerbonne & Heeringa 2010) eta metodo hori gairitu beharra aipatu da maiz. Mitxelenak berak ere zalantza egiten du metodo honen aurrean (1976: 319): «... se emplean en realidad, aquellos criterios que en la práctica se han demostrado más manejables, que no son necesariamente los mejores en teoría».

Isoglosen metodoa ezaugarrien aukeraketan oinarritzen da. Ikertzaileak bere iriziz aukeratutako ezaugarriak izaten dira. Egia esateko, hizkeren ezaugarriez informazio gutxi zen garaiko metodoa da. Corpus handiak lortu zirenean, eta, batez ere, corpus horiek datu-baseetan egituratu zirenean hasi zen datu kopuru handiak erabiltzeko joera. Eta hortik sortu zen DM; hots, hizkuntza-datuak kuantitatiboki aztertzeko metodologia. Oso urrats garrantzitsua dela kontsideratzen dugu.

Gure *ESB* libururako oinarri gisa *EHHA* hartzeaz ere mintzatzen da (Zuazo 2020: 276):

Esan nahi dudana da tresna hori bera bakarrik hartzea, 1980tik hona egin den arrerakuntza kontuan hartu gabe, huts egite nabarmenegia dela. Gaur egun bertan ere, 2020 honetan, Euskal Herriko eremu zabal asko guztiz ezezagunak ditugu: Ipar Euskal Herri eta Gipuzkoa gehiena, eta Nafarroako eta Bizkaiko hainbat alderdi.

Bada, nola erkatu sasoi desberdinetako, adin desberdinetako, metodologia desberdinetako datuak? Hizkuntzalari batek jakin behar du dialektologia sinkronikoan ere ezin direla nahasi, bariaziozko soziolinguistikak ederki erakutsi duen legez. Ez da zientifikoki zuzena hizkeren sailkapena egiteko garai desberdinetako datuak nahastea. Bestalde, esaten du «guztiz ezezagunak ditugu[la] Ipar Euskal Herri eta Gipuzkoa gehiena». Alabaina, jakin behar luke Gipuzkoan 36 herritako milaka datu bildu dituela *EHHA*k, 27takoak Nafarroan, 45 herritakoak Ipar Euskal Herrian... Ez ote da nahikoa euskararen bariazioa bere osotasunean ikertzeko? Halere, hizkera anitz ezeza-

gunak zaizkiola aitortuta ere, Zuazok berak euskalkien mapa osoa ondu du. Gure ustez, bestelako hurbilketa teorikoek ere horretarako zilegitasun osoa dute.

Arrazoi du Zuazok 1980tik hona datu asko bildu dela eta ezagutza handiagoa dela esatean; ez dago zalantzarik, baina batez ere *EHH*Aren ekarriagatik dela esango genuke. Aipatzen dituen lanetan bada garia, zinez diogu, baina iraka ere bai; dena ez dela urregorria, alegia. Gainera, ez dira datu homogeenak eta nekez erka daitezke bateko eta besteak, adin desberdinetako jendearen datuak direlako, maisu-lanen ondoan hasiberrienak ere badirelako, hartan inolako zehaztasunik gabe agertzen direlako...

Orrialde berean beste hau ere irakur daiteke (Zuazo 2020: 276):

Labur esateko, euskalkien sailkatzaile berriek erabat osoa eta erabat zuzena ez den helduleku batean eraiki dute euren proposamena. Denbora-pasa eta libertimendu moduan egin daitezke horrelako saioak, baina komunitate zientifikoaren aurrean agertzeko, oinarri sendoa eta kontrastatua da nahitaezko.

Ondoko pasartean Atlasaren pisua deitoratzen du (Zuazo 2020: 283): «*EHHA* eta gisa horretako atlasak eurak bakarrik hartzen baditugu, ezingo dugu behin-betiko eta erabateko dialekto sailkapenik egin. Atlasak beti izango dira lagungarri, baina «lagungarri» soil; ez oinarri bakar».

Kritika horren egileak dioena gorabehera, liburuko kapitulu gehienen bertsio sakonak aurretik nazioarteko kongresuetan aurkeztu eta ondoren argitaratu dira. Ez da zilegi, beraz, «denbora-pasa eta libertimendu moduan» aurkeztea hurbilketa teoriko bat, hain zuzen gure ustez nazioarteko dialektologiak xx. mendean eman duen salto kualitatibo handiena denean. Horren berme dira Hans Goebel, John Nerbonne, Fumio Inoue, Edgar W. Schneider, William A. Kretzschmar, nazioarteko dialektologo famatuenetakoak, edo J. Veny, P. García Mouton, I. Fernández-Ordoñez, X. Sousa, M. González, E. Carrilho hurbilagokoak. Ez dugu uste kritikaren autoreak aski argumeturik eskaintzen duenik zalantzan jartzeko dialektologo hauen guztien ikerbidea eta urteetako jarduna.

- (21) *abárka*, *akúllu* (akuilu), *améntal* (amantal), *arráusi*, *árrutza* (arrautza), *árte*, *ártesi* (guraize), *ásau* (urrun), *átze*, *áurre*, *áusi* (zaunka), *áyes* (agi danez), *bárre*, *bekóki* (kopeta), *bélarri*, *berákatz* (baratxuri), *béste*, *bílle* (bila), *bítxi* (gauzatxo polita, jostailu), *égo* (hego), *égi* (egia), *egúski*, *elástun* (eraztun), *énda* (arraza), *éra* (era), *erréka* (erreka), *espána* (ezpain), *gáne* (gain), *gángil* (ganoragabekoa), *gánora* (funts), *górantzi* edo *gorántzi* (eskumuin), *górta* (korta), *íntxor* (intxaur), *inúrrri* (txingurri), *irrintzi*, *kárra* (korrika), *karrámarro*, *katíllu*, *kútxa*, *láya* (*laia*), *lánda*, *lapíko* (eltze), *madári* (udare), *mái* (mahai), *mallúki* (marrubi), *mámarro* (zomorro), *matráil* (masail), *nagósi*, *óndo*, *órdu*, *órrotz* (orratz), *osála* (txerri janaria), *óste*, *otzára* (zaran), *sági* edo *sagi* (zahagi), *sálle* (sail), *sarrántza* (txarrantxa), *subéte* edo *suéte* (sukalde), *súnda* (sunda), *tálo*, *txístu*, *úkondo*, *úrdai*, *úsaba* (ugazaba), *yarámon* (jaramon), *txirpillóta* (tximeleta), *yústuri* (tximista).

Zerrenda horretan izenak dira ia guztiak (gehi adjektibo, aditzondo eta mugatzaile funtzioko bakan batzuk). Sartu egin dira elkartu edo eratorri izaera susma dakiekeen hitz batzuk (adibidez, *intxor*, *karrámarro*, *subéte*, *úrdai*, *úsaba*). Bestalde, ez ditugu sartu adierazkortasun bereziko testuinguruetan erabili ohi diren euskal hitz batzuk. Hurrengo atalean aipatuko dira eta beste 20 bat dira. Aditzik ere ez dugu sartu zerrenda horretan, eta hemen doaz:

- (22) *asárratu* (haserretu), *érein* (erein edo eragin), *éron* (eraman), *érontzi* (erantzi), *ikératu* (ikaratu), *iribiotu* (irabiatu), *iríki* (irakin), *itxédon* (itxaron), *ixertu* (itxartu), *yáusi* (erori), *yáyo* edo *yayo* (jaino).

Baliteke (21) eta (22) sail horietako hitz batzuen azentuduntasuna azaltzeko elkarketa edo eratorpen izaera aurkitu ahal izatea (*érein*, *érontzi* etab.; horregatik ez da aipatu *irékatzi* ‘irakatsi’), baina ez da agerikoa eta, hortaz, berez dira azentudun, oraingoz dakigunagatik.

2.5. Hitz azentudun adierazkorrak

Bada hitz azentudunak ageri diren azken eremu bat aipatu ditugunez gain (maileguak, elkartuak, eratorriak, zenbait flexio-atzizkidunak): balio adierazkorra ikus daiekeen hitzetan sarri ageri dira hitz azentudunak. Esate baterako, honelakoak:

- (23) Esklamazio batzuk: *áupa*, *ái ene*, *áiko* (kontxo), *ára* (begira), *árre*, *áutzi* (tori), *biénke* (benetan), *éne* (kontxo), *érdu* (hator, zatoz), *ía* edo *ía ba* (ea ba), *kóntus* (kontuz), *listo* (kitto), *májo* (ederki), *óspa* (alde —egin—).

Azentuera hau ez duten esklamaziozko hitz gutxi batzuk ere badira: *gero* (adib. *Kóntuz gerò!*), *kitu* ‘kitto’ (adib. *Yón dire ta kitù, bake sántu!* ‘Joan dira eta kitto, bake santua’), *sapi* ‘zapi’ (adib. *Sapì katù!* ‘Zoaz (hemendik) katua!’).

- (24) Haur hizkerako hitzak. Balio adierazkor berezia dutela esan daiteke, haurrei hitz egitean erabiltzen den zenbait azentudun hitzez ere: *kúku*, *lóló*, *ápa*, *ápatxe* (esklamaziozkoetan ere aipatua), *txálo-pintxálo*, *txétxe* (‘sein, haurtxo’).

Beharbada hitz adierazkorren eremuan sartzekoak dira burlazko edo irainezko hitz batzuk ere: *pápau*, *kókolo*, *tónto* mailegua.

Adierazkortasun bereziko hitzen begirada honetara ekarriko dugu azentua espero ez den lekuan erakusten duen beste hitz mota bat: pertsona-izen bereziak. Nabarrena da Getxoko euskaldunen ahotan —eta beste hainbat inguruetakoenean— kristau-tradizioko izenak (*Anton*, *Maria*, *Jose*, *Jesus*, *Dolores* eta beste asko) lehen silabako azentuz ahoskatzeko dagoen joera: *águstín*, *ánton*, *bátiste*, *dólores*, *jábier*, *júlian*, *nikolas*, *rámon*, *piéda(d)* eta beste entzun daitezke, adibidez. Deigarri egiten da ahoskera hau, besteak beste, kasu askotan erdaraz azentua beste muturrean doalako. Ahoskera hau euskaraz hitz egitean erabiliko dute Getxoko hiztunek. Gazteleraz hitz egitean, ordea, erdal azentuera erabiliko dute (*antón*, *dolóres*, *agustín*, *piédád* etab.). Badira, ordea, halako izen batzuk gazteleraz hitz egitean eta euskararen eremu osoan lehen silabako azentuz esaten direnak: *jóse*, *jésus*, *mári*. Azentua izenaren hasieran kokatzeko joera hau bat dator hitz adierazkorren adibideetan ikusi dugunarekin eta, hortaz, hasierako silaban azentua ezartzea adierazkortasun-marka modukoa izan daitekeela pentsarazten du. Azentu hau ez litzateke, horrela ikusita, morfologiako eragiketa bategi gidatutakoa, ez eta maileguetako jatorrizko azentuaren kokalekuak eragindakoa. Ikuspegi hau sendotu egiten da ikusirik *Dónjuan* moduko ahoskerak entzun daitezkeela (*Don Juan* hau Getxoko apaiz bat zen); alegia, ikusirik lehen silabako azentu hori ez zaiola izenari berari ezartzen, ezpada esakunearen lehen silabari. Gaztelaniako osagaiduna den beste adibide bat ere badu entzuna, esklamazio arlokoa: *cúidau gerò!* (edo eusk. *kóntuz gerò! / gatz. ojo (con eso!)*). Beste horrenbeste suma daiteke goian hitz adierazkorren adibideetan ikusi dugun *ái enè!* esklamaziotik kanpo entzuten deanean *ene* hitza (izenordaina): bakarka esanik, *éne!* ahoskatzen da, azentua lehen silaban duela. Era horretara begira dakiok *ára!* esklamazioari ere: izatez toki-adizlaguna dugu (*hona*, *horra*, *hara* sailekoa), eta Getxon azentugabea da, bai adizlaguna eta bai adlatibo atzizkia (*onà!orrà!arà yón dirèz* ‘hona/horra/hara joan dira’), baina lehen silabako azentuz ahoskatzen da esklamazio funtzioan. Adierazkortasun-ezaugarri dirudien azentu hori, horrela ikusita, esaldien intonazio arloko ezaugarria izan liteke.

Deiturek, ordea, beste alde batetik jotzen dute. Ez dugu erdal pertsona-izenetan ikusi dugun azentu lehenkaria ikusten deituretan. Euskalkia hitz egiten dutenek aipatu berri dugun joera dute erdal izenei jatorrizko azentuera eraldatzeko, baina alderantziz jokatzeko dute deituren kasuan: euskal deiturak erdal azentuz (paroxitono bihurturik) ahoskatzeko joera da nagusi, erabatekoa ez bada: *Goicoechéa*, *Madariága*, *Beascoechéa*, *Cortabitárte*, *Menchacatórre* eta beste hainbat ahoskatzen diren era ez dator bat Getxoko euskararen gainerako hitz motetan ikusi ditugun azentu-joerekin. Joera horien arabera hirurotako bat esperoko genuke: edo hitz elkartuen arauaren arabera kokatzea azentua (lehen osagaiaren silabaren batean; adib. *Goikó(e)txe(a)*), edo azenturik gabe ahoskatzea izena (*Goiko(e)txè(a)*) leku-izen askoren moduan (ikus hurrengo paragrafoak), edo, beharbada, hitz adierazkor tankean ahoskatzea (erdal pertsona-izen asko bezala), azentua lehen silaban dutela (*Góiko(e)txe(a)*).

Getxoko bertako baserri-izen batzuei begiratuz gero, azentuera-arau horien arabera ahoskerak aurkitzen ditugu sarri (bai erdal tankerako ahoskerak ere). Esaterako *Maidagan(e)* toki-izenetik *Maidanè* baserria dugu; (*Sarri*)*beaskoetxea* izenetik (Gorrotxategi 2010) *Beskotxè* baserria dugu (genuen); idatzi zaharretako *Dendariena* baserriari herriak *Dendariñè* deitzen zion; *Moreaga* baserriari, *Moreà*; *Mimenaga* izenekoari, *Mimenà*; erdal izeneko *Villaverde* baserriari ere *Billaberdè*, azentugabe gisa, euskal izen asko bezala; Algorta auzoko *Tellaetxe* izen elkartudun baserriari, berriz, *Tálletxe*; ildo beretik, *Zientoetxe* baserriari, *Ziéntotxe*; *Jauregi* baserriari, *Yáuri*, eta abar. Lanketa gehiago merezi duen eremua da baserri-izenen eta toki-izenen azentua, oro har.

Izen berezien berri emate hau —eta lan hau— bukatzeko, herri-izenak ere aipatuko ditugu. Haien kasuan ere euskalkiko azentuera ez dator bat gaztelerakoarekin, herri-izen gehienak azentu gabeko hitz gisa ahoskatzen direlako. Getxo inguruko herri batzuk honakoak dira erdal ahoskeraz esanda (adierazirik doa azentuaren kokalekua): *Gétxo*, *Berángo*, *Sopelána*, *Barríka*, *Urdúliz*, *Lejóna*, *Erándio*, *Munguía*, *Laukíniz*, *Gatika*, *Butrón*, *Barakáldo*, *Portugaléte*, *Sondika*, *Lújuu*. Bertoko euskaraz hitz egiten duen getxoztar batek honela ahoskatuko ditu «Nora zoz?» galderari erantzun behar badio (adlatiboan aipatuko ditugu, beraz, hitzaren azentugabetasuna ondo nabaritu dadin): *Getxorà*, *Berangorà*, *Sopelarà*, *Barrikerà*, *Urduliserà*, *Leyoarà*, *Erandiorà* (edo *Erandíora*), *Mungirè*, *Laukiserà*, *Katikerà*, *Butroirè*, *Barakaldorà*, *Port(u)alterà*, *Sondikerà*, *Loyurè*. Hau da, azentugabeak dira izen horiek guztiak, eta bukaerako azentua aipatua dugun azentu prosodikoa da, talde fonologiko guztiek Getxon azken silaban hartzen dutena. Badira, bestalde, euskaraz ere azentudun diren herri-izen batzuk: *Aréata* (*Las Arenas*), *Bílbo*, *Pléntzi*, *Santúrtzi*, *Séstao*; eta ahoskera bat baino gehiagoz entzun daitezkeen batzuk: *Erandiò*/*Erandío*, *Deriò*/*Derío* (hiztunak diptongoz ala gabe ahoskatzearen arabera).

Ezin daiteke «euskal» ahoskerarik edo azentuerririk entzun edozein herri-izenekin, ordea: euskal eran ahoskatzen dira auzo herriak, edo behintzat auzokotzat hartzen direnak; bertakoentzat erreferentzia diren herriak, azken batean. Badira inguru horretatik kanpo ere getxoztar batek sarri entzun edo aipatuko duen herririk, eta halakoentzat ere bertako ahoskera dago. Hemen batzuk: *Gernikè* (*Gernikerà*), *Lekeitiò* (*Lekeitiorà*), *Lesamà* (*Lesamarà*), *Durangò* (*Durangorà*), *Berméo* (baina *Bermeorà*),

Mondragón (Mondragoirè), Bitori (Bitorirè), Pamplonà (Pamplonarà), Sánsebastian (Sánsebastianerà), Riojà (Riojarà), Madrillè (Madrillerà), Parisè (Pariserà),¹² Erromà (Erromarà), Frantzì (Frantzirè), Inghlaterra (Inghlatterarà). Gainerako izenak gaztelar azentueraz entzungo dira: *Arrigorriàgara, Murgíara, Otxandiánora, Órora, Renteríara*, etab., eta *Búrgosera, Salamáncara, Itáliara, Alemániara, Benesuélara, Améri-kara* etab.

Adibide hauetatik atera daitekeena da toki-izenek izen arruntek betetzen dituzten azentuzko arau beren arabera hartzen dutela azentua, betiere hiztunek beren unibertsoko izen gisa ahoskatzen badituzte. Pertsona izenek, berriz, azentuera berezia erakusten dute, lehen silaban azentua daramatela (edo joera dutela, behintzat), beste mota batzuetako hitz adierazkorren antzera.

3. Laburbilketa

Lanean berezko azentua —azentu lexikala, morfema-konbinazioz sortu gabea— duten hitzei begiratu zaie, lau multzotan antolatuta: mailegu berriak, mailegu zaharrak, aditz mailegatuak, euskal jatorriko hitz azentudunak. Multzo guztien adibide sorta ona aipatu da, eta ez da adibide askoz gehiago aurkituko kasu batzuetan (esaterako, euskal hitz bakun azentudunen adibideak). Honela ikus daitezke, begirada batean, esandakoak:

— Mailegu berrien azentua (gaztelania jatorri):

- Erdal oxitonoen emaitza: mailegu azentugabea (adib. *kordelà, abilidadè, baloià, diputasiñò, autobusè*). Adibide bereziak, azentua galdu ez dutelako: *edáde, káfé*.
- Erdal proparoxitonoen emaitza: mailegu azentuduna (adib. *ánimu, jénero, kántiku* etab.). Adibideak ez dira asko.
- Erdal paroxitonoen emaitza: gehienetan (% 70), azentuduna (adib. *bolandéra, erretrátu, libru, lénte* etab.). Azenturik gabe edo azentuz entzun daitezke batzuk (adib. *bánku, ermíta, kalentúra, kóru*). Azenturik gabe beti beste batzuk (adib. *apellidü, areà, armosü, besegü*). Adibide bereziak, azentuaren kokalekua aldatu dutelako: *móradu, pátata, támañu, tómate, táberna, bástoi, bálkoi*.

— Mailegu zaharren azentua (gaztelera zaharrekoak edo latinekoak): ugarixeago dira azentua galdu dutenak, baina asko dira gorde dutenak ere. Azentudunen adibideak: (*d*)*ámistiku, dénpora, písti, titéra, yántza*. Azentua galdutakoan adibideak: *armosü, espatà, gorpütz, legè, porriü*. Azentuaren kokalekua aldatu bide dutenak: *ásosi, ingyru, makállau, orío*.

¹² *Madril* eta *Paris* moduko adibideez, hasiera batean, pentsa liteke mailegu oxitonoetan gertatzen den azentugabetzea dugula, besterik gabe, baina aintzat hartu behar da exotikoak diren toki-izen oxitonoak ez direla nahitaez ahoskatzen azentugabe gisa. Adibidez, Pakistan → *Pakistanerà* edo *Pakistánera*; Kuwait → *Kuwaiterà*/*Kuwáiterá*; Hong Kong → *Honkonerà*/*Honkónera*, etab. Hortaz, *Paris* eta *Madril* izenak auzo-herri gisa ahoskatzen dira azentuaren aldetik ere.

- Mailegatutako aditzak: aditz mailegatuen iturria gaztelerako infinitiboa da, eta, maileguzko izen oxitonen erara, azentua galdu egiten dute euskaraz:
- *-ar* infinitibotikoak: *altzà, pisà, probà, topà* etab. (salbuespenak: *sálta, bóta*).
 - *-er* infinitibotikoak: *ledù, entenù, mobù, koxù; detenidù, sostenidù, mogidù*.
 - *-ir* infinitibotikoak: *abrosù, elejù, kunplù, medù; diskutidù, inprimidù, serbidù*.
- Salbuespen orokor dira, aditz mailegatuen azentu-galeran, hiru silabatik gorako erdal *-ar* maileguak. Horiek azken aurreko silaban hartzen dute azentua euskaraz: *akába, akórda, armósa, barrúnta* eta beste asko.
- Euskarazko hitz azentudunak:
- Izen kategoriakoak dira ia denak (70etik gora aurkitu dira): *árrutza, ártesi, átze, áurre, bélarri, gáne, gánora, górantzi, íntxor, inúrri, mái, óndo, úrdai, yústuri* etab.
 - Bereiz zerrendatu dira aditz azentudunak (10 bat): *éron, iriki, itxédon, íxertu, yáusi* etab.
- Euskal hitz azentudun adierazkorrek: bereiz zerrendatu dira balio adierazkorrez erabiltzen diren hitzak, galde daitekeelako erakusten duten lehen silabako azentua berezkoa ote den ala hitzaz gaindiko eremu bateko prominentzia-esleipen baten ondoriozkoa (intonazio eremuko, alegia). Ikuspegi hau aintzat hartuz garamatzaten adibideak aipatzen dira, hala nola ‘nire’ izenordainaren eta ‘hara’ toki-adizlagunaren azentuera bikoitzak getxoeraz: hurrenez hurren, *énelenè* eta *áralarà*. Haur-hizkerako adibide batzuk ere aipatzen dira (gehienak lehen silabako azentudunak) eta auzira ekartzen da erdal pertsona-izenen kasua ere, halakoak lehen silabako azentuz ahoskatzeko joera bat dagoelako (*ánton, nícolas* etab.).
- Bukatzeko, eta izen berezien gaia osatze aldera, pertsona-deituren kasua eta Getxoko toki-izenena eta inguruko herri-izenena aipatzen da, azentua euskal ala erdal eran kokatzearen ikuspegitik.

Bibliografia

- Arbelaz, Juan José. 1978. *Las etimologías vascas en la obra de Luis Michelena*. Tolosa: Karda-beraz.
- EHHE* = Lakarra, Manterola & Segurola (2019).
- FHV* = Mitxelena (1977).
- Gaminde, Iñaki. 1999. Bakioko azentuaz. *FLV* 80. 73-94.
- Gorrotzategi, Mikel. 2010. *Getxoko izenak*. Getxo: Getxoko Udala, Euskara Zerbitzua.
- Hualde, José Ignacio. 1989a. Acentos vizcaínos. *ASJU* 23(1). 275-325.
- Hualde, José Ignacio. 1989b. Otro acento vizcaino: Getxo. *ASJU* 23(3). 809-817.
- Hualde, José Ignacio & Xabier Bilbao. 1992. A Phonological Study of the Basque Dialect of Getxo. *ASJU* 26(1). 1-117.
- Hualde, José Ignacio, Gorka Elordieta & Arantzazu Elordieta. 1994. The Basque Dialect of Lekeitio. *ASJU* 34(1). 1-314.

- Lakarra, Joseba, Julen Manterola & Iñaki Seguro. 2019. *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia. www.euskaltzaindia.eus/ehhe (2023/11/15).
- Mitxelena, Koldo. 1977. *Fonética histórica vasca*. 2. argit. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia (1. argit., 1961; berrargit., 1990).
- Mitxelena, Koldo & Ibon Sarasola. 1987-2005. *Orotariko Euskal Hiztegia / Diccionario General Vasco*, 16 lib. Bilbo: Euskaltzaindia (10. argit. elektr. 2022: <http://www.euskaltzaindia.eus/oeh>).
- OEH = Mitxelena & Sarasola (1987-2005).
- Trask, Robert Lawrence. 2008. *Etymological Dictionary of Basque*. Falmer: University of Sussex. Max W. Wheelerek sarean argitaratzekoko editatua. <http://www.sussex.ac.uk/english/documents/lxwp23-08-edb.pdf> (2023/10/22).
- Zuazo, Koldo & Urtzi Goiti. 2016. *Uribekosta, Txorierrri eta Mungialdeko euskara*. Bilbo: UPV/EHU.

Lapurdikoko mintzoen aurkezpen dialektologikoa¹

A dialectological introduction to Lapurdian forms of speech

Iñaki Camino*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: There are several constellations of innovations surrounding the province of Lapurdi in the geography of the Basque language. Anyhow, not all Lapurdians speak the same, there is a difference from one region to another; furthermore, there are some areas of innovation even within the province. In this session, I would like to present an outline of them. I would like to expose a detailed view of Lapurdi's innovations and I will show which areas of innovation belong to the various new language variants of the province: some are widespread, but others, on the contrary, are used in a smaller region. I will also briefly talk about the chronology of the characteristics of the dialect that is often called Navarrese-Lapurdian.

KEYWORDS: Speeches from Lapurdi; Regional endemic innovations; Navarrese-Lapurdian dialect.

LABURPENA: *Lapurdi inguratzen duten berrikuntzen konstelazio franko dago euskararen geografian, baina lapurtar guztiak ez dira berdín mintzatzen, eskualde batetik bestera aldea dago, badira berrikuntza-eremuak Lapurdi barrenean ere, eta horien eskema aurkezten dut saio honetan. Ikuspegi xehea dakart Lapurdikoko berrikuntzez eta erakusten dut zein berrikuntza-eremutakoak diren Lapurdiko hainbat eta hainbat hizkuntza-aldaera berri: batzuk hedadura handikoak dira, baina beste batzuk eskualde tipikoan baliatzen dira. Nafar-lapurtarra deitu ohi den euskalkiaren ezaugarrien kronologiaz ere mintzo naiz llabur.*

HITZ GAKOAK: *Lapurdikoko mintzoak; eskualdeko berrikuntza endemikoak; euskalki nafar-lapurtarra.*

¹ Ikerlan honek bi egitasmoren laguntza bildu du: 1) Monumenta linguae vasconum (VI): Avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca. MEC: PID2020-118445GB-I00. 2) Lingüística Diacrónica, Tipología e Historia del Euskera. EJ: IT1534-22.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Iñaki Camino. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila - Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitatean ibilbidea, 5 (01006 Gasteiz). – inyaki.camino@ehu.eus – <https://orcid.org/0000-0002-1852-174X>

Nola aipatu / How to cite: Camino, Iñaki (2023). «Lapurdikoko mintzoen aurkezpen dialektologikoa», *ASJU*, 57 (1-2), 183-207. (<https://doi.org/10.1387/asju.25949>).

Jasoa/Received: 2022-10-31; Onartua/Accepted: 2023-01-13.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago

1. Lapurdiko euskara ez dago bakarturik

1.1. Lapurdin gaindi berrikuntzen bidez zein isoglosa-sorta finkatu diren adierazten dut dialektologiaren ikuspegitik, nahiz ez daitekeen aise jakin historian zehar nolaz joan diren garatzen; izan ere, berrikuntza ugari aurrehistorikoak dira eta testu zaharren eskasa dugu Lapurdi barreneko eskualdeetan. Lehen-lehenik nahi dut adierazi «Lapurdiko euskara» vs. «Baxenabarreko euskara» terminologiak itotzen bezala dituela «Ipar Euskal Herriko barnealdeko euskara»ren egituraren eta izaeraren *ñabardurak*, zeinek «Lapurdi mendebaleko euskara» / «Lapurdi erdialdeko euskara» / «Lapurdi ekialdeko euskara» eta «Baxenabarre mendebaleko euskara» adigaiak lagun, hobeki argitzen ahal baitituzte Ipar Euskal Herrian hondarreko mendeetan gertatu diren hizkuntza-berrikuntzen ibilera geografikoak, Lapurdiko mintzoek elkarrekin dituzten erlazio, batasun edo etenak, eta baita mintzo horien nortasuna eta izaera ere.

1.2. Lapurdiko berrikuntza guztiak ez dira Lapurdin sortu, guztiak ez dira lapurtarren berrikuntza endemikoak —lapurtarrek baizik baliatzen ez dituztenak—, eta guztiak ez dira Lapurdi guztian gaindi hedatu. Euskararen berrikuntza-eremu batekoak baino gehiagokoak direnez, Lapurdiko berrikuntzen eremuak dakartzat taula honetan, bakoi-tzaren hedadura-eremuaren arabera. Adierazi dut testuetan zein mendetan ageri den.

Euskal Herriko ekialde zabalean; cf. Camino (2022: 197-230)	— polaritate negatiboko izenordain zehaztugabeen <i>n-</i> : <i>nehor...</i> (xvi) — iraganeko Nor aditz trinkoen hasierako <i>nin-</i> , <i>hin-</i> , <i>gin-</i> , <i>zin-</i> : <i>nindabilan</i> , <i>ginabiltzan...</i> (xvi) — 60, 70, 80, 90 zenbakien izendapen berria: <i>hiruretan hoge</i> (xvii)
Euskal Herriko erdialde murriztean	— pertsona-izenordain hanpatu berriak: <i>neroni...</i> (xvi) — 3. pertsonaren datiboko <i>ote</i> morfema plurala: <i>zaiote</i> ‘zaie’ (xvii)
Euskal Herriko eskuinaldeko eskualde zabalean	— iraganeko <i>tempuseko</i> adizki trinko analogiko <i>a-</i> dunak: <i>zagoen</i> ‘zegoen’, <i>zabilan</i> ‘zebilen’ (Etxeparek eta Leizarragak xvian)
euskalki nafar-lapurtarreen ²	— mailegu-hitzen <i>-oin</i> bukaera: <i>arrazoin...</i> (xvi) — <i>-ño</i> atzizki txikigarria, Lapurdiko itsas hegira heldu ez dena (Duhalde 2023: 131): <i>haurño</i> , <i>irriño...</i> (xix) — kausatiboaren kutsuan edo garaia nahiz gertaera adierazteko <i>kari</i> / <i>karia</i> / <i>kari(az)</i> / <i>karietara(t)</i> ibiltzea (xvii) ³ — <i>-xet</i> aldaera indartu berranalizatua (xix)
Gipuzkoan eta Lapurdin	— Lapurdiko itsas-hegiko eta Gipuzkoako <i>zka</i> pluralgilea, Lapurdin <i>jakin</i> -en trinkoetaraino heldurik: <i>dakizka</i> ‘dakizki’ (xviii)
Lapurdiko eta Nafarroako eskualde batzuetan	— <i>-(t)zi</i> pluralgilea: <i>goazi</i> ‘goaz’ (xvii) — pluraleko erakusleen zehar-kasuen aldaera berriak: <i>hoken</i> ‘hauen’ & <i>haukien</i> , <i>beken</i> ‘haien’ & <i>bekien</i> (xvii)
Lapurdi barnean	— Hazparnealdeko <i>i</i> pluralgilea * <i>eradun</i> -en: <i>zinaitala</i> ‘zenizkidala’ (xviii) — iraganeko adizkien <i>n</i> analogikoa Hazparneko eskualdean: <i>zangon</i> ‘zegoen’, <i>zaingola</i> ‘zizkiola’ (xviii)

² Palatalizazio-maila apala ez da nafar-lapurtareren tasun definitzaile egokienetarik: *i* ondoko ozenak Lapurdiko itsas hegian eta Bardozen palatalizatzen dira eta Baxenabarreko ekialdean, berriz, Amikuzen, Landibarren eta Oztibarren; Garazin ere hein handian. Despalatalizazioaren azterketa geografiko xehetua behar dugu jakiteko ea Lapurdiko eta Baxenabarreko eskualde guztietan hein berekoa ote den.

³ Lapurdin Axularrek eta Harizmendik *kariaz* dakarte xvian, baina xviiatik beretik ageri da *ariaz* aldaera usu, bereziki Lapurdin; orobat, Baxenabarren Gotzon Garatek *karietarat* (Aiherra) eta *zela karia*

1.3. Arestiko taulan Lapurdiko euskara ez da bakarturik ageri: berrikuntza batzuk ditu ez baitira Lapurdi guztira hedatzen, baina erakusten ere digu badituela beste berrikuntza batzuk Ipar Euskal Herriko eskualde batzuekin edo guztiekin partekatzen dituenak, eta badirela beste tasun berri batzuk Lapurdin, ondoko Nafarroako eta Gipuzkoako euskaldunekin partekatuak, eta baita Euskal Herriko erdiguneko jendeekin onduak ere.

2. Muga dialektalak Lapurdi barrenean

2.1. Ez dago bere-berezko ezaugarri berri sistematikoen sail bat Lapurdin baizik ez dena eta Lapurdi guztia harrapatzen duena, baina badira barne-bereizketak Lapurdin.⁴

2.2. Irtenbide duina da Lapurdiko mintzoak eskualdeka aztertzea, betiere Ipar Euskal Herriko euskararen ezagutzaren talaiatik so eginez; izan ere, badira bi eskualde aski urruntzen baitira erdiguneko Lapurdiko eremu homogeneoenetik, eta preseski, saihetsean dira biak: hizkuntza-ezaugarri berri arras markatuak dituzte eta haien tasun berezienak ez dira Lapurdi gehienean ibiltzen. Bi mintzoetarik bata itsas hegikoa da, Hego Euskal Herrira so baititu ezaugarri berri batzuk, Gipuzkoa edo Nafarroara, ez baitira Ipar Euskal Herriko mintzoetan beste inon ageri. Lapurdiko bigarren eskualde berezia ipar-ekialdean da, kaskoina eta euskara elkartzen diren Aturrialdean, gehienik Bardozen.

2.3. Hondarreko mendeetan Lapurdiko eta Baxenabarreko mintzoek bateratze-prozesu bat ukan dute, eta baldin bateratze horrek euskalki nafar-lapur-tarraren sorrera eragin badu, pentsa daiteke gizarte-oinarri bat edo bi herrialdeetako jendeen arteko harreman hertsia gertatu dela, baina gizarteko eta hizkuntzako errealitate hau isla lezaketen ezaugarri berri gramatikal sendoak ez dira ugari, ezta zaharrak ere. Historiaurrekoa da hitz hasierako *x-*, ondoko mintzoetan *tx-* dena: *xakhur*, *xerri*, *xilintxau* ‘zintzilik’, *xirula*, *xitxi* ‘haragia’, *xoko*, *xori*, *xuri*... Hego Euskal Herrian eta peko Erronkari eta Zaraitzuko ibarretan bezala, zuberotarrek *tx-* egiten dute, baina Mitxelena zioen (1977: 191) baita *x-* ere, bai kide ez palatalizatua duelarik (*xáball/zábal*) bai ez duelarik: *xabū* ‘xaboia’, *xáhal*, *xábū*, *xéde*, *xedé(r)a*. Litekeena da zuberotarren *tx-* hori berria izatea, Ipar Euskal Herri guztiko *x-* tasunaren batasuna Zuberoan hautsi zukeena, nahiz ez dakigun xuxen honela izan ote zen, baina euskalki nafar-lapur-tarraren sorrera-garaia aztertzeo garrantzia du tasun honek.

2.4. Ipar Euskal Herriko barnealdeko euskaldunek —geografia-eremu horren barrenean dakuskigu Baxenabarreko eskualde ugari— eta artzain-gizarte sendoa izan diren eta oraino ere badiren zuberotarrek hizkuntza-ezaugarri berri bateratzaile ugari partekatzen dute elkarrekin, XIX. mendea baino lehenagoko liburu zaharretan ageri

(Landibarre) bildu zituen. Emile Larrek *karia* izena zerabilen (ОЕН). Zuberoan sekula ez da forma hau ibili, ez ahoz ez idatziz, baina J. L. Davantek diost hasia dela oraintsu idatzizkoan agertzen.

⁴ Konparazione, erakusle pluraletan kasu abs. eta erg.-aren bereizketa dago: berrizaturik, Larresoro eta ondoko herrietako euskaldunek erakusle pluraletak abs. eta erg.-etan *hawk* vs. *hau(i)ek* / *hoik* vs. *hoiek* / *hek* vs. *heiek* (& *hek*) darabiltzate. Aturrialdeko Beskoitzen ere bai: *hawk* vs. *hauek* / *hoik* vs. *hoiek* / *hek* vs. *heiek* (Duhau 1993: 47). Mugarren eta Urketan ere bereizketa dago (EHHA). Ahetzen (*auk* vs *hauek*) eta Itsasun (*hawk* vs *hauiek*) 1. mailan, baina bi herriotan EHHAk ez dakar bereizketarik 2. eta 3. mailatan. Hazpainen ez dago bereizketarik ez ein mailatan (Epelde 2004a: 287), ezta Bardozen ere (EHHA).

direnak, eta horregatik ere uler liteke nafar-lapurtarra ez dela errealitate edo euskalki zaharra, hondarreko garaian indartu den errealitatea baizik. Testuetan badira aspal-diagokoak diren ezaugarri berri bateratzaile franko, Zuberoan eta Ipar Euskal Herriko barnealdean baliatzen baitira: euskalki nafar-lapurtarra baino errealitate zaharragoia adieraz lezaketek.

2.5. Bonaparte printzeak Lapurdiko mintzoak elkarrengandik nola bereizi zituen eta lapurtera eta bi behe-nafarrerak nola funtsatu zituen jakiteko, Pedro Irizarren 1981eko lanera jo daiteke. Koldo Zuazok euskalki nafar-lapurtarra proposatzen du 1998tik, zeinaren baitan itsas hegiko mintzoak berezko nortasuna baitu. Eraiki duen mapan, Ahetze, Senpere, Ainhoa eta Sara arteko hizkuntza-eskualdeak nafar-lapurtarren mendebaleko aldaera eratzen du. Aldiz, Aturrialdea eta Hazparnealdea nafar-lapurtarren ekialdeko aldaeran dakuski. Dialektoaren mendebaleko eta ekialdeko aldaeren arteko hizkuntza-eskualdea eratzen du Lapurdiko erdiguneak, barrenean hartzen baititu Basusarri, Arbona, Arrangoitze, Milafranga, Uztaritze, Jatsu, Larresoro, Zuraide, Ezpeleta, Haltsu, Kanbo eta Itsasu herrietako mintzoak. Eredu hori xeheki aztertu zuen Irantz Epeldek eta Uztaritze-Larresoro eskualdeko mintzoa Hazparnealdekoarekin alderatu zuen, erakutsi baitzuen alderdi batetik bestera aldaketak eta berrikuntzak *continuum* batean gertatuz doazela (2003, 2004a, 2004b). Lapurdi barrenean ezaugarri desberdintzaileek ez dute ukipengune errepikatu bat eratzen, isoglosak ez dira guztiak elkarrengana eta gune bakar batera biltzen, horregatik, Bonapartek egin zituen bezalako Lapurdi barreneko muga dialektal kualitatibo eta kategorikoak ezartzea ez da aise.

3. Lapurdiko euskara hedadura handiko berrikuntza-eremuen barrenean

3.1. Ipar Euskal Herri guztiko berrikuntzak Lapurdin

Aurkezten ditudan ezaugarriak Ipar Euskal Herrian sorturikako berrikuntzak dira, ez Euskal Herriko erdigunean sorturik gerora Ipar Euskal Herrira jo dutenak. Euskaldun lapurtarrek darabiltzate, baina Ipar Euskal Herri guztian ibiltzen dira. Labur beharrez ez dakart ñabardurarik, xehetasun gehiago nahi duenak Camino (2022) liburura jo dezake.

1. sudurkari aitzineko <i>o > u</i> aldaketa zaharra; Bidasoaldean eta Baztanen erakusleetan <i>un-</i>	2. Erronkarin eta Zaraitzun bezala, <i>zoin, zonbat, zonbait</i> saila; Zuberoan <i>zun-</i>
3. <i>zernahi</i> izenordaina, Lapurdiko liburuetan xvii. mendetik dagoena; Zugarramurdi, Luzaide, Aezkoa eta Zaraitzun ere ageri da	4. determinazio-sistema konplexua berriztatuturik (?) abs.-ko <i>batzu</i> —Zuberoan <i>batzü</i> —; cf. Manterola (2015: 528-532)
5. mugagabeen jokatzeko da <i>bat</i> determinatzaile zehaztugabea: <i>batetan...</i>	6. <i>ene</i> genitiboaren analogiaz <i>eni</i> datibo berria; Lapurdi mendebalean <i>neri</i> berria dago
7. espazioa nahiz denbora adierazteko <i>-ra buruz = -ri buruz</i> norabide adlatiboa	8. <i>gaindi</i> prosekutiboa; Zuberoan <i>gaini</i>
9. <i>-xet</i> aldaera indartu berranalizatua: <i>hanxet...</i> , Zuberoan <i>-xek</i> ; itsas hegitik eskuin doa Zaraitzu eta Erronkariraino, baina bai-gorriarek ez darabilte	10. «galdegaia + adizki laguntzailea + adizki nagusia» egitura hanpatzailea: <i>nausia zen joan gerlaat</i> Larresoron (Epelde 2003: 211)

11. <i>lagundu</i> Nor-Nork sailean jokatzeara: <i>gogo onez lagundu gintuzten beraz</i> (Zerbitzari)	12. <i>izan</i> eta <i>edun</i> -en baldintza irrealen aditz-izena ibiltzea: <i>-t(z)en balitz, balu...</i>
13. baldintzaren apodosia jatorriz ahalekoak diren adizkien bidez eratzea: <i>anglesa banintz, erran nezake</i> (P. Larzabal)	14. baldintzan aditz jokatu gabea + <i>-t(z)ekotz</i> baliatzea
15. erlatibozko perpausak atzizkirik gabe eratzea: <i>erran tenoreko jin tzen</i> Larresoron (Epelde 2003: 200)	16. <i>parenthetical</i> deritzan <i>omen</i> partikula ibiltzea; cf. Etxepare & Uria (2016: 273); Zaldubi senperrak honela dakar: <i>gero hau erran zion omen Birjinak Bernadetari</i>
17. <i>bainan / bena</i> aurkaritza perpausetan: <i>ez dut erran oilanda, bainan oiloa</i> (P. Larzabal)	18. murrizketa-perpausetan <i>baizik / bezik</i> : <i>ez dute jaten egunean eguneko poxia baizik</i> (Duvoisin)

3.2. Ekialde zabaleko berrikuntzak Lapurdin

Aurkeztu berri ditudan ezaugarriak Ipar Euskal Herri guztikoak diren aldetik, definizioz dira Lapurdikoak ere. Orain aurkeztuko dudak ezaugarri berrien sail hau, ordea, ez da beti Ipar Euskal Herri guztikoa izaten, Euskal Herriko ekialde zabalekoak baizik. Komunizki, Baxenabarren erabiltzen dira sail honetako ezaugarri berriak. Nafarroako ekialdeko hainbat alderditara sarbidea duten Ipar Euskal Herriko berrikuntzat ere definitzen ahal ditugu. Kasu batzuetan Zuberoan ere ibiltzen dira, baina beste kasu batzuetan berrikuntza ez da Zuberoara heldu. Berdin erran daiteke Lapurdiri dagokionez ere: tasun hauetarik batzuk Lapurdin ibiltzen dira, baina beste batzuk ez. Gainera, Lapurdin ibiltzen diren batzuk ez dira Lapurdi guztian baliatzen, eta beraz, horien kasuan ulertuko dugu Lapurdiko ekialdean badirela baina Lapurdiko mendebaleragoko eskualdeetan ez. Hona zein diren ezaugarri horiek:

1. genitiboko atzizkia <i>-a-ren</i> > <i>-a-in</i> laburtzea; cf. Epelde (2004b: 666)	2. ergatibo pluralean <i>-ek</i> ibiltzea; cf. Manterola (2015: 339, 362)
3. polaritate negatiboko izenordain zehazgabeetan <i>nehor, nehoiz, nehon / nihor, nihoiz, nihun</i> saila	4. <i>norna(h)i</i> izenordain zehazgabea; saileko beste kide batzuek (<i>nunahi...</i>) hedadura dute eta Hego Euskal Herrikoak dira ere
5. latineko mailegutan <i>-tione(m)</i> > <i>-zione</i>	6. <i>-etan hogoi / (h)ogei</i> erako zenbaki gorak
7. <i>ko</i> izen sintagma konparatiboetan: <i>lur eta ilbargiak baino handiagoko meta egiten zuten</i> (Hiribarren)	8. adberbio hanpatu errepikatuak mugatzaila darama bigarren atalean: <i>hola geldi-geldia egon gabe</i> (P. Larzabal)
9. aldizkakotasuna adierazteko ablatiboa: <i>zortzitik edo hamabortzetik larre urrunetara orgekin othe biltzera goan</i> (Duvoisin)	10. inesiboak adierazten du adina: <i>hil zen hirur hogoi eta hirur urthetan</i> (Larregi)
11. izenordain zehazgabeen aldaerak: <i>nornai, noiznai, nolantai, nunai, zernai / norbeit, noapeit, noizpait, nolazpait, nunbeit, zerbeit</i> , konparazione, Saran; cf. Zuazo (2018: 32)	12. aditz nagusiaren bukaerako <i>c -n</i> edo <i>-l</i> deanean <i>en</i> da etorkizuneko atzizkia

13. adlatiboa da aditz zenbaiten osagarria: cf. <i>utzi... ra</i>	14. datiboarekiko aditz-komunztadurarik eza
15. iraganeko adizki trinkoek <i>nin-</i> , <i>hin-</i> , <i>gin-</i> , <i>zin-</i> hasiera izatea	16. «aditz-izen inesiboa + <i>a(b)al</i> izen gramatikalizatua + adizki laguntzailea»
17. <i>(b)eldu izan</i> 'etorri'-ren balio puntukaria; Zuberoan <i>horra izan</i>	18. * <i>iron</i> -en erabilera ahalekoetan, emeki ahulduz badoa ere
19. <i>zue</i> morfemaren <i>zie</i> palatalizazioa 2. pertsonan; Lapurdin Aturrialdean baizik ez	20. denborazko perpausetan <i>larik: bear ezteilaik jinen da</i> (Epelde 2003: 206)
21. kausazko <i>lakotz</i> partikula	22. kausazko <i>bait</i> partikula
23. <i>bait</i> partikularen erlatibozko erabilera; cf. Larresoroko etsenplua: <i>Erreka non dago? Eben or pasatzen baitzia zubia, hor</i> (Epelde 2003: 199)	24. <i>uste + edun</i> edo <i>ustez eta</i> sekuentziak <i>-en</i> atzizkia darama: <i>badut uste ezten deus onik</i> Larresoron (Epelde 2003: 194); alta, Lapurdi mendebalean <i>-ela</i> ibiltzen da

3.3. Ipar Euskal Herri barneko berrikuntzak Lapurdin

Ipar Euskal Herriko barnealdean gauzaturik, Lapurdin edo Lapurdiko eskualde zenbaitetan badiren berrikuntzen saila dakart orain:

1. <i>-ua-</i> sekuentzian <i>u</i> palatalizatu da ⁵	2. <i>-ue-</i> sekuentzian <i>-ie-</i> palatalizazioa ⁶
3. bi lexemaren arteko mugan afrikazioa, txistukariak eratzen dituzten sandhi batzuetan ⁷	4. mailegu berriak ez diren hitzetan ere txistukari igurzukari ozenak bokalen artean
5. <i>vrhv > vvhv: ahotz</i> 'arotza', <i>gehezi</i> 'gerezia', <i>ihetsi</i> 'irentsi' Beskoitzen (Duhau 1993: 26); baita <i>v</i> artean trabari ahostunak aldatzea ere ⁸	6. Baxenabarren hedadura duen <i>hak</i> 'hark' Bardozen baizik ez dakar Lapurdin <i>EHHAk</i>
7. «aditz partiz. + mugatzailea»: <i>-a + a > aia:</i> Saran <i>botaia, gostaia...</i> (Zuazo 2018: 21)	8. datibo pluralean <i>-er</i> atzizki-aldaera Zuberoatik Lapurdi erdiguneraino
9. Lapurdiko erdialdean soziaz. <i>-kin</i> & <i>-kila</i>	10. adlatiboan <i>-(a)la</i> & <i>-(a)lat</i> aldaerak ⁹
11. zuhaitzen <i>tze</i> atzizkia Bardozen: <i>intzaurtze;</i> Lapurdi gehianean <i>-ondo</i>	12. zuketa eta xuketa Aturrialdean

⁵ Lapurdiko hegoaldea gordetzaila da, *ua* dago, eta itsas hegian *u(b)a*. Lapurdiko erdialde eta ekialdean *uia*, Aturrialdean barne, baina palatalizaturik bada *ia* ere Lapurdiko erdialde eta ekialdean. Bonapartek adierazi bezala, hazpandarrek *üa* ahoskatzen dute.

⁶ Alta, XIX. mendeko testuetan *ie > ii* aldaketa ageri da, Baigorrialderean eta Hazparne hiriaren artean lehenik, baina ezker-eskuin hedatuz joan da gero berrikuntza.

⁷ *serorak tzién* (Larresoro) / *kaalak tzién* (Makea) / *larreak tziénak* (Hazparne); cf. *EHHA*.

⁸ cf. Beskoitzeko *pohore* 'boterea', *zabal* 'zabala', *zehirri* 'zedarria' (Duhau 1993: 25-26).

⁹ Eskualde batzuetan hitz *-a*-dunei lotzen zaie *(a)la(t)*, baina beste batzuetan bokal orori. Manterolak *han* erakusleko bokala dakusa oinarrian: **han-la* (> **halla*) proposatzen du (2015: 260).

13. monoptongazioa <i>izan</i> , * <i>edin</i> eta <i>edun</i> aditzetan: <i>niz</i> 'naiz', <i>zite</i> 'zaitez', <i>gitu</i> 'gaitu'; cf. Epelde (2004b: 674)	14. <i>zaut</i> 'zait', <i>zaun</i> 'zain'... Lapurdiko ekialdean; itsas hegia eta Ainhoa arteko eskualdean, berriz, <i>zait</i> , <i>zaiku</i> ... (Irizar 1997)
15. Bardozen eta Baxenabarren <i>izan</i> -en <i>-nd-</i> & <i>-nt-</i> : <i>ginden</i> 'ginen', <i>zinden</i> , <i>xinden</i> ...	16. (<i>e</i>) <i>lakoan</i> atzizkia kausazkoetan
17. <i>a</i> morfema <i>baitez</i> galdera perpausetan	18. (<i>e</i>) <i>n-ez</i> zehargalderetan
19. baldintzan eta moduzko perpausetan <i>en ber</i> konjuntzioa: <i>tenorian arribatzen den ber bardin zatak</i> (Bardoze, EHHA)	

3.4. Ipar Euskal Herriko ezaugarri berrien geruza kronologikoez

3.4.1. Geografia-hedadura iduria duten hizkuntza-osagaien garaia edo denbora-sekuentzia aztertzeko, aprioriko halako ikuspegia dakart, taula batera lau sail geografiko ekarririk, lekurik ezaz zuberotarren berrikuntza endemikoak taularatu gabe. Zuberotar-erronkariarrek partekatu dituzten berrikuntza eskusiboak zaharrak izan daitezke, baina Zuberoako berrikuntzen beste sorta bat ekialde zabaleko sailari dagokio: ekialde hertsiko endemikoak ez diren Zuberoako berrikuntzak dira horiek, ekialde zabalekoak.

3.4.2. Ipar Euskal Herri guztiko ezaugarri berriek denbora behar izan dukete eremuko bazter guztietara heltzeko. Zaraitzu eta Erronkariko mintzoak Ipar Euskal Herriko berrikuntzen ohiko eragin-eremua direnez, ez da harritzeko Ipar Euskal Herri guztiko berrikuntzak bi ibar horietan agertzea, baina Ipar Euskal Herri guztiko berrikuntzak ez badira Nafarroako ekialdeko zenbait ibarretara heldu, eman dezagun, Eguesibar, Artzibar, Aezkoa, Erroibar Esteribar edo Baztanera, ez lukete antzinatasun handirik ukan beharko, ulerturik espainiarrek XVI. mendean Ipar Euskal Herriaren eta Nafarroaren arteko muga gotortu zutela eta ondotik iparretik ekialdeko nafarren mintzora berrikuntza gutiago iragan «zatekeela». Teorikoki, Nafarroako ekialdeko ibarretara heldu ez diren Ipar Euskal Herri guztiko ezaugarri berriek ez lukete arraz zaharrak izan behar. Badira, bestalde, Ipar Euskal Herriko berrikuntza batzuk, hondarreko garaian Ipar Euskal Herri guztira hedatu baitira, baina Hegoaldera iragan gabe. Frantsesaren eraginez gertaturik, hondar garaioak dira baitezpada, eta ez ditut horiek taularatu.

3.4.3. Ekialde zabalaren hizkuntza-ideiak iradokitzen duen garaia da Frantzia eta Espainia arteko muga politiko-administratiboaren eraginak egun bezainbat indar ez zuena, Ipar Euskal Herriaren sortu berrikuntzak Nafarroako ekialdeko ibar frankotara heltzen zirena, inoiz baita Iruñeriraino ere. Ekialde zabal horretako ezaugarriak oro ez ziren Lapurdiko mendebalera edo Zuberoara heldu: ezaugarri berri horien hedadura geografikoa historian zehar ulertzeko, zehaztasun kronologikoz ezagutu beharko genituzke Ipar Euskal Herriko gizataldeen barne-joerak eta gizarteko harreman-sareak.

3.4.4. Hondarreko mendeetan Lapurdiko eta Baxenabarreko euskaldunen mintzok bateratze-prozesu bat ukan badute, eta zuberotarrek eta Ipar Euskal Herriko barnealdeko euskaldunek ezaugarri berri bateratzaile ugari partekatzen badute, uler

liteke nafar-lapurterra ez dela euskalki zaharra, hondarreko mendeetako baizik, nafar-lapurtarraren bereizgarriak ez direla horren aspaldikoak, badirela aspaldiagoko ezaugarri berri bateratzaileak Zuberoan eta Ipar Euskal Herriko barnealdean hedaturik. Halaz, ondotik dakardan taulan teoriarik beheko kokagunera bildu beharko lukete nafar-lapurtarraren berrikuntzek, mende berankorragoetara, eta, aldiz, Ipar Euskal Herriko barnealde-ekialdeko ezaugarri berri bateratzaileek teoriarik iragan zaharragoko «multzo» edo «geruza» kronologiko bat eratu beharko lukete. Ez da arrazoirik pentsatzeko hondarreko garaian Ipar Euskal Herriko barnealdeko hizkuntza-ezaugarriak berritzeko joera eten dela edo barnealdeko euskaldun ipartarrek ez dutela elkarrekin berritatzeko jarraitu, nahiz gero berrikuntza horietarik batzuk Lapurdiko mendebalera edo Zuberoara heldu ez.

3.4.5. Taulak mendeka aurkezten dizkigu Ipar Euskal Herriko hizkuntza-berrikuntzak:

Ipar EH-ko berrikuntzak	Ipar Euskal Herri guztian	Nafar-lapurteran	Ipar EH-ko barnealdean	Ekialde zabalean
historiaurrea eta XVI. mendea	— <i>-o > u / _n</i> — <i>-bat</i> zenbatz. mugagabeen jokaturik — <i>batzu</i> — <i>gaindi</i> — «galdegaia + aditz laguntzailea + aditz nagusia» hurrenkera — <i>lagundu</i> Nor-Nork sailean — <i>bainan</i> adbertsati-boa	— [hitz-hasieran <i>x-</i>] cf. § 2.3. — <i>-oin</i> hitz bukaera mailegutan	— <i>-u > ü</i> palatalizazioa — <i>-er</i> datibo plurala — <i>-ki > -kila(n)</i> soziatiboan — adlatiboan <i>-(a)la(t)</i> — <i>-niz, giten, gitu...</i> monoptongatuak — <i>zuketa</i> — <i>xuketa</i> — galderazko <i>a</i> morfema — <i>-(e)n-(e)z</i> zehar-galderan	— <i>-zione</i> hitz-bukaera — <i>-ek</i> ergatibo plurala — izenordain zehazgabeen <i>neh-</i> saila (Leiz. <i>nehor</i> , vs. Etxep. <i>ehor</i>) — <i>-en</i> etorkizuna aditz nagusian — iraganeko trinko-etako <i>nin-</i> , <i>bin-</i> , <i>gin-</i> , <i>zin-</i> — <i>*iron</i> oinarria adizkietan — <i>bait</i> erlatibozkoa ¹⁰ — <i>bait</i> kausazkoa — <i>utzi</i> + adlatiboan
XVII. mendea	— <i>zein, zen- > zoin, zon-</i> XVI → (Etxep. <i>zeinbait</i> , Leiz. eta Axul. <i>ze-</i> ; Tartas <i>zo-</i> ; Etxeberri Ziburukoak <i>Eliçarra-n zo-</i> darabilela dirudi) — <i>-t(z)e-kotz</i> baldintzan	— <i>-kari</i> partikula — [ozenen despalatalizazioa; cf. § 1.2.; Pouvreauk <i>mainatu</i>]	— Nor-Nori sailean <i>zaut</i> 'zait' eredia — <i>bark > bak</i> — <i>-i & -e > -u & -ü</i> — <i>-r(t)z > st</i> — zuhaitz-izenak eratzeko <i>tze</i> atzizkia — baldintzan eta moduzkoetan <i>-en ber</i>	— 2. pers. pl. morf. <i>zue > zie</i> — <i>-etan</i> berria zenbakien sisteman — soziatiboan adina adierazteko — ahala adierazteko <i>-t(z)en a(h)al</i> egitura — <i>etorri</i> aditzaren adizki trinkoen ordain heldu izan puntukaria

¹⁰ 1626ko gutun batean: *igorico darauat goutum bat, jaunac eman baytaraut galcerdy cetazco baten barnean* (Mitxelena 1964: 157).

Ipar EH-ko berrikuntzak	Ipar Euskal Herri guztian	Nafar-lapurteran	Ipar EH-ko barnealdean	Ekialde zabalean
xviii. mendea	— <i>zernabi</i> izord. — <i>-eni</i> 'niri' — adizki laguntzaileria + <i>omen</i> erabileraren parentetikoak — murrizketa-perpausetako <i>baizik</i>		— <i>-a + a > aia</i>	— <i>-aren > -ain</i> laburdura genitiboan — mugatzailea duten adberbio errepikatuenak
xix. mendea	— berranalisi bidezko <i>-xet</i> — <i>-ra = -ri buruz</i>	— <i>-ño</i> txikigarria	— <i>-ie > ii</i> asimilazioa — <i>horko > horgo</i> — <i>izan</i> aditzeko <i>ginden, zinden</i> — <i>lakoan</i> kausala — <i>-ot(h)e</i> partikula estraposizioan	— <i>norna(h)i</i> — <i>is</i> konparatiboan <i>ko</i> morfema ibiltzea — <i>larik</i> denborazko atzizkia — <i>laktz</i> kausazko atzizkia
xx. mendea	— <i>-ba</i> neutroa		— txistukari ozena bi bokalen artean — <i>hitzen</i> mugako afrikazio berria — <i>VrhV > VhV</i>	

3.5. Taularen balizko irakurketa bat

3.5.1. Ezaugarrien kronologia aintzat hartu behar du filologoak dialektologia lan-tzean, lekuri ezaz hemen horretan sakonduko ez badut ere. Aurreikus zitekeenez, Ipar Euskal Herriko barnealdeko ezaugarri berriek jarraitu dute menderen mende agertzen: aspaldikoak dira, eta ugari, gainera. Badira zaharrak diren Ipar Euskal Herri guztiko berrikuntzak ere, Nafarroara kasik iragan ez direnak: Ipar Euskal Herri guztiko ezaugarri berri eskusiboak dira, aldi oro erregulariki gertatu dira, eta ugari, gainera. Baina taulak dakarren oro ez da alde aurretiko usteek iradokitzen zigutena.

3.5.2. Pentsa litekeenaren aurka, ekialde zabaleko berrikuntzek ere jarraitu dute Nafarroako ekialdeko ibarretara xvi. mendeaz harat iragaten, ez da ondotik haien sorrera bakandu, Ipar Euskal Herrian sortzen eta Nafarroarat hedatzen jarraitu dute xvii, xviii eta xix. mendeetan barna. Lan-molde bertsuak izanik eta geografia-hurbiltasunagatik, Pirinioez bi alderdietako euskaldunek harreman zuzenean jarraitu dute, zeharkatu dute Frantzia eta Espainia arteko muga. Ez zen hau hasierako hipotesia.

3.5.3. Neke da nafar-lapurteraren ideia asetzen duten ezaugarri gramatikal sendoak aurkitzea. Euskalki honen periodizazioaz ezaugarriak aztertutik mintzatzean, gainera, ageri da berrikuntzak ez zaizkiola garai berankor bati atxikitzen. Euskalki nafar-lapurteraren bi berrikuntza aurrehistoriko daude taulan, baina bat Ipar Euskal Herri guztiko berrikuntza izan liteke, gerora Zuberoan berri berri zena. Teorikoki bederen, bi tasun aurrehistoriko horiek ez lirateke berankorrotzat jo litekeen euskalki nafar-lapurteraren adierazle egokienak, baina nolahi ere den, sakonago landu behar dira nafar-lapurteraren gorpuztearen gaineko kronologia eta periodizazioa, ea zinez horren gorpuzte «berankorra» duen, izan ere, darabiltzagun aurreustek eta ezaugarrien kronologia ez dira egokitzen.

4. Lapurdi barreneko mintzoak

4.1. Lapurdiko mendebala

4.1.1. Estatusa dauka Lapurdiko itsas hegiko mintzoak euskal literaturan: obra sendo anitz idatzi dute eskualdeko euskal idazleek XVII. mendetik harat. Male-ruski, egun galtzen ari da Lapurdiko itsas hegiko eskualdeko folk *eskara*. Maitena Duhalderen azterketa berrian (2023) beste mintzo bat balitz bezala ageri da Lapurdiko hego-mendebaleko saila: Duhalderen datuetan itsas hegiko Hendaia, Biriatu, Urruña, Ziburu, Azkaine, Donibane Lohizune, Getaria eta Bidarteko etsenpluak ageri dira eta Arrangoitzen dakuski isoglosak. Zuazok (2018), berriz, itsas hegigitik haratagoko eskualdea aztertu du eta batera sentitzen ditu Ahetze, Senpere, Sara, Ainhoa, Zugarramurdi eta Urdazubiko euskara, barruti bakoitzean erdarek duten eragina ahantzi gabe (2018: 14).¹¹ Komunikazio-maila handiko eskualdea da hizkuntzaren alderditik Lapurdiko hego-mendebala. Ikusi batera ez du bere-berezko bilakabide edo berrikuntzarik. Nik, segurik, ez dut bere-berezko berrikuntzarik aurkitu, ez dut sumatu Sarako eskualdeaz kanpo baliatzen ez den muntzako ezaugarri berri berezirik Saran: berrikuntza eskusiboan eza ageri da Lapurdiko hego-mendebalean.

4.1.2. Lapurdiko mendebaleko euskaldunek berrikuntza batzuk partekatzen dituzte Bidasaldeko giputzekin eta Bortzirietako nafarrekin. Guztiz berdinak ez izanik ere, hurbil daude Lapurdi itsas hegiko eta Lapurdiko hego-mendebaleko mintzoak. Ezaugarri endemiko batzuk batera berriztatu dituzte eta eskualdeko kolore berezia ematen die:

4.1.2.1. Lapurdiko itsas-hegian nagusi da *tzi* pluralgilea *egon* aditzean, baina ibiltzen da hego-mendebalean ere.¹²

4.1.2.2. XVII. gizaldian Etxeberri Ziburukoak *gare, zare* aldaerak dakartza, itxuraz *gare-la, gare-n, zare-la, zare-n > gare, zare* berranalisiaren bidez.¹³

4.1.2.3. Tripersonaletan **eradun*-en jokoak galdu da. Datiboko 3. pertsonan **-in*-da oinarria, gaurgero 1651ko Olceren Lapurdiko bertsioan bezala. Datiboa 1. edo 2. perts. direnean *edun*-ek ordezkatu ditu, Bortzirietan edo Oiartzunen bezala.

4.1.2.4. Adizki datibodunetako *z-ka* berranalizatu eta adizki trinko batera sartu da Lapurdin: Gipuzkoan ere ez dira ibiltzen *dakizka* ‘dakizki’ erakoak.

4.1.2.5. Maiztasuna aipatzeko *katu* aditz-atzizkia ibiltzen da Goizuetan, Bortzirietan, Sunbillan, Malerrekan eta Bertizaranan; Hondarribian *ketu* da aldaera (Zelaieta 2008: 110). Biriatur halako etsenplu bat dakar *EAEL*-k (218).¹⁴

4.1.2.6. Ondoko nafarren eskualdeetan bezala —Baztan da salbuespena—, balio puntukaria eransten duen *ki* aditz-atzizkia ageri da eskualdeko etnotestuetan.

¹¹ Jean-Louis Sagastume saratarak Koldo Artolari ziotson hurbilago direla mintzoan Sara eta Ainhoa Sara eta Senpere baino (Irizar 1997: 50).

¹² Hedadura handiagoa du *joan* aditzean: *doatzi* ‘doaz’ Zugarramurdi, Saran, Senperen, Donibane Lohizunen eta Azkainen dugu, ahantzi gabe *doazi* aldaera ere badela: Hendaian, Arrangoitzen eta Azkainen. Nafarroan ere bada *doazi* eta Baxenabarren nagusiki *doatzi* (*EHHA* 1406).

¹³ Ondotik *gae, zae* / *gai, zai* / *ge, ze* erako aldaketa eta laburtzeak gertatu dira eskualdean.

¹⁴ *Gure attonak eta, ibiltzen tziien, barkukin ta sariekin, ikusikatu tut... biño, orai ez.*

4.1.2.7. Aldaera foniko berezi franko ibiltzen dira Lapurdiko itsas-hegiko, Sarako, Lapurdiko hego-mendebaleko eta Zugarramurdiko lexikoan, baina lekurik ezaz ezin aurkeztu ditut hona. Zuazoren 2018ko liburuan ikus daitezke horietarik franko.

4.1.3. Bada geografia-hedadura zabalagoa bildu duen berrikuntza bat, Lapurdiko itsas hegi eta hego-mendebalean ibiltzen dena, testuetan lehen aldiz xvii. mendean idazle saratarrek dakartena. Absolutiboko aldaerei begira garatu ziren erakusleen zehar-forma analogiko berri batzuk: *hoken* ‘hauen’ eta *beken* ‘haien’ erakoak. Nafarroan Bidasoa-Baztan eskualdera eta Belatez bestaldera ere hedatu dirateke geroztik.

4.1.4. Axularrez geroztik berrikuntzak gertatu dira Lapurdiko mendebalean: batzuk Gipuzkoa edo Nafarroatik jin dira, eta beste batzuk, berriz, Euskal Herriko erdialde zabalagoan sortu eta ondotik hedaturik, Lapurdiko mendebaleko alderdiataraino heldu eta egun itsas hegian, Saran eta ingurumarian ibiltzen dira. Itsas hegiko arrantzale lapurtarrek Gipuzkoa aldeko marinelekin hartu-emana ukan dute eta bi eskualdeotako lehorreko jendeek ere orain duten baino hartu-eman handiagoa ukan dute historian zehar. Ipar Euskal Herri guztian itsas hegiko *eskara* da Hego Euskal Herriko berrikuntzen eragin gehien jasan duena. Lapurdiko mendebaleko honako ezaugarri hauek dira salatzaile:

4.1.4.1. Bonaparteren garaian Lapurdiko itsas hegian bazirauen hein batez hasperenak (Duhalde 2023: 64), baina, Saran bezala, egun galdua da.

4.1.4.2. Lapurdiko itsas hegian *in* & *in* nahiz *il* & *il* segmentuak palatalizatu dira.

4.1.4.3. *-ua* > *-uba* epentesia ahoskatzen zen Lapurdiko itsas-hegian berriki arte eta *-ia* > *-iya* egiten da oraino, Bortzirietan eta Gipuzkoan jarraipena duena.

4.1.4.4. Hitzaren berezko *-a* gal daiteke Baxenabarreko hego-mendebalean, Lapurdiko hego-mendebalean, Nafarroako ipar-ekialdean eta Gipuzkoan. Hala da Saran ere.¹⁵

4.1.4.5. Lapurdiko mendebaleko pertsona-izenordain hanpatuak Gipuzkoako erdi-ekialdekoen eta Nafarroako iparrean ibiltzen direnen sailekoak dira.

4.1.4.6. *ene* izenordain arrunta eta *neure* hanpatua bereizteko ohitura, Axularren garaian sendo zegoena, galdu da Saran: *nere*, *nei*, *neekin*, *neetzat*, *neeganat* erakoak ibiltzen dira egun (Zuazo 2018: 32). Lapurdiko itsas hegian ere, Gipuzkoa eta Nafarroako eskualde batzuetan bezala, *ene*-ren ordain *nere* edo haren aldaerak ibiltzen dira.

4.1.4.7. Hurbiltze-adlatiboan *-raka* edo *aldera* darabiltzate Gipuzkoan. Saran *alderat* aldaera ageri da: *bidexka au Bera alderat gaki da* (Zuazo 2018: 29).

4.1.4.8. Axularrek nasaiki zerabilen plural hurbila galdu da Saran: *guk biek in duu / denek nai ginuke luzaz bizitu* (Zuazo 2018: 31).

4.1.4.9. Aditz nagusiaren moduzkoetan *rik* atzizki zaharra galdu gabe, mendebaleko alderditik *ta* sartu da itsas hegira, eta Saran ere gero eta gehiago baliatzen da.

4.1.4.10. Etxeberrri Ziburukoak *ematen*, *erraten*... aditz-izenak dakartza xviiian eta horrela da orain ere itsas hegian (*EAEI*). Axularren *atzemaiten*, *emaiten*... aldaeren *i* zaharra galdurik, *atxematen*, *ematen*... erakoak darabiltzate Saran egun (Zuazo 2018: 36).

¹⁵ Bortzirietan bezala Saran ere ageri dira soberako mugatzaileak: *lana bat iteko* (Zuazo 2018: 27).

4.1.4.11. Ipar Euskal Herriko ekialdean ez den berrikuntza bat partekatzen zuen Axularren mintzoak Euskal Herriko erdigune zabalarekin: *tze* berria zekarren *ibiltzen*, *igortzen*, *iraultzen*, *ekhartzen*, *ethortzen* etsenpluetan. Aldiz, *atxiiten*, *ekhartzen* aldaera zaharrak darabiltzate Beskoitzen *ekartzen* berriarekin batean (Duhau 1993: 29, 35).

4.1.4.12. Bukieran *-n* edo bokala duten aditz batzuek *-tu* & *-du* pleonastikoa hartu dute Euskal Herriko erdigunean.¹⁶

4.1.4.13. Hiketako oraineko adizkietan *z-* da 3. pertsonaren morfema Lapurdiko mendebalean. Duhauk *dioiat* 'zioat', *ditioiat* 'zitioat' erakoak dakartza Aturrialdeko Beskoitzen (1993: 74), eta *d-* da morfema Bardozen ere (*EHHA*), nahiz Beskoitzen *dezakeiat* eta *zezakeiat* ageri diren, bi joera desberdin herri berean (Duhau 1993: 65).

4.1.4.14. Nafarroako zenbait eskualdetan, Gipuzkoan eta Lapurdiko mendebalean 3. pers. pl.-eko datiboaren aditz-morfema aldatu da: *ote* da orain, ez da garai bateko *e*.

4.1.4.15. Guti entzuten bada ere, Sarakoa da «aditza + *eta*» kausazko perpausa: *laster itoa nindukek*, *igeika eztiat ikasi ta* (Zuazo 2018: 53).

4.1.4.16. Lapurdiko itsas hegiko etnotestuetan *egin* aditz-indargarria ageri da.

4.1.5. Ondoko lau ezaugarrietan gordetzaille eta Euskal Herriko erdiguneko ohi-turen arabera jokatu dute Lapurdiko mendebaleko hiztunek:

4.1.5.1. Ergatibo pluraleko *-ak* aldaera entzun daiteke Lapurdiko itsas hegian, eta ez dirudi ezaugarri berria (Manterola 2015).

4.1.5.2. Erronkarin, Zaraitzun eta Hegoaldeko alderdi gehienetan gertatu bezala, 60, 70, 80 eta 90 zenbakien forma zaharrei eutsi diete Lapurdiko itsas hegiko euskaldunek.

4.1.5.3. Destinatiboan «genitiboa + *tzat*» era ageri da Lapurdiko itsas hegian, hego-mendebalean, eta Aturrialdeko Mugerren, Beskoitzen eta Urketan (*EHHA*), baina ez da urrun *-rendako* aldaera: Lapurdiko erdialdean, Urdazubin eta Zugarramurdin bi formen arteko lehia dago (Epelde 2003; Montoya 2004).

4.1.5.4. Lapurdiko mendebalean ez da **iron* adizkirik erabiltzen, ezta *ukan* aditza ere.

4.1.6. Ipar Euskal Herriko itsas-hegian edo barnealderago aldaketak jasan dituzten hizkuntza-aldaera batzuek iraganean ziren bezala aldatu gabe dira Lapurdiko hego-mendebalean. Sarako euskararen adibide hauetan ageri da (Zuazo 2018):

4.1.6.1. Ez dira itsas hegiko edo Lapurdi barnealdeko bokal arteko epentesiak ageri.

4.1.6.2. Palatalizatu gabe diraute *in* eta *il* sekuentziek hainbat eta hainbat hitzetan.

4.1.7. Beste ezaugarri zenbaitetan ere aldaera zaharra gorde du Sarako mintzoak:

4.1.7.1. Bizkaian eta Ipar EH.-an bezala, hitz batzuen *ajn* bukaera ez da *aj* soildu.

4.1.7.2. Osagarri zuzena genitiboan joateak hala dirau.

4.1.7.3. Abl. sing.-ean *-tik* ibiltzen da, baina erakusleetan eta pl.-ean *-rik* aldaera zaharra. Bortzirietan dira *-tikan*, *-rikan*, *-gatikan* edo denborazko *-likan* berriak.

¹⁶ Gipuzkoan halako aditz sorta bat dago eta Nafarroan eta Lapurdin ere bai, baina lapurtarren aditzen konbinazioa ez da besteen bera eta fonikoki ere ez da emaitza bera gertatu eskualde guztietan; cf. lapurtarren *izatu* 'izan', *egotu* 'egon'.

4.1.7.4. Euskal Herriko erdigune zabalean aspaldi hedatu zen soziatiboko *-kin* aldaera berria zerabilen Axularrek eta halaxe dirau egun ere, Sarara ez da *-kila(n)* berria heldu.

4.1.7.5. Hainbat adizkitan *aj* eta *au* diptongoek diraute: *naiz, zaitte, gaitu, zaitut, zait, zaitzu / nau, nauzu, naute...*

4.1.7.6. Ez dago palatalizaziorik pl.-eko 2. pertsonaren *zue* morfeman.

4.1.7.7. Axularren lanean bezala, hautakarietan *ala* partikula baliatzen da.

4.1.7.8. *-larik*-en mesedetan gibelka badao ere, denborazkoetan bada *-nean* oraino.

4.2. Lapurdiko hego-ekialdeko euskara

4.2.1. Lapurdiko hego-ekialdean ez dira beste lekuetan ezezagunak diren berrikuntzak ageri, eskualdeko mintzoan ez da ezaugarri markatuen sorta bat ibiltzen, konbergentzia-maila ona ukan du ondoko eskualdeetako mintzoekin. Lapurdiko erdialdean *u-e* hiatoa *ui* edo *üi* egiten dute uztaritzar, larresoroar edo itsasuarrek, tasun berezia da hau (Epelde 2004b: 665-666). Uztaritze aldeko bereizgarri bakarrenetakoa dira *züik, nüin, duzüi* horiek. Hazpandarrek irri egiten dute uztaritzarren *ui* edo *üi* bokal-sekuentziak entzutean.

4.2.2. Lapurdiko erdialde eta ekialdeko mintzoen ezaugarriak eta haien dinamika geografikoa erakusteko, Epeldek erdiguneko Uztaritze-Larresoro inguruko eta ekialdeko Hazparnealdeko (+ Lekorne, Luhuso eta Makea) mintzoen arteko lotura/etanak dakartza. Erdialdean Zuraide dakusa Epeldek Lapurdiko hego-mendebaleko euskarari so, eta, aldiz, Itsasu dakusa Hazparne alderat eta ekialderat gehienik lerratzen (2004a: 301-302). Bi herri hauek Ezpeleta dute beren artean, geografikoki ez dira urrun Zuraide eta Itsasu.

4.2.3. Dinamika gordetzailleak daude eskualdean: hiztun-taldeen gizarte-harremanekin edo distantzia geografikoarekin erlazioa dute, funtsean soziolinguistikarekin.

4.2.3.1. Dardarkaria ahoskatzean, Kanbo, Lekorne eta Ezpeletako adinekoek ez darabilte frantsesaren ebakera ubulare berria (Epelde 2004a: 281).

4.2.3.2. Kontsonante elkarketan Beskoitzen *nunko, eunko* 'egungo', *hemenko, hanko, hementik, nuntik* eta *nehuntik* formak ditugu (Duhau 1993, 2003). Epeldek hitz horietan ez du *nt* edo *nk* clusterra entzun Larresoron eta Hazparnen (2004a: 286).

4.2.3.3. Lapurdiko itsas hegian edo hego-mendebalean ez bezala, bukaeran sudurkaria edo *-o* duten aditz-izenetan *-iten* da emaitza Larresoron eta Hazparnen (291).

4.2.3.4. Ezezko eta galderazko perpaus osagarrietan Larresorotik Hazparnealdera *-(e)la* menderagailua ibiltzen da, ez *-(e)nik* (296).

4.2.3.5. Perpaus hautakarietan *edo* eta *ala* partikulak bereizten dira.

4.2.4. Eskualdeko euskararen dinamika erakusteko Epeldek duela hogeit bat urte bildu zituen datu batzuk dakartzat erakusgarri:

4.2.4.1. Mendebalerago legez, pertsona-izenordain hanpatuetan *nioni* (abs.), *nionik* (erg.) saila ibiltzen da Larresoron. Hazparnen *nihaur, nihauk & nihaurek*, baina dat. eta genitiboan egun ekialdean den sail zaharra darabilte bi eskualdeetan (Epelde 2004a: 288).

4.2.4.2. Larresoro aldeko soziatiboan *-aikilan* aldaera *-aikin* baino gutiago ibiltzen da. Aldiz, Hazparnealdean *-aakin* & *-aakilan*, biak ibiltzen dira.

4.2.4.3. Bi eskualdeetan ditugu destinatiboan «genit. + *-tzat*» eta «genit. + *-tako*» erak.

4.2.4.4. Adlatiboan *-a-z* bukatzen diren hitzetan *-alat* ager daiteke.

4.2.4.5. Larresoron *seme bat ukan dute* erakoak entzun daitezke, baina ez «aditz nagusia + *ukan*». Aldiz, Aturrialdean bezala, Luhuson bai (Epelde 2004a: 291).

4.2.4.6. Etorkizuna adierazteko *-in* egiten da aditz nagusia Larresoron, baina Uztaritze, Hazparne eta Beskoitzen *-aan: emaan* 'emanen' dakar Duhauk Beskoitzen (1993: 29).

4.2.4.7. Hazparnen *joko nu* & *joónu* 'joren nau', bi erak darabiltzate *jo* aditzean (Epelde 2004a: 292). Beskoitzen ere ibiltzen da *joon diat* 'joren diat' (Duhau 1993: 30).

4.2.4.8. Lapurdiko hego-mendebalean edo Bidasoaldean bezala, Zuraiden edo Ezpeletan triperisonalen ordain *edun* oinarriko adizkiak entzun daitezke. Larresoro-Hazparneetan ez (Epelde 2004a: 293). Hazparnealdeko triperisonaletako datiboko pert. guztietan **eradun* ibiltzen da beti.

4.2.4.9. Uztaritzen, Larresoron, Itsasun edo Hazparnen, aditz *irrealis*-etan gehiago ibiltzen dira **ezan* oinarriko adizkiak **iron*-ekoak baino. Hazparnen jende zaharrek **iron* saileko aldaerak darabiltzate (294). Aturrialdean ere ibiltzen da **iron*.

4.2.4.10. Senperen, Larresoron, Hazparnen edo Beskoitzen *ari*-k laguntzaile iragankorra har dezake. Uztaritzen Epeldek *hasi*-rekin ere joko iragankorra dakar (294).

4.2.4.11. Xuketa ez-alokutiboan mintzo dira Larresoron, Lekornen, Lekuinen, Makean eta Hazparnen. Luhuson eta Makea herriko hegoaldean ez dago xuketarik (Irizar 1999: 423). Hazparnetik Aiherrarat goazela, xuketa alokutiboaren eremura iragaten gara.

4.2.4.12. Larresoro aldean ez da *bai/ez* galderetako *a* morfema ibiltzen, baina Kanbon eta Itsasun *a* ezarriarik nahiz *a* gabe galdegin daiteke. Hazparnealdean *a* ibiltzen da.

4.2.4.13. Bi eskualdeetan ibiltzen da erlatibozko perpusetan aditz-partizipio soila, baina Hazparnen gehiago.

4.2.5. Ipar Euskal Herriko barnealdeko syntaxiko joera aski hedatuak ageri dira Larresoroko eskualdeko eta Hazparnealdeko mintzoetan (Epelde 2004a: 296-297).¹⁷

4.3. Hazparneko eskualdeko berrikuntzak

4.3.1. Aitzineko azpiatalean Lapurdiko erdigunetik ekialdeko Hazparnealdera mintzoan zer alde dagoen ikusirik, Hazparnealdeko mintzoari helduko diot orain. Zuberoa ez den Ipar Euskal Herrian, ongi kokaturik erdigunean dagoen hiria da Hazparne. Zaroko Arbelbide apezak aspaldi idatzi zuen (2004 [1890]: 269): «Eta nola Eskualdunentzat asentatu nahi baitzuen misionest etche hori, ez zezaken nihon

¹⁷ 1) Bi eskualdeetan darabilte zehargalderan *-enez* & *-enetz*. 2) Bi eskualdeetan darabilte *-(e)lakoan* kausazko perpausetan. 3) Bi eskualdeetan darabilte *-en ber* egitura baldintza-kutsua duten perpausetan.

ere hain ongi ezar nola Hazparnen, Laphurdiko eta Nafarro-Behereko hegian, eskualde guzietara berdin errechki heltzeko pharadan».

Eskualde-buru nabarmena izanik, aspaldiko merkatu garrantzizkoa, oskigintzako lantegiak, gizarte-zerbitzuak eta erietxeak ukan ditu Hazparnek eta demografikoki jendetsua izan da: 1793an 4641 hiritar zuen. Hazparnen eraiki ditu ikastegiak Elizak, eskolak euskaraz emanik, gainera, hiriko XVIII. mende erdialdeko *Kadet eta Betti-rriño* [κ&β] euskal testu luzea lekuko; cf. Oihartzabal (1999). XVIII. mendean bada erlijio-irakasgunerik Hazparnen (Padilla 2011: 13). Hiri honetako misionesten euskarak oniritzi gaitza ukan du gerora, Amikuzeko eskualdeko jendeen gogoan, konparazione.

Euskararen aldetik Hazparne hedagune garrantzizkoa izan da. Hirian sorturikotzat jotzen dudan berrikuntza bat baino gehiago heldu da ingurumariko herri ttipietara: ezker Uztaritze alderdira, goiti Aturrialdera Bardozeraino, eskuin Arberoa eskualdera eta baita Amikuzeko ipar-mendebalera ere. Eskualdeko hizkuntza-aldaeren hautsi-mautsiei eragiten die Hazparneko euskarak. Ingurumarian dauden herri ttipietako bizilagunek Hazparneko berrikuntzak eraman dituzte beren herrietara, eta azkenik, beren etxetara sartu dituzte, Hazparnen edo hazpandarrei entzun hizkuntza-aldaerak aitetamen edo beste senitartekoen aitzinean ere baliatzeraino. Misionestek ere Hazparnetik ondoko herrietara beren predikuetan hizkuntza-eragina eraman zuketan. Amikuzeko mendebaleko euskaldunek etxeraino ekarri berrikuntzetan Hazparnetik hedatuak dira bi hauek: 1) edute genitiboko *-aan*; 2) *johan da* adizki perifrastikoa 'joaten da' edo 'doa' adieran.

4.3.2. Hazparnetik ezker-eskuin eta goi-behe hedatu berrikuntza historiko zenbait aurkeztuko dut, baina baita Hazparne inguruan gelditu diren beste batzuk ere:

4.3.2.1. Bonapartek sumatu zuen Hazparneko *-u-a* hiatoaren *-üa* palatalizazioa eta, bestalde, Uztaritzen eta Hazparnen aditz nagusian *-tuko* (+ etork.) egiten badute ere, palatalizaturik *-tiko* entzun dakieke batzuetan hazpandarrei (Epelde 2004a: 276-277).

4.3.2.2. Zenbait izenordainetan *aj* diptongoa *ei*-ra edo *i*-ra lerratu da Hazparne hirian, Makean eta Lekornen. Larresoron ez da *aj* diptongoa guztiz galdu, nahiz *aj* > *ei* lerradura dagoen (Epelde 2004a: 277-278, 289; Epelde 2004b: 666).

4.3.2.3. Genitiboko *-ain* orokorra ez, *-aan* ageri zaigu Uztaritzeko alderdian, Hazparnealdean, Aturrialdean, Arberoako herri batzuetan eta Amikuzeko mendebalean.

4.3.2.4. XIX. mendetik Lapurdin den *-eri* berria eta ekialdeko *-er* bateratzen ditu dat. pl.-eko *-erri*-k. Hazparnen XVIIIan ageri da *-erri*: *EHHAk* Aturrialdeko Mugerren dakar.

4.3.2.5. Ohikotasuna adieraz dezake *johan* + *izan* egiturak Lapurdiko ekialdean eta Baxenabarreko mendebalean. Balio puntukaria ere ukan dezake; Rudolph Trebitschek 1913an Beskoitzen dakar: *sorthu nintuzun amaan altzotik johan zelaikan Espaiñaat, beste ahizpa'aten ikhusteat* (Etxebarria 1994: 61). *EHHAk* ere balio hori dakar egun Hazparne inguruan (1404).

4.3.2.6. XVIII. mende erdiko Hazparneko κ&β idazlanean ditugu *zauntan* & *zaundan* 'zidan, zitzaidan', *nankon* 'nion' erako adizki-aldaera *n*-dunak. Egund Uztaritze alderdian, Hazparnealdean, Aturrialdean, Arberoan eta Amikuzeko mendebalean entzun daitezke. Eskualdean Hazparne da herri bakarra *nk* clusterraz landa *ng* ahos-tundua ere baduena.

4.3.2.7. Hazparnen, Lekuinen eta Lekornen *izan* aditzaren oraineko Nor-Nori aditz-sailean *d-* ere ibiltzen da *z-* morfemaz landa: *daut* ‘zait’ dakar Irizarrek Hazparnen (1999). Aturrialdean ere bada *d-* hori eta Baxenabarreko mendebalean Aiherran eta Izturitzen.

4.3.2.8. XVIII. mendearen erdiaz geroztik *i* da *izan* eta **eradun* oinarrien pluralgilea Hazparnen: *jin zait* ‘zaizkit’, *igortzen daitzut* ‘dizkizut’. Bonapartek Beskoitzen ere bildu zuen berrikuntza hau, baina Duhauk ez dakar egungo emaitzetan.

4.3.2.9. Ez dakit XIX. mendean Hazparnealdeko eta Baigorrialdeko testuetan ageri den berrikuntza bat, hiatoko *ie* > *ii* bokal asimilazioa, *nuen* > *nien* > *niin*, *duen* > *diin* aldaerak eragin dituena, Hazparnen sortu berrikuntza ote den.

4.3.3. XVIII. mendeko k&b idazlaneko datuen arabera, baliteke Hazparneko arestiko tasun berri horien artean, *-üa* hiatoa, pluraleko *-erri* datiboa, iraganeko adizkietako *n* analogikoa edo adizki datibodunetako *i* pluralgilea baino, berriagoak izatea *-aan* genitiboa, *johan*-en ohikotasun-erabilera eta hiatotako *ie* > *ii* asimilazioa. Bi ezaugarri berri ageri dira XIX. mendeko Bonaparteren saileko Hazparneko katiximan: hala *-aan* genitiboa nola *ii* hiatu berri asimilatua. Aldiz, XIX. mendeko katixima horiek ez dakar ohikotasuneko *johan da* ‘joan ohi da’ aldaera berriaren etsenplurik.

4.4. Aturrialdeko berrikuntzak

4.4.1. Eskualdearen barreneko hizkuntza-zatiketa

4.4.1.1. Eskualdeak ez du batasunik mintzoan, Bardoze beste herrietarik urrun-tzen da. *EHHA*ko emaitzen arabera Beskoitzek bereziki Urketako mintzoarekin du batasuna. Duhauk dioenez «Beskoitzeko euskara, Mugerrekoa eta Urketakoa, «familia» berekoak ditutzu, elgarri hurbilenak» (1993: 12). Zatiketaren etsenplu batzuk dakartzat:

4.4.1.2. Aturrialdea bitartekaritza geografikoan kokaturik egoteak ere eragin du herri batean eta berean aldaera desberdinak baliatzea. Konparazione, Bardozen *uri* & *euri*, bi aldaerak ibiltzen dira (*EHHA*). Adizkietan *dezakeiat* eta *zezakeiat* ibiltzen dira Beskoitzen: hizkuntzaren bi joera geografiko desberdin herri berean (Duhau 1993: 65).

4.4.1.3. Gaurogero aipatu dugu Aturrialdeko erakusle pluraletan abs. eta erg. bereizten direla, baina ez da halakorik egiten Bardozen; ezta Hazparnen ere (*EHHA*).

4.4.1.4. Zuberoako eran *zun-* eta *nu-* ereduak dakar Bardozeke Celhabereren katiximak galdetzailletan (XIX): *zunbeit* ‘zenbait’, *zuiñ* ‘zein’ / *nur* ‘nor’, *nuk* ‘nork’, *nuiñ* ‘noiz’, *nun* ‘non’..., baina egungo emaitzetan *EHHA* atlasak ez dakar berrikuntza hori Bardozen.

4.4.1.5. Destinatioan *tzat* eta *tako* aldaerek eragiten dute aldakortasuna: Bardozen «genit. + *tako*» dago eta Mugerren, Beskoitzen eta Urketan «genit. + *tzat*» (*EHHA*, 1086. mapa).

4.4.1.6. Muga adlatiboan *-raino* / *-radio* / *-raidio*, hiru aldaerak ageri dira Aturrialdean.

4.4.1.7. **eradun*-en adizki triperzonal batzuen osagarri singularrean *au* > *ai* palatalizazioa dago eskualdean (*EHHA*), baina ez da gertakari orokorra.

4.4.1.8. Aturrialdeko lexikoko aldaera foniko batzuek Lapurdi, Baxenabarre eta Nafarroara so jartzen gaituzte, baina beste batzuek ekialde hertsira.

4.4.2. Aturrialdeko ezaugarri endemikoak

Guti goiti beheiti eta ñabardurak ñabardura, ondoko ezaugarri berri hauek Aturrialde eskualdeko endemikotzat jotzen ahal ditugu:

4.4.2.1. Ipar Euskal Herrian Beskoitze alderdian du sinkopak agerraldi nabarmena.¹⁸

4.4.2.2. Lapurdin *tzi* pluralgilea iragangaitzetan ageri baldin bada, adizkiak ez du datiborik izaten, baina salbuespena dago Beskoitzen: Duhauk *zaitzin* ‘zaizkin’ bildu zuen (1981-82). Bonapartek triperatsonaletan ‘nik hiri’ *daitzinat* / *daitziat* eta ‘guk hiri’ *daitzinau* / *daitziau* (Irizar 2002b: 146, 149).¹⁹ Agintezkoetan ere *tzi* darabilte Beskoitzen: *zatzin* ‘itzan’, *zatzik* ‘itzak’ (Duhau 1993: 85) / *noitzin* ‘har itzan’, *toitzik* ‘har itzak’ (115).

4.4.2.3. Dinamika fonikoa har lezake morfologiak euskaraz sing.-etik pl.-era: adibidez, *diot* / *ditiot* > *tiot* binomioa *diot* / *tiot* bilakatu da Nafarroan. Berebat, Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan *dut* / *ditut* > *tut* binomioa *dut* / *tut* bilakatu da eta halaxe da Beskoitzen ere: *dut* / *tut* ‘ditut’, *duzu* / *tuzu* ‘dituzu’. Analogiaz adizki triperatsonaletara jo du dinamika horrek Aturrialdean: *daitzut* ‘dizut’ / *taitzut* ‘dizkizut’, *daitzu* ‘dizu’ / *taitzu* ‘dizkizu’, *daitziitet* ‘dizuet’ / *taitziitet* ‘dizkizuet’, *daitziite* ‘dizue’ / *taitziite* ‘dizkizue’ erakoak garatu dira Beskoitzen (Irizar 2002b: 148), Lehuntzen eta Urketan (Irizar 2002b: 162-163, 282). Aturrialdeko dinamika hau datiboa 2. perts. sing. eta pl. denean baizik ez da baliatzen. Ez dago «dakot» ‘diot’ / «takot» ‘dizkiot’, *dako* / *dazko* (Lehuntze) baizik.²⁰

4.4.2.4. Bardozen 1. perts. pl.-aren datibo-morfemaren aldaera berria dago: *-ku-z* landa bada *-ki* ‘guri’ ere. Alokutiboko *ki/li* marka izan liteke analogiaren edo berranalisiaren oinarria, edo *zki* pluralgileko *ki* datibo marka zaharra, bestela? Bonapartek *diaukiun* ‘zigun’, *diaukiuk* ‘ziguk’, *diaukiuzu* & *diaukiuzi* —‘digu’ zuketan— dakartza, egun *daukin* ‘zigun’, *daukik* ‘ziguk’, *daukizu* ‘digu’ zuketan direnak (Irizar 2002a: 276). Bardozen *zauki* eta *zauku* dira egun ‘zaigu’, eta *zaukin* eta *zaukun* ‘zizaigun’. Bardozeko katiximako formek agintezko *euzu* edo *begirauzu* zaharrak oroitazten dizkirate: *erakuts aukizu* ‘iezaguzu’ (Pagola *et alii* 1999: 281) & *emaaukizu* ‘eman iezaguzu’ *ogia* (291).

¹⁸ *aorla* ‘agorrila’, *arla* ‘arroila’, *belhaaunko* ‘belauniko’ —xix. mendeko katiximan *belhaunco* (Pagola *et alii* 1999: 340)—, *eguartan* ‘eguerdian’, *iphurtik* ‘ipurditik’, *laxtu* ‘laxatu’, *pastu* ‘pasatu’, *pustu* ‘pusatu’, *urtharla* ‘urtarrila’, *zurbia* ‘zurubia’ (Duhau 1993, 2003). Adizkietan ere bai: Beskoitzen *zinten* ‘zineten’ & *ziinten*, Lehuntzen *zinten* (Irizar 2002b). Hona Bardozeko sinkopak: *arle* ‘ari(z)ale’ & *artzen* ‘aritzen’, *belhaunco*, *erten* & *erraiten*, *gaintik* ‘gainetik’, *lau ontan* ‘lau orenetan’, *phaastu* & *pasatu*, *saartan* ‘sagarretan’ (EHHA). Irizarrek *ztien* ‘zituen’ dakar Bardozeko Sarrada auzoan (2002a: 334). Bardozeko ondoko sekuentzia hauek aferesirik gabeak dira: *emazte*, *ezautu*, *ikhasi*, *ikbusi*, *iphurdi*, *iphurtziloa*; cf. *hau xilik* ‘hago isilik’ (EHHA).

¹⁹ Aldiz, *tzi* ez du pluralgilea *taitzii* ‘zaizkizue’ & *taitziite* adizkietan (Irizar 2002b: 146), horietan datiboa da *tzii*: *zue* > *zie* > *zii*, eta afrikaturik, *tzii*.

²⁰ Hazparnealdeko triperatsonaletan *i* pluralgile izan daiteke (cf. § 4.3.2.8), eta Aturrialdean *d-/t-* jokoak osagarriaren sing./pl. unibokotasuna dakar 2. perts. datiboan. Egund Aturrialdean bezala zen xixan Bardozen ere, baina *d-/t-* joko morfologikoa galdurik, sing. eta pl. izan daiteke orain *d-* Bardozen (Irizar 2002a: 277).

4.4.3. Lapurdiko euskararen eragina Aturrialdean

Lapurdin da Aturrialdea, Bardoze herria barne, eskualdeko euskaldunek lapurta-rrerkin partekatzen dituzte berrikuntza batzuk. Hona tasun berriak Lapurditik eskual-dera jinak:

4.4.3.1. Pertsona-izenordain hanpatuetan *niboone* / *nihoor*, *zuhoone* / *zuhoor*, *xuhoone* / *xuhoor* eta *ziboone* / *zihoor* aldaera pareak ibiltzen dituzte beskoiztarrek. Marraren ezkerreko izenordainen saila Lapurdiko erdiguneari so dago.²¹ Aturrialdeko beste herrietan *zuhaunek* ‘zerorrek’ (erg.) dakar *EHHAk* Urketan eta *zihonek* ‘zeuek’ Mugerren. Beskoitze ez diren Aturrialdeko beste herrietako aldaerak ekialdera so daude eta zaharrago den eskuineko sailari dagozkio, baina sail zaharrea ere berrikuntza gertatu da. *EHHAk* 1. pertsonan Bardoze eta Urketan *nihaur* dakar, Mugerren *nihor* eta *nihaur*, eta Hazparnen *nibeu*. 2. pertsonan Bardozen *zuhaur*, Hazparnen *zuaur*, Mugerren *zuhaun* eta Urketan *zuhaunek* (erg.). Ez bada *nihaur* > *nihaur* asimilazio fonikoa gertatu eta analogiaz gero *zuhaur*-era joan, analogia *nihon-* sailetik *nihaur* sailera etorri da Aturrialdean *nihaur* eta *zuhaun* eraginik. Zuberotarrek ere, cf. *EHHA*, *niháun* ‘nihaur’, *ziháun* ‘zuhaur’ aldaerak darabiltzate absolutiboan, baina horien arrazoia ez dakiok egotz, Aturrialdean bezala, *nibo(o)n-*, *zuho(o)n-* izenordainen ispilu-eraginari, Zuberoko berrikuntzan asimilazio fonikoa gertatu ahal izan da: *nihaur* > *nihaur*.

4.4.3.2. Izan-en aldaeretan *gie* ‘gara’, *zie* ‘zara’, *die* ‘dira’ aipa daitezke Urketan, Beskoitzen eta Bardozen. Bardozen ekialderagoko *gia* ‘gara’, *zia* ‘zara’, *xia* ‘xara’ eta *dia* ‘dira’ ditugu ere (Irizar 2002a: 274). Senperen *gaa* dakarte Duhauk (1993: 10) eta *EHHAk*.

4.4.3.3. Lapurdira so dago iraganeko singularrean *edun*-en *-z-* pluralgile analogikoa: Beskoitzen *nintuzten* ‘ninduten’ ageri da, Arrangoitzen, Ahetzen eta Lekuinenez; cf. *nituzten* (Mugerre, Itsasu) & *ninduzten* (Uztaritze, Hazparne, Bardoze).²²

4.4.3.4. Baxenabarrera jotzen dute Bardoze *nintzan* ‘nintzen’, *hintzan* formek, baina Lapurdiko eran, *nintzen*, (*h*)*intzen* berriak darabiltzate Mugerren, Beskoitzen eta Urketan. Bardozen Bonapartek xixan *nintzan* dakar, baina Artolak xxan *nintzen*; *EHHAk* biak. Lapurdiko ekialdean bi aldaerak dakartza Irizarrek: *nintzan* & *nintzen* (1997: 401).

4.4.3.5. Lapurdin bezalakoa da Aturrialdeko *zakote* ‘zaie’ eta Lapurdira so dago Bardoze *dakotet* ‘diet’ aldaera, **eradun* + *ote* ‘haiei’ dat. egituraduna.²³

²¹ 1. perts. sing.-ean *-ne* dakar *EHHAk* Azkainen eta Beskoitzen eta *-ni* Uztaritzen eta Itsasun. 2. perts. sing.-ean *-ni* dago Azkainen, Uztaritzen eta Itsasun. 2. perts. pl.-ean *zionek* dago Uztaritzen eta Itsasun.

²² Aturrialdean **edin*-en iraganean eta hipotetikoan ere ageri da: Beskoitzen *nintazken*, *nintazketxun*...

²³ Baxenabartarren aldaera *e* da: *ze(i)e* ‘zaie’ & *de(i)et* ‘diet’. xix. mendean *dayet* ‘diet’, *daye* ‘die’, *dayeu* ‘diegu’, *dayete* ‘diete’ ditugu Beskoitzen, eta Urketako katiximan *dayezut*, ‘diet’ zuketan (Pagola et alii 1999: 366). Bonapartek bezala Iratzederrek *zaye* ‘zaie’ dakar Beskoitzen (1978-1979), baina Duhauk 1981-82an *zakote* (Irizar 2002b: 146). Mugerren eta Lehuntzera bezala, xx. menderako, Lapurditikako aldaera berriak sartu dira Beskoitzera. Egun bezala, xix.ean ere *dakote* ‘die’ & ‘diete’ zen Hiriburun. Bardozen *nakoten* ‘nien’ dakarte Bonapartek eta Artolak, baina Artolak *neian* ‘nien’ dakar ere (Irizar 2002a: 279).

4.4.3.6. Lapurdiko kutsua dakarren *dautet* ‘didate’ dakarte Bonapartek eta Artolak Bardozen XIX.-XX. mendeetan, baina Baxenabarren, ondoko herri Oragarreko Bartha kartierrean *dautate* ‘didate’ & *datate* dakartza Artolak (Irizar 2002a: 313).

4.4.3.7. *edun* adizkietan Nor sing.-etik pl.-era iragatean gehitutako *it* pluralgileak *nind-* vs *gin(i)t-* aldea eragin zukeen 1. pertsonan: *d* sing. vs *t* pl.²⁴ Halarik ere, Aturrialdeko adizkietan eta ondoko eskualde batzuetan *t* herskari ahoskabea 1. perts. singularreko morfema gisa identifikatu da. Eman dezagun, bokal artean ere *ta* dago (eta ez *da*) Nork **ezan*-en edo Nori *izan*-en: *dezatan* ‘dezadan’ / *zaxu* ‘zaidaxu’ (Bardoze, *EHHA*). Beskoitzen Trebitschek 1913an *behartu zatazun* ‘zitzaidan’ dakar (Etxebarria 1994: 61). Berebat, hedadura du Lapurdin iraganeko *edun*-en *ni(n)t-* Nor hasierak 1. perts. sing.-ean (vs *nind-*); cf. Lehuntze eta Beskoitzeko *nintuzten* ‘ninduten’ edo *nintuian* ‘ninduan’, tokako ‘nintzen’. *EHHAk nintuzten* ‘ninduten’ dakar Ahetzen eta Arrangoitzen, eta *nituzten* ‘ninduten’ Itsasun eta Aturrialdeko Mugerren. Alta, Bardozen *ninduzten* & *ninduten* aldaerak dakartza, eta Hazparden *ninduzten* (1348. mapa). Iduri luke *nind-* → *nint-* horretan pluraletik singularrera analogia gertatu dela. Ohiko *-t* «nik, eni» morfemaren oihartzunak ere lagundu lezake. Pablo Albizu morfologian adituak **edin*-eko *na-i-te-ke* edo *nin-te-ke* saileko *te*-ren *t* ahoskabearen oihartzuna ere aipatzen dit.

4.4.3.7.1. Hondar garaiko bi lanetan —Camino 2022 (272-273) eta Camino 2023 (103-105)—, Lapurdi alderdiko aditz trinko iragangaitz batzuen aldaerez jardun dut, bai baitira horietan analogikoak diruditen sekuentziak: oraineko *-it-* eta iraganeko *-int-* (*gitoon* ‘gauden’ noka eta *nintoon* ‘nengoen’). Adierazi nuen Lapurdiko adizki trinko iragangaitz horiek *edun* adizkien egiturak kutsaturik egon litezkeela eta ez dela gauza ezina *it* hori *edun*, **ezan* eta **iron* adizkiek duten pluralgile bera izatea. Nolaz heldu ote da, ordea, *it* pluralgilea adizki iragankorretarik trinko iragangaitz-tara? Analogiaren norabidea pluraleko adizkietarik singularrekoetara (*gint-* → *nint-*) nahiz iraganekoetarik orainekoetara (*nint-* → *nit-*) gertatu ahal izan delako nioen. Berri Martin Duhaldere *Meditacione*etako *nitagon* ‘nengoen’ adizkia ezagutu dut eta iritzi sendoagoa dut orain berrikuntzaren norabideaz. Honela idatzi zuen apez uztariztarrak: *non egiazki baintagon cernahi egiterat* (1809: 129). Liburu berekoa da *urrun nintagokela* ‘nengokeela’ etsenplua ere (1809: 576); Duhalde *nitagon* ‘nengoen’ & *nintagon* aldaerak zerabiltzan. 2022 eta 2023ko lanak idaztean Beskoitzeko *nintoon* ‘nengoen’ ezagutzen nuen, eta berri *nitagon* ezagutzearan hobeki ulertu dut zer gertatu zen.

4.4.3.7.2. Euskaran ezaguna da iraganeko aditz trinkoen hasierako *nen-* / *nin(d)-*, *hen-* / *hin(d)-*, *gen-* / *gin(d)-*, *zen* / *zin(d)-* bitasuna: *nengoen*, *hengoan*, *geunden*, *genbiltzan* edo *genekien* adizki zaharren kide analogikoak dira *nindagon*, *hindagon*, *gindauden*, *gindabilztan* edo *gindakien* Euskal Herriko eguzkialdean. Aldaketaren ispilu edo indar laguntzaile izan litezke *izan*-eko *nin-(tzen)*, *hin-(tzen)*, *gin-(en)*, *zin-(en)* hasierak, edo beharbada *edun*-en *nind-*, *hind-*, *gind-*, *zind-* egitura. Bokala asimilatuta artean *gend-*, *zend-* ziren iraganeko *edun*-eko *gind-*, *zind-* horiek.

4.4.3.7.3. Ekialde zabalean hedadura zabalskoa duen *nindagon* ‘nengoen’ adizkitik Duhalde idazle uztariztarraren eskualdeko *nitagon* aldaerara dagoen bidea justifi-

²⁴ Eskertzen ditut azpialt honi Pablo Albizuk, Olatz Leturiagak eta Beñat Oihartzabalek egin oharrrak.

katzeko adizkien analogia balia liteke. Ene iduriko, Lapurdiko eskualdean berrikuntza analogiko batzuk gertatu ziren *edun*-en, ondotik gure kasuko *nindagon* → *nitagon* aldaketaren ispilu jokaera eragin zuketena.²⁵ Halaz, *edun*-en *nituen* adizki arruntak badu kide berriago bat, *nintuen* ‘nituen’ analogikoa, oinarria pluraleko subjektuetan ukan lezakeena: *genituen* > *ginituen* > *gintuen* edo *zenituen* > *zinituen* > *zintuen* aldaerek aldaketa guztiak fonikoak dituzte, bai bokal asimilazioa, bai sinkopa. Ondorioz, badugu *edun*-en (guk) *gintuen* ‘genituen’ bat, pluraleko 1. pertsonan, singularreko (nik) *nituen* kutsaraz lezakeena, eta adizki hori *nintuen* ‘nituen’ bilakaraz lezakeena. Eta gertatu da bigarren kutsadura bat ere: *ninduen* «hark ni» arrunta *nintuen* da Duhaldereen mintzoan. Honela, «nik haiek» *nituen nintuen* da eta «hark ni» *ninduen* ere *nintuen* da, zeinetarik ateratzen baita analogiaren bidez *ind* / *int* / *it* sekuentziak elkarri eragiten ari direla, morfologian eta alderdi fonikoan elkarrekin gurutzatzen ari dira *edun* adizkietan *ind*, *int* eta *it*. Dinamika foniko horrek ondotik *edun* aditz iragankorretik aditz iragangaitzetara bidea zabaldu du, adizki trinko iragangaitzetara eta **edin* adizkietara. *Edun*-eko berrikuntza hau, *nitagon* ‘nengoen’ aldaeraren eragile izatekotan, *edun*-ena lehenagokoa beharko luke izan *nindagon* → *nitagon* aldaketa baino. Duhaldereen garaian gaurgero gertaturik zegoen *edun*-en *nituen* → *nintuen*: *nituela* eta *nintuenetz* ‘ote nituen’ dakartza uztaiztarrak, eta bestalde, *nintuen* ‘ninduen’ aldaeraren adibide bat ere badakar. ЕКC-k ez dakar *nintuen* ‘nituen’-en adibiderik Duhalde baino lehen, beraz, Uztaritze alderdian bazen berrikuntza hori XIX. mendearen hasieran eta 1733an sortu zen Duhalde haren erabiltzailea zen.

4.4.3.7.4. Uztaritzetik ez luke urrun egon beharko *nituen* & *nintuen* erako txandaketa: *nitüin* ‘nituen’ dakar Irizarrek Uztaritzen xx. mendearen hondarrean, nahiz pluralean baden *n*: *gintüin* ‘genituen’, *zintüin* ‘zenituen’ (1999: 256). Alta, Uztaritzeko herri auzo den Zuraiden *nintüin* ‘nituen’ dakar Irizarren bildumak, eta baita *gintüin* eta *zintüin* ere. Euskaraz *edun* adizkien *nituen* & *nintuen* ‘nituen’ txandaketak ispilu bat eskaintzen du hiztunak *egon* adizkietan alderantziz *nindagon* ‘nengoen’ → *nitagon* bidea ere egin dezan, eta horrek *nindagon* & *nitagon* txandaketa eragin dezake. Honela, *nitagon* eta *nindagon*-en artean dagoen erlazioan, arestiko *nituin* / *nintuin* paretik desberdina den alderdi bakarra ahostun/ahoskabe arteko aldea da: lehen hartan *t* vs *nt* da txandaketa eta beste honetan, berriz, *t* vs *nd*. Duhalde idazle uztariztarrak *nitagon* zerabilen, lehenago *nindagon* izan zena. Ordea, *egon* aditz trinkoaren iraganeko 1. pertsonan *nd* eta *t* horiez landa bada *nt* sekuentzia ere: horra Aturrialdeko Beskoitzeko *nintoon* ‘nengoen’, aitzinetik *nintogon* < *nintagon* izan zatekeena, iturria *nindagon* duena (Duhau 1993: 6). Toketan bada *nintooian* ‘nengoa’ ere eta pluralean *gintoonan* ‘geundenan’, *gintooian* ‘geundean’ ibiltzen dira Beskoitzeko hiketan (Duhau 1993: 104-105). Duhalde berak **edin*-en hipotetikoko *bahintadi* dakar, lehenago *bahindadi* izan zena (1809: 485-486).

Edun-en bikote berria *nituen/nintuen* zelarik, eta *ninduen* adizkia *nintuen*-ek ordezkatu zuelarik, kutsaduraz edo haien eredura jokaturik, Lapurdiko barnealdean *egon* aditzeko *nindagon* ‘nengoen’, *nituen/nintuen*-en ereduari so eginik, *nitagon/nitagon* bikotea izatera aldatu zen, bi aldaera berrietara aldatu zen *nindagon*. Ez da

²⁵ Pablo Albizuk oroitarazten dit iragangaitz → iragangaitz eragina aiseago gertatzen dela aldaketarako iragankor → iragangaitz norabidea baino.

ahantzi behar eskualdean identifikazio maila handia lortu dela 1. pertsonaren eta *t* markaren artean. Hazparraren eta Bastidan ere bada *nintoon* ‘nengoen’ adizki *t*-duna, eta Arrangoitzen proposamen onetsia da (EHHA). Aldiz, Bardozeke EHHAko inkestan lekuko batek Videgain inkestatazailerari diotso ez darabilte «nintoon». Gainerakoan, ohiko *ninda(g)on* aldaera ibiltzen dute lapurtarrek; nafarrek *nind(ale)gon* & *niñ(ale)gon*. Adierazgarri da ikustea ez dagoela *nitagon* edo *nintagon* aldaerarik *ni-tuen* & *nintuen* erako txandaketa egiten ez den eskualdeetan: konparazione, *nindagon* dakar Baztango Elizondoko mintzora Bruno Etxeniketik 1857an itzuli San Mateoren ebanjelioak.

4.4.3.7.5. Alta, analogia ez da *egon* aditzera mugatu, Beskoitzen *nint-* dago (eta ez *nind-*) *ibili* aditzaren Nor 1. perts. sing.-aren iraganean ere: *nintaailan* ‘nenbilen’ (Duhau 1993: 6, 107), inoiz *nindabilan* izan zena. Eta **edin*-en Nor iraganean *nintaain* ‘nendin’ & *ninten*; pluralean *gintaain* ‘gintezten’ & *ginten*. Nor-Nori iraganean ere Nor *nint-* ageri da *izan*-en Beskoitzen: *nintazkon* ‘nintzaion’, *nintaitzun* ‘nintzaitzun’ (Duhau 1993: 63).

Alokutiboko orainean aditz trinko iragangaitzek 1. perts. pl.-ean *it* pluralgilea dakarte Beskoitzen, hain segur iraganeko *it* berriaren analogiaz: *gitagon* (*gitoon* ahoskatuturik ‘gauden’), *gitagok*, *gitagotzu*, *gitagotxu* / *gitailan* ‘gabiltzan’, *gitailak* & *gabiltzak*, *gitailatzu*, *gitailatxu*. Alokutibotik landa, analogia honek berak berrikuntza bera eragin du **edin*-en oraineko sing.-eko eta pl.-eko jokoetan (Duhau 1993: 56-57): *nintaain* ‘nadin’ & *naain* & *niten*; *hitaain* ‘hadin’ & *haain* & *hiten*; *gitaain* ‘gaitezen’ & *giten* (< **ga-di-te-n*); *xitaain* ‘xaitezen’ & *xiten*. Iraganeko aldaeren egitura oraineko adizkietara analogiaz kutsatu dateke:

IRAGANEKO *nind-*, *gind-*, *xind-* → IRAGANEKO *nint-*, *gint-*, *xint-*
→ IRAGANEKO *nit-*, *git-*, *xit-* → ORAINEN *nit-*, *git-*, *xit-*

4.4.3.8. Lapurdin gaindi jin dira Aturrialdeko eskualdera berrikuntza batzuk Euskal Herriko erdialde hertsitik.²⁶

4.4.4. Aturrialdea: ekialdeko joeren jarraipen-gunea

4.4.4.1. Hizkuntzari dagokionez Aturrialdea ekialdeko Euskal Herriko berrikuntza batzuen halako iraganbide naturala izan da, Amikuzeko ^b*eskuaran* gaindi bereziki. Bardozeke datu zenbait eskaintzen digu EHHAk eta Amikuzeko hitz eta aldaera zenbait Bardozen edo Aturrialdean jarraipena dutela ageri da: hori aspalditik heldu den erlazio bati dagokio, nahiz egun erlazio hori ahulago dagoen. Hiriburun, Lehuntzen, Mugerren, Urketan, Beskoitzen eta bereziki Bardozen atzeman daitezke eskuin Amikuzen edo Zuberoan berragertuko zaizkigun ezaugarri batzuk, Euskal Herriko hizkuntza-ekialdeko jite geolinguistikoa dutenak. Aspalditik Bordeleko Landetara jo izan dute nequan zuberotarrek beren abereekin eta uler daitezke haien aziendak Atur-

²⁶ *johan zelaikan* (Beskoitze, 1913) / *idortea delaikan* ‘lehortea denean’ (Mugerre, EAEL) / *behiaan izterrian johan zelaikan* (Urketa, EAEL) / *hor delarikan* (Beskoitze, Duhau 2003: 304). Alta, inesiborik gabe dakar XIX. mendeko Urketako katiximak: *mintzatzen guielaiak* (Pagola et alii 1999: 342).

rri ur handiko ura beharko zuela bidean: iparreko Lapurdiko, Amikuzeko eta Zuberoko euskaldunen hartu-emanaren eragin ahal ukan du luzaz abeltzaintzak.²⁷

Euskal Herriko hizkuntza-ekialde geografikoa hertsia ala zabala izan daiteke, baina Aturrialdean bi hedaduretako berrikuntzak daude, nahiz ondokotasun geografikoaren hatsarrearen arabera, ekialde zabalekoak, Baxenabarretik jinak, gehiago diren Aturrialdeko eskualdean ekialde hertsikoak baino, hots, Zuberotan —edo Amikuze-Zuberootan— eskusiboak edo semi-esklusiboak diren ezaugarri berriak baino. Bardozko Celhabe notarioak Bonaparterentzat itzuli katiximan badira tasun berriak, Amikuzeko mintzoaren edo Zuberokoaren eite dutenak. Hona ezaugarri horien sorta bat:

4.4.4.2. Bardoztarrek *u* palatala edo <ü> darabilte Aturrialdean, baina hainbat eragozpen du *u*-k Bardozen hitz-bukaeran eta kontsonante aitzinean palatalizatzen; cf. Lafon (1962: 96) eta Encinar (2008). Bardozen badira hitzak *ü*-z nahiz, palatalizatu gabe, *u*-z ahoskatzen direnak: *ulia* 'eulia' & *ülia*. Hitzean bi *u* ondoan direnean aise gertatzen da palatalizazioa Bardozen (EHHA): *bürü*, *mürri*, *pützü*; cf. *zübü* 'zubi' berranalizatua ere. Adizkietan ere bai: *nüxü* / *sobera edana nüxün*.²⁸

4.4.4.3. XIX. mendeko Celhaberren Bardozko katiximak *i-ü* > *ü-ü*-ren etsenpluak dakartza: *bühürtia* (Pagola *et alii* 1999: 277), *lübürü* (278), *ülhün* (315), *ützülia* (277), baina hitz horiek *i*- hasiera dute Bardozen XX. mendeko EHHAn. Egungo Bardozen *bülüzgorrik*, *mürü* 'mirua' & *mülü* eta *üngürü* etsenpluak dakartza EHHAk.

4.4.4.4. «Ozena + hersk. ahosk.» c cluster berria dago Aturrialdean morfema-mugan.²⁹

4.4.4.5. Amikuzen legez, Bardozen muga adlatiboko *-radio* dakar katiximak: *akaantchadio* (305), *boulharreta'adio* (285), *orduradio* (281), egun *-raidio* dena.

4.4.4.6. Adlatiboan *-(a)lat* dago Bardozen.³⁰

4.4.4.7. Zuberotan legez, Bardozko katiximan **edin*-en ahaleko *ei-e* sekuentzia ageri da: *ezteitekena* (288), *deitekezu* 'daiteke' zuketan (279).³¹

4.4.4.8. Hiriburun, Mugerren eta Bardozen bai, baina bestenez, Lapurdin ez da Baxenabarre-Zuberootan legez 2. pertsonako *zue* morfema *zie* palatalizatu.

4.4.4.9. Datiboa 2. perts. pl. denean *zite* morfema dago Amikuzen: *dauzitet* 'di-zuet' (Ilharre). EHHAk Beskoitzen eta Mugerren dakar berrikuntza hau eta Duhauk

²⁷ «Lapurdikoa izana gatik, Baxenabartar hizkuntzaren eitea ere badizu, Beskoitzeakoak: Xuberotarrek bezalako molde batzu ere baditugularik, ahoskatze eta soinu desbardinekin haatik!» (Duhau 1993: 13). EAELko lekukoak ere berdintsu: [-Ez da, beraz, lapurtarra?] *-Bien arte; xuberotarrek erran obi die: «hi, bi lapurtarra hiz?», lapurtarrek: «hi, xuberotarra ai(z)?», ba bien arte eo hola...*

²⁸ Jeanne-Marie Mendibil bardoztarrarengandik Trebitsch-ek 1913an bildu adibideetan bi joera ditugu (Etxebarria 1994): *delibatü*, *esposatü*, *gelditü*... batetik, baina baita palatalizatu gabeko *afermatu*, *bildurik*, *ezagutu*... etsenpluak ere. EHHAk bildu datuetan ere bada *ü* Bardozen, baina ez Amikuzen bezainbat.

²⁹ *hentik* & *beentik* (Bardoze, EHHA), *hantik* (Beskoitze, Duhau 1993: 124; Bardoze, XIX-XX), *nuntik* (Bardoze, XIX-XX), *ontu* 'ondu' & *hontzen* (Bardoze, EHHA). Beskoitzen *nunko* eta *nuntik* (Duhau 1993: 6).

³⁰ Ez Hazparnen bezala *-a-z* bukatu hitzetan bakarrik, beste bukaeretan ere bai: *sürtsalat*, *itsasolat*, *lékulat* (EHHA). Urketako katiximak *bethiko lorialat eremanak izan guiten* dakar (Pagola *et alii* 1999: 365).

³¹ EHHako Bardozko F lekukoak *e-e* ereduak dakar, XX. mendean Amikuzen bezala, baina *-te* gabe: *ezteke* 'ez daiteke' / *sathorrik eleke behar untsalaz* / *etzeken* 'ez zitekeen' / *erraiten du etzekenetz eman*.

eta Irizarrek Beskoitzen. Hiriburun, Beskoitzen eta Bardozen *zite* 2. perts. pl. subj.-marka da ere.

4.4.4.10. *izan*-en pluralgile da *z* Beskoitzen: *bitzauzt* ‘baitzaizkit’ (Duhau 2003: 35), baina Baxenabarren legez, Aturrialdean *z edun*-en pluralgile pleonastikoa da ere.³²

4.4.4.11. Bonapartek *nitien* ‘nituen’ dakar Bardozen, Artolak eta *EHHAk nintien*.³³

4.4.4.12. Baxenabarren bezala, xuketan eta zuketan mintzatzen dira Aturrialdean. Xuketan mintzatzen zitzaizkidan beskoiztarrak 1983an.³⁴

4.4.4.13. Erronkari-Zuberoetan 1. perts. datiboaren morfema errepika daiteke adizkian. Bardozen egun *EHHAk* ez dakar, baina XIX. mendeko katiximak bai: *erraa-zut* ‘erran iezadazu’ (286), *ema’atzut* & *emazkiatzut* ‘eman iezazkidazu’ (316); cf. *-da-* > *-a*.

5. Ondorioak

J. I. Hualderen omenezko idazlan llabur honetan Lapurdiko euskararen aniztasunaren berri dakart, eta, hizkuntza-berrikuntzetan oinarriturik, abiaburutzat eskualdeko lau mintzo-sail aurkeztu ditut: Lapurdiko mendebalekoa, Lapurdiko hego-ekialdekoa, Hazparnealdekoa eta Aturrialdekoa, baina ez ditut behin-betiko sailkapentzat aurkeztu. Izan ere, ez ditugu Lapurdiko berrikuntza guztiak funski ezagutzen, ezta eskualdeetako berrikuntza endemiko guztiak ere: historiaurreko berrikuntza anitz dago eta azterlan gehiago egin behar da horiei buruz. Lau sail horien artean, gainera, berrikuntza-gune gardenak Lapurdiko mendebala, Hazparnealdea eta Aturrialdea dira. Literatura zaharrari esker Lapurdiko mendebaleko berrikuntzak hobeki ezagutzen ditugu. Hazparnealdekoak, berriz, XVIII. mendetik. Aturrialdeko berrikuntzek berrixkoak dirudite, baina ez ditugu XIX. mendetik baizik ezagutzen; *handicap* da hau eskualdeko mintzoa sakon ezagutzeko.

Behar handia dago, bestalde, dialektotzat jotzen den nafar-lapurteraren azterketan sakontzeko ere, haren ezaugarri sendo gehiago ezagutzeko eta aurkezteko. On litzateke nafar-lapurterakoak izateko baldintzak ase ditzaketen ezaugarri berrien sorreraren garaia hobeki ezagutzea: ea hizkuntza-ezaugarri horien konbinazio nagusia garai edo geruza kronologiko jakin bati esleitzen ahal diogun, ala nafar-lapurteratzat jotzen den dialektoa finka dezaketen ezaugarriak garai bat baino gehiagotan sortuak ote diren. Ohi bezala, nabarmena da ikerketa gehiagoren beharra.

³² Lehuntzen *tuzt* ‘ditut’ (Irizar 2002b: 161) eta Beskoitzen *bititut* ‘baititut’ & *bitiuzt* / *tuk* ‘dituk’ & *tuzk* (Duhau 1993: 65-66). Analogikoa da Beskoitzeko *nintuzten* ‘ninduten’ ere (69).

³³ Amikuzen eta Oztibarren bezala, iraganeko *edun*-en Nor Nork saileko pl.-eko 1. eta 2. perts. subjektuen analogiaz, Aturrialdean ere *n* etorri da sing.-eko 1. eta 2. perts. subjektuetara: *nintiin* ‘nituen’ edo *banintu* ‘banitu’ ibiltzen dira Beskoitzen (Duhau 1993: 69, 71).

³⁴ Beskoitzen zuketala alokutiboa dakar Iratzederrek, *duzu* diotela: «*da* erraitea, hazpandar gisa mintzatzea zaiote» (Irizar 2002b: 143). Gizarte-erabileraz ikus Irizar (2002a: 268, 2002b: 134-135).

Bibliografia

- Aranzadi Zientzia Elkartea. 1984-1990. *Euskalerriko atlas etnolinguistikoa (EAEL)*, 2 lib. Donostia.
- Arbelbide, Jean Pierre. 2004 [1890]. *Erlisioea: Eskual-Herriari dohazkon egiarik beharrena*. Iruñea: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.
- Camino, Iñaki. 2022. *Aztergaiak Ipar Euskal Herriko euskararen berrikuntzez*. Bilbo: UPV/EHU.
- Camino, Iñaki. 2023. Aturrialdeko *beskuararen* berrikuntzen kokagune geografikoa. In David Lindemann (arg.), *Miren Azkarateri esker onez*, 97-119. Bilbo: UPV/EHU.
- Celhabe, M. 1999 [1863]. *Güichtiño-dotrina aita Gaspar Astete Jesuistac Españolez iskiibatuc zoumbeit othoitz eta beze gauzaz*. In Rosa Miren Pagola, Itziar Iribar & Juan Jose Iribar (arg.), *Bonaparte Ondareko eskuizkribuak. Ekialdeko behe-nafarrera 1*, 275-316. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Duhalde, Maitena. 2023. *Lapurdiko itsas hegiko euskararen azterketa dialektologikoa*. Gasteiz: UPV/EHUko doktorego tesia.
- Duhalde, Martin. 1978 [1809]. *Meditacioneac gei premiatsuenen gainean, cembait abisuekin, othoitcekin eta bicitceco erregela batekin*. Donostia: Hordago.
- Duhau, Henri. 1993. *Hasian hasi. Beskoitzeko euskara*. Donibane Lohizune: Alinea.
- Duhau, Henri. 2003. *Hasian-hasi. Beskoitzeko euskara. Birdena edo bigarren partea*. Donibane Lohizune.
- EAEL = Aranzadi (1984-1990).
- Encinar, Kristina. 2008. Lapurdiko Aturriko euskara: Barдозeko ü bokalaz. *Euskera* 53(2). 383-395.
- Epelde, Irantzu. 2003. *Larresoroko euskara*. Gasteiz: UPV/EHUko doktorego tesia.
- Epelde, Irantzu. 2004a. Lapurdiko hego-ekialdeko euskararen kokapenerantz. *FLV* 96. 271-303.
- Epelde, Irantzu. 2004b. Larresoroko gaur egungo euskara. *Euskera* 49(2). 663-677.
- Etxebarria, José María. 1994. Las grabaciones de Viena en euskera. Bajo navarro occidental y bajo navarro oriental. *Mundaiz* 47. 45-75.
- Etxepare, Ricardo & Larraitz Uria. 2016. Microsyntactic variation in the Basque hearsay evidential. In Beatriz Fernández & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *Microparameters in the Grammar of Basque*, 265-288. Amsterdam-Philadelphia: John Benjamins.
- Euskaltzaindia. 2008-2020. *Euskararen Herri Hizkeren Atlas (EHHA)*, 11 lib. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Irizar, Pedro. 1981. *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*, 2 lib. Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.
- Irizar, Pedro. 1997. *Morfología del verbo auxiliar labortano*. Bilbo: UPV/EHU & Euskaltzaindia.
- Irizar, Pedro. 1999. *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental*. Bilbo: UPV/EHU & Euskaltzaindia.
- Irizar, Pedro. 2002a. *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro oriental II*. Bilbo: UPV/EHU & Euskaltzaindia.
- Irizar, Pedro. 2002b. *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro oriental III*. Bilbo: UPV/EHU & Euskaltzaindia.

- Lafon, René. 1962. Sur la voyelle *ü* en basque. *Bulletin de la Société Linguistique de Paris* 57. 83-102.
- Manterola, Julen. 2015. *Euskararen morfologia historikorako: artikulua eta erakusleak*. Gasteiz: UPV/EHUko doktorego tesia.
- Mitxelena, Koldo. 1964. *Textos arcaicos vascos*. Madril: Minotauro. (Berrarg. OC 12, 1-197).
- Mitxelena, Koldo. 1977. *Fonética histórica vasca*. 2. argit. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. (1. argit., 1961; berrarg. OC 6).
- Mitxelena, Koldo. 2011. *Obras completas (ASJUren Gehigarriak 54-68)*, 15 lib. Donostia & Gasteiz: «Julio Urkixo» Euskal Filologi Mintegia, Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU (Joseba A. Lakarra & Iñigo Ruiz Arzalluzen argit.).
- Montoya, Estibalitz. 2004. *Urdazubi eta Zugarramurdiko euskara*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Oihartzabal, Beñat. 1999. Euskarazko irakaskintzaren historia ororen eskolen ildotik, frantses iraultzaren garaiko eskola liburuxka bat. *Lapurdum* 4. 81-105.
- Padilla, Manuel. 2011. Kadet eta Bettiriño edo Yesu Christo eguiatzco Yainco Guizonaren bizia eta heriua laur evanyelista eguiatzcuen eta sainduien arabera. *XVIII. mendeko eskuizkribu anonimo baten edizio kritikoa eta azterketa*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Pagola, Rosa Miren, Itziar Iribar & Juan Jose Iribar. 1999. *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Ekialdeko behe-nafarrera I*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Pregariac Bayonaco Diocezacotz. Ioannes d'Olce Bayonaco Iaun Aphezpicuaren manamenduz ordenatuac eta imprimaraciac*. 1991 [1651]. In Louis Lucien Bonaparte. *Opera Omnia Vasconice III*, 191-215. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Zelaieta, Edu. 2008. *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa*. Iruñea-Bilbo: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.
- Zuazo, Koldo. 1998. Euskalkiak. Gaur. *FLV* 78. 191-233.
- Zuazo, Koldo. 2018. *Sarako euskara*. Bilbo: UPV/EHU.

Revisiting Argentine Spanish intonation: Córdoba and San Luis

Laura Colantoni*
University of Toronto

ABSTRACT: Pretonic lengthening has been reported as the most salient characteristic of Córdoba Spanish (Lang-Rigal 2014; Lenardón 2017). If the relative duration of the pretonic to the tonic is a cue to stress in Spanish (Ortega & Prieto 2011; Hualde 2015), it is worth exploring what the cues are in a variety in which pretonic syllables are longer than tonic ones. I analyze the production of oxytones, bi- and trisyllabic paroxytones and proparoxytones by six speakers from Córdoba and three from the neighbouring province of San Luis. An analysis of relative duration and intensity, as well as pitch accent types, revealed that pretonic lengthening was more prominent in and near the capital of Córdoba than in the rest of the province but was also attested in San Luis. Consistent with previous studies (Requena *et al.* 2013; Lang-Rigal 2014), participants from Córdoba showed a tendency to align the f_0 peak within the stressed syllable but varied in the alignment of the peak depending on the type of word and the location. Overall results support the existence of a geographical continuum in the use of relative duration of tonic, pretonic and posttonic syllables (Vidal de Battini 1964) and reveal the need of more systematic explorations of the correlate of stress in different word types and across Argentine varieties.

KEYWORDS: Córdoba Spanish; Argentine Spanish; stress; acoustic correlates of stress; duration.

1. Introduction

This contribution is conceived as a homework, which attempts to answer a question that José Ignacio asked me a short time ago and that we are hoping to systematically investigate in the future. The question has to do with the nature of stress and

* **Corresponding author:** Laura Colantoni. Department of Spanish & Portuguese - Northrop Frye Hall 304 (University of Toronto). 73 Queen's Park Cr (Toronto, ON M5S1K7, Canada). – laura.colantoni@utoronto.ca – <https://orcid.org/0000-0002-9731-0077>

How to cite: Colantoni, Laura (2023). «Revisiting Argentine Spanish intonation: Córdoba and San Luis», *ASJU*, 57 (1-2), 209-223. (<https://doi.org/10.1387/asju.25950>).

Received: 2022-10-27; Accepted: 2023-01-13.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



This work is licensed under a

Creative Commons Attribution-NonCommercial-NoDerivatives 4.0 International License

intonation in the Spanish spoken in my native province: Córdoba (Argentina). Why was José Ignacio intrigued by Córdoba Spanish? Because, in this variety, pretonic vowels are longer than tonic ones (e.g., [pro:'βle.ma] 'problem'), and this lengthened vowel is described and indeed perceived as *the* characteristic that allows all other Argentinians to recognize the *tonada* (Lang-Rigal 2014; Lenardón 2017). If it is true that a defining characteristic of Spanish stress is that "la tónica suele ser más larga que las pretónicas" ['tonic vowels tend to be longer than pretonic ones'] (Hualde 2015: 251), what happens in a variety in which the syllable that is lengthened is the pretonic? Moreover, which are the cues to stress in words that do not have a pretonic, such as bisyllabic paroxytone words?

As it will be discussed in the next section, pretonic lengthening has been documented in literary (Mansilla 1870) and linguistic works both from an auditory (Fontanella de Weinberg 1971; Vidal de Battini 1949, 1964) and an experimental perspective. However, little is known about the acoustic cues to lexical stress and about how stress interacts with intonation. There is some ambiguity even regarding the nature of pretonic lengthening. Is the *tonada* a lexical (Yorio 1973) or a purely post-lexical phenomenon, as the term *tonada* seems to imply? Is it systematic (i.e., all pre-tonic syllables are lengthened) or is it variable? Using a corpus collected for the *Linguistic Atlas of Latin America* (Alvar & Quilis 1984), I will address some of these questions by exploring the prosody of isolated read words that differ in their stress patterns (i.e., oxytones, paroxytones and proparoxytones) and in the presence vs. absence of pretonic syllables (paroxytones only), as illustrated in (1a, b).

- (1) a. Stress patterns under study:
 Oxytones: [a.'βril] 'April'
 Paroxytones: ['ka.sa] 'house'
 Proparoxytones: ['par.pa.ðo] 'eyelid'
 b. Types of paroxytones:
 No pretonic syllable: ['ka.sa]
 One pretonic syllable: [sa.'pa.to] 'shoe'

No hay razón para pensar que, hoy, *tristura* y *tristezia* sean términos utilizados en forma complementaria en los dialectos vascos, sino que ambos parecen tener en ellos la misma amplitud. Tampoco eran términos complementarios en castellano en el pasado: un ejemplo de castellano renacentista en un poema de Garcilaso, en que el autor se vale de la ventaja de contar con la diferencia formal de dos voces para la composición poética, nos sirve para comprobar su carácter de sinónimos sin más:¹⁸

[...] Más que desque vido bien que, corrompiendo
 con lágrimas sus ojos, no había
 sino en su llanto estarse deshaziendo,
 y que tornar llorando no podía
 su charo y dulce amigo de la oscura
 y tenebrosa noche al claro día, los ojos enxugó y la frente pura
 mostró con algo más contentamiento,
 dexando con el muerto la tristura.
 Y luego con gracioso movimiento
 se fue su passo por el verde suelo,
 con su guirlanda usada y su ornamento;
 desordenava con lascivo buelo
 el viento sus cabellos: con su vista
 s'alegrava la tierra, el mar y el cielo.
 Con discurso y razón, que's tan prevista,
 con fortaleza y ser, que en ti contemplo,
 a la flaca tristeza se resista [...]

(Garcilaso, *Elegía I*, 226-243)¹⁹

¹⁵ En *CORDE* se recoge *valle de la Tristura* como topónimo en Colombia (*s.v. valle de la Tristura*). También el *CORDE* aporta *valle de tristura*, con minúscula en los tres casos registrados (dos en Timoneda, 1573, y uno en el Cancionero *Flor de enamorados* (1562).

¹⁶ Como puede comprobarse consultando los varios corpus del sitio web de Euskaltzaindia-Real Academia de la Lengua Vasca.

¹⁷ Coromines (*DECat* 8, 848a, *s.v. trist*). A diferencia de lo que Coromines-Pascual afirman sobre castellano *tristícia* en el *DCECH* que hemos mencionado en una nota anterior, de catalán *tristícia* dice Coromines: «*Tristícia*, en fi, tingué ampli prestigi prosaic des de Lull fins al S. XVII (en què encara el *DTo* el dóna com a forma modélica)» [*DTo* = Peter Torra, *Dictionarium seu thesaurus catalano-latinus*, Barcelona 1653, Vic 1757; Coromines advierte que las citas provienen de este último] (*DECat* 8, 848a, *s.v. trist*).

¹⁸ De lo mucho que se ha escrito sobre sinonimia destaco estas líneas de Rodríguez Adrados que sirven para reflejar la afirmación: «La mayor impresión de verdadera sinonimia la recibimos cuando al hablar o escribir evitamos la repetición de una palabra —ciertas lenguas como el español son muy sensibles a ella— e introducimos un sinónimo para lograr una variación. Aquí, sin duda, la perturbación causada por la repetición es lo suficientemente grande como para ser preferida la introducción de un sinónimo, con los rasgos diferenciales que comporte. Estos quedan encubiertos porque la atención no está dirigida a ellos, sino a un mismo referente que no se expresa con distinta palabra por otra cosa que por evitar la repetición» (Rodríguez Adrados 1974: 543).

¹⁹ Cito por la edición de E. Rivers (1974).

En realidad, las posibilidades de rima que *tristura* ofrecía en castellano renacentista eran copiosas (se encuentran numerosos ejemplos en rima con *sepultura*, *criatura*, *dulzura*, *amargura*, *mesura*, *fermosura*, *cura*, *vestidura*, *holgura*...), lo que hacía a la voz apta para el cultivo poético del momento;²⁰ fue por ello muy querida a los poetas, pero se empleó igualmente en boca de personajes populares, en comedias y romances del siglo XVI, lo que muestra que la voz no se utilizaba solamente en ámbitos cultivados, como también en euskera se encuentra expandida a diferentes registros y niveles.²¹

5. *Tristura* y *tristeza* en la lexicografía

El trasvase de ambas unidades al diccionario ofrece ciertas peculiaridades: junto a la equivalencia dentro de un mismo artículo o su remisión interna en el propio diccionario, que es constante a lo largo de la tradición lexicográfica castellana, en euskera se tratan como voces lematizadas en artículos distintos, si bien convenientemente registradas, eso sí, como muestra del reconocimiento institucional del que gozan.

Una mirada a los diccionarios históricos de la lengua castellana nos proporciona apuntes fraseográficos de interés: la voz *tristura* no se registra en los diccionarios nebrisenses, pero en el *Diccionario Español Latino* del siglo XV (anónimo, editado por Gerald J. Mac Donald 2007) la equivalencia está a la vista, pues se lee:

- (1) «Tristeza o Tristura [sic] *Hec mestitia* o *Hec / tristitia*. Antiguamente *Mestitudo* dizjan»

Otros muchos diccionarios, tanto monolingües como bilingües o multilingües, testimonian la sinonimia de ambas voces en castellano. Sirvan como muestra ejemplos tomados del *Nuevo tesoro lexicográfico de la lengua española* (NTLLE):

- (2) «trifteza, *tristeffe*; tristura, *tristeffe*» (Juan Palet 1604)
 (3) «Triftura, Voyez tristfeza» (César Oudin 1607)
 (4) «Trifteza. L. triftitia. A. *Sadness* [...] Triftura, *Idem*» (John Minsheu 1617)
 (5) «triftura, vedi trifteza» (Lorenzo Franciosini 1620)

Finalmente quedó recogida en el *Diccionario de autoridades* (1739) de la Real Academia Española como:

- (6) «*Tristura*: lo mismo que *tristeza*»

Y, en los siguientes, con la indicación de que *tristura*: «Es voz antiquada», hasta la actualidad (DLE en línea), en que *tristura* se remite a la voz *tristeza*.

²⁰ El número de voces que riman, y rimaban en el pasado, con *tristura* encuentra parangón en las también existentes en euskera (*obitura*, *lotura*...), aunque su presencia poética no sea equiparable por razones propias del patrón rítmico y métrico de cada lengua, además de preferencias individuales.

²¹ Añadamos como último apunte de este apartado, que junto al registro de *tristura* y *tristeza* con sus muchas variantes en euskera mencionado al principio en el DGV-OEH, *tristeza* parece recibir consideración de mayor amplitud semántica, pues, además de 'tristeza', se añade la acepción 'desgracia'. En el caso del castellano, *tristeza* tiene una segunda acepción propia del habla de germanía, 'sentencia de muerte'.

La equivalencia se traslada también a la propia traducción del castellano al euskera en contexto lexicográfico. Se puede calificar de inconcreta la equivalencia que se lee en el *Diccionario inédito vasco-castellano de José M.^a Odriozola y L. L. Bonaparte* (M.^a C. Etxebarria & J. M.^a Etxebarria 1990), donde *tristura* aparece solo en la equivalencia castellana:

- (7) «Tristeza = Tristeza [tristura]»

En cambio, en el *Diccionario castellano-vasco de Valdizarbe* (Arana 2009)²² el castellano *tristeza* se traduce al euskera por *tristura*, como si *tristura* fuese palabra vasca y *tristeza* castellana:

- (8) «Tristeza : tristura»

Esto último estaría en consonancia, en cierto modo, con la decisión que tomó Pedro Berrondo cuando, por ejemplo, prefirió traducir el castellano *tristeza* por *trixtura* de *El Quijote*, con palatalización que parece dotar de euskeridad (guipuzcoana en este caso) a esta variante que consideró idónea para la equivalencia vasca de la voz en el siguiente pasaje cervantino:

- (9) «[...] y, así, te ruego, Sancho, que calles, que Dios, que me ha puesto en corazón de acometer ahora esta tan no vista y tan temerosa aventura, tendrá cuidado de mirar por mi salud y de consolar tu *tristeza*» (*Quijote*, I, XX)

Pasaje que queda vertido al euskera como:

- (10) «[...] ara bada Santxo, isildu zaite mesedez, eta onen izugarritzko eta ikusi-gabeko burrukan sartzeko gogoa eman didan Jainkoak, berak zainduko nere osasuna eta alaituko zure biotzeko *trixtura*» (Berrondo 2005 [1977]: 217)²³

Ciertamente, la posibilidad de elección entre varias palabras guarda estrecha relación con el deseo de evitar repeticiones, como queda expresado en la nota 18, pero resulta palmario que cuando Berrondo traduce por *trixtura* el término *tristeza* del pasaje cervantino no lo hace por esa razón.

6. Fraseología y fraseologización

Además de la adaptación fonológica de *tristura-tristezia* como préstamo léxico latino-romance y su vitalidad en la historia del euskera y sus dialectos, así como su tratamiento lexicográfico, queda aún un fleco que no deja de tener su interés; se trata de su aproximación a la linde con la fraseología a través de un proceso de estructura rítmica, pues uno de los componentes del doblete *tristura-tristezia* ha dado lugar a rasgos próximos a indicios de comportamiento fraseológico o, al menos, ha sido objeto de consideración metafraseológica de carácter fraseológico. Es el caso del binomio, más concretamente, del binomio yuxtapuesto *TIPULA-TRISTURA* (el testimonio

²² No me ha sido posible consultar la versión anterior en euskera de la obra.

²³ También en gallego se encuentra *tristura* (ya en Sarmiento c. 1745 v. *CORDE*), y es posible que un sentimiento semejante haya contribuido a considerar gallega la voz o, al menos, más gallega que castellana.

fraseológico documentado es *tipule tristure*, así registrado gráficamente por Dámaso Inza «1074 *Tipule tristure. Txikitzean negarra sortu dezakelako ote?*»²⁴ registrado en el *DGV-OEH* como TIPULA-TRISTURA (s.v. *tipula*), que presenta secuencia rítmica en la que podría verse cierto carácter expresivo o jocoso.²⁵ Nos encontramos aquí ante un caso de binomio yuxtapuesto (cast. *teje maneje, tiquis miquis*,²⁶ *así asá*), presente también en euskera (*tipust-tapast* ‘de repente’), y no raro como binomio de origen onomatopéyico: *trist-trast, tristi-trosta, tipi-tapa...*, junto a la quizá más productiva estructura binomial de dos miembros coordinados: *salto ta brinko, jo ta auzi, jo (e)ta ke, jo ta ma...*

De hecho, la estructura binomial es una manifestación particular del fenómeno más general de la repetición (García-Page 2008: 329).²⁷ Teniendo en cuenta que el ritmo y la rima constituyen rasgos configuradores de los fraseologismos (*el que fue a Sevilla perdió su silla | el que fue a Quito perdió el banquito...*), se ha destacado el aspecto fónico de locuciones binomiales de casos como *contante y sonante, mondo y lirondo, troche y moche...*), perceptible igualmente en *teje maneje* o *tiquis miquis* y, por lo tanto, en euskera *tipule tristure*, como factores que contribuyen a la fijación de modismos y locuciones.

Pues bien, es importante señalar que los signos solidarios quedan encapsulados aquí de manera rígida, pues la relación de sinonimia se realiza por el carácter formulario del binomio y la propia inmediatez textual, de forma que el significado contextual de *tipule tristure* lo convierte en sinónimo fraseológico. Y, claro está, traducir *tipule tristure* por ‘lágrimas de cocodrilo’, como se hace en *DGV-OEH* implica reconocer el hecho de que la fraseologización se produce en un ámbito de contacto de lenguas euskera-castellano, pues se ha trasvasado al euskera lo que sucede en castellano, sea en los mismos hablantes, sea en hablantes distintos. Dicho con otras palabras, el sentido fraseológico se ha activado a través de su correspondencia castellana, lo que seguramente está en la base del propio proceso de fraseologización de *tipule tristure*.

²⁴ Recogido en el *DGV-OEH* s.v. *tipula* a partir de la información proporcionada por Dámaso Inza, recopilada en Oskotz e incluida en su libro *Nafarroako Euskal Esaera Zarrak* (1974) (puede verse también en Archivo de texto NEZ-045: *Nafarroako Esaera Zaharrak, Mediateka - Nafarroako Euskararen Mediateka* <http://mediateka.fonoteka.com>).

²⁵ Carácter jocoso del mismo tenor que el juego infantil en el que, al simular el comienzo de una representación teatral, se presentaba con la fórmula ya hecha: *Se titula la tipula*. Este divertimento infantil tenía lugar en un ámbito de convivencia de lenguas y, por lo que he sabido del contexto familiar, se había transmitido de una generación a otra. La acentuación *tipúle* queda señalada por Michelena (1972b: 167) para Eugui. Como nota marginal señalaré que, así como Michelena no hizo nunca mención a *tristura* ni a *tristezia* salvo, claro está, en el *DGV-OEH*, *tipula* y sus variantes, en cambio, han tenido más fortuna y se encuentran por doquier en su obra, incluso en el recién publicado artículo dispuesto para su impresión por José Ignacio Hualde para *ASJU* (Michelena 2022).

²⁶ Locuciones que en ocasiones han terminado evolucionando en castellano a simples compuestos léxicos (*tejemaneje, tiquismiquis*) o en resultados con los que tienen fronteras difusas, como parece suceder en el caso que estamos señalando del euskera, que ha conducido a que lexicográficamente se resolviera como TIPULA-TRISTURA.

²⁷ Sobre reduplicaciones de base trisilábica en el área mediterránea (it. *ningola nangola, patatin pataton*, con claro paralelo castellano en *patatín patatín*), como es el caso de *tipule tristure*, llamé la atención hace muchos años (Echenique 1987: 21-22).

7. A modo de conclusión

En realidad, no sería imposible pensar que *tristura* fuera palabra vasca, esto es, creada en espacio de habla vasca, a partir de una raíz latina, como sucedió con *serora*, a la que el propio Corominas calificó de palabra vasca y no románica, como ya se ha dicho. Que aparezca en catalán, zona de estrecho contacto con el euskera en el pasado, no es obstáculo para defender una posible formación originaria de *tristura* en zona vasca, ni siquiera su existencia en gallego, a donde pudo llegar, bien a través del castellano general, bien por vía marítima más directa. Su integración en euskera, en todo caso, no debió resultar difícil debido al gran número de palabras vascas terminadas en *-ura*. A su vez, los derivados que tiene en euskera, muestra de su vitalidad en área vasca, hablarían en favor de esta posibilidad.

Sirvan las palabras de quienes han estudiado con mucha profundidad y competencia a partir de premisas bien contrastadas las implicaciones entre ambos mundos: «la adaptación de préstamos en la situación de bilingüismo [...] es algo no tan sencillo como pareciera que debiera ser, a pesar de la semejanza fonológica y fonética entre las dos lenguas en contacto. (Hualde 2002: 161); «El trabajo sobre las consecuencias de la intensa y larga relación entre dos lenguas, que durante siglos han estado aun de forma diversa siempre en intenso contacto, es tan complejo como interesante» (Oñederra 2021: 432).

La conclusión más plausible es, de todos modos, simple y se concreta en que la historia de ambos términos muestra un contacto muy estrecho entre castellano y euskera desde época temprana, pues temprana es también su presencia en la lengua castellana.

Bibliografía

- Alonso, Dámaso. 1959. *La fragmentación fonética peninsular* (Suplemento al tomo I de la *Enciclopedia Lingüística Hispánica*). Madrid: C.S.I.C.
- Anónimo. Siglo xv. *Diccionario español-latino del siglo XV*. New York: Hispanic Seminary of Medieval Studies. Editado por Gerald J. Mac Donald, 2007.
- Arana, Aitor. 2009. *Diccionario castellano-vasco de Valdizarbe*. Gares: Ayuntamiento de Puente la Reina (Con la colaboración de Pérez de Laborda, Fernando, Fernando Maiora, Koldo Colomo & Xabier Vélez).
- Berrondo, Pedro. 1977. *Don Kijote Mantxa'ko*. Bilbao: Diputación Foral de Bizkaia. (Reed. en San Sebastián: Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte / Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, 2005).
- CORDE = Real Academia Española. *Corpus diacrónico del español (CORDE)*. <http://corpus.rae.es/cordenet.html> (22/09/2022).
- Coromines, Joan. 1980-2001. *Diccionari etimològic i complementari de la llengua catalana*, 10 vols. Barcelona: Curial (Con la colaboración de Gulsoy, Joseph & Max Cahner).
- Corominas, Joan & José Antonio Pascual. 1980-1991. *Diccionario crítico-etimológico castellano e hispánico*, 6 vols. Madrid: Gredos.
- DCECH = Corominas & Pascual (1980-1991).
- DECat = Coromines (1980-2001).
- DGV-OEH = Michelena & Sarasola (1987-2005).

- DLE = Real Academia Española & Asociación de Academias de la Lengua Española. 2018. *Diccionario de la lengua española*. Madrid: RAE. <https://dle.rae.es> (22/09/2022).
- Echenique, M.^a Teresa. 1987. *Historia lingüística vasco-románica*. 2.^a ed. Madrid: Paraninfo (1.^a ed., San Sebastián: Diputación Provincial de Gipuzkoa, 1984).
- Echenique, M.^a Teresa. 1997. El latinismo en escritores vascos de los siglos XVI y XVII. In *Estudios de historia lingüística vasco-románica*, 161-168. Madrid: Istmo (Publicado inicialmente en *Actas do XIX Congreso Internacional de Lingüística e Filoloxía Románicas*. Santiago de Compostela, 357-363. A Coruña: Fundación «Pedro Barrié de la Maza, Conde de Fenosa», 1989).
- Echenique, M.^a Teresa. 2005. A propósito de la confluencia vasco-románica circumpirenaica; los derivados de lat. SOROR. In Brigitt Horiot, Elmar Schafroth & Marie-Rose Simoni-Aurembou (eds.), *Mélanges offerts au Professeur Lothar Wolf*. «Je parle, donc je suis... de quelque part», 291-302. Lyon: Centre d'études linguistiques Jacques Goudet.
- Echenique, M.^a Teresa. 2013. Dialectos románicos y dialectos vascos en contacto en la protohistoria hispánica. *Aemilianense* 3. 23-45.
- Echenique, M.^a Teresa & Enrique Pato. 2019. Aportaciones renovadas a las relaciones léxicas entre el vasco y el latín-romance. In Irantzu Epelde & Oroitz Jauregi (eds.), *Bihotz ahots*. L. Oñederra irakaslearen omenez, 175-195. Bilbao: UPV/EHU.
- Etxebarria, M.^a Carmen & José M.^a Etxebarria. 1990. *Diccionario inédito vasco-castellano de José M.^a Odriozola y L. L. Bonaparte*. Donostia-San Sebastián: Sociedad de Estudios Vascos.
- Euskaltzaindia-Real Academia de la lengua vasca. *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa (EHHA)* https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_content&view=article&id=565&Itemid=466&lang=eu
- García-Page Sánchez, Mario. 2008. *Introducción a la fraseología española. Estudio de las locuciones*. Barcelona: Anthropos.
- González Ollé, Fernando. 2004. Navarra, *Romania emersa* y ¿*Romania submersa*?. *Aemilianense* 1. 225-270.
- Hualde, José Ignacio. 2002. Algunas observaciones acerca de la influencia de la lengua castellana en la fonología del habla vasca tradicional de Bilbao y su comarca. In Adolfo Arejita, Ana Elejabeitia, Carmen Isasi & Joan Otaegi (eds.), *Bilbao. El espacio lingüístico. Simposio 700 aniversario*, 153-162. Bilbao: Universidad de Deusto.
- Hualde, José Ignacio. 2010. Neutralización de sibilantes vascas y seseo en castellano. *Oihernart* 25. 89-116.
- Larramendi, Manuel. 1745. *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín*. San Sebastián: Bartolomé Riefgo y Montero (Reimpr. facsim. San Sebastián: Txertoa, 1984, 2 vols.).
- Mac Donald, Gerald J. (ed.). 2007. *Diccionario español-latino del siglo XV*. New York: Hispanic Seminary of Medieval Studies.
- Malkiel, Yákov. 1957-1958. Diachronic hypercaraterization in Romance. *Archivum Linguisticum* 9. 79-113; 10. 1-36 (Publicado después como Fenomeni di ipercaraterizzazione diacronica nelle lingue romanze, en *Linguistica generale, Filologia Romanza, Etimologia*, 170-239. Firenze: Sansoni, 1970).
- Michelena, Luis. 1972a. Léxico vasco y etimología. In Harald Haarmann (ed.), *Festschrift Wilhelm Giese. Beiträge zur Romanistik und allgemeinen Sprachwissenschaft*, 79-95. Hamburgo: Helmut Buske (Reed. OC 8, 659-672).

- Michelena, Luis. 1972b. A note on old Labourdin accentuation. *ASJU* 6. 110-120 (Reed. *OC* 7, 164-175).
- Michelena, Luis. 1984. Presentación. In M.^a Teresa Echenique Elizondo. *Historia lingüística vasco-románica*, 11-13. San Sebastián: Diputación Provincial de Gipuzkoa (2.^a ed. Madrid: Paraninfo, 11-18).
- Michelena, Luis. 2011. *Obras completas (Anejos de ASJU 54-68)*, 15 vols. San Sebastián & Vitoria: Seminario de Filología Vasca «Julio Urkixo», Diputación Foral de Gipuzkoa & UPV/EHU (ed. de Joseba A. Lakarra & Iñigo Ruiz Arzalluz).
- Michelena, Luis (dispuesto para su impresión por José Ignacio Hualde). 2022. On the origins of words and names. *ASJU* 56. 323-335. <https://doi.org/10.1387/asju.23622>.
- Michelena, Luis & Ibon Sarasola. 1987-2005. *Orotariko Euskal Hiztegia / Diccionario General Vasco*, 16 vol. Bilbao: Real Academia de la Lengua Vasca (10.^a ed. electr. 2022: <http://www.euskaltzaindia.eus/oeh>).
- Nafarroako Esaera Zaharrak, Mediateka-Nafarroako Euskararen Mediateka* <http://mediateka.fonoteka.com>.
- NTLLE = Real Academia Española. [2001]. *Nuevo tesoro lexicográfico de la lengua española (NTLLE)*. <https://apps.rae.es/ntlle/SrvltGUILoginNtlle> (17/12/2023).
- Oñederra, Miren Lourdes. 2021. Consecuencias en el bilingüismo actual de algunas divergencias diacrónicas entre castellano y vasco. In M.^a José Martínez Alcalde, Juan Pedro Sánchez Méndez, Francisco Javier Satorre Grau, Mercedes Quilis Merín, Amparo Ricós Vidal, Adela García Valle, Francisco Pedro Pla Colomer & Santiago Vicente Llacata (eds.), *El español y las lenguas peninsulares en su diacronía: miradas sobre una historia compartida. Estudios dedicados a M.^a Teresa Echenique Elizondo*, 419-433. Valencia & Neuchâtel: Tirant Humanidades & Université de Neuchâtel.
- Rivers, Elías 1974. *Obras completas de Garcilaso de la Vega con comentario*. Madrid: Castalia.
- Rodríguez Adrados, Francisco. 1974. *Lingüística estructural*, 2 vols. Madrid: Gredos.
- Thun, Harald & Edgar Radtke (eds.) 1996. *Neue Wege der Romanischen Geolinguistik*. Kiel: Westensee.
- Winkelman, Otto. 1996. La geolingüística pluridimensional y el análisis de situaciones de contacto lingüístico. In Harald Thun & Edgar Radtke (eds.), *Neue Wege der Romanischen Geolinguistik*, 342-353. Kiel: Westensee 1996.

/h̃/ hasperen sudurkarituaren inguruan¹

On the nasalized aspiration /h̃/

Ander Egurtzegi*
CNRS-IKER

ABSTRACT: This work brings together the results from several studies carried out on the Basque segment /h̃/, and presents its main characteristics. Starting from its general typological distribution, the rarity of this segment is recalled, as well as that of an opposition between aspirates based on nasality. Regarding its development within Basque, it is mentioned that the straightforward intervocalic *n > /h̃/ process, which Mitxelena passionately advocated for, has prevailed as the generally accepted account, and it is tentatively placed between the 5th and 8th centuries. Finally, synchronic phonetic and phonological aspects of this segment are presented: a detailed description of the phonetic structure of this sound and its phonological fea-

¹ Argitaratzaileek José Ignacio Hualderi zuzenduriko omenaldi-liburura nire ekarpen txoa bidaltzeko aukera eman zidatenean nolabaiteko ezustean hartu ninduten. Lan honi buruz pentsatzean burura etorri zitzaidan lehen gaia azentueria izan zen, baina aurreko urtean gaiaren inguruko nire lan sorta bidali berri nuen. Badira nolabait, lan horiek ere, Hualde irakaslearentzako nire omenaldi xumeak, nahiz eta koordinaturik ez egon orain eskuartearen duzuna bezala (ikus gure artean irekitako elkarrizketa ezin interesgarriagoa: Egurtzegi & Elordieta 2023, Hualde 2022, eta Egurtzegi 2022). Beraz, liburu honetarako egokia den beste zerbait aurkitu behar nuen. Zorionez, omenduaren ekarpenak ugari izan dira oso, eta ez da zaila izan honakoan lantzeko beste gai bat topatzea. Espero dut lan hau gustura irakurriko duela, nik bere lan asko gustura irakurri ditudan bezala.

Nahiz eta ortografikoki zuzena ez izan, lan honetan <h̃> idazkera ez transkribatuan ere erabiliko da argitasunaren onurari. Artikuluan zehar: amik. = amikuzera, bizk. = bizkaiera, lat. = latina, zub. = zuberera; V = bokala, C = kontsonantea, R = ozena; >/< = barne aldaketa, >>/<< = mailegatzea. Euskararen ingurukoak ez diren hizkuntzak aipatzen direnean haien Glottolog kodea ematen da letra etzanaz.

Lan honek ANR-ren finantziazioa izan du *Modern approaches to diachronic phonology applied to Basque* (MADPAB; ANR-20-CE27-0007) proiektuaren bidez eta espainiar zientzia ministeritzarena *Monumenta Linguae Vasconum* proiektuaren bidez (MLV-6, PID2020-118445GB-I00). Eskerrak zor zaizkie Iñigo Urrestarazu-Portari eta liburu honen editoreei haien zuzenketa eta iradokizunengatik. Geratu diren akats guztiak nireak dira.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Ander Egurtzegi. IKER UMR 5478-CNRS. Gaztelu Berria, 15 Paul Bert plaza (64100 Baiona). – ander.egurtzegi@iker.cnrs.fr – <https://orcid.org/0000-0002-3451-323X>

Nola aipatu / How to cite: Egurtzegi, Ander (2023). «/h̃/ hasperen sudurkarituaren inguruan», *ASJU*, 57 (1-2), 275-294. (<https://doi.org/10.1387/asju.25952>).

Jasoa/Received: 2022-09-12; Onartua/Accepted: 2022-12-16.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomerziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago

tures, its distribution, the processes it is involved in, and its opposition with oral /h/ are described, favoring the proposal of a phonologically nasalized /h̃/ brought by Hualde over the rival /ṼhṼ/ analysis.

KEYWORDS: Aspiration; nasalization; nasal aspiration; rhinoglottophilia; assimilation; chronology.

LABURPENA: *Lan honetan euskarazko /h̃/ segmentuaren inguruan orain arte aurrera eramán diren hainbat ikerketaren emaitzak biltzen dira, segmentu honen ezaugarri nagusiak aurkeztuz. Alderdi tipologiko orokorretatik hasita, segmentu honen arrarotasuna gogorarazten da, eta baita bi hasperenen arteko sudurkaritasunean oinarritutako oposaketarena. Euskararen barnean izan duen garapena lantzean, Mitxelena sutsu aldeztu zuen bokal arteko *n > /h̃/ bilakabide zuzena azalpen bezala gailendu dela aipatzen da, eta V. eta VIII. mendeen arteko tartean kokatu daitekeela iradoki. Azkenik, alderdi fonetiko eta fonologiko sinkronikoak ekartzen dira: hots honen egitura fonetikoaren deskribapen zehatza eta bere ezaugarri fonologikoen, bere banaketaren, eragindako prozesuen, eta /h/ ahokariarekiko duen oposaketaren berri ematen da, Hualdek ekarritako /h̃/ sudurkarituaren proposamena aldeztuz, /ṼhṼ/ analisiaren aurka.*

HITZ GAKOAK: *hasperena; sudurkaritasuna; hasperen sudurkaritua; rhinoglottophilia; asimilazioa; kronologia.*

1. Sarrera

Larrasquet-ek (1932) aspaldi deskribatu bezala, zubereraz badira fonetikoki [Ṽh̃Ṽ] bezala ebakitzen diren hots sekuentziak, /VhV/ [Vh̃V] sekuentzietatik ezberdinak direnak —cf. zub. *ehe* [efie] ‘garbitzeko ura’ vs. *eh̃e* [ẽh̃ẽ] ‘ez!’ edota zub. *ehi* [efi] ‘hartzamar’ (< *erhi*) vs. *eh̃i* [ẽh̃i] ‘erraz’ (Lafon 1958). Larrasquetek (1932: 168) sekuentzia sudurkaritu horietan sudurkaritasun fonologikoa hasperena inguratzen duten bokalei egotzi zien. Análisi honen arabera, inguruneak sudurkarituko luke fonetikoki /h/ fonologikoa, eta inguruko bokalak zubereraz (eta amikuzeraz) beste kokapenetan topa daitezkeen bokal sudurkarituen parte izango lirakeke (cf. Mitxelena 1977). Edonola ere, kontrako análisisia ere posible da; /h̃/ sudurkaritu batek inguruko bokal ahokariak sudurkaritu izana, beste sudurkariak (/m, n, ɲ/) euskaraz egiten ohi duten bezala. Honakoa da José Ignacio Hualdek (1993: 294-295, 2003: 25) proposatutakoa, ondorioz zubereraz bi hasperen egongo lirakekeela, /h/ ahokaria eta /h̃/ sudurkaritua. Egun, Hualdek proposaturiko análisisiaren aldeko adostasun zabala dago euskalarien artean, honezkerok eztabaida itxiztat emateko adina (ikus Egurtzegi 2018 /h̃/ segmentuaren kontrastibotasunaren aldeko argudio sorta zabal baterako).

Badira 30 urte Hualdek (1993) zubereran bi hasperen ezberdinen arteko oposaketa (/h/ vs. /h̃/) proposatu zuenetik. Ordutik, /h̃/-ren inguruan egindako ikerketak aurrera egin du, batez ere azken hamarkadan. Alde batetik, bere historia eta banaketa tipologikoa ikertu dira (Igartua 2008, 2015; Egurtzegi 2014; Blevins & Egurtzegi 2023), eta bi hasperenen arteko oposaketa sustengatzen duen ebidentzia aurkeztu da (Egurtzegi 2018; Egurtzegi *et al.* 2023). Bestetik, amikuzeraren ikerketa aitzinatzeari esker (Camino 2016; Egurtzegi & Carignan 2020), euskalki horretan ere bi hasperenen arteko oposaketa aurki daitekeela jakin dugu (Egurtzegi & Carignan *prest.*). Azkenik, segmentu honen sorreraren inguruko hipotesi berriak ere aurkeztu dira (Hualde 2018).

Lan honetan ez dut hipotesi apurtzailerik ekarriko, orain arte egindako ikerketa bateratzea da nire helburu nagusia, gauzatxo berriren bat han-hemenka txertatuz. La-

nean zehar, bai zuberera eta baita amikuzera jorratuko ditut, ahal den heinean bi euskalkietatik hartutako adibideak baliatuz. Hots honen inguruko alderdi ezberdinen lanketa labur bat aurkeztuko dut, alderdi tipologikotik hasita (§ 2) eta alderdi historikoa aurkeztuz (§ 3), ondoren alderdi fonetiko-fonologikoak (§ 4) lantzeko, ondorio labur batzuekin amaituz (§ 5).

2. Alderdi tipologikoa

/h/ hizkuntza gehienetan aurki daitekeen hotsa da; UPSID datu-basean (Maddieson 1984) agertzen diren hizkuntzen % 88k (279/317) eta PHOIBLE datu-basean (Moran & McCloy 2019) agertzen diren inbentario fonologikoen % 56k (1703/3020) dute /h/. /h/, ordea, oso hizkuntza gutxitan agertzen den hotsa da. Krim (Niger-Kongo, *bomk1234*), lisu (tibeto-burmera, *lisu1250*) eta pirahã (isolatua, Amazonas, *pira1253*) hizkuntzetan deskribatua izan da, esaterako, baina ez askoz gehiagotan. Hain arraroa da, non NAF taulan (Egurtzegi *et al.* 2021) bere gelaxka itzalpean agertzen zaigun, ezin ahoskatu daitezkeen hotsen antzera. /h/-ren balizko ezinezkotasun hau sudurkaritasunaren definizio aerodinamikoari lotzen zaio: airea sudurretik (ere) ateratzen den edo ez, alegia. Izan ere, glotisetik igarotzen den airea murrizten bada, ezer gutxi geratuko da beloa jaistean irekitako pasabidetik igarotzeko. Hala ere, honek ez du esan nahi pasabide belofaringala itxita eta beloa igota dagoenik; beloa jaitsita badago (eta ondorioz pasabide belofaringala irekia), ebakitako hotsa sudurkari(tu)a izango da artikulazioari dagokionez (Walker & Pullum 1999: 767).

/h/ bera oso hizkuntza gutxitan agertzen den hotsa izanda, sudurkaritasunean oinarrituriko bi hasperenen arteko oposaketak arraragoa behar du definizioz, /h/ eta /h/ duten hizkuntzen taldea /h/ duten hizkuntzen azpitalde bat baita. /h/ eta /h/-ren arteko oposaketa 3-4 hizkuntzatan baino ez da proposatua izan: kwangali (*kwan1273*) eta thimbukushu (edo mbukushu, *mbuk1240*) Namibia iparraldeko hizkuntza bantuak (Ladefoged & Maddieson 1996: 132-33), Almirantegoaren uharteetako seimat (*seim1238*) hizkuntza ozeanikoa (Blust 2013: 661-662), eta euskara bera.² Edonola ere, azken urteotan egindako ikerketei esker, euskararen kasua horien arteko argiena dela esan daiteke (ikus Blevins & Egurtzegi 2023).

3. Alderdi historikoa

3.1. Sorrera

Euskaraz, /h/ aitzineuskarako bokalarteko *n-ren testuinguruan sortu zen. /n/ hori hitz konposatuetan oraindik ikus daiteke (cf. *mih̃i - mingain*, *ardaño - *ardandegi*, etab.). Nahiz eta aurreko hizkuntzalari zenbaitek hiatuak hausteko baliabidez aurkeztu (e.g. Gavel 1921: 473; Trask 1997: 159-160), Mixelenak sutsu aldeztu zuen bokal arteko *n > /h/ bilakabide zuzena —bere ikuspegitik, *n > /h/,

² Beste bi hizkuntzatan, aguaruna (jivaroarra, *agua1253*) eta arabela (zaparoarra, *arab1268*), /h/ vs. /h/ analisi posible bat da, baina /h/ /h/-ren alofono bat da hizkuntza hauetan (Walker & Pullum 1999: 768-770; Durvasula 2009: 52-55).

*n-ren sudurkaritasuna bokalei pasa zitzaiera (cf. Mitxelena 1950: 448-449, 1977: 215). Gaur egun jarraitasunik ezaren hipotesia (1-*n galdu, 2-hiatioak sortu, 3-/h/ gehitu) bazterturik dagoela esan daiteke (ikus Igartua 2015: 253 ikuspegi honen kritika baterako). *n > /h̃/ aldaketa erakusten duten hitz zenbait (1) adibidean aurkezten dira (Igartua 2015: 647; Egurtzegi 2018: 1356):

(1) *n > /h̃/ /V_V

a) Euskal hitzetan

Zuberera		Berreraiketa	
<i>ahai</i>	/ãhai/	*anari	<i>ahari</i>
<i>ahuntz</i>	/ãhunts̃/	*(h)anunz	<i>ahuntz</i>
<i>ibes</i>	/ĩhes̃/	*enes	<i>ibes</i>
<i>ihi</i>	/ĩhi/	*ini	<i>ihi</i>
<i>mihi</i>	/mĩhi/	*bini	<i>mibi</i>
<i>sühi</i>	/s̃yhi/	*suni	<i>suhi</i> / <i>suin</i>
<i>zühür</i>	/s̃yhyr/	*zunur	<i>zuhur</i>

b) Maileguetan

Zuberera		Latina	
<i>ahate</i>	/ãhate/	<i>anāte(m)</i>	<i>ahate</i>
<i>dihai</i>	/dĩhai/	<i>denariu(m)</i>	<i>diru</i>
<i>mahuka</i>	/mãhuka/	<i>manica</i> , *manuca	<i>mauka</i>
<i>pühüllü</i>	/pỹhyly/	<i>foeniculu</i> , *foenuculu	<i>milu</i>
<i>uhue</i>	/ũhue/	<i>honōre(m)</i>	<i>ohore</i>
<i>xahü</i> / <i>xahatü</i>	/jãh(at)y/	<i>sanu(m)</i>	<i>garbi</i> / <i>garbitu</i>
<i>ahabe</i>	/ãhabe/	Sp. <i>anavia</i>	<i>ahabia</i>

3.2. Kronologia

Ez da batere lan erraza *n > /h̃/ denboran segurtasunez kokatzea, testigantzarik gabeko garai batean garatu baitzen. Eskura ditugun testigantza zaharrenetan, akitanieran alegia (Gorrochategui 1984), ez zaigu hasperen sudurkarituaren adibiderik agertzen —egun amik. *sehi*³ dena, akitanieraz *seni* bezala agertzen zaigu, cf. *Senicco*, *Seniponnis*, *Senitennis*. Baditugu ordea /h/ ahokari asko, hitz modernoetan paralelo garbiak dituztenak barne (cf. akít. *Ummesahar* eta *ume* eta *zahar* hitz modernoak). Akitanieraren ostean (iii. mendetik aurrera, alegia) ez dugu euskal testigantzarik Erdi Aroaren erdialdera arte (non *n > /h̃/ erabat osatua zegoen), eta hor nonbait garatu zen hasperen sudurkaritua. Honenbestez, badakigu bilakabidea data horien artean (i.e. -iv. eta -x. mendeak) garatu zela, baina proposamenen artean bariazio handia dago. Guiter-ek (1989: 800) eta Lakarrak (2013: 290) oso garai goiztiarrak auzkeratzen dituzten bitartean (iv.-v. mendeak), beste autore batzuek x. mendera arte ekartzen dute (apud Igartua 2015: 648). iv.-v. mendearen erreferentzia gaskoiaren

³ Hitz hau zubereraz /h̃/-rekin argiro topatu ez dugun arren —Larrasquetek (1939) ez du bere hiztegian ematen eta Egurtzegi *et al.*-en (2023) hiztunek ez zuten hitza ezagutzen / sudurkarituarekin egin—, amikuzerazko *Catichiman* (c. 1780) *senhi* bezala agertzen da idatzirik (Mitxelena & Sarasola 1987-2005, cf. ere bizk. *sein*).

ikerketari sor zaio: izan ere, Chambon eta Greub-ek (2002: 477) 511 urterako bukatutzat ematen dute /n/ > /ŋ/ ahultzea gaskoiz, eta substratu hizkuntzan goizago burutu bide zen (*apud* Lakarra 2013: 290), betiere azken hau euskara zela asumituz.

Hualdek (2015) hots aldaketa honen garaia kokatzeko datu interesgarri bat ematen digu, kasu honetan mailegatze prozesuei begiratuz. Bere argudioari jarraikiz, *zendea* bezalako formak euskarara sartu orduko, /ts/ hotsa mendebaldeko erroman-tzearen parte zen, eta hitz horrek *n > /h̃/ aldaketa pairatu zuen. Hau da, *n > /h̃/ oraindik indarrean zegoen /tsentena/ >> *zendea* mailegatu zenean. Hualdek /tsentena/ forma VII. mendean edo beranduago kokatzen du (2015: 145), hasierako /ts/ III. edo V. mendean hasitako belarren sabaikaritzearen bigarren pausua izanda —/k/ [kʲ] > /tʃ/ > /ts/ (cf. Hualde 2015: 136). Tamalez, ezin dugu ziurtatu *zeru* edo *zendea* bezalako formak /ts/-tik datozenik: aurreko garaietan bazen beste txistukari afrikatu bat ere kokapen horretan, /tʃ/ alegia. Bestela esanda, latinez *caelu(m)* /kelu/ eta *centena(m)* /kentena/ zirenak ez ziren hitz hasieran /k/ herskaria zuten garaian hartu (III. edo V. mende aurretik, autore ezberdinen arabera), baina ez dago guztiz argi /tʃ/ edo /ts/ zutenean hartu ziren.

Nahiz eta /h̃/ segmentuaren ebidentzia zuzena ipar-ekialde muturreko amikuzera eta zubereran besterik ez dugun, oso posible da /h̃/ Euskara Batu Zaharra (Mitxelena 1981) amaitu aurretik sortu izana. Hipotesi horren alde doa hasperen sudurkarituaren galeraren ondorioz garatutako bokal sudurkarituen ebidentzia euskalki guztietan topa daitekeela (cf. Egurtzegi 2015). Bokal sudurkarituak sortzeko beste biderik ezagutzen ez dugunez (ez badira oso mailegu modernoetan ekarriak, ikus Jauregi & Epelde 2011) eta *n > /h̃/ > Ø bilakabideari dagokion testuinguruan agertzen direnez, euskalki guztiek /h̃/ zutela eta dialektalizazioaren aurretik garatu zela pentsa daiteke kontrako ebidentziarik agertu ezean. Mitxelenak Euskara Batu Zaharra V.-VI. mendean inguruan kokatu zuen, baina azken urteotan VI.-VIII. mendean inguruko kronologia proposatu izan da euskararen dialektalizazio prozesua VIII.-IX. mendeetan hasi zela zehaztu ostean (Zuloaga 2020; Urrestarazu-Porta 2021). Kronologia berriago hau Hualderen (2015: 145) argudioekin bateragarria da: nahiz eta *zendea* /tʃsentena/ zein /tsentena/-tik etor daitekeela onartu, V. eta VIII. mendean arteko tartean kokatuko genuke /h̃/-ren sorrera, betiere aukera gordetzaille bezala. *Zendea* << /tsentena/ aukera bakartzat hartuta, bilakabidea VII. eta VIII. mendean artean kokatuko genuke, aukera hori ere onargarria kronologia berriagoaren barnean. Chambon eta Greub-en (2002) lana aintzat hartuko badugu, bi aukerek bokalarteko /n/-ren lenizioa lehendabizi gaskoiz gertatu zela iradokitzen dute (ikus orobat Egurtzegi prest.).

3.3. Garapena

Mitxelenak (1977: 302) bilakabidea bi pausutan banatu zuen: *n eta hasperena artean *ŋ batetik pasa zela proposatu zuen, gaskoiarentzako proposatutakoaren bidetik (cf. Bourciez 1946: 305; Grammont 1933: 164).

- (2) Mitxelena (1977: 302):

$$V_nV > \tilde{V}_\eta V > \tilde{V}_h V$$

Igartuaren (2008: 185, 2015: 655-656) proposamenak ez du tarteko *ŋ baten beharrik, aldaketaren sorburu artikulatorio batetik hautematean oinarrituriko sor-

buru batera pasatzearen ondorioz (ikus Ohala 1993). Honenbestez, aldaketaren 2. pausua (/n/ > /ñ/) *rhinoglottophilian* (ikus § 4.3 beherago eta Blevins 2004: 135-136) oinarrituriko berrinterpretazio bati egotzen zaio. Igartuak *n-ren ahultzearen pausuak honela irudikatzen ditu:

- (3) Igartua (2008: 185, 2015: 655-656):

$$VnV > \tilde{V}n\tilde{V} > \tilde{V}\tilde{h}\tilde{V} > \tilde{V}h\tilde{V} > VhV (>VV/V)$$
 [1-/V/ sudurkaritzea, 2-/n/ > /ñ/, 3-/ñ/ desudurkaritzea, 4-/V/ desudurkari-
 tzea, 5-/h/ galera]

Ikuspegi hau ez da Mitxelena-ren ikuspuntutik urrutiegi, baina rhinoglottophiliaren eragina asumitzen duenez, ez du tarteko artikulazio lekuen beharrik eta ez du *ŋ-dun faserik berreraikitzen. Horren ordez, /n/ eta /h/-ren arteko [n^h] bezalako aldaerak behar ditu, hasieran /n/-ren bokalarteko alofona izanik, gero /h/-ren aldaera fonetiko izatera pasako dena (Igartua 2008: 187).

Nire ikuspuntutik, (2) adibideko aldaketa sekuentziaren 3. bilakabideak (/ñ/ desudurkaritzeak) arazo bat dakar: bokal sudurkarituak eta hasperen ahokaria ($\tilde{V}h\tilde{V}$) izango lukeen sekuentziarik, ez da, dakigun heinean, inon testigatzen (ikus § 4 beherago sudurkaritasunaren hedatzeari buruz), Larrasqueten (1939) transkribaketa kontentzioetan ez bada —eta hark argi adierazi zuen hasperena ere sudurkaritua zela, nahiz eta ez transkribatu horrela (cf. Larrasquet 1932: 168). Euskaraz gertatzen diren sudurkaritasun asimilazio prozesuak kontuan izanda (Egurtzegi 2014: 79-81, 2018: 1362, § 4.2), ez dugu espero $\tilde{V}h\tilde{V}$ moduko sekuentzia batean hasperenak sudurkaritasunik ez izatea, gutxienez definizio artikulatorio batetik abiatuta (ikus § 2). Honekin batera, bai amikuzeran eta baita zubereran (Egurtzegi *et al.* 2023), bokal sudurkaritasun kontrastiboa hasperenaren sudurkaritasun kontrastiboa baino lehenago galdu da. Are gehiago, hasperena galdu duten euskalki guztiek noizbait bokal sudurkarituak izan zituztela pentsa daiteke (Egurtzegi 2015: 6-7), eta horrek /ñ/ segmentua bere horretan galdu izan zitekeela pentsarazten du (inguruko bokalen sudurkaritasuna mantenduz), baita hasperena bigarren silabaren ostean bakarrik galdu zen kasuetan ere.

Bestalde, Hualderen (2017, 2018) arabera, /ñ/ ez litzateke zuzenean bokalarteko /n/-tik sortuko. Horren ordez, gaskoiaren bilakabidea berriz ekartzen du: *n > *ŋ, eta horren ondoren etorriko litzatekeen ozen osteko hasperenketa prozesu bat silaba azentudunean, azentua bigarren silaban erortzen zen garaian (i.e., *seni* > **seŋi* > **señí* > *señi*).

- (4) Hualde (2017, 2018):

$$VnV > V\eta V > V\eta\tilde{h}\tilde{V} > V\tilde{h}\tilde{V}$$

Azalpen honek onura nabarmen bat dakar, gaskoi eta euskararen bilakabideak bateratuko lituzkeela,⁴ baina horrekin arazo zenbait ere badakartza. Hasteko, asimetria argi bat sortzen du: *(C)VnnV- > /(C)Vn(h)V-/ egitura duten hitz zahar zenbaitek bigarren silaban hasperena erakusten duten eta beste batzuek hasperenik erakus-

⁴ Hala ere, Mitxelena (1977: 302) tarteko *ŋ bat proposatu zuen ere (VnV > $\tilde{V}\eta V$ > $\tilde{V}hV$), beraz gaskoiarekiko lotura lortzeko ez da ezinbestean Hualderen (2017, 2018) proposamena jarraitu behar.

ten ez duten bitartean (e.g. lat. *annona* > *anhoa*, baina **annaia* > *anaia*, **enne* > *ene*, ***anhaia*, ***enhe*), *(C)VnV- > / (C)VhV-/ sistematikoa dirudi bigarren silaban (e.g. *seni* > *sehi*, **suni* > *suhi*), *n eta /h/-ren artean proposaturiko pausuak direnak direla. Honekin batera, arazo kronologiko bat ere sortu daiteke gaskoi eta euskararen bilakabideak lotzean: Chambon & Greub-en (2002: 477) arabera, bokalarteko *n-ren belarizazioa 511 urterako osatua zen gaskoiz. Honek § 3.2n aurkeztutako kronologia baino zaharragoa den garai batean kokatzea eskatuko luke, are gehiago gaskoizko bokalarteko sudurkariaren ahultzea euskararen eraginari lotzen bazaio (gaskoiaren euskal substratuari buruz; ikus besteren artean Rohlfs 1977: 156 eta Allières 1992: 807). Modu berean, kronologia goiztiarragoa ez da ondo lotzen Hualdek (2015) *zendea*-ren inguruan ekarrirako adierazpenekin (§ 3.2). Azkenik, Lakarrak (2009) proposaturiko lat. *arena* > **areña* > *harea*, lat. **leone(m)* > **leoñe* > *leñoi* edota lat. *annona* > **anoña* > *anhoa* moduko metatesien bidezko azalpenak balio gabetuko lituzke, eta /h/ horiek ez-etimologikotzat hartu beharko lirateke. Nahiz eta Mitxelenak (1950: 458) hasiera batean baztertu, metatesi hau euskararen aldaketa prosodikoei lot dakieke (Egurtzegi 2014: 61, Egurtzegi inpr.; cf. Ultan 1978: 395), eta beste kasu zenbaitean ere ikus daiteke (e.g. *onhetsi* < *hon-etsi* ‘on etsi’ edota Axularren *lohakartu* ‘loak hartu’). Edonola ere, metatesi hau onartzekotan, esporadikoa izan zela dirudi: bai hitz hasieran eta baita ozen ostean metatesi hau garatzeko aukera zuten mailegu zahar zenbaitek ez dute metatesirik erakusten. Horien artean, zubererazko *orgā* < lat. *organa* (eta ez ***horga*, cf. Igartua 2015: 649-650) edota *balea* < lat. *ballaena* (***balhea*) (ikus Egurtzegi inpr. azalpen zabalago baterako).

Bi bide nagusi ikusten ditut *n > /h/-ren garapenaren berri emateko. Batetik, *n-ren ahoskabetze baten ondorioz garatu daiteke /h/, baina beranduago [h̃] berriro ahostundu beharko litzateke, ahostuna baita egun (ikus § 4.1), hau da: /n/ [n] > [ŋ] > [h̃] > /h/ [h̃]. Bestalde, debukalizazio zuzen batean ere pentsa dezakegu, soilki mingainaren konfigurazioa galduz —i.e. /n/ [n] > /h/ [h̃]. Bi kasuetan, sudurkariaren iraupena laburtzea esperoko genuke, eta, [ŋ] orokorrean [n] baino sudurkari laburragoa izanda, ezin da erdi-pausu bezala baztertu. Aldaketa bokalartean garatu zenez, aldaera ahostunak baino ez dituen bigarren bideari egiantzekotasun handiagoa ikusten diot.⁵ (5) adibidean proposamen hau irudikatzen dut. (2-4) adibideetan bezala, bokalarteko testuinguruan adieraziko dut, kasu honetan pausu bakoitzean maila fonologikoa eta fonetikoa bereiziz.

- (5) /h̃/ segmentuaren garapena
 /VnV/ [ṼnṼ] (> /VnV/ [ṼŋṼ]) > /VnV/ [Ṽh̃Ṽ] > /Vh̃V/ [Ṽh̃Ṽ]
 [1-belarizazioa/laburtzea, 2-debukalizazioa, 3-[h̃]-ren (trans)fonologizazioa
 (/n/ > /h̃/)]

1. pausua (belarizazioa) ez da berez beharrezkoa, hurrengo pausuan mihiaren ezaugarri guztiak galduko baitira ([h̃]-ren artikulatzaileak ahots tolesturak eta ahosabai biguna baitira), baina, esan bezala, /n/-ren iraupena laburtzeak 2. pausua erraztuko luke. 2. pausua artikulatorioki debukalizazio bezala ikus daiteke, edo pertzep-

⁵ Hala ere, /h̃/-k ahoskabetasuna eskatzen duen bilakabideren batean parte hartuko balu (e.g. /f/-ren sorreran, cf. Hualde 1997: 422-423 eta Egurtzegi & Ariztimuño 2019) honakoa birpentsatu beharko litzateke.

tualki hautematez antzekoak diren hotsen arteko berrinterpretazio bat bezala.⁶ Bata zein bestea urrats bakarreko aldaketak izango lirateke. Azken pausuan, /n/-dun taldeak (edo /N/ fortisak) sinplifikatzean, /n/ berriak agertuko dira bokal arteko kokapenean, eta aurretik /n/-ren bokalarteko alofonia zen [ɲ] hots beregain bat bihurtuko da (/ɲ/).

Beste zenbaitek adierazi bezala (e.g. Igartua 2008; Hualde 2018), garapen honen paralelo zuzenik ez dugu ezagutzen. Baina gaskoiak ere, euskararen substratua gorabehera, testuinguru berean garatutako /n/-ren ahultze bat du. Zergatik dauzkate, orduan, gaskoiak eta euskarak hots aldaketa honentzako emaitza ezberdinak?

Hots aldaketa batzuk garatzen dituen hizkuntzak aurretiaz egoera jakin bat badu baino ez dira garatzen (cf. Blevins 2015). Aukera bat da, euskarak, gaskoiak ez bezala,⁷ /h/-ren oso erabilera hedatua izatea dagokigun bilakabidea garatu zen garaian, alofono ezberdinak barne hartzen zituela, agian baita alofono sudurkaritu bat ere (ikus Egurtzegi 2018: 1362 eta § 4.2 beheago /h/-ren sudurkaritze alofonikoari buruz). Beraz, posible da *n > /h/ euskaraz garatu bezala garatu ahal izateko euskarak zituen baina gaskoiak (edota galiziar-portugesak) ez zituen aitzindari fonetiko eta estruktural jakinak beharrezkoak izatea, hala nola bokal arteko /h/ edo /h/-ren alofono sudurkaritu bat (edozein kokapenetan). Aitzindari horiek gabe, bokalarteko /n/-ren ahultze prozesuak beste emaitza bat izango luke, gaskoiaren /ŋ/ > Ø kasu.

3.4. Galera

Hasperen sudurkaritua segmentu komuna izan zela uste dugunez eta XXI. mendera arte mantendu duten hizkera bakarrak amikuzera eta zuberera direnez, beste euskalki guztietan galdu zela suposatuta behar dugu. Honakoan ere, galera bakoitzaren garaia zehazteko arazo nabarmenak ditugu, kasu batzuetan dokumentazio faltarengatik, eta besteetan sudurkaritasuna adierazteko ohitura ezarengatik. Hala ere, galera mota ezberdinak deskribatu ditzakegu. Mendebaldean, hasperen guztiak hitzaren koparen guztietan galdu ziren aldi berean (Egurtzegi & Elordieta 2023; Hualde 2022), /h/-ren galeraren ondorioz bokal talde sudurkarituak sortu zirela (e.g. *sehi* > *sēi*, *burdiña > *burdiā* edo *arrañi > *arrāi*, cf. Egurtzegi 2015: 3). Geografikoki zehazteko zaila den mendebalde horretatik at, /h/ bigarren silabatik aurrera galdu zen bakarrik (/h/-rekin batera eta azentu aldaketa baten ondorioz, ikus Mitxelena 1977). Egoera hori Zuberoan eta Amikuzen gorde da, non /h/ bigarren silaban baino ez dagoen, beste kokapenetatik erori ostean.⁸ Lapurteran eta (Amikuzetik landako) behe-nafarreran, egoera honetatik abiatutik, bigarren silabako /h/-ren galera bere sudurkaritasuna desagertzearen ondorio izan zen: sudurkaritasunik gabe, /h/ eta /h/ segmentu bakarra bihurtu ziren (/h/). Euskal eremuaren erdialdean ezin dugu zehaztu zer ger-

⁶ Gogoan izan hasperenak eta sudurkaritasunak bokaletan eragindako efektu akustikoak antzekoak direla (ikus Ohala 1993).

⁷ Gaskoiak /h/ (< lat. /f/) eta lat. /n/-ren belarizazioa garai bertsean garatu zituen (cf. Chambon & Greub 2002), eta /h/ hitz hasierara mugatua zegoen.

⁸ Zubereraren bigarren silaba osteko /h/ zenaren alboko bokala(k) sudurkaritu bezala deskribatu izan ohi d(ir)a, baina badirudi bai amikuzeran (Camino 2016) eta baita zubereraren barietate batzuetan ere (Egurtzegi *et al.* 2023) bokal hauek ahokariak direla egun.

tatu zen lehenago, /h̃/-ren sudurkaritasunaren galera edo segmentuaren beraren galera; aurretik esan bezala, /h̃/-ren sudurkaritasuna ez da ia inoiz testuetan grafikoki adierazi. Aukera hauek (5)-etik abiatzen den (6) adibidean irudikatzen dira.

- (6) /h̃/ segmentuaren galera bilakabideak
- a) Testuingururik gabeko hasperenaren galera (mendebaldea):
/Vh̃V/ [Ṽh̃Ṽ] > /Ṽ.Ṽ/ [ṼṼ] (> /V(V)/)
- b-i) Azentuak baldintzatutako hasperenaren galera (erdi-ekialdea):
/CV'CV.h̃V/ [CV'CṼh̃Ṽ] > /CV'CṼ.Ṽ/ [CV'CṼṼ] (> /CV'CṼ(V)/)
(> /CV'CV(V)/)
- b-ii) Bigarren silabako hasperenen sudurkaritzearen galera (erdi-ekialdea, zub./amik. ezik):
/Vh̃V/ [Ṽh̃Ṽ] > /VhV/ [VhV] (> /V(V)/)

4. Alderdi fonetiko-fonologikoa

4.1. Hasperen sudurkarituaren deskribapena


Ahoscuneari dagokionez, /h̃/ segmentu glotala da, ahots tolesturen konfigurazio ez-modal baten bidez eta artikulazio oral zehazturik gabe ebakitzen den heinean. Hots glotalak askotan laringal bezala izendatu ohi dira, azken finean ahots-tolesturak osatzen duten glotisa laringearen parte baita. Euskarazko hasperenei ere bi modu hauetan egin zaie erreferentzia (cf. Jauregi & Epelde 2018: 192).

Hitz hasierako [h] ez bezala, /h̃/ segmentu ahostuna da kasu gehienetan —transkripzio fonetikoan, beraz, [h̃]—, Egurtzegik (2013) espektrogramen bidez erakutsi bezala (ikus 1. irudia). Bai Hualdek eta baita nik ere, lanen batean (e.g. Egurtzegi 2014, 2015; Hualde 2015) /h̃/ ikurra erabili izan dugu hasperen sudurkaritua fonologikoki adierazteko, bere tasun-egitura egokien deskribatzen duen ikurra delako. Hala ere, hurrengo lanetan (e.g. Egurtzegi 2018; Hualde 2018) /h̃/ ikurra erabili dugu sistematikoki (Hualde 1993 lanean bezala),⁹ /h/ eta /h̃/-ren arteko oposizioa ez baitatza ahostuntasunean —bai /h/ eta baita /h̃/ ere ahostunak baitira bokalen artean iparraldeko euskara modernoan (cf. Egurtzegi 2013)—, sudurkaritasunean baizik. [h̃] ikurra, beraz, transkripzio fonetiko zehatzagorako gordeko dugu, /h/ ahokaria bokal artean [h] bezala ere irudikatuz.

Ahosmoldeari dagokionez, lan askotan /h/ eta /h̃/ (inplizitu zein esplizituki) igurzkari bezala aurkeztu izan da. Hasperenak haien inguruko hotsen ahots-arnaskari balioidea bezala deskribatuak izan dira (Ladefoged 1971), hots hauek ebakitzean inguruko segmentuen konfigurazio supraglotala gordetzen dela (Keating 1988). Euskaraz, hitz hasierako /h/ ez bezala (zeina argiki igurzkari ahoskabea den), bokalen arteko /h/ eta /h̃/ hurbilkariak dira maiz. Amikuzeko datuetan (hizkera naturaletik oso hurbilak) hasperenek bokalen oso antzekoa den egitura dute birtualki haien ebakera gutzietan (ikus Egurtzegi & Carignan prest.). Larraineko datuetan (hitz solteak,

⁹ Erabaki hau lan honetan omendutako Hualde irakaslearekin izandako elkarrizketa bati zor diot. Berak aipatu zidan sudurkaritasuna oposaketaren oinarri dela erakusteko /h̃/ ikur sudurkariaren erabilgarritasuna.

egitura esperimental hertsia), ordea, igurzari eta hurbilkariaren arteko bariazioa dago, igurzari gehiago agertzen dela (Egurtzegi *et al.* 2023). Beraz, zehaztasuna bilatzen bada, askotan /h/ eta /ħ/ [h̥] eta [ħ̃] bezala transkribatu beharko lirateke fonetikoki, gutxienez Amikuzekoak bezalakoak diren kasuetan, baina ez Larraineko datuen kasuan (enfatikoagoak diren ebakerak, alegia). 1. irudian Larraineko hiztun baten ahoskatutako bokal arteko /ħ/ bat agertzen da, [ħ̃] hurbilkari bezala ekoitzia, inguruko bokalen antzeko formakin egiturarekin. Konparaziorako, hurrengo irudietan agertzen diren /ħ/ guztiak [ħ̃] igurzari bezala ebaki dira, espektrograman formakin argirik ez dutela erakusten.¹⁰




1. irudia

mihimena hitzaren espektrograma, [ħ̃] hurbilkariarekin ebakia

/ħ/ hasperen sudurkaritua, definizioz, segmentu sudurkaritua da. Honek esan nahi du beloa jaitsita eta, ondorioz, pasabide belofaringala irekirik ahoskatzen dela. Beraz, airea bai ahotik eta baita sudurretik ere ateratzen da /ħ/ ahoskatzerakoan. Segmentu honen ahoskera sudurkaritua Larrasqueten lanetatik (1932, 1939) dokumentatuta dagoen arren, Egurtzegi & Carignan-en (prest.) amikuzeraren ikerketa akustikora arte ez da instrumentalki konfirmatu.

¹⁰ Atal honetan aurkeztuko diren espektrograma eta uhin formak Egurtzegik, García-Covelok eta Urres-tarazu-Portak (2023) grabaturiko 60 urtetik gorako emakume larraindar baten audioetatik sortuak dira.

Berriki, Zuberoa hegoaldeko Larraineko herrian *nasalance* gailu baten bidezko grabazioak egin ditugu (Egurtzegi *et al.* 2023). Gailu honek *nasalance* analisia¹¹ erabiltzeko prest dauden audioak sortzen ditu, sudurreko eta ahoko seinale akustikoak sudurraren azpian kokatzen den zurezko xafla batek banaturiko bi mikrofono independenteren bidez grabatuz. Grabazio hauetako uhin formek argiro erakusten dute zein hots ahoskatu den sudurkaritasunarekin eta zein ez: goiko mikrofonoari dagokion lehen kanalean agertzen den anplitudea bigarren kanaleko (i.e. ahoko) anplitudearekiko nabarmena denean, segmentu jakin horretan aire-emaria sudurretik (ere) datorrela ulertzen dugu.




2. irudia

desuhue ‘desohore’ hitzaren espektrograma, [h̃] sudurkarituarekin ebakia.
Goiko uhin forma kanal sudurkariari dagokio, behekoa kanal ahokariari

2. irudian /h̃/ etimologiko garbi bat duen mailegu zahar baten espektrograma erakusten da, *desuhue* ‘desohore’ hitzarena hain zuzen (cf. lat. *des-honōrem*). Irudiaren uhin formek (goian kanal sudurkaria, behean ahokaria) sudurkaritasuna /h̃/-ren aurreko bokalean hasten dela erakusten dute, eta horren osteko bokal sekuentzia osoan zehar mantendu, sudurkaritasun fonetiko nabarmenena aurrerakaria dela. Ikus halaber, bi kanaletako intentsitate maila ahoskatuturiko soinuaren beraren intentsitatearen

¹¹ *Nasalance* metodoan sudur eta ahoaren seinaleen anplitudearen arteko proportzioa kalkulatzen da —hau da, $A_{\text{sudur}} / (A_{\text{aho}} + A_{\text{sudur}})$ — irekiera belofaringalaren neurria taxutzeko (Fletcher *et al.* 1974).

araberakoa dela —esaterako, hasperenek intentsitate txikia izan ohi dute, eta bokalek handia—, eta ondorioz hots bakoitzaren sudurkaritasuna proportzionalki estimatu behar dela; goiko eta beheko kanalen intentsitateen arteko erlazioari begiratuta, alegia. Modu berean, kontuan hartu behar da /m, n, ɲ/ herskari sudurkariiek airearen pasabidea blokeatzen dutela ahoan, aire guztia sudurbidetik bideratzen dela, baina /h/ eta bokal sudurkarituek aire-emari jarraia erakusten dutela bai ahotik eta baita sudurretik ere.¹² Konparaziorako, 3. irudiak *aibaia* ‘afaria’ hitza erakusten du, /h/ ahokari etimologikoa duena (< **gau-hari*). Honetan ez dago sudurkaritasun nabarmenik, lehen kanaleko seinalea intentsitate baxuan mantentzen baita hitz osoan zehar.



3. irudia

aibaia ‘afaria’ hitzaren espektrograma, [h] ahokariarekin ebakia

4.2. Hasperen sudurkarituaren banaketa

Askotan deskribatua izan den bezala, euskaraz hasperenak lehen bi silabetako ekitetan baino ezin dira agertu, eta /h/ bigarren silaban baino ez oro har (ikus Mitxe-

¹² Hitzun honek hitz hasierako herskari ahostunak erregulariki auresudurkaritzen zituen. Herskari ahostunetan ahostuntasuna mantentzeko baliabide normalenetako bat da, bestea euskarak bokal artean modu sistematikoan erakusten duen espirantizazioa dela. Esperimentuaren testuinguru enfatikoak joera hau indartu zezakeela pentsa daiteke, baina, edonola ere, aipatzea merezi duen ezaugarria delakoan naiz. Joera hauen inguruan, ikus Ohalaren (1983) *aerodynamic voicing constraint* murriztapena.

lena 1977: 203-204; Hualde 2003: 25; Egurtzegi 2014: 78, etab.). Honetaz gain, beste hizkuntza askotan bezala (MacEachern 1999) euskaraz ere laringalek agerpen murriztapenak dituzte: segmentu hasperendun bakarra baino ezin daiteke agertu hitz bakoitzeko, segmentu hauen artean /h/, /h̃/ eta /p^h, t^h, c^h, k^h/ herskari hasperenduak daudela. Gainera, hasperenek ez dute talde tautosilabikorik osatzen, baina bigarren silaban daudenean, bokalarteko kokapenez gain, talde heterosilabikoen parte ere izan daitezke (cf. Lafon 1958 [1999: 121]). Hasperenek bigarren silaban osatu ditzaketen talde tautosilabikoek ozen bat dute beti lehen kide bezala —hau da, /VR.hV/—, eta /m/-z gain beste edozein izan daiteke —i.e. /t, r, n, ɲ, l, ʎ/. Hala ere, barietate zenbaitetan gutxienez, sudurkariaren ostean /h̃/ baino ez da agertzen.

Izan ere, /h/ eta /h̃/-ren arteko neutralizazioak (gutxienez fonetikoki) sudurkariuak diren hasperenen banaketa zabaldu du. Egurtzegiren (2014: 79-81, 2018: 1362) arabera, Larrasqueten (1939) euskararen, kontsonante sudurkari batekin kontaktuan ziren /h/-ek kontsonante hauen sudurkaritasuna hartu zuten, /h̃/ bihurtuz, (7a)-ko adibideetan erakusten den bezala —i.e., h → h̃ /N_. Honekin batera, kontsonante sudurkari batekin kontaktuan zeuden bokal edo diptongo fonetikoki sudurkarituekin kontaktuan zeuden /h/-ak ere /h̃/ bihurtu ziren, asimilazio ez-lokal hau atzerakaria zein aurrerakaria izan zitekeela —i.e., h → h̃ /NV_V & (V)_VN(V). Honen adibideak (7b)-n eta (7c)-n ikus daitezke, hurrenez hurren.

(7) Hasperenaren sudurkaritasun asimilazioa testuinguru sudurkarian (Egurtzegi 2014: 80)

a) N.H

<i>janhari</i>	[janh̃ai]
<i>senhar</i>	[senh̃ar]
<i>sinhets</i>	[sinh̃ets̺]
<i>ainhara</i>	[ajnh̃a]
<i>anhua</i>	[anh̃ua]

b) NV.H


<i>nahi</i>	[nah̃i]
<i>nahas</i>	[nah̃as̺]
<i>nihaur</i>	[nih̃au]
<i>mihi</i>	[mih̃i]
<i>mehe</i>	[mehe]
<i>mahats</i>	[mah̃ats̺]

c) .HVN

<i>arhan</i>	[ah̃an]
<i>arhin</i>	[ah̃in]
<i>ehun</i>	[eh̃un]
<i>lehen</i>	[leh̃en]
<i>uhun</i>	[uh̃un]
<i>ahamen</i>	[ah̃amen]
<i>Johanne</i>	[joh̃ane]


Sudurkaritasunaren asimilazio honek sistematikoa dirudi Larrasqueten zubereraren (cf. Egurtzegi 2014: 81). Egungo Larraineko euskararen, ordea, asimilazio honek inda-

rra galdu du, inoiz guztiz osatu izan bada. 4. irudiak *behin* hitza irudikatzen du. Kasu honetan, Larrasqueten zubereraren deskribapena ezagututa (ikus 7c), hitz honetan asimilazio atzerakari bat esperoko genuke, /h/ > [h̃] bilakatzen duena, honek aurreko bokala ere sudurkaritzen duela. Bestela esanda, /b/ ezik hitzaren segmentu guztiek sudurkaritasuna erakustea esperoko genuke. Ikusten duguna, ordea, sudurkaritasun nabarmena azken /n/-an baino ez dagoela da, honen aurreko bokalari sudurkaritasun zenbait pasatzen zaiola, baina ez aurrerago. Asimilazio aurrerakaria maizago ikusten da, eta bi segmentuak kontaktuan daudenean asimilazio hau oso argia da, 5. irudiko *uñhua* ‘kipula’ (esanahi bereko *onhon* gaskoitik) hitzan bezala.



4. irudia

behin hitzaren espektrograma, [h̃] ahokariarekin ebakia



5. irudia

uñhua ‘kipula’ hitzaren espektrograma, [h̃] sudurkariarekin ebakia

4.3. Hasperenen arteko oposaketa

Fonetikoki [Ṽh̃Ṽ] gauzatzen den sekuentzia honetarako bi analisi fonologiko posible zeuden. Alde batetik, analisi klasikoan, bokalen sudurkaritasuna zen kontrastiboa, eta haien arteko hasperena testuinguruak sudurkarituko luke fonetikoki. Hualdek (1993: 294-295) proposaturiko analisisan, ordea, /h̃/ fonologikoki sudurkaria da eta bera da inguruko sudurkaritasun alofonikoaren sorburua. Analisi honek zuen arazoa, ordea, /h/ eta /h̃/-ren arteko oposaketa baten beharra da, ia inon testigatzen ez den oposaketa bat, alegia (ikus. § 2 eta beherago). Tipologikoki horren ezohikoa den proposamen batek bere alde doan hizkuntza-barneko ebidentzia sendoa behar du, eta ebidentzia hori Egurtzegik (2018) ekarri zuen. Lan horretan hiru argudio nagusi ematen dira Hualderen hipotesiaren alde (Egurtzegi 2018: 1361-1362). Hasteko, zubereraz bokal sudurkarituak azentudunak izan behar ziren garai batetik aurrera, kasu gehien-gehienetan hitz amaieran agertzen ziren, eta /ĩ, ỹ, ũ, ã/-ra mugatzen ziren (Egurtzegi 2015: 4-5). Hasperenaren bi alboetara dauden bokalek ez dituzte murriztapen hauek betetzen eta, murriztapen hauek egoki deskribaturik dauden heinean, bokal hauek ezin dira fonologikoki sudurkarituak izan.

Bigarren argudioa hedapen analogiko batek dakar. Izenordain indartuen paradigma euskaraz izenordain bakoitza —*ni, hi, zu...*— determinatzaile hurbilarekin —(*h*)*au(r)*— konbinatuz osatzen da. Larrasqueten (1939) zubereran ordea, pa-

radigma honek etimologikoki espero ez den /h̃/ bat erakusten du forma guztietan, (8) erakusten duen bezala.

- (8) /h̃/ segmentuaren hedapen analogikoa zubereraren izenordain indartuen paradigman (Egurtzegi 2018: 1363 taulatik moldatua)

Aldaera zaharragoa	Aldaera berriagoa
<i>ni-haur</i> [nĩ'ħãũr]	/niħau/ [nĩ'ħãũ]
<i>hi-haur</i> [i'ħãũr]	/iħau/ [ĩ'ħãũ]
<i>zi-haur</i> [ʒi'ħãũr]	/ʒiħau/ [ʒĩ'ħãũ]
<i>gi-haur</i> [gi'ħãũr]	/giħau/ [gĩ'ħãũ]

Jakina denez, /h̃/ ez da hitz hasieran gertatzen, beraz pentsa dezakegu *haur*-en forma zaharretan hasperenak sudurkaritasunik ez zuela. Badakigu, modu berean, inguruko sudurkari batek /h/ bat fonetikoki sudurkaritu dezakeela, honakoa [ħ̃] bihurtuz (ikus § 4.2). Eta hori da, hain zuzen, lehen pertsonako forman gertatutakoa, momentu batetik aurrera asimilazio hau fonologizatu zela (hau da, kontrastibo bihurtu zen, cf. Janda 2003: 409) —i.e., /niħaur/ [nĩħãũr] > /niħ̃aur/. Azkenik, forma horretan asimilazio bidez sortutako /h̃/ fonologiko berria paradigmako beste formetara zabaldu zen analogikoki (Egurtzegi 2018: 1363).

Azken argudioa amikuzeran aurkitzen da. Izan ere, Larrasqueten zubereran ez bezala, hizkera honetan ez dago bokal sudurkaritu fonologikorik (cf. Camino 2016; Egurtzegi & Carignan prest.). Nahiz eta horrek ez duen zubereraren kasua justifikatzen, argi uzten du amikuzeran analisi posible bat baino ez dagoela, eta horrek Larrasqueten zubereran ere analisi egokia izan daitekeela iradoki dezake. Bukatzeko, egungo Larraineko zubereran ere ezaugarri bera topatu dugu berriki: bokal sudurkaritu kontrastiboak galdu ostean ere hitzun zenbaitek /h̃/ gordetzen dute egun (Egurtzegi *et al.* 2023).

Hasperenen arteko oposaketak ez dira batere ohikoak munduko hizkuntzetan. Segmentu hauen ezaugarri urriek (ezaugarri supraglotalik ez izatearen ondorioz) haien arteko oposaketak zailtzen dituzte. /h/ vs. /h̃/ ahostuntasunean oinarritutako oposaketa, esaterako, ez da maiz ikusten munduko hizkuntzetan. Hizkuntza txadikoetako masa taldean agertzen zaigu (Ladefoged & Maddieson 1996: 326), eta bertan inguruko bokaletan hauteman daitezkeen beste ezaugarri zenbaitek laguntzen dute oposaketa.¹³ /h/ vs. /h̃/ oposaketaren kasuan antzeko zerbait gerta daitekeela proposatzen dute Blevins-ek eta Egurtzegik (2023).

Sudurkaritasunaren eta hasperenketaren bereizgarri akustikoak oso antzekoak dira (Ohalá 1993), eta ambigüotasun horrek *rhinoglottophilia* bezala ezagutzen dugun prozesu bat eragin dezake (Matisoff 1975; Igartua 2015; Johnson 2019). Prozesu horretan, [h]-ren hasperenketa sudurkaritasun bezala hauteman daiteke, eta [ħ̃]-ren sudurkaritasuna oso hasperendun (baina ez sudurkaritu) bezala. Honenbestez, /h/ eta /h̃/ laringalen arteko oposaketa pertzeptualki ahula izan daiteke, eta indartzeko aukera bat bi hotsak bereizten dituen /h̃/-ren sudurkaritasuna inguruko bokaletara hedatzea da. Bai zubererak eta baita amikuzerak sudurkaritasun koartikulazio hau ere era-

¹³ Ahostuntasuna baino, /h̃/-k duen ezarpen laringal laxoagoa eta f0 baxuagoa dira bereizgarri nagusiak musey (*muse1242*) hizkuntzan (Shryock 1995), /h/ ere maiz ahostuntzen baita.

kusten dute. Ez da euskararena bezain zehazki deskribatu den /h/ vs. /h̃/ oposaketarik, baina Amazonetako (Brasil) madi (Vogel 2003) eta Peruko yine (*yine1238*) edo piro (*mash1270*) arawak hizkuntzak (Urquía Sebastián & Marlett 2008) /h̃/ hasperen bakarrarekin deskribatu izan dira eta, bietan, /h̃/-k inguruko bokaletan sudurkaritasuna eragiten duela aipatu izan da. Halaber, Almirantegoaren uharteetako seimat (*seim1238*) hizkuntza ozeanikoak prozesu beraren ebidentzia historikoa erakusten du (Blevins & Egurtzegi 2023).

5. Ondorio laburrak

Lan honetan euskarazko /h̃/ hotsaren inguruan azken urteotan aurrera eraman diren hainbat ikerketa ekarri ditugu. Segmentu honen ezaugarri nagusiak aurkeztu dira, alderdi tipologiko orokorretatik hasita, euskararen barnean izan duen garapena azalduz, eta azkenik alderdi fonetiko eta fonologiko sinkronikoak aurkeztuz. Segmentu honen historia hobeto ezagutzen dugu, tipologikoki kokatu, bere izaera kontrastiboa erakutsi, baita fonetikoki deskribatu. Oraindik hasperen sudurkarituaren inguruko zalantza ugari ditugu, baina espero dut lan honen bidez José Ignacio Hualdek 1993an zabaldutako bidetik ibilbide ederra egin dugula erakutsi izana. Zalantzarik ez, aurrera egiten jarraituko dugu.

Erreferentziak

- Allières, Jacques. 1992. Gascón y euskera: afinidades e interrelaciones lingüísticas. *ASJU* 26(3). 801-812.
- Blevins, Juliette. 2004. *Evolutionary phonology. The emergence of sound patterns*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Blevins, Juliette. 2015. Evolutionary Phonology: A holistic approach to sound change typology. In Patrick Honeybone & Joseph Salmons (arg.), *The Oxford Handbook of Historical Phonology*, 485-500. Oxford: Oxford University Press.
- Blevins, Juliette & Ander Egurtzegi. 2023. Refining explanation in Evolutionary Phonology: Macro-typologies and targeted typologies in action. *Linguistic Typology* 27(2). 289-311. <https://doi.org/10.1515/lingty-2021-0036>.
- Blust, Robert. 2013. *The Austronesian languages*. Canberra: Asia-Pacific Linguistics, College of Asia and the Pacific, Australian National University.
- Bourciez, Édouard. 1946. *Éléments de linguistique romane*. Paris: Klincksieck.
- Camino, Iñaki. 2016. *Amiküze eskualdeko ^heskuara (Mendaur 11)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Chambon, Jean-Pierre & Yann Greub. 2002. Note sur l'âge du proto-gascon. *Revue de linguistique romane* 66. 473-495.
- Durvasula, Karthik. 2009. *Understanding nasality*. Newark: University of Delaware-ko doktorego tesia.
- Egurtzegi, Ander. 2013. Diferentes tipos de aspiración en vasco (con análisis espectrales del dialecto suletino actual). In Eduardo Blasco, Paolo Francalacci, Alberto Nocentini & Giuseppe Tanda (arg.), *Iberia e Sardegna*, 151-169. Firenze: Le Monnier.
- Egurtzegi, Ander. 2014. *Towards a phonetically grounded diachronic phonology of Basque*. Gasteiz: UPV/EHUko doktorego tesia.

- Egurtzegi, Ander. 2015. Different distributions of contrastive vowel nasalization in Basque. *Loquens* 2(1). e017. <http://dx.doi.org/10.3989/loquens.2015.017>.
- Egurtzegi, Ander. 2018. On the phonemic status of nasalized /h̃/ in modern Zuberoan Basque. *Linguistics* 56(6). 1353-1367. <https://doi.org/10.1515/ling-2018-0024>.
- Egurtzegi, Ander. 2022. Goizuetako azentueraren garapena kokatzen Euskara Batu Zaharraren prosodia zehazteko: Proposamenen ebaluazioa. *FLV* 133. 9-35.
- Egurtzegi, Ander. Inprimategian. Metathesis. In Adam Ledgeway, Edith Aldridge, Anne Breitbarth, Katalin E. Kiss, Joseph Salmons & Alexandra Simonenko (arg.), *The Wiley Blackwell Companion to Diachronic Linguistics*. Hoboken: Wiley-Blackwell.
- Egurtzegi, Ander. Prestatzen. La aspiración en el contexto del contacto vasco-románico. In M.^a Jesús Torrens & C. Gutiérrez (arg.), *Aportaciones de la filología y de la fonética al estudio del castellano temprano. Revista de Historia de la Lengua Española*-n argitaratze-koa.
- Egurtzegi, Ander & Ariztimuño, Borja. 2019. /f/-ren sarrera eta sorrera euskaran. In Epelde & Jauregi (arg.), *Bihotz ahots. M.L. Oñederra irakaslearen omenez*, 197-213. Bilbo: UPV/EHU.
- Egurtzegi, Ander & Christopher Carignan. 2020. An acoustic description of Mixean Basque. *Journal of the Acoustical Society of America* 147(4). 2791-2802.
- Egurtzegi, Ander & Christopher Carignan. Prestatzen. A typological rarity: The /h/ vs. /h̃/ contrast of Mixean Basque. *LabPhon* 17-n aurkeztua.
- Egurtzegi, Ander & Gorka Elordieta. 2023. A history of the Basque prosodic systems. *Diachronica* 40(1). 30-72. <http://doi.org/10.1075/dia.20066.egu>.
- Egurtzegi, Ander, Gorka Elordieta, Oroitz Jauregi, Dorota Krajewska, Miren Lourdes Oñederra & Iñigo Urrestarazu-Porta. 2021. *Nazioarteko Alfabeto Fonetikoa* (2021ean moldatua). International Phonetic Association. https://www.internationalphoneticassociation.org/IPAcharts/IPA_chart_trans/pdfs/IPA_Kiel_2021_full_eus.pdf (2024/01/03).
- Egurtzegi, Ander, Andrea García-Covelo & Iñigo Urrestarazu-Porta. 2023. A nasalance study of the /h̃/ vs. /h/ opposition in Zuberoan Basque. In Radek Skarnitzl & Jan Volín (arg.), *Proceedings of the 20th International Congress of Phonetic Sciences*, 3427-3431. Prague: Guarant International.
- Fletcher, Samuel, Iradj Sooudi & Sharon Frost. 1974. Quantitative and graphic analysis of prosthetic treatment for 'nasalance' in speech. *Journal of prosthetic dentistry* 32(3). 284-291.
- Gavel, Henri. 1921. Éléments de phonétique basque. *RIEV* 12(1). 1-536 (1. argit., Paris: Édouard Champion, 1920).
- Gorochategui, Joaquín. 1984. *Estudio sobre la onomástica indígena aquitana*. Bilbo: UPV/EHU & USal.
- Grammont, Maurice. 1933. *Traité de phonétique*. Paris: Delagrave.
- Güter, Henri. 1989. Elementos de cronología fonética del vascuence. *ASJU* 23(3). 797-800.
- Hualde, José Ignacio. 1993. Topics in Souletin Phonology. In José Ignacio Hualde & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *Generative studies in Basque linguistics*, 289-327. Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/cilt.105.12hua>.
- Hualde, José Ignacio. 1997. Aitzineuskararen leherkariak. *ASJU* 31. 411-424.
- Hualde, José Ignacio. 2003. Segmental phonology. In José Ignacio Hualde & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*, 15-65. Berlin & New York: Mouton de Gruyter.

- Hualde, José Ignacio. 2015. Dialektologia dinamikoa. In Irantzu Epelde (arg.), *Euskal hizkerak eta dialektoak gaur egun (Lapurdum-en ale bereziak 3)*, 125-153. Baiona: Iker-CNRS.
- Hualde, José Ignacio. 2017. Soinu aldakuntzen kronologiaz. *FLV* 124. 65-85.
- Hualde, José Ignacio. 2018. Aspiration in Basque. *Papers in Historical Phonology* 3. 1-27.
- Hualde, José Ignacio. 2022. Accent shift and the reconstruction of Old Common Basque accentuation. In Haruo Kubozono, Junko Ito & Armin Mester (arg.), *Prosody and prosodic interfaces*. Oxford: Oxford University Press.
- Igartua, Iván. 2008. La aspiración de origen nasal en la evolución fonológica del euskera: un caso de rinoglottophilia. *ASJU* 42(1). 171-190.
- Igartua, Iván. 2015. Diachronic effects of rinoglottophilia, symmetries in sound change, and the curious case of Basque. *Studies in Language* 39(3). 635-663. <https://doi.org/10.1075/sl.39.3.04iga>.
- Janda, Richard D. 2003. «Phonologization» as the start of dephonicization – Or, on sound-change and its aftermath: Of extension, generalization, lexicalization, and morphologization. In Brian D. Joseph & Richard D. Janda (arg.), *The handbook of historical linguistics*, 401-422. Oxford: Blackwell.
- Jauregi, Oroitz & Irantzu Epelde. 2011. Bokal sudurkariak gaurko lapurteran. *Lapurdum* 15. 29-42.
- Jauregi, Oroitz & Irantzu Epelde. 2018. Pérdida de la aspiración en euskera. Daniel Recasens & Fernando Sánchez-Miret (arg.), *Production and perception mechanisms of sound change*, 189-201. Munich: Lincom.
- Johnson, Sarah Ellen. 2019. *Spontaneous nasalization: an articulatory investigation of glottal consonants in Thai*. Champaign: University of Illinois at Urbana-Champaign-eko doktorego tesia.
- Keating, Patricia. 1988. Underspecification in phonetics. *Phonology* 5. 275-292.
- Ladefoged, Peter. 1971. *Preliminaries to linguistic phonetics*. Chicago: University of Chicago Press (Berrag. 1981).
- Ladefoged, Peter & Ian Maddieson. 1996. *The sounds of the world's languages*. Oxford: Blackwell.
- Lafon, René. 1958. Contribution à l'étude phonologique du parler basque de Larrau (Haute-Soule). In Diego Catalán (arg.), *Estructuralismo e historia: Miscelánea homenaje a André Martinet*, 2. lib., 77-106. La Laguna: Universidad de La Laguna (Berrag. in Jean Haritschelhar & Piarres Charriton, *Vasconiana*, 113-133. Bilbo: Euskaltzaindia, 1999).
- Lakarra, Joseba Andoni. 2009. *h3 > h1, *h2 > h1 eta horiei datzekien zenbait fenomenoz. *Lapurdum* 13. 211-231.
- Lakarra, Joseba Andoni. 2013. Root Structure. In M. Martínez-Areta (arg.), *Basque and Proto-Basque. Language-internal and typological approaches to linguistic reconstruction (Mikroglottika 5)*, 173-221. Frankfurt am Main: Peter Lang.
- Larrasquet, Jean. 1932. Phonétique du basque de Larrajá (quartier de Barcus). *RIEV* 23. 153-191.
- Larrasquet, Jean. 1939. *Le basque de la Basse-Soule orientale*. Paris: Klincksieck.
- MacEachern, Margaret R. 1999. *Laryngeal co-occurrence restrictions*. New York: Garland Publishing.
- Maddieson, Ian. 1984. *Patterns of sounds*. New York: Cambridge University Press.

- Matisoff, James A. 1975. Rhinoglottophilia: the mysterious connection between nasality and glottality. In Charles A. Ferguson, Larry M. Hyman & John J. Ohala (arg.), *Nasálfest: Papers from a symposium on nasals and nasalization*, 265-287. Stanford: Language Universals Project.
- Mitxelena, Koldo. 1950. De fonética vasca: la aspiración intervocálica. *BAP* 6. 443-459 (Berrargit. *OC* 7, 3-20).
- Mitxelena, Koldo. 1977. *Fonética histórica vasca*. 2. argit. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia (1. argit., 1961; berrargit. *OC* 6).
- Mitxelena, Koldo. 1981. Lengua común y dialectos vascos. *ASJU* 15. 291-313 (Berrargit. *OC* 7, 517-542).
- Mitxelena, Koldo. 2011. *Obras completas (ASJUren Gehigarriak 54-68)*, 15 lib. Donostia & Gasteiz: «Julio Urkixo» Euskal Filología Mintegia, Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU (Joseba A. Lakarra & Iñigo Ruiz Arzalluz argit.).
- Mitxelena, Koldo & Ibon Sarasola. 1987-2005. *Orotariko Euskal Hiztegia / Diccionario General Vasco*, 16 lib. Bilbo: Euskaltzaindia (10. argit. elektr. 2022: <http://www.euskaltzaindia.eus/oeh>).
- Moran, Steven & Daniel McCloy. 2019. *PHOIBLE 2.0*. Jena: Max Planck Institute for the Science of Human History. <https://phoible.org> (2024/01/03).
- Ohala, John J. 1983. The origin of sound patterns in vocal tract constraints. In Peter F. MacNeilage (arg.), *The production of speech*, 189-216. New York: Springer-Verlag.
- Ohala, John J. 1993. The phonetics of sound change. In Charles Jones (arg.), *Historical linguistics: Problems and perspectives*, 237-278. London & New York: Longman.
- Rohlf, Gerhard. 1977. *Le gascon: Études de philologie pyrénéenne*, 4. argit. Tübingen: Max Niemeyer.
- Shryock, Aaron. 1995. Investigating laryngeal contrasts: An acoustic study of consonants in Musey. *UCLA Working Papers in Phonetics* 89. Los Angeles: UCLAko doktorego tesia.
- Trask, Robert L. 1997. *The history of Basque*. Londres: Routledge.
- Ultan, Rusell. 1978. A Typological view of metathesis. In Joseph Greenberg (arg.), *Universals of Human Language*, 2. lib., 368-399. Stanford, CA: Stanford University Press.
- Urquía Sebastián, Rittma & Stephen A. Marlett. 2008. Illustrations of the IPA: Yine. *Journal of the International Phonetic Association* 38. 365-369.
- Urrestarazu-Porta, Iñigo. 2021. *Gogoetak Euskara Batu Zaharraren hausturaz*. Gasteiz: UPV/EHUko master tesia.
- Vogel, Alan R. 2003. *Jarawara Verb Classes*. Pittsburgh: University of Pittsburgh-eko doktorego tesia.
- Walker, Rachel & Geoffrey K. Pullum. 1999. Possible and impossible segments. *Language* 75(4). 764-780.
- Zuloaga, E. 2020. *Mendebaleko euskararen azterketa dialektologiko diakronikorantz*. Gasteiz: UPV/EHUko doktorego tesia.

Merezi *ete* dau erabilera hauei begiratzea?¹ *Is it worth looking at these special uses of ete?*

Arantzazu Elordieta*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: Two dialectal uses of the discourse particle *ete* (*ote*) in certain exclamative sentences are under study in this work. They are intriguing because their interpretation differs from canonical *ete*. Specifically, in one particular use the speaker uttering *ete* emphatically confirms what her interlocutor has previously said. In the second use, on the other hand, the speaker objects critically to what her interlocutor has previously uttered. Interestingly enough, the complementizer *-(e)n* must always occur even if they are root sentences. In order to explain these values, it is proposed that they are in subordinate sentences, and that while one construction is an instance of a polarity focus, in the second construction the particle has grammaticalized its meaning of lack of full commitment to *no* commitment at all. This would match the often attributed graduable or quantificational nuance of exclamative structures.

KEYWORDS: *ete*; polarity focus; in subordinate; exclamative; irony.

LABURPENA: Ete (*ote*) *partikula epistemikoak harridura-perpauzetan dituen bi erabilera dialektal dira aztergai lan honetan. Interesa dute beren interpretazioa ez delako ote kanonikoak duena, bestelakoa baizik. Izan ere, lehen erabileran hiztunak ete erabiltzean aurretik solaskideak esan duenaren gainean berrespen enfatikoak adierazten du. Bigarrenean, ostera, aurretik solaskideak esan duenaren gainean kontrako iritzirik kritikoa ematen du hiztunak. Bestetik, erro-perpauzak diruditen arren,*

¹ Euskararen hainbat hizkeratan aurkitzen dira bitxikeria interesgarriak, batzuek lehenagoko egitura zabalduagoen berri eman diezagukete, eta beste batzuk, aldiz, berrikuntzen ondorio izan ohi dira. Nolanahi ere, gure arreta merezi dute, hizkuntzen bilakabidea hobeto ulertzen lagun diezaguketelako. Jose Ignazio Hualde adiskide eta ikertzaile finak bere lan oparoan sarri lekua egin dio hizkeretako ezaugarriak aztertzeari, eta testuinguru horretan kokatu nahi nuke lan xume hau hain zuzen, nolabait nire esker onak emateko euskararen ezagutza orokor eta xehean aurrera egiten irakatsi digulako. Aipa dezadan, azkenik, ikerketa hau Eusko Jaurlaritzako dirulaguntza jasotzen duen IT1537-22 *HITT* Talde Kontsolidatuaren eta MCIN PID2022-140336NB-I00 ikerketa proiektuaren ekintzen barruan kokatzen dela.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Arantzazu Elordieta. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila - Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitateen ibilbidea, 5 (01006 Gasteiz). – arantzazu.elordieta@ehu.eus – https://orcid.org/0000-0003-0306-992X

Nola aipatu / How to cite: Elordieta, Arantzazu (2023). «Merezi *ete* dau erabilera hauei begiratzea?», *ASJU*, 57 (1-2), 295-311. (https://doi.org/10.1387/asju.25953).

Jasoa/Received: 2023-03-14; Onartua/Accepted: 2023-05-26.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago

eterekin batera *-(e)n komplementatzaileak agertu behar du. Balio hauek azaldu nahian, artikuluan proposatzen da perpaus in subordinatuak direla, eta lehen erabileran polaritate fokuari balioa bartzatzen duelarik, ete partikulak eta aditzak ezkeralderako mugida jasaten dutela. Bigarren erabileran, ordea, etek bere esanahia gramatikalizatu du hiztunak proposizioan adierazitakoarekin guztiz bat egiten ez duela adieraztetik adostasunik batere ez duela adierazteraino. Horrek bat egingo luke egitura esklamatiboek daukaten nabardura kuantifikatzailearekin.*

HITZ GAKOAK: ete; polaritate fokua; in subordinatua; esklamatiboa; ironia.

1. Sarrera

Lan honetan Bizkaiko zenbait hizkeratan entzuten diren *ete (ote)* partikularen bi erabilera bitxi izango ditut hizpide.² Erabilera bitxiak direla diogu *otek* euskara estandarrean duen erabilera eta interpretaziotik aldentzen direlako, eta nik dakidala, orain arte ez direlako xehetasunez aztertu (erabilera baterako ikus, hala ere, Elordietak 2022a). Aurrerago argudiatuko dudanez, bi egitura desberdinen aurrean gaudela proposatuko dut, nahiz eta ezaugarri batzuk partekatzen dituzten: a) batetik, *-(e)n* menderagailuaren agerpenak salatzen duenez, sintaktikoki mendeko egiturak dirudite itxuraz perpaus bakarrak diren arren; b) bestetik, aldeztetik solaskideak esandako zerbaiti buruz erreakzio emozionala adierazten dute —esandakoaren kontrako balio ironikoa kasu batean eta berrespen enfatikoa bestean—; eta c) hirugarrenik, *ete* partikularen presentzia beharrezkoa dute daukaten zentzua mantentzeko.

Gutxi edo batere deskribatuta ez egotearen arrazoia, ziur asko, ahozkoan entzuten diren egiturak direla izan daiteke, eta gainera oso eremu dialektal txikian erabiltzen direla —Zuazoren (2017) sailkapenean mendebaldeko euskararen sortaldeko eremuko zenbait herritan gutxienez—, erabilera hauen hedapena gehiago ikertu behar den arren. Bestalde, aldakortasun diatopikoaz haratago, oro har euskarazko partikula modalen erabileran gertatzen ari den joera orokorraren adibide garbia dira, hiztun gazteen ahotan *eteren* erabilera hauek desagertuz doazelako, batik bat kontrako balioa duen partikularena, berrespenaren balioduna ezagunagoa baitute. Izan ere, 50 urtetik beherako hiztunen mintzoan nekez entzungo ditugu *ete (ote)*ren bidez eratutako harridura-perpaus hauek, inguruan aditzen eta ulertzen dituzten arren. Lan honek badu, hortaz, bestelako asmo xume bat, hain zuzen hurrengo belaunaldietako mintzotik galdu aurretik *ete* partikula modalaz lekukotu nahi genituzkeen euskararen adierazpen posibleetako batzuk deskribatzea.

Has gaitzen, beraz, aztergai ditugun egiturak aurkezten. Gogoan izan behar da elkarrizketa baten txanda-trukean ulertu behar direla esapideok, hizketa baten barruan soilik dute tokia eta. Bestetik, datuen deskribapen fidelagoaren mesedetan, erakutsiko diren adibideak aldaera estandarrean eman ordez dagozkion aldaeran ematea hobetsi dut, erabakiak ulermenean kalterik ez dakarrelakoan. Ondoko adibideek argi erakusten dituzte bi balioak; batak aurreko adierazpenarekiko berrespen enfati-

² Esker onen artean, datu-emaike nagusiak izan ditudan etxekoak aipatu nahi nituzke. Era berean, eskerrak bihoazkie Xabier Bilbao, Gorka Elordietak, Azler Garcia, Iñaki Gaminde, Joseba Lakarra, Aitor Lizardi, Itziar San Martin eta Koldo Zuazo lankideei, eta Kristina Bilbao, Iñaki Moriones, Paul Naxiondo, Cristina Ruiz eta Endika Uriarte ikasleei egitura hauei buruzko juzkuak nirekin partekatzeagatik.

koa adierazten duen bitartean (1), besteak perpausak duen polaritatearen kontrako (ezezko) balioa du, ironiarekin lotu ohi dena (2):

- (1) A. Mikelegaz egin dot topo lehin. Handikeriak kontaten ibili jat. Inūzentia-
tiago da...!
B. Ete dan inūzentia (ba)! (beti dabil holako tontokeriak!...)
- (2) A. Automobil barria erosteko asmotan nabil. Elektrikua erosi nahi dot,
baña ondiñoko eztago elektrolinera nahikorik, eta dudan nago
B. (Bai...!) Neuk erosi ete doten kotxe elektrikua! Ezta...!

(1)-eko adibidearen esanahia gardena den arren, ez da horregatik interesik gabea. Egiazki, bi ezaugarri nagusi nabarmendu daitezke egitura honetan; batetik, esanahia, berrespena adierazten baitu eta ez zalantza edo norberaren hausnarketa, azken horiek baitira *ote* kanonikoaren balio nagusiak (Euskaltzaindia 1991, 1999; Monforte 2020a); eta bestetik, partikula modalak duen posizioa, perpaus hasieran, hori ere ez baita ohikoa egungo euskara estandarrean. Bigarren egiturari dagokionez, (2A)-ren adierazpenari solaskideak (2B)-rekin erantzuten dionean benetan esan nahi duena da berak ez lukeela kotxe elektrikorik erosiko zoratuta ere ez —hortik «ezta...!» interjekzioarekin edo «pentza bez! / pentsatu ere ez!» harridurazko emendailuarekin batera agertzeko aukera—. Beste hitzetan esanda, perpausak adierazten duen (baiezko) polaritatearen kontrako balioa du, eta zentzu ironikoa dario.

Bistan da *oteren* balio ironikoa zein berrespenarena ez direla ezezagunak, haren erabilera deskribatu duten zenbait lanetan (Euskaltzaindia 1987, 1991, 2021; Petrirena 2011) aipatu izan delako galdera-testuinguru nagusitik at batzuetan harridura, enfasia eta ironia adieraz daitezkeela *ote* erabilia:

- (3) Zenbat bertso ez *ote* zituen jarri Basarrik! (Euskaltzaindia 2021: 939)
- (4) Egia *ote* da, bada! ('Horixe egia dela!')
- (5) Isilduko *ote* da noizbait! (Euskaltzaindia 1991: 516)

Hargatik, berehala ohartuko gara badirela aldeak egitura hauen eta (1) eta (2)-koen artean. Nabarmenki, *-(e)n* menderagailuaren presentzia da desberdintasun nagusia, baina badira gehiago, adierazten duten *ñabardura* semantikoarekin lotuak: (1) eta (2)-ko esapideek ez dute sekula desio-balioa aditzera ematen, ez dute ezeztapena onartzen, eta ez dute NZ-rik ametitzen.

- (6) *Ez ete dan luzia, ba!
- (7) a. *Zelako luzia ete dan, ba!
b. *Bai..! neuk ez ete dotzaten esan egi osua alabiari!

Bestalde, beti daude lotuta aurretik ekoitzi den proposizio bati. Hau da, ezin dute sekula berbaldia hasi, baizik eta justu aurretik esan den adierazpen baten aurrean hiztunak duen erreakzio emozionala adierazten dute —hortik harridurazko perpausetan agertzea—. (2) adibideak erakusten duen egituraren ezaugarri ohargarriena beharbada daukan kontrako iritzi kritikoaren balioa da, perpausak adierazten duen polaritatearekin bat egiten ez duena. Zentzu horretan galdera erretorikoen antza du (ikus, beste askoren artean, Obenauer 2004; Littell *et al.* 2010; Andueza 2011; Gutiérrez-Rexach & Andueza 2017; Alcázar 2017; Biezma & Rawlins 2017). Hala ere badi-

tuzte hainbat desberdintasun bien artean: a) galdera erretorikoak ez bezala, egitura hauek elkarrizketako testuinguruetan soilik erabili behar dira, galdera erretorikoek, aldiz, ez dute murriztapen hori eta elkarrizketatik kanpo erabil daitezke; b) *ete* egitura hauek ez dute NZ-hitzik onartzen, eta c) ezin dira ezeztatu. Bestetik, galdera erretorikoetan ez bezala, egitura hauetan ez dugu galderetan normalean gertatzen den aditzaren aurreratze-efekturik aurkitzen.

Era berean, aldera ditzagun (1) bezalako egitura enfatikoak (4) adibidearekin. Egiatan, biek dute berrespen enfatikoaren zentzua, baina forman ez dira berdinak: (1)-ekoetan nahitaezkoa da *-(e)n* menderagailua agertzea, (4)-koetan ez bezala, eta horrez gain, *ete* partikularen kokapena ez da bera, (1)-ekoetan *ete* partikula perpaus hasieran agertzen delako. Izan ere, hurrenkera hori harrigarria da, ez delako euskaraz espero duguna, ezaguna baita partikula modalek edo diskurtsiboek ez dutela babesten aditz jokatuaren lehen posizioan agertzetik (cf. **ote dator Mikel*). Orrialde mugak tarteko, lan honetan ez naiz analisi xehetuan sartuko, baina 3. atalean bi egituren jokabidea azal dezakeen hurbilketa irudikatzen saiatuko naiz, azaletik bada ere.

Lana honela egituratuta dago: bigarren atalean *ote/ete* partikula modalaren ezaugarri nagusiak deskribatuko dira eta erabilera «bereziak» erabilera kanonikotik noraino aldentzen diren erakutsiko da; 3. atalean harridurazko *ete* perpausok erakusten duten sintaxia eta semantika azaltzeko egiten dudana hurbilpena ekarriko dut, eta 4. atalak lanean ateratako ondorio nagusiak laburtzen ditu.

2. *Ote/ete* partikularen interpretazioez

Euskal gramatikan *ete/ote* partikula «partikula modal» deituraz (ikus besteren artean, de Rijk 1972, 2008; Euskaltzaindia 1987; Mujika 1988; Ortiz de Urbina 2003: 322; Monforte 2020a,b, 2021) edo «partikula» hutsarekin (Jendraschek 2003; *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*; Euskaltzaindia 2021: 928) deitu izan diren *omen*, *ei*, *bide*, *al*, *ahal* elementuekin batera multzokatzen da. Bakoitzak bere ñabardura propioa duen arren, partikula hauek ezaugarri batzuk partekatzen dituzte, eta beharbada aipagarrienak ondokoak dira: a) aditz jokatuarekin batera ageri dira, haren aurrean; b) morfonologikoki silaba bakarrekoak ala bi silabakoak izanik klitikoen jokabidea erakusten dute (azenturik ez daramate, eta aditzarekin batera mugitzen dira galderafoku kontestuetan); c) haien artean ez dira bateragarriak; eta d) perpausaren esanahia aldatzen dute nolabait.

Inguruko hizkuntzekin konparatuz gero partikula modalen sorta aski aberatsa da euskaraz; haietako batzuek forma desberdinak hartzen dituzte eremu dialektalaren arabera, eta perpausari ñabardura semantiko eta pragmatiko desberdinak gehitzen dizkiote. Askotan erraza ez den arren zein adiera jakin dakarten zehaztea, iruditzen zait ez dela eztabaidagarria onartzea partikula batzuk modalitate epistemikoarekin lotuago daudela eta beste batzuk, ostera, ebidentzialtasunarekin. Lan honetako aztergaia den *ete* (*ote*) elementua, kasurako, partikula epistemikoen barruan kokatu ohi da, zalantzazko kutsua esleitu baitzaio (Euskaltzaindia 1987, 2021; Mujika 1988; *Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)*; *SEG*; Monforte 2020a). Modalitate epistemikoarekin esan nahi dugu hitzunak perpausaren esanaren duen zurratsun maila, zalantza, edo engaiamendu maila morfosintaxiaren bidez nola markatzen duen.

Partikulak har ditzakeen beste balioak deskribatzeari ekin baino lehen, azpimarratu nahi nuke nolako interesa duen gramatikarentzat partikula modalen azterketak. Izan ere, hizkuntza germaniarretan eta erromantzeetan partikula hauei buruz azken hamarkadetan egin diren ikerketa-lanei begiratzea besterik ez da behar haien garrantziaz ohartzeko (ik. beste askoren artean Corr 2016, 2018; Döring 2016; Wiltschko & Heim 2016; Bayer & Struckmeier 2017; Artiagoitia *et al.* 2022). Eta euskarazko partikula modalen alorrean, nabarmentzekoak dira azken urteetan *omen* (Zubeldia 2009, 2010, 2011; Etxepare 2010a; Korta & Zubeldia 2014; Etxepare & Uria 2016), *ote* (Monforte 2020a,b, 2021) eta *bideri* buruz (Korta & Zubeldia 2014, 2022) plazaratu diren lan interesgarriak. Bereziki, Monfortek ireki duen bidetik, ikerketa honetan *oteren* aldaera dialektala den *eteren* erabilera ez-kanoniko batzuetan jarriko dugu arreta. Has gaitezten, lehenik, *ote* partikularen erabilera kanonikoa zein den aurkezten, ondoren argiago azal dezagun zertan aldentzen den *oteren* beste erabileretatik.

2.1. Oteren erabilera kanonikoa

Partikula honen ekarpen semantikoa zehaztea eztabaidagarria den arren, oro har balio epistemikoa duen partikula gisa deskribatu izan da lan gehienetan; funtzio erretorikoa ere aitortu izan zaio (Euskaltzaindia 1987, 2021; Mujika 1988; *OEH*; *SEG*), eta hainbatetan zalantzazko edo balio espekulatiboa ere erantsi zaio (Azkue 1923-1925; de Rijk 2008; *OEH*; *SEG*). Bere erabilera kanonikoan, galderetan erabiltzen ohi da, bai/ez motako perpausetan nahiz NZ-galderetan, eta perpaus nagusietan zein mendeko zehargalderetan. De Rijk (2008: 164) dioenez, galdera hauek mota askotakoak izan daitezke:³ i) norbere buruari eginak, beste norbaiten aurrean egon arren: *Iritsiko ote naiz sasoiz zinemara? Berandu nabil eta...*; ii) galdera erretorikoak ere izan daitezke, erantzunik espero ez dutenak: *Horiek beti berandu. Iritsiko ote dira?*; edo c) galdera arruntak, solaskideari zuzenduak: *Ba ote daki Mikelek gaur zure urtebetetze eguna dela?*. Orobat, Euskaltzaindiak (1987) dio gogoeta baten harira mamitzen den galdera adierazten duela, eta *SEG*ek irizten dio *ote* erabiltzean hiztunak ez duela ezinbestean erantzunik espero: «Badirudi, norberaren nolabaiteko ezinegona edo adierazten duela gehiago». Ildo beretik doa Monforte (2020a) *ote* partikulak galdera «konjeturalak» ematen dituela aditzera argudiatzen duenean.

Tradizioari dagokionez, gutxi erabili izan da goi-nafarreraz eta zubereraz (*OEH*), baina gainerako euskalkietan arrunta da —bizkaieraz *ete* aldaeran—. Nolanahi ere, gorago aipatu denez, badirudi partikula modalen erabilera gainbeheran doala gazteen mintzoan, ingurukoan ahotan ezagunak dituzten arren.

³ De Rijken ustez, *oteren* oinarrian latin berantiarreko *aut ne* («edo ez») dago (de Rijk 2008: 164). Baina Lakarrak (2019: 383-385) ohartarazi duenez, ideia horrek hainbat arazo ditu: alde batetik fonetikoak, latinetik euskarazko formara igarotzeko proposatu beharko lirakeen bilakabide fonetikoak gutxienik «ezohikoak» direlako, eta bestetik, ez dagoelako eremu erromaniarrean bilakabide paraleloa erakutsi duen egiturarik. Lakarraren hipotesiaren arabera, jatorrian ‘eman, iruditu’ tankerako esanahia izango lukeen **bo(C)+te* aditz-izena legoke. Eskerrak eman nahi dizkiot Joseba Lakarrari auzi honi buruz idatzitakoeh ohartarazteagatik.

Kokapenaz den bezainbatean, adizki jokatuaren aurrean agertzen ohi da *ote*:

- (8) a. Lo ete naz? Ala iratzarririk nago? (Lazarraga 1152r.)
 b. Ez dakit txantxetan ez ote dabilen
 c. Jaungoikoaz ostean, iñork ere bestek kriatu edo sortu ote daike gauzarik? (Ochoa de Arin, 1713)
 d. Nik nondik merezi othe dut, / Jauna, hunenbat ohore? (Gasteluzar, 1686)
 e. Baina, apirila, hitza bera, nondik ote dator? (*Naturaren mintzoa*, Pello Zabala)

Baina ez dira gutxi aditza isilduta ageri duten lekukotasunak, batik bat *bai* eta *ez* polaritate elementuekin batera, aspaldian hainbatek ohartarazi dutenez (Azkue 1923-1925; Euskaltzaindia 1987; Ortiz de Urbina 2003; de Rijk 2008; *SEG*, kasurako):

- (9) a. Nondik bada loria naiteke, eta zergatik guthizia dut estimatua izaiteko? Ene ezdeusagatik *othe*? (*Iesusen Imitacionea*, Pouvreau, 1669)
 b. Zorionekoa ote, edo gaiztokoa, ori eztatit (Arrue May 43, 1888)

Galdera zuzen zein zehargalderetan erabiltzeaz gain, zenbait aditzen osagarri-perpausetan ere agertzen da, euskalki guztietan, idatzizko lekukotasunei ohar eginez gero, salbu eta goi-nafarreraz eta zubereraz, lehen aipatu bezala. Monfortek (2020a) ondoko aditzetara mugatzen ditu galderak hautatzen ez dituzten baina *ote* onartzen duten mendeko perpausen aditz gobernatzailerak: *beldur izan*, *zalantza izan*, *iruditu* (eta esanahi bereko aditz-aldaerak), eta Lafittek (1979 [1944]) zioenaren ildotik, seinalatzen du *ote* gehitzean hitzunak adierazten duela proposizioan adierazitakoarekin ez duela guztiz bat egiten, edo ez duela ziurtzat jotzen (Monforte 2020a: 201). Beheko adibideak honen erakusgarri dira, *OEHT*ik atereak:

- (10) a. Samar bat irintxi *ote* dian iruditu zatan (Barandiaran 1972, *apud* Monforte 2020: [196a])
 b. Aitonari begira, ezer sumatuko *ete* zuan bildurrez (Txomin Agirre, *Garoa*, 1912)

Honaino *ote* partikulak dituen erabilera orokorrak aipatu ditugu. Ondoren lan honetan hizpide ditugun erabilerak aurkeztuko ditut, aurrerago haien interpretazioa ulertzeko hurbilketa bat proposatuko dudalarik.

2.2. Erabilera ez-kanonikoak: *Ete daukazun, ba!* eta *Neu joan ete naizen haraino!* egiturak

Oteren erabilera ez-kanonikoez ari garela, Monfortek (2020a) erakutsi du erabilera orokorretik at, ekialdeko hizkeretan bestelako kokapenak agertzen dituela *ote* partikulak: perpaus osoaren amaieran (11a), NZ galdetzaileraren ondoren (11b), edo aditz jokatuaren ostean (11c), eta kokapenarekin batera agerpen bakoitzaren jokabide sintaktiko eta semantikoak azaltzeko proposamenak egiten ditu.⁴

⁴ *Orotariko Euskal Hiztegi*an ere aditz jokatuaren ondoko erabileraren testigantzak jasotzen dira, eta bestalde agerpen bat (bakarra) lekukotzen da galdetzaileraren aurretik: *Arren orai urbentzian / has gitian*

- (11) a. Hi, ez ahal duk besterik egiteko *ote*? (Thikoipe 2009: 134)
 b. Nork *ote* jan züan? (Casenave-Harigile 1997)
 c. Eztakit ardi horrek bildotxa ukhain dienez *othe* gaur. (Camino 2009b: 193)

Artikuluaren luze-laburrak ez du ahalbidetzen erabilera hauetan sakontzea, baina irakurleak Monforteren lanean aurkituko ditu erabilera hauei buruzko analisi eta xehetasun arras interesgarriak. Hemen erabilera kanonikotik urruntzen diren eta sarreara atalean aurkeztu ditugun beste jokamoldeak aurkeztuko ditut, zehazki, *etek* zenbait hizkeratan harridura-perpauetan izan ditzakeen bi balio agerian uzten dituzten egiturenak: hitzunak bata erabiliko du aurretik beste norbaitek esandakoarekin guztiz bat egiten duela berretsi nahi duenean, eta, aldiz, bigarrena erabiliko du esandakoari buruz kontrako iritzia duenean (ikus Elordieta 2022a, 2022b, bigarren egiturari buruzko deskribapenerako). Azpimarratu behar da bi egiturak elkarrizketa baten tesuinguruan erabiltzekoak direla beti ere; aurretik beste norbaitek esan duenaren arrapostu edo erreazio emozionalak baitira (bestela ezin dira ulertu ez erabili). Hortaz, aurretiazko tesuinguru diskurtsiboari oso lotuta daude, beste harridurazko egitura batzuetan lotura hori nahitaezkoa ez den bitartean (adibidez, *Zein egun ederra egiten duen gaur!* esan dezakegu aldeztatik inork eguraldiaz ezer ez badu esan ere). Kontrara, hemengo esklatatiboek ezin dute elkarrizketa bat hasi, ezin lirateke interpreta- tuak izan eta. Hona hemen egitura hauen beste adibide batzuk:

- (12) A. Bihar asko daukat; amaitu egin bihar dot lan bat eta azterketak be zuzentzeko daukaraz
 B. Ete daukazun biharra! Astebururik be eztaukazu-ta!
- (13) A. Eztot nahi abionian juan, beraz, autobusian jungo naz Sevillara.
 B. (Baai...!) Neu jun ete nazen autobusian hainbeste orduz! (ezta...!)

Ete partikula daramaten arren, eta biak kontestu esklatatiboetan erabiltzen bada ere, bi egitura desberdin direla proposatuko dut, interpretazio desberdinetara eramaten dutelako eta partikulak batean eta bestean perpauetan erakusten duen kapa- penaren ere desberdina delako (perpau hasieran edo posizio kanonikoan, hurrenez hurren).

2.2.1. Berrespena adieraziz

(12B) esatean hitzunak berretsi egiten du aurretik beste solaskideak egin duen adierazpena, harridurazko esapideen intonazioarekin eta balio enfatikoarekin jant- ziz. Monfortek (2020a: 206) bere tesian erabilera ezohiko hau aipatzen du aza- letik, eta *OEHn* aurki daitezkeen lekukotasun bakanen berri ematen du (zehazki, Ondarroako, Markinako eta arrasatearra zen Jokin Zaitegiren adibide bakanak aurki daitezke). *Corpus historikoan* arakatu ondoren, Juan Bautista Eguzkitza le- moarraren beste adibide bat aurkitu dut (14a), *ete* partikula hasieran agertzen ez

gure lanian, / Bakhotzak üdan bortian / othe zer eginen dian. Junes Casenave, *Santa Grazi. Pastoral*. Do- nostia, 1976.

den arren,⁵ eta *Egungo Testuen Corpusak* Leire Saitua artikulugile ibarrangeluarren adibide bakar baina esanguratsua dakar (14b):

- (14) a. Baña gauza bakotxak balio biok ba'daukazala, ez ete da, ba, egia?
Egia *ete*-dan ba! Egi argi ta garbia dalako inongo gizasemek egundo ukatu dauanik eztoz uste. (Juan Bautista Eguzkitza, *Gizarte auzia*, 1935)
- b. Pobreak, benetan be, *ete* diren ba pobreak! (*Berria*, 2008-07-29, «Herri estresari aurre egiteko»)

Idatzizko testigantza apurrak izatea ez da harritzekoa aintzat hartzen badugu batik bat ahozko jardunean entzuten direla. Monforteren iritziz galbidean dagoen egitura da, adinekoek soilik erabiltzen dutelako, eta gero eta eremu murriztuagoan. Lea-Artibaiko eremuan, 45-50 urtetik gorakoek darabilte nagusiki euren berbaldian, baina hitzun gazteagoentzat egitura ezaguna den arren, eta daukan zentzua ondo interpretatzen duten arren, bere adinkideekin ez dute erabiltzen. Era berean, Markinan eta Mutrikun egitura ezaguna da, Mallabian ere bai, baina hemen ere belaunaldien arteko aldaketa gertatu da erabileran, ezaguna izan arren, gazteagoek ez baitute beren hizketan erabiltzen. Bestalde, Arratian, Txorierri, Uribe-Kostan eta Bermeon galera lehenago hasi zen —xx. mendean erabiltzen bazen, bederen—, ez baitira egitura ezagunak gaur egungo gazteentzat ez haien nagusientzat. Hala ere, ikusi dugunez, Busturialdeko Ibarangelun badira ezagunak eta Gernika inguruan ere nagusiei entzunak omen dizkiete.

Erabilera murriztuz badoa ere, *ete ...-(e)n ba!* egiturak deskribapen zehatzagoa behar du, ezin baita edozein kontestutan erabili. Izan ere, benetako harridurazko egituretan bezalaxe, baieztapen enfatiko hau esatean nolabaiteko kuantifikazioa ere adierazten da; esate baterako, (12B)-ko *etedun* egitura zilegi da aurretik beste solaskideak egin duen adierazpenaren gainean hitzunak goreneko maila edo kantitatea —*bihar asko* ('lan asko')— kuantifikatzen duelako. Gauza bera gertatzen da goiko (1b) eta (14a-b) adibideetan. Horregatik, baiespen kontestu honetatik kanpo eta kuantifikazioa adieraztea ezinezkoa den testuinguruetan ez da onargarria izango egitura hau erabiltzea. Ondorioz, Monfortek ematen duen (15) adibidea pragmatikoki eta semantikoki desegokia da, ezin delako irakurketa kuantifikaturik egin, ezin delako 'etxea erosi' gertaeraren gainean haztatu:

- (15) a. Itziarrek etxea erosi dau.
b. #*Ete* dauen ba! (Monforte 2020a: [163] 206)

Gehienetan *izan*, *eduki* aditz trinkoekin erabiltzen bada ere, aditz perifrastikoekin ere entzuten da, beti ere kuantifikazioaren interpretazioa eman ahal bazaio. Horrela, (15)-eko adibidea moldatuz, *Itziarrek oinetako asko erosi ditu (ditxuz)* adierazpenari erantzun dakioke *Ete dabezen erosi!* (...ez dakit zertarako baina!) esanez.

Hurrengo atalean egitura hauen izaera sintaktikoa zein izan daitekeen zirriborratuko dut, beraz, ez dut hemen gehiago sakonduko, eta jarraian beste *eteren* erabilera deskribatuko dut.

⁵ Lemoarra izan arren, Eguzkitza abadeak urte gehienak Lekeitioan eman zituen latin irakasle. Beraz, beharbada egitura herritarren hizkeratik hartu zuen, bere Arratiako hizkeratik baino.

2.2.2. Kontrako iritzia adieraziz

Sarreran aurreratu bezala, hizkera berean bada orain arte deskribatu ez den *ete* partikularen beste erabilera dialektal bat, hau ere harridurazko testuinguruan erabiltzen dena, baina —interesgarriro — bestelako interpretazioa duena, ia-ia kontrakoa. Zehazki, hiztunak aurretik egin den adierazpen bati enfatikoki berrespena emateko baino, *ete* honen kasuan ekarpen interpretatiboa hain zuzen kontrakoa da; alegia, berbaldian aurretik egin den baieztapenarekin *kontrako* iritzia duela adierazteko erabiltzen du hiztunak. Era horretan, proposizioan deskribatzen den gertaera hiztunaren ikuspuntutik nekez edo inoiz ez dela gertatuko azaldu nahi du. Beste adibide bat ekarriko dugu eztabaidara duen balioa argiago erakusteko:

(16) A. Egueldi zantarra emonda dago, baina halan da guzti be, mendira jungo naz bihar.

B. (Bai...!) Neu jun ete nazen mendira honegaz eguelldiagaz! Ezta...!

Elkarrizketa honetan B hiztunak A-ren baieztapenari (16B)-rekin erantzuten diotanean, adierazi nahi dio bera ez litzatekeela mendira joango hain eguraldi eskasarekin, eta azpian dagoen irakurketa gehigarria da ez zaiola ideia ona iruditzen; nolabait esateko, desadostasuna erakusten du solaskideak daukan asmoarekin. Egitura hauei harridurazko balioa intonazio bereziak ematen die, eta batez ere sarri interjekzioekin batera esan ohi direla (adibidean, *bai!* kontrako iritzia adierazteko erabiltzen den interjekzioa, kasurako).⁶

Ohargarria da kontrako iritzi (negatibo)a adierazi arren, perpausa ez dela ezeztapenaren bidez ematen —izan ere, ezin da ezezkoan jarri—, alegia, proposizioan adierazten denaren kontrako polaritatea ematen du aditzera. Gauza bera gertatzen da galdera erretorikoetan, baina hauetan ezeztapena zilegi da, NZ-hitzak ohikoak dira eta sarri galderaren erantzuna ezaguna da bai hiztunarentzat bai solaskidearentzat. Ezauzgarri hauetako ezein ez dute partekatzen harridurazko *ete* perpausek.

Hortaz, ikusten dugu *ete* partikulak berrespeneko ala kontrako balio pragmatikoa erants diezaiokeela adierazpenari, zein testuingurutan erabiltzen den. Bistan da, funtsezko galdera da nola eratortzen diren bi interpretazioak. Ideia da erabilera bata eta besteak sintaxi desberdina dutela, eta hortik eratortzen dela balio desberdina.

3. Hurbilpen baterantz

3.1. *Ete* eta berrespen enfatikoa

Egitura osoak duen berrespen enfatikoaren interpretazioak lagun gaitzake erantzuna bilatzen. Izan ere, enfasia eta fokua lotuta doazen kontzeptuak direnez, aintzat hartzen badugu euskaraz fokua markatzeak ezkererako mugimendua erakartzen duela, proposa dezakegu egitura hauetan baieztapenaren fokua mugimendua gertatzen dela. Alegia, aditz jokatu eta partikula ezkerrean kokatuta dagoen Foku burura mugitu direla. Azaldu behar dena da zein den *eteren* ekarpena egitura hauek duten interpretazioan, eta nola eratortzen diren sintaxian. Horretarako, euskaraz po-

⁶ Interjekzioen eta partikula modalen arteko harremana aztertzen duen lan berri baterako, ikusi Munaro (2022).

laritate fokua azaltzeko proposatu diren egituretatik abiatu behar dugu eta bestetik *-(e)n* menderagailuaren agerpena eta kokapena azaltzen saiatuko naiz.

Abiapuntu bezala, onartuko dugu *Badaki Anderrek kanpora zoazela* gisako polaritatezko foku egituretan aditza Foku burura mugitzen dela (ik. besteak beste, Ortiz de Urbina 1994, 1995; Elordieta 2010; Elordieta & Haddican 2016). Egitura horiei *ote/ete* gehitzen badiegu, gogoan hartuta partikula hau nagusiki galderen testuinguruan zilegiztatzen dela —erro-perpausetan, bederen—, perpausek galdera itxura hartuko dute, baina aurretik beste elementu bat dutela agertu behar dute gaurko euskara estandarrean:

- (17) a. *Ba* ote daki Anderrek kanpora zoazela?
 b. **Ote* daki Anderrek kanpora zoazela?

Gauza bera *ote/ete* mendeko testuinguruan badago:

- (18) a. *Bildur dira [ote dauden gaixorik]
 b. Bildur dira [gaixorik ba ote dauden]

Adizki jokatuak perpau nagusietan lehen posizio hutsean agertzeko duten ezintasun edo debekuan oinarrituta (Altube 1929; Euskaltzaindia 1986; Ortiz de Urbina 1989, 1994; Uriagereka 1999; Elordieta & Haddican 2016), zenbait hitz hautagai egokiak dira aditza lehen gunetik babesteko, eta beste batzuk ez (egungo euskara estandarrean). *Ba* eta *ez* partikulek adibidez, badute indar babesle hori, baina partikula modalek oro har ez (Euskaltzaindia 1987; 2021; Ortiz de Urbina 2003).

Bitxia dena da *ote* partikulak bestelako jokabidea erakusten duela ikergai ditugun testuinguru esklamatiboetan, erabilera estandarrekin alderatzen badugu, behintzat. Izan ere, adibideetan ikusi denez, *ete* partikula perpau hasieran agertzen da *Ete dan ona, ba!* esaldietan. Honen aurrean sortzen zaigun galdera agerikoa da, alegia, zergatik testuinguru «arruntetan» partikula ezin den perpau hasieran agertu, baina bai, berriz, testuinguru esklamatibo enfatikoetan.

Honen harira, bi kontu ekarri nahi nituzke eztabaidara. Alde batetik, *ote* bezala partikula modala den *omen* partikula ebidentzialaren portaera, eta bestetik, *ete* hasieran duten galderazko lekukotasun batzuk. Hain zuzen ere, *omen* partikulari buruz ikertu duten zenbait lanek erakutsi dute ekialdeko hizkeretan partikula perpau hasieran ager daitekeela aipamen-testuinguruetan (*quotative*), edo polaritate kontestuetan (Etxepare 2010a; Etxepare & Uria 2016):

- (19) a. Bere senarra ospitalean da, omen gaizki dela
 = Bere senarra ospitalean da, *diotenez* eri dago
 b. Omen zen gizon bat...
 = *Diotenez*, bazen gizon bat... (Etxepare & Uria 2016: [21], [18b])

Etxeparek eta Uriak, aldakortasun honen berri emateko, proposatzen dute ekialdeko hizkeretan *omen* partikulak bi kokapen izan ditzakeela, kasu batean *-(e)la* Konplementatzaile Sintagmaren gainean, topikalizatuta (19a), eta bestean, (baiezko) Polaritate Sintagmaren espeziifikatzaile gunean (19b).⁷ Ideia honi jarraituz, lan honetan hizpide

⁷ Irakurle interesatua Etxepare & Uriaren (2016) lana irakurtzera gonbidatzen dugu analisis bere osotasun eta sakontasunean ulertzeko.

ditugun *ete* egitura enfatikoaren eraketa azaltzeko antzeko azterbidea proposatu nahi dut, dagokion kontestura egokituta. Hau da, *ete* Foku Sintagmaren espezifikatzailean legoke, eta aditz jokatuaren sintagma beraren buruan, bien arteko albokotasuna ezin baita hautsi ezelan ere. Horrek daukan interpretazio enfatikoari erantzuna emango lioke, baina halaberrez eramaten gaitu onartzera *ete* partikulak batzuetan klitiko gisa jokatzen duela, eta beste batzuetan adberbio gisa. Ideia hau ez da berria, aurretik Etxeparek (2010a) *omen* partikulaz eta berriki Monfortek (2020a,b) *otek* ekialdean duen jokaera ez-kanonikoak aztertzean ondorioztatu baitute partikula horiek bi izaera morfosintaktiko desberdin adieraz dezaketela, batean buru klitiko batena, bestean adberbio batena. Prosodiak ere aldeko ebidentzia ekartzen du, *ete* partikulak azentuera desberdina duelako erabilera klitikoan —azenturik gabekoa da— eta perpaus hasierako erabilera enfatikoan, non 2. silaban doinu-azentuak nabarmen gorantz egiten duen eta mantendu egiten den aditz jokatuaren ondoren beherakada jasan arte:

- (20) a. Ez dakit [liburúa ekarri ete dabèn]
 b. Eté dabén ekarri, ba, sekulako mozkorra!

Bestetik, ohargarria da erabilera estandarrean *ote/ete* partikularen aurretik beste elementuren bat agertzeko beharra bada ere, corpus idatzietan *ete* partikula lehen posizioan doan hainbat lekukotasun aurki daitezkeela, batez ere galderazko testuinguruetan. Adibide batzuk ekarriko ditut hona, *Corpus historikotik* erauziak, gehienak gerra aurreko mendebaldeko idazleen lanetatik:

- (21) a. Ete dakije ezer ixarren unian? (Estepan Urkiaga - «Lauaxeta», *Bide barrijak*, 1931)
 b. Ete da sari-zigorrik? (Manterola, *Goi-izpiak*, 1921)
 c. Ete dago norbait aberastanunik nai ezantuanik? (Txomin Agirre, *Sermoiak*, 1898-1916)

Aurreko adibideek eta aztergai ditugun *ete dan ba!* egiturek erakusten dute *ete* partikulak izan duela eta baduela izaera beregain nahikorik aditz jokatuaren lehen gunetik babesteko. Arestian iradoki bezala, jokaera honen berri emateko azalpen bat izan daiteke pentsatzea *ete* partikulak horrelakoetan adberbio gisa jokatzen duela, eta FokuSaren espezifikatzailean dagoela. Bestetik, menderagailuaren agerpena azaltzeko, pentsa dezakegu perpaus insubordinatuak direla, hots, ezkutuko mendeko perpausak (Evans 2007; Gras 2016, 2017). Horrek zuzenean azalduko luke *-(e)n* menderagailuaren agerpena egituretan.⁸ Monfortek (2020a) izpiritu beretik baina insubordinazioa aipatu gabe egiten duen iradokizun bati tiraka, proposa dezakegu *ete dan ba!* egiturak perpaus nagusiko aditza isildu ondoren eratorri direla. Hala ere, isildutako aditza

⁸ *-(e)n* menderagailuaren agerpena ez zaio irakurleari harrigarri gertatuko, hain zuzen euskaraz harridurazko perpausak *-(e)n* menderagailuarekin osatzen baitira (Villasante 1979; Euskaltzaindia 1991; Artiagoitia 2006, besteak beste). Hala ere, gramatiketan konplementatzaile gabe harridurazko adibideak ere aurkitzen ditugun, gorago aipatu denez:

- (i) Egia *ote* da, bada! ('Horixe egia dela!')
 (ii) Isilduko *ote* da noizbait! (EGLU-II: 516)

Hauei inoiz «harridurazko erretorikoak» deitu zaie (Andueza 2011; Andueza & Gutiérrez-Rexach 2011).

galdetu balitz, Monfortek proposatu bezala, horrek berez ez luke azalduko daukaten balioa, esapidea erabiltzen den testuinguruaren atzean ez baitago galdera bat, edo ez beti, behintzat; hobe esanda, galdera jakin mota bati erantzun diezaioke (esaterako, *Diru asko irabazten dau Amaiak?*), baina arruntagoa da solaskidearen adierazpen baten erreakzio bezala. Hortaz, daukaten irakurketa azaltzeko, proposatzen dut *dударик ez izan* izan zitekeela aditz nagusia, eta gero, [*polita ete dan*] moduko zehargalderak harridurazko kontestu batean enuntziatzen zirenean gramatikalizazio prozesua jasan zutela aditz nagusia isildu ondoren, harridurazko baiezkotasunaren zentzua polaritate fokuari bidez indartu zelarik zenbait hizkeratan. Honek bat egiten du daukaten interpretazioarekin; izan ere, ohikoa da egitura hauen ondoan *benetan be!* tankerako esamoldeak agertzea, baiezkotza berrespena indartzeko edo.

3.2. Ete kontrako iritzia adierazteko

Azken puntuan *eteren* beste erabilera nola eratorri den ulertzeko saioa egingo dut, azaletik bada ere. 2.2.2 azpiatalean *ete* partikulak ebaluazio edo iritzi kritikoa adierazteko duen balioa deskribatu dugu. Horren berri emateko, berrespenaren interpretazioa azaltzeko proposatu dudan antzeko ideia proposatu nahi dut egitura hauetarako: hots, adiera negatiboa duen aditz baten osagarri perpausak direla, eta aditz hori isildu ondoren geratu den perpaus hondarra gauzatzen dutela. Hortik eratorriko litzateke perpausak duen ezezko interpretazioa eta ezezko polaritateko elementuak (EPE) zilegiztatzeko duten aukera. Izan ere, goragoko (16) adibidea apur bat moldatuz gero EPEa zilegi dela ikus daiteke:

- (22) A. Egueldi zantarra emonda dago, baina halan da guzti be, mendira jungo naz bihar.
 B. (Bai...!) Neu jun ete nazen *inora* honegaz egueldiagaz! Ezta...!

Zein izan daiteke aditz hori? Kasu honetan proposatu nahi dut beste egiturarako proposatu dudan aditz mota bera dugula azpian, baina baiezkotza modalitatean: hala, *duda egin/zalantzan jarri* aditz epistemikoa hautagai oso egokia da, ohiko testuinguruetan *-(e)n* konplementatzailea duten osagarri perpausak hautatzen baititu, eta *ote* partikularekin batera ager daiteke, ziurtasun ezaren balioa erantsiz (Lafitte 1979 [1944]). Bestalde, berez duen esanahi negatiboagatik aurreikus daitekeenez, EPEak zilegiztatzen ditu. Egitura hauetatik (22) egituretara nola igarotzen garen azaltzeko, proposatu nahi nuke lehenik perpaus nagusia isilean utzi zela testuinguruak lagunduta, eta behin isilduta, *ete* partikulak bere esanahia gramatikalizatu zuela hiztunak proposizioan adierazitakoekin guztiz bat egiten ez duela adieraztetik —ohiko interpretazioa mendeko perpausetan— adostasunik batere ez duela adierazteraino (Elordietak 2022a, 2022b). Alegia, proposizioarekiko engaiamendu maila txikia izate-tik txikiena izatera igaro zela proposatzen dut. Horrek bat egingo luke egitura esklatiboek daukaten *ñabardura* kuantifikatzailearekin, hots, gehienezko edo gutxienezko maila adieraztearekin, nolabait esateko (Villalba 2003, 2008; Castroviejo 2006, 2008, 2021; Rett 2008, 2011; Bosque 2017; Trotzke & Villalba 2020, 2021; besteak beste), eta era berean hortik eratorriko litzateke daukaten kontrako balioa. Izan ere, ezagunak dira balio ironikoa galdera erretorikoen izaerarekin lotzen duten proposamenak (Sperber & Wilson 1995; Andueza 2011; Gutiérrez-Rexach & Andueza

2017; besteak beste), edota ironia harridurazko perpausen izaeratik erator daitekeelako ideiak (Gutiérrez-Rexach 2008; Escandell & Leonetti 2014).

Proposamenaren ideia nagusiak marraztu ondoren amaiera emango zaio artikuluari. Lan honetan *eteren* bi ezohiko erabileraren deskribapena egin dut, eta egitura hauek erakusten dituzten jokabide sintaktiko eta semantikoak azal ditzakeen hurbilpen bat proposatu dut. Azalpen xeheagoa hurrengo ikerketa batean lantzeko utziko dut, non xehetasun teorikoak emateaz gain, beste hizkuntza batzuetan gertatzen diren antzeko egituren alderaketarekin osatu beharko litzatekeen.

4. Ondorioak

Artikulu honetan *ete* partikulak mendebaldeko hizkera batzuetako harridura-perpausetan dituen bi erabilera dialektal izan ditugu aztergai. Interesa dute ez direlako orain arte deskribatu eta beren interpretazioa ez delako *ote/ete* kanonikoak duena, bai zik eta batean berrespena adierazten duelako, eta bestean kontrako iritzia. Kontuan hartuta biak testuinguru esklamatiboetan erabiltzen direla eta partikularen beharra nahitaezkoa dela egiturek daukaten interpretazioa izan dezaten, bai eta *-(e)n* konplementatzailearen presentzia ere, lan honetan ulertu nahi izan dugu zein den lotura hiru elementuen artean. Perpaus insubordinatuak direla proposatu dugu, jatorrian *duda izan* saileko aditzen osagarri-perpausak, zeinak gramatikalizazio prozesu bat jasan ondoren testuinguru esklamatiboetara mugatu ziren.

Aurrera begira hainbat galdera interesgarri irekitzen dira; mereziko luke mota honetako egiturak antzeko interpretazioa eta sintaxia duten beste hizkuntzetako harridurazko perpausekin alderatzea (Demonte & Fernández 2009; Rodríguez 2011; Hernanz 2012; Badan & Chen 2015; Siemund 2015; Tirado 2016) —adibidez, gaztelaniazko *¡y tanto que es bonita!* esamoldeekin—, partikula modalen ekarpenaren gainean ikuspegi osotuagoa izan dezagun. Bestetik, hemen deskribatu ditugun egiturak euskarazko beste harridura-perpausekin nola uztartzen diren aztertu beharko litzateke, ezaugarri fonologiko, sintaktiko eta semantikoak noraino partekatzen dituzten jakiteko. Honekin lotuta, galderen eta harridura-perpausen arteko desberdintasunak nola ezaugarritu beharko liratekeen ere ikergai interesgarria da.

Azkenik, aurreko lerroetan aipatu dugunez, gogoan izan behar da gainbeheran doazela *eteren* erabilera hauek gazteen mintzoan. Egiatzki, gainbehera ez dagokie *ote/eteren* zentzu hauei soilik; oro har partikula modalak gutxi entzuten dira gazteen ahotan, gehienetan esapide adberbialak hartzen ari direlarik haien funtzioa (*antza denez, segurutik*), edo *ez dakit* aditzaren mendean aditzera emanez (*etorriko ote da* → *ez dakit etorriko den*). Hizkuntza aldaketaren ikuspuntutik interesgarria litzateke aztertzea zein faktorek eragiten duten partikula modalen erabileraren gainbehera hitzgun gazteen artean.

Aipamen bibliografikoak

Alcázar, Asier. 2017. A syntactic analysis of rhetorical questions. In Aaron Kaplan, Abby Kaplan, Miranda K. McCarvel & Edward J. Rubin (arg.), *Proceedings of the 34th West Coast Conference on Formal Linguistics (WCCFL 34)*, 32-41. Somerville, MA: Cascadilla Proceedings Project.

- Altube, Seber. 1929. *Erderismos*. Bermeo: Gaubeka.
- Andueza, Patricia. 2011. *Rhetorical exclamatives in Spanish*. Columbus: Ohio State University-ko doktorego tesia.
- Andueza, Patricia & Javier Gutiérrez-Rexach. 2011. Negation and the interpretation of Spanish rhetorical exclamations. In Claudia Borgonovo, Manuel Español-Echevarría & Philippe Prévost (arg.), *Selected Proceedings of the 12th Hispanic Linguistics Symposium*, 17-25. Somerville, MA: Cascadilla Proceedings Project.
- Artiagoitia, Xabier. 2006. Heiagora perpausak: euren egituraz eta hautapenaz. In Beatriz Fernández & Itziar Laka (arg.) *Andolin gogoan: Essays in honor of Professor Eguzkitza*, 155-178. Bilbao: UPV/EHU.
- Artiagoitia, Xabier, Arantzazu Elordieta & Sergio Monforte (arg.). 2022. *Discourse Particles*. Amsterdam: John Benjamins.
- Azkue, Resurrección María. 1923-1925. *Morfología Vasca*. *Euskera* 4-5-6 (Berrargit. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1969).
- Badan, Linda & Lisa Lai-Shen Cheng. 2015. Exclamatives in Mandarin Chinese. *Journal of East Asian Linguistics* 24 (4). 383-413. <http://dx.doi.org/10.1007/s10831-015-9136-z>.
- Bayer, Josef & Volker Struckmeier (arg.). 2017. *Discourse Particles: Formal Approaches to their Syntax and Semantics*. Berlin & Boston: De Gruyter.
- Biezma, Maria & Kyle Rawlins. 2017. Rhetorical questions: Severing asking from questioning. In Dan Burgdorf, Jacob Collard, Sireemas Maspong & Brynhildur Stefánsdóttir (arg.), *Proceedings of the 27th Semantics and Linguistic Theory Conference (SALT 27)*, 302-322. Maryland: University of Maryland.
- Bosque, Ignacio (arg.). 2017. *Advances in the study of Spanish exclamatives*. Columbus: The Ohio State University Press.
- Castroviejo, Elena. 2006. *Wh-exclamatives in Catalan*. Barcelona: Universitat de Barcelona-ko doktorego tesia.
- Castroviejo, Elena. 2008. Deconstructing exclamations. *Catalan Journal of Linguistics* 7. 41-90.
- Castroviejo, Elena. 2021. Exclamatives. In Daniel Gutzmann, Lisa Matthewson, Cécile Meier, Hotze Rullmann & Thomas Ede Zimmermann (arg.), *The Wiley Blackwell Companion to Semantics*. Hoboken: Wiley-Blackwell.
- Corr, Alice. 2016. *Ibero-Romance and the syntax of the utterance*. Cambridge: University of Cambridge-ko doktorego tesia.
- Corr, Alice. 2018. 'Exclamative' and 'quotative' illocutionary complementisers in Catalan, European Portuguese and Spanish. *Languages in contrast* 18(1). 69-98. <https://doi.org/10.1075/lic.00004.cor>.
- Demonte, Violeta & Olga Fernández Soriano. 2009. Force and Finiteness in the Spanish Complementizer System. *Probus* 21(1). 23-49.
- Döring, Sophia. 2016. *Modal Particles, Discourse Structure and Common Ground Management. Theoretical and Empirical Aspects*. Berlin: Humboldt Universität zu Berlin-eko doktorego tesia.
- Elordieta, Arantzazu. 2010. Aditzaren bikoizketa foku-topikoa denean. In Beatriz Fernández, Pablo Albizu & Ricardo Etxepare (arg.), *Euskara eta euskarak. Aldakortasun sintaktikoa aztergai (ASJUren Gehigarriak 52)*, 37-54. Donostia: GFA.
- Elordieta, Arantzazu. 2022a. *Ote harridura perpausetan*. In Irene Barberia & Alexander Iribar (eds.), *Papers on Basque Linguistics in Honour of Jon Franco*, 147-166. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

- Elordieta, Arantzazu. 2022b. More on the modal particle *ote* in Basque: deriving the ironic reading in certain exclamative contexts. *55th Annual Meeting of the Societas Linguistica Europaea* biltzarrean aurkeztua.
- Elordieta, Arantzazu & Bill Haddican. 2016. Strategies of Verb and Verb Phrase focus across Basque dialects. In Beatriz Fernández & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *Microparameters in the grammar of Basque*, 221-242. Amsterdam: John Benjamins.
- Escandell, M.^a Victoria & Manuel Leonetti. 2014. Fronting and irony in Spanish. In Andreas Dufter & Álvaro Octavio de Toledo (arg.), *Left Sentence Peripheries in Spanish: diachronic, variationist and typological perspectives*, 309-342. Amsterdam: John Benjamins.
- Extepare, Ricardo. 2003. Exclamatives. In José Ignacio Hualde & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*, 570-578. Berlin & New York: Mouton de Gruyter.
- Extepare, Ricardo. 2008. On quotative constructions in Iberian Spanish. In Ritva Laury (arg.), *Crosslinguistic studies of clause combining. The multifunctionality of conjunctions*, 35-78. Amsterdam: John Benjamins.
- Extepare, Ricardo. 2010a. *Omen* bariazioan. In Beatriz Fernández, Pablo Albizu & Ricardo Extepare (arg.), *Euskara eta euskarak. Aldakortasun sintaktikoa aztergai (ASJUren Gehigarriak 52)*, 85-112. Donostia: GFA.
- Extepare, Ricardo. 2010b. From hearsay evidentiality to samesaying relations. *Lingua* 120. 604-627.
- Extepare, Ricardo & Larraitz Uria. 2016. Microsyntactic variation in the Basque hearsay evidential. In Beatriz Fernández & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *Microparameters in the Grammar of Basque*, 265-288. Amsterdam: John Benjamins.
- Euskaltzaindia. 1986. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak I (EGLU I)*, 342-343. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. 1987. *Euskal Gramatika Lehen Urratsak I*, 485-516. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. 1991. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak II (EGLU II)*, 485-487; 509-516. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. 1999. *Euskal Gramatikaren Lehen Urratsak V (EGLU V)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. 2021. *Euskararen Gramatika*. Bilbao: Euskaltzaindia.
- Euskara Institutua. Bestelako adberbioak. *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*. UPV/EHU. [https://www.ehu.eus/seg/morf/5/10/3/2/6?s\[\]=oteak&s\[\]=ote](https://www.ehu.eus/seg/morf/5/10/3/2/6?s[]=oteak&s[]=ote) (2023/12/30).
- Evans, Nicholas. 2007. Insubordination and its uses. In Irina Nikolaeva (arg.), *Finiteness: Theoretical and Empirical Foundations*, 366-431. Oxford: Oxford University Press.
- Gras, Pedro. 2016. Revisiting the functional typology of insubordination. *Que-initial sentences in Spanish*. In Nicholas Evans & Honoré Watanabe (arg.), *Insubordination (Typological Studies in Language 115)*, 113-144. Amsterdam: John Benjamins.
- Gras, Pedro. 2017. Exclamatives in the functional typology of insubordination: Evidence from complement insubordinate constructions in Spanish. *Journal of Pragmatics* 115(2). 21-36. <https://doi.org/10.1016/j.pragma.2017.04.005>.
- Gutiérrez-Rexach, Javier. 2008. Spanish root exclamatives at the syntax/semantics interface. *Catalan Journal of Linguistics* 7. 117-133.
- Gutiérrez-Rexach, Javier & Patricia Andueza. 2017. Embedded exclamatives and the ingredients of grounded belief. In Ignacio Bosque (arg.), *Advances in the study of Spanish exclamatives*, 181-210. Columbus: The Ohio State University Press.

- Hernanz, M.^a Lluïsa. 2012. Sobre la periferia izquierda y el movimiento: El complementante *si* en español. In José María Brucart & Ángel Gallego (arg.), *El movimiento de constituyentes*, 151-171. Madrid: Visor.
- Jendraschek, Gerd. 2003. *La modalité épistémique en Basque*. Muenchen: Lincom Europa.
- Korta, Kepa & Larraitz Zubeldia. 2014. The contribution of evidentials to utterance content: evidence from the Basque reportative particle *omen*. *Language* 90. 389-423.
- Korta, Kepa & Larraitz Zubeldia. 2022. Meaning and use of the Basque particle *bide*. In Artiagoitia, Xabier, Arantzazu Elordieta & Sergio Monforte (arg.), *Discourse particles: syntactic, semantic, pragmatic and historical aspects*, 209-228. Amsterdam: John Benjamins.
- Lafitte, Pierre. 1979. *Grammaire basque: (navarro-labourdin littéraire)*. Baiona: Elkar (1. argit., 1944).
- Lakarra, Joseba A. 2019. *Bon-/bor-/bol-* familiaren berreraiketakarako (II): Etimologia, partikulen historiaurrea eta hots-lege batzuen irregularitateez. In Irantzu Epelde & Oroitz Jauregi (arg.), *Bihotz ahots: Oñederra irakaslearen omenez*, 377-395. Bilbo: UPV/EHU.
- Littell, Patrick, Lisa Matthewson & Tyler Peterson. 2010. On the semantics of conjectural questions. In Tyler Peterson & Uli Sauerland (arg.), *Evidence from evidentials. University of British Columbia Working Papers in Linguistics (UBCWPL 28)*, 89-104. Vancouver: U. of British Columbia.
- Michaelis, Laura. 2001. Exclamative constructions. In Martin Haspelmath, Ekkehard König, Wulf Oesterreicher & Wolfgang Raible (arg.), *Language Typology and Language Universals*, 1038-1050. Berlin: De Gruyter.
- Monforte, Sergio. 2020a. *Galderetako -a*, al *eta* ote partikulak euskaraz. Gasteiz: UPV/EHUko doktorego tesia.
- Monforte, Sergio. 2020b. Syntactic analyses of discourse particles through the microvariation of Basque *ote*. *Glossa* 5(1). 1-29.
- Monforte, Sergio. 2021. *Ote* partikularen interpretazioaz eta haren mikroaldakortasunaz. *Uztaro* 119. 95-119.
- Mujika, José A. 1988. Partículas modales de la flexión verbal. *ASJU* 22. 463-478.
- Munaro, Nicola. 2022. Anchoring primary and secondary interjections in the context. In Xabier Artiagoitia, Arantzazu Elordieta & Sergio Monforte (arg.), *Discourse particles*, 157-178. Amsterdam: John Benjamins.
- Obenauer, Hans-Georg. 2004. Nonstandard *wh*-questions and alternative checkers in Paggotto. In Horst Lohnstein & Susanne Trissler (arg.) *Syntax and Semantics of the Left Periphery, Interface Explorations*, 343-384. Berlin & Boston: De Gruyter Mouton.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1989. *Some Parameters in the Grammar of Basque*. Dordrecht: Foris.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1994. Verb-initial patterns in Basque and Breton. *Lingua* 94. 125-153.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1995. Residual verb second and verb first in Basque. In Katalin É. Kiss (arg.), *Discourse configurational languages*, 99-121. Oxford: Oxford University Press.
- Ortiz de Urbina, Jon. 2003. Modal particles. In José Ignacio Hualde & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*, 322-329. Berlin & New York: Mouton de Gruyter.
- Petirena, Patxi. 2011. *Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Rett, Jessica. 2008. *Degree modification in natural language*. New Brunswick: Rutgers University-ko doktorego tesia.

- Rett, Jessica. 2011. Exclamatives, degrees and speech acts. *Linguistics and Philosophy* 34. 411-442.
- Rijk, Rudolf P. G. de. 1972. Partitive Assignment in Basque. *ASJU* 6. 130-173 (Berrargit. *De lingua vasconum: Selected Writings [ASJUren Gehigarriak 43]*, 151-182, 1998).
- Rijk, Rudolf P. G. de. 2008. *Standard Basque: A progressive grammar*. Cambridge, MA: MIT Press.
- Rodríguez Ramalle, Teresa María. 2011. La expresión del grado en las interjecciones y la función de la conjunción *que*. *Verba* 38. 191-217.
- Siemund, Peter. 2015. Exclamative clauses in English and their relevance for theories of clause types. *Studies in Language* 39(3). 697-727. <https://doi.org/10.1075/sl.39.3.06sie>.
- Sperber, Dan & Deirdre Wilson. 1995. *Relevance: communication and cognition*. Oxford: Blackwell (1. argit., 1986).
- Tirado, Irene. 2016. Aproximación sintáctica a las oraciones exclamativas del español. *Borealis: An International Journal of Hispanic Linguistics* 5(2). 191-219. <http://dx.doi.org/10.7557/1.5.2.3877>.
- Trotzke, Andreas & Xabier Villalba. 2020. Exclamatives as responses at the syntax-pragmatics interface. *Journal of Pragmatics* 168. 139-171.
- Trotzke, Andreas & Xabier Villalba (arg.). 2021. *Expressive meaning across linguistic levels and frameworks*. New York: Oxford University Press.
- Uriagereka, Juan. 1999. Minimal restrictions on Basque movements. *Natural Language and Linguistic Theory* 17. 403-444.
- Villalba, Xabier. 2003. An exceptional exclamative sentence type in Romance. *Lingua* 113. 713-745.
- Villalba, Xabier. 2008. Exclamatives: A thematic guide with many questions and few answers. *Catalan Journal of Linguistics* 7. 9-40.
- Villasante, Luis. 1979. *Sintaxis de la oración compuesta*. Oñati: Editorial Franciscanas Aránzazu.
- Wiltschko, Martina & Johannes Heim. 2016. The syntax of sentence peripheral discourse markers: A neo-performative analysis. In Gunther Kaltenböck, Evelien Keizer & Arne Lohmann (arg.), *Outside the clause: Form and Function of Extra-clausal Constituents*, 305-340. Amsterdam: John Benjamins.
- Zanutini, Raffaella & Paul Portner. 2003. Exclamative clauses: At the syntax-semantics interface. *Language* 79(1). 39-81. <https://doi.org/10.1353/lan.2003.0105>.
- Zuazo, Koldo. 2017. *Mendebaleko euskara*. Donostia: Elkar.
- Zubeldia, Larraitz. 2009. Omenen zalantzak argitu nahian. *Euskera* 54. 843-883.
- Zubeldia, Larraitz. 2010. Omen partikularen azterketa semantikoa eta pragmatikoa. Gasteiz: UPV/EHUko doktorego tesia.
- Zubeldia, Larraitz. 2011. Omen partikularen azterketa semantikoa eta pragmatikoa. *Gogoa* 9(2). 227-247. <https://doi.org/10.1387/gogoa.3560>.

Erabilitako corpusak

Orotariko Euskal Hiztegia

Corpus Historikoa: <https://www.ehu.eus/etc/ch>

Eguno Testuen Corpusa: <https://www.ehu.eus/etc>

Euskaltzaindiaren XX. mendeko Euskararen Corpus Estatistikoa: <http://xxmendea.euskaltzaindia.net/Corpus/aurkezpena.html>

Subjektu ezabatuko inbertsonalak: euskara, katalana eta gaztelania, gai beraren gaineko bariazioak¹

Subject-suppressing impersonals:

Basque, Catalan and Spanish, variations on the same subject

Beatriz Fernández*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Ane Berro

Deustuko Unibertsitatea

Manuel Pérez Saldanya

Univ. de València

Jon Ortiz de Urbina

Deustuko Unibertsitatea

ABSTRACT: In this paper we have analyzed subject-suppressing impersonals, namely, structures with an implicit and indefinite subject. In Basque and Catalan, these structures have been considered detransitivized, given that, in transitive structures, a single argument is overtly real-

¹ Lan honen lehen eta bigarren egileek Eusko Jaurlaritzaren (IT1439-22) eta Espainiako Zientzia, Berrikuntza eta Teknologiako Ministerioaren (PID2023-147383NB-I00) diru laguntza jaso dute. Hirugarren egileak, bere aldetik, ministerio beraren PID2021-128381NB-I00 proiektuaren babes du. Lan hau José Ignacio Hualde ikerkide eta adiskideari eskaintzen diogu, euskalari zein erromanista bikainari, berak horren maiteak dituen hizkuntzen morfologia eta sintaxiaren xarmaz ahaztu ez dadin, eta ahal dela, ahaztu ez gaitzan.

Lan honetan, Leipzigeiko glosak ez ezik, beste zenbait laburdura ere baliatu ditugu: ACC = akusatibo; CL = klitiko; COMP = konparatibo; COND = baldintza; DET = determinatzaile; F = femenino; FUT = gerroaldi; IMPER = inbertsonal; INF = infinitibo; IPFV = inperfektibo; M = maskulino; N = neutro; NOM = nominatibo; NVIR = ez-biril; P = preposizio; PL = plural; PTCP = partizipio; PST = iragan; REL = erlatibo; SG = singular; SUBJ = subjuntibo; SUBR = menderagailu; 1 2 3 = lehen, bigarren eta hirugarren pertsona.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Beatriz Fernández. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila - Letren Fakultatea (UPV/EHU), Unibertsitateen ibilbidea, 5 (01006 Gasteiz). – beatriz.fernandezf@ehu.eus – <https://orcid.org/0000-0002-7632-7777>

Nola aipatu / How to cite: Fernández, Beatriz; Berro, Ane; Pérez Saldanya, Manuel; Ortiz de Urbina, Jon (2023). «Subjektu ezabatuko inbertsonalak: euskara, katalana eta gaztelania, gai beraren gaineko bariazioak», *ASJU*, 57 (1-2), 313-342. (<https://doi.org/10.1387/asju.25955>).

Jasoa/Received: 2022-07-01; Onartua/Accepted: 2022-10-23.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago

ized instead of two. In Basque *izan* 'be' auxiliary is selected over **edun* 'have' and in Catalan the ES clitic is introduced. In this paper we demonstrate that in these structures the subject is syntactically present and, therefore, these structures should be considered subject-suppressing impersonals as characterized by Blevins (2003). Nonetheless, morphology leads us to think differently in some cases: both in Catalan and in Spanish the theme argument of ES/SE-structures sometimes behaves like a subject, as it agrees with the auxiliary verb and does not accept a clitic.

KEYWORDS: Impersonals; subject-suppressing impersonals; passive; the ES/SE clitic; Basque; Catalan; Spanish.

LABURPENA: *Lan honetan subjektu ezabatuko inperzonalak aztertu ditugu, alegia, subjektu inplizitua eta zehaztugabea duten egiturak. Euskaraz zein katalanez, egitura horiek iragangaiztutzat hartu izan dira, aditz iragankorren kasuan argumentu bi gabe, bakarra ahoskatzen delako. Euskaraz, *edun aditz laguntzailearen ordez izan erabiltzen da, eta katalanaren kasuan ES klitikoa gaineratzen da. Lan honetan erakusten dugu egitura hauetan subjektua sintaktikoki indarrean dagoela eta, hortaz, Blevinsen (2003) subjektu ezabatuko inperzonalizat hartu behar direla. Nolanahi ere, morfologiak bestela pentsatzera eramaten gaitu kasu batzuetan: katalanez zein gaztelaniaz, ES/SE-egituretako gai argumentuak subjektu baten modura jokatzeko du batzuetan, aditz laguntzailearekin komunztadura egiten duelako eta klitikorik onartzen ez duelako.*

HITZ GAKOAK: *inperzonalak; subjektu ezabatuko inperzonalak; pasiboa; ES/SE klitikoa; euskara; katalana; gaztelania.*

1. Atarikoak

José Ignacio Hualdek bere ibilbide akademiko oparoan zehar bereziki fonetika-fonologia eta diakronia eremuak sakon esploratu baditu ere, oso gogoan izatekoak dira morfologia eta sintaxi sinkronikoan aspaldi egin zituen lanak, hala nola, 1986ean ASJUⁿ argitaratu zuen *Case assignment in Basque* edo 1987ean aldizkari berean Jon Ortiz de Urbinarekin batera plazaratutako *Restructuring with ARI*. Bigarrenean, *ari* ezaugarritzatu nahian, *iragangaiztaile* (ing. *detransitivizer*) bat izango ote zen esploratzen zuten bi egileok, lan berean bazterrean utzi zuten hipotesia.

Guk lan honetan, euskararen nahiz katalanaren literaturan, oro har, egitura *iragangaiztutzat* (ing. *detransitivized*) hartu diren bi egitura konparatu eta aztertuko ditugu. Batetik daude euskaraz *inperzonal* deitura jaso duten egiturak (Ortiz de Urbina 1989, 1991, 2003; Rodet 1992; Albizu 1997, 2001; Fernández & Berro 2021; Berro, Odria & Fernández 2022, 2024), nahiz eta *erdipasibo* ere iritzi zaien (Brettschneider 1979; Ortiz de Urbina 2006; de Rijk 2008). Inperzonalaz ari garenean, (1b) eta (1d) bezalako egiturez ari gara, (1a) eta (1c) egiturekin harremanetan daudenak, hurrenez hurren. (1a) eta (1b) adibideetan *bildu* aditz iragankorra daukagu; (1c) eta (1d)-n, aldiz, *lan egin* inergatiboa.

- (1) a. *Baserritarrek sagarrak bildu dituzte.*
- b. *Sagarrak bildu dira.*
- c. *Aurten baserritarrek etenik gabe lan egin dute.*
- d. *Aurten etenik gabe lan egin da.*

Bestetik katalanaren (2a) eta (2c), aditz iragankorreko eta inergatiboko perpaus arruntak dira: bi argumentu ditu lehenak eta argumentu bakarra bigarrenak. Bes-

talde, (2b) eta (2d) bezalako egiturek askotariko deiturak jaso dituzte katalanaren gramatika. Aditz iragankorreko (2b) egitura bezalakoei *passives pronominals* ‘pasibo pronominalak’ edo *passives reflexes* ‘pasibo erreflexuak’ deitu zaie, eta aditz inergatiboko (2d) bezalakoei *impersonals pronominals* ‘inpersonal pronominalak’ (Bartra 2002: 2151). Bestalde, egitura bati zein besteari Bartrak (2002: 2149-2165) *construccions pronominals de subjecte inespecific* deritze, hau da, ‘subjektu zehaztugabeko egitura pronominalak’, eta *inespecific*-en ordez *indefinit* darabilte Institut d’Estudis Catalansen (2016: 894-898) *Gramàtica de la llengua catalana* lanean —aurrerantzean GLC (2016)—. Alabaina, deitura berriekin batera, bai Bartrak bai GLCk (2016) tradiziozko deiturak ere erabiltzen dituzte (2b) eta (2d) izendatzeko —ikus baita Hualde (1992: 297-298) eta Wheeler, Yates & Dols (1999: 29.2 atala)—.

- (2) a. *Els pagesos han collit les pomes.*
 DET.M.PL baserritar.M.PL haver.3PL bildu.PTCP DET.F.PL sagar.F.PL
 ‘Baserritarrek sagarrak bildu dituzte.’
- b. *S’han collit les pomes.*
 ES.haver.3PL bildu.PTCP DET.F.PL sagar.F.PL
 ‘Sagarrak bildu dira.’ (Bartra 2002: 2151)
- c. *Aquest any els pagesos han treballat molt.*
 hau.M.SG urte.M.SG DET.M.PL baserritar.M.PL haver.3SG lan egin.PTCP
 asko
 ‘Aurten baserritarrek lan handia egin dute.’
- d. *Aquest any s’ha treballat molt.*
 hau.M.SG urte.M.SG ES.haver.3SG lan egin.PTCP asko
 ‘Aurten lan handia egin da.’ (Bartra 2002: 2151)

Eztabaida genezake ea (2b) eta (2d) egitura beraren bi adierazgarri diren eta orduan deitura bera emango zaien, edo ez diren eta, hortaz, komeni ote den *pasibo* eta *inpersonal* deiturez bereiztea. Bestalde, *pronominal* deitura ES izenordainaren agerpenetik dator. Izan ere, egitura honetan, ES hirugarren pertsonako izenordaina edo klitikoa agertzen da —(2b) adibidean, *s’* gisa eman dena²—. ES klitikodun egitura horren kidekoak beste hizkuntza erromantze batzuetan ere aurki daitezke, hala nola, gaztelaniazko SE klitikodunak (Mendikoetxea 1999, 2012), italieraren SI-dunak (Cinque 1988) eta frantsesaren SE-dunak (Zribi-Hertz 1982) —ikus Cabredo-Hofherr (2017) hizkuntza erromantzeen gaineko ikuspegi baterako—. Guk gure aldetik (*subjektu zehaztugabeko*) *ES-egiturak* deituko diegu, Bartraren (2002) eta GLCren (2016) deitura apur bat egokitu eta laburtuz, eta deitura bakarraren atzean, ñabardurak ñabardura, egitura bat bera dagoela berretsiko dugu (baina ikus 2.2 atala eztabaidarako).

Lan honetan erakutsiko dugunez, morfologikoki irudi lezakeenaren kontra, sintaktikoki oso antzeko egiturak dira euskararen inpersonala —(1b) eta (1d)— eta katalanaren ES-egitura —(2b) eta (2d)—. Izan ere, gure ustez, egitura biak, ñabardurak

² Hirugarren pertsonako klitiko honek *es*, *s’*, *-es* eta *’s* aldaerak ditu aditzarekiko kokalekuaren arabera eta berarekin konbinatzen den segmenturen arabera (GLC 2016: 208).

ñabardura, Blevinsek (2003) pasiboetatik bereizten dituen *subjektu ezabatuko inperstonaltzat* har litezke (ing. *subject-suppressing impersonals*) —ikus Fernández & Berro (2021) eta Berro eta beste (2022) euskararako—. Lehenik eta behin, aditz iragankorak ez ezik, —(1b) eta (2b)— aditz inergatibo —(1d) eta (2d)— eta inakusatiboak ere onesten dituzte biek ala biek. Bigarrenik, subjektu ezabatu bat dute. Hirugarrenik, subjektu ezabatu hori gizakia da eta zehaztugabea. Laugarren eta azkenik, katalanaren oso erabilera mugatua izan ezik, ez dute egile izaerako zeharkako sintagmarik (ing. *oblique phrase*) onartzen, hots, ingelesezko *by*-phrase bezalakorik. Laburbilduz, lan honetan erakutsiko dugu katalanaren (2b) ES-egiturak izatez subjektu ezabatuko inperstonalak direla.

Euskarari dagokionez, bestalde, Fernández eta Berrok (2021) erakutsi dute ezauzgarri batek bereizten dituela euskal inperstonalak subjektu ezabatuko inperstonaletatik, hots, iragangaiztasun morfologikoak. Izan ere, (1b) eta (1d) bezalako egituretan *izan* aditz laguntzailea hautatzen da eta ez **edun* (Hualde 2003). Beste alde batetik, (1b) egituraren kasuan, agerian bederen argumentu bakarra dago, hots, gaia, eta absolutibo kasuaz gain, absolutibo komuntadura ere jasotzen du aditz inflexioan. Alde horretatik, beraz, egitura iragangaiztat hartu beharko genuke, euskararen gramatikan hartu izan den bezala (ikus, besteak beste, Ortiz de Urbina 1989, 2003; Albizu 1997; Fernández & Berro 2021). Alabaina, paradoxikoki, itxura morfologikoa gorabehera, euskal inperstonaletan semantikoki ez ezik, sintaktikoki ere subjektu ezabatu bat dago (Fernández & Berro 2021; Berro eta beste 2022). Batetik, adjektibo depiktiboak zilegiztatzen ditu; bestetik, subjektu ezabatuaren eta osagarriaren artean, jabetza besterenezina adieraz daiteke, subjektua delarik jabea eta osagarria jabetza (Ormazabal & Romero 2019 gaztelaniarako). Hortaz, oso litekeena da, morfologikoki egitura iragangaitza iruditzen arren, sintaktikoki egitura iragankor bat izatea, Berro eta beste (2022) euskararako argudiatu duten bezala.

Hemen, katalanaren ES-egituretako subjektu ezabatuaren jokabide sintaktikoa zein den arakatuko dugu aipatu bi test hauetara begira. Ikusiko dugunez, subjektu ezabatuak jokabide bera du euskaraz zein katalanez. Azkenik, katalanez, ez dirudi ES-egituren itxura morfologikoak nahitaez egitura iragangaitz bat erakusten duenik, ez behintzat, ES hori iragangaiztaile bat bezala interpretatzen ez badugu. Gure ustez, ES izenordainak ez du egitura iragangaizten eta ES-egitura izatez egitura iragankorra da. Hortaz, subjektu zehaztu gabeko egituretako ES hori iragangaiztaile bat delako hipotesia bazterrean utziko dugu, Hualde eta Ortiz de Urbinak aspaldi, 1987an, ARI-rekin egin zuten bezala. Nolanahi ere, aztergai honek uste baino ertz gehiago ditu, batez ere, gai argumentuaren jokabide morfologikoari erreparatzen badiogu. Katalanaren ES-egituren parekoak liratekeen gaztelaniazko SE-egituretan SE-inperstonalen eta SE-pasiboaren arteko bereizketa egin izan da tradiziozko gramatiketan. Lan honetan erakutsiko dugu aditz laguntzailearekiko komuntadura eta klitikoak onartzeko ezintasuna direla horretarako arrazoi morfologikoak. Dena dela, morfologia gorabehera, ez dirudi SE-pasiboak benetako pasibotzat har daitezkeenik, euskaraz eta katalanez bezala, gaztelaniazko SE-egituretan ere sintaktikoki indarrean dagoen subjektu ezabatu bat baitago (baina ikus Ormazabal & Romero 2019 beste hipotesi baterako).

2. Euskararen inperpersonalak eta katalanaren ES-egiturak subjektu ezabatuko inperpersonalak ote?

Atal honetan euskararen inperpersonalak eta katalanaren ES-egiturak aurkeztuko ditugu labur —(2.1) eta (2.2) atalak, hurrenez hurren—. Euskarari dagokionez, Fernández eta Berrok (2021) eta Berro eta bestek (2022) berriki idatzi dituzten lanetara joko dugu; katalanari dagokionez, berriz, Bartraren (2002: 2149-2165) eta GLCren (2016) deskribapen eta azterketaz baliatuko gara. Horren ondotik (2.3 atala) bi hizkuntzetako inperpersonalak konparatu eta aztertuko ditugu Blevinsek (2003) subjektu ezabatuko inperpersonalarako ezartzen dituen ezaugarrien arabera.

2.1. Euskararen inperpersonalak

Euskaraz *inperpersonal*a deitu zaio (1b) egiturari,³ hemen (3b) gisa errepikatuko dena (Ortiz de Urbina 1989, 1991, 2003; Rodet 1992; Albizu 1997, 2001; Fernández & Berro 2021; Berro eta beste 2022). Egitura hori iragangaiztutzat hartu izan da literaturan, eta morfologikoki halakoxea dela dirudi, izatez *bildu* aditza iragankorra delako. Hortaz, egitura ez da berez iragangaitza, iragangaiztua baino. Konpara bedi (3b), (3a) kideko egitura iragankorrek.

- (3) a. *Baserritarrek sagarrak bildu dituzte.*
b. *Sagarrak bildu dira.*

Bi egituren arteko konparazioan badira bereziki azpimarratu daitezkeen zenbait alderdi. Lehenik eta behin, egitura iragankorrak (3a), bi argumentu ditu, hots, egilea eta gaia, eta ergatibo eta absolutibo kasuez markaturik daude, hurrenez hurren. Aldiz, egitura inperpersonalak (3b) (ageriko) argumentu bakarra du, gaia alegia. Argumentu horrek egitura iragankorrean daraman kasu bera du, hots, absolutiboa. Bigarrenik, egitura iragankorrean (3a) hautatu den aditz laguntzailea **edun* da; egitura inperpersonalean (3b), berriz, *izan* aditz laguntzaile iragangaitza. Hirugarren eta azkenik, **edun* aditz laguntzaileak ergatibo eta absolutiboarekiko komunztadura erakusten du egitura iragankorrean (3a) eta *izan* aditz laguntzaileak absolutiboarekikoa inperpersonalean (3b) —aditz laguntzailearen hautaketarako eta aditz morfologiarako, ikus besteak beste Hualde (2003)—. Inperpersonalak, beraz, egitura iragangaitza dirudi. Alabaina, aldeak alde, euskararen inperpersonalak estuki lotzen zaio Blevinsen (2003) subjektu ezabatuko inperpersonalari, eta horrek garamatza pentsatzera sintaktikoki egitura iragankor bat dela. Izan ere, mota horretako inperpersonalak erakusten dituzten hizkuntzetan, hala nola, eslaviarretan, egitura iragankorrei dagozkien ezaugarriak gordetzen dituzte. Hala, adibidez, polonieraren *-no/-to* egituretan, gaiak akusatibo marka gordetzen du —ikus baita Siewierska (1988) eta Kibort (2003) polonierarako, eta Fernández & Berro (2021: 5. atala) euskararen eta polonieraren arteko konparaziorako, beste hizkuntza batzuen artean—. Hortaz, subjektu ezabatuko inperpersonalak iragankorrak dira, eta euskararen inperpersonalak sintaktikoki ere bai (Berro eta beste 2022).

³ Dena dela, *inperpersonal* deitura askotariko egiturei egotzi zaie euskaraz, ez bakarrik hemen aztergai dugunari —ikus Fernández & Berro (2021: 1 oin-oharra)—.

2.2. Katalanaren subjektu zehaztugabeko ES-egiturak

Katalanaz den bezain batean, subjektu zehaztugabeko ES-egiturak badu ezaugarri morfologiko bat gainerako hizkuntza erromantzeekin bateratzen duena (Cabredo-Hofherr 2017), hau da, ES hirugarren pertsonako izenordaina ageri da delako egituran. Pertsona izenordain hori bihurkarizat hartu izan da, eta halaxe deritzate adibidez Bartrak (2002: 2150, 2151) edo GLCk (2016: 894). Izatez, egiturari ematen zaizkion askotariko deiturretako bat, hots, *pasibo erreflexua* izenordain *bihurkari* honetatik dator. Bartrarena (2002) da (4b) adibidea, gorago (2b) gisa eman duguna. Kideko egitura iragankorra da (4a)/(2a).

- (4) a. *Els pagesos han collit les pomes.*
 DET.M.PL baserritar.M.PL haver.3PL bildu.PTCP DET.F.PL sagar.F.PL
 ‘Baserritarrek sagarrak bildu dituzte.’
 b. *S’han collit les pomes.*
 ES.haver.3PL bildu.PTCP DET.F.PL sagar.F.PL
 ‘Sagarrak bildu dira.’ (Bartra 2002: 2151)

Nolanahi ere den, label hutsa dirudi *bihurkari* deiturak, morfologiatik sintaxira isuri dena. Hortaz, klitiko hau benetan bihurkaria ez bada, beste zerbaiz izan beharko da. Honi dagokionez, antzeko zeregina egotzen diote gramatikari katalanek. Bartraren (2002) eta GLCren (2016) arabera, adibidez, ES hirugarren pertsonako izenordain horrek subjektua agertzea oztokatzen du (Bartra 2002: 2150, 2151; GLC 2016: 894, 896). Hala, (4a) egitura iragankorren, subjektua (*els pagesos* ‘baserritarrek’) agertzen da; ez, ordea, ES-inpertsonalean (4b). Noski, subjektuaren (hots, egilearen) agerpena oztokatzen bada, orduan pentsatzekoa da, Bartrak (2002: 2150) dioen bezala, gaia dela ES-egituraren subjektu sintaktikoa. GLCk (2016: 23.3.1.a) bere aldeetik ez du zehatz-mehatz esaten gaia subjektua denik, baina bai ‘subjektu gramatikal gisa’ jokatzeko duela. Izatez, gainera, (4b) adibidean, gaiarekin komunztadura egiten du *haver* laguntzaileak, eta katalana subjektu komunztadura duen hizkuntza denez, horrek pentsaraz liezaguke gaia (*les pomes* ‘sagarrak’) (4b) adibidean) dela subjektua eta ez beste ezer. Hala balitz, orduan, *pasibo* deiturak izango luke bere arrazoibide morfosintaktikoa. Hau da, (4b) egituraren hizkuntza tipologian, besteak beste, *pasibo* egiturari egotzi izan zaizkion ezaugarriak beteko lirateke: i. egiturak marka morfologiko bat du, ES alegia, eta marka hori iragangaiztaile gisa⁴ interpreta liteke; ii. egitura iragangaiztua izanik, osagarritik subjektura *goratu* (ing. *promote*) da gaia; eta iii. egilea *beheratu* (ing. *demote*) egin da ezabatzeraino. Hortaz, pasibotzat jo denean, ez dirudi okerreko bidetik jo denik.

Bartrak dioenez (2002: 2160-2162), ES-egiturei dagokienez, erdialdeko katalan, Balear irletakoan eta valentzieraz, aditzak komunztadura zaintzen du gaiarekin. Aldiz, ipar-mendebaldeko hizkeretan, normalean ez da komunztadurarik zaintzen

⁴ Bartrak horixe iradokitzen du eta halaxe dio hitzez hitz: «Es pot dir, doncs, en tots aquests casos, que el clític reflexiu té algún efecte sobre la valència argumental del verb» (Bartra 2002: 2151). Horretatik datoz ematen zaizkien *pasibo* eta *inpersonal* deiturak. Beraz, implizituki bada ere, gure interpretazioaren arabera, Bartrak ES-i egotzen dio iragangaiztea, pasibo eta inpersonal argumentuak gutxitzen dituzten mekanismotzat hartzen direlako.

izen sintagma aditzaren atzean (eskumatar) agertzen bada. Hala, egile honek dioenez, aditz iragankor batekin batera, ez da (edo ez zen) komunztadurarik egiten. Ikus Solàren komunztadurarik gabeko adibideok (1987: 97).

- (5) a. *Enguany aquí s'ha construït molts pisos.*
 aurten hemen ES.haver.3SG eraiki.PTCP asko.M.PL pisu.M.PL
 'Aurten hemen pisu asko eraiki dira.'
- b. *Ara ja no es necessita tantes cadires.*
 orain jada ez ES behar.3SG hainbeste.F.PL aulki.F.PL
 'Orain jada ez dira hainbeste aulki behar.' Solà (1987: 97)

Adibide hauetan ikus daitekeenez, gaia pluralekoa izan arren, adizkiak singularreko hirugarren pertsona komunztadura erakusten du. Rigauk (1991: 242), gaia xehetasunez aztertu duen gramatikariak, bere aldetik dio singularreko hirugarren pertsona dela pertsona eta zenbaki eza katalanez. Hortaz, komunztadurarik gabeak lira-teke (5a,b) bai Bartra bai Rigauentzat. Guk gure aldetik, nahiago dugu pentsatu komunztadura hori dela besterik ezean (ing. *by default*) ezartzen den komunztadura eta mintzagai ditugun egituretan, hala nola (5a,b) adibideetan, subjektu ezabatuari dago-kiola komunztadura hori (2.3.2 atala). Nolanahi ere den, nolabaiteko asimetria dago (4b) eta (5) adibideen artean komunztadurari dagokionez: batean gaiarekin egiten da komunztadura (4b), besteetan (5), aldiz, ez —ikus baita Solà (1973, 1987) ere—. Guk lan honetan, (5)ekoak zein pasiboaren antza duen (4b) bezalako ES-egiturak egitura iragankorrek direla aldarrikatuko dugu, zehazki subjektu ezabatuko inpertsonal (Blevins 2003). Jarraian (2.3 atala) erakutsiko dugu hori.

2.3. Euskararen inpertsonalak eta katalanaren ES-egiturak subjektu ezabatuko inpertsonalen argitan

Ikus dezagun orain zein diren subjektu ezabatuko inpertsonaletan agertzen diren ezaugarri nagusiak (Blevins 2003) eta euskaraz zein katalanez araka ditzagun. Lehenik eta behin, egitura hauetan ager daitezkeen aditzak aztertuko ditugu (2.3.1 atala); bigarrenik, egitura hauetan subjektu ezabatu bat dagoela erakutsiko dugu (2.3.2 atala); hirugarrenik, subjektu hori gizakia dela frogatuko dugu (2.3.3 atala), eta laugarren eta azkenik, ingelesezko *by*-phrase bezalako zeharkako sintagmei dagokienez duten jokabidea zein den aztertuko dugu (2.3.4).⁵

2.3.1. Aditz motak

Euskaraz zein katalanez, inpertsonaletan ager daitezkeen aditzak zein diren ikus-teko, euren argumentu egiturari begiratuko diogu hemen. Hasteko, euskararen in-pertsonalak aditz iragankorren gainean eraiki daitezke (Ortiz de Urbina 2003; Rodet 1992; Berro & Fernández 2019; Fernández eta Berro 2021: 2.3 eta 5.2 atalak). Aditz iragankorra oinarri duen inpertsonala erakutsi dugu (1b)/(4b) adibidean. Aldaera

⁵ Kontuan har bedi, lan honen izaera eta neurriak tarteko, eztabaida neurri handi batean soildu beharko dugula eta irakurleak beharrezkoa izango duela aipatu berri ditugun lanetara jotzea xehetasun bila. Barkatuko ahal digu Hualdek?

arazlea besterik ez duen *legeztatu* aditza ekarri dugu (6a) adibidera; jabetzaren iragaita adierazten duen *saldu* ikus daiteke (6b) adibidean; *idatzi* eta *irakurri* bezalako komunikazio aditzak ageri dira (6c) adibidean, eta inkoatibo/arazle alternantzia duen *apurtu* aditza (6d) (Haspelmath 1993; euskararako, Oihartzabal 2003; Berro, Oihartzabal & Fernández 2018 aipamenekin batera).

- (6) a. *Emakume trafikoaren mafiak legeztatu dira, ez besterik.* (Berria, A. Iban, 2004-03-05)
 b. [...] *bi kontzertuetarako sarrera guztiak saldu dira jada.* (Badok musika ataria, 2019-07-04)
 c. *Liburu gehiago idatzi eta irakurtzen da gaur egun.* (Argia 1071, 2011, J. A. Loidi)
 d. *Tradizioak asmatuak dira: apurtu daitezke.* (Berria, 2019-04-19, A. Aroma)

Interesgarriro, euskal inperzonalak ez dira nahitaz aditz iragankorrez osatu behar. Aditz inergatibo eta inakusatiboan gainean ere eraiki daitezke, nahiz eta inakusatiboak nekezago aurkitzen diren (Rodet 1992; Ortiz de Urbina 2003; Berro & Fernández 2019; Fernández & Berro 2021: 2.3 eta 5.2 atalak). Inergatiboak dira (7)ko adibideetako aditzak (*jokatu* eta *hitz egin*) —baita (2d) adibideko *lan egin* ere— eta inakusatiboak (8)koak (*joan* eta *jai*o).

- (7) a. *Egun, Nafarroan soilik jokatzen da, eta zehatzago erranda, Baztanen eta Malerrekan.* (Baztanturismo. Laxoa eta herri kirolak.)
 b. *Sarri hitz egiten da nerabeez, baina gutxitan uzten zaie eurei bizketan.* (Argia, Beraien hizkuntza aldaketan ikertzaile, M. Aldalur, 2016-06-19).
- (8) a. *Bestalde, herrialde bakoitzeko oinarrizko hiztegia ere ikasten saiatu ginen: kaixo, eskerririk asko eta nondik joaten da hona esaten jakiteko.* (Goiena, Bi gurgipilen gainean ere ezagutu daitekeelako mundua. E. Azurmendi, 2021-07-29)
 b. *Emakume ez da jaiotzen: egin egiten da.* (S. de Beauvoir/I. Arrarats, *Bigarren sexua*, 2019)

Euskararen inperzonaletan, inakusatiboek murriztapen handiagoak dituzte iragankor eta inergatiboek baino. Izan ere, interpretazio generiko eta ez-episodikoa izaten dute, eta hortaz, aspektu inperfektiboarekin azaldu ohi dira (8a) eta (8b) adibideetan bezala (Rodet 1992; Ortiz de Urbina 2003).⁶

Beste alde batetik, katalanez, askotariko aditzak ager daitezke subjektu zehaztugabeko ES-egituretan (Bartra 2002: 2151-2152). Aditz iragankorrak aurki daitezke bertan, hala nola, (2b)/(4b) adibideko *collir* ‘bildu’, baina baita inergatiboak (9) eta inakusatiboak ere (10) —(9a) gorago (2d) gisa eman dugu—.

- (9) a. *Aquest any s'ha treballat molt.*
 hau.M.SG urte.M.SG ES.haver.3SG lan egin.PTCP asko
 ‘Aurten lan handia egin da.’

⁶ Inakusatiboek azterketa xehea behar eta merezi dute, gerorako utziko dugu lana.

- b. *No es pot córrer tant.*
 ez ES ahal.PTCP korrikatu.INF horrenbeste
 ‘Ezin daiteke horrenbeste korrikatu.’
- c. *Ara se’n parla molt de drets humans.*
 orain ES.CL hitz egin.3SG asko P giza eskubide.M.PL
 ‘Orain asko hitz egiten da giza eskubideez.’ (Bartra 2002: 2151)
- (10) a. *Els dies de pluja sempre s’arriba tard*
 DET.M.PL egun.M.PL P euria.F.SG beti ES.heldu.3SG berandu
a la feina.
 P DET.F.SG lan.F.SG
 ‘Egun euritsuetan, bat beti heltzen da berandu lanera.’ (Bartra 2002: 2151)
- b. *No es neix dona: s’esdevé.*
 ez ES jaio.3SG emakume ES.bihurtu.3SG
 ‘Emakume ez da jaiotzen: egin egiten da’.

Laburbilduz, Blevinsek (2003) dio egitura pasiboak aditz iragankorren gainean⁷ eraikitzen direla eta subjektu ezabatuko inpersonalak, aldiz, iragankorren gainean ez ezik, inergatibo eta inakusatiboen gainean ere eraiki daitezkeela. Hala bada, orduan euskararen inpersonalak zein katalanaren ES-egiturak ez dira pasiboak, subjektu ezabatuko inpersonalak baino.

2.3.2. Subjektu ezabatuez

Subjektu ezabatuko inpersonalak (deiturak berak erakusten duen bezala) subjektua *ezabatu* egiten dute. Blevinsek (2003: 485) dio egitura hauetan subjektua ez dela behar bezala, adierazi gabe uzten dela baino («not demoted but unexpressed»). Polonieraren *-no/to*-egiturak subjektua ezabatuko inpersonal hauetakoak dira (Blevins 2003) —ikus baita Siewierska (1988) eta Kibort (2003) ere—. Polonieraz, gainera, pasiboa (11a) eta subjektu ezabatuko inpersonala (11b) daude eta biak konpara daitezke —katalanez ere halaxe da: ES-egiturekin batera, ‘ser’ aditzeko pasiboa edo *pasibo perifrastikoa* deritzana dago (Bartra 2002: 2119-2149)—. Pasiboan, osagarria subjektu gunera goratu egiten da. Hala dela frogatu daiteke ikusiz gero gaiak jada ez duela egitura iragankor batean jasotzen duen akusatibo kasua, subjektuak jasotzen duen nominatibo kasua baino. Bestalde, aditz laguntzaileak pertsona eta numeroan egiten du komunztadura gaiarekin. Hortaz, (11a) bada iragangaiztutako egitura bat. Aldiz, subjektu ezabatuko inpersonalan ikus daitezkeenez, gaiak akusatibo kasua gordetzen du eta ez du komunztadura eraigiten (Blevins 2003: 491). Osagarria, beraz, ez da subjektura goratu.

- (11) a. *Gazeta była czytana (przez dzieci)*
 egunkari.F.SG.NOM izan.F.SG irakurri.F.SG P umeak
 ‘Umeek egunkaria irakurri zuten (The paper was read by the children).’

⁷ Hala ere, inergatibo baten gainean egitura pasibo bat eraiki daiteke alemanaren *es wurde getanzt* ‘dantzatu zen’ motakoa. Blevinsek halakoak pasibotzat hartzen ditu: subjektua desagertu egiten da eta bere ordez subjektu betegarri bat erabiltzen da (*es*). Inakusatiboen gainean, aldiz, ezin daiteke inongo pasiborik eraiki.

- b. *Gazetę* (**byłal/*było*) *czytano* (**przez dzieci*)
 egunkari.F.ACC izan.F.SG/N.SG irakurri.PAST.IMPERS P umeak
 ‘Batek/Haiek egunkaria irakurri zuten.’ (Blevins 2003: 491)

Gatozen orain katalanaren subjektu zehaztugabeko ES-egituretara. Gorago (2.2 atala), gogoeta labur bat egin dugu egitura honetako balizko subjektuaz komunztaduraz gaia labur arakatuz. Katalanez, polonieraz ez bezala, aditz komunztaduraz baliatu ezin bagaitezke erabakitze gaia subjektua ote den —*les pomes* ‘sagarak’ (2b)/(4b) adibidean— (ikus 2.2 atala eta 4 oin-oharra), orduan polonieraz egin bezala, gaiaren kasu markapenari bederen begiratu geniezaioke. Zoritxarrez, hemen ere nahi baino irristakorrangoak dira datuak. Katalanez, izenek ageriko kasu morfologiarik erakusten ez dutenez, akusatibo kasuaren zantzuak ikusteko beharrezkoa da pertsona izenordainetara jotzea, horien kasuan, bai, nominatibo eta akusatibo kasuko izenordainak morfologikoki bereizten baitira. Ikus dezagun jarraian.

ES-inpertsonean ezin daiteke nominatiboz markaturiko izenordainik agertu subjektu gisa (Rigau 1991: 249; *GLC* 2016: 23.3.1 atala, 896), hots, gorago esan dugun bezala (2.2 atala), agerian behintzat ez dago subjekturik —bestela balitz, ez genuke subjektu ezabatuko inpertsonean hartuko—. Koropilatsua goak dira gai bizigabeak dituzten kasuak eta momentuz albo batera utziko ditugu (ikus 4.3 atala). Gaia biziduna edo gizakia denean, pertsona izenordain akusatibo batez adieraz daiteke.

- (12) a. *És un animal perillós: se l’ha de vigilar.*
 ser.3SG DET animalia arriskutsu ES CL3M.SG.ACC.haver.3SG P zaindu.INF
 ‘Animalia arriskutsua da: zaindu behar da.’ (*GLC* 2016: 896)
- b. *Se la veu molt compungida.*
 ES CL3F.SG.ACC ikus.3SG oso atsekabetuta
 ‘Oso atsekabetuta ikusten da.’ (*GLC* 2016: 896)
- c. *Se’ns coneix.*
 ES.CL1PL.ACC ezagutu.3SG
 ‘(Batek) ezagutzen gaitu.’ (Fabra 1956: 62, *apud* Jané 1998: 20)

(12a) eta (12b) adibideetan, gai biziduna eta gizakia adierazten dituzten pertsona izenordain akusatiboak ditugu, hurrenez hurren; (12c) adibidean, berriz, pluraleko lehen pertsonako izenordaina. Halako adibideek, hots, ES klitiko klitiko akusatiboekin konbinatzen dituzten agerraldiez eztabaida handia dago katalanaren gramatikarien artean —ikus Jané (1998) eta Bartra (2002: 2158-2160) beste batzuen artean—, baina Janék (1998) batez ere erakusten duen adibidetegia kontuan hartuta, ez dirudi printzipioz uka daitekeenik ES-inpertsonean gaia pertsona izenordaina denean, klitiko akusatibo gisa agertu ezin daitekeenik. *GLC*k berak (2016) adibideak ematea eta hala dela jasotzea ere esanguratsua da, gure ustez.⁸

⁸ Izatez, Janék (1998) ez ditu bakarrik jasotzen bizidun eta gizakiak diren gaiak; baita bizigabeak direnak ere (Fabrarenak berarenak tartean). Alabaina, bizigabeak oso nekez onartzen dituzte hiztunek, hala nola, gure arteko egile valentziarrak. Guk ez dugu hemen ildo hori xehetasunez jorratuko. Hala egin nahi duenak, ikus bitza Jané (1998); Bartra (2002: 2158-2160) eta *GLC* (2016: 896). Eta gatzelaniarekiko konparaziorako, ikus artikuluko honen 4.3 atala.

Laburbilduz, ES-inpertsonalak aditz iragankor batez osatzen direnean, ES klitiko klitiko akusatibo batekin batera ager daiteke. Hortaz, egitura hauetan, osagarria egon badago eta ez da subjektura goratu (bestela, pertsona izenordainak nominatiboa erakutsiko luke, eta esan dugun bezala, halakorik ez da onartzen katalanez). Hortaz, gaia osagarria da (ez subjektua), eta subjektua ezabatua dago.

Euskarari dagokionez, azkenik, ez dago morfologikoki egitura iragankor bat adieraziko lukeen zantzurik. Aditz laguntzailearen hautaketatik bertatik, alegia, *izan* hautatzen den unetik, badirudi egitura iragangaiztu baten aurrean gaudela, eta halaxe iritzi izan zaio literaturan (Ortiz de Urbina 1989, 2003: 581; Albizu 1997; Berro & Fernández 2019; Fernández & Berro 2021 beste batzuen artean). Alabaina, euskara hizkuntza ergatiboa den aldetik, gaiak ez du erakusten akusatibotik nominatiborako aldaketa egiten ote duen ezta, ondorioz, osagarritik subjektura goratu ote den ere. Gaiak, izan osagarria izan iragangaitzeko subjektua, kasu bakarrarekin markatzen da, absolutiboarekin alegia. Hortaz, goratu den ez den ezin jakin. Dena dela, euskal inpertsonala morfologikoki baino ez da iragangaitza. Ondoren erakutsiko dugunez, gaiaz gain, subjektu ezabatu bat dago. Beraz, egitura morfologikoki iragangaitza izan arren, sintaktikoki iragankorra da

2.3.3. Subjektu ezabatuaren gizaki izaeraz

Blevinsek (2003) subjektu ezabatu inpertsonalak pasiboetatik bereizteko darabilen hirugarren irizpidea da inpertsonaletako subjektu ezabatua gizakia izan behar dela halabeharrez, eta jakina denez, pasiboetako subjektu logikoak (hizkuntza batzuetan zeharkako sintagma batez berreskura daitekeena, adibidez, *by-phrase* batez ingelesez) ez du halako murriztapenik.⁹ Euskararen inpertsonalen eremuan, Ortiz de Urbina (1989) eta Rodetek (1992) aspaldi azaldu zuten subjektu ezabatua gizakia izan behar zelako aierua. Berro eta bestek (2022) euren aldetik erakutsi dute hori gertatzen dela kideko egitura iragankorrean baita gizakiak ez diren subjektuak onartzen direnean ere. Hala, adibidez, inkoatibo/arazlea alternantzia duen *hondoratu* aditzare-

⁹ Hala ere, Blevinsek (2003: 481) esaten duenez, zehaztugabeko gizaki egile bat izatea ez da inpertsonalen ezaugarri esklusiboa, eta pasibo mota berezietan ere aurki liteke (hala nola, tradiziozko gramatikari SE-pasibotzat hartu diren horietan, ikusi 4 atala). Hortaz, sistema ezegonkorra izango da: «a passive system with no personal constructions would be highly susceptible to reinterpretation as an impersonal system» (Blevins 2003: 475). Gaztelaniaren eta katalanaren kasuan, sistema inpertsonal horrek marka morfologiko bera izango luke, *SE/ES*. Bien arteko hurbiltasuna dela eta *NGLEk* gaitzesten dituen gurutzaketak sortzen dira (*NGLE* 2009: 4039):

- | | | | | |
|------|----------------------------------|--------------|-------------------|-----------------|
| (i) | <i>Se premiaron</i> | <i>a los</i> | <i>mejores</i> | <i>alumnos.</i> |
| | SE saritu.3PL.PST | A DET.M.PL | hoberen. M.PL | ikasle.M.PL |
| | 'Ikaslerik onenak saritu ziren.' | | | |
| (ii) | <i>Se buscan</i> | <i>a los</i> | <i>culpables.</i> | |
| | SE bilatu.3PL.PST | A DET.M.PL | errudun.M.PL | |
| | 'Errudunak bilatzen dira.' | | | |

Adibide hauetan, komunztadura eta *a* pertsonala, estandarrean bateragaitzak izaten direnak, elkarrekin agertzen dira, morfologikoki eta semantikoki horren hurbil dauden bi egituren artean espero daitekeen bezala. Gurutzaketa hauek, hala ere, berdin gerta litezke egitura bakarra badugu, iragankorra, osagarriaren araberrako komunztadura azpistemekin (ikus 4.3 atala).

kin, aldaera arazlean subjektua biziduna (eta gizakia) izan daiteke (13a'), baina baita bizigabea ere (13a):

- (13) a. *Ekaitzak / Norbaitek itsasontzia hondoratu du.* [arazlea]
 b. *Itsasontziak hondoratu dira.* [inakoatibo/inpertsonala]

Alabaina, (13b) adibidea anbigua da eta bi irakurketa ditu: batetik inkoatiboa izan daiteke eta bestetik arazlearen inpertsonala ere bai. Dagoen-dagoenean zaila da beharbada hala dela ikustea, baina bi aukeren arteko anbiguetatea apurtzen da *nahita* bezalako *egileari zuzendutako modifikatzaileez* baliatuz gero: *berez* bezalako modifikatzaile bat erakusten badu (*Itsasontziak berez hondoratu dira*), orduan egitura inkoatiboa da; aldiz, *nahita* bezalako modifikatzaile batekin (*Itsasontziak nahita hondoratu dira*), inpertsonala (Berro & Fernández 2019; Fernández & Berro 2021). Bada, irakurketa inpertsonalean, ez dirudi interpreta daitekeenik itsasontziak hondoratu dituen ekaitz izan denik, hots, bizigabea den zerbait: gizaki bat izen behar dela dirudi. Hortaz, horri dagokionez esan genezake euskararen egitura inpertsonalak estuago lotzen zaizkiola Blevinsen subjektu ezabatuko inpertsonalei, pasiboei baino, pasiboetan ez dago-eta halako baldintzarik.

Katalanez, beste alde batetik, inkoatibo/arazle alternantzia berean parte hartzen duen *enfonsar* 'hondoratu' aditzak ere aldaera arazlean gizakia den subjektua izan dezake (14a) edo bizigabea dena (14b):

- (14) a. *L'oficial del vaixell rus que va enfonsar*
 DET.ofizial P.DET itsasontzi errusiar SUBR AUX.3SG hondoratu.INF
 El Fairell [...] ha pagat la fiança per evitar la presó.
El Fairell haver.3SG ordaindu.PTCP DET fidantza P saihestu.INF DET
 kartzela
 'El Fairell (arrantzontzia) hondoratu zuen itsasontzi errusiarraren ofizialak fidantza ordaindu du kartzela saihesteko.' (La Vanguardia, 2017-03-29)
- b. *La tempesta va enfonsar el vaixell.*
 DET ekaitz AUX.3SG hondoratu.INF DET itsasontzi
 'Ekaitzak itsasontzia hondoratu zuen.' (Bartra 2002: 2153)

Bestalde, *enfonsar* aditzak aldaera inkoatiboa ere badu *hondoratu* aditzak bezalaxe. Alabaina, euskaraz ez bezala, aldaera inkoatibo horrek ES klitikoa erakusten du (15).¹⁰

- (15) *El vaixell es va enfonsar.*
 DET itsasontzi ES AUX.3SG hondoratu.INF
 'Itsasontzia hondoratu zen.'

Jakina, (15) adibidea ere —euskarazko (13b) adibidea bezala— anbigua da, zeren ES klitikoa bi modutara interpreta daiteke: edo inkoatiboa adierazten duen kliti-

¹⁰ Euskaraz *inakoatibo/arazle alternantziadun* aditzez hitz egiten da oro har, baina katalanez, Bartrak (2002), adibidez, *ergatibo* deritze halako aditzei. Deituretan berrito ere ez dago batasunik ez hizkuntza batetik besterako gramatika tradizioan ez gramatika teorikoaren eta hizkuntza tipologiaren eremuetan. Guk katalanari dagokionez, beharbada, *antikausatibo* deitura hobetsiko genuke aldaera inkoatiborako, ES *antikausatibo* markatuz har daitekeelako (Abrines & Mateu 2015), baina nahasmen are handiagoa ez sortzearren, inkoatiboa gordetzea erabaki dugu —hurbilketa tipologikorako, ikus Kulikov (2010)—.

kotzat hartzen da eta ondorioz, egitura inkoatiboa litzateke edo inpertsonaletan ageri ohi den klitikotzat har daiteke eta orduan inpertsonala litzateke.¹¹ Bi egituren arteko asimetria ikus daiteke modifikatzaileak gaineratuz gero. Konparatu bitez bestela (16a) eta (16b): lehena inkoatiboa da eta bigarrena inpertsonala.

- (16) a. *El vaixell es va enfonsar tot sol.*
 DET itsasontzi ES AUX.3SG hondoratu.INF osorik bakarrik
 ‘Itsasontzia berez hondoratu da.’ [inkoatiboa]
- b. *El vaixell es va enfonsar intencionadament.*
 DET itsasontzi ES AUX.3SG hondoratu.INF nahita
 ‘Itsasontzia nahita hondoratu da.’ [inpertsonala]

Kontua da (15) egituraren irakurketa inpertsonalean (16b), bakarrik interpreta daitekeela gizakia den norbaitek eragin duela itsasontzia hondoratzea, eta ez, adibidez, ekaitzak.¹²

Blevinsek (2003) dio, gainera, gizakiak ez diren bizidunak espero genitzakeen agerrialdietan ere, ez dirudiela gizakia ez den subjekturik interpreta daitekeenik, Siewierskak (1988: 263) polonierarako erakutsi bezala —berea da (17a) adibidea, Kibortek (2003: 50, 282) egokitu duena—. Euskararen inpertsonaletan ere halaxe dela dirudi (Fernández & Berro 2021) eta katalanez antzeko (testuingururik gabe interpretatzea nekezagoa den arren bai euskaraz bai katalanez).

- (17) Poloniera
- a. *Gniazda budowano wysoko.*
 kabiak(NVIR¹³).ACC eraiki.IMPER goian
 ‘Kabiak goian egiten dira.’
- Euskara
- b. *Kabiak zuhaitzetan gora egiten dira.*

¹¹ Ipar-mendebaldeko katalanean, egitura inkoatiboak eta inpertsonalak ezberdintasunak erakusten dituzte komunztadurarekiko (Solà 1987; Rigau 1991: 250). Hala erakusten dute irakurketa anbiguorik ez duten ondoko bi adibideek. 2.2 atalean dagoeneko adierazi dugun bezala, hizkera horretan, egitura inpertsonala bada, ez dago komunztadurarik izen sintagma aditzaren ondoren agertzen bada (i). Aldiz, egitura inkoatiboa bada, izen sintagmarekiko komunztadura dago (ii).

- (i) *S’ha enfosat els vaixells perquè no caiguessin*
 ES.haver.3SG hondoratu.PTCP DET.M.PL itsasontzi.M.PL SUBJ ez jausi.SUBJ.3PL
en mans dels enemics.
 P esku.PL P.DET.M.PL etsai.M.PL
 ‘Itsasontziak hondoratu dira etsaien esku jausi ez daitezen.’
- (ii) *Amb la tempesta s’han enfosat els vaixells.*
 P DET.F.SG ekaintza.F.SG ES.haver.3PL hondoratu.PTCP DET.M.SG itsasontzi DET.M.PL
 ‘Ekaitzarekin itsasontziak hondoratu dira.’

¹² Halako egituren aldean, hiztun batzuek egitura iragankorra nahiago dute (*Han enfosat* ‘haver.3PL hondoratu.PTCP’ *el vaixell intencionadament*). Euskaraz ere halaxe delakoan gaude, hots, egitura iragankorra nahiago izaten da (*Itsasontzia nahita hondoratu dute*) inpertsonalaren aldean (*Itsasontzia nahita hondoratu da*).

¹³ *Non-viril* deiturari dagokio NVIR laburdura —*ez-biril* eman genezake euskaraz—, poloniera bezalako eslaviar hizkuntzetan dagoen genero bati dagokio.

Katalana

- c. *Els nius es fan a dalt.*
 DET.M.PL kabi.M.PL ES egin.3PL goian
 ‘Kabiak goian egiten dira.’

Azkenik, aditzak animalia bati egozten zaion ekintza bat, hala nola, *zaunka egitea* adierazten duenean, inpertsonalaren subjektua ere gizakia da subjektu ezabatuko inpertsonalean (Blevins 2003). Estonieraz erakusten dugu hori (18a) adibidean —Torn (2002: 95) *apud* Blevins (2003: 484)— eta euskaraz eta katalanez, (18b) eta (18c) adibideetan, hurrenez hurren —ikus Kibort (2003: 282) polonieraren antzeko adibideetarako.

(18) Estoniera

- a. *Õues haugutakse.*
 kanpoan zaunka egin.PRES.IMP
 ‘Kanpoan zaunka egiten da.’

Euskara

- b. *Kanpoan zaunka egiten da.*

Katalana

- c. *Fora es lladra.*
 kanpoan ES zaunka egin.3SG

Dena dela, bada zeresanik (18b) eta (18c) adibideei dagokienez. Euskaraz eta katalanez bederen, hauek bezalako adibideak ez dira interpretatzen errazak testuinguru egokirik gabe, *zaunka egin/lladrar* aditzek batetik eta egitura inpertsonalek bestetik ezartzen dituzten murriztapenen artean kontraesana dagoelako. Izan ere, zaunka egiteak, hizkuntza batean zein bestean, egilea txakur bat izatea eskatzen du. Aldiz, egitura inpertsonalak ezabatutako subjektua gizakia izatea eskatzen du. Horretatik dator, beraz, kontraesana.

Alabaina, (18b) eta (18c) adibideak arruntak lirateke, dagokien testuinguruan interpretatu ahal balitz *zaunka egin/lladrar* aditzek metaforikoki gizakiei erreferentzia egiten dietela, (19a) eta (19b)n erakusten dugun bezala.

(19) Euskara

- a. *Kongresuan ez da hitz egiten, zaunka egiten da.*

Katalana

- b. *En el congrés no es parla, es lladra.*
 P DET.M.SG kongresu.M.SG ez ES hitz egin.3SG ES zaunka egin.3SG

Oso bestela, ez dirudi testuinguru egokia emanik ere —(20a) eta (20b) adibideetan bezala—, interpreta daitekeenik txakurrak direla zaunka egiten dutenak.

(20) Euskara

- a. ?? *Txakurtegi honetan zaunka egiten da.*

Katalana

- b. ?? *En aquesta canera es lladra molta.*
 P hau.F.SG txakurtegi.F.SG ES zaunka egin.3SG asko

Euskaraz, esan dugun bezala, guk dakigula Ortiz de Urbina (1989) lanean agertzen da lehenik inpertsonaletako subjektua gizakia delako aierua, gerora Rodeten (1992)

lanean xehetasunez aztertzen dena eta berriki beste zenbait lanetan aldarrikatu dena (Fernández & Berro 2021; Berro eta beste 2022). Katalanez, beste alde batetik, subjektu ezabatua gizakia (edo biziduna) delako aierua *GLCn* (2016: 894) aurki daiteke adibidez. Interesgarria da subjektu zehaztugabea gizakitzat hartu behar hori. Izan ere, katalanak badu zehaztugabea edo generikoa den subjektua adierazteko beste izenordain bat, alegia, *hom*, lexikoki bederen harremana duena frantsesezko *on*, alemanezko *man* (Fenger 2018) edo gaztelania zaharreko *omne* izenordainekin (Wheeler eta beste 1999; Bartra 2002: 2173-2174). Bartrak (2002) dio *hom*-en erabilera idatzizkoan eta hizkera zaharrale edo formalean aurki daitekeela bakarrik. Guk prentsa idatzian aurkitu berri dugu ondokoa:

- (21) *quan hom manifesta que les dones sempre*
 CNJ HOM adierazi.3SG SUBR DET.F.PL emakume.F.PL beti
han manat,
 haver.3PL agindu.PTCP

allò que té al cap és el govern de la llar.
 hura SUBR eduki.3SG P.DET buru ser.3SG DET aginte P DET etxe
 ‘Batek diotenean emakumeek beti agindu dutela bere buruan duena da etxe
 agintea.’

(VilaWeb, *I si les dones manessin, què?* M. Rojals, 2022-03-08)

Interesgarria dena da *hom* hori zehaztugabea bada ere, gizakia izan behar dela derrigorrez —itxuraz subjektu ezabatua den bezala—. Lan honetatik kanpo gelditzen da subjektu zehaztugabea adierazteko izenordain esplizituen azterketa, baina esango genuke gizakia izateko baldintza betetzen dutela subjektu zehaztugabe ezabatu zein *hom* bezalako ageriko guztiek —euskararako, ikus Ortiz de Urbina (2003: 572-576) eta katalanerako, ikus lehen emandako aipamenez gain, baita *GLC* (2016: 898-900) ere.

2.3.4. Zeharkako sintagma gisako egileak ezinezko

Blevinsek (2003), azkenik, pasibo eta inpertsonalak bata bestetik bereizteko zeharkako sintagma gisako egilerik zilegi ote den aztertzen du. Jakina denez, hizkuntza askotan egitura pasiboko egilea zeharkako sintagma batez adierazten da, ingelesez adibidez, *by-phrase* batez —hurbilketa tipologiko baterako, ikus Siewierska (1984)—. Aldiz, subjektu ezabatuko inperersonaletan ezinezkoa da.

Egungo euskarari argi dago inperersonalek ezin dutela egilea zeharkako sintagma batez berreskuratu (Brettschneider 1979: 381; Ortiz de Urbina 2003: 611-612, 2006: 773; Urrestarazu 2019; Berro & Fernández 2019; Fernández & Berro 2021):¹⁴

- (22) **Sagarrak bildu dira baserritarrez.*

Katalanez den bezainbatean, bestalde, ez dirudi ageriko subjekturik egon daitekeenik ES-egituretan (Bartra 2002: 2155). Nolanahi ere den, egile berak salbuespen

¹⁴ Diakronikoki gauzak bestela zirela dirudien arren. Ikus Fernández eta Berro (2021: 3.1.1 atala eta aipamenak) eztabaidarako. Katalan zaharrerako, ikus 15 oin-oharra.

gisa ematen ditu hizkera administratibo eta juridikoan edo komunikabidetan oro har, *per edota per part de-z* lagundurik adierazten diren egileak —italierarako, ikus Jaeggli (1986) eta gatzelaniarako, Mendikoetxea (1999: 1682-1686) edo RAE-ASALE-ren *Nueva Gramática de la Lengua Española*n, *NGLE* aurrerantzean (2009: 785)—. *GLCk* (2016: 897) ere egiten du gaiaren aipamena eta (23) adibidea ematen digu.

- (23) *S'han emès vots particulars*
 ES.haver.3PL bidali.PTCP boto.M.PL particular.M.PL
per part de diversos diputats del grup
 P parte P batzuk.M.PL diputatu.M.PL P.DET.M.SG talde.M.SG
mixt.
 misto.M.SG
 ‘Boto partikularrak eman dira talde mistoko diputatuen aldetik.’

Dena dela, guri bereziki argigarria iruditzen zaigu *GLCk* (2016: 897) honi dagokionez dioena, hots, (23)ko adibideko *per part de* buru duen sintagma ez dela izatez egilea adierazten duen zeharkako sintagma bat, ez bada boto horiek nondik datozen adierazten duen sintagma bat, katalanez, *de, des de, de la banda de* eta abarrez ordezka litekeena.¹⁵ Euskaraz ere, kidekotzat har daitekeen *-(r)en aldetik* ageri da zenbaitetan hizkera administratibo eta juridikoan, estilo liburuetan halakorik ez erabiltzeko gomendioa egiten bada ere, hots, (24a) bezalakoak baztertu eta egilea ageri duten (24b) bezalako egitura iragankorrez ordezkatzea gomendatzen bada ere (IVAP 2009: 132) —(24a) adibidea dakargu hona, nahiz eta ez duen egitura inpersonalik erakusten, *-tzea* forma jokatugabea baino—.

- (24) a. *Interesatuen aldetik oinarriak ez betetzeak, kobratu diren kopuruak osotara itzultzea sorraraziko du.* (IVAP 2009: 132)
 b. *Oinarriak betetzen ez baditu, bekadunak diru guztia itzuli beharko du.*

Ez dugu agerraldi hauen azterketa xeherik egiteko asmorik. Guretzat argigarria da ikustea egitura inpersonal batean, zeharkako egile bat inola ere onartzen ez den euskaraz bezalako hizkuntza batean, badirela (22a) bezalako agerraldiak: zeharkako sintagma gisako egileak ez direlako seinale.

¹⁵ Oso ohikoak izan ez arren, katalan zaharrean baziren zeharkako egile bat zuten ES-egiturak. Alabaina, zeharkako egile hau gehienetan zehaztugabea edo generikoa zen (i), eta oso kasu bakanetan zehaztua (ii) Bartra (agertzeaz) —ikus baita Solà (1987)—.

- (i) *les dites cases se deuen vendre per lo*
 DET.F.PL esan.PTCP.F.PL etxe.F.PL ES behar saldu.INF P DET.M.SG
dit justícia
 esan.PTCP.M.SG epaile
 ‘Aipatu etxeak erosi behar dira aipatu epailearen aldetik.’

- (ii) *Et qui us comptava los fets qui en Otrento*
 eta REL zuek.DAT kontatu.IPFV.3SG DET.M.PL egin. PTCP.M.PL REL P Otrento
se fàberen per lo dit Berenguer d' Entensa [...]
 ES egin.PST.3PL P DET.M.SG esan. PTCP.M.SG Berenguer P.Entensa
 ‘Eta nork kontatzen ahal dizkizue Otrenton aipatu Berenguer d'Entensak egindakoak!’
 (Ramon Muntaner, *Crònica*, 1325, *CICA*)

3. Subjektu ezabatua sintaktikoki indarrean dago

Gorago ikusi dugu bai euskarazko inpertsonalek bai katalanezko ES-egiturek subjektu ezabatuko inpertsonalen ezaugarriak dituztela. Atal honetan, subjektu ezabatuaren jokabide sintaktikoan jarriko dugu arreta. Ikusiko dugunez, subjektu ezabatua semantikoki ez ezik, sintaktikoki ere indarrean dago, bai euskaraz bai katalanez. Horretarako, bi testuinguru sintaktiko izango ditugu hizpide: batetik bigarren mailako predikatuen zilegiztapena (3.1 atala) eta bestetik jabetza besterenezineko harremana ezartzeko gaitasuna (3.2 atala). Batean zein bestean, katalanaren ES-egitura ez ezik, pasibo perifrastikoa ere (Bartra 2002) aztertuko dugu.

3.1. Bigarren mailako predikatuen zilegiztapena

Has gaitezen bigarren mailako predikatuen zilegiztapenarekin. Ezaugarri horren inguruan eztabaida handia egon da literaturan (Collins 2005; Landau 2010; Alexiadou, Anagnostopoulou & Schäfer 2015; Pitteroff & Schäfer 2019). Izan ere, subjektu ezabatuko egiturak nahiz egitura pasiboak dituzten hizkuntzetan kontraste interesgarriak aurkitzen dira: turkieraz, esate baterako, egitura inpertsonalek egileari zuzendutako adjektibo depiktiboak onartzen dituzte; egitura pasiboek, aldiz, ez (Legate, Akkuş, Šerekaitė & Ringe 2020: 781). Katalanez ere, ES-egituraren eta pasibo perifrastikoaren artean asimetria dago honi dagokionez. Izan ere, depiktiboak onargarriak dira ES-egituran (25), baina ez pasibo perifrastikoan (26). Hala, (25a) adibidean (*ben/més*) *despert* ‘esna-esna/esnago’ adjektibo sintagma egileari zuzentzen zaio; (25b) adibideko (*més*) *content* ‘pozago’ bezalaxe.

- (25) a. *Amb dos cafés, es condueix (ben/més) despert.*
 COMMIT bi kafe.M.PL ES gidatu.3SG (ondo/gehiago) esnatuta.M.SG
 ‘Bi kaferekin, esna-esna / esnago gidatzen da.’
 b. *Amb bones paraules, es fan les coses*
 COMMIT on.F.PL hitz.F.PL ES egin.3PL det.F.PL gauza.F.PL
 (*més*) *content.*
 (gehiago) pozik.M.SG
 ‘Hitz politekin, gauzak pozago egiten dira.’

Oso bestela, pasibo (25b)ren kideko pasibo perifrastikoan, ezin daiteke halako predikaturik izan.

- (26) **Amb bones paraules les coses son fetes*
 COMMIT on.F.PL hitz.F.PL DET.F.PL gauza.F.PL ser.3PL egin.PTCP.F.PL
 (*més*) *content.*
 (gehiago) pozik.M.SG

Bestalde, euskaraz ezin dugu egitura inpertsonala pasiboarekin konparatu, egungo euskaraz ez baitugu egitura pasiborik. Edozein kasutan ere, inpertsonaletan bigarren mailako predikatuak guztiz onargarriak direla ikus daiteke.

- (27) a. *Ibaia erraz zeharkatzen da oinutsik.*
 b. *Herriko ereserkia zutunik kantatzen da.*
 c. *Kanta hori mozkortuta kantatzen da.* (Fernández & Berro 2021)

Adibideotan, *oinutsik*, *zutunik* eta *mozkortuta* bigarren mailako predikatuak ezabatuko subjektuari egiten diote erreferentzia, alegia, ibaia zeharkatzen (27a), herriko ereserkia kantatzen (27b) edo kanta hori kantatzen (27c) duen egileari.

3.2. Jabetza besterenezineko harremana

Azter dezagun orain bigarren testuinguru sintaktikoa, alegia, jabetza besterenezineko harremana ezartzeko gaitasuna. Egitura inpersonaletan subjektua sintaktikoki indarrean badago, perpauseko beste osagaiekin harreman sintaktikoak ezartzeko gaitasuna izatea espero dugu. Horixe bera ikusi dugu 3.1 atalean, hots, subjektu ezabatuek adjektibo depiktiboak zilegiztatzen dituela. Atal honetan subjektuaren eta osagarri zuzenaren arteko uztardura harremana aztertuko dugu, bereziki jabetza besterenezineko harremana ezartzen duena (Berro eta beste 2024; ikusi gaztelaniarako MacDonald 2017 eta Ormazabal & Romero 2019).

Hainbat hizkuntzatan determinatzaile zehaztuek anaforen antzera joka dezakete eta sintaktikoki gorago dagoen osagai batekin jabetza besterenezineko harremana osatu (Guéron 2006; Le Bruyn 2014, eta lan horietan aipatutako lanak). Aitzindari sintaktikoa jabe gisa interpretatzen da eta determinatzaile zehaztua buru duen sintagma jabetza gisa. (28) adibidean, *Jon* da jabea eta *eskua* jabetza besterenezina.

(28) *Jonek eskua altxatu du.*

Orobat, baldintza sintaktiko batzuk bete behar dira harreman hori ezarri ahal izateko (Guéron 2006): i. jabeak ezin du perpausetik desagertu; ii. jabeak eta jabetzak gutxieneko eremu sintaktiko berean egon behar dute, hots, perpaus berean; eta iii. jabeak jabetza o-komandatu behar du. Guastik (2006) erakutsi duenez, pasiboetan ezin da jabetza besterenezineko harremanik ezarri. Izan ere, pasiboetan determinatzaile zehaztua daraman sintagma subjektu gunean dago eta ez dago bera uztartuko duen aitzindari sintaktikorik, ez behintzat o-komandatzan duen gune sintaktiko batean. Italiarazko adibidea ematen du Guastik (2006).

(29) **La mano_i è stata alzata da Gianni_i*
 DET esku izan.3SG be.PTC altxatua P Gianni
 ‘Gianik eskua altxatu du.’

Ikus dezagun zer gertatzen den euskarazko inpersonaletan. Bada, gaztelaniaz bezala, euskarazko inpersonalen subjektu ezabatua jabe gisa interpreta daiteke (Berro & beste 2024) —baina ikus, gaztelaniarako, MacDonald (2017), Ormazabal & Romero (2019)—. Hori gertatzen da bai jabetza besterenezina, bai jabetza besterengarria adierazten duten sintagmekin ere. Esate baterako, (30b)n *berokia* etxean sartzen den pertsona bakoitzarena dela ulertzen da.

(30) a. *Hitza eskatzeko, eskua altxatuko da.*
 b. *Etxean sartzerakoan, berokia sarreran utziko da.*

Katalanez antzeko datuak dauzkagu. Subjektu ezabatua eskuaren eta berokiaren jabeak direla interpretatzen da hurrenez hurren.

- (31) a. *Per a parlar, s' ha d'aixecar abans la mà.*
 P P hitz egin.INF ES altxatu.GERO lehenago DET.F.SG esku.F.SG
 'Hitz egiteko, eskua altxatuko da.'
- b. *En entrar, s' ha de deixar l' abric en l' entrada.*
 P sartu.INF ES utzi.GERO DET.M.SG beroki M.SG P DET.F.SG
 sarrera F.SG
 'Sartzerakoan, berokia sarreran utziko da.'

Ez da hori gertatzen, ordea, pasibo perifrastikoetan. Italiaraz bezala, katalanezko pasiboetan ezin da jabetza harremanik ezarri beheratutako egilearen (izan agerikoa izan ezabatukoa) eta subjektu gramatikalaren artean.

- (32) **La mà_i ha estat aixecada per en Joan_i.*
 DET.F.SG esku.F.SG haver.3SG egon.PTCP altxatu.PTCP.F.SG P
 DET.M.SG Joan
 'Joanek eskua altxatu du.'

Gurutzatze ahula (ing. *weak crossover*) erakusten duten datu hauek, beraz, iradokitzen dute inpertsonaletan badugula subjektu aitzindari bat, pasiboetan ez bezala.

3.3. Tarteko ondorioak

Atal honetako 1. taulan laburbildu ditugu euskararen inpertsonalen eta katalanaren subjektu zehaztugabeko ES-egituren ezaugarriak.

1. taula

Euskararen inpertsonalen eta katalanaren subjektu zehaztugabeko ES-egiturak konparatzen

Ezaugarriak	Katalanaren ES-egiturak	Euskararen inpertsonalak
Adizkiaren iragangaiztea (morfologikoa)	X	✓
Aditzak: iragankor, inergatibo eta inakusatiboak	✓	✓
Subjektu ezabatua	✓	✓
Subjektu ezabatu zehaztugabea eta gizakia	✓	✓
Zeharkako sintagma baten bidezko egilea	X	X
Bigarren mailako predikatuen zilegiztapena (depiktiboak)	✓	✓
Jabetza besterenezineko harremana	✓	✓

4. Sartu-irtena gaztelaniaren SE-egituren eremura: SE-pasiboa eta SE-inpertsonala

Gorago eztabaidatu ditugun ezaugarriek, 1. taulan bildu ditugunek, euskararen inpertsonalen eta katalanaren ES-egituren artean dagoen antzekotasun handia erakusten dute. Blevinsi (2003) jarraituz, egitura hauek biak pasiboetatik bereizten direla ikusi dugu, eta subjektu ezabatuko inpertsonaltzat jo ditugu, hots, ezabatua bada

ere, sintaktikoki indarrean dagoen subjektu bat duten egiturak. Egitura pasiboetan, aldiz, egileari dagokion argumentua ez da sintaktikoki adierazten, zeharkako sin-tagma batez ez bada behintzat (nahiz eta semantikoki «hor nonbait» egon, inkoati-boetan adibidez gertatzen ez dena). Ondorioz, subjektu gunea betetzearren (*Islapen Hatsarre Zabaldua* delakoaz gramatika sortzailean edo beste eredu teoriko batzue-tako antzeko hatsarreak direla medio), osagarri logikoa, hots, gaia bertara goratzen da. Hori litzateke egitura inperstonalen eta pasiboen arteko desberdintasun nagusia. Gaztelaniazko SE-egiturak, ordea, ez dirudi beti inperstonalekin batera sailka daitez-keenik, ez behintzat morfologiari erreparatzen badiogu. Izan ere, tradiziozko grama-tiketan bereizketa egin izan da pasibo erreflexuen eta inperstonal erreflexuen artean —ikus *NGLE* (2009) esate baterako—. Hemendik aurrera, bien arteko bereizketan sakonduko dugu, eta behin-behinean besterik ez bada SE-inperstonalak eta SE-pa-siboak deiturak erabiliko ditugu —inplikazio teorikorik gabe—. Ikusiko dugunez, SE-pasiboetan, gai argumentuak subjektu baten jokabide morfologikoa erakusten du aditz laguntzailearekin komunztadura egiten duelako eta ezin delako klitiko batez bi-koiztu, gaztelaniaz subjektuekin gertatzen den bezala.

Bestalde, gorago (2.3.1 atala) erakutsi dugunez, egitura inperstonaletan deneta-riko aditzak ager daitezke, hots, iragankor, inergatibo zein inakusatiboak; oso bestela, egitura pasiboak printzipioz murriztagoak dira, aditz iragankorrik baino ez baitute onartzen. Bada, horixe bera ikusten da gaztelaniaren bi SE-egituretan: SE-inper-sonalak denetariko aditzekin sor daitezke; aldiz, SE-pasiboak aditz iragankorrekin baino ez.

Atal honetan, SE-inperstonala aztertuko dugu lehenik (4.1 atala), hots, aditz iragangaitzekin eskura daitekeen egitura bakarra. Ondoren (4.2 atala), aditz iraganko-rrekin batera, SE-pasiboaren berri emango dugu, eta bi SE-egituren artean dagoen banaketa azalduko dugu. Azkenik (4.3 atala), tradiziozko gramatikak pasiboen eta in-perstonalen artean dagoen aldea aztertuko dugu Blevinsen tipologiaren argitan.

4.1. Aditz iragangaitzeko SE-egitura: SE-inperstonala

Dagoeneko esan dugun bezala, aditz inakusatibo (33a) eta inergatiboekin (33b) ezin dugu egitura pasiborik sortu. Hortaz, ondokoak SE-inperstonalak dira:

- (33) a. *No se nace mujer: se llega a serlo.*
 ez SE jaio.3SG emakume SE heldu.3SG P izan.INF.CL.SG.ACC
 ‘Emakume ez da jaiotzen: egin egiten da.’
- b. *Ahora se habla mucho de derechos humanos.*
 orain SE hitz egin.3SG asko P giza_eskubide.M.PL
 ‘Orain asko hitz egiten da giza eskubideez.’

Tradiziozko gramatikaren ikuspuntutik, aditz iragangaitzek ez dute subjektu bihur daitekeen osagarriarik. Beraz, (33)koak ezin daitezke pasiboak izan, subjektu ezabatua duten SE-inperstonalak baino. Aditz inergatibo eta inakusatiboekin egitura pasiborik osatu ezin dela azaltzeko, Blevins (2003) Comrieren (1977) hipotesian oi-narritzen da pasiboaren muina identifikatzean. Hala, berebiziko garrantzia duena ez da osagarria subjektura goratzea, subjektua adierazi gabe uztea baino. Ikuspegi honen argitara, aditz inakusatiboen argumentu bakarra (sakoneko) osagarri bat denez eta ez

subjektua, orduan ez dago pasiboak adierazi gabe utz dezakeen argumenturik. Ondorioz, (33a) ezin daiteke pasiboa izan. Bestalde, (33b) bezalako inergatiboen kasuan, badago subjektua, baina orduan bere gunea har dezakeen gai argumenturik ez dagoenez eta gaztelaniaz (alemanez ez bezala) betegarri hutsik ez dagoenez, ezin daiteke pasiborik osatu.

4.2. Aditz iragankorreko SE-egiturak: SE-inpertsonala vs. SE-pasiboa

4.2.1. Gai bizidunak

Predikatu iragankorretan badago subjektu logiko bat, eta ez da, beraz, harriztekoa gaztelaniaren tradiziozko gramatikan bi SE-egitura daudela aldarrikatzea, hots, inpertsonala eta pasiboa, ondoko bi adibideetan ikus daitezkeenak, hurrenez hurren:

- (34) a. *Se reconoce a un buen escritor por su puntuación.*
 SE ezagutu.3SG A DET.M.SG ON.M.SG idazle.M.SG P bere puntuazio.F.SG
 ‘Idazle on bat bere puntuazioagatik ezagutzen da.’
- b. *Se han recogido las manzanas.*
 SE haber.3PL bildu.PTCP DET.F.PL sagar.F.PL
 ‘Sagarrak bildu dira.’

(34a)ko adibidea SE-inpertsonala dugu. Argi dago hemen gaia osagarria dela, *un buen escritor* ‘idazle on bat’ sintagmak aurretik daukan *a* preposizioak adierazten duen bezala. Beste alde batetik, aditza singularreko hirugarren pertsonan jokotuta dago, ezabatuta dagoen subjektuari zor zaiona (edo besterik ezean ezartzen den pertsona komunztadura izateari). Baina (34b) ezberdina da, gai argumentuak aditz laguntzailearekin komunztadura egiten duelako: SE-pasiboa izango litzateke egitura hau. Horri dagokionez, gaztelaniak (34b) katalanaren (2b) adibidearen antza du —ikus 2.2 atala eztabaidarako—. Euskaraz, beste alde batetik, antzeko perpausetan (1b,d), ezin gaitzke komunztaduraz baliatu jakiteko gaia funtzioz aldatu ote den (osagarritik subjektura), subjektua izan zein osagarria izan, komunztadura izango dugu-eta.

Komunztaduraz gain, subjektuaren eta osagarriaren arteko ezberdintasuna erakusten duten bestelako datuak eman baino lehen, bi egituren banaketari erreparatuko diogu, bi aukera egoteak ez baitu esan nahi edozein aditz iragankorren argumentuak (34)ko bi egituretan ager daitezkeenik. Hasteko, oro har, badago osagarriaren markapen bereizgarriaren (OMBaren) antzekoa den gai bizidunen eta bizigabeen arteko asimetria. Izan ere, gai bizidun eta zehaztuak, hots, egitura iragankor batean *a* hartuko luketenak, ezin daitezke SE-pasiboetan ageri (NGLE 2009: 787). Ez da, beraz, kasualitatea (34a)ko (*a*) *un buen escritor* SE-inpertsonaleko osagarria izatea. Gai bizidun eta zehaztuak dituzten SE-inpertsonalak dira baita (35)ekoak. Gai osagarri biziduna baina aldi berean zehaztugabea izanez gero, orduan ez du *a* hartuko eta SE-pasibo komunztaduradunean agertuko da, (36)ko adibideetan bezala.

- (35) a. *Buscaban a los buenos vendedores.*
 bilatu.3PL.PST A DET.M.PL ON.M.PL saltzaile.M.PL
 ‘Saltzaile onen bila zebiltzan.’

- b. *Se buscaba a los buenos vendedores.*
 SE bilatu.3SG.PST A DET.M.PL ON.M.PL saltzaile.M.PL
- c. **Se buscaban los buenos vendedores*
- (36) a. *Buscaban buenos vendedores.*
 bilatu.3PL.PST ON.M.PL saltzaile.M.PL
 ‘Saltzaile onen bila zebiltzan.’
- b. ??*Se buscaba buenos vendedores.*
 SE bilatu.3SG.PST ON.M.PL saltzaile.M.PL
- c. *Se buscaban buenos vendedores.*

Itzuliko gara (36c) bezalakoetara (4.2.2 atala). Bizidun/bizigabe asimetriarekin jarraitzeko, litekeena da euskararekin lotura egitea, zeharkakoa bada ere. Oro har, gaztelaniaz osagarri bizidunak datiboaren marka ere baden *a* preposizioarekin markatzea OMBaren adierazgarri da. Fenomeno beraren antzeko erakusgarriak daude euskararen hizkera batzuetan: bizidun eta zehatzak diren osagarriak datiboz markatzen dira eta ez absolutibo kanonikoarekin (Fernández & Rezac 2016; Odria 2017). Inpertsoneletan ere badaude estandarrik ez diren OMBaren antzeko fenomenoak. Fernández eta Berrok (2021) erakusten dutenez, egungo euskaraz 1. eta 2. pertsonako gai osagarriak nekez agertzen dira inpertsoneletan absolutiboz markaturik (37a), eta beren ordez, datiboz markatzen dituzte hitzun batzuek (37b):

- (37) a. ??*Hemendik ez zara ikusten.*
 b. ??*Hemendik ez zaizu ikusten.*

Datiboz markaturiko gai hauek interesgarriak dira, datibo argumentuak printzipioz ez baitira subjektuak. Hortaz, (37b) ez da pasiboa, subjektu ezabatuko inpertsoneala baino, gaztelaniazko (35b) bezalaxe —ikus Berro eta beste (2022) eztabaidarako eta analisi formal baterako—. Ikusten denez, bai euskaraz bai gaztelaniaz nolabaiteko lotura dago gai bizidunen eta egitura inpertsonealen artean, pasibo egiturako subjektu bihurtu beharrean, osagarri gisa mantentzera bultzatzen dituen. Gai bizigabeak aztertuko ditugu jarraian.

4.2.2. Gai bizigabeak

Oro har, gai bizigabea daukaten perpausetan batera topa ditzakegu (34b) eta (36c) bezalako itxurazko SE-pasiboak, hau da, gai argumentuak itxuraz aditz laguntzailearekin komunztadura egiten dueneko agerraldiak. Alabaina, aditz iragankorrekin printzipioz bi SE-egiturak eskura egon beharko liratekeen arren, izatez bai katalanez bai gaztelaniaz dialekto edo hizkuntza mailaren arabera banatzen dira. Goian (2.2 atalean) dagoeneko erakutsi dugun bezala, erdialdeko katalanean, Balear irletakoan eta valentzieraz, komunztadura egiten da gaiarekin (38a), ez, aldiz, ipar-mendebaleko hizkeretan (38b) —Solà (1987); Rigau (1991: 250)—. Hortaz, itxuraz bederen, ES-pasiboak (38a)/(2b) hobesten dituzte erdialdeko katalanean-eta, eta ipar-mendebaldean ES-inpertsonealak (38b)/(5a).

- (38) a. *S'han collit les pomes.*
 ES.haver.3PL bildu.PTCP DET.F.PL sagar.F.PL
 ‘Sagarrik bildu dira.’

b. *Enguany aquí s'ha construït molts pisos.*
 aurten hemen ES.haver.3SG eraiki.PTCP asko.M.PL pisu.M.PL
 'Aurten hemen pisu asko eraiki dira.'

Gaztelaniaren kasuan *NGLEk* (2009) azpimarratzen duenez, egia bada ere SE-in-pertsonalak sarriago aurkitzen direla Hego Amerikan penintsulako gaztelanian baino, biak omen dira onargarriak:¹⁶

(39) *Se firmará(n) los acuerdos en los*
 SE sinatu.3SG(3PL).FUT DET.M.PL akordio.M.PL P DET.M.PL
próximos días.
 hurrengo.M.PL egun.M.PL
 'Akordioak hurrengo egunetan sinatuko dira.'

Pluraleko 3 pertsona komuntadura *los acuerdos* gaiari dagokio. Aldiz, singulareko 3 pertsona komuntadura subjektu ezabatuari dagokio. Komuntaduraren arabera sailkatu dugun SE-pasibo hau tipologikoki ondo kokatzearen, Blevinsen ezau-garrien arabera aztertuko dugu orain SE-inpertsonalekin bestelako ezberdintasunik sortzen ote den ikusteko.

4.3. Gaztelaniaren SE-egiturak subjektu ezabatuaren argitan

Komuntaduraren bitartez gaztelaniaz identifikatu diren bi SE-egiturak neurri batean behintzat egokitzen zaizkio Blevinsek (2003) zehazten duen pasibo/inpertsonal bereizketari. Gorago esan dugun bezala (2.3.1), SE-pasiboek ez dute edozein aditz mota onartzen; SE-inpertsonalek, aldiz, bai. Eta halaxe da: SE-inpertsonalak aditz iragankor, inergatibo eta inakusatiboekin batera osa daitezke eta SE-pasiboak, ordea, iragankorrekin baino ez.

Bestalde, gorago (2.3.1 atala) erakutsi dugunez, bi egituren arteko ezberdintasun erabakigarria gaiaren funtzio gramatikalean sortzen da Blevinsen tipologian, gaia subjektua baita pasiboetan eta osagarria inpertsonaletan. Euskararen markapen ergatiboa dela eta, funtzio horiei dagokien forma morfologikoan nekez antzeman daiteke ezer. Alabaina, gaztelaniaz eta katalanez izenordainei begira dakieke gaia subjektua edo osagarria ote den jakiteko: gaiak akusatiboa erakutsi behar du subjektu ezabatuko in-pertsonalean baina ez pasiboan. Gaztelaniaz, espero bezala, osagarriei dagozkien ize-nordainak (akusatiboak edo bestelakoak) SE-inpertsonaletan bakarrik dira onarga-riak (40a), ez SE-pasiboetan (40b):

(40) a. *A un buen escritor se le reconoce por*
 A DET.M.SG on.M.SG idazle.M.SG SE CL.DAT.SG ezagutu.3SG P
la puntuación.
 DET puntuazio.F.SG
 'Idazle on bat bere puntuazioagatik ezagutzen da.'

¹⁶ Askotan, ematen diren adibideak hizkera jasokoak izaten dira edo formulaikoak (*Se vende plan-tas*). Egile bizkaitarren gaztelanian, behintzat, gehien jota bazterrekoztat hartu beharko lireratek singula-reko komuntaduradunak.

- b. —¿*Se han recogido las manzanas?*
 SE haber.3PL bildu.PTCP DET.F.PL sagar.F.PL
 —*No, no se (*las) han recogido.*
 ez ez SE CL.ACC.F.PL haber.3PL bildu.PTCP
 ‘—Sagarrak bildu dira? —Ez, ez dira bildu.’

Lehenengo adibidean (40a) osagarriaren topikalizazioa dela eta, ezinbestekoa da izenordaina zehaztea eta osagarri bati dagokion klitikoa da ageri da perpausean, hots, *le* klitiko, leismo estandarrean maskulinoa eta biziduna den osagarri bati dagokion bezala. Oso bestela, (40b) adibidean, ezin daiteke osagarriaren klitiko akusatibo zehaztu. Subjektu komunztadura eta osagarriaren izenordaina, beraz, bateraezinak dira.

Kontuan izan orain arte gaztelaniazko SE-pasiboak komunztaduraren bidez identifikatzeko asmoa genuela-eta, pluraleko izenak erabili ditugula. Arrazoa sinplea da: gaia singularra bada, (41)n bezala, nekez jakin dezakegu zein SE-egitura den (pasiboa edo inpertsonala):

- (41) *Se ha recogido la fruta.*
 SE haber.3SG bildu.PTCP DET.F.SG fruta.F.SG
 ‘Fruta bildu da.’

Printzipioz SE-pasiboa izan liteke hau, hau da, adizkiak *la fruta* subjektuarekin komunztadura egiten dueneko. Alabaina, SE-inpertsionala ere izan liteke, eta hala balitz, aditz jokatuaren hirugarren pertsona komunztadura subjektu ezabatuarena izango litzateke, lehenago katalanerako aldarrikatu dugun bezala (2.3 atala). Jo dezagun, beraz, osagarriaren klitiko bikoizketara eta ikus dezagun zer erakusten digun (41)ko egiturari dagokionez. Gogoratu gaztelaniaz ezkerretara topikalizaturiko osagarriak ezin direla agertu klitiko batez bikoiztu gabe —(40a) eta (42b)—. Beraz (41)ko gai argumentua aurreratzen badugu inongo klitikorik gabe, (42c)an egiten dugun bezala, erraz kontura gaitezke ez duela egitura iragankor bateko osagarri batek bezala jokatzeko, ez baitu klitikorik onartzen.

- (42) a. *Los campesinos han recogido la fruta.*
 DET.M.PL baserritar.M.PL haber.3PL bildu.PTCP DET.F.SG fruta.F.SG
 ‘Baserritarrek fruta bildu dute.’
 b. *Esa fruta (*la) han recogido los*
 hori.F.SG fruta.F.SG CL.ACC.F.SG haber.3PL bildu.PTCP DET.M.PL
campesinos.
 baserritar.M.PL
 c. *La fruta todavía no se (*la) ha*
 DET.F.SG fruta.F.SG oraindik ez SE CL.ACC.F.SG haber.3SG
recogido.
 bildu.PTCP

Hortaz, (42c) ikusirik, (41)ko egitura SE-pasiboa izan behar dela dirudi.

Bestalde, orain arte behin baino gehiagotan aipatu ditugun arrazoi morfologi-koak tarteko, ez dirudi euskaraz kasua eta komunztadura irizpide erabakigarriak direnik inpertsonaltzat jo ditugun egiturak inpertsonal edo bestelakoak ote diren era-

bakitzeko: beste irizpide batzuetara jo beharra dugu (eta izatez, halaxe egin dugu) inpertsonalak direla aldarrikatzeko (ikus baita Fernández & Berro 2021; Berro eta beste 2022). Alabaina, katalana morfologikoki bestelakoa da eta ezaugarri morfolo- giko interesgarriak ditu honi dagokionez. Lehenik eta behin, katalanez osagarri bizi- dun eta bizigabeak modu berean tratatu arren, hots, gaztelaniaren OMBaren ondo- riorik gabe, ES-egituretan, gaztelaniaz bizidun eta bizigabeen artean antzeman dugun asimetria bera (42) dugula dirudi, banaketa berarekin gainera. Izan ere, dagoeneko eztabaidatu dugun bezala (2.3.2 atala), eta Bartrak (2002: 2158) beste egile batzuen artean erakusten duenez, osagarriari dagozkion izenordainak onargarriak dira gai argu- mentua biziduna denean. Nolanahi ere, nahiko erabilera modernoa da eta halako kasuak zalantzarriak dira gramatikari batzuentzat. Izan ere, Corominasen hitzetan (Bartra 2002: 2158) *regust acastellanat* ematen diote katalanaren sintaxiari—. Beraz, badirudi honelakoetan egitura inpertsonala dugula (43a).¹⁷ Oso bestela, gai biziga- beak ezinezkoak dira (43b).¹⁸

- (43) a. *No se'ns ha assegurat que se'ns*
 ez ES.CL.IPL.DAT haver.3SG ziurtatu.PTCP SUBR ES.CL.IPL.ACC
pugui rebre avui.
 ahal.SUBJ.3SG jaso.INF gaur
 'Ez zaigu ziurtatu gaur harrera egingo ote zaigun.'
- b. **La muntanya, no se la veu des d'aquí.*
 DET.F.SG mendi.F.SG ez SE CL.ACC.F.SG ikusi.3SG hemendik

Orobat, komuntzadura eta izenordainak bateraezinak dira:

- (44) **Aquestes coses se les comenten sovint a casa.*
 hauek.F.PL gauza.F.PL SE CL.F.PL.ACC komentatu.3PL sarri P etxe.F.SG

Asimetria honen argitan, 2.3.2 atalean aipatutako datu bat inguru zabalago ba- tean kokatzeko aukera ematen digu. Rigauk (1991) erakutsi duen bezala, ES-inper- tsonaletan ezin daiteke nominatiboz markaturiko izenordainik agertu subjektu gisa, eta hori gai argumentua osagarria delako seinaleztat hartu dugu. Hau argi dago gai bizidunen kasuetan. Bestalde, gai bizigabeen kasuan ere, alegia, gaztelaniaz behintzat SE-pasibotzat hartu diren egituretan, ezinezkoa da nominatiboz markaturiko izenor- dainik agertzea:

- (45) **Se han recogido ellas* [= 'las manzanas'].
 SE haber.3PL bildu.PTCP DET.F.PL
 '[Sagarrak] Bildu dira.'

Honek ez du erakusten, hala ere, gai argumentu bizigabe hau subjektua ez denik: izenordainak *personalak* dira, bizidunekin bakarrik erabil daitezkeenak eta ezin dira, beraz, (45) bezalakoetan agertu aitzindaria bizigabea bada, subjektua balitz ere. Aldiz,

¹⁷ Bestalde, Bartrak (2002: 2160) esaten duenez, hiztun askorentzat onargarriagoak dira 1. eta 2. pertsonako osagarriei dagozkien izenordainak dituzten perpausak 3. pertsonako osagarriak dituztenak baino. Zenbat eta gorago egon Biziduntasunaren hierarkian, orduan eta errazagoa da egitura inpertsonal- ak erdiestea.

¹⁸ Ikus baita 7. oin-oharra ere.

gaia biziduna denean, (40a) bezala, nominatiboaren ezintasuna adierazgarria da: gaia oraindik ere osagarria da eta subjektu ezabatuko inperpersonala dugu.

The most puzzling result emerges when we compare the tendencies in apical and fricative sibilants: in the preconsonantal context both are frequently spelled non-etymologically, but in the word-initial position there are very few examples of that. This could suggest that the merger was indeed advanced, but not completed in Sarria's variety: the word initial position can be seen as perceptually the most salient position and likely to be affected last in a merger process. This is an interesting result which calls for further study on the chronology of Western merger.

In summary, using quantitative methods I have shown in this paper that Lubieta's and Sarria's text show differences in the distribution of hypercorrections, which are consistent with the different linguistic situation at the time they were written in the Central and Western Basque, respectively.

References

- Beristain, Ander. 2018. Azpeitiko euskararen hiztegi dialektal bat – I. *FLV* 125. 7–54. <https://doi.org/10.35462/FLV125.1>.
- Beristain, Ander. 2021. Spectral properties of anterior sibilant fricatives in Northern Peninsular Spanish and sibilant-merging and non-merging varieties of Basque. *Journal of the International Phonetic Association* 52(3). 421–452. <https://doi.org/10.1017/S0025100320000274>.
- Bilbao, Gidor. 2012. Lubieta, izen berri bat euskal testuen historian. In Joseba A. Lakarra, Joaquín Gorrochategui & Blanca Urgell (eds.), *2nd Conference of the Luis Michelena Chair - Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra - II. Congreso de la Cátedra Luis Michelena*, 621–649. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU.

- Bürkner, Paul-Christian, Jonah Gabry, Sebastian Weber, Andrew Johnson, Martin Mo-drak, Hamada S. Badr, Frank Weber, Mattan S. Ben-Shachar & Hayden Rabel. 2022. brms: Bayesian Regression Models using “Stan.” <https://CRAN.R-project.org/package=brms> (2024/01/13).
- Camino, Iñaki. 2000. Abiaburu bat Donostiako euskera aztertzeko. In Koldo Zuazo (ed.), *Dialektologia gaiak*, 53-84. Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.
- Egurtzegi, Ander & Christopher Carignan. 2020. An acoustic description of Mixean Basque. *The Journal of the Acoustical Society of America* 147(4). 2791-2802. <https://doi.org/10.1121/10.0000996>.
- Etxebarria, Nagore & Ainara Apraiz. 2009. *Bizente Sarria (1767-1835) sermoitegia: XVIII. eta XIX. mendeetako euskal oratoria sakratua* (Jarein). Bilbo: Labayru Ikastegia & Bilbo Bizkaia Kutxa.
- Hualde, José Ignacio. 2003. Segmental phonology. In José Ignacio Hualde & Jon Ortiz de Urbina (eds.), *A grammar of Basque*, 15-64. Berlin: De Gruyter Mouton.
- Hualde, José Ignacio. 2010. Neutralización de sibilantes vascas y seseo en castellano. *Oihernart: cuadernos de lengua y literatura* 25. 89-116.
- Iribar Ibabe, Alexander, Rosa Miren Pagola Petrirena & Itziar Túrrez Aguirrezábal. 2020. Caracterización articuladora de las fricativas sibilantes alveolares del euskera: Primera parte. *Loquens* 7(2). e073. <https://doi.org/10.3989/loquens.2020.073>.
- Krajewska, Dorota, Eneko Zuloaga & Ander Egurtzegi. 2022. Sibilant mergers in 18th-century Basque: a quantitative study. *Phonological Data and Analysis* 4(5). <https://doi.org/10.3765/pda.v4art5.67>.
- McElreath, Richard. 2016. *Statistical rethinking: A Bayesian course with examples in R and Stan*. Boca Raton: CRC Press.
- Minkova, Donka. 2015. Establishing phonemic contrast in written sources. In Patrick Honeybone & Joseph Salmons (eds.), *The Oxford handbook of historical phonology*, 72-85. Oxford: Oxford University Press. <https://doi.org/10.1093/oxfordhb/9780199232819.013.024>.
- Michelena, Luis. 1977. *Fonética histórica vasca*. 2nd edn. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. (1st edn., 1961; repr. in *OC*, vol. 6).
- Michelena, Luis. 2011. *Obras completas (Supplements of ASJU 54-68)*, 15 vol. San Sebastián & Vitoria-Gasteiz: “Julio Urkixo” Basque Philology Seminar, Gipuzkoa Provincial Council & UPV/EHU (ed. by Joseba A. Lakarra & Iñigo Ruiz Arzalluz).
- Mounole, Céline & Ricardo Gómez López. 2018. Euskara Zahar eta Klasikoa. In Joakin Gorrotxategi, Iván Igartua & Joseba A. Lakarra (eds.), *Euskararen historia*, 469-541. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Muxika-Loitzate, Oihane. 2017. Sibilant merger in the variety of Basque spoken in Amorebieta-Etxano. *Languages* 2(4). 25. <https://doi.org/10.3390/languages2040025>.
- Nicenboim, Bruno & Shravan Vasishth. 2016. Statistical methods for linguistic research: Foundational Ideas—Part II. *Language and Linguistics Compass* 10(11). 591-613. <https://doi.org/10.1111/lnc3.12207>.
- R Core Team. 2022. R: A language and environment for statistical computing. Vienna: R Foundation for Statistical Computing. <https://www.R-project.org/> (2024/01/13).
- Sagarzazu, Txomin. 2005. *Hondarribiko eta Irungo euskara*. Irun: Alberdania.
- Schoot, Rens van de & Sarah Depaoli. 2014. Bayesian analyses: Where to start and what to report. *European Health Psychologist* 16(2). 75-84.

- Stenroos, Merja. 2002. Free variation and other myths: interpreting historical English spelling. *Studia Anglica Posnaniensia: International Review of English Studies* 38. 445-469.
- Zuloaga, Eneko. 2010. Nerbioi ibarreko euskara XVIII eta XIX. mendeetan: (I) Bizente Sarriaren bizkaierazko sermoiak. *ASJU* 44(2). 393-435. <https://doi.org/10.1387/asju.7337>.
- Zuloaga, Eneko. 2020. *Mendebaleko euskararen azterketa dialektologiko-diakronikorantz*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU doctoral dissertation. <https://addi.ehu.es/handle/10810/49846>.

Zorioneko, zorion eta Larramendi: Filologia ala hil II^{1,2} Zorioneko, zorion and Larramendi: Philology or death II

Joseba A. Lakarra*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: *Zorion* (happiness) and *zorioneko* (happy) are words which were thought up, made up, given a new meaning and, above all —directly and indirectly— spread by Larramendi, with a few clear appearances at the beginning of his trilingual dictionary and alongside and parallel to numerous testimonies of *fortuna*, *ditxa*, *felizitate* and their derivatives in the centuries up to that time and even thereafter. Significant evidence of Larramendi's determination and work can be found in the dictionary and his other texts, including the Assumption Sermon of 1740, the Burgos Doctrine and the rest.

¹ Egitasmoak: Ministeritzaren «Monumenta Linguae Vasconum. VI. Avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca» (PID2020-118445GB-I00) eta EJren «Hizkuntzalaritza Diakronikoa, Tipologia eta Euskararen Historia / Diachronic Linguistics, Typology and the History of Basque (DLTB)» (Eusko Jaurlaritza, IT1534-2).

Eskerrak zor dizkiet Julen Manterolari, Iñigo Ruiz Arzalluzi eta Eneko Zuloagari aurreko bertsio baten irakurketa arretatsarengatik eta, bereziki, Blanca Urgelli lehen nahiz gero eman bere laguntzagatik eta egindako ohar baliotsuengatik; esan gabe doa lankide eta adiskide horietariko inork ez duela gera litezkeen akats eta okerren errurik.

Lan honen laburpen bat argitaratu da gaztelaniaz *FLVn* Irulegiko Eskuari buruz prestatu monografiakoan (Lakarra 2023b). Nirearen irizkide eta osagarri eder dira hor agertzen diren Zuloaga eta Ariztimuñoren (2023) eta Manterola eta Mounoleren (2023) lanak, baita liburu honetan bertan ageri den Manterolarenaren (2023) zati handi bat ere.

² Laburdurak: AndS = Agustin Leitzakoaren Omenezko Andoingo sermoia (1763); AS = Asuntzioko sermoia (1740), AzkS = Azkoitiko sermoia (1737) [= Lakarra 1985b], BurDot = Burgosko dotrina (1747), EKC = *Euskal Klasikoaren Corpusa*, HH = *Hiztegi Hirukoitza* (1745), KS = Kontzepzioko sermoia, MendSG = Mendibururi egin Sarrera-gutuna (1747); OEH = *Orotariko Euskal Hiztegia*, SAgS = San Agustinen sermoia (1750).

Lren testuetarako Altuna & Lakarra (1990) darabilgu, baina SAgSrako baita Kaltzakortaren edizio kritikoa ere (2018), hor ezarritako formak hurbilago baitira Lren originalekoetatik edo haren kopiarik zaharrenetakoetarik; AS berriaz ikus Lakarra (2023a).

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Joseba A. Lakarra. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila - Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitatean ibilbidea, 5 (01006 Gasteiz). – joseba.lakarra@ehu.eus – https://orcid.org/0000-0003-2014-2025

Nola aipatu / How to cite: Lakarra, Joseba A. (2023). «Zorioneko, zorion eta Larramendi: Filologia ala hil II», *ASJU*, 57 (1-2), 583-611. (https://doi.org/10.1387/asju.25985).

Jasoa/Received: 2023-09-01; Onartua/Accepted: 2023-11-17.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago

As Larramendi's testimonies demonstrate, in the space of a century words written in Basque —especially in the Southern Basque Country and then to a lesser extent in the North— came to occupy a very wide area, several places in which more than one could run the risk of being considered eternal; the texts, however, assure a very different story. In the appendices at the end (§§ 7.1-7.3), using what we know about diachronic morphology, textual evidence and the history of the lexicalisation of the above-mentioned loanwords, we emphasise the scant plausibility of the proto-historical antiquity of *zorioneko* and *zorion*, by including several particular facts and considerations.

KEYWORDS: *zorioneko*; *zorion*; lexicalisation; testimonies; Larramendi; older loanwords.

LABURPENA: *Zorion eta zorioneko Larramendik asmatu, eratu, edo adiera berriz hornitu eta, batez ere, —zuzenean eta zeharka— zabaldutako hitzak dira, Hiztegi Hirukoitzaren aitizineko age-rraldi garbirik gabe eta ordura arteko eta are ondoko hainbat mendetako fortuna, ditxa, felizitate eta beren eratorrien lekukotasun ugariren aldamen edo bazterrean. Larramendiren borondate eta lan horren erakusgarri nabarmenak aurkitzen dira HHn eta haren gainerako testuetan, tartean 1740ko Asuntzioko Sermoian, Burgosko Dotrinan eta enparauetan.*

Larramendi ondoko lekukotasunek erakusten dutenez, mende bateko tartean euskara idatzian —berziki Hegoan eta gero apalago Iparraldean— hitzok hedadura erraldoia hartu zuten, hainbat non bat baino gehiago horiek betidanikotzat jotzeko arriskuan eror litekeen; testuek, ordea, oso bestelako historiaren berme ditugu. Akabuko isatsetan (§§ 7.1-7.3) morfologia diakronikoaren, testu-lekukotasunen nahiz aipatu maileguen lexikalizazioaren historiez dakigunaz baliaturik, zorioneko-ren eta zorion-en zahartasun protohistorikoaren egiantz urria markatzen dugu, hainbat datu eta gogoeta gogoangarri bilduaz.

HITZ GAKOAK: *zorioneko*; *zorion*; *lexikalizazioa*; *lekukotasunak*; *Larramendi*; *mailegu zaharagoak*.

1. Sarrera

Ariketa sail honetako aurrekoan (Lakarra 2022a) AEZekotzat edo betidanikotzat ohi genuen *jatorri* famatua 1745 baino lehentxeago eratu HHrako lanetan ziharduen garaian asmatu eta bere 1737ko Azkoitiko Sermoian eta beste zenbait lekutan —Asuntziokoan (Loiola 1740, cf. Lakarra 2023a) eta HHko sarreran [1742], haren gorputzean baino lehen— emandako Larramendiren hitza zela erakutsi genuen eta horren atzerantzko eratorri *jator* are mende bat berankorragoa oraindik. Ikusirik Hualde doktoreari harako jolas edo joko filologiko hura guztiz desatsegin ez zitzaiola gertatu, erabaki nuen bere ohoretan paraturiko bilduma honetarako beste antzeko ale bat prestatzea, berriro ere Larramendik (ez Tubalek) eskainitako berbaren baten eta bere familiaren inguruko gogoeta eta zehaztasun zenbait bilduaz. Aurreko lan horretan bezala, orain ere testuak ohi baino modu eraginkorragoan ezagutu eta lillura zabaldugeietarik urrundu beharra aldarrikatu nahi dugu, eraikuntza historikoen oinarrian hondar hutsa beharrean historikoki hizkuntzak izan dituen benetako bilakabideak gogotan izanik. Itxaron dezagun oraingo honek aurrekoaren antzeko harrera izatea gure adiskide eta lankide omenduaren partetik.

Arestian, euskaldun eta erdaldun orori, bertoko nahiz urrutietako eta are itsasoz bestaldekoiei ere jakinarazi zaie Irulegiko esku zahar berrian agertzen den SORIONEKU (edo agian SORIONEKE³) egungo euskarazko *zorioneko*-ren antzeko, pareko eta *beraz* baliokide dela eta, uste horretan funtsatuaz —gehi suposatuaz gainerako lerroetako hitzak

³ Orain irakurketa hau hobesten dute Gorrochategui eta Velazak (2023). Zuzena hori balitz ere, munta handikoa da argitzea bat baino gehiago nola iritsi den SORIONEKU eta eusk. *zorioneko* berdintza eta berdintasun hain ahularen gainean ondorio erantsiak ateratzera edo eraikitzaera.

ere hizkuntza berean idatziak diratekeela—, aldarrikatu da euskarak izan zezakeen sarbiderik ederrena izan zuela idazkeraren munduan duela 2.100 urte.

Resulta llamativo el gran parecido existente entre la primera palabra del texto, *sorioneku*, y el vocablo vasco *zorioneko* «de buena fortuna, de buen agüero», forma de flexión derivación de la serie *zori* «fortuna» + (*h*)*on* «bueno» que, si no fuera por el evidente simbolismo del soporte y por el lugar del hallazgo —el corazón del territorio vascón— cabría ser tomado por azarosa coincidencia formal. No cabe dudar de la antigüedad de ambas palabras en el léxico vasco; *incluso la unión de los elementos se documenta en los primeros textos vascos* (Agirre-Mauleon 2022: 67; etzana geurea [JAL]).

Desde el punto de vista formal la pieza tiene un escrito en caracteres paleohispánicos y en lengua vasconica. Constituye el primer documento indudablemente escrito en lengua vasconica [...] La primera palabra, que es *sorioneku*, tiene una lectura y una interpretación clarísima, inmediata desde la lengua vasca. Es verdad que las restantes palabras del texto no son tan inmediatamente comprensibles. Hay que establecer hipótesis, pero es evidente que desde la primera línea no cabe duda de la lengua en la que está escrita el texto. ([J. Velaza] in Agirre-Mauleon (arg.), 2022: 88)

Pozaren pozez ezin kabituz edo, euskaltzale eta zaletu askok ez du astirik hartu —beharbada horren beharrik ere ez zelakoan iragarpen arrandiatsuaeren ondoren— lehen ditugun hitzaren benetako lekukotasunetara jo eta haietan *zorionez* eta *zorionekoz* ikas genezakeenaz jabetzeko. Ez bide da hau, alajaina, erabaki artatsu, zuzen-zuzena, ezta inongo makurrik gabea ere euskal testuei zor zaien begirunearen aldetik (ik. Lakarra 1997, 2018): nolabait esan, –80tik +1545era artean euskal hizkuntzaren inguruko lekukotasun gutxi aurkitzea da maizenik espero duguna (protohistoriako zehaztasun txikitxoeren multzo handitxoaren garrantzia erraldoia alde batera utzirik). Baina oraingoan hutsunea ustekabea —ez hainbeste euskal lexikoaren hasi-masiak dazagutzanarentzat— ohi baino luzeago egiten da, bi mende luzeago egin ere, Etxepareren *Hasi-kinen* ondotik. Hots, harako Irulegiko ***zorioneko* hura ez soilik 1.600 (–80 / +1545), baina 1.800 urtez (–80 / +1745) ahantzia izan ote zen, bada? Horrenbestez, nahiz txinatar esaerak dioenez zuhurrak ilargirantz eskua luzatzen duenean ergelak hatzari so egiten omen dion, nahiago izan dugu —bongo-bongoaren aurkako sendabelarrei zeharbidez heldu beharrean (eusko-iberismoaz ik. de Hoz 2011, Lakarra 2013 eta orain Zuloaga & Ariztimuño 2023)— Alexandriatik bederen datorkigun praktikara jaitsi eta inori ez biderik eman ilargiaren aitzakian hatza begian sartzeko; bestalde, lekukotasunei ahal bezain ozen mintzatzen utzi diegu ustekizunak eta zaratak isil daitezten.

Zorioneko eta *zorion* sortu eta zabaldu baino lehen (eta gero ere neurri on batean) oso hedatuak ziren *ditxa*, *felizitate*, *dohain* eta *fortuna*-ren eratorriak ditugu aipagai sarrera honen ondotik (§ 2); segidan (§ 3n) *HH* eta *Lren* beraren testuetako usadioa aurkezten dugu eta (§ 4n) *zorion*-ez aritzen. § 5en Larramendiren hiztegi eta testuen lekukotasuna iruzkintzen dugu —§ 5.1 *Artea* (1729), § 5.2 *HH*, § 5.3 1740ko Asuntzioko Sermoia eta § 5.5 Gainerako testuak, § 5.4n tarte bat eginik Xurioren *Imitazioe*arekiko zorraz— eta § 6an artean ikusitako funtsezkoena laburbiltzen dugu. Ez dugu amaitu nahi izan, halere, § 7n zenbait isats gehitu gabe, dela (§7.1) *zorioneko*-ren lekukotasun garrantzitsu batzuen pisuaz (edo pisu faltaz, hobe), dela (§7.2) *zorioneko* eta *-ko* atzizkiaren jatorriaz, dela azkenik (§7.3) horren eta *zorion*-en bidez —literatura hizkuntzan— ordezkatu ziren aipatu maileguen lexikalizazioaren lekukotasun eta inplikazioez.

2. Zorioneko aurrekoak

2.1. Ditxa, felizitate eta fortunatik zorionekora

Lehen mendeetako euskal corpusean *felizitate/felizidade*, *ditxa/titxa* eta *fortuna/portuna* eta beren eratorriak dira hedaturik egungo egunean zorionek betetzen duen alor semantikoan: *felizitate/felizidade* dute Leizarragak, Tartasek, Elizalde eta XVIII. mendeko beste testu goinafar batek, eta *ditxa* (*titxa* gutxiagok, baina tartean Axularrek) Etxeparek, Lazarragak, Beriainek, Etxeberri Ziburukok, Oihenartek, Belapeirek, Mendiburuk, Kardaberatzek, Olaetxeak, Gerrikok, Iztuetak eta gainerako hainbatek ere oraindik horien ondoren. Azkenik, *fortunaz OEHL* dioskunez: «Documentado en todas las épocas y dialectos, si bien su uso es escaso en el s. xx, sobre todo al Sur» (*portuna* aldaerarekin Mogel, fr. Bartolome eta enparauko gutxi batzutan, bidenabar).

Orobat, komeni bide da gogoratzea *zorioneko*-k garai haietan inola ere betetzen ez zuen alor semantikoa bestek egiten zuela aise: *ditxoso* aurkitzen dugu lehen testuetarik Araba, Bizkaia zein Nafarroan 1745 b.l. (baita Lapurdin Etxeberri Ziburukogan ere, honek *titxos* ere badakar, halaber) eta data horren ondotik oso arrunta dateke orobat Hegoalde osoan XVIII. eta XIX. mendeetan, gaur arte:

Ditxoso ni lako amoradua. Lazarraga (B), 1193vb. *Badabere, ditxoso tenporea, ditxoso begiak, ditxoso oñak, / ditxoso burua, ditxoso soñak*. Ib. (B), 1193vb. *Birjinea izandu zan / Kristoren zerua, / aren sabel ditxosoa / da Paradisua*. CancVizc 369. *Berriak ain ditxosok eta onak*. Ber Trat 53r. *Gu, titxosak, giaudezek urrezko kadiretan*. EZ Man I 29. *Josephe ditxosoa, amaren esposoa*. Acto 372. *O begi ditxoso, zeruko edertasunak ikusi bear dituzutenak!* Cb Eg II 146. *Nazaret deritzan erri ditxosotik*. Ib. III 325. *Ditxosua ni, zuei gusto emon al baneizu*. Mg PAb 198. *Ditxoso izan uste / genduben orduban, / orrikari gelditu / gerade munduban*. FrantzesB I 146. *Inozenzijako estadu ditxosuan*. fB Ic I14. *Ditxoso izan uste / genduben orduban*. Echag 22. *Ongi izatea mundu untan eta berzean ditxosok izateko esperanza*. CatB 84. *Orain gelditzen gera / guziz ditxosuak, / irten geradelako / bitoriosuak*. Bil 33. *Txit egun ditxosua / Degu Eguberri*. Balad 196. *Ditxosua da fede onian / aitzen dana errezuau*. Mendaro Tx 126. *Zeruko jardiñaren / Loraren artian / Egon biariko degu / Egunen batian / Zein egun izango ote da / Egun ditxoso ori?* (In Iz ArOñ 127).⁴

Fortunatu arruntago da testu herrikoi eta berankorragoetan:

Fortunatu balira / Ezpatak gerrian / Elkar onditzen [= garbitzen] zuten / Kolera gorrian. Bordel 170. *Okasiyo bat emen izan da / juan dan aurreko urtian, / ni ere bistan fortunatuba, / nerau ez nitzan partian*. PE 56. *An fortunatu zaigu / Gaintzako kondia, / bi aldetara beiak / saltaka juan dia*. Ud 100. *Zazpi senide aita batenak / egotia emen triste / fortunatu da desgrazi batez, / bañan ez genduan uste*. Tx B I 132. *Portunatu da oien etxetik / dama gazte bat juatia*. Ib. 259.⁵

⁴ *Ditxaren* gainean eraturako *ditxazko* ere bada G aldean: *O zeñ ditxazkoa orduko penitentzia!* Cb Eg II 148. *Azpeitiko Erri noble ditxazko onetan*. Cb Eg III 356. *Egun ditxazkoa alderatu zanean*. Cb Just 57. *Ditxazko gizon / zerade Simon / nork lukean zure eguna*. Balad 239. GNn are *feliz* ere lekukotzen da; *Egungo egun misterioso eta feliz*. (AN, s. XVIII). ASJU 1993, 306. *Ditxadun/titxadun*-ek, aldiz, ez du bi hiztegi-gileren (Añibarroren eta Harrieten) lekukotasun bana baizik *OEHL*ren arabera. *Ditxagabe* antonimoaz ikus § 4, 18. oharrean.

⁵ Egia esan, Blanca Urgellek gogoratu didanez, *fortunatu* hauek guztiek ez dute 'zorioneko' esanahirik, 'gertatu' edo 'suertatu' baizik; halere, beren formagatik eta familia osatzeagatik hemen biltzea erabaki dut.

Ez dira *fortunoso* eta *fortunosa*-ren agerraldiak ere falta:

O, ladrón fortunoso, zein laster arrapatu zuén paraisoa! LE Ong 57r. *Nai izan zázu ta fortunoso zána: guziá itzulikodá zure oneráko.* Ib. 73v. *Alborotatu eta galerak / eman ditu itxasuak, / ango mariñel gizaraxuak / etzeuden portunosuak.* Arrantz 76. *Ni ez naiz fortunoso / mundura jayua.* Ud 100. *Bordegaraien alabak / ai ze andra fortunusak.* Balad 61.

Azkenik, *bienabenturatu* (eta aldaerak) ditugu, nagusi ez ezik, bakar ere dotrinetan:

Bienabenturatuak zeruan izanen dutela bizitze bat gorputzean eta ariman ain ona eta kontentu anditakoa eze izanen baitute nai duten guzia. Ber Doc 126v. *Aingeruek eta bienabenturatu guziek.* Ib. 129r. *Bienabenturaduak dira justiziaren egarria eta gosea daukeenak, zerren aek aseko dira.* Cap 19. *An egozan Santuak egin zirean Bienabenturadu, da urtenik, joan zirean Iesusagaz Zerura.* Zubia 151. *Bienabenturaduak Jaungoikoa ekusiaz eta amatuaz.* OA 41. *San Pedro eta San Paulo apostolu bienabenturatueri.* El 18. *Zeruko bienabenturaduak.* Urqz 29. *O zure zori oneko ta bienabenturadua, San Arseniok eriotzan bere buruari esaten zion!* Cb Eg III 216. [Aingeruek] *dire espíritu bienabenturetuek zuek dode-nak zeruen Jangoikuen gozaten.* CatUt 59. *Espíritu zorioneko doatsu eta bienabenturadu batzuek.* Gco I 466. *Zeruan dauden zorionekoak edo bienabenturaduak.* Ib. 416. *Ni bekataria konfesatzen natzaio Yaungoiko guziz poderosoari, Bienabenturatu Maria beti Birjinari, Bienabenturatu San Miguel/Aingiruari.* CatB 12s. *Espíritu Bienabenturatuak.* Ib. 39. *Bienabenturatu dulziak eta umildiak, zeren ek gozaten baitein lurra.* Hual Mt 5, 4 (Lç, He, SalabBN, Dv, Leon, TB, Ip, Ur, Or *do(h)atsu*, Echn, IBK zorioneko, Ker zoriontsu). *Bienabenturatuak padezitzen dienak persegimentu justiziaren gatik edo izateagatik justu.* Samper Mt 5, 10. *Bienabenturado dra bakezkuak, zeren urak deitruk izanen baidra Jangeikuaren aur.* CatR 69. *Espaniako gizon noble bi / bienabenturadubak, / aspaldiyan ondo dakitela / zer gusto duben zerubak.* Ud 141. *Goiko Erreinuan izan gaitezen / bienabenturadubak.* Ib. 147. [Aingeruek] *dire espíritu bienabenturatuak.* CatUlz 26. *Zeruen bienabenturetuek iten duten bezala.* Ib. 23. *Leen, Bienabenturaduak asko ziran munduan, baiña orain gutxitu egin dira.* And AUzta 47.v. tbn. CatAe 34. CatSal 69. *Bienabenturadu: Oe 51. Iraz 23. Ta Santa Tekla Birjiña, ta Martiri bienabenturada.* Cb Eg III 272.⁶

Zorion-ekikoak geroratuaz (ik. § 4) *zorionekori* dagokionez, askoz urriagoak dira *OEHk* hartaz dakarzkigunak *ditxoso*, *fortunoso* eta *bienabenturatu*-rekikoak baino: «Iparraldean soilik Harizmendi [161 *Ama zori onekoa*],⁷ *MarII* (1838), Duvoisin, Mirande, Xalbador eta Larre. Hegoaldean «usukoago bizkaitarren» diosku, soil-soilik, kronologiari arreta handiegirik eman gabe, bidenabar.

Zorioneko-ren urritasuna are markagarriago dateke iruzkin horrek premiazko dituen zenbait hobekuntza jasoz geroz: hasteko, 1745 b.l. Iparraldean Harizmendiren (1658) bakana lekukotzen omen da behin,⁸ eta ez bizkaitarrik ez enparaukorik

⁶ Halaber «bienaventuranza»-ren ordaintzat: *Miserabliak sokorritzeko / orrek baditu moduak, / noizbait ederki ikasiya da / bienabenturaduak.* Tx B II 140. Ohar bitez Gco eta besteren *bienabenturatu edo zorioneko* bikoteak. §2.2n gogoratzen denez, *dohatsu* ere soilik 1745 ondoren hasten da agertzen Hegoaldean.

⁷ Ez da ahaztekoa Harizmendi ez dela ageri Lk aipatu *HH* osatzeko erabili liburuen zerrendan, ezta Urgellek bere tesian (2000: 928hh) finkatu iturri ezagunen artean ere eta, beraz, honako honetan ezin esango litzateke beste askotan legez Larramendik Iparraldean ikasitako hitz bat Hegoaldean zabaldu duenik. Bestalde, *EKCK* Xurioren *zorioneko* bat ematen du, baina analisi faltsua da (benetan *zorion* da): cf. *Iduriz gure bakekotz eta zorionekotz* (lix kap.).

⁸ Baina ikus § 7.1 horren azterketa zehatzagorako. Bidenabar, ez dugu hemen Vinsonez geroztik konpontzeke dirauten Harizmendiren testuaren arazoez aritzeko aukerarik, komenigarri ez eze beha-

ez dugu bistaratzen Hegoaldean 1745ko data ezin saihestuzko horren aurretik. Gero, Iparraldean ia 200 urteko eten luzea dugu —oraingoz Harizmendiren hori ontzat hartuko bagenu ere—, berriro 1838an agertu arte eta seguruenik —zalantza gutxi da horretaz batarekin zein bestearekin— Hegoaldeko tradizioari (alegia, zuzenean edo zeharka Larramendiri) lotuak diren Duvoisin eta gainerakoen apurrak iritsi arte.⁹

Hots, euskararen garai historikoak hartuaz (cf. Lakarra 1997 eta Gorrotxategi, Igar-tua & Lakarra 2018) ez dugu *zorioneko* bakar bat ez Euskara Arkaikoan (1400-1600) Ipar nahiz Hego, zalantzarri bakar bat (ik. §7.1) Euskara Zahar eta Klasikoan Iparraldean eta hori ere ez Hegoaldean, 2 egile eta dozena bat kasu Iparraldean Lehen Euskara Modernoan gehi beste horrenbeste Bigarren Euskara Modernoan. Aldiz, 1745 ondoko Hegoaldean Burgosko Dotrinan (1747; ik. Altuna 1982; Lakarra 1986, 1987) aurkitzen ditugu lehen *zorionekoak*¹⁰ eta gero Larramendiren STomasen otoiitzean,¹¹ harena izan litekeen KSn (cf. Lakarra prestatzen-a), Mendiburu, Kardaberatz, Ubillos, Lizarraga Elkanoa, Añibarro, Mogel, Gerriko, Agirre Asteasukoa, Lardizabal... nor den orok darabil idatziz, baita horrelakorik tokatzen ez zitzaion Egiategik ere (*zorihun* zegokion zuberotar gisa). Horrenbestez, EKCK dakarrenez, gutxienez 428 aldiz lekukotua dugu 1800erako eta beste 210etan 1850 bitartean (638 behintzat guztira 1750-1850 tarterako) mende soil baten tartean *zorioneko*-ren mundua erabat aldatu zelarik:

1750-1800		1800-1850	
Mendiburu	252	Añibarro	051
Kardaberatz	075	Zabala	043
Mogel	058	J. J. Mogel	031
Larramendi	011 ¹¹	Iztueta	028
Olaetxea	009	Laudioko Dotr.	010
Ubillos	006	P. Astarloa	009
Lizarraga	006	Etxagarai	008
Peñaflorida	001	Iturriaga	005
		B. Mogel	004
		J.B.Agirre	003
		J.K. Etxeberria	001

rezko ere litzatekeen arren; bitartean ikus ohar bat edo beste § 7.1en. Oso litekeena da aurki berri onak izatea gai honetaz, Xabier Etxagibelek amaituak eta amaitzear dituen lanen ondoren Harizmendiren inprimatuaz eta eskuizkribuez.

⁹ Cf. Lakarra 2023a-ko zenbait kasu (Duv *batasun*, *beartasun*, *berritasun*, *egiztatu*, *eskualde*, *illuntasun*, *mundutar*, *oarmen*, *obiezbezelako*, *zorion*; Mirande *egiztatu*, *oarmen*, *sarrera*) eta lehenago (2022a)-n *jatorriz* (bataren zein bestearen lekukotasunak; Duvoisinez ikus lehenago Urgell 2018: 634). § 7.1en bada zehaztasun gehiago *Marll*-i buruz ere.

¹⁰ Ezaguna denez, dotrina honetan Mendibururen originalari Larramendik hainbat zuzenketa eta gehiketa egin zizkion eta horiek onartu eta bildu ondoko bertsioa argitaratu zen; ik. § 3, non markatzen den Lren eskuak erantsiak direla originaleko *doatsuac*-ei gehitu horko *zorioneko* ugariak.

¹¹ Telletxeak argitaratu zuen (1975) Madrilgo Historiaren Akademiako Artxibutik, datarik zehaztu gabe, ordea.

¹² Ikus § 4.5en zehaztasun gehiago, tartean EKCK bildu gabeko Larramendiren testuren bat.

2.2. *Dohatsu*

Zorionekoren eta bera hedatu baino lehen (eta gero) ziren eta diren dagoeneko aipatu mailegu sinonimo edo ordainen historia ez litzateke inolaz ere osoa *dohatsu*-z ezer esan gabe utziko bagenu. Gainerako haiek ere partez Iparralde eta Hegoaldean zabalduak ikusi ditugun arren, hara zer dugun hor nagusi Leizarragaz geroz bederen, gaur bertara arte:

Dohatsu dirade spirituz paubreak: zeren haién baita zeruetako resumá. Lç Mt 5, 3 (Echn, IBk e Ibe *zorionekoak*, Samper, Hual *bienabenturatu*, Ker *zoriontsuak*). *Gauza dohatsuagoa dela emaita ezen ez hartzea.* Lç Act 20, 35. *Hala ere dohatsu dela nork baituke grazia.* EZ Man I 53. *Zeure iainkozko zuhurzia eta argi dohatsua bitarteko emanik.* Harb 88. *Ezta konzientzia simplea, plauna eta malizia gabea baiño gauza dohatsuagorik.* Ax 447 (V 292). *Dohatsua, zeinetarik, / Zeinen beso bietarik / Urkaturik egon baita / Sekuru ororen garhaita.* «Beata» (*Vexilla regis*). O Po 66. *Horra zein bizitze doatsu daraman gizon hark.* SP *Imit* I 22, 2. *Arabia doatsuari* [«Arabia Felix», Yemen] *hurbiltzen zitzaiola.* SP *Phil* 478. *Tromentak gloria lituzkek, / Dohatsu, dohakabeak; / Suak eder, nigarrak gozo, / Bozkario doloreak.* Gç 181. *Paradiusia, non dohatsiek jinkoa den bezala ikhusiren, maithatiuren eta gozatiuren baitie.* Bp I 39. *Munduan ezte la hain zortha dohatsurik nola noble sortzea.* ES 106. *Oi noiz ethorriko da horen dohatsu, oren hanbat desiratu hur bezala.* CatBurg 23. *Emadazü mündü huntarik jalkite dohatsü bat.* Mst III 57, 4. *Zeruan Jangoikoa gozetan dagozan Espiritu Doatsu batzuk.* Cb *CatV* 37 (CatLuz 17 *dohatsu*, Legaz 23 *doatsu*). *Zeruko bide dohatsua.* Lg I 198. *Dohatsü dira bihotza xabü dütenak.* CatLan 42. *Lurrean bizi diran Erregeak baiño doatsuagoak dirala Zeruan bizi diran Santuak.* Ub 155s. *Arima doatsuak* (301). LE-Ir. *Gure funts-gabea, / Enganio tristea, / Baldin uste badugu / Munduan izan dohatsu!* Monho 142.a. Ch III 34, 3. *Dagigula Jainkoaren borondatea lurrean gaudenok, doatsuak zeruan*

1800 artekoak baino ez ditut ematen luze jo eta alperriko bailitzateke *OEH*ko guztiak —*in extenso* eman beharrean zifra hutsean aurkezten dituztenak soilik balira ere— hona ekartzeak. Edozein iruzkin baino lehen, hiztegi horretako «De empleo general, aunque está escasamente documentado en textos vizcaínos» zeharo zuzendu edo zehaztu beharra agertzen zaigu: 1745 baino lehen soilik Iparraldean agertzen zaigu, ez Bizkaian, ez Gipuzkoan, ez Araban, ez Nafarroa Garaian eta Hegoalde osoan —*HH*ko «beato, glorioso, bienaventurado»z landa— Larramendiren bi testutan (Burgosko Dotrinan eta San Tomasen otoitzean), geroago datozkeen Kardaberratz, Ubillos, Añibarro, Agirre Asteasuko eta enparauen aurretik.

Dohatsu ere etimologikoki oinarri mailegatu baten gainean (errom. *done*) eratutako alomorfo modernoko (-*tsu*, ez -*zu*) atzizkidun hitza dugu,¹³ baina bere hedadurak eta ugaritasunak bertakotuagoa eta, apika, aurrekoak baino zaharrago egiten dute ekialdean.

Hegoaldean 1745 ondoren erabiltzen hasten denez, beste hainbatetan bezala ere Larramendiren hartzekoetan sailkatu beharko dugu (cf. Lakarra 1985a), hots, bere Ipar > Hego zubilanaren (orokorrago, dialekto guztietako hitz egokiak EH osora zabaltzeko asmo eta lan erraldoiaren) zordun; hara kide gehiago baduen Hiztegiko pasarte adierazgarria:

Estas diferencias y las que están en el Arte, hacen principalmente este dialecto [Iapurtera] y no digo nada de los nombres y verbos porque estos deben hacerse comunes a todos los dialectos, como lo procuro en el Diccionario. (*HH* xxviiij)

¹³ Ordea, ez zuzenean: *dohain*, *OEH*k dioen legez, hasieran trisilaboa zatekeen Zren azentuerak erakutsi bezala; beharbada **dohe* + **enin/egin* batetik?

3. *HH*, Larramendi eta haren testuak

Aldaketa markagarri eta ezin harrigarriagoa —*zorioneko* bakar eta eztabaidagarri bakana (ik § 7.1) xvii. mendean Iparraldean eta fisik ere ez 1745 arteko Hegoaldean izatetik, hemen bertan 1745 ondoko mende bakarrean ehundaka adibidera igarotzea— oraingoan ere Larramendiri zor zaio, zalantzarik gabe.

Hara *HH*ko lekukotasunak:

- «Afortunado, *zori onecoa, patu onecoa, doatsua*. Lat. Fortunatus, a, um; felix, cis»,
- «Afortunado más, *zori obecoa, patu obecoa, doatsuagoa*»,
- «Afortunado demasiado, *zori oneguicoa, patu oneguicoa, doatsueguia*»,
- «Beato, *doatsua, zorionecoa*. Lat. Beatus»,
- «Bienandante, *zorioneco, patuonecoa, doatsua*. Lat. Felix, fortunatus»,
- «Bienhadado, *patuonecoa, zorionecoa*. Lat. Fortunatus»,
- «Dichoso, *dichosoa, doatsua, doaintia, zorionecoa*. Lat. Felix»,
- «Dichosamente, *dichosquiro, doairo, doainquiro, zorionean*. Lat. Feliciter»,
- «Feliz, *doatsua, doaitia, zorionecoa, patuonecoa*. Lat. Foelix»,
- «Felizmente, *doatsujui, doatsuro, zoriongui, zoriondó*. Lat. Feliciter»,
- «Próspero, *doatsua, zori onecoa, patu onecoa*. Lat. Prosper, fecundus, felix»,
- «Prosperar, *doatsutu, doatsu eguin, aberastu, patu onecoa, zori onecoa eguin*. Lat. Prosperare»,
- «Prosperado, *doatsutua &c.* Lat. Prosperatus».

Erants bekie aurrekoei «*zorionecoa*, dichoso, feliz, bienhadado» eusk-gazt. hiztegian.¹⁴

§ 2.2 atalean ikusitakoarekin bat, Larramendiren testuetan *zorioneko HH*ko sarreteran *zorionen* sinonimo gisa agertzen den *dohairen* eratorriarekin (*doatsu*) konbinatzen da: San Kasimiroren otoitz datagabeen «Esazu begi doatsu, Virgíña *zorionecoa*» (non *doatsu* = *zorionecoa*), Andoaingo Sermoian «Zorioneco guizona ninzala ni esango luque munduac», «ceruán duén doatsutásuna eta beti *zorionecóa* izátea» (*doatsutásuna* = *zorionecoa* izátea), eta hor bertan «cerren séculaco doatsú eguín dezutén, ta *zorionecó* sántuen lagún (*doatsu* = *zorionecoa*).

Burgosko Dotrinan (1747) hainbat aldiz (8tik 8tan) agertzen da *zorioneko*, dotrinako beste hainbeste 'bienaventurado' itzultzen dituen hitz hori.¹⁵ Testu horretan B eskuak [Larramendik] egindako oharrek ikusiaz errazki antzeman genezake hark gehituak direla 44.7-8 «doatsutasunac *edo zorionac*» nahiz orri bereko hainbat «Doa-

¹⁴ P. Altuna editorearen iritziz *HH*ren bihurteta M-ra inolaz ere ez eta gehienez ere aurreneko bospasei hizkien azpian diren hitzetara baino ez zen iritsi (cf. Altuna 1967: 143), baina azterketa askoz zehatzagoa beharrezko litzateke B. Urgellek (2000: 10-13) proposatu bidetik [eskuineko erdarazko ordainetan oinarrituaz, funtsean]. Lakarra (1992: 300en) hurbilketa ez hain garatuaren bidez oraindik ere mantentzen litekeela deritzodan ondorioa iritsi ginen: «Ikus daitekeenez azken hitzak erdara-euskara hiztegian *des*-ekin hasten diren sarreretakoak dira gehienez ere. Saio berau egin dut [Hiztegi] gainerako letra guztiakin ere eta ez dut kontrakorik eriden. Hortik aurrerako erdal itzulpenak (*e*-, *f*- edo beste has-ten direnak) sarrera horietan ziren (usu azalpen edo eratorri gisa) eta ez dioskute L aurrerago joan zenik bihurteta lanotan». Beraz, testuan aipatu hiruretarik «bienhadado» dugu *zorioneko*-ren ordain seguru bakarra.

¹⁵ Bidebar, *edo bienaventuratu*-rik gabe, hitz garbi berria inolako zalantzarik gabe finkatua balitz bezala. Horiekin batera eta esku berak gehituak ditugu *doatsutasunac edo zorionac* (2tan) eta *zoriona ta gloria* esanguratsuak ere (cf. § 5.5)

tsuac»i erantsi *zorionecoac*, eta esku berarenak dira hurrengo orrialdeko bi sailetariko gehiketak (cf. Lakarra 1986: 587 eta Altuna 1982an Mendibururen eskuizkribuez).

Larramendiren erabilera eta bere eragina testuingururik behinenean jartzeko on da *OEHN bienabenturatu/bienabenturadu*-ri so arin bat ematea (§ 2): Beriainek, Kapanak, Zubiak, Otxoak, Elizalde, Urkizuk —Larramendi aurretik otoitz hori duten Hegoaldeko dotrina guztiek— dakartzate hitz horren aldaera bata edo bestearen agerraldi ugari eta Larramendiren ondotik baita Kardaberatzek ere —nahiz honek bere obra erraldoian 75 *zorioneko* ere izan *EKC*ren arabera—; geroago, *bienabenturatu* Utergako dotrinak nahiz Gerrikok edo Baztango dotrinak (1826), Hualde Mayok (Ebangelioan zein dotrinan), Samperrek eta are Ultzamako dotrinak (1906), Larramendiren eraginetik urruti guztiak ere (cf. Sarasola 1986). Kardaberatzen *Santa Tekla Birjina eta Martiri bienaventurada* mozio erromantzeduna maileguaren erro zabalena lekuko dugu.

Azkenik, Larramendirena izan litekeen Kontzepzioko Sermoian ere (cf. Lakarra prestatzen-a) badira zenbait *zorioneko*: *Zori oneco egoera onetan Jangoicoac eman cien aen obediencia probatceco mandamentu erraz bat* (2), *berac eta beren ondorengo guciac beti zorionecoac izango cirala* (2), *Maria guztiz garbi eta zori onecoa* (4).¹⁶

Zorioneko-ri buruzko informazioa ez litzateke osoa haren kide *zorionezko* aipatuko ez bagenu: «Más frecuente al Norte. Al Sur solo se documenta a partir del XIX» diosku *OEHK*. *EKC*aren arabera EtxZib (*Elizara* (3) [*Noelak* eta *Manuala* (0)]), *Pouv. Philotea* (1) eta Haraneder (3) eta Xurio (2) 1750 arte, eta Larregi (11) eta Baratzart (2) 1800 bitartean. Gero Duhaldek 7 eta Añibarrok eta Zabalak bana dute XIX.aren lehen zatian. Soilik 1850-1900 bitartean hazten da hitzaren erabilera, Lapeire, Daskonagerre, Arbelbide, Goihetxe, Lapitz eta, batez ere, Duvoisinen bitartez (honetaz ikus § 7ko oharra).

Hauetarik guztietarik Larramendirentzako iturri seguru edo inspirazio egiantzeko bakarra Xurio litzateke, izatekotan:

- Nork ezaduka bere burua dohatsu momentu *zorionezko* hartan? Bere gogara dabilla graziak darabillana eta ez da mirakullu ez bazaitzu deus pisu iduritzen, Jainko guziz podorosoak sustengatzen eta gidatzen gaituenean (IX. k)
- Ala *zorionezkoa* baita arima, dohatsua bihotza, bere Jauna eta bere Jainkoa erre-zibitzeko gai dena eta hura erre-zibitzean bozkario sandu batez bethetzen dena! (III. k).

Alabaina, ez dirudi hori ere izan zenik Lk eredu bezala baliatu zuena: § 7ko de Rijken aipua eta hari egindako oharra erakusten dutenez, ez da beharrezko eta ezta egingarri ere Lk Iparraldeko autoreen batean —Xurio nahiz bestetan— *zorioneko* ikasi izana edo, erraxago edo egiantzekoago dena, L haietan inspiratu izana berak sortzeko, *zorioneko* < *zorionean* / *zorionezko* < *zorionez* + *-ko* izanik eta hauen distribuzioa, funtsean Ipar / Hego delarik. Ikus §7.1n baita Duvoisinen eta *Maril*-en bi eratako formez ere.¹⁷

¹⁶ Baita *zorion* ere; ik. § 5.5.

¹⁷ Gainera, B. Urgellek gogoratzen didanez, Xuriok *dohatsu* darabil dagokion bezala *-zko*; atzizkiak ikus 31. oharreko *Arte*-ko aipua. Haatik, Xurioren *zorion*-ekiko zordun den partetik (cf. § 5.4), bigarren gradu baino ez bada ere, orobat litzateke *zorioneko*-ri dagokionez. Aurrerapen garrantzitsuak dakartzate Xurioren testuaren bilakabideaz eta iturriez Irurek (2023) eta Urgellek (2023).

4. Zorion

Zorioneko ‘feliz, afortunado, bienaventurado’ ez bide dugu duela 2.100 bat urte ezinezko zen eta bere sustraiak askoz geroago dituen hitz-familia horretako kide bakarra (cf. baita Manterola & Mounole 2023 eta Manterola 2023 ere). Gorago ikusi dugunez *zorioneko*-ren ale exkax bakar bat *ditxoso*, *fortunatu*, *fortunoso*, *bienabenturatu* eta *dohatsu*-ren olatu eta itxasoen artean aurkitu uste du OEHk (§ 2) eta orain antzeko egoera bistaratzeko zaigu *zorion*-i dagokionez, *ditxa* eta are *felizitate*-rekin eratzeko askoz exkaxago delarik enparauen aurrean:

Ditxa / titxa

Ni gathibu nadukana kaptiba da berzeren; / ene ditxak hala egin du, ni gathibu bigaren. E 133. *Egundano izan daia ni bai ditxatakorik?* Ib. 225. *Jaun Zerukoak, arren, dindala / kunpletako ditxea.* Lazarraga 1196v. *Desditxaduau ditxaetan / beti narabil galdurik.* Ib. (B), 1200vb. *Bentura ain ditxa anditakoau.* Ber *Trat* 42v. *Titxa onean / iaio zinen saindua.* EZ Noel 153. *Ene ditxa gaitza egieki, / Ardura dut borogutzen.* O *Po* 21. *Ditxa onak, nola baita bera itsu, / hari darraizkonak itsutzen ditu.* O *Pr* 116 (v. tbn 113, 114 y 115). *Horrek zer ditxa derio?* Bp II 89. *Deabru gaistoak ari ta guri geren ditx andi hau galerazi naizik.* Mb *IArg* I 261. *Latin ta griegoak askokajinen ditxa ta gloria ori izan badute.* Cb *EBO* 9. *Santuen zeruko ditxak kontenplätzen.* Cb *Eg* II 181. *Santuak an dauken ditxa ta zorionean.* Oe 66. *Betiko ditxa eta zoriona iristeko.* Gco I 397. *Ditxa andi ezin obeagoko oek begien aurrean daudela, zer eragozpen arkitzen da?* ‘Ventajas’. Izt *C* 149. *Ditxa gabeko denbora.* Bordel 47. *Eskerka zagokon titxaz zeruari.* Gy 318. *Zein kristau ditxa artan arkitu naiko ez litzake?* Lard 458. *Ez dakizu neretzat / nolako ditxa dan.* Bil 74. *Beste nornairen arpegia ikusteko ditxa eskatuaz.* Arr *GB* 48. *Santuari ostatu emateko ditxa izan zuten.* Aran *SIgn* 30. *Begira, kofrade ditxaz betea, alderdi guztietara.* Ag *Serm* 87. *Orain ditxa bat ona / bada kupleletan.* JanEd I 84. *Ez dala gure ditxa lurreko diruan.* AB *AmaE* 408. *Nik dedan ditxa ez dadukate / munduan diran guzizyak.* Tx *B* II 156. *Ez da ditxa oberik mundu onetan.* MendaroTx 272. *Mila ditxa ezti gozatu eta dastatu bazituzten ere.* Arti *Ipuin* 76. *Ditxa bat bazuan berekin: arek etzuan emaztearekin sesiorik jarriko.* BBarand 166.

v. tbn. Tt *Onsa* 74. Saug 97. Zubia 154. *Acto* 447. Urqz 79. Mg *PAb* 113. fB *Ic* II 290. Bv *AsL* 216. Ud 109. *EusJok* 77. In *Etxabu Kontu* 98. *Auspoa* 97, 61. In *BAyerbe* 37.¹⁸

Felizitate / felizidade

Gure felizitatea eztela lurrean konsistitzen. Lç *Ins* C, 8r. *Paradisoa da elijituek aingeruekin perpetualki Iainkoa baithan duten felizitatea.* Lç *ABC* I8r. *Felizitate eternala.* Tt *Onsa* 80s. *Ebetan dago mundu ontako felizidadea.* El 93. *Partizipanteak ditxa eta felizidade untan.* (AN, s. XVIII). *ASJU* 1993, 909.

¹⁸ Ez da ahaztekoa *ditxagabe*-ren (nahiz *ditxabage*, *titxagabe*, *titxakabe*-ren) mordoa ere:

Ala andrea ditxabaga / sortu bazan neskaetan! Lazarraga 1197r. *Ondasun oek galdu badagit, / semea ditxabagea.* Ib. 1196r. *Ditxabageau joan ninzan / ezer baga eskuetan.* Ib. 1197r. *Titxakabeen obi da konsolazionea / Dohakabe zenbait lagun penetan izatea.* EZ *Man* I 101. *Urrun dietzadatzu titxakabe helantzak.* EZ *Man* II 121. *Ai ene titxa gabea, ene on beharra eta urrikalkizuna.* Ax 476 (V 308). *Euskera baño ditxa gabeagorik ezta ikusi.* Cb *EBO* 17. *O miñgañ ditxagabe Jaunaren kontra itzezin dezuna!* Cb *Eg* II 35s. *Galduba nas betiko nire ditxa bagia.* Mg *PAb* 76. *O ze ditxabagea, o ze negargaria gelditu zarean!* Obe zen-*duke jaino espaziña bere!* Añ *MisE* 53. *Zahartze titxakabena / Da iragan behar dudana!* Gy 252. *Ditxagabea beriz Santu aiei deika asi zan.* Arr *May* 23. *Galdu naz bada, alaba ditxa bagea.* (V-m). A *CPV* 932.

OEHk Iparraldean Etxeparez (*zori honian*) eta Hegoan Lazarragaz geroz (*zori / onean*) lekukotutzat ematen du *zorion* eta XVIII.aren erdialdetik orokortzat jotzen, zubereraz landara. Han soilik Egiategik, Arxuk eta Casenavek darabiltela gehitzen du eta baita *zorihun* agertzen dela zuberotarrengan eta *CatLanen* (58, *gure zorihun edo zorigaitz sekülakua*).

Alabaina, Etxepareren *zori hon(ian)* nahiz Lazarragaren *zori on(ean)* —bigarren hau *h*-rik gabe arrazoi ezagunengatik— Zko *zorihun*ekin doaz (ez Egiategi eta enparatuen larramenditar *zorion*-ekin). Hots, *zori* + (*h*)*on*-en balio konpositional zaharra dute, ‘aldi, une, ordu, sasoi...’ + ‘on’,¹⁹ eta ez geroago (Larramendiren hiztegiaren ondotik) ia orokortuko den *zorion* konposatuaren ‘felicidad, dicha, bienaventuranza’. Egiategik segurtasun osoz —eta egiantzekotasun handiz gainerakoek, zuzenean edo zeharka— Lren *zorion* konposatu modernoa dakar, 3. silabako *h*-rik gabe —bentako konposatuek zor bezala— eta *on* > *un* ere gabe, bestelako dialekto batetik (Lren *HHtik*) mailegutuan hartutakoei dagokien legez (gogora orok. *gizon* > *Z gizun*). *EKCK* Etxeberri Ziburukoaren *Noelaketik* ‘zorte, ordu on’ gisa har daitezkeen hiru *zorionean* dakartza (*zorionean zarela mundura ethorria*; *zorionean zarela sorthu*; *zorionean dela Jainko Semea sorthu*), eta beste hainbat *zorionez* ere (oraingoan baita bat *Manualetik* ere: *Kaltetik defenda zazu zeure poplu maitea. Eta zorionez bethe primezazko jendea*) eta are Pouvreauren *Imitazioneko Hala zori gaitzean nola zori onean* ere.

OEHn ez dator *zorion* ‘ditxa, felizitate’ garbi bakar bat ere 1700-1750 aldirako²⁰ eta ondoko mende erdiarentzat Mendibururen 8, Kardaberatzen 3, Mogelen beste hainbeste, Larregiren 2 eta Robinen 1; bada oraindik Olaetxearen *ditxa eta zorionean* bat, eta hau *zorion* ‘berrietarik’ dugu, zalantzarik gabe, bere bikote horrekin batera *HHtik* ikasia (cf. § 5.2).

Ez *zorioneko* eta ez *zorionezko* ere ez zuten legez, Leiz-ek eta Ax-ek ez dute *zorionik* ‘felicidad’, ‘dicha’ adieran —horretarako *felizitate* eta *ditxa* darabiltzate, hain zuzen ere— eta ‘ordu,aldi, une (on)’ dirudi Oih eta gainerako gehienetan; *Hartarakotz, Iaun puxanta, zuk iguzu sartzea, / traba guztiak khendurik zori onez bethea*. EZ *Man* II 139 eta *Zer zori-on desira dezaket handiagorik?* Ch III 34, I izan litezke esanahi berriaren oinarri garbienak²¹, baina biak ere ongi sartzen dira usadio zaharrean: *zori* ‘une’, ‘aldi’.

Honenbestez, *zorion* ‘dicha, felicidad’ modernoa ez da *zori* + (*h*)*on*²² hutsa baizik, nahiz eta bide luzeagoa egin ondoren *zori* + *hon-ean* > *zorionean* → *zorioneko* eta hemendik → *zorion* atzerantzko eraketaren bidez garatua (ikus de Rijk 2008ko oharrak § 7.2n «postposition deletion» delakoaz).

Oraindik ere *zori on* ‘ordu, une on’ / *zori gaitz / gaizto* ‘ordu, une txar’ (cf. *HH* s.u.) eta *zori onean* ‘ordu onean’ (ez ‘dohatsutasunean’) nahiz *zori onez* ‘une onean’ aurki daitezke *HHn* eta baita mordoxka batzuk 1800 aldera eta geroago ere: *Gure zorihun edo zorigaitz sekülakua*. *CatLan* 58, *Izanen dugu parte Mikhael Arkhan-*

¹⁹ Cf. *Nor da [...] heldu zaizkigun zorigaitz guziei itzur abal dakiketena?* Ch III 45, 3, *Gure zorihun edo zori-gaitz sekülakua* (*CatLan* 58) eta orobat *Izanaz aberats izaitea, eta gogoz pobre egoitea, da giristinoaren zoririk hoberena*. SP *Phil* 264.

²⁰ *EKCK* Xurioren *zorion*-i dagokion *zorioneko*- bat dakar aurreratu dugunez; ik. § 2ko 7. oharra eta § 7.1.

²¹ Biak izan zitezkeen Lren iturri (cf. Urgell 2000 eta 2005) nahiz ez segurki Axular edo are Leizarragaren pisukoak; ikus beherago § 5.4n Xuriorekikoak.

²² *h*-honen izaera etimologikoaz (*pace* Mitxelena *FHV*), ik. Lakarra (2015).

jeluaren zori onean Jaur 410, *Eta ni, zenbat enizate dohatsü zure zori hunaz!* Arch Gram 45; Hegoaldean ere Gandarak Larramendiri egindako gutunean (*Eranzumenik artuteko izan eztot zoririk*) eta Mogelek bai 1800eko gipuzkerazko dotrinan (*ezta bardin ta era batekua areen ta gure zoriija; nola gero zori edo suerte ona izango due?*) eta baita geroxeagoko *Peru Abarkan* (*Iges egiten badeutsa zori onak*) ere.²³ Labur, ez zorioneko eta ez zorion konposatua ez ziren ez -80an eta ez +1545 baino menderen bat geroago ere.

5. Larramendiren hiztegi eta testuetako lekukotasuna

5.1. *El Imposible Vencido* (1729)

Gramatikaren VI. atalean «Apendiz de la poesía bascongada» deritzon —beharrezko zeritzon bereari ere atal hori eranstea ez zekion faltan gerta latinaren eta enparauko hizkuntzetako gramatiketan usuko zena—, egileak euskarazko poesia nahi zuen azaldu, eta hori «así de la que está en uso, como de la que es capaz». Lehen alderdiari dagokionez, Etxeberri Ziburukoaren *Noelaketik* eta *Manual Devotionezkotik* adibide bana ematen, iruzkintzen eta gorai patzen ditu bertan, Haranbururen beste batekin osatuz atala.

Bigarren gaiari dagokionez («de la [poesía] de que es capaz»), euskara edozein neurri eta moldetan ere jarduteko erromantzea bezain gaitua dela aldarrikatzen du, eta horretarako zenbait adibide eskainiko dituela iragartzen. «Euskara» bat, hots, erdarazko «romance» baten ordaina, aurkeztu eta gero hasten dira guri orain axola zaizkigun iruzkinak:

Poco ha se compusieron un soneto y tres décimas en bascuenze con sus traducciones castellanas y han sido la prueba mejor de la poca inteligencia que los vascongados tienen de su hermosa lengua y de las leyes de la traducción. No me admiro que el soneto y décimas vascongadas en que se afectó alguna elevación y obscuridad necesiten de comentario porque sucede lo mismo en muchas poesías latinas, castellanas y otras, que necesitan de escolios para entenderse. (*Arte*, 389)

Alegia, ez ohiko, ez usuko poesiarekin, baina *litekeenarekin* edo *egingarriarekin* ari gara, beraz, —Larramendik bere testuetan behin baino gehiagotan zerabilen *eginkizunarekin*,²⁴ alegia— eta, horrenbestez, *litekeen* hizkuntzarekin ere dihardugula ulertu beharko dugu, orobat. Hara, bada, egileak demaigun adibidea:

Lo que es de admirar es que aun hasta los nombres más obvios se les hagan difíciles por solo mudar el caso, dexar el artículo y otras variaciones propias de la syntaxis. Dirán fácilmente lo que significa *zori oneán*, como también *eché onean*; pero si se les pregunta que es *zori-á?* responden *nic daquit bada*, que no lo saben; etá cer oté da *eché-á?* Ori badaquigu: *zori-ónac*, *eztet aditzen*; *eché ónac bai*. No puede imaginarse

²³ Cf., xix. mendearen erdialdera Duvoisin lapurterra eta Bilintz gipuzkoarra: *Ephe laburrik barnean*, nere zoriaz jakintsun eginen naiz, Dv Led 54; Zori obeko *beste denboraz / maite ninduen ezin geiago*. Bil 111.

²⁴ *HFk* 'factible'-tzat dakar, beste ordainik gabe; 'possible, cosa possible, *izaquizuna*, *eguiquizuna*» eta «posibilidad, factibilidad, *izaquizundea*, *eguiquizundea*. Lat. Possibilitas» dakartza, aldiz, eta 'potencial, *alegoquiduna*».

menos reflexión. Más: entienden lo que significa un adjetivo acompañado con un nombre y al mismo adjetivo no le entienden, acompañado de otro.

Ondorioa, oso larramenditarra:

Orain bada sinis nazazu, ez daquizula euscaraz eta aimbat guichiago daquizula, ceimbat gueiago uste dezun. Es menester pues que se persuadan que si no dan en unas cosas tan fáciles, mucho menos darán en las recónditas y dificultosas, que no se aprenden sino con grande estudio y trabajo. Pongo ya el soneto y las décimas...

Eta ondoko orrialdeetan datorkigu *zori on* horri dagokion ahapaldia: *Jauná, eguín edér orrez / Zori on cecenari / lun-erdiac dituenari / Illarguí betezcó ohorréz* (sic). «Tu acción brillante Señor / Dio a la fiera mil fortunas / Poniendo sus medias lunas / En plenilunio de honor», hots, *OEH*ko 'felicitación, enhorabuena'. Aitortu ahal da *zori on* zein *zorion* ez dela horko zailtasun eta berrikuntza bakarra eta ezta agian nagusia ere (cf. horren kide *onesgun, indardun, onesle-usartzí, icigun, mindun, escutagai, hilgunaz, basotia, hiru bostgun, esanguiac, etab.*).

5.2. *Hiztegi Hirukoitza* (1745)

Hiztegi Hirukoitz-ean Larramendi *zorioni* buruzko zertzelada eta adiera berriak eranstera dator: «Fortuna, felicidad, *fortuna, patu ona, zoriona, azartona*. Lat. Prospera fortuna». On da ohar gaitezen sarrerako euskarazko lehen ordaina²⁵ *fortuna* bera dela eta *patu ona* bigarrena, hots, mendebaldeko dialektoei *HHn* erregulariki esleitua, baina oraingoan Gkotzat eman behar *OEH*ko datuen arabera; soilik 3. tokian dugu *zoriona*, hots, *zori ona*. Are nabarmenago: eman dugun sarrera izatez *fortuna*₂ litzateke eta ezin ahantz *fortuna*₁ horren aurrekoxea:

Fortuna, se tomó de el vascuence, *fortuna* y viene de *sortuna, sortzeduna*, el de los sucesos, nacimientos o *sortu-ona*, buen nacimiento, successo. *Fortuna, patua, zoria, azarta*. Lat. Fortuna».

Adiera zaharrak hor dirau, halere:

A buena hora, a mala hora viene, *mugonean, mugonez dator, mugaitzean, mugaitzez dator, ordu gaistoan, donguean dator, ordu gaistoan, donguean dator*, &c. Lat. Tempestive, intempestive invenit. En buena hora vengá v. md. *ordu onean, zori onean datorrela*. Lat. Fauste ac feliciter adveneris.

Baina dagoeneko (*Arte*-an ez bezala) Lrentzat *zorion*-ek beste adiera bat zuen:

«Dicha, felicidad, *dicha, dichea, doaya, doaiña, zoriona, doatsundea*. Lat. Foelicitas».

²⁵ Urgellek erakutsi duenez (cf. 2002: 639-648, batez ere 647) *HH*ko sarreretako euskal zatiaren osagaien antolamendu eta hurrenkera ez da zorizko edo halabeharrezkoa, beti berbera edo oso antzekoa baizik: (G + B + L/N + asmatua). Honek esanguratsu egiten du *zorionen* kokapena, Lk berak asmatu *doatsundearen* aurretik. Hori bera gertatzen da behe-rago gogoratzen den erabilerarekin: 15 aldiz *dixari* lotua eta soilik behin *zorion* bakar edo beregaina; gogora, azkenik, *Arte*ko atalaren izena.

§ 3ko *HH*ko lekukotasunak azertzen baditugu 'afortunado'-ren ordainak (*zori* 1. kokagunean, *doatsu* 3.ean) zaharrago dugu 'feliz', 'próspero', etab. baino, non *doatsu*-ren adibideak lehenik doazen eta *zorion*-eratorriak azken.

Blanca Urgellek sarreren egituraz eta barneko osagaien hurrenkeraz esandakoari kasu eginaz (ik. 25. oharrean), jabetzen gara *dicha* eta *dichea* Gko eta Bkoak direla, hurrenez hurren, lehen ordainak, Nafarroa/Iparraldekoak darraitelarik hurrengo kokalekuan: *doai-doain*. Nongoak edo norenak ote enparauko *zorion* eta *doatsundea*? Norbaiti irakurriak edo berak asmatuak zalantzarik gabe. *Doatsundez*²⁶ zalantza gutxi bide du inork —*OEHk HHko* sarrera honetan eta Harrieten beste batean aurkitzen du soilik, inongo testu-lekukotasunik gabe—; baina, eta *zorion*?²⁷

Badira oraindik sarrera gehiago ere ordainen artean *zorion* ageri dutenak:

«Bienandanza, *zori ona, patu ona, doatsuera*. Lat. Felicitas» (eta «bienandante, *zorioneco*,²⁸ *patuoneco, doatsua*. Lat. Felix, fortunatus»),

«Bienaventuranza, felicidad, *doatsuera, zoriona*. La. Felicitas»,

«Enhorabuena, congratulación, *zoriona, pozerasquida*. Lat. Congratulatio.

«Felicidad, *doatsundea, zoriondea, zori ona*. Lat. Felicitas»,

«Prosperidad, *doatsuera, doatsutasuna, patu ona, zori ona*. Lat. Prosperitas».

Hots, *patu onaz* landa, berak asmatu *doatsuera, pozerasquida, doatsundea, zoriondea* eta Iparraldetik hartu *doatsutasun*-en aldamenen.

5.3. Asuntzioko Sermoia (1740)

Urte, egile eta tokirik markatu gabeko Asuntzioko sermoi (AS) artean ezezaguna erabili genuen Lakarra (2022a)n —ik. Lakarra (2023a)-ko edizioa— Larramendik sortu eta hari eta haren jarraitzaileei loturik hedatu zen *jatorri-jatorriz(ko)*-ren familiaren eta horien menpeko *jator* are berankorrigoaren bilakabidea aztertzeke. *Jatorriz* lehendabizikoz euskararen historian dagoeneko ezagun gertatzen zaigun 1737ko Larramendiren Azkoitiko sermoian lekukotzen da (*jatorriz*) eta, gero —*HHko* «dimanación» eta «origen» sarrerak baino lehen— 1742an berragertzen hiztegiaren hitzaurrean.²⁹ Eta hitzaurrean ere ez nonahi, § 26 «De las voces facultativas (y de la licencia que me tomo en la formación de algunos vocablos» atal ezin adierazgarriagoan baizik, hots, euskaraz horrelakorik ez eta Larramendik berak zergatik eta nola *asmatu* zituen azaltzen duen leku berean, alegia:

Beraz, Hermogenes, icenac ifintea ezta inolaz ere zuc uste dezun bezala gauza arina edo chiquia, ez eta guizon char ta chatarren laná. Eta alaric eguia dio Cratyloc dionean berez ta bere izatez dagozcala gauzai icenac eta edocein guizon ezta la icenguillea, espada araco gauen *jatorria* azaltzeco, ta aguertzeco bereisquiro gai dan icenari dagocana (*HH*: l).

Asuntzioko Sermoira itzuliaz, *jatorri* ez da testu hori Larramendirekin lotzeko arrazoi bakarra, bertako erretorika eta lexikoa azter ditzanarentzat: 250 lerro es-

²⁶ Osaeraz («Aditz-izenak eta haren ondorenak») ikus Urgell (2000: 599hh, bereziki 601). «Felicidad»-en ere errepikatzen da eta lagun berriarekin gainera (ikus testuan beheraxeago atal honetan).

²⁷ «Afortunado, *zori oneco, patu oneco, doatsua*. Lat. Fortunatus, a, um; felix, cis»-ekin erkatzen badugu goiko Gramatikako oihartzuna (*zori on* I-Adj. genuke oraindik, ez konposatua).

²⁸ Irulegitik —espazioan, baina ez denboran!— urrutikoen ez genukeen Lizarraga Elkanokok *fortunoso* darabil behin baino gehiago (*O ladron fortunoso, fortunoso zara*), baina badu *Bizi gontan nasteka daude zorionekoak ta gaistokoak il artaño* (323) LE-Ir ere. Arestian argitaratu *Joakin Lizarragaren lexikoa-ren azterketan* (Iriarte 2022), aldiz, ez da agertzen ez bata eta ez bestea. Ikus, orobat, 56. oh.

²⁹ Cf. «... tiene de antigüedad casi los 1742 años en que estamos (1745: lxiii)» dagoeneko B. Urgellek bere tesian markatu bezala.

kasean 29 hitzen Hegoaldeko lehen agerraldiak dira,³⁰ orobat 18ren erabatekoak (Hego nahiz Iparrekoak), halaber 14 hitz Larramendiren bidez Iparraldetik Hegoaldean bertakotuak, baita 15 Larramendik asmatu edo «bataiatuak» ere (maileguak ondare zaharrekotzat emanak), 5 Hegoaldean 1800 b.l. lekukotu gabeak izanik, ASk 60 urte edo gehiago aurreratzen du horien data—... Hau guztia aski ez edo eta, 40 lerro exkaxean lau aldiz dakusagu —ez behin halabeharrez— euskararen historian hortik landara inon agertzen ez den sintagma harrigarria (*miraldizko berritasun*):

1. ona bada Maria Santissimaren eriotza soseguagati, ohea izango da *miraldizko verritasunagati* (3r),
2. bigarren doaya da ohea izatea *miraldizko verritasunagati* (3r),
3. icustean Maria Santissimaren eriotzan alaco *miraldizko verritasunac* (3r),
4. Autor dezagun, bada, Maria Santissima ceruco erreguiña orren gloria dala *miraldizko verritasuna* (3v).

Ohar bedi, haatik, egilearen hiztegian elkarren segidan doazela horren bi zatiak (eta *Artean* azaltzen dela izendatuki *-zko* lokailua):³¹

- «Novedad, *berritasuna*. Lat. Novitas»,
 «Novedades, *berriac*, véase nuevas. Lat. Nuntij»,
 «Novedad admiración, *miraldia*. Lat. Mirum»,
 «me hizo novedad, *miraldi batec eman cidan; berri iruditu citzatadan*».

Geroztik badakigu —Aita Aranak Loiolako Kolegioko Historia liburutik paper-mutur batean gogoratu bezala (cf. Lakarra 2023a)— sermoi hori Larramendik 1740ko abuztuko Amabirjinaren bezperan (VIII/14) Loiolan emandakoa dela: «La víspera de Nuestra Señora platicó el P. Manuel de Larramendi y el día de Nuestra Señora se dieron dos extraordinarios y truchas» (46.f.).

8 orrialde pasatxoko sermoi horretan bada oraindik aipatzeke ezin utz dezakegun zertzelada harrigarrik: 16 aldiz agertzen da —Hegoalde osoan behin ere 1745 baino lehen aurkitu ez dugun— *zorion*, horietarik 15 *dicha eta/edo zorion* sintagmaren barnean, eta beste behin *zorion* beregaina (3v):

- Dicha eta *zorionez* vetea (1r),
 Beren gurasoen dicha eta *zori onac* (1r),
 Bere eriotzaren sosegua, dicha eta *zori onac* (1v),
 Gloria gueiago, sosegu gueiago, dicha eta *zori on* gueiago (2r),
 Izan beza batec dicha edo *zori onen* bat edo honraren bat (2r),
 Ez due eguingo eren dicha eta *zori onen* jabe? (2v),

³⁰ Baita gainerako 7 bigarren agerraldi ere, Lren beste hainbeste lehendabiziko testu-lekukotasunen ondotik.

³¹ Cf. «El Romance tiene unos casos que parecen del genitivo de posesión, y son en Latín, o del ablativo o son adjetivos (...) y estas locuciones en Bascuence no son del genitivo sino del adjetivo, vg. *Urrezcò buruá, cillarrezcò escuá, zurezcò guizoná* (...) Y la razón es porque los sustantivos que significan la materia de que se compone algo, forman adjetivos en *ezcò*, como en Latín en eus, *urré, cillár, zur*, aurum argentum, lignum, *urrezcò, cillarrezcò, zurezcò*, aureus, argenteus, ligneus (Larramendi 1729: 263 eta iruzkina in Urgell 2000: 491). Cf. § 3 akabuko Xuriorren eta § 7.1eko *MarII* (1838) eta Duvoisinren *zorionezkoak*.

Argati, ez cegoan contentu, ez cegoan sosegu paradisuco dicha eta *zori on* guztiaquin, adiqueta egoqui arte ceñi comunicatu edo parte eguin dicha eta *zori on* guztietan (2v, 2v),

Erdiratuco ditue ama semea[c] eren artean dicha eta *zori on* guztiaç (3v),

Gaurco egunarequin recivitu cituan honrra, dicha eta *zori onac* (3r),

Maria Santissimac autu zuela secula inorc quenduco ez dion *zori ona* (3v),

Maria Santissimaren eriotza izan zala dicha eta *zorionez* vetea (4v),

Nai dezue cristauac parte izan Mariaren dicha eta *zori onetan?* (4v),

Amparatu ezazu, bada, dicha eta *zori onez* beteac contatcen dira zure amparoa (5r).

[Hauetzaz landa bada beste behin *dicha eta honra* (2v) ere]

Hainbat aldiz errepikatu bikote horretan ozen aditzen dugu goian (§5.2) bildu *HH*ko sarreraren oihartzuna: «dicha, felicidad, *dicha, dichea, doaya, doaiña, zoriona, doatsundea*. Lat. Foelicitas»: lehen sarrerako *zorion*-ek betetzen zuen kokagunearen arabera irakurriztat edo asmatutzat markatzen genuen; orain ASko errepika ugariak gehi *etaledoren* bidez azalduak ondorio bertsura —hizberriaren hedakunde asmo agerira— garamatza bide edo argudio osagarritz.

Beraz, behin bakarrik azalpen edo argigarririk gabe eta 15 aldiz Larramendik eta bere jarraitzaileek hizberri edo ezezagun bertakotu gabeekin egin ohi zuten bezala ekandutu eta bertako bilaka zedin.³² Bere neurrian, funtzionalki konparagarri da *triunforen* erabilera ASn (7 aldiz) eta *HH*ko «isilpeko bataioa»: ez du aldarrikatzen euskara denik —*alabanza* famatuarekin edo *suabe* eta beste askorekin egin bezala—,³³ baina bai harentzako familia aipagarria osatzen:

«Triunfador, *triunfalaria, gudondarlea*. Lat. Triumphans»;

«Triunfal, *triunfara, gudondarra*. Lat. Triumphalis»;

«Triunfar, *triunfatu, gudondartu*. Lat. Triumphare»;

«Triunfante, *triunfalaria, gudondarlea*. Triumphans»;

«Triunfado, *triunfatua, &c.* Triumphatus»;

«Triunfo, *triunfoa, garaitondoa, gudondarte*. Triumphus».

Ezin ahaztuko Asuntzioko Sermoi laburrean *triunfo*k duen erabilera: zazpi aldiz ageri zaigu, lau bider 3r orrialdearen akaburantz eta beste hiru 3v-ren hasieran —hain espazio txikian bildutako— adibide ugaritasun honek erakusten duelarik hitz honen ezagutza eta erabilera euskaraz aldezteko egilearen grina:

(...) Maria Santissimaren *triunfoa* (...), Maria Santissimaren *triunfo* onec (...), gañezcatcen duela Jesucristoren beraren *triunfoa*. (...), igo zuen bere virtute propioarequin, *triunfo* aundietan cerura [3r]

³² Cf. Lakarra (2022a, 2022b) *jatorriz* eta enparauez, Urgell (2018) modu orokorrean teknika horrezaz lexiko ugalketarako nahiz Aristizabal (2023) xviii. mendeko eta xix. mendearen hasierako nafarrerazko zenbait testutan (F. Elizalde, Mikelestorena, Añibarroren dotrina, J. Matias Elizalde) egindako azterketaz.

³³ «Pomier eskuizkribuaren» egileak, aldiz, (cf. Gómez & Zulaika 2020) ez zituen gogoko Larramendiren «bataioak» eta horregatik aldatzen du «*suabe*, es voz Bascongada, *suabea* que significa lo mismo...» → P 2018 «*limuria*, suabe» eta P 2034 «*leuna*, suabe»; alabaina, ez da zer pentsatu trukaketa horretarako *HH*tik bertatik urrundu beharra izan zuenik: cf. *HH* «lúbrico, resvaladizo, *limuria, labaña*» eta *HH* «liso, *leuna, leguna, lisoa*» (ik. Lakarra 2022b).

Jesucristoren *triunfoan* (...), Maria Santissimaren *triunfoan* (...), Maria Santissimaren *triunfoa* (...) [3v].

Aurreko lekukotasunen ondotik ASko *zorion*-en erabilerak bere kasa, huts-hutsik, eta besteren laguntzarik gabe, testua *HH*ren egile berarena dela, Larramendirena, alegia, bermatu ahalko lukeela baieztatu daiteke *miraldizko berritasunek, jatorrik, triunfok* eta gainerako hainbat kide eta ezaugarri markagarri horretarako dagoeneko gehiagoren behar eta premiarik utzi ez badute ere.³⁴ Bestalde, sermoi honen eta *HH*-ren ekoizpenaren artean aurkitutako erlazio estuak Larramendiren *zorion*-en erabilera oparoaren jatorria argitzeko urratsen bat egitera baimen gaitzake, ez asmaketaren, baina irakurketaren alde, hain zuzen.³⁵

5.4. Larramendiren *zorion* 'dixta'-ren jatorria eta Xurioren *Imitazionea* (1720)

Lakarra (2023a)-n —B. Urgellen *HH*ren barneko historiazko ikerketa (2000, 2001, 2002, 2003, 2005) baliatuaz— erakutsi ahal izan dugu AS 1740ean osatzean aurreko urtean argitaratu *Dic. de Autoridades*eko S-Z liburukiko en-dainekin ari zela Larramendi eta, zehazki, dagoeneko liburuki horretako sarrerei dagokien zatiaren zirrriborroaren erdia baino gehiago ere egina zuela eta V- letrara iritsia zela, seguruenik. Baieztapen hori *HH*ko aurreko letretatik Asuntzioko sermoian islatzen ziren hitzen eta aztertu berri dugun *triunfoen* analisiak iradokitzen digute.

Orain *HH*ko «Dicha, felicidad... *zorion*» sarrera hartzen badugu,³⁶ 1732an argitaratu *Dic. de Autoridades*eko D-F liburukiari legokioke eta, dakigunez, Larramendi 1731-1734ean Baionan Erregina alargunaren konfesatzaile zelarik, oso egiantzeko dirudi andoaindarrak hantxe eta orduantxe lortzea, besteak beste, (1733ko Lavieuvillen dotrinaz eta Leizarragaren ale mailegatuaz landa) Xurioren *Imitazionearen* alea, gero *HH*ko erabilitako liburuen zerrendan aipatua.

Izan ere, andoaindarraren *HH*ko «De los libros en vasconce» deritzon XIX. atalean datozen lehen biak 1733ko Baionan argitaratu dotrina parez dira, «uno breve

³⁴ *Autu, eskualde, mundutar* eta *seguranza* ere hainbat aldiz erabiltzen dira testu txiki horretan eta *diña, etorki, guraso, guzia dagikean, mende, sortze*, etab. KSn; horien xehetasunetarako ik. Lakarra (2023a, eta prestatzen-a, ss.uu.). Cf. 46. oh. Lk Iparretik Hegora zabaldutako hitzez eta §2.2 akabuan aipatu Lren beraren adierazpen garbia.

³⁵ Ubillosek inoiz *zorion edo doatasun* nahiz *doatasun ta zorion* darabiltza, *dixta ta zorion, atsegin edo zorion, zorion, on ta ondasun* Kardaberatzek, *doatsuak edo zorionean jaiok gu* Mendiburuk, *dixta ta zorion* Olaetxeak —baita oraindik inoiz Añibarrok *LoraSortan* ere— (gero Zabalak *zorion ta grazia, zorion eta gozotasun, zorion eta anditasun, zorion eta gozamen...*); XIX. mendea ongi sartua zelarik Etxagaraik sintagma zabalagoetan kokatzen du usu *zorion: aitor dezagun alegre zorion, poza, aitor dezagun gure doai zoriona, zerutik datoz bakea eta atsegin, zorion, poza, soñuba...* Ez da biderik ohikoa, baina helburu bertsua dugu funtsean, euskara herrikoian ezezagun edo ezohiko ziren hitzak ulertterrago eta irensgarriago egitea, alegia.

³⁶ E-G hiztegian «*zoriona*, dicha, felicidad» dakar (Altuna 1967: 299). Orri eta zutabe berean «*zoria*, sazón, coyuntura, madurez», «*zoritu*, madurar, sazonar», «*zoriona...*», «*zorian*, *zori zorian*, a pique, casi casi», «*zorionean, zorigaiztoan*, en buena hora, en mala hora» eta zutabe berean aurreraxeago, «*zoriondea*, cumplimiento, parabien», «*zorionbaguea, zorigaiztocoa*, desafortunado, infeliz». Aurreko zutabeen, «*zorionecoa*, dichoso, feliz», «*zorian*, a pique, a punto de», «*zoritu*, madurar, hacerse cuerdo», «*zorigaitz niri, zuri!* Ay de mí!, Ay de ti!», «*zoriona*, felicidad, dicha, fortuna», «*zorionecoa*, dichoso, feliz, bienhadado», «*zoriontasunac*, bienes de fortuna». Beraz, ordurako familia eratua zela (edo zuela) dirudi.

que contiene solo el Texto y otro más largo que contiene la explicación de las cuatro partes del Texto», goraipamen markagarriarekin egin ere: «Es cosa muy selecta, hízolos imprimir en Bayona, el ilustrísimo señor don Pedro Guillelmo de Lavieuxville, obispo de aquella ciudad, cuya virtud, zelo y prudencia singular no puedo alabar bastante. Imprimiéronse año de 1733».

Horren ondotik dator, laburrago halere, Xurioren aipamena: «2º El Kempis o *Contemptus Mundi*, traducido por M. Chourio, Rector de San Juan de Luz, impresso año 1720». Liburu horretan eta *EKCz* baliatuaz *zorion*-en ondoko agerraldiak esku-ratu ditugu:

- Hek sínhetsi dutena síñhe[s]ten dut nik ere; hek zuten esparantza bera dut; eta segurantza humill batekiñ uste dut helduko naizela zure graziarekiñ batean hek iadanik ardietsi duten *zorionerat* (XI. k.)
- Iduriz gure bakekotz eta *zorionekoz* diren gauzak eztire deus zu gabe, eta eztire baliatzen garabik gure dohatsutasunekotz (LIX. k)
- Den beraz arbuaiatua, den humiliatua, den gizonen begietan eroria eta garaitua, sofrikariz kargatua, abiaduraz flakatua, zurekiñ batean argi berri baten alban bitz dadintzat eta fiñean dohatsuen *zorionaz* zeruan goza dadintzat (I. k)
- Orduan haren espirituko begiak idekiko dire, kausituko du bere burua aberatz zeruko ontasunez, eta berak ere miretsiko du bere *zoriona*, haren bihotza idekiko da eta zabalduko bozkarioz eta emanen du bethikoz bere burua haren eskuetan (XV. k)
- Munduko ontasun guziak bazintu ere etzintezke hargatik dohatsu, ezen Jainko gauza guzien kreatzaillea baithan datza zure egiazko *zoriona* (XVI. k)
- Ene semea, sentitzen duzunean ematen dudala zure baithan berotasun saindu bat eternitateko *zorionarentzat*; desiratzen duzunean zure gorputzeko presondegitik ilkhitzea ene argien kontenplatzeko, orduan zabal zazu zure bihotza (XLIX k)
- Fiñean banitate handi bat da haiñ laster iragaten diren gauzei amudios lotzea eta bethi iraun behar duen *zorionarentzat* ez kharrrik ez lehiarik izatea (I. k)
- *Zorion* bat da horla pairatzea; eta hori etzaio gaitz eta penagarri idurituko bihotz humillari eta bere baitan baiño lainkoa baithan fidatzenago denari (XXXVI. k).³⁷

Nire lan honen aurreko eskualdietan uste nuen *zorion* ‘felizitate’ Larramendik berak asmatua zela, testu zaharragoak hurbilagotik miatu beharrean *OEHk* zekarrenarekin asetu nintzen bitartean. Alabaina, dela soilik testuaren erdia prozesatu zutelako³⁸ edo gero emandako adibideen hautaketan izandako gorabeherengatik, errazegi da akats historiko horretan erortzen.³⁹ Euskal Klasikoen Corpora erabiliaz, aldiz, Larramendiren egitekoa beste bat izan dela ikusten dugu: ikaslearena lehenik —Xuriorengandik beste inorengandik⁴⁰ baino hobeto eskura zezakeen *zorion*-en balio be-

³⁷ Aurreko zortziekin *EKC*ean datozen ondoko biak, ordea, *zorionezko*-ri dagozkio ez *zorioni*, § 3ren amaieran iragarri bezala.

³⁸ *OEHk*o osorik prozesatutakoen zerrendan agertzen da, baina B. Urgellek diostanez, 4 liburuetarik 2 baino ez ziren egin egiatan.

³⁹ Jakingarria da *zorion* berriaren aldamenean hainbat *zori on* (eta *zori gaitz*) zahar badela Xuriorren testuan: *zer zori on desira dezaket?* (xxxiv. K), *zori gaitz halaber aberatsentzat* (lviii. K).

⁴⁰ Litekeena da Xurio ikertu ez ditudan aurreko *Imitazioneen* zordun izatea, baina, dakigularik, horiek ez Larramendik aitortzen ez bestek markatzen ditu andoaindarraren zuzeneko iturritzat (cf. orain, gainera, Urgell 2023 lanaren ondorioak).

rria— eta zabaltzailearena ondoren, *HH* amaitzeari eta argitaratzeari itxaron gabe AS bezalako sermoien bitartez⁴¹ eta handik gutxira jesuiten arteko bere jarraitzaile batekin batera —Mendiburrekin— osatu zuen dotrinaren bidez (1747ko Burgosko anonimoaz, alegia).

5.5. Larramendiren gainerako testuak

Larramendiren *HH* ondoko testuetan ez *zorion*, baina *zorioneko* da, berak Hegoaldera ekarritako *dohairen* eratorriarekin (*doatsu*) konbinatuaz: San Kasimiroren otoiitz datagabeen «Esazu begi doatsu, Virgíña *zorionecoa*» (non *doatsu* = *zorionecoa*), Andoaingo Sermoian «ceruán duén doatsutásuna eta beti *zorionecóa* izátea» (*doatsutásuna* = *zorionecoa* izátea), eta hor bertan «cerren séculaco doatsú eguín dezutén, ta *zorionecó* sántuen lagún (*doatsu* = *zorionecoa*) eta *zorioneco* guizona *ninzala ni*.

§ 3n markatu den legez, Burgosko Dotrinan (1747) hainbat aldiz (8tan) agertzen da *zorioneko*, dotrinako 'bienaventurado' itzultzeko; horiekin batera datozkigu bertan *doatsutasunak edo zorionak* (2tan) eta *zoriona ta gloria* esanguratsuak ere. Testu horretan B eskuak [= Larramendik] egindako oharrak ikusiaz errazki ohar gaitzeko hark gehituak direla batzuek eta besteak: 44.7-8 «*doatsutasunac edo zorionac*» —nahiz orrialde bereko hainbat «*Doatsuac*»i erantsi *zorionecoa*— eta hurrengo orrialdean ere idiren bi sailetarikoak (cf. Lakarra 1986: 587).

Azkenik, Larramendirena izan litekeen eta argitaratzeko prestatzen ari naizen Kontzepzioko Sermoian —*zorioneko*z landa (ik. § 3 akabuan)— *zorion* ere aurkitzen da: *ilgo cirala eta galduco zutela beren zorion gucia* (2).

Bistan da dagoeneko Larramendik bere testu inprimatu eta argitaragabe guztietan —*Artean* hasi, Hiztegiko hainbat sarreratan, sermoietan nahiz enparauetan— ahalegin handiak egin zituela *zori* eta *zori on*-en arteko aldea argitzen (dagoeneko 1729an ilunduxea baitzirudikion) eta *zorion* berria (eta *zorioneko*) aldarrikatzen —hark eta bere ondorengoek hamarkadetan beste hainbat hitzekin egin zuten moduan—, izan ere, ez *zorion* eta ez *zorioneko* eta ez horien familia ez baitziren oraindik aski ezagun bere inguruan, zalantzarik gabe.

Hedakunde-ahalegin hori hobeki antzematen da horien familietara jotzen badugu:

«Dichosamente, *dichosquiro*, *doairo*, *doainquiro*, *zorionean*. Lat. Feliciter»,

«Dichoso, *dichosoa*, *doatsua*, *doaintia*, *zorionecoa*. Lat. Felix»,⁴²

«Feliz, *doatsua*, *doaitia*, *zorionecoa*, *patuonecoa*. Lat. Foelix»,

B. Urgellek neuretzat egin eta berariaz eskertu nahi diodan ikerketa bereziak erakusten du Xuriok ezin har zezakeela Aranbillagarendik hark ez zuenik: *dohatsu* eta beste zenbait itzulinguru darabil (original frantsesetik mailegatuaz landa) baina ez *zorion* eta ez *zorioneko*-rik. Ez da, beraz, oraingoz, Xurio baino lehenagoko *zorion*-en adibide segururik (eta horrenbestez, ezta *zorioneko*-renik).

⁴¹ Gorago aipatu J. I. Aranaren idazkiak eta haren iturri den Loiolako Kolegioko Historia liburuak dioskutenez izan ziren ezagutzen ez ditugun Loiola eta inguruetan Larramendik egindako zenbait sermoi, arestian ezagutu dugun ASz landa (eta zerrenda ez da osoa AzkS ere ez baitu liburu horretako zerrendak biltzen); horrezaz gainera, badakigu Urolatik landara mordoia egin zuela, orain arte soilik SAGS eta AndS eskuratu arren (ik. Lakarra 2023a).

⁴² Marka bedi Pomierrek sarrera hau «dichoso, *dichosoa*» dakarrela, ez *doatsu*, *doainti* ez *zorioneko* (eta ez *zorion*-ik, baina bai *suerte*); gainerako ordainak harentzat ez ziren baliagarri, edo asmatuen edo Gz kanpoko euskaratik bildutako en susmoa hartzen baitziren nonbait (ik. Lakarra 2022b).

«Felizmente, *doatsuqui, doatsuro, zoriongui, zoriondo*. Lat. Feliciter»,
 «Felicitar, hacer feliz, *doatsutu, zoriondu, doatsu equin*. Lat. Felicem reddere»,
 «Felicitar, dar el *parabien, congratularse, véase*»,
 «Congratulación, *pozerasquida*. Lat. Congratulatio»,
 «Congratularse, *pozerazquidatu*. Lat. Congratulari»,
 «Congratulatorio, *pozesquidacoa*. Lat. Congratulatorius, a, um»,
 «Parabien, *obetaria, pozerazquida*. Lat. Congratulatio. Vease *enhorabuena*»,
 «Parabienero, *obetaria, pozerazquidaria*. Lat. Congratulator»,
 «Enhorabuena, congratulación, *zoriona, pozerasquida*. Lat. Congratulatio»,
 «Enhorabuena sea, *biz orduonean*. Lat. Sit, vel fiat fause ac foeliciter»,
 «Anda enhoramala, *zoaz ordu gaistoan*. Lat. Abi in malam rem».

Ezin markatu gabe utzi euskarazko ordainetan zein ziratekeen Larramendik eskaini *zorionen* kide eta ahaideon bizitza: hitzberriak, sortu berri-berriak, gehien-gehienek ez lehen eta ez gero erabilera handirik izango ez zutenak, *zorion* eta *zorionekorekin* 1745 geroztik gertatuaren oso kontrara. Honela, *OEH*ren arabera, *dohairo* soilik Harrietan hiztegian aurkitzen dugu, *doainkiro* ez dator *OEH*n bertan ere, *doainti* soilik Alzagak eta *doaiti* Mujikak dakartzate XIXaren akabuko larramenditar hitzen gorakada ezagunarekin bat (cf. Pagola 1984 klasikoa eta Urgell 2018 bikaina), *zoriongi* bakarrik *HH*ak berak, *zoriondo* Añibarroren hiztegiak *HHz* landa, *pozerazkida HH*ko sorlekura mugatzen da (eta *pozerakida* Harriet zordun handiaren hiztegian agertzen), *pozerazkidari* ez dator *OEH*n... Horiek dira, bada, Larramendik *zorion* eta *zorionekoren* idekotzat aurkezten dizkigunak.

Are gehiago, aurreko zerrenda horretan ez diren *zoriontasun* eta *zoriontsu* aski be-rankortzat eta —markagarriro XIX. eta XX. mendeko— Bn erabilitakotzat ematen ditu *OEH*k; alabaina, lehendabizikoa dagoeneko *HH*n dago «bienes de fortuna» sar-reran eta segurutzat izan liteke hortik hartu zutela Añibarrok eta Moglek, nahiz eta gehiago erabili *OEH*n lehentzat ematen duten adiera abstraktuan. *Zoriontsu* Astarloa bizkaitarra (1816) arte ez agertuak, ezer frogatzekotan, batez ere *zorion*-en beraren berankortasuna erakutsiko luke, *zoriontasun*ek bezainbat: marka bedi dagoeneko Lei-zarragaz geroz (1571) eta, seguruenik, arrunt lehenagotik zetorkigun *dohatsu*-rekiko mendeetako alde gogoratzen dugunean. Ez da harritzekorik, *doe/dohain* oinarriak lehen testuetatik aurrera protohistoriaraino igotzen baitira, *zorion* XVIII hasieran edo XVII hondarrean gelditzen den bitartean.⁴³

6. Laburbilduaz

Aurreko orrialdeetan ikusitakoaren arabera, *zorionekoren* eta *zorion*-en inguruan (eta hemen ia aipatu ez dugun *zori*-rean)⁴⁴ oraindik zer ikerturik bada ere, hartaz segurtasun apur batez esan ahal daitekeen gehiena edo ia guztia Larramendiren eta haren ondoko lekukotasunetan oinarriturik bide dateke, ez 1800 bat urte lehenagoko

⁴³ *Zoriontasun*-en lehen testu-lekukotasunak 1800 ingurukoak dira (Mogel eta Añibarro) baina *dohatsutasun* konplexuagorenak ia bi mende lehenagokoak (Mattera eta EtxZib).

⁴⁴ Hemen aztertuko ez dugun gaia den arren, zilegi bekigu iradokitzea etimologiarako gehiegi be-rezi izan direla *zori* / *zoritu*-ren jatorriak (eta *zoli*-rena) eta, alderantziz, gehiegi identifikatu *zori* = *txori*-renak.

pareidoliaren batean funtsaturik.⁴⁵ Larramendiren eraginez —orain arruntzat eta guztiz ezaguntzat ditugun enparauko hainbat hitzekin gertatu bezala— XVIII. mendearen akaburantz eta, bereziki, XIX.etik aurrera haren obren eta haren zordun eta jarraitzaileen bidez bertakotu ziren *zorioneko* eta *zorion* Hegoaldean eta geroxeago hortik guxti bat hedatu lehena Iparraldean. Bertakotu ere ez nolana, aurreko hamarkadetan —zer esango milurteko bat edo bi lehenago!— pentsaezinak ziratekeen dozenaka eta are ehundaka lekukotasunen bidez —eta hainbat *edo*-egituraz horniturik— baizik.

1745 baino lehen Iparraldean ez da ez bataren ez bestearen lekukotasun ziuurrik edo eraginkorrik ondoko tradizioari begira, Xurioren (1720) *zorion* mordoxkaz landa eta ez segururik ez zalantzazkorik Hegoaldean *HH* eta Larramendiren testuetakoak baino lehen. *Zorioneko zori hon* → *zori honean* → *zori honeko* > *zorioneko* bilakabidetik eta *zorion* horren atzerantzko eraketaz sortuak direla ikusi dugu, lehena (gehienez ere) 1650-1700 bitartean eta bestea mende erdi beranduago, oraindik 1750-1800 arte bederen *zori hun* eta *zorionean* —‘aldi, ordu on’ ez ‘zorion, ditxa’— zaharragoek irauten zutelarik Zuberoan eta Bizkaian gutxienez.

1729an euskaldun gehienek ez zekiten —askok ezta geroago ere— *zorion* ‘fortuna’, ‘felizitate’ edo ‘ditxa’ zenik —eta bai oraindik *zori (h)on* ‘une, ordu, aldi, momentu on’— eta Larramendik bigarren adiera zaharrago hau gogoratzen die itzaltzeaz zelakoan. Gero, ordea, —Baionako egotaldian lortu eta irakurri Xurioren *Imitazioanean* ikasi *zorion*-etan oinarriturik— eta horren gainean Larramendik berak sortu edo bermoldatutako *zorioneko*-ren baliagarritasunez oharturik, horien erabilera aldarrikatzen du sutsuki Hiztegian eta bere gainerako lanetan: dagoeneko 1740an Asuntzioko Sermoian, *HH*ko hainbat sarreratan eta baita ondoko urteetako bere gainerako testu labur bezain garrantzitsuetan ere.

Haatik, ez zen harritzeko XVIII. mendeko euskaldunek hitz horiek ez ezagutzea, aurreko mendeetan eta XVIII-XIXetan oraindik erabat zabaldurik ikus ditzakegun *fortuna* eta *ditxa* jator askoen bidez eman baitzituen Larramendik berak ere bere usadio arruntenean *HH*ko sarreretako ohiko lehen kokaguneetako ordainetan; *zorion* eta *zorioneko* euskarak ahal zuen poesiarako (*Artean*) eta *HH*aren hitzaurreko § 26n definitu hiztegi bereziturako —erlijiozko lexikorako ere bai, alegia—, *HH*ko sarrera askotako akabuko tokietan (ez ahantz: Lk irakurri, asmatu edo moldatuentzat paratu kokalekuan) ematen zituelarik.

Zorion eta *zorioneko* bi hitzoren kronologia minimo batek ondoko urratsak behar ditu bildu:

- 1.a. *Zori (h)on* ‘une, aldi on’, eta geroago —baina noizdanik ez dakigularik— halaber ‘zorte on’-en agerraldiak (*zori hun* hasperenarekin oraindik Zn) lehen testuetatik gutxienez 1800 arte (Mogel, etab.) edo are geroago (Arxu tartean), oraindik oso bizirik agertzen dira Larramendiren 1729ko gramatikan, eta errepikatzen *HH*an eta euskara-gaztelania hiztegiatan.
- 1.b. *Dobeldohain* eta *dohatsu* (1745 arte 3. hau soilik Iparraldean) lehen testuetarik eta are zenbait mende lehenagotik.
2. Etxeberri Ziburukoaren zalantzazkoren baten ondotik (*zori onez* ManDeb eta *Elizaran*) Xurioren (1720) *zorion* ‘felizitate’-ren adibide seguru mordoxka.

⁴⁵ Pareidoliaz, cf. Manterola (2023) eta lehenago Twitter *Etimologiak Sarean* (@etimotxioak), 2022/11/16-17.

3. *Zori on* ‘zorte on’ *Arte*-an eta *HHn*; ikus § 4.2 akabuko adibideak.
4. Horren gainean eraturako *zorioneko*-ren (< *zori(h)onean*) Harizmendiren agerrialdi bakarra Larramendi baino lehen (gainera, oso zalantzazkoa berau eta, nolana ere, Lrentzat ezezaguna; cf. § 7.1). Aldiz, *bienabenturatu* zein *ditxosoren* dozenaka eta ehundaka adibide 1745 aitzin zein gibel, literatura euskara jasoenetik landara.
- 5.a. Hegoaldeko lehen *zorion* ‘felizitate’, Lren ASn (1740): sermoi labur berean 15 aldiz *ditxa eta zorion* eta behin *zorion* soila, hitz eta adiera berri hori zabalteko grinaren adierazle nabarmena (ik. 35. oh. ondoko egileentzat).
- 5.b. Hegoaldeko lehen *dohatsu*-ak 1745 ondoren (ik. § 2.2).
6. *HH zorion* ‘ditxa, felizitate’: ikus § 5.2ko *HHko* sarrerak eta § 5.3 eta § 5.5eko Larramendiren testuetako adibideak (§ 5.5en baita *zorion*-en hainbat eratorri, oso erabilera urrikoak gehienak).
7. *HH zorioneko*: ikus § 3 eta behean §§ 7.1-2.
8. *Zorioneko* 1745-1850 bitartean ehundaka lekukotzen da (ik. § 2.1): XVIII. mendearen bigarren zatian 428 *zorioneko* Euskal Klasikoen Corpusean (4/5etik Mendiburuk, Kardaberatzek eta J. A. Mogelek); horiez gainera 210 XIX.aren lehen zatian (ia erdiak Añibarrenak eta Zabalarenak).

Larramendiren lan erraldoiaren eraginez —zehazki haren Ipar eta Hegoaldearen arteko zubi-lan zabal, baina ezezagunegian oinarrituaz—,⁴⁶ orain arruntzat eta guztiz ezaguntzat ditugun enparauko hainbat hitzekin gertatu bezala, XVIII. mendearen akaburantz eta, bereziki, XIX.etik aurrera Larramendiren obren eta haren zordunen bidez bertakotuko da *zorioneko* Hegoaldean (baita *zorion* gehi *dohatsu* ere) eta —geroago eta askoz urriago— Iparraldean.⁴⁷ Bertakotu ere ez nolana ere, aurreko hamarkadetan pentsaezinak ziratekeen dozenaka eta are ehundaka lekukotasunen bidez baizik —zer esango milurteko bat edo bi lehenagoko egoerez! Alabaina, lehen testuetarik aurkitzen genituen *zorion* eta *zorioneko* baino mailegu zaharragoak soilik euskara idatzi jasoenetik baztertu izan dira ez, ordea, bazterreko tradizio idatzietatik edo ahozkotik.

7. Hiru isats *zorioneko*-z

7.1. 1838ko *MarIl* eta Harizmendi (1658) berriro

Goian (§ 2) *OEhk* Iparraldeko lehen lekukotasuntzat eman bien artean Harizmendirengandik (1658) 1838ko *MarIl*-era (*Andredena Mariaren Ilhabethea*-ra, alegia), ia bi mendetako jauzi aski harrigarria genekusan. Are harrigarriago edo susmagarriagoa ondoko Duvoisin eta Miranderenak, gutxienez, Larramendiren edo haren ondokoen zordun garbi ditugula jakinik.

⁴⁶ Lehendik ezagun diren *adin* eta besteren landara, Lakarra (2023a, prestatzen-a) lanetan hainbat froga eta adibide bildu ditut Larramendik Iparraldeko tradiziotik Hegoaldekoa irauli hitzez; hori, gainera, bi sermoi laburretatik abiatuak eta bata (*Asuntziokoa*, 1740) gainera —ezagun zahar dugun 1737ko Azkoitikoaren kasuan bezala— *HH* argitaratu baino lehenagoko testu baten lekukotasunaz baliaturik. Cf. 34. oharrean horietan —berariazko borondate nabarmen batez— errepikatu hitzez. Lren turriez ikus Urgellen lanak eta lehenago Mitxelena (1970 [1965]).

⁴⁷ Hegoalde / Iparralde banaketa honek ez du aldeztzen, bidenabar, *zorioneko*-ren EBZ baino zaharrago kronologiarik Irulegikoarentzat; are gutxiago § 7.2ko oharrek.

Nago harridura eta susmoak ezabatuko liratekeela *MarIl* hori ez balegokio 1838ko aipatutako Iparraldeko liburuari, Hegoaldeko (*Ur*) *MarIl* delakoari baizik, hots, 1850eko aita Uriarteren *Marijaren illa edo Maijatzeco illa*-ri. Honenbestez, *OEH*koen akats ulergarri bezain nahasgarri gerta zatekeen, are egiantzekoago 1838ko *MarIl* aipatu bai, baina ez baita haren lekukotasunik ematen eta, aldiz, bai Uriarteren *Zorijonekua*, *Jaungoikuaren dejari laster erantzuten deusana MarIl* 89. Gainera, *EK*Cren arabera 109 *zorioneko* eta beste 43 *zorijoneku*-⁴⁸ ditu Uriartek, itxaron bezala § 2ko taularen eta *OEHk* berak aipatu bizkaitar (berantiarren) erabilera ugariaren arabera.

Halere, nire susmo horiek ez ziren funtsatuak: badaezpada, 1838ko Iparraldeko *MarIla* jaitsi eta astiro miatu dudalarik, 5 *orhoitzapen zorionezco Aita Sanduac*, 96 *bizitzearen portu zori onezcora*, 116 *pribilio zori onezco bat da*, 127 *araz nezan zeruan zori onezco mendeen mendetan*, 139 *zori onezco oren haren ondotic*, 271 *Hunen zeruco lorian sartzeco egun zori onezcoa*; 290 *Ez da baratzen hejen laguntzetik eternitate zori onezcoan sar arazi dituzken artean aurkitu ditut*, baina baita, urriago, 95 *egiten dautzut ene agurra zure sortze zori onecoaren mementoan*, 226 *Gozatu baitzen Birjina Sainduac ardietsi zioen zori oneco descantsuaz*, 309 *Eta presenta zozu zure Semeari eternitate zori onecoan ere*.

Kontuan izanik ez dela xix. mendeko lehen zatiko enparauko Iparraldeko lekukotasunik eta 2.ean ere soilik Duvoisin larramendizalearen eta Lapeireren bakan bat, litekeena da *MarIl*-ekoek ere azalpen berbera izatea —Hegoaldekoei mailegutan hartuak, alegia—; erantsi bekio honi beheragoko atalean de Rijkkek *zorioneko / zorioneko-z* dioena.

Honenbestez, —ustezko Harizmendiren salbuespen bakarrarekin— Iparraldean ere ez genuke *zorioneko*-rik, Larramendi eta haren Hegoaldeko jarraitzaileen zordunetarik hartuak XIXan eta XXan agertu bitartean.

Baina, benetakoa ote behin eta berriro aipatu salbuespenezko xvii. mendeko lekukotasun hori? Ala ezta hori ere? Izan ere, Harizmendiren testua hurbilagotik miatuaz zera dakusagu:

- Gozatuco duçu *çoriz*, / ceure colera mina (= 117);
- Eta *çoriz* ençun ninçan / *çoriz* nenguion esca (= 125);
- Iaincoaren faborea, / Bethi dela gurequin. / Eta gaitçan gu cerura / *çoriz* alcha berequin (= 182)
- Demon soldadu valenta, / Bere dorretan franco: / *Çori onez* baquerequin, / Exaiei gogorceco (129, 154);
- Iaincoaren beldurra *çori ona* da (142);
- Ama *çori onecoa*, / Bai Virjina chahua : / Eguiozu semeari : / Gure alde oihua (163-164);

«Tal vez, por suerte» itzultzen du *OEHk zoriz*, Harizmendiren forma horren hiru adibideok oro sarreran bilduaz. Nire ustez, itzulpen bertsuak legozkieke —‘aldi, halabehar, zorte on, fortuna’, ‘aldi, halabehar, zorte, fortuna onekoa’ adiera zaharrak— gainerako kasuei ere, eta ez ‘ditxa’, ‘ditxoso’. Horrela balitz, ez litzateke ez *zorioneko* ‘ditxoso, zoriontsu’-ren adibide garbirik (ez —markatutako Xuriorren salbuespenarekin— *zorion*-en ‘ditxa’-rik) Larramendi baino lehen eta, nolnahi ere, egile horri zorko litzaioke 1745z geroz *zorioneko*-k (eta *zorion*-ek) izandako biderkatze erraldoia (ik. 53. oh. akabuan).

⁴⁸ 236 *zorion*- (*zorioneko*, *zoriontasun* eta gainerakoak barne), 106 *zorijon*- tarteko.

7.2. *Zorioneko eta -ko*

De Rijk *ek dioskunez* (2008: 90), euskara estandar modernoan *-ko* atzizkiak ez du *-e-epentesirik*⁴⁹ hartzen eta hortik lekukotzen diren hainbat aldaketa kontsonantez amaitu enborretan: *bezeroentzako < bezeroentzat + -ko, etsaiarekiko < etsaiarekin + -ko, matematikaranzko < matematikaranz + -ko*, etab.

De Rijkentzat (lehenago Goenaga 2003 eta Lhandeganaino eraman litekeen tradizioa-ekin batean),⁵⁰ gainerako *-ko* asko bezala, «inesibo ezabaketa» baten ondorio litzateke:

The analysis of adnominals presents an interesting complication because certain case endings appear to be dispensable if they are followed by the linking morpheme *-ko*. This phenomenon will be referred to as *Postposition Deletion*, although it should be noted that what is actually deleted is not lexical postpositions but rather morphological inflections on certain postpositional phrases. Only five grammatical cases participate in this process: the inessive, elative, and allative of the locative system, and the sociative and instrumental of the basic system. We must deal with these cases one by one (2008: 91)

5.2.1 Inessive Deletion. By far the most common application of Postposition Deletion involves the inessive. This deletion is strictly obligatory in all present-day varieties of Basque, except Souletin (2008: 91)

Adnominal forms of location nouns are specially frequent. They can occur either with a preceding complement: *etxe aurreko pagoa* ‘the beech tree in front of the house’; or without: *aurreko pagoa* ‘the beech tree in front’. Their underlying case form is nearly always inessive. (de Rijk 2008: 92)

Honenbestez *-ean* inesiboak determinatzailea suposatzen badu —*(h)e-ha-n eta ez *-gan bere garaian Jacobsenek eta De Rijk berak (baina ez Mitxelena eta Manterolak proposatu bezala)— Irulegin K.a.-ko lehen mendean ezin zitezkeen ***zorioneko*-rik izan, horrek eskatzen zukeen *zorionean* oraindik ez zelako sortua edo eratu ere; zehatzago, ez zelako sortu oraindik horrek oinarrian suposatzen duen **zorion-* / (h)a —ezta *zorion* mugagabea bera ere, noski, testuan ikusi dugunez—, baina gehienez (ez segurantz osoz) **zori hon* ‘aldi on, ordu on’ oraindik 1700 edo 1800 bat urte beranduago (noizdanik?) gorde bezala.⁵¹ Hortik *zori onean* eta *zori onez* ‘en buena hora’ XVIII. mendera arte —*zorioneko* bakar exkaxaz [Harizmendi] ik. § 7.1)—, eta *zorionezko* mordoa Iparraldean Etxeberri eta Xurionen ondoren:⁵²

We may add that the common expression *zorioneko* ‘fortunate’ (often used highly ironically: ‘deuced’) may be derived from *zorionezko* for some, especially northern,

⁴⁹ «The linking suffix *-ko* does not allow *e*-epenthesis in the standard language» (90). Estandarrean bezain garrantzitsu edo garrantzitsuago deritzogu baita akitanierazko egoerari ere: cf. *Talco / Halsco* (Gorrochategui 1984). Cf., orobat, «Es inesperada la vocal final *-u* frente al vasco general *-o*, y asombrosa la antigüedad de la formación mediante *-e-* de unión entre la palabra terminada en consonante y el sufijo *-o*» (Gorrochategui & Velaza 2023 lanaren aurreko bertsio batetik ateratako aipua).

⁵⁰ Cf. «Bidezkoena da pentsatzea *-ko* atzizkia mugatzaile osagai bati itsasten zaiola; hots, determinatzaile sintagmari (...) Bestalde, *-ko* izenlagunek jadanik beste izenlagun bat baldin badaramate (...) mugatua behar du izan sintagmak» (Goenaga 2003: 284).

⁵¹ Duela 2100 urte SORION formaz nahiz esanahiz ez dela *zorion*-en baliokide segurua argi behar luke; beste horrenbeste esan bide liteke akitanierazko SORI izenaz eta *zori*-ren edozein adiera historikoz.

⁵² Urtek (cf. Urkizu 1989)— badu *zorion* (eta *zorionezko*, baina ez *zorioneko*): cf. «*beatitas*, dohatstutásuna, oren óna, çoriona, ordu ona, prosperitatea, estatu ona, fortuna ona, ungui içatea, felicitatea»; «*beatús*, dohatssua, çorionezcoa, oren onezcoa, çorionean sorthua».

speakers and from inessive *zorionean* + *-ko* for others. Note that the Latin adjective *beati* of Lk 12:37 was rendered *zorionezkoak* by Duvoisin (1858) and *zorionekoak* by both *IB* (1980) and *EAB* (1983). (de Rijk 2008: 97)⁵³

7.3. Noiz lexikalizatu ziren *zorion* eta *zorionekoren* erdarazko kideak?

Amaitu baino lehen, gogora dezagun *zorioneko* nahiz *zorion* zalantzazko edo egiantzekotasun urriko bakarraren aurretik zein ondoren dozenaka eta are ehundaka *felizitate*, *ditxa*, *fortuna*, *ditxoso*, *fortunoso*, *bienabenturatu* eta horien aldaera eta eratorriak ageri zirela Euskal Herri osoko testuetan. Argi da indar eta hedadura hori lortzeko olatu zahar eta sakonagoen eraginaren emaitza baino ezin izan litezkeela eta mailegu horiek euskal lexikoaren diakronian *zorion* eta *zorioneko* arras be-rankorrek baino erro sakonagoak dituztela: *bienabenturatu*-ren kasu ezin argiagoan ageri den bezala, bildu dituzten lekukotasun ugari itzulpenak izateari zor zaizkion erdaratiko zorrez gainera, ahozko euskaran nonahi aspalditik lortu duten hedadurak dioskunez.

Zail litzateke sinisten Irulegiko K.a.-ko I. mendeko ***zorioneko* baten ondoren euskaldunek oso berandu arte, (funtsean 1745 arte), *zorion* eta *zorioneko*⁵⁴ ez erabil-tzea eta gero, halabeharrez, erruz data horren ondoren. Are zailago bide dugu pentsa-tzea 1745 arte bakarrik eta ugari —eta ondoren ere erruz literatur euskara garatu edo errotuegi ez zen eremuetan— agertzen zaizkigun *ditxa*, *felizitate*, *ditxoso*, *fortunoso*, *bienabenturatu*, *enhorabuena*, *fortuna*, *dohatsu*... *zorion* eta *zorioneko* baino geroago sortuak —alegia, sartuak eta hedatuak— izatea. Hots, *zorion* eta *zorioneko* K.a-ko I. menderako eta beste horiek *erdaraz* sortu gero (hainbat eta hainbat mende ge-roago), are geroago euskal testuez jabetu eta *zorion* eta *zorioneko* ezabatu ... eta gero XVIII. menderantz «berriro» sortu eta ikaragarritzko hedadura hauek izatea...!!!

Sasi-azalpen hori baino funtsatuagoa eskuratzeko *CORDEri* so bat ematea hoberena:

Felicidad	Feliz	Dicha	Dichoso
1200-1300: 0 kasu	1200-1300: 17 kasu	1200-1300: 1124 kasu	1200-1300: 0 kasu
1300-1400: 1 kasu	1300-1400: 5 kasu	1300-1400: 8460 kasu	1300-1400: 2 kasu
1400-1500: 43 kasu	1400-1500: 1 kasu	1400-1500: 51333 kasu	1400-1500: 120 kasu
1500-1600: 1945 kasu	1500-1600: 358 kasu	1500-1600: 47446 kasu	1500-1600: 1265 kasu
1600-1700: 1010 kasu	1600-1700: 1509 kasu	1600-1700: 16722 kasu	1600-1700: 1784 kasu

⁵³ Gogora bedi Duvoisinek eta —orain seguruago baieztatu dezakegun bezala—1838ko *MarII*-ek, bietarik dituztela, *-zko* erakoak beren dialektoari dagozkienak eta *-ko* sailekoak Hegoaldeko Larramendi ondoko tradizioetik ikasiak. Kopuruek ere interes argia dute: Duvoisinek 20 *zorionezko* eta 6 *zorioneko*, 1838ko *MarII*-ek 7 *zorionezko* eta 3 *zorioneko*. Gogora § 5.4ko Xurrioren *zorionezko* urriak (ez du *zorioneko*-ren alerik eta Lk ezin hortik hartu, beraz) eta erants bedi Harizmendik ez dakarrela *zorionezko* bakar bat ere, seguruenik oraindik ez zuelako *zorion*-ik eta bai, aldiz, hainbat *zori on-* eta *zori oneko* (ez ditxosozko *zorioneko* bakarra).

⁵⁴ Lan honen hasierako oharrean Manterola eta Mounole (2023) eta Manterola (2023) nirearen osagarri bikain suertatzen direla markatu dut. Besteak beste, beraiek ikertu dute, K.a.ko I. mendeko ***zorion* eta ***zorioneko*-k zer garapen fonetiko izan zezaketen ondoko garaletan (***zorioi*, ***zorioiko*) an-tzeko egiturako hitzek (*Lekuine*, *eskuin*, *aitona*) izandakoarekiko erkaketaz baliaturik.

Fortunoso	Afortunado	Bienaventurado	Dichosamente
1200-1300: 0 kasu	1200-1300: 3 kasu	1200-1300: 39 kasu	1200-1300: 0 kasu
1300-1400: 0 kasu	1300-1400: 11 kasu	1300-1400: 119 kasu	1300-1400: 0 kasu
1400-1500: 0 kasu	1400-1500: 88 kasu	1400-1500: 566 kasu	1400-1500: 1 kasu
1500-1600: 21 kasu	1500-1600: 154 kasu	1500-1600: 1186 kasu	1500-1600: 51 kasu
1600-1700: 5 kasu	1600-1700: 154 kasu	1600-1700: 257 kasu	1600-1700: 153 kasu

Enhorabuena	Fortuna	Fortunado
1200-1300: 0 kasu	1200-1300: 608 kasu	1200-1300: 129 kasu
1300-1400: 0 kasu	1300-1400: 545 kasu	1300-1400: 11 kasu
1400-1500: 5 kasu	1400-1500: 2860 kasu	1400-1500: 75 kasu
1500-1600: 123 kasu	1500-1600: 5860 kasu	1500-1600: 113 kasu
1600-1700: 170 kasu	1600-1700: 5365 kasu	1600-1700: 18 kasu

Taula hauen arabera *feliz*, *afortunado*, *bienaventurado*, *dicha*, *fortuna* eta *fortunado* 1200 baino lehen sortuak ziren; ordea, ez *felicidad*, *dichoso*, *fortunoso*, *enhorabuena* eta *dichosamente*. Baina, batez ere, mende batetik hurrengora izandako gorakadak hitz bakoitzaren lexikalizazio eta hedadurarekin erlazionatzen baditugu, orduan 1400-1500 bitartean —gehienetan batez ere mende horren bigarren zatian— gertatzen da hori *felicidad* (kasu 1 > 43 kasu), *dichoso* (2 > 120), *afortunado* (11 > 94), *bienaventurado* (119 > 566), *dicha* (8460 > 51333), *fortuna* (545 > 2860) eta *fortunado*-rekin (11 > 75); are beranduago oraindik (1500-1600 artean) *feliz* (1 > 358), *fortunoso* (0 > 27), *enhorabuena* (5 > 136) eta *dichosamente*-rekin (1 > 51).

Beraz, § 2.1en OEHTik jasorik bildu ditugun *dixoso*, *fortunoso* eta *bienaventuratu*-ren ordainak (gure *zorioneko*-ren baliokideak [eta baita *fortunatu* ere]) miatzen baditugu, 1400 edo are 1500 baino geroago garatuak, hedatuak edo arrunt bilakatuak dira eta, ezinbestean, jatorrizko erdararen hedatuak behar zuten izan euskararen hedatuko baziren.⁵⁵ Bestalde L aitzin aipatutako guztien aurrean Harizmendiren *zorioneko* bakar bezain zalantzarria dugula kontuan izanik, ez hori, ez *zorion* nekez har genitzake 1700 edo 1800 urte lehenago Irulegin dagoeneko eratua zatekeen ezeren jarraipen gisa.⁵⁶ Are bateraezinago edo sinistezinago genuke 1745etik 1850 bitartean zerotik —edo, hoberenean ere, ia zerotik— 600 adibidetatik gora halabehar hutsez igarotzea, ... Larramendiren eragin asmotsuaren bidez ez izatera, noski.

⁵⁵ Ez da ahaztekoa ere *dobatsu* (§ 2.2) Leizarragaz geroz —eta, seguruenik, menderen bat lehenago ere— Iparraldean (eta 1745 ondoren Hegoaldean) lekukotasun erraldoia duena.

⁵⁶ Patxi Salaberrik diostenez (2023/12/29ko mezua) «Minondok 1800 inguruan *zorioneko* ibiltzen dik, baina gaitzesteko 'ditsosozko' adierarekin» (ikus Salaberri, Zubiri & Salaberri 2021: 381ko lekukotasun eta iruzkinak eta cf. §7.2n De Rijken antzeko lekukotasuna). Ez nau harritzen, oker ez banaiz egun Arratzuko eta inguruetao usadioan ere gehienbat erabilera horretan baita hitza ezagun. Horren kronologiari dagokionez, ez bide da halabeharra DAut-ek (cf. s.u. *dichoso*-3), ia mende bat lehenago dakarren azalpena ere: «Se usa en nuestro castellano con cierto tonillo y así tiene una significación sumamente expresiva, según la materia y el sujeto a que se aplica, la qual no es fácil explicar con otro término, y algunas veces suele ser ironía». Cf., aldiz, 42. oh. Pomierren «dichoso, *dichosoa*» sarrera soilaz eta haren hiztegian aurkitzen ez diren *doatsu*, *doainti*, *zorioneko* eta *zorion-ez*.

Bibliografia

- Agirre-Mauleon, Juantxo. (arg.). 2022. *IRULEGI. La mano de Irulegi, un testimonio epigráfico del siglo I a.C. en el valle de Aranguren*. Donostia-San Sebastián: Sociedad de Estudios Aranzadi Zientzia Elkarte.
- Altuna, Patxi. (arg.). 1967. Larramendi' ren iztegi berria. *Euskera* (2. aldia) 12. 139-300.
- Altuna, Patxi. (arg.). 1982. *Mendibururen idazlan argitaragabeak*, 2 lib. Bilbo: Euskaltzaindia & Ed. Mensajero.
- Altuna, Patxi & Joseba A. Lakarra, (arg.). 1990. *Manuel Larramendi. Euskal testuak*. Donostia: Andoaingo Udala et al.
- Aristizabal, Unai 2023. Añibarroren *Cristau Doctrina* eta nafarrera idatziaren bilakabidea. Gasteiz: UPV/EHUko gradu amaierako lana.
- CORDE = Real Academia Española. *Corpus diacrónico del español (CORDE) en línea*. <http://corpus.rae.es/cordenet.html> (2023/10/27).
- EKC = Euskara Institutua. *Euskal klasikoan corpusa*. Euskal Herriko Unibertsitatea. <https://www.ehu.eus/ehg/kcl/> (2023/10/27).
- Goenaga, Patxi. 2003. *-en* eta *-ko* atzizkiez berriro. In Jesus Mari Makatzaga & Beñat Oihartzabal (arg.), *Euskal Gramatikari eta literaturari buruzko Jardunaldiak XXI. mendearen atarian I (Iker 14)*, 279-303. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Gómez, Ricardo & Josu Zulaika (arg.). 2020. *El Vocabulario Pomier. Estudio y edición de un diccionario manuscrito anónimo euskara-español*. Bilbo: UPV/EHU.
- Gorrochategui, Joaquín. 1984. *Estudio sobre la onomástica indígena de Aquitania*. Leioa: UPV/EHU.
- Gorrochategui, Joaquín & Javier Velaza. 2023. Aproximación interdisciplinar a la interpretación de la Mano de Irulegui. Edición y comentarios epigráficos y lingüísticos. In Ekaitz Santazilia & Joaquín Gorrochategui (arg.), *Irulegiko eskua: gogoetak paleohispanistikatik eta euskalaritzatik (Dosierra) (FLV 136ko atal berezia)*, 491-502. Iruñea: Nafarroako Gobernu.
- Gorrotxategi, Joakin, Iván Igartua, Joseba A. Lakarra (arg.), 2018. *Euskararen Historia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- de Hoz, Javier. 2011. *Historia lingüística de la Península Ibérica en la Antigüedad: II. El mundo ibérico prerromano y la indoeuropeización*. Madril: CSIC.
- Iriarte, Ibai. 2022. *Joakin Lizarragaren lexikoaren azterketa*. Iruñea & Bilbo: Nafarroako Gobernu & Euskaltzaindia.
- Irure, Leyre. 2023. Corpusaren egoera hobetzen: Xurioren *Imitacionea*-ren aleak XVIII. mendean. Gasteiz: UPV/EHUko Gradu Amaierako Lana.
- Kaltzakorta, Jabier. 2018. San Agustín Eguneko Sermoiaren edizio kritikoa. *Sancho El Sabio (Extra 2)*. 39-72. <https://doi.org/10.55698/ss.v0i0.185>.
- Lakarra, Joseba A. 1985a. Larramendiren hiztegegintzaren inguruan. *ASJU* 19. 9-50.
- Lakarra, Joseba A. 1985b. Literatur gipuzkerantz: Larramendiren Azkoitiko sermoia (1737). *ASJU* 19. 235-281.
- Lakarra, Joseba A. 1986. Burgosko Dotrina (1747): I. Testua eta oharra. *ASJU* 20. 533-594.
- Lakarra, Joseba A. 1987. Burgosko Dotrina (1747): II. Faksimilea eta hiztegia. *ASJU* 21. 277-317.
- Lakarra, Joseba A. 1992. Larramendirekin euskal hiztegegintzaren historiaz. In Joseba A. Lakarra (arg.), *Manuel Larramendi. III. Mendurrena*, 279-312. Andoain: Euskaltzaindia, Eusko Jaurlaritza, GFA & Andoaingo Udala.

- Lakarra, Joseba A. 1997. Euskararen historia eta filologia: arazo zahar, bide berri. *ASJU* 31. 447-536.
- Lakarra, J. A. 2013. Gramática histórica vasca o vasco-iberismo. *Palaeohispanica* 13 (= *Acta Palaeohispanica* 11). 567-592.
- Lakarra, Joseba A. 2015. Hiru hasperen haboro. In María José Ezeizabarrena & Ricardo Gómez (arg.), *Eridenen du zerzaz kontenta. Sailkideen omenaldia H. Knörr irakasleari (1947-2008)*, 349-378. Bilbo: UPV/EHU.
- Lakarra, Joseba A. 2018. Historiaurrea. In Joakin Gorrotxategi, Iván Igartua & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritz: 23-229.
- Lakarra, Joseba A. 2022a. *Jatorr(i), aitor(tu), ilor(tu), bibor(tu)*: filologia ala hil. In Iván Igartua & Jesús A. Cid (arg.), *Tu voz en muchas voces. Escritos en homenaje a Jon Juaristi*, 401-460. Leioa: UPV/EHU.
- Lakarra, Joseba A. 2022b. *Jatorri* eta enparauak: Gogoetak Pomier, Larramendi eta hiztegi-gintzaren historia eta filologiaren. UPV/EHUko eskuizkribua.
- Lakarra, Joseba A. 2023a. Asuntzioko Sermoi egile-, toki- eta urtegabea: Larramendiren testu berri ezezaguna (Loiola 1740/08/14). *Euskera* 68(1). 111-220.
- Lakarra, Joseba A. 2023b. *Zorioneko y zorion*: lo que nos dice de ellos la historia de la lengua vasca. In Ekaitz Santazilia & Joaquín Gorrochategui (arg.), *Irulegiko eskua: gogoetak paleohispanistikatik eta euskalaritzatik (Dosierra) (FLV 136ko atal berezia)*, 597-615. Iruñea: Nafarroako Gobernu.
- Lakarra, Joseba A. Prestatzen-a. Kontzepzioko Sermoi anonimoa (1772): Larramendiren original baten kopia? UPV/EHUko eskuizkribua.
- Lakarra, Joseba A. Prestatzen-b. Sobre la reconstrucción de otro NR: Pseudoepéntesis, protolocativo y preverbio. UPV/EHUko eskuizkribua.
- Larramendi, Manuel de. 1729. *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada*. Salamanca: Antonio José Villagordo Alcaraz (Berrargit. faksim. Donostia: Hordago, 1979).
- Larramendi, Manuel de. 1745. *Diccionario trilingüe del castellano, vascuence y latín*, 2 lib. Donostia: Bartolomé Riesgo. (Berrargit. faksim. Donostia: Txertoa, 1984.)
- Manterola, Julen. 2023. *Mugurutza, Gorrotxategi* eta beste etimologia zenbait: *eskuinak ez dakar zorionik*. Liburu honetan argitaratua.
- Manterola, Julen & Céline Mounole. 2023. An assessment of the Basque Interpretation Hypothesis on the inscription contained in the Irulegi Hand. In Ekaitz Santazilia & Joaquín Gorrochategui (arg.), *Irulegiko eskua: gogoetak paleohispanistikatik eta euskalaritzatik (Dosierra) (FLV 136ko atal berezia)*, 583-595. Iruñea: Nafarroako Gobernu.
- Mitxelena, Koldo. 1970 [1965]. *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*. Bilbo.
- Mitxelena, Koldo & Ibon Sarasola. 1987-2005. *Orotariko Euskal Hiztegia / Diccionario General Vasco*, 16 lib. Bilbo: Euskaltzaindia (12. argit. elektr. 2023: <http://www.euskaltzaindia.eus/oeh>).
- Pagola, Inés. 1984. Neologismos en los Juegos Florales. *ASJU* 18(1). 53-159.
- Rijk, Rudolf P. G. de. 2008. *Standard Basque, a progressive grammar*. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- Salaberri, Patxi, Juan J. Zubiri & Iker Salaberri, 2021, *Jose Ramon Minondo Goizuetarraren gutunak. Olaberría (Oiartzun). 1792-1807*. Iker 42, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Sarasola, Ibon. 1986. Larramendiren eraginaz eta. *ASJU* 20(1). 203-215.
- Telletxea, Jose I. 1975. Dos textos eusquéricos inéditos del P. Larramendi. *ASJU* 9. 179-184.

- Urgell, Blanca. 2000. *Larramendiren Hiztegi Hirukoitzaren osagaiez*. Gasteiz: UPV/EHUko doktorego tesia.
- Urgell, Blanca. 2001. Euskal formen aurkezpena Larramendiren hiztegian. *ASJU* 35. 107-183.
- Urgell, Blanca. 2002. *Hiztegi Hirukoitzaren* kanpoko eta barruko historiaz. In Xabier Artiagoitia, Patxi Goenaga & Joseba A. Lakarra (arg.), «*Erramu Boneta*»: *Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk* (*ASJUren Gehigarria* 44), 629-649. Bilbo: UPV/EHU.
- Urgell, Blanca. 2003. Eratorpena Larramendiren hiztegian (I): Eratorbideen analisia. *ASJU* 37(1). 203-260.
- Urgell, Blanca. 2005. Larramendiren euskal liburuak 1745 arte: testu bibliografiaranzko hurbilketa bat. *Lapurdum* 19. 1-39.
- Urgell, Blanca. 2018. Lehen Euskara Modernoa. In Joakin Gorrotxategi, Iván Igartua & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskararen Historia*, 543-657. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Urgell, Blanca. 2023. 1720ko *Imitazionearen* iturriak: lehen hurbilketa. Liburu honetan argitaratua.
- Urkizu, Patri. 1989. *Pierre d'Urteren Hiztegia (Londres 1715)*, 2 lib. Donostia: EUTG-Mundaiz.
- Zuloaga, Eneko & Borja Ariztimuño. 2023. Sobre la lengua de la Mano de Irulegi: apuntes y conjeturas. In Ekaitz Santazilia & Joaquín Gorrochategui (arg.), *Irulegiko eskua: gogoe-tak paleohispanistikatik eta euskalaritzatik (Dosierra)* (*FLV* 136ko atal berezia), 565-581. Iruñea: Nafarroako Gobernu.

Hualde deitura, hidronimia eta paisaiaren elementuen kokapena Euskal Herriko ekialdeko mugetan

The surname Hualde, hydronymy and the location of landscape elements in the Eastern boundaries of the Basque Country

Juan Karlos Lopez-Mugartza Iriarte*
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

ABSTRACT: The surname Hualde is present in many of our villages and valleys, but with some variants and different spellings it occurs more frequently in the north-eastern limits of Euskal Herria. Based on the study of the surname, its variants on both sides of the Pyrenees are investigated and the components that make it up are analysed; on the one hand, the hydronyms derived from the Basque base *ur* ‘water’ and, on the other, those constructed with the Basque postposition *-alde* ‘towards the part of, near of’. This also makes it possible to analyse other hydronyms and other common and habitual postpositions in Basque Onomastics, since the postpositional is the way chosen by Basque to express what Romance languages reflect by means of prepositional locutions. Thus, thanks to the postpositions of place, the exact location of the house or place name to which they refer can be determined, and the place occupied in the landscape by the first compositional element of the name it accompanies can be precisely indicated. Throughout the article, we analyse the hydronyms found mainly in the Roncal Valley (Navarre) and in the neighbouring towns of Larrau and Santa Engracia (Basabürüa, Zuberoa) and, to a lesser extent, and always in relation to the previous ones, in the Salazar Valley (Navarre), in the valleys of Barétous and Aspe (Béarn) and in the Ansó Valley (Aragon). The study of this semantic field shows the postpositive richness of Basque, which clearly shows the *continuum* existing between both sides of the Pyrenees. In fact, there are few cases in which a toponym or a surname is not found on both sides, albeit with small differences adapted to each place; there are indeed peculiar morphological or phonetic features that define their origin, but which, ultimately, are also clearly recognised as mere variants of the same common trunk, proof that in another time the relationship between both communities was very close, to the point of constituting the same neighbouring community in which the Pyrenean mountains were not an impassable limit, but a meeting place.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Juan Karlos Lopez-Mugartza Iriarte. Departamento Ciencias Humanas y de la Educación - Facultad de Ciencias Humanas y Sociales (UPNA/NUP). Edificio Los Magnolios, Planta Baja, desp. 0035 (31006 Iruñea). – mugarza@unavarra.es – <https://orcid.org/0000-0001-6906-2013>

Nola aipatu / How to cite: Lopez-Mugartza Iriarte, Juan Karlos (2023). «Hualde deitura, hidronimia eta paisaiaren elementuen kokapena Euskal Herriko ekialdeko mugetan», *ASJU*, 57 (1-2), 613-629. (<https://doi.org/10.1387/asju.25968>).

Jasoa/Received: 2022-11-30; Onartua/Accepted: 2023-03-24.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago

KEYWORDS: Basque language; hydronymy; names; onomastics; place names; postpositions; toponymy.

LABURPENA: Hualde abizena gure herri eta ibar anitzetan hedatuta dago, baina aldaera eta grafia ezberdinekin Euskal Herriko ipar-ekialdeko mugetan sarriago gertatzen da. Abizenaren azterketatik abiatuta, Pirinioen bi aldeetako aldaerak ikertu dira eta berau osatzen duten osagaiak aztertu ere bai; alde batetik, ur oinarritik eratorritako hidronimoak, eta, bestetik, -alde postposizioaz eraikitakoak. Era berean, beste hidronimo batzuk eta euskal onomastikan obikoak diren beste postposizio batzuk ere aztertu dira; izan ere, postposizioen bidea izan da euskarak aukeratu duena hizkuntza erromanikoetan preposizio-lokuzioen bidez islatzen dutena adierazteko. Honela, leku-postposizioei esker, etxearen, abizenaren edo toponimoaren kokapen zehatza jakin daiteke, bai eta zehatz adierazi ere berak modifikatzen duen izen elkarketaren lehenengo osagaiak zein leku hartzen duen paisaian. Artikuluan zehar, batez ere Erronkarin (Nafarroa) eta mugakide diren Larraine eta Santa Grazi herrietan (Basabürüa, Zuberoa) aurkitutako hidronimoak aztertzen dira, eta, neurri txikiagoan, Zaraitzun (Nafarroa), Baretos eta Aspe ibarretan (Biarno) eta Anso ibarrean (Aragoi) aurkitutakoak. Era berean, -alde konposizio-elementuaren multzo semantikoaren azterketak agerian uzten du euskararen aberastasun postpositiboak, argi eta garbi erakusten baitu Pirinioen bi aldeetan artean dagoen continuum-a. Izan ere, oso kasu bakanetan soilik ez dago bi aldeetan toponimorik edo abizenik partekatua ez denik, leku ezberdinetara egokitutako lerradurekin bada ere; badira, hain zuzen ere, haren jatorria definitzen duten ezaugarri morfologiko edo fonetiko bereziak, baina, azken batean, enbor komun beraren aldaera huts gisa ere argi eta garbi aitortzen direnak, garai batean bi komunitateen arteko harremana oso estua izan zela erakusten dutenak, Pirinioetako mendiak ez baitziren muga gaindiezin bat, elkargune bat baizik.

HITZ GAKOAK: Erronkaria; zuberera; hidronimia; izenak; onomastika; leku-izenak; postposizioak; toponimia.

Aitzin solasa

Las palabras que mencionaré las aprendí casi todas de mi familia y en mis estancias en Uztárroz de niño, además de alguna otra que me ha proporcionado ahora mi padre, Ignacio Hualde Mayo, nacido en Uztárroz en 1928.

Mi abuelo, José Hualde, nacido en Uztárroz en 1898, aprendió el vascuence como primera lengua, pero lo fue olvidando con los años por falta de práctica. Mi abuela, María Mayo, nacida también en Uztárroz pocos años después, sólo aprendió castellano en su casa y, aparte de algunas estrofas de canciones vascas, sólo sabía palabras y frases sueltas que aprendió de escuchar las conversaciones de su madre con otros adultos. Mi padre recuerda la lengua vasca como algo todavía muy común en Uztárroz durante su niñez pero que, como el traje roncalés y otras tradiciones, estaba asociado con un grupo de personas nacidas algunos años antes que mis abuelos.

Hualde (1995: 522)

Hualde abizena oso zabalduta dago Erronkaribarren eta asko izan dira abizen hau izan duten izen handiko erronkariarrak; esate baterako, *Miguel Hualde* jauna, 1723tik 1729ra arte Bidankozeko bikarioa izan zena, eta *Prudencio Hualde Mayo* jauna, 1920 eta 1925 bitartean kargu bera izan zuena. Biak oso ezagunak izan ziren, lehenengoa bere lana taxuz egin ahalko zuela frogatzeko Erronkariko *uskara* bazekiela erakutsi behar izan zuelako (Bidankozarte 2019a), eta bigarrena, Bonaparte Printzeari eman zion laguntzagatik.

Abizen honetaz dugun lehenengo testigantza Bidankozeko su eta zedarrizteen liburuan kausitzen da; izan ere, 1366-1368 urteetako zerrendan *Sancho Hualde* aipatzen da, Bidankozen bizi ziren hogeita hamar bizilagunetariko bat zena (Bidankozarte 2019b). Leireko dokumentazioan beste *Sancho Hualde* bat aipatzen da 1425eko agiri batean (Fortún 1992), agian aurrekoaren semea edo senidea izan zitekeena. Azken hau Bidankozeko kapilaua izan zen eta parte hartu zuen epaile bezala Leireko eta Urdazubiko monasterioen artean sortu zen auzi batean. Dirudienez, zortzi urtez urdazubitarrek ez zieten Leirekoei eman urtero zerga gisa ordaindu behar zieten izokina, eta, horregatik, Leirekoek kalte-ordainak eskatu zizkieten; epaileek ebatzi zuten, izokinaren orde, ordutik aurrera Aragoiko urrezko lau florin eta erdi ordaindu beharko zizkieten, eta aurreko zortzi urteetan izokinik eman ez zuten zergo, 20 florineko kalte-ordaina finkatu zuten.

Esanak esan, abizena ez da soilik Erronkaribarren kausitzen; hain zuzen ere, Nafarroako beste leku askotan ere dokumentatzen da; esate baterako (Iñigo & Rekalde 2018), Amaiurren (*Hualdea* 1669, *Hualderena* 1710, *Hualderenea* 1784, *Hualdene* 1827 eta *Ugaldenea* 2017), Zubietan (*Hualdea* 1622), Narbarten (*id.*, 1653), Donezteben (*Hugalde*, 1591) eta Urdazubin (*id.*, 1647). Orobat, Ibarak (2011) Mezquirizko izen hauek aipatzen ditu: *Pedro Anso de Hualde, de Alduides* (xvii. mendean); berriz ere *Sancho de Hualde* izeneko beste bat (1723) eta *Margarita de Hualde* (1733). Leyreko Bezerro Liburuan (Cierbide 1977): *Eneco Garceiz, senior de Hualdea* (1097). Beraz, ezin da esan *Hualde* Erronkaribarko abizen pribatiboa denik, baina inon baino maiztasun handiagorekin aurkitzen dela, bai; jakina, Zaraitzu eta Erriberearekin batera. Nolanahi ere, argi dagoena da abizen hau ezaguna egin dutenen artean erronkariarrak izan direla nagusi, lehen aipatutako bi erretore bidangoztar eta egungo idazle eta irakasle ospetsu batzuen kasuan bezala. Hurrengo lerroetan, abizen honekin zuzeneko edo zeharreko lotura duten deitura eta leku-izen anitzen testigantzak aipatuko dira, guztiak Erronkaribarko edo mugakide dituen herrietako artxibotan jasoak (Lopez-Mugartza 2008; *EAT* laburduraz egungo grafiaz aipatzen direnean, edo urte soilaz dokumentuan jasotzen den aldaera zuzenean aipatzen denean). Era honetan, *ur*- erroarekin lotutako hidronimoak eta *-alde* postposizioa duten beste abizen eta toponimo batzuk aztertuko ditugu.

1. *Hualde* abizena eta hidronimia

Hualde abizenaren lehenengo osagaia *ur* hitzaren murrizketa da. Bilakaera hau izen elkarketan baizik ez da gertatzen, *u(h)*- bilakatzen delarik, baina testuinguru honetatik at, dardarkariaren galera ez da gertatzen.

Erronkarin, halere, ez da ohikoa ibaiari *ur* izen soilarekin deitzea, ez behintzat euskaraz; erdaraz, berriz, bai: Izaban, «*lagua e rio que descende a lagua mayor d'Esca*», 1345; Uztarrozen, «*la agoa maior de Uztarroz*», 1427; Arette-Eretan, «*l'aygue aperada Larron*» (Peillen 1989). Baretos ibarreko Sarraltzūnen, berriz, *ur* gorde da hidronimo hibrido batean, *Hourmayou*, 1987; cf. Arzacq kantonamenduan, *Riumayou*, 1882. Erronkarin, oro har, *ugatxa* deitzen zaio; esaterako, Izaba top. *Arainko Ugatxa*: «en el ter[mi]no llamado arayncougacha ottra pieça de tierra en senbradura de siete Juntas» (1572), «en el termino llamado Araynco Ugacha una heredad» (1577); Uztarrozen, orobat, «Arancogacha» (1806); bestalde, elkarketa baten lehenengo osa-

gai bezala: Izaba, top. *Ugaxiloa*: «la parte llamada ugaJiloa» (1649). Era berean, baina maiztasun gutxiagorekin, *erreka* izena erabiltzen da; esaterako, Urzainkin top. id., «el Camino de Errecagacha» (1615).

Zuberoako herri mugakideetan forma nagusia *uhaitz* da: Larrainen, top. *Uhaitz ordokia*: Uhaix ordoquia (1832), *Uhaitz gañeko alhorra*: Uhaits gagneco alhorra (1832), *Uhaitz ondoa*: Uhayxa ondouan (1832); eta, orobat, Santa Grazi, top. *Uhaitz ondoa*: Üheyçondua (1914).

Bestalde, aldaera metatetikoak ohikoak dira Erronkaribarren; esaterako, Izaban, *egutxa*, (Urzainkin *ugatx*, *FHV* 178) eta Uztarrozen, *eguatxa*. Dena dela, bilakaera metatetikoak ahozko hizkuntzan gertatu zen bereziki; esaterako, Izabako Antonia Anaut andrearen mintzoan, *egutxa*: «... bi remo, bi gizon kor, eta... giblekuan, bat, ta kola, Zarakoazaradreino, *egutxa barna ...*» (Artola 1977: 83), «Almadiak, almadiak... Onzi-biétan, eta gero, *egutxáren bárna*, Zarakozara» (Artola 1977: 86), «San Juan ègunian, gèntia... góizan bérton, a la mañana luego, *egutxára* eta zánkoak ékuz eta... buría ere báí... óraí ez; oráí, níóre èz xoaitán *egútxara*, oráí etsén, bañerán sár ta kór ékuz ta fuera... ah! oráí, oráí beláizurik *egutxán* sar kán gúziak...» (Artola 1977: 92).

Uztarrozen *eguatxa* da erabiltzen zen ohiko forma; hain zuzen ere, Uztarrozeko Manuel Labairu jaunak herrian egiten zen hitz joku baten berri eman zidan 1994an (Lopez-Mugartza 2008: 1362): «(E)guatxa, para algunos lo mismo que *agua echa*». Josu Orduna *Kabila* (1994, infor.), Uztarroze top. *Guatxandoa*. Antonia Anaut andrearen mintzoan bertan kausitzen da forma hau (Artola 1980: 70): «Nòra xoáitan? konáino? almadiéroak nòra xoáitan? Zaragózara; *èguatxáti*... y kémenti, séi, zázpi ègun, *èguatxá* abajo xuán, Erribráko y eta gèro éltan Zaragózarà, y eta a... Tudéla... élta(n), y Tortósan ere báí.» Azentua dela eta, Artolak (1980: 69) *eguatxa* mugatua bada [eguatxá] ahoskatzen dela dio.

Honela bada, arrazoi linguistikoengatik ere gehiago lotzen zaio abizen hau eremu honi, beste leku batzuei baino. Izan ere, alde honetako dokumentazioan, beste lekuetan ez bezala, abizenaren hiru aldaerak aipatzen dira, bi Pirinioen hegoaldekoak, *Hualde* eta *Ugalde*, eta beste bat iparraldekoa, *Uhalt*, Zuberoan. Aldaera horiek argi islatzen dituzte *ur* oinarri hidronimikoaren dardarkariak jasaten dituen aldaketak izen-elkartu baten lehenengo osagaia izan eta bokal ireki baten aurrean dagoenean; adibidez, Zuberoako abizenetan kontsonante hasperenduna dugu testuinguru horretan, eta, aldiz, Erronkariko abizenetan, edo kontsonantea erabat galtzen da (hau da abizenetan maizenik gertatzen dena) edo belar ahostun modura garatu da, oinarri bereko Erronkaribarko hidronimo guztiekin gertatu den bezala: *ugatxa*, *ugarre*, *ugar-tea*, etab. Zuberoan, berriz, beti izaten ditugu forma hasperendunak: *uhaitza*, *uharre*, *uhartia*, etab. Bestalde, ez Zuberoan, ez eta Erronkarin ere, ez da kontsonante muturrik duen aldaerarik kausitzen, ez bada gorago aipatu den, baina hemengo denetz ez dakigun Leyreko Bezerroko hapaxa: *Hualdea* (Cierbide 1977).

1.1. *Hualdea*, *Hualtea* eta *Ugaltea*, *Hualde* abizenaren korrelato toponimikoak

Hualde abizena oso hedatuta dago Erronkaribarren, eta horren froga garbia Bidadankozeko oikonimian utzi duen arrastoa (*Hualderna*, Aznarez 2018; Lopez-Mugartza & Erronkariko Euskara Zerbitzua 2018). Ondoko ibarretako borden izenetan (edo leku baten jabetza adierazten duten izenetan eta) maiz agertzen da abizen

hau; esaterako, *NTO*ko datuen arabera, Biotzarin [Erromantzatua], *Borda de Hualde*, *Borda Hualde* (1898); Jaurrietan, *Borda de Hualde* (1916; *El Portillo de Hualde*, 1994); Itzallen, *Borda de Hualde* (1991); hemendik urrutixego, Izagaondoan, *La Borda de Hualde* (1994), eta Lizarraldean, ibarretik batere hurbil, Allon, *Hoya de Hualde* (1993). Adibide gutxi hauek balio dezatela mota honetako leku izenen hedaturaren froga gisa.

Hala eta guztiz ere, beste mota bateko toponimoetan abizen honen korrelatoa, besteak beste, *Hualdea* izan da Nafarroako herri anitzetan; esaterako, *NTO*ko datuen arabera, Goizuetan, *Hualdea* (1650; *Hualde*, 1750); Legasan [Bertizarana], *Hualdea* (1686; Baztan Ibaia izendatzeko, *Ualdia* [uáldia], 1994).

Toponimo hau Leyreko Bezerro Zaharrean aipatzen da lehenengo aldiz, 1105ean hain zuzen ere, katalogoan agiri honi buruz egiten den erreferentzian 1067 urtea aipatu arren (Goñi Gaztambide 1963: 162): «Fortunio, sacerdote dona a Eximino, abad de Iruña, *el monasterio de Hualdea* con sus pertenencias. Facta carta era M.a C.a V.a». Egileak dioenez, monasterio hau bi Bezerroetan, zaharrean eta txikian, aipatzen da. Monasterio hau Elortzibarko Ezperun herriko *San Felix de Hualdea* eliza izan daiteke, Leireko Monasterioari atxikiturik zegoen *Hualdea* izeneko eliza edo «monasterio» bakarra zelako. Hauxe balitz, Erronkaribartik urrun dago. Cierbidek (1976) Leyreko Bezerroko *Urdinsade* (*urdinsaroe) *ualdea* (1110) toponimoa aipatzen du, baina ez du zein herritakoa den esaten; halere, demagun gure aldekoa zela, adibide bakana izaten segituko zuen, ez baitzukeen jarraipenik izango geroan.

Hortaz, Erronkaribarren *Hualde* abizenaren korrelato toponimikoa *Hualdea* ez bada, gutxitan agertzen baita, pentsa liteke *Hualtea* izan litekeela, *-alte* baita ia sistematikoki ibar honetako toponimian agertzen zaigun postposizioa; izan ere, Cierbidek (1976) Leyreko Bezerroan *Hualtea* (1097) eta *Valtea* (1107) leku izenak dokumentatzen ditu; haiekin batera, arestian aipatutako *Hualdea* (1097) ere jasotzen du, denak aurkintza beraren izenaren aldaerak diratekeenak. Ordea, engoitik ez da *Hualtea* berriro dokumentatuko Erronkaribarren, eta, aldiz, harrigarriena dena, hemendik urrun dagoen Lede herrian, berriz, bai: «en Liedena ... en el termino llamado *hualtea*» (1562, *EAT* 4025). Zalantzarik gabe, akats baten aurrean gaude. Litekeena da grafia honen atzean Pio Punt notario erronkariarraren ulertze akats bat egotea, bera baita agiriaren egilea. Honela, gerta zitekeen entzun zuena (*Hualdea* izanen zena), bere aburuz *Hualtea* izan zela uste izatea, eta halaxe berreinterpretatu eta jaso zuen, hori baitzen Erronkaribarko toponimian espero zitekeena, baina ez Ledeakoan.

Beraz, ez du ematen Erronkaribarko toponimian *Hualdea* edo *Hualtea* emankorrrak direnik. Aitzitik, horien ordeztu *Ugaltea* da artxibo guztietan aurkitzen dugun aldaera bakarra, beti *osin* hitzaren modifikatzaile bezala. Abizenetan *Hualde* nagusi den bezala, *Ugaltea* (*osin ugaltea*) da nagusi toponimian bere grafia eta aldaera guztiek (EAT): Izaba, top. *Osinugaltea* (1565), *Osin hugaltea* (1595), *Osin Ugaltea* eta *OssinVgaltea* (1600), *Osinhugaltea* (1605), *Hossin hugaltea* (1605), *Ossinugaltea* (1608). Gaur egun leku honi *Usunukaltea* deritzo.

Iparraldeari dagokionez, *Uhaltea* da aldaera nagusia, [uhaltia] moduan ahoskatuta: Santa Grazin, *Uhaltie*, *Uhalteçayece* (1914), Larrainen, *Uhalartia* (1832); cf. halere, besteak beste, Altzürükun top. *Uhaldea*; Bastida-Arberoan, *Uhalde* eta Bithiriñan, *Dubalde*.

Nafarroako Toponimian *Ugalde* (eta, absolutiboan, *Ugaldea*) izeneko toponimo ugari daude; esaterako (*Ugalde*, *NTO*): Auritz, Prado de *Ugaldecosaroa* (1687; *Ugaldesaro* [ualdesáro], 1993); Izurdiaga (Arakil), *Ugaldeta* (1720). Mugatzailearekin: Erron, *Ugaldea* [ugáldea], Erro Ibaia izendatzeko izen hori ibiltzen dute. Urdazubin, *Ugaldea* (1994). Aldaera ezpainbikoarekin: Etxarri-Aranatzen, *Elcorriubaldea* (1702; Rio de Elcorri, 1706); Urdazubin, *Ubaldea* (1894; baina, La Cassa llamada *Hualdea*, 1702).

Bestalde, ohikoena *Ugalde* eta *Hualde* aldaerak indistintoki nahastea da, ondoko adibideetan erakusten den bezala (*NTO*): Etxaurin, *Hugaldeçabaleta* (1544), *Hualdeçabaleta* (1551); Azkaraten (Araitz), Casa *Ugaldea* (1691; *Ugalde* [ualdé], 1992); Baztanen, *Hualdea* (1701; Casa de *Uhalderena*, 1702; *Hualdecochealdea*, *Ugaldenea*, *Hugaldenea*, 1894; *Ugaldeko* borda, 1994; *Ugaldea*, *Ugaldenea*, 1994); Arribe-Atallun (Araitz), *Artize Hualdea* (1709; *Artisualde*, *Artiz Ugalde*, *Artizugalde*, 1990); Itsason (Basaburua), *Ugaldeta* (1712; *Hualdeta*, 1893; *Ugaldeta* [ualdéta], 1993); Igantzin, Borda *Ugaldecoborda* (1752; *Ubaldea*, *Ubaldia*, *Ubaldecoborda*, 1795; *Hualdecoborda*, 1960); Sarasibarren (Esteribar), *Ugaldea* (1789; *Hualdea*, *Gualdea*, 1901; *Ugaldea*, 1994); Ituren, *Hualdea* (1850; *Ugaldea*, 1988); Urritzolan (Arakil), *Ugaldeta* (1883; *Gualdeta*, *Hualdeta*, *Hugaldeta*, 1894); Orokieta-Erbitin (Basaburua), *Hualdeondoa* (1915; *Ugalondoa* [uelóndoa], 1993); Allin (Larraun), *Hualdeta*, *Ugaldeta* (1915); Zuhatzun (Arakil), *Hualdeta* (1915; *Ugaldeta*, 1991).

1.2. *Ugalde*, *Hualde* abizenaren sinonimoa

Beraz, toponimian *Hualtea* / *Ugaltea* dikotomia asimetrikoa da, ia kasu guztietan *Hualtea* aldaera belarra aukeratzen baita. Halere, abizenetan ez da gauza bera gertatzen, *Ugalde* ohikoa den arren, *Hualde* da nagusi Erronkaribarko onomastikan. Biak sinonimoak dira eta zenbaitetan trukagarriak (agiri berean *Hualde* eta *Ugalde* aldaerak aurki ditzakegu pertsona bera izendatzeko: «Josepa *Ugalde* [orri bazterrean, *Hualde*], Erronkari, 1787).

Honela, *Hualde* aldaeraren ondoan, *Ugalde* dugu, *ur* hitzaren *u(h)*- garapenaren ondorioz sortutako hiatoa apurtzeko nagusitzen den aldaera belarra, *ug-*. Hona hemen, Bidankozeko adibide batzuk (*EAT*): Joan *Ugalde* (1665), Sanch *ugalde* (1676); Agustin *Ugalde* (1676).

Grafia ezberdinak saiatu dira abizena idazteko, hona hemen garrantzitsuenak; hauxe batez hitz hasieran, Izaban: Juan Martin *Hugalde* escribano (1817), Andres *Hugalde* (1817) eta *V* grafiaz hitz hasieran, Bidankozen: Joan *Vgalde* (1676).

Hala eta guztiz ere, hiato baten erdian ezpainbikari bat sor daitekeen bezala, ematen du hitz hasieran gauza bera gerta daitekeela aurreko atzealdeko bokal goikoaren kontsonantizazioaren ondorioz; adibidez, Izaban, «Joanes *Valt* als. Larrayn» (1573) eta, orobat, gorago aipatu den *Valtea* toponimoa. Jakina, gerta daiteke bokala adierazteko eskribauak erabili duen grafia latinzale hutsa izatea, arrazoi gehiagorekin kontuan hartzen badugu maiuskula dela; baina, argi dago honelako grafiak ebakera konsonantikoa (edo, gutxienez, semikontsonantikoa) ahalbidetzen duela.

Grafia honetaz denaz bezainbatean, bada adibide deigarri bat Ansoko onomastikan, Ibarreko Artxiboko Kapituluazioen Liburuan *Ugalde* abizenaren aldaera guztiz berezi bat dokumentatzen da, bere osakeran hasierako bokala bikoiztu baita (edo, nahiago bada,

haren aurrean erdikontsonante bat garatu baita, atzeko bokal goikoa galdu gabe, horri ere eutsiz): «Primo fue tratado entre dichas partes q. el dicho Martin de *Vugalde* rienda el Puerto de Estibiella y Tortiella por tiempo de un año» (1655, *EAT* 4860).

Jakina, inguramendu fonetiko honetan aldaera belarrak sortzea ez da zaila, dela metatesiak eraginda (*Ugaldea* > *Gualdea*), dela hitz hasierako bokal bikoizketaren lehenengo osagaiaren kontsonantizazioak eta artikulazio puntuaren aldaketak sortua (*Vualde* > *Gualde*). Esandakoaren adibideak dira Nafarroako toponimian kausitatu-tako ondoko hauek (*NTO*): Sarasibar (Esteribar), *Gualdea* (1901); Urritzola (Arakil), *Gualdet*a (1894). Cf. *Vuasconia* (VII. mendea, Fredegarioren Kronikan; Auñamendi), *Wasconia* (Orpustan 2000), *Wasconia ou Vasconia* (Morvan 2004), eta guztiz belar bilakaturik, *Gwasconia Descriptio*, *Gasconia* (Botero 1598).

Hala eta guztiz ere, aldaerarik bitxiena Artzi ibarreko Uritz herriko toponimian aurkitzen da; herri honetan erdal itxura hartu duen *Baldezocoa* (1892, *NTO*) leku izena dokumentatzen da, 'Val de Zokoa' bezala uler daitekeena, baina Uritzen ez dago inongo ibarrik *Zokoa* deitzen denik, *Hualdezokoa* izeneko leku bat, berriz, bai: *Hualdezocoa*, *Hugalzoco* (1892; *Ugalzoko*, 1994). Beraz, argi dago, kasu honetan bederen, hitz hasierako bokal ezpainkaria noizbait erdikontsonante bezala ahoskatu zela eta, azkenean, guztiz kontsonantizatu zela.

Gertakari hau oztopatzeko, gaztelaniaz beti markatu ohi da etimologikoa ez den hatxe bat izenaren aurrean eta, honela, irakurlea behartzen da, edo gidatzen, *h*-aren ondorengo letra bokal gisa ahoskatzera, haren kontsonantizazioa ekidinez; gauza bera egin zuten Erronkaribarko eskribauek: *Hualde*, *Huarte* idatzi zuten, eta ez, *Ualde*, *Uarte*; edo ez zuten, grafia latinizatuan, *Valde*, *Varte* idatzi, [balde] edo [barte] ebake-rak ahalbidetzen direlako.

Beraz, gaztelaniaz hatxea erantsi bada, arrazoi praktikoak direla medio izan da, baina ez arrazoi etimologikoez eraginda. Euskaraz, berriz, hitzaren jatorrizko formarekin begirunea erakusten duen grafia hatxeduna erabiltzen dugu, *Uhalde*. Honela, hatxearen ebakerak, mutua Hegoaldean edo hasperenduna Iparraldean, noizbait leku horretan egon zen dardarkaria gogora dakarkigu, eta hark sortutako hutsunea betetzera dator bera (*EAT*): «Alexis Uthurburu dit *Uhalt*» (1832, Lorraine); aldaera, *Duhalt*, «Bernardo *Duhalt* de Sola» (1661, Santa Grazi). «Zacharie Capdepon, allié *Duhalt*, au Bourg» (1914, Arette).

Laburbilduz, Erronkaribarren *ura* izena eta *-alde* postposizioa batzen dituen abizenaren aldaera nagusia *Hualde* da, *Ugalde* bigarren aldaerarik hedatuena izanik. Bestalde, *Uhalde* izenaren etimologia gehien errespetatzen duen grafia da, Zuberoako *Uhalt* abizenarekin batera, hatxea espero genezakeen lekuan agertzen baita. Toponimiari dagokionez, *Ugaltea* da, salbuespenak salbuespen, ibarrean aurkitzen dugun forma bakarra, *Uhaltia* Santa Graziko, eta oro har Basabürüko, aldaera izanik.

2. *-alde* postposizioa eta bere aldaerak

Mitxelenak (1969: 43) García Larragueta (1957) atonduriko Jerusalemgo San Joan Ordenako Nafarroako Prioretza Nagusiaren Bilduma Diplomatikoko izenak jasotzen ditu, XII.-XIII. mendetakoak gehienak: «*Urracha Donamaria aldeco* 'de la parte de Santa María', *Sanso Lavaldeco* 'de la parte del horno'». Ildo beretik, Cierbidek (1976: 257) Leyreko Bezerroaren adibideak jasotzen ditu: «(illam cafam de-, f. 96,

1102) *Hualdea, Hvaltea, Valte.*» Cf., halaber, Mitxelena (1973: § 33). Iñigo eta Rekalde (2018: 192) egileek Nafarroako herri anitzetako testigantzak ematen dituzte: «*Çubialde* eta *Çubialdea* (Ituren, 1565), *Eliçaldea* (Beintza-Labaien, 1545; Doneztebe, 1571), *Errecalde* (Zubieta, 1544; Ituren, 1613; Erratzu, 1691; Amaiur, 1758), *Errotalde* (Lesaka, 1607; Bera, 1692), ... *Osinalde* (Arantza, 1726), *Yturaldea* (Almandoz, 1361)...».

2.1. *-alde*: Erronkarin bereziki eta Zuberoan hapax moduan

Eibera. Larraine, deit. *Eiheralde*: Eyheralde (1832).

Eliza. Burgi, deit. *Elizalde*: Elicalde, linar de andelle (1562), Eliçalde, domingo (1667), Elizalde, tomas de (1659, Bardea). Urzainki, deit. *Elizalde*: Elicalde, migl. mjn. (1583), Eliçalde, martin (1581). Hualdek (1995: 511) dioenez, hitz honen deklinabidean bokal-uzkurdura ohikoa da eta ez dagoenean, nolabaiteko presio analogiko batek sortua da. Horrela, *elizáko* genitibo-lokatibo singularra [I61: 398]¹ / *eliza-kol* da, eta ez /*eliza-a-kol*/, cf. *ídi-ko* 'hiriko'; azentua uzkurdura duten beste forma lokatibo berezi batzuekiko analogiaz eraikiko da, hala nola *elizán* inesiboa [AM58] eta *elizára* adlatiboa [AM58]. Hualdek (2017: 177) aipatzen duen bezala, zubereraz «azentua oro har azken-aurreko silaban doa eta salbuespenek azentua azken silaban dute. Erronkarieraz, aldiz, bi azentuera horietaz gain, azentua azken-hirugarren silaban kokatzen da maiz.»

Erreka. Bidankoze, deit. *Recalde*, Luis (1892). Zaraitzu, deit. *Recalde* diputados, mn. (1631). Recalde, y por el quinon de atabea miguel (1665). Recalde de ygal, miguel (1665, Igari). Aldaera bi atzizkien baturaz (*-alde-*, *-bürü*): Santa Grazi, top. *Errekaldebürria*: «Errekaldeburie» (1914). *Errekaldebürü*: «Errekaldeburu» (1914). Interes handikoa da toponimo hau, zeren eta argi eta garbi erakusten baitu toponimian *-alde* postposizioa gordetzen dela beste postposizioarekin batera doanean, baina kontsonantea ahoskabetzen dela eta, mugaturik baldin badago, bokala hesten dela postposizioa bakarrik dagoenean: *-altia*.

2.2. *-aldea*: Ez Erronkarin, ez Zuberoan

Gure aldeko toponimian ez da kausitzen, gertuko ibarretan ohikoa den arren:

Erreka. Sansoain, Urraulbeiti, top. *Errekaldea*: «Sea Manifiesto y nottorio a quienes Veran esta escritura publica de poder y procuracion como en el lugar de Sanssoayn del Valle de urraul... el termi.o de *errekaldea*... en la misma endrecera de *erreca aldeas*» (1616), «SePan quantos esta pnte. carta e Inposiçion de çenso Vieren como yo Joan de yribarren veçino del lug.r de yribarren veçino del lug.r de sanssoayn del valle de Vrraul tanto en mi propio nombre como pror. que soy de... Miguel enecot vezino del lug.r de Artaxo... yten una pieça de quatro rouadas sita en el

¹ Hualderen lanean aurkitzen dira erreferentzia hauek: «[I61]» Izagirre (1961) lanari dagokio, eta «[AM58]», berriz, Jacques Allières-ek eta Koldo Mitxelena 1958an Izabako Simona eta Pastora Anautek egindako grabazioari.

termino de *erecaldea* afrontada con el regacho que passa de lado de la una parte y de la otra con camino real que ba para el lugar de nardues andurra... mas otra pieca de seys rouadas en la mesma endrecera *erecaldea* afrontada con pieca de mn. de Perez de la una parte y de la otra parte con camino j senda que ban para la ermita de san saluador» (1616).

2.3. *-alt*: Zuberoan, azken bokala galdurik

Hegi. Uztarroze, deit. *Egi*alt. Eguialt, campos de mateo aroca y mateo (1649); Heguialt, la dicha maria (1650); Heguialt, un campo de mateo (1650). Hualdek (1995: 521) *-egi* atzikia duen *patatégia* hitza jasotzen du 'lursagarren edo pataten gela' eta, era berean, beste hau gaineratzen du: *aguixagi* 'abartegia, egurtegia' (1995: 520).

Eibera. Feas/Inhasi, Baretos & Eskiula, deit. *Deyheralt*. (1793): «Par devant Moy Notaire publicq-Resident aramits chef lieu du Canton Districq Doloron et les temoins Bas nommés á été present le citoyen *Joseph Deyheralt* *Laboureur Desquiule*... En faveur de pierre Mendiondou Cadet d. Bordachar laboureur demeurant à feas Egalment present et acceptant toute y cella piece de terre en nature de prè Scituée au d. lieu de feas de Contenance de deux arpents... Confrontant avec chemin publicq, leau de litos, et terre Commune.» Lorraine, deit. *Eiheralt*. Egheralt, Jean (1832); top. Eyheraltceberia (1832). Santa Grazi, deit. *Eiheralt*: Eyheralt (1860); borda iz. Eiheraltborda (1914). Herri honetako toponimoen artean gauzatze bitxi bat gertatzen da, zenbaitetan postposizioaren berretura edo emendatzea gertatzen delako: *-alt- + -altia*, Santa Grazi, top. *Eiheralt altia*: Eyerhalt altia (1838); *Eiheraltaltia*: Eyerhaltaltia (1838). Beste alde batetik, *-alte > -alt* murrizketa gertatu ondoren, bigarren garapen bat gerta daiteke azkeneko kontsonantearen beraren galera ahalbideuz (*-alt > -al*): Santa Grazi, deit. *Eiheral(t)*: Eyheral Alçat, Dominique (1914).

Eki. Uztarroze, deit. *Eki*alt. Equialt vezina de Ustarroz, Graxi (1525). Izaba, deit. id.: «Carta de bentta ottorgada por Sancho lurro vezino deUztarroz en fabor de pettri equialt bezino dysaba» (1569).

Eliza. Urzainki, deit. *Elizalt*: Elicalt, una pieza del dicho Pedro (1636). Santa Grazi, deit. *Elixalt*: Elichalt, Antoine (1861), *Elichalt*-Junet (1865); top. *Elixalt*: Elichalt (1914). *Elixalt berria*: Elichalt berria (1914), Elichatberria (1838). Montori-Berorize, top. *Elissalt (EAT)*. Halaber, Biarnoko Baretos ibarreko Aramitzen, deit. *Dichalt (Elixalt > (El)ixalt)*: «un piece de terre en nature de pré avec les arbres y existants sauf les Chataigneurs que le Sr. Casebonne Sest Reservé pour luy appellée Barbarly de Contenance de trois arpentes Grosse perche ou Environ, Située au d. lieu Daramits... Confrontant de lun cotté avec terre de lahitte, de lautre avec terre du d. Sr. *Dichalt* acquireur» (1789). Aldaera bi atzizkien baturaz (*-al(t)-, -be*): Lorraine, top. *Elixalbe*. Elichalbo Enclos (1832).

Erreka. Feas/Inhasi & Esquiule/Eskiula, deit. *Recalt* (1789): «Par Devant Moy Notaire Royal et temoins Bax Nommes áété present alexis Béhéragaray cadet du lieu Desquiule habitant a feas principal, et avec luy Joseph Beheragaray son frere aine, et pierre mendiondou du d. lieu Desquiule... en faveur du Sieur de Casaulong prete,

curé de feas, et docteur en theologie... presents et temoins *Simon Recalt du d. lieu D'esquiule*, Ciprien Sabuquidoy de Roquiague en Soule, et moy Antoine Danchou... Beheragaraicadet, Beheragaray, Mendiondo, Mendiondou fils Regent du lieu Daramits.» Santa Grazi, deit. *Errecalt*, Pierre (1914).

Keheila. Hualde (1995: 523): «*queleta* 'escalerilla de madera; cancilla' > *cleta*.» Cf. *OEH* (s.v. *keheila*): «Onom. Quehelhauguy (1520) ... (kehella, kirilla, kihilla); Lrq. Valla, barrera de enrejado. kheheilla..., la claie, la claire-voie ... Dv. Cancilla, puerta rústica. Se diferencia de *kereta* en que esta es cancilla hecha de palos entrelazados y *kirilla* lo es de maderos». Larraine, etxe izena, oikonimoa; Urdiñarbe, top. *Queheillalt* (*EAT*).

Lats. Mitxelena (1973: § 398): «*lats* 'arroyo': *Lasa*, *Lasaga* (*Lasague*, *Laxague*), *Lasagabaster*, *Lasalde* (*Laxalt*), *Lasao*, *Laspiur*...». Larraine, eziz. *Latzalt*. «Ferrando [maison *Latzalt* dit Ferrandou]» (1832). Etxe izena, oikonimoa, «*Laxalt* enclos [maison, sol]» (1832).

Gaskoiez okzitanieraren *-al* taldea *-au* bezala garatzen da, eta hemendik *-alt* bukaera *-aut* bilakatzen da, Erronkaribarko *Anaut* deituraren kasuan bezala (*Arnaldus* (1280), *Arnald* (1115), *Arnaude* (1839), *Arnaudet* (1389), *Arnault* (1427), *Arnaut* (1505)). Jakina, hemengo bukaera hau ez da aztertzen ari garen postposizioa, izen propio baten bukaera baita, baina interesekoa da bilakaera hau kontuan hartzea, zeren eta garapen honek zenbait ikerlari (esaterako, oh. pert., Jean-Mixel Bedaxagar etnografo bera) Aspe ibarreko *Etsaut* Toponimo Nagusiaren oinarrian euskararen *etxalt* (Internet Archive 2015) izena ote dagokeen galdetzera eraman baitu, beti ere gaskoiaren *Eth Saut* ohiko etimologia zalantzan jarri gabe, dokumentazio zaharra honen alde agertzen baita (Grosclaude 1991: § 9); hala eta guztiz ere, cf. *Roches d'Etchaltia*, Altzürükün (*EAT*).

2.4. *-alte*: Erronkarin eta, hitz bukaeran mugatzailerik ez dagoelarik, Zuberoan

Alhor. *Alte*- hitz hasieran. Larraine, top. *Alteko alhorra*: Alteco alhorra, Altecoalhorra (1832, *EAT* 4947); halere, akatsa izan liteke (*alte-larte-*); izan ere, cf. *Artekoalhorra*: Artecoalhorra (1832).

Borda. Santa Grazi, top. *Bordalteko Sorhua*: Bordalteco Sorhoye (1914). *Bordalteko alhorra*: Bordalco Elhorre (1914).

Eihera. Santa Grazi, top. *Eiheralte* Baratzia (1914); *Eiheralte* borda (1838).

Eki. Izabako, top. *Ekialterrea*: Equialterrea, el termino llamado (1564). Aldaera, *Ikialte*. Mendigatxak Azkueri hauxe idatzi zion (Estornés Lasa 1984: 74): «Yzeya eta lerra aztan dra oxezkietan; bagoa sierretan; aretxa *ikialtetan*; eta artakarroa peña errietan». Erronkari, top. *Ikialte*. Yquialtea, Juane marco de (1601); Yquialtea ó Solana tras de la Yglesia (1836). Egun, Izaba, top. *Ikalterrea*, Icalterrea (1828). Justo Baqué Salvoch jauna (1987, infor.): «Nosotros decimos *Ikalterrea*».

Eliza. Bidankoze, borda iz. *Lisalte*, Borda de, *Lixalte*, Borda de (*EAT*). Burgi, deit. *Elizalte*, linar de nicolas (1645); Elizalte, Piezas de Pedro (1661). Aldaera grafikoa, ç hautsiaz: Eliçalte, cassa de domingo (1654). Erronkari, deit. *Elizalte*: Eliçalte, canpos de Joan (1642). Garde, deit. *Elizalte*: Elicalte agote de garde, Joan (1612);

Eliçalte, Ju.o (1612). Santa Grazi, deit. *Elixalte*: Elichalte, Jean-Pierre Eyheramendy dit (1914); Elichalte, Joseph Eyheramendy (1914).

Erreka. Santa Grazi, top. *Errekalteburua*: Errekaltebüria, Errecalteburie (1914). Larraine, top. *Errekaltecoborda*: Errecaltecoborda (1832).

2.5. *-altea*: Erronkaribarko aldaera

Borda. Izaba, iz. arrunt. *bordaltea*: «Iten en calordoqui tres Juntas de tierra afron[ta]das con una bordaltea que solia ser de petri marrquo y Con pie[ç]as de petri negarra» (1593). Izaba, top. *Bordaltea*: «en la bordaltea de bichitoça por la parte de la pena» (1579); Bordaltea de sancho gorrindo (1586); Bordaltea de Ladronda (1599); Bordaltea de erretola (1600); Bordaltea de Martiaberroa (1602); Belagua, bordaltea de (1609).

Eki. Izaba, top. *Ekialte*: «Barranco de Bolozarre llamado Equialtea» (1828). Aldaera, *Iki*:- Erronkari top. *Ikialte*: «Yquialtea ó Solana tras de la Yglesia» (1836). Uztarroze, top. *Ikialte*: «Juane marco de yquialtea Vez.o de la dca. Villa» (1601). Egungo aldaera, *Ikaltea*: «en *Icaltea* un huerto de dos almutadas de tierra poco más o menos» (1806); *Icaltea*, Un huerto en (1806); *Icaltea* o Amucu (1806).

Errota. Burgi, top. *Errotalte*: Rotaltea, el termino de la dha. va. llamado (1653); Rotaltea, un campo con su huerta en (1850). Erronkari top. *Gardeko Errotalte*: «mas un campo en el termino llamado *Gardeko herrotalte* de sembradura de tres Robos de trigo afrontado con Camino que pasa al molino de garde y de parte de la villa con campo de Vicente landa, y por la parte arriba con Camino Real que va a garde y pieza de Ju.o arregui» (1670). Garde, top. *Errotalte*: «mas un Campo en erroतालtea» (1631). Izaba, top. *Erratxukoerrotalte*: «y despues de los suso d[ic]go baxamos a *errachucoerrotalte* y a la otra parte del rrio a la pieça de Joan garayo y en ella a la entrada del passo que passa del Rio y en la espuenda pusimos Un mojon de piedra con dos Testigos» (1600); «una guerta que ella tiene y posse en la parte llamada *errachucoerrotalte* afrontada con guerta de m[arti]n barricat y nicolas osquiguj[le]a y Joan baron mayor» (1601). Aldaera erromantzea, *Molino de Errachu* (1568); Errachu, el molino llamado de (1569); Errachu, molino biejo (1600). Izaba, top. *Sansoren Herroतालtea*: «la parte llamada *Sansoren herroतालtea*» (1595). Aldaera, *Sansonerroतालtea* (1828). Aldaera erromantzea, *Molino de Sanso* «la presa y bocal del molino de sanso... obligaçion dentre la Villa y masse Joan de Urquidoy, sobre la pressa del molino de sanso.» 1599). Bitxia da, baina *Sansoren Errotalte* eta *Erratxuko Errotalte* esaten denean erroताल berberari buruz ari gara, *Sanso* izena *Erratxu* abizeneko jabe baten delako: *Sancho Errachu* (1569). Sanso deklinatzen da edutezko genitibo bezala, eta abizena, berriz, lekuzkoa bezala; hemendik ondoriozta genezakeena hauxe da: *Santxo* edo *Sanso* izeneko gizona *Erratxu* izeneko leku batekoa izan zitekeela, *Sanso Erratxukoa* esango bagenu bezala. Urzainki, top. *Errotalte* (1802). Uztarroze, top. *Errotalte*: Errot Altea, Erroताल Altea, Errotalte o Achea (1806).

Gaztelu. Hualdek (1995: 521) Castillo Nuevo herriaren euskal izenaren berri ematen du: *Gaztuluberri*. Hala eta guztiz ere, informatzaile batek, segur aski lapsus batek eraginda, *Gáztulu Zárra* zela esan zion. Burgi, top. *Gaztelualtea* (1722).

Krutxe. Uztarroze, top. *Krutzaltea*: «Un huerto en Cruchaltea junto al Mimbral» (186).

Lohi. Izaba, top. *Loikoaltea*: «el Parage llamado Loico-altea» (1828).

Zubi. Urzainki, top. *Zibialtea*: Cibialtea, p.a de domingo lopez (1650); Cibialtea, piecas de Jn.o herlex (1650).

Atal honi bukaera eman baino lehen, kasu berezi batzuk aipatu behar dira; alde batetik postposizio hau duten hagionimoak, eta, beste alde batetik, oro har, leku izen propioen gainean eraikitako oronimo postposiziodunak.

Hagionimoei dagokienez, postposizio hau emankorra da santuen gurtzarako eraikiriko ermiten ondoko tokiak izendatzeko; adibidez, *Domarialtea*, *Sanjuanaltea* eta *Sanjulianaltea* (erdaraz, 'la parte de' esanahi du: Erronkari, «*la parte de* done petri zarrá», 1672; Izaba, «*la parte de* Donojoro», 1828; Urzainki, «y por *la parte de* San miguel con pieza de Joan cherrall y de Joan Herlex», 1662; Uztarroze, «En Acabatamburu, de *la parte de* San Juan o del Puerto con un barranco o rigacho», 1806).

Donamaria. Izaba, top. *Donamarialtea*: «una pieza perteneciente a la dga Cassa sita en *donamarialtea*»(1622); Donamaria altea, mas otra pieza en (1669). Aldaera, *Denamarialtea* (1634). Izaba eta Anso arteko mugan, top. *Andre Donamaria Urria*: Dona Maria Vrria, la Punta de Andre (1753). Aldaera, V grafia ezpainbikotzat hartuz: Dona Maria Bria, la punta de Andre (1691).

San Juan. Erronkari, top. *San Juan Altea*: «Iten mas en *San Juan altea* en los campos de ilario Bertol...» (1615). *San Juan Altea*: «Mas en *San Juan altea* Josepa Ugalde un rovo y quatro almudes de trigo de daño de Ganado menudo se aprecio el dia 18 de Agosto... en *San Juan altea* Pasqual Martin rovo y medio de trigo de año del Ganado menudo se aprecio el dia 18 de Agosto» (1787). San Juan altea (1836); San Juan Altéa debajo de Mendigacha.chiquia otro huerto, el barranco de (1836); San Juan altea á la parte del termino de Yiosea (1836); San Juan Altea, el Solano de (1836).

San Miguel. Erronkari top. *San Miguel Altea* (1836); San Miguel Altea, la esquina de (id.); San Miguel Altea en la esquina para la Solana de Chanca (id.); San Miguel Altéa una faja (id.); SanMiguel Altea, el termino llamado (id.). Aldaera, *San Miguel Altéa* (id.). Aldaera, euskaraz, *Done Migele*. Erronkari, top. *Done Migele Altea*: «parte llamada done miguele altea de sembradura de dos Robos de trigo afrontada con la hermita de San miguel Camino Real y pieza de Ju.o arregui» (1665); «en el ter.no llamado done miguele altea afrontada con el camino R[e]al Regacho de Chanca camino de chanca» (1665).

San Julian. Izaba top. *Sanjulianaltea* (Estornés 1985: 386). San Julian Altea: «Cavo de esta Villa San Julián Altea» (1828). Justo Baqué Salvoch jauna (1987, infor.): «No he oído nunca ni *San Julián Altea*, ni *Sanjulianpea*; me imagino que será lo mismo que *San Julián*, porque está en un altico; pero siempre hemos conocido *San Julián*».

Orobat, eta gorago esan bezala, *-altea* postposizio mugatu hau toponimo askori lotuta agertzen da. Kasu guztietan, postposizioa duen toponimoa, postposiziorik ez

duen toponimoa kokatzen den tokitik gertu (edo ia leku berean) dago; esaterako, Burgi, top. *Eskarrealtea*, Erronkari, top. *Nabarzatoaltea* era Izaba, top. *Zerrotaltea*, hurrenez hurren, Burgiko *Ezka* ugatzaren, Erronkariko *Nabarzato* eremuaren eta Izabako *Zerrot*a aurkintzaren ondoan kokatzen dira.

2.6. *-altia*: Zuberoako aldaera nagusia, hiatoa aitzinatuz

Alhor. Larraine, top. *Alhorraltia*: Alhoraltia (1832). Santa Grazi, top. *Alhorraltia* (1914).

Athari. Hualde (1995: 524): «La palabra *ateas* ‘grandes piedras, especialmente a la entrada de los valles de Belagoa y Mintxate’, de ser como parece el vasco *ate* ‘puerta’ (aunque para ‘puerta’ se empleaba *borta*), tiene una acentuación que con bastante seguridad no es la que tendría en vasco.» Larraine, top. *Odillettako Atharia Altia*: Odilletaco atharia altia (1832).

Berro, *Berrueta*. Santa Grazi, top. *Berrueta Altia*: Berrouette altia, Berrouete Alcia, Berrutaltia (1914).

Bide. Hualde (1995: 514): «En compuestos poco lexicalizados el acento del primer miembro puede aparecer con acento pero subordinado al acento del segundo miembro, como en *bide-bérria* [AM58] ‘la carretera’ (camino nuevo), o *bàgo-maltá* [AM58] ‘el hayedo’». Larraine, top. *Nezarbide altia*: nesar-bide altia, Nesarbidealtia, Nezarbideçaltia (1832). Alegia, *Nezarra* izeneko aurkintzara daraman bidearen aldean, Larraine, top. *Nezarra*: Necarra, Neçarra (1832).

Borda. Santa Grazi, top. *Borda Altia*: Borda altia, Bordaaltia, Bordealtia, Borda altié (1914); top. *Olhatzebordaltia*: Olhatceborde altia (1914). Aldaera zenbatzaileekin: *Bi Borda*. top. *Bibordaltia* (1914). Aldaera izenondoarekin: *Borda berri*. top. *Bordaberrialtia*, *Bordaberrikoaltia*: Bordaberricoaltia (1832).

Eihera. Larraine, deit. *Eiheraltia*: Eyheraltia (1832); top. *Eiheraltia*: Eyheraltia, Eyhera altia, Eyheralhia (id.); top. *Hasmeheka Eiheraltia*: «Hasmeheca Eyheraltia [moulin]» (1832). Aldaera izenondoarekin: *Eihera handia*: Eyhera handea altia, Eyhera hadea altia, Eyherahandea caltia (1832). Santa Grazi, top. *Eiheraltia*: Eyheraltia, Eyheraltie, Eyheraltia (1914). Etxe izena, oikonimoa, *Eiheraltia*: Eyheraltie (id.). Aldaera postposizioa berretuz: *Eiheralt altia*: Eyheralt altia (1914). Aldaera bi postposizioz (*-buria-* + *-altia*): Eyheraburinaltia (1832).

Eki (*Ekhi*). Santa Grazi, top. *Ekhialtia*: Etqui altia (1914). «Jean-Pierre à Ekhialtia» (id.); *Ekhialtia*: Lequialtia (1838). Cf. Uztarroze, top. *Ekia*, Barranco de (*EAT*).

Elge. Mitxelena (1973: § 203). Garate (1962: 127): «*Elge*. En Azkue es ‘campo cultivado’, en la Baja Navarra. Luis Eleizalde vierte *elge* como «campo desbrozado» ... En Zuberoa tenemos a *etxe-elge*, que designa ‘posiciones de la casa’, *elgezain*, ‘guarda rural’ ... *Elkart* y *Elkarte* significan ‘entre seles’». Ozaze-Zühara, top. *Elgialtia*: Elguialtia, Rau. Theilh (*EAT*).

Eliza. Santa Grazi, top. *Elixagaraialtia*: Elichagaray altia, (1838); Elichagarayaltia (1914).

Erreka. Larraine, top. *Erreka Altia*: Errecaltia (1832); top. *Gorostolako Erreka Altia*: Gosrostolaco erreca eltia, Garastolaco-erreca altia, Borostolecoerrecaaltia, Borostolin erreca altia (1832); top. *Kapa(r)xikiko Errekaltia*: Capachichico errecaaltia, Capachico errecaaltia (1832); top. *Laphitzeko errekaaltia*: Laphitceco erreca altia, Laphitcecoerreca altia (1832). Santa Grazi, top. *Errekaltia*: Errecaltia, Errecaltie (1914); top. *Bordaxarreko errekaaltia*: Bordachar eco errecaaltia (1914). Aldaera izenondoarekin: *Erreka handia*. Larraine, top. *Erreka handia Altia*: Errecahandie altia, Erreca handie altia (1832).

Etxe. Altzürükü, top. *Ettxaltia*: Etchaltia, Roches d' (*EAT*).

Krutxe. Larraine, top. *Kurutxaaltia*: Curutchaltia, Curutchaltia, Curutchaltia (1832).

Keheila. Eskiula, top. *Quéheillaltia* (*EAT*).

Olha. Larraine, top. *Thurruolhaltia* (1832)

3. Ondorioak eta gai irekiak

Leku-izenak, hau da, toponimia txikia osatzen dutenak, gizakiak oso berea duen zerbaiti eman dizkion izenak dira, bere bizitzarekin eta lanarekin lotuta dauden lekuei, alegia. Izen horiek herri baten kulturari dagozkio, eta ezin ditugu besterendu.

Henrike Knörr (2022: 74 [itzulp.])

Hualde abizena bi osagaien elkarketa da; alde batetik, zati hidronimiko bat du, *ur*, eta, beste alde batetik, lekua adierazten duen postposizio bat, *-alde*. Bi osagai hauek Euskal Herriko ipar-ekialdeko toponimian eta antroponimian presentzia nabarmena izan dute, hainbat aldaera sortuz. Izan ere, *Hualde* deiturarekin batera, *Ugalde* aldaera dago Erronkarin, eta *Uhalt* aldaera Zuberoako Santa Grazi eta Larraine herrietan. Honela, hiru aldaerak ditugu, hurrenez hurren, kontsonante dardarkariaren galerarekin lehena, kontsonantearen belarizazioarekin bigarrena, eta hasperenketarekin azkena. Bestalde, *Hualde* eta *Ugalde* onomastika pertsonalean emankorrak diren arren, toponimian ez dugu *Hualdea* edo *Ugaldea* aldaerarik kausitzen, Nafarroako beste leku batzuetako toponimian ohikoak izan daitezkeen arren. Alde honetako toponimian, aldaera ahosketa dira nagusi, *Ugaltea* Erronkarin eta, hiatoa aitzinatu, *Uhaltia* Zuberoan.

Postposizioei dagokienez, *-alde* Erronkarin erabiltzen da (*Elizalde*, *Errekalde*, *Rekalde*), baina Zuberoan, *Eiheralde* abizena behin dokumentatu den arren, ez; aldaera mugatua, *-alde*, inoiz ere ez, ez Erronkarin, ez Zuberoan; mugatzailerik gabe, azken bokala galdurik eta kontsonantea ahoskabeturik, *-alt*, Zuberoan baizik ez: *Hegialt*, *Egialt*, *Eiheralt*, *Elizalt*, *Errekalt*, *Laxalt*, *Uhalt* (eta *Duhalt*). Biarren ere, *Deyheralt* (1793, Feas/Inhasi), *Duhalt* (1914, Arette/Ereta); *-alte*, Erronkarin eta, gehien bat, Zuberoan, hitz barnean edo izen elkarketa baten lehenengo osagaien erabiltzen da eta, halaber, hitz bukaeran (mugatzailerik ez dagoelarik) gerta daitezkeen arren, ez da ohikoa: Zuberoan, *Bordalteko sorhoa*, *Eiheralte baratzea*, *Errekaltebüria*; Izaban, *Ekialterrea*; baina, deitura bezala, *Elizalte* Bidankozen. Baina aldaera guztien gainetik, *-altea* da Erronkaribarren gehien erabiltzen dena eta ibar honetako aldaerarik be-

reizgarriena: *Bordaltea*, *Ekialtea*, *Errotaltea*, *Gaztulualtea*, *Lohikoaltea*, *Zibialtea* eta Hagionimian ere oso erabilia: *Donamarialte*, *Sanjuanaltea*, *SanJulianaltea*, *Sanmiguelaltea* (edo *Donemiguelaltea*). Zuberoari dagokionez, hiatoa aitzinatuz, *-altia* da aldaera nagusia: *Alhorraltia*, *Atharialtia*, *Berruetaltia*, *Nezarbidealtia*, *Bordaltia*, *Eiheraltia*, *Ekialtia*, *Elgealtia*, *Elizaltia*, *Errekaltia*, *Etxaltia*, *Olhaltia*.

Luze joan da gure jarduna, eta, hala eta guztiz ere, honekin ez da agortu gaia. Lekua adierazten duten gainerako posposizioen ikerketa (*-arte*, *-aintzin*, *-barren*, *-behe*, *-buru*, *-gain*, *-gibel*, *-goi*, *-iri*, *-kantia*, *-ondo*, *-paretia*, *-pia*, *-(sar)gua*, *(sar)gia*) beste une baterako utzi beharko da.

Pirinioak, oro har, kultura anitzekoak eta eleaniztunak izan dira betidanik. Beste hizkuntza batzuk izan ziren eta badira hemen gure hizkuntzarekin batera; era berean, euskara beste leku batzuetan egon da, bere hiltzaren aztarnak leku haietan utzia. *Ourbiet* (1882) toponimoa, adibidez, Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Artxiboetan dokumentatua, egungo Euskal Herritik kanpo kokatuta dago, Aspe bailarako Leskun herrian, Biarnoko bihotzean. Toponimo honek eta *ibon*, *achart*, *laxerito* edo *lurta* bezalako exotoponimoek garrantzi handiko informazioa ematen digute euskararen aintzinako aroaz.

Hualde abizen eder honek toponimiaren aberastasunaz hitz egiteko aukera eman digu. Onomastikaren zientziak abizenak eta leku-izenak ez ezik, herri batek munduari buruz duen ikuspegi bereziaz ere hitz egiten digu. Herri hori, abizenaren antzera, metaforikoki besterik ez bada ere, mintzairaren iturrietan sortu zen duela mende anitz, eta bere biderei lotu zitzaion Pirinioetako euskal mendi garaietako ur harrotuetatik ugatx handi eta emaritsuetaraino, eta, inoiz ere atzera egin gabe, Burgiko presaren gaitetik jauzi eginez, historiaren sokaz loturiko almadietan errekan behera jaitsi zen Erriberako Matralleraino, edo are urrunago oraindik, Tortosaraino, bidaiak gure etorkizuna eraikitzen jarraitzeko eraman nahiko gaituen ur berrien aldera.

Erreferentziak

- Artola, Koldo. 1977. Erronkariko uskararen azken hatsak... eino're!! *FLV* 9. 75-107.
- Artola, Koldo. 1980. Erronkariko 'uskara'ren azken hatsak... oraino're! *FLV* 12. 49-85.
- Auñamendi = Estornés Lasa, Bernardo. *Auñamendi Eusko Entziklopedia*. Eusko Ikaskuntza, Bernardo Estornés Lasa Funtsa. <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/> (2023/12/30).
- Aznarez, Josune. 2018. Erronkaribarko etxe-izen euskaldunak. *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra* 50(92). 199-236.
- Bidankozarte. 2019a. Los Hualde y el clero. Vidángoz desde otro punto de vista. 2019-07-18. <http://vidangoz.com/bidankozarte/?p=2260> (2023/12/30).
- Bidankozarte. 2019b. Apellidos bidankoztarras: Hualde. Vidángoz desde otro punto de vista. 2019-07-15. <http://vidangoz.com/bidankozarte/?p=2258> (2023/12/30).
- Botero, Giovanni. 1598. Guasconia Descriptio, Gasconia [Gascony]. Relazioni Universali di Giovanni Botero Benese. <https://pictures.abebooks.com/inventory/30664292247.jpg> (2023/12/30).
- Cierbide, Ricardo. 1976. Toponimia del Becerro antiguo de Leyre (siglos XII-XIII) (I). *FLV* 23. 237-284.
- Cierbide, Ricardo. 1977. Índice completo de antropónimos citados en el Becerro Antiguo de Leyre (I). *FLV* 27. 431-472.

- EAT = Lopez-Mugartza (2008).
- Estornés, Bernardo. 1985. De toponimia roncalesa. In Edorta Kortadi (arg.), *Aingeru Irigarayri omenaldia*, 379-388. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Estornés Lasa, José. 1984. Mendigatxa'k Azkueri Kartak, 1902-1916: Eta Erronkari'ko Uskaratik utzulpen ta goarpenak. *FLV* 43. 55-128.
- FHV = Mitxelena (1977).
- Fortún Pérez de Ciriza, Luis Javier. 1992. Documentación medieval de Leire: catálogo (siglos XIII-XV). *Príncipe de Viana* 195. 57-168.
- Garate, Justo. 1962. Nombres vascos y caracteres de los seles. *Euskera* 7. 121-130.
- García Larragueta, Santos A. 1957. *El gran priorado de Navarra de la Orden de San Juan de Jerusalén. Siglos XII-XIII*. Iruñea: Institución Príncipe de Viana.
- Goñi Gaztambide, José. 1963. Catálogo del Becerro antiguo y del Becerro menor de Leyre. *Príncipe de Viana* 92-93. 149-214.
- Grosclaude, Michel. 1991. *Dictionnaire toponymique des communes du Béarn*. Edicions Reclams.
- Hualde, José Ignacio. 1995. Sobre el acento roncales. *ASJU* 29(2/3). 499-525.
- Hualde, José Ignacio. 2017. Erronkarieraren garapen fonologiko dialektalaz. In Aitor Iglesias & Ariane Ensunza (arg.), *Gotzon Aurrekoetxea lagunarterik hara*, 175-194. Bilbo: UPV/EHU.
- Ibarra Murillo, Orreaga. 2011. Mezkiritz a través de sus documentos. *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra* 86. 33-91.
- Internet Archive. 2015. Etxalt Tipiak Conf Paysanne. 2015-12-01. <https://archive.org/details/EtxaltTipiakConfPaysanne> (2023/12/30).
- Íñigo Ariztegi, Andrés, & Paskual Rekalde Irigoien. 2018. Euskal oikonimia Baztan-Bidasoa eremuko lekukotasun historikoen argitan. In Ana Zabalza (arg.), *Engraxitik Garazira. Izenen misterioa Nafarroan / De Engracia a Garazi: el misterio de los nombres en Navarra*, 163-248. Zizur Txikia: Aranzadi.
- Izagirre, Kandido. 1961. Erronkariko euskal-ondakin batzuk (2. zatia). *BAP* 17. 391-407.
- Knörr, Hendrike. 2022. Salvemos nuestros nombres de lugar. In Roberto Gonzalez de Viñaspre (arg.), *Henrike Knörr (1947-2008). Idazlan Hautatuak. Textos Escogidos (Euskaltzainak 39)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Lopez-Mugartza, Juan Karlos. 2008. *Erronkari eta Ansoko Toponimiaz (Mendaur Bilduma 5)*. Iruñea: Euskaltzaindia eta Nafarroako Gobernu.
- Lopez-Mugartza, Juan Karlos & Erronkariko Euskara Zerbitzua (koord.). 2018. *Erronkaribarko etxeak-Las casas del Valle de Roncal*. Erronkari-Roncal: Erronkariko Batzorde Nagusia-Junta General del Valle de Roncal.
- Mitxelena, Koldo. 1969. Notas sobre los nombres de persona en la Navarra medieval. *FLV* 1. 1-59 (Berrargit. *OC* 11, 502-538).
- Mitxelena, Koldo. 1973. *Apellidos vascos*. 3. argit. Donostia: Txertoa (1. arg., 1953; berrargit. *OC* 9, 1-235).
- Mitxelena, Koldo. 1977. *Fonética histórica vasca*. 2. argit. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia (1. argit., 1961; berrargit., 1985).
- Mitxelena, Koldo & Ibon Sarasola. 1987-2005. *Orotariko Euskal Hiztegia / Diccionario General Vasco*, 16 lib. Bilbo: Euskaltzaindia (11. argit. elektr. 2023: <http://www.euskaltzaindia.eus/oeh>).
- Morvan, Michel. 2004. *Noms de lieux du Pays Basque et de Gascogne*. Chamalieres: Bonneton.

NTO = Nafarroako Gobernua. *Nafarroako Toponimia Ofiziala*. <https://administracionelectronica.navarra.es/toponimia/?lang=eu> (2024/01/03).

OEH = Mitxelena & Sarasola (1987-2005).

Orpustan, Jean-Baptiste. 2000. *Les noms des maisons médiévales en Labourd, Basse-Navarre et Soule*. Izpegi.

Peillen, Txomin. 1989. Toponymie gasconne en Pays Basque et basque en Béarn limitrophe. In *Langues en Béarn, Cahiers de l'Université*, 107-128. Toulouse: Presses Universitaires du Mirail, Université de Toulouse-Le Mirail.

Informatzaileak

Justo Baqué Salvoch (Izaba, 1913; bidegintzako langilea eta postaria).

Josu Orduna *Kabila* (Uztarroze, 1955; gaztagilea).

Lujanbio abizenaren historiako zenbait datu^{1,2} *Some data for the history of the surname Lujanbio*

Oihana Lujanbio Begiristain*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: This paper studies the history of the surname Lujanbio. To this end, the digital archives of the Sacramental Records of the Basque Autonomous Community have been utilized. It is well known that the surname *Lujanbio* has a number of variants, e. g. *Lukanbio* and *Luxanbio*. Other variants are likewise studied, *Lusanbio*, *Usanbio*, *Uzanbio*, *Luxandio* and *Luganbio*. This paper also explores the potential roots of the surname, and the surnames *Luxan*, *Lujan*, *Lucan*, *Lusan*, *Luzan* and *Luxa*, *Luja*, *Luca*, *Luga*, *Lusa*, *Luza*, *Lucha* are also considered. Moreover, variants with the root vowel *-e-* have been found, *Lesanbio*, *Lexanbioa*, *Lejanvigo*. Some similarities have been found between the series corresponding to *Lexan* and *Luxan*. Building on these data, the goal of this paper is to reflect on the origin of the different graphic representations of the surname and their phonetic value.

KEYWORDS: *Lujanbio*; spelling variability; phonetic variability; onomastics.

¹ Jose Ignacio irakasle izan nuen Gasteizko Letren Fakultatean, doktoretza-klaseetan. Elkarrekin ikerketa-lan batzuk egin genituen eta, ondoren, nire tesiko zuzendaria izan zen, Koldo Zuazorekin batera. Beti harritu nau haren bizkortasunak gauzak egitean, ikertzean, mezuak erantzutean; asko lagundu zidan hasierako ikerketa-bidean. Horregatik, esker onez beterik hartzen dut parte omenaldi honetan.

² Eskerrak Julen Manterolari, artikulua gaia erabakitzen eta edukiak osatzen emandako laguntzatik. Era berean, eskertu nahi dut Jabier Lujanbio ere, *Lujanbio* ahaideez egindako zuhaitz genealogikoetatik eta gaiaz egindako hausnarketengatik.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Oihana Lujanbio Begiristain. Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Saila - Gasteizko Ingenieritza Eskola (UPV/EHU). Nieves Cano, 12 (01006 Gasteiz). – oihana.lujanbio@ehu.eus – <https://orcid.org/0000-0002-0867-7177>

Nola aipatu / How to cite: Lujanbio Begiristain, Oihana (2023). «*Lujanbio abizenaren historiako zenbait datu*», *ASJU*, 57 (1-2), 631-648. (<https://doi.org/10.1387/asju.25969>).

Jasoa/Received: 2022-09-22; Onartua/Accepted: 2023-07-28.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomerziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago

LABURPENA: *Lanaren helburua Lujanbio abizenaren historian arakatzea da. Horretarako, EAEko Erregistro Sakramentalen artxibo elektronikoak baliatu dira, batez ere. Lujanbio abizenak aldaerak dituela ezagun da, Lukanbio eta Luxanbio, adibidez. Azterketan zehar aldaera gehiago aurkitu dira, horien artean Lusanbio, Usanbio, Uzanbio, Luxandio eta Lujanbio. Erro posiblea bilatzea ere izan du helburu lanak eta Luxan, Lujan, Lucan, Lusan, Luzan eta Luxa, Luja, Luca, Luga, Lusa, Luza, Lucha abizenak topatu dira. Agertu dira -e- erroa duten aldaera batzuk ere: Lesanbio, Lexanbioa, Lejanvigo. Hari horri tiraka, paralelismo batzuk topatu dira Lexan eta Luxan sailekoen artean. Datu horien gainean, idazkera desberdinen jatorriaz eta beren ahoskerez hausnartzea du helburu artikulu honek.*

HITZ GAKOAK: Lujanbio; grafien aldakortasuna; aldakortasun fonetikoak; onomastika.

1. Sarrera

Lujanbio abizenaren jatorriaz pentsatu izana naiz, norberak bere abizenarekin egin ohi duen moduan. *Lujanbio* abizenak *Lucanbio* aldaera baduela jakina da eta aldaera horiek egotea zeren ondorio izan zitekeen galdetzen nion nire buruari. Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistro Sakramentalen biltegi elektronikoan begiratuta (*Dokuklik* hemendik aurrera), Gipuzkoan agertzen dira zaharrenak XVI. mendetik aurrera, eta Nafarroa iparraldean ere badira garai horretan. Ikerketa hau garai eta eremu geografiko horretan kokatu da, datu horiek izan ditudalako eskuragarri.

Gaurdaino iritsi den *Lujanbio* abizenak aldaera asko dituela azalduko da artikuluan zehar: aldaera igurzkaridunak (*Luxanbio*, *Lusanbio*, *Usanbio*, *Uzanbio*, *Luxandio*) eta aldaera herskaridunak (*Lucanbio* eta *Luganbio*). Horretaz gain, erroa ere aztertuko da (*Luxan*, *Lujan*, *Lucan*, *Lusan*, *Luzan* eta *Luxa*, *Luja*, *Luca*, *Luga*, *Lusa*, *Luza*, *Lucha*). Aldaera horien gorabeheren xehetasunak zein diren zehazteko saioa izanen da artikulu hau.

2. *Lujanbio* deituraren aldaera igurzkaridunak XVI. mendetik aurrera

Atal honetan, *Lujanbio* deituraren aldaera multzoak azalduz joango naiz; soinu igurzkariak dituzte aldaera hauek bigarren silaban, [ʃ], [x] edo [s], grafiak adierazten duena kontuan hartuta.

2.1. Abiatzeko, gure familia: *Luxanbio*, *Luxambio*, *Lusanbio*, *Lujambio*

Hemen bildutako datuak Jabier Lujanbiok gure familiaz egindako zuhaitz genealogikotik atera ditut; 1. taulako adibideetan bilduta daude XVI. mendetik XX. mendera bitartekoak. Lekukotasun horiek erakusten dute *Lujanbio* izenaren barreneko igurzkaria hiru grafemarekin agertzen dela historian zehar, <x>, <s> eta <j>. Aldaera horien arteko lotura zuzenena Jabierrek *Lujanbio* abizena aztertzean egin zuen zuhaitz genealogikoan topatutakoa da. Eta zuhaitz horretan, 1875 arte ez da *Lujambio* agertzen, *Luxambio* eta *Lusanbio* baizik. Ondoren azaltzen dira gure familiaren aurrekoen datu horiek:

1. taula

Luxanbio/Luxambio, Lusanvio, Lujambio familia

Jaiotza-urtea	Izena	Herria
1545	Domingo de <i>Luxanbio</i> ³	Arano
1637	Sebastian <i>Luxambio</i>	Arano
1658	Domingo <i>Luxambio</i> Leiza	Arano
1699	Lorenzo de <i>Lusanvio</i> ⁴ Aguirre	Arano
1749	Pedro de <i>Luxambio Luxambio</i>	Arano
1797	Gregorio de <i>Luxambio</i> Albiztur	Goizueta
1829	Jose Antonio <i>Luxambio</i> Apezetxea	Goizueta
1875	Jose Ramon <i>Lujambio</i> Salaberria	Goizueta
1910	Jose Juan <i>Lujambio</i> Zubeldia	Goizueta

Ageri denez, XIX. mendera bitarte <x> grafia da nagusi igurzkaria adierazteko. Hemendik aurrera, *Lujambio* aldaera agertzen da, gaur egunera arte; /x/ fonema ordezkatzen du <j> grafemak deituraren ahoskera modernoan. Jatorrizko ahoskera zein den jakitea ez da erraza, baina *Lusanvio* adibideak hotsaren txistukaritasunaren alde egiten du. Adibide horretan behintzat bazegoen eta pentsa daiteke ordura arteko *Luxambio* moduko aldaera grafikoak ere txistukariaz ahoskatuko zirela, ez igurzkari belarraz.

Honetaz gain, Aranon dagoen *Lusanbi* leku-izenaren berri eman zidan Jabier Lujanbiok. Zehazki, herriko plazatik Surora jaistean dagoen zelai baten izena da, tontor ttiki baten forma duena. Herritik 300 metro ingurura dago zelai hori eta aranoarrek ere eza gutzen dute izena. Udaletxean *Lusanbi* izenarekin agertzen da lekua, Aranoko kale bat bezala. Honelako gehiago ikusiko ditugu 2.3 eta 2.4 ataletan, baina lehenago, 2.2 atalean, <x> eta <j> grafemen arteko dantza erakusten duten adibideak bildu ditut.

2.2. <x> eta <j> grafemak *Lujanbio* abizenean

Gure familiaratik harago ere bilatu ditut deituraren adibide gehiago, horretarako *Dokuklik* erabiliz. *Dokuklik* euskal artxibo historiko askoren dokumentazioa kontsultatzeko web ataria da (<https://dokuklik.euskadi.eus>). Euskal Autonomia Erkidegoko erregistro sakramentalen bilatzailea da, eta *Erregistro Sakramentalak* izeneko atalak hiru lurraldeetako biztanleen errolda historikoaren aurkibidea kontsultatzeko aukera ematen du, Internet bidez, 1490. urtetik 1900. urtera. Bataiatuei, ezkonduerak eta hildakoei buruzko 5,6 milioi erregistro ditu bilduta. Datu zaharretatik hasita, *Lujanbio* deiturarekin lotutako adibide batzuk azalduko dira jarraian.

³ Domingo ondorengoen ahaidea den frogatzerik ez dago, elizako erregistroak 1600etik aurrera hasten direlako. Zuhaitz genealogikoa egin zuen Jabier Lujanbiok suposatu du bera dela aurreko ahaidea, hori delako aurkitu duen bakarra. Aranoko Udalean dagoen «Amojonamiento de los términos de Arano y Goizueta» eskuizkribuan agertzen da, Aranoko «jurado» bezala, *Domingo de Luxanbio* (Felipe II.a errege zela onartu zen dokumentua, 1545ean). Aranon *Luxanbio* abizena dutenak erregistratuta noiztik dauden ikus daiteke honela. Gure kasuan, idazkerari erreparatuko diogu.

⁴ Jatorriz *Lusanvio* zegoen artxiboan, ondoren zuzendua (haien esanetan, 1726 arte <u> eta <v> be-reizi gabe erabiltzen ziren).

Atal honetan <x> eta <j> grafemen erabileraren gorabeherak adierazten dituen adibide multzo bat bildu dut. Hain zuzen, Berastegiko *Etxenagusia Lujanbio* familiari dagozkion datuak daude ikusgai 2. taulan.

2. taula

Luxambio, Luxandio, Lujambio

Urtea ⁵	Seme-alaba	Aita	Ama	Herria
1689	Maria Thomas Echenagusia <i>Luxambio</i>	Joanes Echenagusia	Laurenza <i>Luxambio</i>	Berastegi
1691	Maria Manuela Echenagusia <i>Luxandio</i>	Joanes Echenagusia	Lorenza <i>Luxandio</i>	Berastegi
1693-03-25	Domingo Echanagusia <i>Lujambio</i>	Juan Echanagusia	Lorenza <i>Lujambio</i>	Berastegi
1693-03-25	Domingo Echenagusia <i>Luxambio</i>	Joanes Echenagusia	Lorença <i>Luxambio</i>	Berastegi
1699	Maria Magdalena Echenagusia <i>Luxambio</i>	Juanes Echenagusia	Lorenza <i>Luxambio</i>	Berastegi

Abizenaren aldaera grafiko horien arteko lotura garbia da 2. taulako izenetan, pertsona berberen izenak baitira Laurenza *Luxambio*, Lorenza *Luxandio*,⁶ Lorença *Luxambio* eta abar. Are gehiago, seme beraren datuak, Domingo semearenak, bitan aurkitu ditut, batean *Lujambio* forma grafikoarekin eta bestean *Luxambio* forma grafikoarekin. Aurkitu dut, bestalde, *Lujancio* baten lekukotasuna (litekeena da <c> hori idazketa hutsa izatea), baina Berastegikoa denez, hona 1646ko ezkontzaren datua: Laçaro *Lujancio* (senarra), Maria Beraça (emaztea).

Datuek erakusten dutenez, xvii. mendean <x> eta <j> grafemen arteko dantza dugu *Lujanbio* abizenean. Agertze-datei begiratuta, nabarmentzekoa iruditzen zait <j> idazkera duten adibideak nahikoa goiztiarrak direla, betiere 1. taulako zuhaitzeko datuekin konparatuta, 1646 eta 1693koak hain zuzen. Atal honen helburua ez da izan grafema horien gorabeheren historia oso bat egitea, baina *Lujanbio* deitura aitzakia hartuta, adibideok balio izan dute haien arteko txandakatzea dagoela erakusteko. Beherago azalduko den bezala (§ 2.5), bi grafema horien erabilerari dagokionez ez zuen erabateko erabakirik hartu Real Academia Españolak, eta zail da erabakitzen zein hots islatuko zuten adibide bakoitzean. Horretarako, askoz esanguratsuagoa da <s> grafema, ondoko bi ataletan agertu dudana bezala.

2.3. Ahoskera txistukariaren antzinatasunerako datu gehiago: beste familia batzuk

Luxambio idazkeraren atzean zein ahoskera zegoen aztertu nahian bilaketa gehiago egin, eta *s*-dun adibide hauek bildu ditut: *Usambio* eta *Uzambio*. Ezin ziur jakin *Lujanbio*-rekin lotuak ote dauden, baina hosiadetasunagatik eta (gehienek) geografikoki gainerako aldaerekin bat egiteagatik ekarri ditut adibideok hona:

⁵ «Urtea» agertzen den tauletan, «seme-alaba» dagoenetan, hauen jaiotza-urtea adierazten du datu honek. Besterik bada, adieraziko da.

⁶ Aldaera honetan, asimilazioz azal daiteke /d/, ahoskagune berekoak baitira /n/ eta /d/.

3. taula

Usambio, Uzambio

Urtea	Seme-alaba	Aita	Ama	Herria
1674	Antonio <i>Usambio</i> Çubiarain	Bartolome <i>Usambio</i>	Joana Çubiarain	Donostia
1682	Juan Añorga <i>Usambio</i>	Joan Añorga	Maria Perez <i>Usambio</i>	Donostia
1691	Joana Francisca Añorga <i>Uzambio</i>	Juan Añorga	Maria Perez <i>Uzambio</i> ⁷	Donostia
1700	Maria Jossepha <i>Usambio</i> Echagoien	Antonio <i>Usambio</i>	Ana Echagoien	Donostia
1717	Maria Agustina Joaquina <i>Usambio</i> Zelaeta	Vicente <i>Usambio</i>	Ysabela Zelaeta	Donostia
1719	Magdalena Urresti <i>Usambio</i>	Domingo Urresti	Domeca <i>Usambio</i>	Gauegiz
		Goycoecheta	Zuloaga	Arteaga
1723	Antonia Maria Ygnacia Altuna <i>Usambio</i>	Joseph Altuna	Ana <i>Usambio</i>	Azpeitia

Taulan ikusten den bezala, XVII. eta XVIII. mendeetako adibideak dira, 2.1 ataleko zuhaitz genealogikoko adibideen garaikoak. Adibideok elkarri lotuta badaude, ahoskeran txistukaria erabiltzen zelako ideiarene alde egiten dute.

2.4. Abizenaren beste aldaera sorta bat: *Lesambio, Lexanbioa, Lejanvigo*

Lehen silaban /e/ bokala duen aldaera sorta bat ere aurkitu dut. Nire ustez, adibide horiek *Lujanbio*rekin lotuta egon daitezke, kontuan hartuta geografikoki ere *Lujanbio* ugari agertzen diren lekukoak direla, Hernanikoak bereziki:

- 1579, Tolosa (ezkontza-agiria): Lazaro *Lesambio* (Joana Yrarraçabal-ekin ezkondu zen).
- 1599, Hernani (bataio-agiria): Jesus *Lexanbioa* (aita), Joanes *Lexanbioa* (semea).

Datu horietan ere esanguratsua da <s> grafia duen adibidea, 1579koa. Pertsona horien pista segitzen saiatu naiz, baina ez dut topatu lotura argirik. Hernanin hil zen Joanes *Luxambio* delako bat 1689an; Hernaniko Joanes *Lexanbioa* berbera izatekotan, ordea, 90 urterekin hil zela pentsatu beharko genuke. Bestalde, Donostian ezkondu zen Joanes *Luxambio* delako gizon bat 1675ean (Maria Ursoa-rekin), baina honek ere ez dirudi Joanes *Lexanbioa* delakoarekin ikustekoa duenik (76 urterekin ezkondu behar zuen Joanes *Lexanbioa*-k Joanes *Luxambio* hori bera izatekotan).

Ondorengo adibideetan, ordea, pentsa daiteke *Lejanvigo* eta *Luxanbio* abizena agertzen duten hauek pertsona berbera direla, kontuan hartuta datek eta aitaren izenak bat egiten dutela. Amaren izena ez da berdin-berdina, baina zati bat bai (Mari Juan eta Maria; askotan izan ohi dira izenetan aldaketak artxiboetako datuetan). Herriek ere ez dute erabat bat egiten; Azpeitia eta Beizamaren artean bakarrik 18 km daude, ordea. Hona hemen datu guztiak:

⁷ Pertsona berbera dira Maria Perez *Usambio* eta Maria Perez *Uzambio*.

4. taula

Lejanvigo, Luxanbio

Urtea	Seme-alaba	Aita	Ama	Herria
1654	Maria Juan Urriça <i>Lejanvigo</i>	Martin Urriça	Mari Juan <i>Lejanvigo</i>	Azpeitia
1656	Maria Urriza <i>Luxanbio</i>	Martin Urriza	Maria <i>Luxanbio</i>	Beizama
1660	Joan Baptista Urriza <i>Luxambio</i>	Martin Urriza	Maria <i>Luxambio</i>	Beizama

1579ko *Lesanbio* horretatik kanpo, adibide hauetan guztietan <j> eta <x> grafiak ditugu. Esan bezala, zail da erabakitzen horien atzean zein ahoskera zegoen. Ondorengo atalean, txistukariaren belarizazioaren testuinguru orokorrean kokatuko ditut [luʃambio] eta [luχambio].

2.5. *Lujanbio* eta gaztelaniazko txistukariaren belarizatzea

Gauza ezaguna da gaztelaniaz /ʃ/ ahoskabearen eta /ʒ/ ahostunaren arteko oposaketa neutralizatu zela, eta [ʃ] ahoskera ahoskabea nagusitu zela. Gaztelaniazko txistukariaren bilakaera diakronikoaren xehetasunetarako, grafiatzko gorabeherak barne, ikusi Lapesa (1981: 377-379) eta Núñez-Mendez (2016). Artikulu honen helburuetarako, ordea, gaztelaniazko [ʃ] hots horrek ondoren izan zuen aldaketa interesatzen zait, hots, txistukari auresabaikari honen belarizatzea, [ʃ] > /χ/ aldaketa. Lapesak dioskunez, «[a] acabar el primer tercio del siglo xvii la /χ/ se había impuesto por completo» (Lapesa 1981: 379). Allen-en esanetan (2002: 111-112), 1660ko hamarkadarako /χ/ ahoskera zen araua. Auzi honetan, esanguratsua da Méndez-Núñez-en aipua (2016: 88; etzana nirea):

It is difficult to determine the exact date for the triumph of the velar sound [χ] in the standard speech, as there is not much written documentation about this process. The general conclusion is that the palatal articulation was dominant during the sixteenth century and started to change at the end of it. After a long coexistence period of palatal and velar pronunciations, well advanced into the seventeenth century, the change from [ʃ] to [χ] took place and the velar [χ] became the norm.

Autore honek dioenez, zail da zehazten noiz gailendu zen [χ] soinu belarra. Erregularizatzeko grafikorako saioak, bestalde, geroago etorri ziren gaztelaniaz. Real Academia Españolak, *Diccionario de Autoridades* (1726-1739: LXXIV) lanaren hitzaurreetako batean, honela dakar, <g> grafemaz aritu ondoren, <j> eta <x> grafemen erabileraz ari dela: «Siendo, pues, la duda principal entre estas dos letras: el medio para no confundirlas es atender a las raíces de las palabras». Oro har, <j> hobesten da, eta <x> grafemaren erabilera irizpide etimologikoaren menpe uzten da, erabaki erabatekorik hartu gabe, González Ollék gogorarazi bezala (2014: 143).

Lujanbio deiturari dagokionez ere zaila da jakitea noiz gertatu zen belarizatzea: jakina da euskal eremuaren erdialdeko hizkeretan ere aldaketa hori gertatu dela, eta gaztelaniazko eragina garrantzitsutzat hartu ohi da; *jakin* bezalako aditz baten Gipuzkoa aldeko [χakin] azaltzeko, esaterako, /jakin/ > /zakin/ > /ʃakin/ > /χakin/ bila-kaera onartu ohi da, gaztelaniaz gertatu denaren eredura (Mitxelena 1977: 170). Aztergai dudana deiturarekin ere antzeko zerbait gertatu ahal izan da, eta [ʃ] ahoskeratik

[χ] ahoskerara igaro da deituraren barreneko igurzaria: inoiz [luʃambio] ahoskatuko zena [luχambio] da gaur. Dena den, noiz arte iraun zuen ahoskera txistukariak izen honetan? Auzi hori erabakitzeke, ikusita <x> eta <j> grafemen erabilera gaztelaniazko eredu ortografikoan ere ez zegoela finkatuta, ezin erabili *Luxambio* eta *Lujambio* (eta haien aldaeratzat hartutako *Lejanvigo*, *Lexambioa*...) modukoak.

Datu sorta interesgarriena, nire ustez, <s> grafia duten adibideena da: 1579ko *Lesanbio* eta 1699ko *Lusanvio* daude batetik, eta horiek erakusten dute, xvii. mende bukaeran oraindik txistukari ahoskera dagoela, deitura honetan behintzat; Aranoko gaurko *Lusanbi* kalearen izenean forma hori bera dugu, ihartuta. Bestetik, hasierako *l*-gabeko formak ditugu: 1674 *Usambio*, 1682ko *Usanbio*, 1691ko *Uzanbio*, 1700eko *Usambio*, 1717ko *Usambio*, 1719ko *Usambio* eta 1723ko *Usambio*. Horietan ere, badirudi ihartuta geratu dela une jakin bateko ahoskera txistukaria. Ikusi 4. atala xehetasun gehiagorako.

3. Herskari belarra duten aldaerak: *Lukanbio* eta *Luganbio*

Gorago esan bezala, *Lucambio* aldaera ezaguna nuen, Arantza aldean ugaria baita (gaur egungo grafian *Lukanbio* ere bada). EAeko datuetan begiratuta, <c> grafia dutenen aurreneko datua ezkontza-agiri batean topatu dut, 1673koa berau, Hernanin: Miguel *Lucambio* Josepha Aguirrerekin ezkondu zen. Ondorengoak Donostiakoak dira gehienak (1760 ondorengoak ez ditut sartu, eta hangoak dira gehienak), eta baita Irun eta Lekeitioko bana ere:

5. taula

Lucambio

Urtea	Seme-alaba	Aita	Ama	Herria
1738	M. ^a Barbara Cruz Delgado <i>Lucambio</i>	Antonio Delgado	Antonia <i>Lucambio</i>	Donostia
1751	Maria Phelipa <i>Lucambio</i> Goya	Antonio <i>Lucambio</i> Arrambide	Maria Josepha Goya Garvizo	Irun
1756	Chatalina Antonia Ortega <i>Lucambio</i>	Manuel Ortega Zubiria	Maria Josepha <i>Lucambio</i> Elustytondo	Donostia
1757	Pedro Ygnacio Achirica <i>Lucambio</i>	Ygnacio Achirica Erremitteria	Magdalena <i>Lucambio</i> Erzilla	Lekeitio
1759	Joseph Manuel <i>Lucambio</i> Salaberria	Matheo <i>Lucambio</i> Echagoien	Maria Ana Salaberria Artola	Donostia
1760	Juana Maria Cruz Hortegea <i>Lucambio</i>	Manuel Hortegea Zupidia	Maria Josepha <i>Lucambio</i> Elustondo	Donostia

Heriotza-agirietan aurkitutako bi adibide hauek bataio-agirietakoak baino antzina-gokoak dira: Juan *Lucambio* (1707, Tolosa); Mari Cruz *Lucambio* (1750, Erretereria).

Beste grafia batzuk ere agertzen dira, <çh> eta <ch>; <ch> grafiak ere /k/ adierazten dutela pentsatuz gero, *Lukanbio* aldaeraren lehen lekukotasunak aurreratu egiten dira. <çh> grafiak *Luxambio* edo *Luzambio* moduko bat isla dezake.

6. taula

Luçambio, *Luchambio*

Urtea	Seme-alaba	Aita	Ama	Herria
1663	Josepha Antonia <i>Luçambio</i> Arriola	Joanes <i>Luçambio</i>	Mari Joan Arriola	Hernani
1677	Maria Aşçençia <i>Luchambio</i> Ursoa	Juanes <i>Luchambio</i>	Maria Ursoa	Donostia

Benetan esanguratsuak iruditu zaizkit, bestalde, <g> duten adibideak, izan ere, ematen du belar ahostuna islatzen duela grafema honek. Ikusi 7. taulan.

7. taula

Luganvio, Luganbio

Urtea	Seme-alaba	Aita	Ama	Herria
1644	Juanes <i>Luganvio</i> Ysasa	Juanes <i>Luganvio</i>	Mari Juan Ysasa	Hernani
1657	Jacinta Anca <i>Luganvio</i>	Francisco Ansa	Maria <i>Luganvio</i>	Hernani
1736	Pedro Vizente <i>Luganbio</i> Guruzeaga	Vizente <i>Luganbio</i>	Maira Clara Guruzeaga	Donostia
1796	Juan Joseph Garin <i>Luganbio</i>	Ygnacio Garin Nazabal	Vicenta <i>Luganbio</i> Portu	Hernani
1796	Maria Estevan <i>Luganbio</i> Echeverria	Juan Marcos <i>Luganbio</i> Chinchurreta	Maria Rafaela Echeverria Recalde	Hernani
1800	Juan Josef Araluca Goitia	Juan Araluca <i>Luganvio</i>	Maria Antonia Goitia Echebarria	Busturia
1811	Manuel Eusebio Olalde Goitia	Manuel Olalde Aranguren	Juana Maria Goitia <i>Luganvio</i>	Bermeo
1844	Benita J. D. Yrazabal <i>Luganbio</i>	Ygnacio Yrazabal Orocena	Margarita <i>Luganbio</i> Aguirre	Sopuerta

Ezkontza-agirietan ere badago bakar bat: Maria Beronica Echeverria *Luganvio* Andres Urizar Goioanarekin ezkondu zen (1794, Ondarroa).

Luganbio horiek denek argi adierazten dute, nire ustez, *Luganbio* ez dela grafiazko akats baten bidez sortua, arrazoi fonologikoek baizik. Alegia, abizen horrek hots belarra bazuela adibide horietan, bederen.

Herskaridun adibideak bilatuta, *Lecanbio* modukorik ez du aurkitu bilatzaileak. *Leganbio* bada, ordea eta, berantiarra bada ere (1815ekoa da), Sopuertan topatutako adibidea ekartzen dut hona:

8. taula

Leganbio

Urtea	Seme-alaba	Aita	Ama	Herria
1815	Ramona Morena Amparan	Sebastian Morena <i>LeGambio</i>	Nicolasa Amparan Renteria	Sopuerta

4. Aldaeren azalpen fonetikoak: [Lufambio] > [Luxambio] > [Lukambio] ~ [Luyambio]

Aurreko ataletan bildutako datuetan azaldu da <x>, <s>, <j>, <c>, <ch> eta <g> grafemekin agertu dela gaurko *Lujanbio*, historian zehar. Pentsa daiteke grafema horiek gutxienez lau hots islatzen dituztela, [ʃ], [χ], [k] eta [ɣ]; horietaz gain, badirudi <s> grafemak [s̺] hotsa ere islatzen duela. Nolanahi ere, galdera egin beharra dago: zein harreman diakroniko dute aldaerok?

Badirudi [ʃ] hotsak duela lehentasun diakronikoa; horretarako, 2.5. atalean esandakoa kontuan hartuta, gaztelaniaren txistukariaren diakroniaz dugun ezagutzan oinarritzen gara. Hortaz, argazki orokor ezagun horren pean uler daiteke [Lufambio] > [Luxambio] aldaketa.

Bestalde, ahoskera txistukariaren lekuko moduan hartu ditugu <s> duten adibideak; belarizatzea gertatu baino lehen sortuko ziren halakoak. Horretaz gain, *Lukanbio* eta *Luganbio* aldaeren azalpenari dagokionez, interesgarria da Manterola eta Hualderen (2021: 20) hitzak ekartzea: «Under the hypothesis we propose here, a possible interpretation is that <k>, <c> are being used in these medieval names to represent /χ/. Hemengo datuak xvii. eta xviii. mendekoak dira, ez Erdi Arokoak, baina [χ] eta [k] hotsen hurbiltasun fonetikoaren adierazgarri dira: biak dira soinu belarrak, eta horrek ondorioa izan du grafian ere.

5. *Lujanbio* deituraren balizko erroari begira: *Lujan*

Azaldutako datuak eskura izanda, galdera gehiago etortzen dira burura. Zein dira adibide zaharrenaren gisa agertu den *Luxanbio* (1545, Arano) abizenaren erroa, osagaiak?

Mitxelena (1973: 134) etimologia zaileko izentzat du *Lujanbio*, eta *-io* bukaera duten beste izen batzuekin sailkatzen du: *Areitio*, *Baquio*, *Elorrio*, *Gomendio*, *Mena(u)rio* (*Meaurio*), *Mutio(zabal)*, *Orrio* eta *Zam(b)udio*.

Nire ustez, aintzat harturik badela *Lujan* deitura ere, pentsa daiteke *-bio* bukaera dela kontuan hartzekoa, ez *-io* soila. Zer litzateke, bestela, *lujanb-* erroa? Bide honeztatik ere, ez da erraza zehazten zer den *-bio* hori. Dena den, badira *-bio* bukaeradun abizenak (ikus *Dokuklik*), hala nola *Okabio*, *Okobio*, *Berdabio*, toponimian ere aurki daitezkeenak (Leitzan, Errazkinen eta Artikutzan, hurrenez hurren).

Lujan 1716an agertzen da lehen aldiz Erregistro Sakramentaletan eta, ondotik, 1855ean eta 1890ean. Heriotza-agirietan begiratuta, 1763an Ordizian bada beste adibide bat: Antonio *Lujan*. *Lugan* eta *Luan* adibiderik ez da azaldu. Pentsa daiteke *Luxan* / *Lusan* / *Lucan* / *Lujan* / *Luzan* abizenek jatorri bera dutela eta hor dagoela *Lujanbio* / *Luxanbio*ren oinarria, eta *-bio* edo *-di(o)* bukaerak gerora itsatsi zaizkiola. Aztartzekoa litzateke hauek lotuta ote dauden mendebaldeko *Baranbio* edo *Orobio* modukoekin. Arabako herriaren izena, esaterako, **Balabiano* batetik eratortzen du Salaberrik (2015: 122).

Dokuklik-en *Lu_an* bilaketa eginda, *Luxan* abizena agertzen da aurrena, 1530ean. Horrekin lotutako beste hainbat adibide ere jasotzen ditu bilatzaileak, *Lucan*, *Lusan*, *Luzan* eta *Lujan*, azken biak ugarienak.⁸ Agertzen diren eremu geografikoari begiratuz gero, Bizkaian eta Debabarrenean aurkitzen dira aurrenekoak. Ezin jakin denak elkarri lotuta dauden, baina hona ekartzen ditut bildutakoak, irakurleak bere iritzia osa dezan:

⁸ *Luxan*, *Lusan* eta *Lucan*-en adibide bana aurkitu ditut bakarrik.

9. taula
Luzan, Lucan, Lusan, Luzan, Lujan

Urtea	Seme-alaba	Aita	Ama	Herria
1530	Laurençio Bargas <i>Luzan</i>	Diego Bargas	Cathalina <i>Luzan</i>	Durango
1638	Domingo Astoviça <i>Lucan</i>	Domingo Astoviça Ezdeartovica	Maria <i>Luzan</i> Aperribay	Galdakao
1653	Joan <i>Luzan</i> Real	Joan <i>Luzan</i> Chavarria	Maria Real Asunaga	Elorrio
1700	Maria <i>Luzan</i> Moniagui	Gregorio	Maria	Urkabustaiz
1716	Maria Ygnacia Zisneros Seijas	Antonio Ydalgo Zisneros <i>Lujan</i>	Francisca Ygnacia Seijas Fermen	Soraluze
1717	Ana Maria Echavarria <i>Luzan</i>	Juan Echavarria Ybarra	Antonia <i>Luzan</i> Onandia	Eibar
1718	Joachim Ygnacio Manuel Ydalgo Cisneros Seijas Aldao	Antonio Ydalgo Cisneros <i>Lujan</i>	Francisca Ygnacia Seijas Aldao Fermen	Soraluze
1719	Maria Xaviera Ydalgo Cisneros Seijas Aldao	Antonio Ydalgo Cisneros <i>Lujan</i>	Francisca Ygnacia Seijas Aldao Fermen	Soraluze
1721	Francisco Antonio Hidalgo de Zisneros Zeifas	Antonio Hidalgo de Zisneros <i>Lujan</i>	Francisca Zeifas Seruen	Elorrio
1751	Maria Ramos <i>Luzan</i> Ugarte	Domingo <i>Luzan</i>	Maria Francisca Ugarte	Vitoria-Gasteiz
1757	Juan <i>Luzan</i> Urrecha	Domingo <i>Luzan</i> Besoitaormachea	Catalina Urrecha Ulaortua	Berriz
1800	Eufrasio Santiago <i>Luzan</i> Ruiz de Apodaca	Valentin	Gregorio	Zigoitia
1804	Raymundo <i>Luzan</i> Ruiz de Apodaca	Valentin	Gregoria	Zigoitia
1815	Eusebia <i>Luzan</i> Apodaca	Valentin <i>Luzan</i> Campos	Gregoria Apodaca Ochoa de Retana	Vitoria-Gasteiz
1840	Juana Joaquina <i>Luzan</i> Berresiarre	Bonifacio <i>Luzan</i> Ruiz de Apodaca	Francisca Berresiarre Elorza	Oñati
1853	Antonio Landaverrea Eztaia	José Landaverrea <i>Lucan</i>	Catalina Eztaia Elgarrista	Donostia
1855	Enriqueta Teresa Yldefonsa Perez <i>Lujan</i>	Juan Perez Perez	Concepcion <i>Lujan</i> Unst	Vitoria-Gasteiz
1890	Julio <i>Lujan</i> Argote	Pedro <i>Lujan</i> Montoya	Isabel Argote Perez	Urduña

Bestalde, Jabier Lujanbiok jakinarazi dit haren ustez *Luxa* dela *Lujanbioren* erroa. «*Luxa* Nafarroako Erdi Aroko nobleziaren leinua zen, izen bereko tokian sortua» dio *Gran Enciclopedia Navarrak*. Entziklopediaren arabera, *Luxa* leinuaren ondare jaureriak *Ostabat* (Izura) eta *Lantabat* (Landibarre) ziren. Luxako Pedro Arnaldo Luxa, Ostabat eta Lantabateko Jauna izan zen. Honela dio entziklopediak: «Donó (1227) al monasterio premostratense de Lahonce esta última baronía con todas sus pertenencias. Rodeó de murallas la villa de Ostabat, pero el rey Sancho VII el Fuerte, a quien había prestado homenaje (1196) el señor de Mixa-Ostabarets, le mandó derribarlas. Pedro Arnaldo se hizo entonces (1228) vasallo ligio del monarca navarro, pasando a formar parte así de su clientela feudal en Ultrapuertos» (ikus bibliografian, informazio gehiagorako).

Lujánek dioenez (2018: 3), lujandar leinu bat gutxienez XII.-XIII. mendeetatik dago Aragoiko lurraldeetan. Autore honen arabera (2018: 8-9), euskal lurraldeetako *Luxa*-rekin lotu behar da Aragoiko *Luxan* / *Luján*; familia ezaguna zen, nafar erresumaren garaian, *Luxa* leinua, eta handik zabalduko zen Aragoira ere. Dirudienez, *Luxa* hau Behe Nafarroako *Lüküze* herri-izenaren forma gaskoitia da: Mitxelenak dioenez (1973: 123), *luku* 'baso' dugu izen honen oinarrian (ikus Salaberri 2004: 283-286). Manterolak hau gehitzen du *Etimologiak Sarean* orrian: «*Luxa*. Jadanik ~1072an dugu, Sordeko kartularioan. Amikuzeko *Lüküze* herriaren erro-mantzezko aldaera da, *luk(u)za > *lukza > *luxa edo, *Luxa*/*Luxe* idatzia» (Mantero 2023).

6. Eztabaidarako interesgarri izan daitezkeen adibide gehiago

6.1. *Luxan-*, *Lujan-*, *Lucan-*, *Lugan-*, *Lusan-*, *Luzan-*, *Luan-*

Ondorengo taulan *Luxan-*, *Lujan-*, *Lucan-*, *Lugan-*, *Lusan-*, *Luzan-* eta *Luan-* hasierak dituzten abizenak biltzen dira, *Dokukliken* 1800 bitartean topatutakoak (adibide asko zeudenetan ez dira guztiak bildu; horrelakoetan, «eta gehiago» adierazi da):

10. taula

Luxan-, Lujan-, Lucan-, Lujan-, Lusan-/Luzan-, Luan-

<i>Luxan-</i>	<p><i>Luxan</i> (1530 Durango) <i>Luxana</i> (1610 Muxika; 1617, 1644 Durango; 1624 Bilbo; 1751, 1752, Legutio; 1765 Eskoriatza) <i>Luxanda</i> (1649 Agurain) <i>Luxanbio</i> (1612, 1633, 1635, 1650, 1658, 1706, 1746, 1794 Hernani; 1656 Beizama; 1680, 1700 hiru aldiz, 1703, 1706, 1753 Andoain; 1724 Berastegi; 1730 Laudio; 1731 Oiartzun; 1761 Aduna; 1782 Villabona, 1731 Busturia eta gehiago) <i>Luxanbio</i> (1650 Donostia; 1778 Aduna; 1780 Hernani; 1783 Villabona) <i>Luxanbio/Luxandio</i>⁹ (1691, 1693 Berastegi) <i>Luxanbio</i> (1702 bi aldiz, 1704, 1705, 1707 Lezo eta gehiago) <i>Luxandia</i> (1688 bi aldiz, Oiartzun) <i>Luxando</i> (1812 Lantaron) <i>Luxano</i> (1739 Bergara) <i>Luxaño</i> (1566 Antzuola) <i>Luxanuo</i> (1681 Hernani)</p>
<i>Lujan-</i>	<p><i>Lujan</i> (1763 Ordizia) <i>Lujana</i> (1599 Donostia) <i>Lujancio</i> (1646 Berastegi) <i>Lujando</i>¹⁰ (1621 Muskiz; 1631 Aiara; 1661 Berantevilla; 1674 Lantaron¹¹; 1684, 1836 Añana; 1831 Gaubea) <i>Lujanbio</i> (1641, 1668 Hernani; 1673 Donostia; 1673, 1678 Berrobi; 1678 Andoain) <i>Lujandio/Lujanbio</i>?¹² (1839, 1849 Sopena) <i>Lujano</i> (1693 Pasaia) <i>Lujanbio</i> (1697, 1732, 1733 bi aldiz, 1735, 1744¹³ Lezo) <i>Lujanbio</i> (1698, 1700, 1701, 1698, 1700 Lezo; 1698 Pasaia)</p>

⁹ *Luxandio* eta *Luxanbio* abizenak agertzen dira pertsona berberengan: Lorenza *Luxandio* (Berastegi, 1691n alaba bat izan zuen Joanes Echenagusiarekin), Lorenza *Luxanbio* (Berastegi, 1693n seme bat izan zuen Joanes Echenagusiarekin).

¹⁰ *Luyando/Luiando* oso ugaria da 1518tik aurrera *Dokuklik*-en.

¹¹ Ikus *Lugando* Lantaronen, 1864an. Pentsa daiteke *Lujando* eta *Lugando* hauek elkarri lotuta daudela.

¹² Bi ezkontza datu ditugu XIX. mendean Sopenatan: alde batetik, 1839an Sopenatan ezkondu ziren Basilia *Lujandio* Aguirre eta Jose Antonio Arbizu Arbelaiz; beste alde batetik, 1849an, Sopenatan, Carmen *Lujanbio* Aguirre eta Ramon Gaspio Yzaguirre. Bi emakumeak elkarren ahizpa izan daitezke eta, kasu horretan, txandakatzea egongo litzateke, *Lujandio/Lujanbio* artean. Baina ezin ziur jakin, jaiotza-datuak ez direlako topatu.

¹³ *Lujanbio/Lujanbio* txandakatzea elkarren jarraiko bi ezkontza-egunetan: 1744-11-22 Antonio *Lujanbio* eta Maria Josepha Goya Irunen ezkondu ziren eta 1744-11-23an Antonio *Lujanbio* eta Maria Josepha Goia Lezon. Hemendik pentsa daiteke, nahiz eta *b* hotsez ahoskatu, batzuetan *u* idatziko zutela.

<i>Lucan-</i>	<p><i>Lucan</i> (1638 Galdakao) <i>Lucandis</i> (1670 Zamudio; 1686 Bilbo; 1708 Bilbo; 1808, 1818 Orozko) <i>Lucandiz</i> (1616 Zamudio; 1619 Bilbo) <i>Lucandiz</i>¹⁴ (1776, 1779 Otxandio) <i>Lucandi</i>¹⁵ (1770 Otxandio; 1822 Orozko) <i>Lucandia</i> (1801 Bilbo) <i>Lucanbio/Lucambio</i> (1673 Hernani; 1707 Tolosa; 1738, 1756, 1760 bi aldiz, 1761, 1809 Donostia; 1757 Lekeitio) <i>Lucando</i> (1626 Gasteiz) <i>Lucano</i> (1548 Berastegi; 1647 Eibar; 1649 Elorrio)</p>
<i>Lugan-</i>	<p><i>Lugandara/Luganda</i>¹⁶ (1868, 1870 Donostia) <i>Lugandis</i> (1894 Barakaldo) <i>Lugando</i> (1864 Lantaron) <i>Luganvio/Luganbio</i> (1646, 1657, 1796 Hernani; 1736 Donostia; 1794 Ondarroa; 1800 Busturia, 1811 Bermeo, 1844 Sopuerta)</p>
<i>Lusan-</i> <i>Luzan-</i>	<p><i>Lusan</i> (1653 Elorrio; 1667 Arrigorriaga) <i>Lusana</i> (1839, 1870 Donostia) <i>Luzana</i> (1557 Lantaron) <i>Lusanbio, Lusanvio</i> (1699, 1706, 1709 Donostia) <i>Lusandi</i> (1892 Bilbo) <i>Lusandia</i> (1687 Donostia) <i>Luzandio</i> (1567 Lemoa) <i>Lusando</i> (1626 Bilbo; 1772 Lantaron; 1866 Armiñon) <i>Luçanco</i> (1607 Oñati) <i>Luçano</i> (1685 Pasaia)</p>
<i>Luan-</i>	<p><i>Luana</i> (1883 Donostia) <i>Luanco</i> (1693 Bilbo; 1877 Donostia) <i>Luanda</i> (1662, 1826 Amurrio; 1846 Aiara; 1869 Urduña; 1880 Donostia; 1887, 1888, 1889 Laudio) <i>Luandis</i> (1685 Lezama) <i>Luandiz</i> (1625, 1627 Zamudio; 1881 Bergara) <i>Luando</i> (1683 Muskiz) <i>Luanzaburu</i> (1804 Donostia) <i>Luanizartiz</i> (1819 Bergara) <i>Luaniz</i> (1819 Bergara; 1873 Oñati) <i>Luano</i> (1886 Bilbo; 1893 Zarautz) <i>Luanzo</i> (1613 Gaubea)</p>

¹⁴ Txandakatzea dugu abizen honetan (*Lucandi/Lucandiz*): Maria Manuela Urrecha *Lucandi* (Otxandio, 1770ean alaba bat izan zuen Lorenzo Ajuria Urquiolarekin), Maria Manuela Urrecha *Lucandiz* (Otxandio, 1776an eta 1779an seme bat izan zuen Lorenzo Ajuria Urquiolarekin).

¹⁵ Txandakatzea dugu hemen ere (*Lucandis/Lucandi*), eta pertsona berbera dira bi Pedro hauek: Pedro *Lucandis* Ysla (Orozko, 1818an Maria Ugalderekin alaba bat izan zuen), Pedro *Lucandi* Ysla (Orozko, 1822an Josefa Epalza Ugalderekin seme bat izan zuen).

¹⁶ *Lugandara/Luganda* pertsona berberean: Crispula Martiarena *Lugandara* (Donostia, 1868an alaba bat izan zuen Vicente Sanchez Garijorekin), Crispula Martiarena *Luganda* (Donostia, 1870ean alaba bat izan zuen Vicente Sanchez Garijorekin).

6.2. *Luxa, Luja, Luca, Luga, Lusa/Luza, Lua*

Badira *Luxa, Luja, Luca, Luga, Lusa, Luza* abizenak ere, *-n* gabekoak, XVI. mendetik aurrera:

11. taula

Luxa, Luja, Luca, Luga, Lusa, Luza/Luça, Lua

<i>Luxa</i>	1537, 1547, 1550, 1566 Laudio; 1589, 1595 Hondarribia.
<i>Luja</i>	1585, 1593 Laudio; 1602, 1608 ¹⁷ Bilbo.
<i>Luca</i>	1589 ¹⁸ , 1736, 1744 Hondarribia.
<i>Luga</i>	1696 Laudio; 1706, 1726 Bilbo.
<i>Lusa</i>	1539, 1558 Oñati; 1574 Tolosa; 1590 Bilbo, 1593 Hondarribia; 1596 Portugalete; 1660, 1664, 1666, 1790 Bilbo; 1681 Muskiz.
<i>Luza, Luça</i>	1581, 1586, 1588, 1594 Hondarribia; 1637, 1670, 1672, 1674, 1678, 1739 -hiru adibide-, 1741 Bilbo.
<i>Lua</i>	1590, 1690, Bilbo.

Lucha abizena ere agertzen da Arrigorriagan (1695): Antonio Domingo *Lucha* Goyri Beascoa (semea), Domingo *Lucha* [Echevarria] (aita).

6.3. *Lexan-, Lejan-, Lecan-, Legan-, Lesan-, Lezan-, Lean-*

Dokuklik-ek erakusten dizkigun adibideei begirata, badirudi oinarri horien gainean eraiki direla hainbat abizen Gipuzkoa eta Bizkaian. Dena den, *Lejan/Lexan* adibiderik ez da agertu. Bai, ordea, *Lecan* pare bat, eta *Lesan* eta *Lezan* adibide bana, nahiz eta berantiarak izan gehienak:¹⁹

¹⁷ Bi pertsona hauek grafia desberdinez idatzi ziren (ikus Pedro *Luja* eta *Luxa*):

— 1608, Domeca *Luja* Plaçabeytia (alaba), Pedro *Luja* (aita), Mari San Juan Plaçabeytia (ama) Bilbo.

— 1613, Ana *Luja* (alaba), Pedro *Luxa* (aita), Mari San Juan Plaçabeytia (ama), Bilbo.

¹⁸ *Luca/Luça* txandakatzea:

— 1589, Joanes *Luca* Heraso (semea), Esteban *Luca* (aita), Catalina Heraso (ama), Hondarribia.

— 1592, Pedro *Luça* Heraso (semea), Esteban *Luça* (aita), Catalina Heraso (ama), Hondarribia.

¹⁹ Hemen ere, Nafarroa eta Ipar Euskal Herriko datuak bilatu behar lirateke ikuspegia osatzeko.

12. taula

Lexan-, Lejan-, Lecan-, Legan-, Lesan-/Lezan-, Lean-

<i>Lexan-</i>	<i>Lexanbioa</i> (1599 Hernani) <i>Lexancegui</i> (1720 Amorebieta-Etxano) <i>Lexande</i> (1661, 1676, 1747 Orduña; 1741, 1753 Abanto-Zierbena) <i>Lexandre</i> (1659 Gasteiz) <i>Lexandi</i> (1746 Etxebarria; 1829 Portugalete) <i>Lexaniz</i> (1586 Azkoitia) <i>Lexano</i> (1632 Durango) <i>Lexanogoitia</i> (1834 Barakaldo)
<i>Lejan-</i>	<i>Lejan</i> (1672 Izurtza) <i>Lejana</i> (1851 Amurrio) <i>Lejanagoitia</i> (1893 Bilbo) <i>Lejandistegi</i> (1694 Abadiño) <i>Lejandre</i> (1885 Kuartango) <i>Lejanguti</i> (1615 Portugalete) <i>Lejaniz</i> (1868 Bilbo) <i>Lejanvigo</i> (1654 Azpeitia)
<i>Lecan-</i>	<i>Lecan</i> (1525 Agurain; 1785 Barakaldo) <i>Lecana</i> (1612 Erriberagoitia) <i>Lecanda</i> (1543, 1550, 1556, 1572, 1573, 1577, 1579... Laudio ²⁰) <i>Lecandoy</i> (1597 Bilbo) <i>Lecanduri</i> (1589 Orozko; 1603 Bilbo) <i>Lecano</i> (1583, Oñati)
<i>Legan-</i>	<i>Legana</i> (1833 Ziortza-Bolibar; 1853 Eskoriatza; 1870 Bermeo) <i>Leganda</i> (1630 Laudio; 1682 Gasteiz; 1687 1689 Areatza; 1760 Zestoa; 1835 Zaratamo) <i>Legandia</i> (1681 Elgoibar) <i>Legandiaga</i> (1820 Berriatua) <i>Leganiz</i> (1765 Zaldibar; 1864 Elgeta) <i>Legañez</i> (1851 Amorebieta-Etxano)
<i>Lesan/ Lezan-</i>	<i>Lesan</i> (1839 Durango) <i>Lesanbio</i> (1579 Tolosa) <i>Lezán</i> (1898 Bilbo) <i>Lezana, Leçana</i> (1544tik aurrera adibide asko daude Araba aldean) <i>Lezanda, Leçanda</i> (1667, 1674 Oñati; 1724, 1849 Amurrio; 1734 Zierbena) <i>Lezano</i> (1527 Treviñu)
<i>Lean-</i>	<i>Leana</i> (1565, 1573 Bilbo) <i>Leaniz/Leanis</i> (1525 Elorrion aurrenekoak. Ehunka daude)

Gerra zibilean aritutakoen artean ere agertzen dira *Lejan* osagaia duten lau abizen: *Lejambio*, *Lejan de Romero*, *Lejanaga* eta *Lejanin* (Fichero n.º 35 de la Secretaría General y de la Sección Político Social. Ikus <https://www.combatientes.es/fichero35seccionpoliticosocial.htm>).

²⁰ Milaka adibide daude, Laudion hasierako gehienak. Ikus *Leganda* adibideak ere, lehena 1630ean Laudion.

6.4. Adibide guztiak taula batean

Aurkitutako adibide guztiak bildu dira ondorengo taulan:

13. taula

Lujan- / *Lejan-* aldaerak abizenetan

<i>Luxan</i>	<i>Lujan</i> / <i>Lejan</i>	<i>Lucan</i> / <i>Lecan</i>		<i>Lusan</i> / <i>Lesan, Lezán</i>	
<i>Luxana</i>	<i>Lujana</i> / <i>Lejana</i>	<i>Lecana</i>	<i>Legana</i>	<i>Lusana,</i> <i>Luzana</i> / <i>Lezana</i>	<i>Leana</i>
<i>Luxanbio</i> / <i>Lexanbioa</i>	<i>Lujanbio</i> / <i>Lejambio</i>	<i>Lucanbio</i>		<i>Lusanbio</i> / <i>Lesanbio</i>	
<i>Luxanda</i>		<i>Lecanda</i>	<i>Luganda</i> / <i>Leganda</i>	<i>Lezanda</i>	<i>Luanda</i>
<i>Luxandia</i> / <i>Lexandi</i>	<i>Lejandio</i>	<i>Lucandi</i>	<i>Legandia</i>	<i>Lusandi,</i> <i>Lusandia</i>	
<i>Lexaniz</i>	<i>Lejaniz</i>	<i>Lucandiz</i>	<i>Lugandis</i> / <i>Leganiz</i> (<i>Legañez</i>)		<i>Luandis,</i> <i>Luandiz,</i> <i>Luaniz</i> / <i>Leanis, Leaniz</i>
<i>Luxando</i>	<i>Lujando</i>	<i>Lucando</i>	<i>Lugando</i>	<i>Lusando</i>	<i>Luando</i>
<i>Luxaño</i> / <i>Lexano</i>	<i>Lujano</i> /	<i>Lucano</i> / <i>Lecano</i>		<i>Luçano</i> / <i>Lecano</i>	<i>Luano</i>

Luxan-/Lexan- aldaeren arteko harremana nola azal daitekeen, kasualitatea edo kausalitatea dagoen, ez dakit. Hemen uzten dut auzia horretaz gehiago jakin eta interesa izan dezakeenarentzat.

7. Azken hitza

Abizenen edo bestelako izenen aldaeren azterketek horrelako bilakaerak aurkitzeko aukera ematen dute. Lerro hauen bidez erakutsi dut *x/s/j/g/k* grafien aldakortasuna agertzen dela *Lujanbio* abizenean. Askotan ezin da jakin ahoskera zenbateraino islatzen duen grafiak, eta ezta zein den jatorria ere, zein den aurreneko adibidea. Baina adibideak hor daude eta zerbaiten isla dira.

Artikulu honetan galdera nagusiak hauek izan dira: zein da *Lujanbio* abizenaren jatorria? Adibide horiek zer adierazten dute, zein hots zegoen jatorrian? Zeren araberak aldatu da bere idazkera? Jakina da ahoskera aldatuz doala hizkuntza barruko nahiz kanpoko faktoreengatik eta grafia aldaketa hori adieraziz doa. Eta zenbat eragiten diote idazteko dauden uneko arauak eta, bere idazkerak zenbateko eragina du, gero, ahoskeran? Hotsen bilakabidean, abiapuntua aldaketak hizkuntza barruan bila-

tzea izan ohi da, baina hizkuntzaz gaineko joerak ere badaudela kontuan hartu behar da; hizkuntza, gizakiok egiten dugunez, gizakion joeren arabera ere bada. Gizakion joera horien artean sartzen da gauza berbera modu desberdinetan ahoskatzeko erabaki kontziente nahiz ez-kontziente hori.

Artikuluaz azaldu diren adibide zehatzetara jaitsiz, zuhaitz genealogikoaren kasuan, *Luxanbio* agertu da aurrena (1545ean Aranon), eta *Lujanbio* eta *Lusanbio* geroago (1641ean Hernanin, eta 1699an Aranon eta Donostian). *Dokuklik*-en bilatuta, adibide gehiago topatu dira: *Luganbio* (eta *Luganbio*) agertu da 1644tik aurrera, Hernanin aurrenekoa (bederatzi adibideetatik gehienak Hernanin eta bana Donostia, Busturia, Bermeo eta Sopuertan). Beste bederatzi *Lucanbio* azaldu dira 1673tik aurrera Hernani eta inguruetan (Donostian batez ere, eta Tolosan, Errenterian, Irunen eta Lekeitioan adibide bana). Erroari begira jarri gara gero, *Luxan*, *Lujan*, *Lucan*, *Lusan*, *Luzan* eta *Luxa*, *Luja*, *Luca*, *Luga*, *Lusa*, *Luza*, *Lucha* adibideak aurkitu. *Lesanbio*, *Lexanbio*, *Lejanbio* abizenek gain, *Lexan* / *Lejan* / *Lecan* / *Legan* / *Lezan* / *Lean* abizenak topatu dira.

Interesgarriak dira beste ikertzaileek horrelako bilakaeren gainean emandako azalpenak eta horiek aldaera hauekin izan ditzaketen loturak ikustea. *Lujanbio/Lucanbio* abizenaren hots belarrarekin batera, bazegoen baita txistukaria ere *Lusanbio/Luxanbio* adibideetan. Adibide horiek elkarri lotuta daude, bai grafiaz eta baita garai eta geografian bidez ere. Eta, azken batean, adierazten saiatu naiz badagoela continuum eta lotura bat, hemen agertutako adibide guztien artean ez bada, bai, bederen, *Luxanbio*, *Lusanbio*, *Luganbio*, *Lucanbio* eta *Lujanbio*ren artean.

Erreferentziak

- Allen, Dana Lynne. 2002. *The history of the sibilants of peninsular Spanish from the eleventh to the sixteenth centuries*. Londres: Queens Mary, University of London-eko doktorego-tesia. <https://qmro.qmul.ac.uk/xmlui/handle/123456789/1401> (2023/09/01).
- Gran Enciclopedia de Navarra. *Luxa*. http://www.enciclopedianavarra.com/?page_id=13542 (2022/09/01).
- Gran Enciclopedia de Navarra. *Pedro Arnaldo de Luxa*. http://www.enciclopedianavarra.com/?page_id=16437 (2022/09/01).
- González Ollé, Fernando. *La Real Academia Española en su primer siglo*. Madril: Arco Libros.
- Lapesa, Rafael. 1981. *Historia de la lengua española*. Madril: Gredos.
- Luján Álvarez, Emilio. 2018. *El origen gascón de Lope Garcés de Estella y de los Lujanes de Aragón*. Madril: Editorial La Rana.
- Manterola, Julen. 2023. *Luxa* (txioa) (2023/03/21). *Etimologiak Sarean* (@etimotxioak). <https://twitter.com/etimotxioak/status/1638132866688208896> (2024/01/03).
- Manterola, Julen & José Ignacio Hualde. 2021. Old Basque had */ɣ/, not /h/. Medieval data, implications for reconstruction and Basque-Romance contact effects. *Journal of Historical Linguistics* 11(3). 421-456. <https://doi.org/10.1075/jhl.19041.man>.
- Méndez-Núñez, Eva. 2016. A diachronic approach to the old Spanish sibilant merger and its impact on Trans-Atlantic Spanish merger and its impact on Trans-Atlantic Spanish (Part I). *Revista de Estudios Hispánicos (U. Puerto Rico)* 3(2). 59-98.
- Mitxelena, Luis. 1973. *Apellidos Vascos*. 3. argit. Donostia: Txertoa (Berrargit. OC 9, 1-235).

- Mitxelena, Koldo. 1977. *Fonética Histórica Vasca*. 2. argit. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. (1. argit., 1961). <https://addi.ehu.es/handle/10810/53061>.
- Mitxelena, Koldo. 2011. *Obras completas (ASJUren Gehigarriak 54-68)*, 15 lib. Donostia & Gasteiz: «Julio Urkixo» Euskal Filologi Mintegia, Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU (Joseba A. Lakarra & Iñigo Ruiz Arzalluzen argit.).
- Real Academia Española. 1726-1739. *Diccionario de Autoridades*. Madril: RAE.
- Salaberri, Patxi. 2004. *Nafarroa Behereko herrien izenak. Lekukotasunak eta etimologia*. Iruñea: Nafarroako Gobernu.
- Salaberri, Patxi. 2015. *Arabal/Álava. Los nombres de nuestros pueblos*. Bilbo: Euskaltzaindia.

Mugurutza, Gorrotxategi eta beste etimologia zenbait: eskuinak ez dakar zorionik^{1,2}

Mugurutza, Gorrotxategi *and other etymologies:
being right does not mean being happy*

Julen Manterola*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: In Mitxelena's analysis, the names *Mugurutza* and *Gorrotxategi* are based on *mukuru* 'filled' and *gurutze* 'cross' respectively. This paper offers an alternative etymological account of these surnames, by linking them to *Mugaburu* and *gorri* 'red'. The subsequent sections evaluate the Basque interpretation of the text contained in the hand of Irulegi. To this end, detailed etymologies of *Lekuine* and *eskuin* 'right' are provided; the goal is to build a precise history of the lexicalized adjectival phrases that have *on* 'good' as a head, in order to compare it to that of *zorion* 'happiness'. The comparative method is thus revisited, by comparing elements that belong to different stages of the same language; this is illustrated with a Latin-Romance example. The conclusion is that the available evidence is not sufficient to identify the 2.100 old segment

¹ Lourdes Oñederraren eta Koldo Zuazoren omenaldietan ohoratuen deiturari buruzko artikuluak osatu ondotik, Jose Ignaziok «kargu hartu» zidan, ea zergatik ez nuen gauza bera egin Joaquín Gorrotxategiren lehenagokoan. Hementxe aurkituko du han behar zuena. Agian hurrengo batean izango du *Hualde*-ri buruzko zerbait, ezer interesgarririk banu esateko. Horretaz gain, gogo betez eskaintzen dizkiot Irulegiko Eskuari dagozkionak, ustez eta, okerrean, *eskuin*-i eta *Lekuine*-ri buruzkoak interesatuko zaizkiola. Gogo betez, eta esker onez, esku onez gidatzen nauen maisuari.

² Céline Mounole, Gidor Bilbao, Markel Lizasoain, Joana Ibargarai, Jon Basauri, Eneko Zuloaga, Borja Ariztimuño, Julen Bernaldo de Quirós, Arrate Isasi-Isasmendi eta Idoia Arruti eskertu nahi ditut, aukera izan baitut artikulu honetako ideiak haiekin partekatzeko. Okerrak nire. Ondoko proiektu eta ikertaldeek laguntza eman dute artikulu hau garatzeko: «*Monumenta Lingue Vasconum 6: Avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca*» (*Ministerio de Ciencia e Innovación*, PID2020-118445GB-I00) eta «*Hizkuntzalaritza Diakronikoa, Tipologia eta Euskararen Historia / Diachronic Linguistics, Typology and the History of Basque (DLTB)*» (Eusko Jaurlaritza, IT1534/22).

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Julen Manterola. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila - Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitatean ibilbidea, 5 (01006 Gasteiz). – julen.manterola@ehu.eus – https://orcid.org/0000-0002-2381-183X

Nola aipatu / How to cite: Manterola, Julen (2023). «*Mugurutza, Gorrotxategi eta beste etimologia zenbait: eskuinak ez dakar zorionik*», ASJU, 57 (1-2), 649-669. (https://doi.org/10.1387/asju.25970).

Jasoa/Received: 2023-07-08; Onartua/Accepted: 2023-09-22.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago

string SORION with the Basque phrase *zorion*, and that without additional evidence their apparent similarity is nothing but a linguistic pareidolia.

KEYWORDS: *Mugurutza*; *Gorrotxategi*; *eskuin* ‘right’; etymology; hand of Irulegi; linguistic pareidolia.

LABURPENA: *Mugurutza eta Gorrotxategi deituren lehen osagaia mukurru eta gurutze hitze-kin lotu zituen Mitxelena. Artikulu honek bestelako azalpen etimologiko bat ematen die abizenoi, Mugaburu eta gorri izenekin lotuz, hurrenez hurren. Irulegiko Eskuko testuaren euskararen bidezko interpretazioa ebaluatzen dute ondoko atalek: horretarako, Lekuine herri-izenaren eta eskuin izen arruntaren xehetasun etimologikoak argitzen dira; helburua da on adjektiboarekin lexikalizatuta dauden sintagmen historia xehea egitea, zorion-enarekin erkatzeko. Metodo konparatiboa gogora ekartzen da horrela, kasu honetan hizkuntza beraren barruko garai ezberdinetako elementuak konparatuz; latin-erromantzezko adibide batek osatzen du azalpena. Ondorioa da ez dagoela aski oinarririk duela 2.100 urteko idazkuneko SORION segmentu segida euskarazko zorion sintagmarekin berdintzeko, eta, datu gehigarriak izan ezean, haien itxurazko antza pareidolia linguistiko huts bati zor zaiola.*

HITZ GAKOAK: *Mugurutza*; *Gorrotxategi*; *eskuin*; *etimologia*; *Irulegiko Eskua*; *pareidolia linguistikoa*.

1. Sarrera

Etimologiazko lanetan ohikoa da bereiz aztertzea hitz arruntak eta izen bereziak, eta aparte tratatu izan dira batzuk eta bestetzuk. Alde horretatik, esanguratsua da armenieraren hiztegi etimologikoa (Martyrosian 2010): hiztegiaren zati nagusiak, 668 orrialde, ondare zaharreko hitzen etimologiak biltzen ditu, baina autoreak egoki iritzi zion toki-izenen etimologiari buruzko 17 orrialdeko atal labur bat gehitzeari. Gurean badu tradizioa izen berezien azterketak, eta horren erakusgarri dira toki-izenen hiztegi historiko-etimologikoak: Nafarroa Behereko herri-izenena, Arabakoena (Salaberri 2004, 2015), Gipuzkoakoena (Salaberri & Zaldúa 2020), Nafarroako herri-izenena eta ibai-mendiana (Belasko 1999, 2000), etab. Sareko baliabide bikainak ere badira gai berari eskainiak, hala nola Alfredo Oriberen bloga (euskal-onomastikaz.blogspot.com) eta Belaskorena berarena (mikelbelasko.blogspot.com). Pertsona-izenei dagokienez, erreferentziazkoa da, halaber, Salaberriren lana (2009).

Hitz arruntek ez bezala, izen bereziek pertsona edo toki jakin bati egin ohi diote erreferentzia. Ezaugarri horrek haren formaren gorabehera diakronikoetan ere badu eragina, eta horretaz honela dio Durkinek (2009: 272): «Name studies also give evidence for sound changes and other developments which have little or no parallel elsewhere in a language». Fonologia historikoan, beraz, ezinbestean onartu beharra dago badagoela aldaketa erregularretik haragoko mundurik (Hualde 2006: 449-450); besterik da haren balio metodologikoa haztatzea, dagokion neurrian balioesteko, eta aldaketa irregularren esparrua behar bezala mugatzeko.

Aldaketa irregularren adibide politikak dira Basaurik (2022: 9, 13) Soraluzeko toponimiaren berri ematean nabarmendu dituenak: iturri eta aurkintza baten izena da gaur *Áskabéitxi*, eta *aska* izena dagoelako ustea dago zabaldua herritarren artean; dokumentazioak, ordea, *Ayzcaraeguibeytia* forman dakar 1588an, eta datu horren eta besteren argitara *haitz* + *garai* + *hegi* + *beitia* analizatu behar da izena, autore honek dioenez. Bestalde, gaurko *Martikortúa* izena, ‘Martikoren ortu’ edo interpreta lezake

inork, baina dokumentazio historikoak agerian uzten du ez dagoela *Martiko*-rik bertan: *Barrutiko hortua* (1563), *Barticorta* (1810), *Barticortu* (1810). Hau da, *barruti*-k hitz arrunt gisa *barruti* izaten segitzen du Soraluzeko hizkeran,³ baina *marti* bilakatua da toki-izen jakin batean.

Durkinek (2009: 273) ohartarazten duen bezala, hizkuntzalariak, halakoak aztertzean, maiz beharko ditu onartu hiztegi arrunteko item lexikoak aztertzeke darabiltzan arau fonetiko eta morfologikoez bestelakoak. Izen bereziek beste unitate linguistikoetan gertatzen diren bilakabide fonologiko berberetako asko izaten dituztela nabarmenduz abiatzen du Durkinek (2009: 271), hala ere, izen berezietako forma aldatetari eskaintzen dion atala. Artikulu honek bitako adibideak dakartza: *Mugurutza* (§ 2) eta *Gorrotxategi* (§ 3) deituren etimologiek erakutsiko dute hitz hauen bilakaera fonologikoa arruntzat joko genukeenaren mugan dagoela, aski bilakabide fonetiko ohikoak izan baitituzte, baina, aldi berean, aski modu espezifikoan aplikatu zaizkielako, eta horrek zaildu baitu haien interpretazio etimologikoa. Irulegiko Eskuko tesuaren euskal interpretazioaren hipotesiaren ebaluazio bat eskaintzen dute ondoko atalek (§§ 4-6). Euskal hipotesiaren kronika labur batekin abiatuta (§ 4), *Lekuine* herri-izenaren, *eskuin* izen arruntaren eta *aitona*-ren aldaeren deribazio fonetikoa xehakatzen du hurrengo atalak (§ 5), biek dutelako *on* bigarren osagai moduan. Horietatik ikasitakoek erakutsiko dute zenbateraino den zilegi, termino linguistikoetan, duela 2.100 urteko *sorion* segida bat euskara historikoko *zori on* sintagmarekin konparatzea (§ 6).

2. *Mugurutza* deituraren etimologia

Mitxelenak (1973: 130) uste du *mukuru* egon daitekeela izen honen oinarrian. Esanahiaren aldetik, argitzen ez badu ere, badirudi pentsatu beharko litzatekeela *mukuru*-ren ‘pila, meta’ duela gogoan, edo hori da, izatekotan, etimologia honekin hobe kien letorkeen adiera: ugaritasunezko *-tza* atzizkia baitu, ‘pila, meta multzo’ edo litzateke izen honen esanahi etimologikoa. Azalpena ez litzateke hain argia *mukuru* ‘gainezka’-tik zuzenean abiatuz gero.

Aukera honek ageriko arazo bat du, bigarren silabako herskariari dagokiona: izan ere, /k/ herskari ahoskabera du beti hitz honek bigarren silaban, eta euskararen barrenean ezin da azaldu ustezko *VkV* > *VgV* ahosuntzea. Ezaguna da ahosuntze hau erregularra dela gaztelaniaz bokalartean, baina aldaketa hau euskararen barrenean ez da gertatu, edo ez dago aski daturik ziurtatzeko halakorik inoiz izan denik euskaraz (*FHV*, 233-234). Mitxelenak, jakina, ez zuen euskararen barreneko *mukuru* > ***muguru* modukorik proposatzen, eta beste bide bat landu zuen: euskal *mukuru*-k jatorri aitzin-erromantzea du, cf. lat. *cumulus* ‘pila, meta’, eta forma honetatik **kumuru* dugu lehenik, metatesiz *mukuru* ezaguna;⁴ **kumuru* horretatik, hitz hastapeneko

³ Jon Basauriri eskertu behar diot datu hau ziurtatu izana.

⁴ Beste aukera bat litzateke pentsatzea aitzin-erromantzez gertatu zela *cumulus* > **muculu* metatesia, eta halako formaren bat hartu zutela euskal hiztunek. Alabaina, hizkuntza erromantzeetan ez dut aurkitu halako metatesirik: *cumulus* > **culumus* onartu ohi da, gaztelaniazko *colmo* azaltzeko (*DCECH* 2, 139b, s.v. *colmo*). Hizkuntza galo-erromantzeetan ez dut metatesia lukeen aldaerarik aurkitu (*FEW* 2.2, 1527-1528, s.v. *cūmulus*).

ahostuntze erregularrarekin **gumuru* izango genuen, eta honen metatesiz erdiesten du Mitxelenak **muguru*. Alabaina, honen arazoa da **gumuru* eta **muguru* modukoak ez daudela inon dokumentatuta euskaraz hitz arrunt gisa.⁵

Bestelako azalpen bat dakar Garatek (1972: 139): oinarri handirik gabe, ‘ibi, igarobide’ esanahia lukeen *-uza* atzizkia ikusi nahi du autore honek, *Muguruza* izenari «vado del pedregal» esanahi etimologikoa emanaz. Badirudi, hortaz, lehen osagai gisa *muger* ikusten duela. Alabaina, balizko *-uza* atzizki horrek (*-uz* eta *-utxa* aldaerak ere omen ditu) ez du aski irozgarririk, eta Garatek aipatzen dituen leku-izenek bestelako azalpena, argiagoa, izan lezakete (*Mesperuza*, *Artikutza*, *Altzuzza*) edo ez dira azalpen errazekoak (*Zarautz*, *Atutxa*...). Bestela ere, *-tza* atzizkia dagoelako hipotesiari heldurik, *Mugertza* eta *Mugartzza* ditugu *muger*-ekin.

2.1. Proposamen berria: *Mugaburu*- > *Muguru*-

Mitxelenaren eta Garateren proposamenaz bestelakoa dakar artikulu honek: *mugaburu* dago *Mugurutza* deiturako *muguru*- hasiera horretan. Izan ere, beste leku-izen batzuetan ondo lekukotua dago *mugaburu*- > *mugauru*- > *muguru*- aldaketa, eta datu horien berri dakarte ondoko azpiatalek. Laburbilduz, hipotesi honek argudiatzen du *Mugurutza* izenaren forma etimologiko osoa **Mugaburutza* dela, osaera morfologikoz *muga* + *buru* + *-tza*; ziur asko lehenik *Mugaburu* izen-elkartua sortuko zen, eta honi gehituko zitzaion *-tza* eratorpen atzizkia. Azkuek dioenez (*Morf*; § 108), ugaritasuna adierazten du atzizki honek; horrela bada, ‘mugaburuak diren tokia’ litzateke izenaren esanahi etimologikoa. Bestela, pentsatzen badugu *-tza* atzizkiak ‘toki’ adiera garatu duela jatorrizko pluraltasunaren adierazpidetik, ‘mugaburu den tokia’ ere izan liteke.

2.2. *Mugurutza* Erdi Aroan

Nire corpusean (ikusi Manterola 2015 eta *EHHE* laburduretarako), *Ynnigo Sanches de Muguruça* (*ArchAzkoit* 1413) da deitura honen adibide zaharrena. Debako, Elgoibarko, Ondarroako, Bergarako, Arrasateko, Mutrikuko eta Zumaiako artxiboetako dokumentuetan aurkitu ditut adibide gehiago (*ArchBergIII*, *ArchDebaI*, *ArchDebaII*, *ArchElgoi*, *ArchMondIV*, *ArchMutr*, *ArchOndar*, *ArchZumai*), eta badirudi, beraz, Deba ibaiaren ingurukotzat har daitekeela abizen hau. Beste ibarretako adibideak ez dira askoz urrutiagokoak, bestela ere: lehen lekukotasuna Azkoitikoa da eta Ondarroako artxibokoak Markinako Mugurutzatar bati egiten dio erreferentzia; Zumaiako artxibokoak, berriz, Elgoibarko Mugurutzatar baten berri ematen du. Gaur egun ere, deitura honen ugaritasunaren lekuko, *Mugurutzatarren arku*a dugu Elgoibarren.

2.3. *Mugaburu(a)* leku-izena gaur eta Erdi Aroan

Badira gaurko Bizkaia, Araba eta Gipuzkoan *Mugaburu* edo *Mugaburu*a izena duten lekuak (*EAETop*): Erandion, Orozkon eta Okondon baserri banak dute izen hori,

⁵ Bai, ordea, latinezko *cumulus*-ekin lotua bide dagoen *gonburu* (*FHV*, 331), baina bokalismoagatik badirudi forma honek tarteko erromantzeren bat gehiago izana duela.

auzo-izen moduan ere bada Orozkon bertan eta Aiaran (honetan, *Mugaburugotxi* auzoa ere bada), eta Bergaran *Mugaburua* basoa dago; *Mugaguru* baserria ere bada Bizkaiko Arrietan. Araban, gainera, *Mugaburua* izeneko barrutiak zerrendatzen ditu López de Guereñuk (*TopAlav*) Aberasturin, Azazetan, Mendibilen, Miñaon eta Zekuñan, eta, besteak beste, *Mugaburu* izeneko lur-sailak Dulantzin eta Eharin; Olabezarko (Aiara) *Mugaburu* auzoaren izena ere jaso zuen, haren *Mugauru* aldaerarekin batera. xix. mendeko Ipar Euskal Herrian (*IparTopI*) eta gaurko Nafarroan (*NafTop*), ordea, ez dut aurkitu *Mugaburu* edo *Mugaburua* moduko izenen adibiderik.

Erdi Aroan, berriz, Donapaleun lekuko izan zen *Per Ar. de Mugaburu* (*ColBNavII* 1395) baten berri dugu. Hauxe da lehendabizikoa, eta ekialdeko bakarra, nire corpusen, bederen. Bestela, Bizkaian erraz aurki daitezke adibideak: cf. Mundakako *Martin Lopes de Mugaburu* (*ArchDurIV* 1456), Bilboko *Maria Dias de Mugaburu* (*VecBilb* 1463), Bermeoko *Pero Martines de Mugaburu* (*ArchLeqI* 1474); Orozkon maiz agertzen dira, cf. adibidez *Iohan Sanches de Mugaburu* (*SimancVizcIV* 1483), geroagoko beste hainbaten artean. Gipuzkoan ez dut adibiderik topatu, baina bai Araban: cf. Gobeoko «término de Mugaburua» (*ApeoVit1* 1482).

Datu hauen argitan, bistan dago *Mugaburu(a)* leku-izena aski ohikoa dela Euskal Herriko mendebaldean, Arabako eta Bizkaiko lurretan, batez ere.

2.4. *Mugaburu* eta haren gainean osaturiko beste leku-izenak

Artikulu honetan lantzen den proposamenaren alde gutxienez hiru lekukotasun sorta bil daitezke, aurreko atalekoen osagarri. Lehenik, Galdakaoko *Mugaburu* eta *Muguru* formen alternantzia dugu; gaur kale baten izena da *Muguru* herri honetan. González de Duranak eta Barañanok (1981: 489) Egia-Zabala auzunean 1636ko *Mugaburu* baserria dakarte eta, itxuraz inguru berean, *Mugueburu* izeneko soro bat, 1944an zereal-zelaia zen *Muguru* eta *Muguru-Solo* izeneko beste soro bat. Rosek (1999-2005) eginiko toponimia-bilketan, bestalde, *Mugaburu* eta *Mugaburusolo* ditugu. Lehenago ere jaso zuen Eleizalde (1933: 299) *Muguru* Galdakaon. Itxura gutzietan arabera, izen beraren aldaeren aurrean gaude.

Bigarrenik, Erandioko *Mugaburu* baserriaren izena dugu: Lasak (2005-2008) dioenez, «[a]hoz *Muguru* esaten diote, bokalarteko *b* kontsonantearen galera eta bokal asimilazioaren eraginez». Ahoz jasotako lekukotasun gehienek *Muguru* modukoak ematen dituzte; dokumentazioan, berriz, 1932koa da forma honen lehen adibidea, 1586-1595tik ugari dokumentatuta dagoen *Mugaburu* osoagoaren ondoan. Ikusi orobat Lasa (2009: 42).

Azkenik, Miñaoko *Mugaburu(a)*, *Mugaburugana* eta *Mugaburupea* izenen aldaerak ekarri behar dira hizpidera. Martínez de Madinaren (2010: 421-423) lanean daude jasoak. Miñao Nagusiko *Mugaburu* 1593an dago dokumentatuta lehendabizikorik, artikularekin 1594an, eta geroztik batez ere artikularekin. Esanguratsuek dira *Mugaburugana*-ren aldaerak: 1703, 1791 eta 1806 urteetan forma osoan dago dokumentatuta, baina 1871n *Mugaurugana* dugu eta *Mugurugana* 1875ean. Orobatsu gertatzen da *Mugaburupea*-rekin: forma osoan 1707, 1737, 1816 eta 1832 urteetan dugu, eta *Mugurupea* forma laburtuan 1798, 1851 eta 1856 urteetan.

Miñaoko adibideotan badirudi *Mugaburua* dugula, osorik, inongo lenizio eta laburtzerik gabe, *-gane* edo *-pe* moduko zehaztapen gehigarririk ez dagoenean. Berrel-

karketa gertatu denean, ordea, dela *-gana*, dela *-pea* gehitu zaizkionean *Mugaburu-ri*, izen berri luzeagoak lenizioak eta laburtzeak izan ditu.

Datu hauek begi-aurrean hartuta, argi dago *Mugaburu-* > *Mugauru-* > *Muguru-* aldaketa-sekuentzia ongi dokumentatuta dagoela; bestela ere, bokalarteko herskari ahostunaren galera erabat arrunta da eta hitz barruko *-au-* > *-u-* soiltzeak ez du eragozpenik (FHV, 96-98), are gutxiago kontuan hartzen badugu hitz elkartu horretako *búru* osagaiak bere azentua bokal horren gainean zukeela. Horrenbestez, erabat justifikatua dago, eta paraleloz hornitua, **Mugaburutza* > **Mugaurutza* > *Mugurutza* moduko bilakaera bat, *-tza* atzizkidun eratorriarekin **Mugaburutza* bera edo **Mugaurutza* dokumentatuta ez badaude ere.

3. Gorritxategi deituraren etimologia

Ziurtasun erabatekorik agertu gabe, *Gorritxategi* deitura *gurutze* hitzarekin lotzeko aukeraz mintzo da Mitxelena (1973: 98); *Gurrutxategi* aldaera hartzen du oinarri gisa hurbilketa horretarako, eta *Gurrutxaga* (< *Gurutzeaga*) modukoak ere aipatzen ditu. Azken honen alde Erdi Aroko datuak ere bil daitezke: konpara bitez *Juan de Gurruceaga* (*ArchSegII* 1402), *Juanto de Guruceaga* (*ArchSegIII* 1470) eta *Juanguo de Gurruceaga* (*ArchAtaun* 1488). Hori hala izanik ere, atal honek beste azalpen bat hobesten du *Gorritxategi* deiturarentzat: jarraian datozen datu eta azalpenek erakusten dute *Gorritxategi* dagoela, itxura guztien arabera, *Gorritxategi* deituraren jatorrian.

3.1. Gorritxategi eta Gorritxategi Erdi Aroan

Lehenik eta behin, nabarmendu behar da lehentasun kronologiko argia duela *Gorritxategi* aldaerak dokumentazioan, *Gorritxategi* aldaeraren aldean. Erdi Aroan *Gorritxategi* noiz eta non agertzen den 1. taulak jaso du (datuak nire corpusean oinarrituak dira):

1. taula

Gorritxategi Erdi Aroan

<i>Sancho Lopes de Gorrichategui</i>	1384	<i>ArchLegazp</i>
<i>Martín Sanches de Gorrichategui</i>	1384	<i>ArchLegazp</i>
<i>Lope Sanches de Gorrichategui</i>	1400	<i>ArchLegazp</i>
<i>Martín Sanches de Gorrichategui</i>	1400	<i>ArchLegazp</i>
<i>Johan Sanches de Gorrichategui</i>	1400	<i>ArchLegazp</i>
<i>Sancho Lopes de Gorrichategui</i>	1400	<i>ArchLegazp</i>
<i>Iohan Sanches de Gorrichategui</i>	1412	<i>ArchLegazp</i>
<i>Juan Saez de Gorrichategui</i>	1479	<i>ArchOñati</i>
<i>Iohan Sánchez de Gorrichategui</i>	1493	<i>ArchLegazp</i>

Ageri denez, *Gorritxategi* aldaeraren lehen adibideak xiv. mendekoak dira, eta bakanak dira xv. mendeko adibideak. *Gorritxategi* aldaerari dagozkion datuak 2. taulak jasotzen ditu.

2. taula

Gorrotxategi Erdi Aroan

<i>Juan de Gorrochategui e Machín de Gorrochategui e Ferrando de Gorrochategui</i>	1402	<i>ArchSegII</i> (Zegamakoak dira pertsonok)
<i>Lope Sanches de Gorrochategui e Juan de Gorrochategui e Martín Sanches de Gorrochategui [e] Diego Sanches de Gorrochategui e Sancho de Gorrochategui e Sancho Lopes de Gorrochategui</i>	1407	<i>ArchSegII</i> (Legazpikoak dira)
<i>Fernando de Gorrochategui</i>	1409	<i>ArchSalvatII</i> (Segurakoa da, Zegaman bizi)
<i>Diego Sanches de Gorrochategui</i>	1426	<i>ArchSegII</i>
<i>Ferrando de Gorrochategui</i>	1430	<i>ArchSegII</i> (Zegamari lotua)
<i>Ferrando de Gorrochategui</i>	1454	<i>ArchAspar</i> (Zegamari lotua)
<i>Francisco de Gorrochategui</i>	1454	<i>ArchAspar</i> (Zegamari lotua)
<i>Martín de Gorrochategui</i>	1470	<i>ArchSegIII</i> (Zegamari lotua)
<i>Lope de Gorrochategui</i>	1470	<i>ArchSegIII</i> (Zeraini lotua)
<i>Martín Diaz de Gorrochategui</i>	1470	<i>ArchSegIII</i>
<i>Juan Sáez de Gorrochategui</i>	1470	<i>ArchSegIII</i>

Gorrotxategi aldaeraren lehen adibideak 1402koak dira, eta xv. mendeak aurrera egin ahala ugaritzen dira. Ohargarria da nola banaketa ia osagarrian dauden *Gorritxategi* eta *Gorrotxategi* deiturak: herri edo eskualde berean *Gorritxategi* desagertuz joan da *Gorrotxategi* aldaeraren mesedetan. Horrek bien arteko jatorri komunaren hipotesia indartu egiten du.

Bereziki interesgarria da, orobat, ikustea pertsona beraren izena bi aldaerarekin idatzia agertzen dela dokumentazioan: Seguran prokuradore den *Juan Saenz de Gorrochategui* (*ArchSegIII* 1479) beste bilduma batean *Juan Saez de Gorrichategui* (*ArchOñati* 1479) agertzen zaigu; cf. halaber *Iohan Sánchez de Gorrichategui* (*ArchLegazp* 1493), «escribano» gisa ageri dena. Hauek ere, bistan denez, aldieron jatorri beraren aldeko datuak dira.

Azkenik, Mitxelena iradokitzen duen aukeraren aurkakotzat har daiteke *Gurruixategi* aldaeraren bakantasuna eta berantiartasuna: corpuseko adibide bakarra xvi. mendekoa da, *Pero Sanches Gurruchategui* (*ArchSegIII* 1513).

3.2. Gorri dago Gorritxategi/Gorrotxategi deituraren oinarrian

Asimilazio soil batez azaldu daiteke *Gorritxategi* > *Gorrotxategi* aldaketa. Aldaketa hau, gainera, segmentu segida bera duen beste izen batean ere ikus daiteke: konpara bitez Eiheralarreko *S. Baygorritegui* (*PobNav* 1366) eta Ciérvidek (1970: 346) Artaxoan 1969an jasotako *Baigorrotegi*. Hemen, ageri denez, *-gorritegi-* > *-gorrotegi-* aldaketa dugu, aztergai dugun deituran *gorritxa-* > *gorrotxa-* dugun bezalaxe.

Datu eta azalpen horien argitara, eta *Gorritxategi*-ren lehen tasun kronologiko zein etimologikoa ezarrita, izen honen osaera argitzea geratzen da. Sinplea da pentsatzea *-tegi* gehitu zitzaizola *gorritx(a)-*ri, jatorriz izengoiti izango zen deiturari. Maiz dugu *-tegi* izen berezi bati lotua: itxura guztien arabera, *Apalategui*, *Baltzategi*, *Izu-*

rategi eta halakoak ‘Apala izenekoaren tegia’, ‘Baltza izenekoaren tegia’, ‘Izurra deituaren tegia’ ulertu behar dira; horietan, *Apala* (< *apal* + *-a*), *Baltza* (*baltz* + *-a*) eta *Izurra* (*izur* + *-a*) goitizena ditugu, adjektiboari artikulua gehituz sorturiko goitizena, gerora deitura bilakatuak. Izen berezi izate horretan, argia da *Sancholopestegui* (*ArchOñatI* 1470), zeina ‘Sancho Lopezen tegia’ izango zen jatorrian.

Halakoen argitara, bi aukera daude, gutxienez, *Gorritxa*- azaltzeko: pentsa daiteke *gorritx* dugula, *-a* artikuluekin. Honen eragozpena da *Gorritxa* deitura, goitizena gisa edo bestela, ez dagoela dokumentatua darabilgun corpusean; bai dago dokumentatua, ordea, *gorritx* soila, cf. *Eneco Gorrich* (*PeajNav* 1362) eta *Pero Miguel Gorrich* (*ArchPampII* 1364).⁶ Arazo hau, nolahi ere, dokumentala soilik izan daiteke, *Gorritxa* moduko deitura bat erabat hizkuntzaren arauen eta izenak sortzeko ohituren araberakoa bailitzateke.

Bestela, ongi dokumentatua dago *Gorritxo* deitura: *Pedro Peres Gorricho* (*ArchSalvatI* 1321), *Johan Miguell Gorricho* (*ArchToll* 1349), *Luys de Amescosa*, *Gorricho* (*ArchTafIII* 1494), etab. Honen bidetik, agian ez da ezinezko pentsatzea *Gorritxo* + *tegi* ‘Gorritxo izenekoaren tegia’ izan zela jatorrian *Gorritxategi*, eta eratorpenean gertatu dela *gorritxo* > *gorritxa*-, nahiz eta hau normalean bi silabako oinarriekin gertatzen den, cf. *basolbasa*-, *osolosa*-, etab. (*FHV*, 126). Ez dago argi, bestalde, zenbateraino den esanguratsua eztabaida honetarako Oñatiko *Gorrichotegui*, 1762koa baita adibidea (Ugarte & Zumalde 1976: 105; *Gorritxitxi* da gaur).

4. Irulegiko Eskua eta euskararen bidez egin diren interpretazioak

Harrabots handia piztu zuen *Irulegiko Eskua* deiturikoaren aurkikuntzak, 2022ko azaroaren 14an aurkeztu zenean. Bertako idatziak euskararen bidez interpretatu nahia-
ren arrazoi nagusia testuaren lehen lerroan dagoen **sorioneku** (edo **sorioneke**) da, ez bairik gabe. Berehala egin ziren erkaketak, gizartean arin zabalduak, euskara modernoko *zorioneko* postposizio sintagmarekin, itxurazko antzekotasunean oinarrituta.

Badirudi mundu akademikoan ere *zori* eta *on* euskal hitzetan oinarrituriko interpretazioak onespina jaso zuela zenbaiten aldetik, aurkikuntza ondoko lehen hilabeteetan behintzat. Horren lekuko da Aranzadik Juantxo Agirre-Mauleonen ardura-pean argitaraturiko *Irulegi* izenburuko liburua, zeinetan Joaquín Gorrochategui eta Javier Velaza agertzen diren testuen egileen artean. Liburu horretan (Agirre-Mauleon 2022: 67),⁷ nahiko ziurtzat jotzen da euskarazko hitz horien bidezko interpretazioa, esaten baitzaigu «aurkitutako lekuagatik —baskoien lurraldearen bihotzean— ez baltz, [**sorioneku**] ausazko kointzidentzia formaltzat hartzea legoke»; bukaerako **-eku** horren interpretazioaz orduan ere zalantzak agertzen dituzte egileek. Horretaz gain, «Irulegiko eskua ziur aski baskoien hizkuntzan idatzitako lehenengo dokumentua d[el]a» esaten zaigu, eta jarraian «euskararen protohistoria finkatzeko» Irulegiko Eskuko testuak dukeen garrantzia nabarmentzen da (Agirre-Mauleon 2022: 78).

2022ko azaroan, Conde-Egiak ondutako erreportaje batean, Gorrochateguiaren ahotan jartzen da ondoko hau: «Gai gara **sorioneku** den lehen hitza ulertzeko, baina

⁶ Lehenago, leku-izen batean, cf. *Iragorrich* eta *Irogorrich* (*ColRonces* 1284).

⁷ 2022ko abuztu-irailetan idatzia bide da testua.

oraindik ezin ditugu beste gustiak [sic] dezifratu»;⁸ interpretazio arazoak gorabehera, erreportaje laguntzen duen bideoan, baskoien hizkuntzat jotzen du Gorrochateguik Irulegiko Eskukoa.⁹ Erreportaje berean, «[z]alantzarik gabe baskoieraz idatzitako lehen dokumentua da» dira Velazaren hitzak.¹⁰ Orobatsu, UNEDek 2023ko otsailan antolaturiko hitzaldi batean, Velazak izendatuki dio (2023: 1:14:00-tik aurrera) testuaren lehen lerroa ulertu egiten dela, ustezko atzizkia gorabehera, ondoko lerroek ilunak izaten segitzen badute ere. Hitzaldi horretan (48:05), «epigrafía ibérica»-ren, «epigrafía celtibérica»-ren eta «epigrafía lusitana»-ren agerrera eremuak irudikatzen dituen Iberiar penintsularen mapa batean, «epigrafía vascónica» gehitu du eremu gisa Velazak;¹¹ garrantzitsua da nabarmentzea hizkuntza jakinei lotuta aurkezten direla epigrafía-eremu horiek.

Hastapeneko iritzi sorta honetan, argi dago *baskoiera* terminoa euskararekin lotuta darabilte bi autoreok: hizkuntza honen bitartez «ulertzen» dute **sorioneku**.

Idea bertsuak dakartza Velazak UNEDekoa baino hamar egun lehenago Donostiako San Telmo museoan antolaturiko hitzaldi batean (Aiestaran, Velaza & Gorrochategui 2023: 47:15). Hitzaldi honetan berean, Gorrochateguik euskal interpretazioaren bidea hipotesi gisa aurkezten du: ezagunak diren beste material epigrafikoek ezartzen duten testuinguruak egiten du zilegi aukera hau (1:00:35). Alabaina, hipotesi soiltzat du, ororen buru, eta testuaren interpretazio arazoak zerrendatzen ditu. Badirudi 2022ko liburuko iritzia leundu egin duela, edo orduko formulazioa doituta hastapeneko baieztapenetatik aldendu dela, eta baldintzarekin aurkezten ditu interpretazio aukerak: esaterako, testuan aditz bat bilatu beharrean suertatzen denean (1:29:15), **eráukon** baizik ez du ikusten aukera gisa, betiere euskal hipotesiaren bidetik, baina «baldin eta **eráukon** aditza bada...» formulatuta. 2023ko apirilaren 18ko hitzaldi batean, berriz, **sori** segidan pertsona-izenen bat egon daitekeelako aukera aurkezten du Gorrochateguik (2023: 1:00:40). Bistan denez, Irulegiko Eskukoa «testu baskoitzat» —hots, euskarazkotzat, **sorioneku** «ulertzen» zuen neurrian— jotzen zuen hastapeneko irititik urrunarazten du aukera honek. Hitzaldi honen izenburuan berean «vascónico» izendapena ere saihesten du Gorrochateguik.

5. *Lekuine, eskuin, aitona eta zorion, osaeraz kideak*

Atal honetakoez helburu dute zenbait oinarri ezartzea Irulegiko Eskuko testuaren euskal interpretazioaren hipotesirako, haren ebaluazio fonetikoa muga zehatzen barrenean egin ahal izateko. Horretarako, aski gauza oinarritzkoa eskaintzen dute ondoko azpi-atalek, *on* adjektiboarekin lexikalizatuta bide dauden *Lekuine*, *eskuin* eta

⁸ Gaztelaniazko bertsioak honela dakar: «Somos capaces de entender la primera palabra que es **sorioneku** pero aún no podemos descifrar las siguientes».

⁹ Honela dio: «nos lleva [Irulegiko Eskuak] al mundo anterior a los romanos; es verdad que el texto procede precisamente del choque entre los romanos y la sociedad indígena de los vascones de ese momento, pero lleva a su lengua, a su escritura y a su mundo».

¹⁰ Gaztelaniazko bertsioak honela dakar: «Primer documento escrito indudablemente en lengua vascónica».

¹¹ Zuhurragoa da «Escrituras nororientales no identificadas» izendapena, Ferrer y Janérena (2020: 971), epigrafeak euskararekin edo haren ahaide datekeen hizkuntza baskonikoren batekin ezin lot daitezkeen artean.

aitona hitzen bilakaera fonetiko ahalik eta xeheena, *zorion*-ena ere nolakoa izan zitekeen ondorioztatzeko eta erabakitzeko Antzinateko **sorion** baten ahaidetzat jo daitekeen.

5.1. Lapurdiko *Lekuine* ‘leku on’

Toki-izenak ere izan daitezke lagungarri hizkuntzaren barrenean erregular antzeoak diren bilakaerak identifikatzeko, artikululu honen sarreran aipaturiko adibideak gorabehera. Horrexetarako erabil dezakegu *Lekuine*, zeinak *eskuin* hitz arruntaren bilakaera bertsua izan duen.

Gavelek (1921: 72) adierazi bezala, *leku* + *on* dago *Lekuine* izenaren oinarrian, eta epentesian du jatorria bukaerako *-e* bokalak, leku-kasuetan erabiltzen baitira leku-izenak maizenik, *Lekuon-e-ko*, *Lekuon-e-ra*, etab. Hitzaren osagaiak horiek direla herriaren izenaren erdal ordainak ziurtatzen du, *Bonloc* baita. Erdi Aroan, nire corpusean erdal izenaren lekukotasunak baizik ez ditut aurkitu: *Bono loco* (*LivOr* 1194), *Bonloc* (*ColRonces* 1270), *Bonoloco* (*DinChampIII* 1273), *Bonus locus* (*ColRonces* 1287), etab. *EOD*Ak dakartzan adibideen artean, 1835ekoa da *Lekhuine*-ren lehen adibidea.

Émile Ernaultek helarazitako azalpena jasotzen du Gavelek (1921: 72, 1. oin-oharra), zeinaren arabera *-uo-* > *-ui-* aldaketa bokalikoa gertatua den *Lekhuine* izenean: xehekiago, balizko aldaketa horretan *uo* > *uu* > *uü* > *ui* bilakaera bokalikoa dugula esaten digute, *au* > *aü* > *ai* bilakaeraren parekoa berau (*gauza* > *gaiza*, etab.). Mitxelenak (*FHV*, 66), berriz, *leku-on(e)* > **lekuen(e)* edo, Gavelen azalpena onartuz, *leku-on(e)* > **lekuune* proposatzen ditu, hots, *-uo-* > *-ue-* > *-ui-* edo *-uo-* > *-uu-* > *-ui-* gisako bilakaerak bide zituen gogoan.

Artikulu honek beste aukera bat lantzen du *-i-* hori azaltzeko. Haren azken buruko jatorria *-e-* epentetikoa izan daiteke, honelatsu: **Lekuone(ko)* > **Lekuõẽ(ko)* > **Lekuõĩ(ko)* > **Lekuĩ(ko)* > **Lekuin(ko)*, eta gaurko *Lekuine* azaltzeko badirudi berriz ere berranalizatu dela *-e-* epentetikoa izenaren parte moduan. Nabarmentzekoa da, bestalde, toki-izen honek laguntzen duela aldaketok marko kronologiko jakin batean kokatzen, edo, besterik ez bada, haientzat *post quem* erlatibo bat ezartzen: badirudi herria bera Erdi Aroan sorturikoa dela, eta haren izenak ere ezin du izan jatorri proto-erromantzeko *leku* hitza mailegatu baino lehenagokoa. Erdi Arotik honakoak behar dute hemen deskribaturiko aldaketa fonetikoek.

5.2. *Eskuin* ‘esku on’

Lekuine toki-izenari emaniko deribazio fonetiko edo abiapuntu bertsua hobesten du azpiatal honek *eskuin*-en aldaeretarako. Aspaldidanikoa da hitz honen osieran *esku* dagoelako ideia (Astarloa 1803: 79; van Eys 1873: s.v. *esku*; Schuchardt 1912: 274), baina iluntzat jo izan da bukaera: halaxe dio van Eysék eta hala dakar Traskék ere (2008: s.v. *eskuin*). Dirudienez, Gavel (1921: 72, 1. oin-oharra) izan zen lehena *on* egon zitekeelako ideia biltzen.

Antzeko adjektiboak ditugu beste hizkuntza batzuetan ere: bretoierazko *dorn mot* ‘esku on’, ‘eskuin esku’ dakar gogora Gavelek berak, Émile Ernaultek jakinarazi ziona. Ménarden hiztegiak *dorn mat* du jaso (DEVRI s.v. *dorn* ‘esku’, *mat* ‘on’). Indoeuropar familia aztergai duela Buckek (s.v. *right*, § 12.41) dioen bezala, «[m]any of

[the words] for ‘right’ belong to an inherited group pointing to an IE word for ‘right with reference to the hand». Familia honetan, ‘on’, ‘zuzen’ eta ‘indartsuago’ adierazten duten hitzak ere egon daitezke ‘eskuin’ esanahia duten hitzen oinarrian: letonieraz, esaterako, *labs* ‘eskuin’ dugu, zeina jatorrian ‘on’ den (adiera honek gaur egun ere irauten du), eta goi alemaniera ertaineko *diu bezzer hant* ‘esku hobia (= eskuina)’ moduko sintagmak ere aipatzen ditu Buckek. Esanguratsua da ikustea, orobat, nola dauden leku-kasuetan jokatuak Ernout-Meilleten hiztegiak dakartzan unbrierazko adibideak, *destru-co* ‘eskuineko’ eta *destram-e* ‘eskuinean’.

Hauek dira euskal hitzaren aldaera nagusiak, artikulu honetan azalpen etimologiko zehatza izango dutenak: *eskuin*, *esku*, *eskubi*, *eskun* eta *eskue* (§ 5.2.2), *eskume* eta *eskuma* (§ 5.2.3) eta *eskoi*, *eskoï*, *eskoin* eta *eskoa* (§ 5.2.4). Atal honen helburuetarako ez baita ezinbesteko —azalpen formal soila du xede, ez tarteko aitzinforma dialektalen xehakapena—, ez ditut banan-banan aipatuko aldaera hauen xehetasun historiko eta dialektal guztiak, egoki ikusten dudanean baizik. Informazio horietarako, *OEHRa* edo *EHHARa* jo dezake irakurleak.

5.2.1. Deribazio fonetiko klasikoa: *Gavel* eta *Mitxelena*

Dokumentaturiko formak azaltzeko, **esku-on-e* batetik abiatzen da *Mitxelena* (*FHV*, 149). Bukerako *-e* hori, ageri denez, *atze* eta *aurre* moduko hitzetan dagoen bera da, *-e-* epentetiko berranalizatua: *eskuon-e-tik* → **eskuone-tik* berranalisia gertatu zen, oso ohikoak baitziratekeen leku-kasuetan jokaturiko **eskuonetik* ‘esku onetik, eskuinetik’ edo **eskuonera* ‘esku onera, eskuinera’ moduko postposizio sintagmak, nozio espazialak adieraziko zituztenak (gogoan har unbrierazko adibideak).

Gainera, tarteko bi forma behar ditu, **eskone* eta **eskune*, *-uo-* bokal segidaren soiltze ezberdin banarekin: **eskone* horren ondorengotzat ditu *eskoa* eta *eskoi* (< **eskoe*), tarteko **eskune* aitzinformarenak, berriz, *eskuma*, *esku*, *eskuin*, *eskoin*, *eskoï*¹² eta zubererazko *eskuïn*, eta baita Izabako *eskúa* eta Uztarrozeko *eskúa* mugatuak ere.

Hori esanik ere, partez behintzat onartu egiten du *Mitxelenak* *Gavelen* ustea, esaten duenean bigarren taldeko horietako zenbait **eskuine* formatik etor daitezkeela; badirudi, beraz, *-uo-* > *-uu-* > *-uü-* > *-ui-* aldaketa bokalikoa egokitzen duela. Ondoko azpiatalek banan-banan azaltzen dute aldaera guztien deribazio fonetikoa. Nire ustez, deribazio horiek erakusten dute ez dela beharrezko Gavelek eta *Mitxelenak* onetsitako *-uo-* > *-ui-* aldaketa, *eskuin*-en aldaerotan *-e-* epentetikoa baita *-i-* horren azken buruko jatorri segmentala.

5.2.2. *Eskuin*, *esku*, *eskubi*, *eskun* eta *eskue*

Forma hauek azaltzeko, eta **eskuone* forma abiaburu moduan hartuta, sudurkariaren galera proposatu behar dugu lehenik, **eskuone* > **eskuoë*, sudurkaritasuna ondoko bokaletan arrasto moduan geratzen dela onartuz (*FHV*, 87-88). Ondoren,

¹² Ez da oso ongi ulertzen zergatik biltzen dituen *Mitxelenak* *eskoï* eta *eskoin* hauen artean; haien bokalismoa hobeki sailkatzen da *eskoi*-rekin batera. Badirudi formari bainoago aldaeron banaketa dialektalari begiratu ziola, erdi-ekialdekoak baitira, eta autore zenbaitek, Etxeparek esaterako, bitakoak darabiltzanez, *eskuin* eta *eskoin*, beharbada batera eman nahi izan zituelako.

**eskuōē* > **eskuōī* dugu, bokalen disimilazio ezagunarekin (cf. *erraldoe* > *erraldoi*, *saroe* > *saroi*; ikusi *FHV*, 121, 147), eta, azkenik, *-uo-* bokal segidaren soiltzearekin eta sudurkaritasunaren galerarekin **eskuōī* > *eskui*. Sudurkaritasuna berriz segmentalizatuturik, **eskuōī* > **eskuī* > *eskuin* dugu (cf. *zai* - *zain*, *lukainka* - *lukaika*, etab.; *FHV*, 304). *Eskubi* aldaera ere hauen artean kokatu behar dugu, *eskui* > *eskubi* proposatuz: *-u-* bokal ezpainenetakoak eragin du kontsonante ezpainkaria sortzea.

Antzeko deribazioa izan genezake Mitxelena-ren **eskune* formatik abiatuta: **eskune* > **eskuē* > **eskuī* > *eskui* (eta *eskubi*) / *eskuin*. Aurreko paragrafoko aukeraren eta honen artean dagoen alde bakarra da noiz proposatzen dugun gertatu dela *-uo-* > *-u-* soiltzea. Nire ustez, soiltze horren kronologia zenbat eta geroago kokatu, orduan eta errazago azaltzen da zenbait eremu dialektaletan bitako emaitzak izatea, *-o-* zein *-u-* duten aldaerak agertzea (cf. Etxepareren *eskuin*/*eskoin*, edota mendebaldean *eskoi* zein *eskuma* aldaerak aurkitzea), eta baita elkar ukitzen ez duten eremu dialektaletan ere emaitza bokaliko bera izatea, mendebaldeko *eskoi*-k, erdi-ekialdeko *eskoin*-ek eta erronkarietarako *eskoī*-k erakutsi lezaketen bezala (*EHHA*, § 2179; *OEH* s.v. *eskuin*). Onartzen badugu **eskune* eta **eskone* aitzinformak hasieran banatu zirela oinarritzko **eskuone* hartatik, zailagoa da gorabehera dialektal horiek azaltzea. Forma eta aitzinforma hauen dialektologia historikoa —hots, *stemma* dialektotimologikoa— egiteko geratzen da.

Bestalde, badirudi despalatalizazioz azal litekeela batik bat iparraldeko autoreengan aurkitzen den *eskun* aldaera: *eskuñ* > *eskun*. Beste aldaera guztien argitara, zailagoa da irudikatzea *-e-* epentetikorik gabeko *eskuon* baten ondorengoa dela, hots, *eskuon* > **eskuun* > *eskun* gertatu dela.

Irazustak (1688-1772) bakarrik darabil *eskue* aldaera. Honetan ere, **eskuone*-tik abiatuta, **eskuōē* > **eskuīē* / **eskuue* > *eskue* soil batekin aski genuke, edo, Mitxelena-ren **eskune* aitzinformatik, **eskune* > **eskuē* > *eskue*, bokalarteko sudurkariaren galerarekin, besterik gabe. Bokalismoari dagokionez, berdinak dira Oñatiko Eskuizkribuko *sermue*, *panparrue*, *patrue* (*FHV*, 147), guztiak ere *-one* bukaera dutenak jatorrian.

5.2.3. Eskume eta eskuma

Mendebaldeko aldaerotan sudurkari biezpainkaria nola sortu den azaltzeko, *kuna* > *kuma* ‘sehaska’ edo *Luno* > *Lumo* modukoak ekarri behar dira gogora, eremu dialektal horretan berean aurki daitezkeenak. Hauetan, Mitxelena dioenez (*FHV*, 304, eta 9. oin-oharra), berriro segmentalizatu zen sudurkaritasuna, bokalarteko /n/ galdu ondotik bokaletan tasun suprasegmental gisa iraun zuena, baina /u/ bokala ezpainenetakoak denez sudurkari biezpainkari gisa berrezarria, honelatsu: *kuna* > **kūā* > *kuma*. Beste aukera bat da ahoskagunearen asimilazioz azaltzea, onartuz /u/ bokal ezpainenetakoak eragin duela /n/ ere ezpainkaritzea, cf. *kuna* > *kuma*.

Antzekoa gertatu bide da, beraz, *eskuma*-ren kasuan ere: **eskuone* > **eskuōē* > **eskuīē* > *eskume*; errata ez bada, Artzadunen (1675-1741) dotrinan aurki daiteke *eskume* aldaera hau, *eskuma* ugariagoaren adibideen artean. Bukaeran *-a* orokortu duen *eskuma* hau, berriz, *andre* → *andra*, *lore* → *lora*, *agure* → *agura* eta halakoekin sailkatu behar da; analogiaren indarraren bidez azaldu ohi dira hauek, forma mugatuetan *-a* + *-a* = *-ea* (mugag. *aldapa* / mug. *aldapea*) duten hitzen paradigmatara eramanez.

baitira jatorrian *-e + -a = -ea* (mugag. *lore* / mug. *lorea*) dutenen forma mugagabeak ere (FHV, 128; Hualde 2006: 455). Gorago egin bezala, Mitxelenaren **eskune*-tik ere abia gintezke, **eskune > *eskũē > eskume → eskuma*, edo, ezpainkaritasunaren asimilazio hutsez **eskune > eskume → eskuma*.

5.2.4. Eskoi, eskoī, eskoin eta eskoa

Erabat kideak dira aldaera hauetako bilakaera eta gorago *eskuin/eskui* taldearentzat proposatutakoa, eta *-uo-* segidaren soiltzean datza alde bakarra: **eskuone > *eskuōē > *eskuōī > eskoī* moduko zerbaitetan pentsa daiteke erronkarierazko aldaera sudurkariduna azaltzeko; Etxepare eta besteren *eskoin* aldaeran sudurkaritasuna berriro segmentalizatu da eta *eskoi* aldaeran galdu, besterik gabe. Berriz ere, Mitxelenaren **eskone* tarteko aitzinformatik ere antzeko bilakaerak izan genitzake: **eskone > *eskōē > eskoī > eskoin/eskoi*.

Arestian aipaturiko bilakabide morfologikoaren beste adibide bat da mendebaldeko *eskoa* aldaera zaharra: *-a* berezkoa duten hitzen paradigmara eraman da tarteko **eskoe* forma, *eskoe → eskoa* (ikus goian *eskume → eskuma*). Aldaketa analogiko honetan forma mugatuek berebiziko garrantzia izan dute, eta esanguratsua da, alde honetatik, Mikoletaren *eskoea* 'eskuina'.

Azken ohar moduan, aipa liteke agian ez dela erabat baztertzekoa 4.2.2 atalean aztertutako *eskui(n)* aldaeren adibide batzuk hemengo *eskoi(n)* formatatik abiatuta azaltzeko aukera, *eskoi(n) > eskui(n)* bokalen asimilazio soilarekin (cf. *-doi > -dui*); dena den, ohartzekoa da jatorrian bokal segida berdina hiatoan zuten beste hitz batzuetan ez dela *-oe > -ui* gertatu, cf. *erraldoi* eta *saroi*.

5.4. Aitua, aitue, aitube 'aita ona'

Aurreko ataletan aztertutako *Lekuine* eta *eskuin* hitzetan bezala, *on* adjektiboa bide dugu lexikalizatua *aitona* izenean ere (EHHE s.v.). Antzekoak ditugu beste hizkuntza batzuetan, cf. errumanierazko *bunic*, *bunica* 'aitona, amona', *bun* 'on' adjektiboaren eratorriak (Buck s.v. *grandfather*, *grandmother*, §§ 2.46-2.47) eta frantseseko *bonne-maman* 'amona', *bon-papa* 'aitona'.¹³ Beraz, osaera etimologikoz *aita + on + -a* baldin bada, artikulua barne hartuta lexikalizatu da, ziur asko erreferente bakarreko entitateek izen berezi gisa jokatzeko duten joeragatik; berez dira definitu izen bereziak eta erreferente bakarreko izenak.

Hitz hau mendebaldean eta erdialdean aurki daiteke, beste forma batzuekin batera (cf. *aitaita*, *aitajaun*, haien aldaerekin); ekialdean *aitatxi*, *aitañi* ditugu, besteren artean (EHHA s.v. *aitona*, § 2505). Interesgarria da mendebaldeko zenbait hizkeratako *aitoa* aldaera, bokalarteko sudurkariaren galerarekin, erabat lexikalizatutako *aitona* batetik baizik ezin azal daitekeena. Forma horretatik, *aitua > aitue > aitube* bilakaerarekin azal daitezke aldaerak (FHV, 149); azken urratserako, cf. *eskubi*, baina ez da ahaztekoa jadanik Mikoletak *aita obe* dakarrela, zeinak beste azalpen etimologiko bat izan lezakeen, berrinterpretaturiko forma ez bada.

¹³ Céline Mounoleri eskertzen diot frantseseko hauek gogorarazi izana.

Lexikalizaturiko izen honetan, ez dugu *eskuin*-en eta *Lekuine*-n genuen *-e*- epentetikorik, eta honen arrazoia sinplea da: hitz horiek leku-kasuetan erabiltzen dira batik bat, eta *aitona*, berriz, pertsona bat izendatzen baitu, artikulu definituarekin lexikalizatuko zen, maiztasun handiagoarekin erabiliko zelako absolutiboan edo ergatiboan, eta, batez ere, bokatiboan. Alabaina, haietan deskribatua dugun bokalarteko sudurkariaren galera badugu. Kronologiari dagokionez, hitz honen aldaerei dagozkion gertakari fonetikoek ere Erdi Arotik honakoak behar dute, euskaraz artikulua sortu ondutikoak.

6. Eskuinak ez dakar zorionik, Eskuak ere ez

Hizkuntzalaritza historikoaren printzipio oinarrizkoetako bat da itxurazko antzekotasun hutsak ez duela erabakitzen bi unitate linguistikok jatorri bera izatea. Hizkuntzen konparazioan erabili ohi da printzipio hori, haien lotura genetikoa zedarritzeko lanetan, eta berau irudikatzen adibide sorta polita bildu zuen Trasken (2015: 206) hawaiera modernoko eta antzinako grezierako hitzekin: konpara bitez, besteren artean, hawaierazko *aeto* ‘arrano’, *meli* ‘ezti’, *kia* ‘zutabe’ eta antzinako grezierako *aetos* ‘arrano’, *meli* ‘ezti’, *kion* ‘zutabe’, formaz zein esanahiz antzekoak.

Alabaina, antzekotasun horiek ez dira bi hizkuntzen lotura genetiko baten frogagarri —datu horiekin ezin hizkuntzalarik ez du ondorioztatzen gaurko hawaiera eta greziera zaharra ahaide direnik— ez eta mailegaketa gertakariaren erakusgarri ere: halaber hutsaren ondorio izan dira berdintasun azaleko horiek. Metodo konparatiboan, ezaguna denez, sakonagoko patroi fonetikoak dira beharrezko, besteak beste, bi formaren arteko lotura genetikoa frogatzeko, korrespondentzia fonetikoak, alegia; beharrezkoa da forma horiek historia fonetiko koherente batez hornitzea (Campbell & Poser 2008: 172-176).

Euskal ikasketetan ere klasikoa da euskarazko *elkar* eta nederlandezko *elkaar* esanahikideen adibidea (Uhlenbeck 1927), bi hitzen konparaziotik ez baita ondorioztatzen hitz zein hizkuntza horien arteko harreman genetikorik. Analisi diakronikoan sakontzen badugu, nederlandezko forma hori *elkander* osoagoaren laburtzea da, zeinak *elk* ‘bakoitz’ (ing. *each*-en kognatua) eta *ander* ‘beste’ (ing. *other*-ena) dituen bi osagaiak (ingelesezko *each other*-en kide genetiko betea da, hortaz). Panorama horrek guztiak, bistan dena, gutxi du ikustekorik euskarazko *elkar*, *elgar*, *algar*... formen konstelazioarekin.

Lehen ikusian, lilura sor lezakete antzekoak edo berdinak diren segmentu-segidek, eusk. *elkar* - neder. *elkaar* bezalakoek. Analisi historiko sakonagoak erabakitzen du, ordea, jatorri komunezko harremanik dagoen ilusio horren atzean. Berdintsu aplikatu behar da printzipio hori hizkuntza bakarraren barranean ari garenean formak konparatzen, dokumentaturiko bi forma historikotan hitz beraren bi egoera diakroniko daudela irudiatu nahi dugunean.

6.1. Latinezko *saeta* eta gaztelaniazko *saeta* bi hitz dira

Adibide asmatu batekin irudika dezakegu hau. Jolas honek proposatzen duen errealtate ukronikoan, jo dezagun euskararen egoera dokumental antzekoan dagoela gaztelania, eta ia ez dagoela haren aztarna idatzi zaharrik, duela 2.000 urtekorik, hots, historia ezagunean hizkuntza *continuum* horrek *lingua latina* izena zuen garaiko

idatziak urriak direla. Jo dezagun, halaber, Iberiar penintsularen erdialdeko indusketa arkeologiko batean (gaurko Madril inguruko batean, adibidez), harri gainean aurkitu dela idatzirik testu bat, eta arkeologoek dioskutela duela 2.000 urte ingurukoa dela. Euskarri horretan, gainera, arkulari eta ezpatari, gudu bat dago irudikatua, eta testuan SAETA letra-segida irakur daiteke; testuaren hizkuntza zein den ez dago erabat ebatzia, baina badirudi gaztelaniaren aurrekariren batean egon daitekeela idatzia. Berehala zabaldu dira gizartean antzekotasun hutsean oinarrituriko interpretazioak: «Hara! Gaztelaniazko *saeta* ‘gezi’ dugu dokumentatuta duela 2.000 urte!». Eta, etzi baino lehen gaur, gurlari gezilarien gorazarrez sortuak dituzkete kondaira eta kantu epikoak errealitate alternatibo horretako bardo eta kultur eragileek.

Ukroniazko ariketa honek asmatuiko errealitate horretan, bada, halaber, hizkuntza honen bilakaera diakronikoaz arduratzen den ikastunik, eta ziurtasun zerbait erdietsia dute hizkuntza honetako herskariaren eboluzioaz: balizko errealitate honetako jakintsuok diotenez, gaurko gaztelaniazko bokalarreko herskari ahoskabeak herskari geminatuak edo herskari taldeak ziren hizkuntza horren aurreko egoeretan, eta gazt. *roto*, *gato* < aitzin-gazt. **rupto*, **catto* modukoak dituzte berreraikiak, zeintzuetan /t/ bokalarrekoa /pt/ edo /tt/ taldeetatik etor daitekeen. Ondorioztatua dute, orobat, antzinagoko herskari ahoskabe soil batetik etor daitezkeela bokalarreko herskari ahostun modernoak, eta gazt. *lado*, *vida* < aitzin-gazt. **lato*, **vita* moduko bilakaerak dituzte berreraikiak, aitzin-gaztelaniatik gaztelaniarako bidean bokalarreko herskari ahoskabeak erregularri ahostundu direla. Ezaguna dugun errealitatean bezalaxe, beraz. Ezagutza horretan oinarrituta, aurkikuntza arkeologikoko SAETA horren interpretazio zuhurrago baterako deia egin beharrean daude hizkuntzalari horiek: «Kontuz! Aitzin-gaztelaniazko **saeta* forma batek ***saeda* edo emango zukeen gaztelania modernoan; beraz, ez dirudi SAETA antzinako hori gaurko *saeta* ‘gezi’-ren aurrekari zuzena izan daitekeunik, antzekotasunak antzekotasun!». Are gehiago, ziurtasun handi xamarrez esan lezakete gaurko *saeta* ‘gezi’-ko /t/ hori jatorrizko /tt/ batetik edo etor daitekeela.¹⁴

Errealitate paralelo horretan are ertz gehiago ere imajina litezke, gauza jakina baita ezaguna dugun latinean bazela *saeta* ‘zurda, animalia-aren ile latz, zeta’ hitza, gaztelaniazko *седа* ‘zeta’-ren aurrekari zuzena, izan ere. Badirudi SAETA alegiazkoarekin konparatzeko hautagai hobea izan zitekeela hori. Xehetasun horietatik guztietatik, irakaspén garbi bat atera behar da: 2023ko latina (hots, gaztelania, eremu geografiko horretan) ezin da zuzenean konparatu duela 2.000 urteko latinarekin, 2023ko *saeta* ezin da zuzenean konparatu 2.000 urte lehenagoko *saeta*-rekin, biak hizkuntza *continuum* berekoak izanagatik. Izan ere, ezaguna dugun historiara begira jartzeko aukera dugun honetan, nabarmen ageri baita oso gauza ezberdinak direla latinezko *saeta* ‘zeta’ eta gaztelaniazko *saeta* ‘gezi’, esanahiz eta jatorriz. Itxuraz bakarra, bi izatez. Gaztelaniazko *седа* ‘zeta’ eta latinezko *saeta* ‘zeta’, berriz, bi dira itxuraz, bakarra izatez.¹⁵

¹⁴ Ezaguna denez, latinezko *sagitta* ‘gezi’ da gaztelania modernoko *saeta*-ren aitzindaria (DCECH 5, 124b, s.v. *saeta*).

¹⁵ Erraz aurki daitezke antzeko adibideak. Gaztelaniaz eta frantsesez, hots, latinen bi dialektotan —eta, beraz, hizkuntza beraren barranean—, etorki ezberdineko bi hitz ordezkatzén ditu *placer* segida grafikoak: gaztelaniazkoaren frantses kognatua *plaisir* da, eta frantsesezko *placer*-en nolabaiteko kide etimologiko formalak *emplazar* edo litzateke gaztelaniaz. Orobat frantsesezko *sol* ‘lur’ (< lat. *solum*) eta gaztelaniazko *sol* ‘eguzki’ (< lat. *sōl*), eta abar.

6.2. *Sorioneku* eta haren euskal interpretazioa: ebaluazio linguistikoa

Gaurko euskal errealiterata itzuliz, Irulegiko Eskuko testuko *sorion* edo *sorioneku* eta euskarazko *zori on* edo *zorioneko* zuzenean konparatzea, itxurazko antzekotasun gordinean oinarrituta, anekdota deigarri bat baizik ezin da izan, ikerketan sakontzeko pizgarria, beharbada, baina hortik aurrerakoan historia fonetiko batean behar da kokatu konparazio hori. Ekinbide horixe jorratu dute aurreko atalek, aztertuz *on* adjektiboa bere baitan erabat lexikalizatuta dituzten hiru hitz, *Lekuine*, *eskuin* eta *aitona*. Horren helburua izan da konparagarri fonetiko eta morfologiko zehatzak bilatzea, ez bakarrik segmentu segidei dagokienez, baizik hizkuntzan sakonagokoak diratekeen alderdiei begira: hitz horiek erabili dira agerrarazteko zein den *zorion*-en kide fonetiko eta morfologiko izan daitezkeen adjektibo-sintagma lexikalizatupei dagokien bilakaera fonetiko diakronikoa. Konparazio horretarako, ez dirudi arazo denik *esku* eta *leku* hitzen erroko bokala *-u* izatea, *aita*-rena *-a*, eta *zori*-rena, berriz, *-i* izatea.

Kide horien xehakapen diakronikotik eskuratu dugun informazioa estu hartzen badugu, duela 2.100 urteko euskarazko *zorioneko* batek ***zoroioko* historiko baterako bidea egina beharko zukeen, eta ez da hala. *Zorion* huts batean pentsatuko bagenu ere, geure buruari aitorturik ez dakigula zeri dagokion idazkuneko *-eku/-eke*, orobatsu genuke: *zorion* hori lexikalizatuta zegoela eta leku-kasuetan zein bestelakoetan (cf. *aitona*) flexionatuko zela uste dugun unetik beretik, espero izatekoak izan zitezkeen ***zorioi* moduko aldaerak ere. Gorago esan bezala, Erdi Arotik honakoak dirateke *Lekuine*-ren, *eskuin*-en eta *aitoa* moduko deribazio fonetikoari dagozkien bilakaerak, eta ez dirudi aldaketa horietatik aparte utz daitezkeenik 1.000 urte lehenago kokazioan —inork lexikalizatuta egoteari gehiegizko iritziko balio— zeudekeen bi hitz.

Egia da bestelako eszenatokiak ere har litezkeela kontuan eta, aitzin-euskaraz *zorion* edo *zorioneko* bazelako hipotesiari eutsi nahi badiogu, ez da erabat baztertzeo aukera *zori on* sintagma osoa etengabe birsortu izana, bilakaera fonetikoak zituzkeen forma lexikalizatuagoaren gainetik. Alabaina, bilakaera irregular horiek ere gerta litezkeela ahaztu gabe, hizkuntzalaritzaren ahalaren esku dauden joko-arauak ahalik eta hobekien mugatzea da lehenik egin beharreko lana, horien arabera ulertzen saiatzeko iristen zaizkigun datu berriak.

Horrenbestez, *Lekuine*-ren, *eskuin*-en eta *aitoa* moduko aldaeren bidez eraikitako fonetika historikoa gidari hartuta, esan daiteke *eskuin*-ek ez duela tarterrik uzten antzinako *zorion*-erako, eta, ziur asko, Eskuak ere ez dakarrela *zorion*-ik. Ez, behintzat, erkatzea zuzenean euskara historikoarekin egin nahi baldin bada. Besterik litzateke proposatzea Irulegiko Eskuko testua ez dagoela euskararen aitzindari zuzeneko batean idatzia, haren ahaide-edo litzatekeen hizkuntza baskoniko batean baizik.¹⁶ Lan-hipotesia hori bada, ordea, bururaino eramane behar da, eta *zori* eta *on* item lexikoe-kiko konparaketa ere hein berean behar da haztatu.

Auzi hau guztia errespetatu beharreko bi puntutan laburbiltzen da: batetik, konparagai gisa item lexiko edo adjektibo sintagma jakin batzuk hartzen badira, haiei dagozkien bilakaera fonetikoak ere hartu behar dira erkaketarako. Bestetik, duela 2.100 urteko testu bateko segida grafikoak euskarazko item lexikoekin konparatzen

¹⁶ Euskararekin zuzenean lotu gabe, halako aukerak aipatzen ditu Velazak (2023: 1º 16' 57''), «vascónico», «lengua vascónica», «lengua de los vascos» deiturak aterki hartuta.

badira, ez da zilegi esatea, aldi berean, testu hori euskarazkoa ez baizik beste zerbait dela («vascónico» edo bestelako izendapenak erabilia).¹⁷

Honi guztiari gaineratu behar zaio Irulegiko Eskuko testuaren beste zatiek ez dutela konparagarri garbirik euskarazko beste item lexiko batzuekin. Hots, ez dugu argudio gehigarririk pentsatzeko testua euskaraz edo hizkuntza baskonikoren batean dagoela, gure euskal begi modernoetarako deigarri den **sorioneku/sorioneke** horretatik harago. Azkenik, argudio linguistiko hauei filologiko-historikoa ere gehitu behar zaie: aski da *OEHN* begiratzea ikusteko *zori on* adjektibo sintagma ez dagoela testu zaharretan gaur ezagutzen dugun *zorion* bezain lexikalizatua, are gutxiago gaurko esanahi eta erabilerarekin, eta *ordu onean* edo *muga onean* moduko sintagma ez-lexikalizatuen kide betea dela *zori onean* ere testuen garai zaharretan. Ikusi *OEH* (s.v. *zorion*, *ordu onean* and *mugon*).

7. Irulegiko Eskutik Marteko Aurpegira: pareidolia linguistiko bat¹⁸

Irulegiko Eskuko testua euskarazkoa dela? Baskonikoa dela? Ez jakin. Ez behintzat **sorioneku/sorioneke** horretatik edo, hobeto esanda, zeinu-segida horretatik abiatuta hipotesi horren alde orain arte bildu izan diren argudioengatik. Argudio hobeen edo datu berrien faltan, psikologian deskribaturiko *pareidoliaren* fenomeno gogoratu besterik ezin dugu egin, hizkuntzaren alorrera ekartzeko: objektu berri edo ezezagunak eredu ezagunen arabera interpretatzeko edo osatzeko gure garunak duen joera izendatzeko erabiltzen da *pareidolia* terminoa. Irulegiko Eskutik hara, gogoangarria da Marteko Aurpegia delakoaren adibidea, hona dakarguna:




1. irudia

Marteko Aurpegia, *Viking 1* espazio-ontziak 1976an ateratako argazkian (jabetza publikoa)

¹⁷ Céline Mounoleri eskertu behar diot bigarren ohar hau eginik.

¹⁸ Aurretik hitzaldi batean aurkeztutakoak dira adibide eta gogoeta hauek (Manterola 2023). Lehenago, *Etimologiak Sarean* Twitter kontuan (@etimotxioak), 2022ko azaroaren 16ko eta 17ko sarretetan.

Zaila da, izan ere, arrokazko egitura horretan aurpegi bat ez ikustea: horretarako gaude «programatuta». Dagokigun auzira itzuliz, *pareidolia linguistikotzat*¹⁹ jo genezake Irulegiko **sorion(eku)** euskarazko *zorion(eko)*-ekin berdintzea. Gure euskal begi-gogoek ikusten ohituak daudena ikusi dute, besterik ez, beharbada euskal hitzekin zerikusirik batere ez duen zeinu segida batean. Arrisku honen lekuko, ikusi besterik ez dago nolako itxura duen Marteko Aurpegiak, argazki gehiago atera ahal izan dizkiotenean:



2. irudia

Marteko Aurpegia, *Mars Global Surveyor* espazio-ontziak 2001ean ateratako argazkian (jabetza publikoa)

Gogoragarri ona da bigarren irudi hau, ohartarazten baikaitu jauzi interpretati-
boak zuhurtziaz egin behar diren garrantziaz. Itxaropenerako zirrikitu bat ere uzten
du irekita, ordea: astronomoek argazki berri hobeak egin ahal izan dituzten bezala,
ezin esperantzarik galdu aurkikuntza arkeologiko edo dokumental gehiago ere izango
ditugula etorkizun hurbilean.

8. Azken hitza

Mugurutza, *Gorrotxategi* eta *Lekuine*, hirurak dira, jatorriz, toki-izenak, eta hiru-
rek eskaini dizkigute irakasgai politak toki-izenen gaineko etimologiagintzaren bere-
zitasunaz. Toki-izenetatik harago eraman gaitu Erdi Aroko *Lekuine*-k, *eskuin*-en kide
baita osaez zein bilakaera fonetikoz; *aitona* ere osaez berdintsua da, baina haiek ez
bezala ez zen leku-kasuetan flexionatuko. Hirurak dira, nolahi ere, adjektibo sin-
tagma lexikalizatuak, bigarren osagai moduan *on* dutela. *Zori on* ere osaez berekoa
baita, baina bi horien bilakaera fonetikorik gabea, artikulua honen ondorioa izan da

¹⁹ Fenomenoa hizkuntzazkoa denean *pareidolia* deitza izan zitekeen aukera bat, baina termino honi beste esanahi bat diote esleitua psikologian.

zori eta *on* item lexikoen kolokazioa ez zegokeela lexikalizatuta Erdi Aroan, are gutxiago Antzinatean, eta, beraz, *zorion* bera ezin dela konparatu, zuzenean behintzat, Irulegiko Eskuko **sorioneku**-rekin.

Erreferentziak

- Agirre-Mauleon, Juantxo (arg.). 2022. *Irulegi. Irulegiko eskua, K.a. 1. mendeko lekukotasun epigrafiko bat Aranguren ibarrean*. Donostia: Aranzadi.
- Aiestaran, Mattin, Javier Velaza & Joaquín Gorrochategui. 2023. La mano de Irulegi [hitzaldia, 2023-02-10]. *Aranzadiren XXI. Arkeologia Jardunaldiak. Irulegi, indusketa arkeologiko baten kronika*. Donostia: Aranzadi, San Telmo. <https://www.youtube.com/watch?v=x0QvMh8JNHU> (2023-07-31).
- Astarloa, Pablo Pedro. 1803. *Apología de la lengua bascongada, ó Ensayo crítico filosófico de su perfección y antigüedad sobre todas las que se conocen*. Madrid: Gerónimo Ortega.
- Aurrekoetxea, Gotzon & Xarles Videgain (zuz.). 2018, 2019. *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*, 9. eta 10. libk. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Azkue, Resurrección María de. 1923-1925. *Morfología Vasca. Euskera* 4-5-6 (Berrargit. Donostia: Sendoa & Euskaltzaindia, 1982).
- Basauri, Jon. 2022. *Soraluzeko leku-izen hautatuak*. Gasteiz: UPV/EHUko gradu amaierako lana.
- Belasko, Mikel. 1999. *Diccionario etimológico de los nombres de los pueblos, villas y ciudades de Navarra: apellidos navarros*. Iruñea: Pamiela.
- Belasko, Mikel. 2000. *Diccionario etimológico de los nombres de los montes y ríos de Navarra*. Iruñea: Pamiela.
- Buck, Carl Darling. 1949. *A dictionary of selected synonyms in the principal indo-european languages: a contribution to the history of ideas*. Chicago: University of Chicago Press.
- Campbell, Lyle & William Poser. 2008. *Language Classification: History and Method*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Ciérvide, Ricardo. 1970. El Romance Navarro Antiguo. *FLV* 6. 269-370.
- Conde-Egia, Eider. 2022. Artikulu tematikoa: *Idazketa eskuan* [dibulgazio artikulua, 2022-11-14]. Aranzadi Zientzia Elkarte. www.aranzadi.eus/eu/idazketa-eskuan (2023-08-06).
- Corominas, Joan & José Antonio Pascual. 1980-1991. *Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico*. Madrid: Gredos.
- DCECH* = Corominas & Pascual (1980-1991).
- DEVRI* = Ménard (2023).
- Durkin, Philip. 2009. *The Oxford guide to etymology*. Oxford: Oxford University Press.
- EHHA* = Aurrekoetxea & Videgain (2018, 2019).
- EHHE* = Lakarra, Manterola & Segurola (2019).
- Eleizalde, Luis de. 1933. Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas. *RIEV* 24(2). 283-303.
- EODA* = Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. *Euskal Onomastikaren Datutegia*. Bilbo: Euskaltzaindia. <https://www.euskaltzaindia.eus/hizkuntza-baliabideak/onomastika> (2023-08-06).
- Eys, Willem Jan van. 1873. *Dictionnaire basque-français*. Paris, Londres: Maisonneuve, Williams & Nordgate.

- Ferrer i Jané, Joan. 2020. Las escrituras epicóricas de la península ibérica. *Paleohispánica* 20. 969-1016.
- FEW = Wartburg *et al.* (1922-2002).
- FHV = Mitxelena (1977).
- Garate, Justo. 1972. Dos raíces geminadas en el vocablo «Guipúzcoa». *FLV* 1. 133-148.
- Gavel, Henri. 1921. Éléments de phonétique basque. *RIEV* 12(1). 1-536 (1. argit., Paris: Édouard Champion, 1920).
- González de Durana, Francisco Javier & Kosme Barañano. 1981. Relación toponímica general de Galdácano. *Kobie* 11. 469-496.
- Gorochategui, Joaquín. 2023. La mano de Irulegi, un singular epígrafe vascón del siglo I a.C. [hitzaldia, 2023-4-18]. *Begiradak Hitzaldi Zikloa*. Gasteiz: EHU. <https://ehutb.ehu.es/video/64412af3af19239c741221e3> (2023-08-06).
- Hualde, José Ignacio. 2006. Analogy and other types of non-phonetic change in Bizkaian Basque. *ASJU* 40(1-2). 449-469.
- Lakarra, Joseba, Julen Manterola & Iñaki Seguro. 2019. *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Lasa, Iratxe. 2005-2008. *Erandioko leku-izenak*. Erandio: Erandioko Udala. <https://www.toponimia.biz/erandio/?t=244&o=c&r=02&h=eu> (2023-07-31).
- Lasa, Iratxe. 2009. *Erandioko leku-izenak*. *Gure herriko hainbat leku-izenen bilakaera ulertzeko gida*. Erandio: Erandioko Udala.
- Manterola, Julen. 2015. *Euskal morfologia historikorako: artikulua eta erakusleak*. Gasteiz: UPV/EHUko doktorego tesia. <https://addi.ehu.es/handle/10810/15848>.
- Manterola, Julen. 2023. Euskararen historia: «hasieratik» XXI. mendera arte [hitzaldia, 2023-01-11]. Arrasate: ISEA Kooperatiba Elkarte.
- Martínez de Madina Salazar, Elena. 2010. *Gasteizko toponimia III. Gasteizko Ubarrundia (Onomasticon Vasconiae 29)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Martyrosian, Hrach. 2010. *Etymological Dictionary of the Armenian Inherited Lexicon*. Leiden: Brill.
- Ménard, Martial. 2023. *Le dictionnaire diachronique du breton*. Hervé Le Bihan & Divy Kervella (zuz.). Kuzul ar Brezhoneg. <http://devri.bzh/> (2023-07-31).
- Mitxelena, Koldo. 1973. *Apellidos vascos*. 3. argit. zuzendu eta zabaldua. Donostia: Txertoa.
- Mitxelena, Koldo. 1977. *Fonética histórica vasca*. 2. argit. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia (1. argit., 1961; berrargit. *ASJUren Gehigarriak* 4, 1990).
- Mitxelena, Koldo & Ibon Sarasola. 1987-2005. *Orotariko Euskal Hiztegia / Diccionario General Vasco*, 16 lib. Bilbo: Euskaltzaindia (11. argit. elektr. 2023: <http://www.euskaltzaindia.eus/oeh>).
- Morf = Azkue (1923-1925).
- OEH = Mitxelena & Sarasola (1987-2005).
- Ros, Ander. 1999-2005. *Galdakako toponimia*. Galdakaoko Udala. <https://www.galdakao.eus/Documentos/EuskerazBizi/GALDAKAKO%20TOPONIMIA.pdf> (2023-08-06).
- Salaberri, Patxi. 2004. *Nafarroa Behereko herrien izenak. Lekukotasunak eta etimologia*. Iruñea: Nafarroako Gobernu.
- Salaberri, Patxi. 2009. *Izen ttipiak euskaraz (Onomasticon Vasconiae 26)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Salaberri, Patxi. 2015. *Araba / Álava. Los nombres de nuestros pueblos*. Bilbo: Euskaltzaindia & Arabako Foru Aldundia.

- Salaberri, Patxi & Luis Mari Zaldúa. 2020. *Gipuzkoako herrien izenak. Lekukotasunak eta etimologia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Schuchardt, Hugo. 1912. Zur methodischen Erforschung der Sprachverwandtschaft (Nubisch und Baskisch). *RIEV* 6(3). 267-281.
- Trask, Robert Lawrence. 2008. *Etymological Dictionary of Basque*. Sussex: University of Sussex. Max W. Wheelerek sarean argitaratzekoko editatua. <http://www.sussex.ac.uk/english/documents/lxwp23-08-edb.pdf> (2023/08/06).
- Trask, Robert Lawrence. 2015. *Historical Linguistics, third edition*. Robert McColl Millarek editatua. Routledge: London & New York.
- Ugarte, Félix M.^a & Iñaki Zumalde. 1976. Oinatik toponimia edo leku-izenak. *Euskera* 21. 101-108.
- Uhlenbeck, Christianus Cornelius. 1927. Baskisch *elkar*. *Mededeelingen der Koninklijke Akademie van Wetenschappen. Afdeling Letterkunde* 63. 179-182.
- Velaza, Javier. 2023. La mano de Irulegi y la epigrafía vascona [hitzaldia, 2023-02-20]. Madril: UNED. <https://canal.uned.es/video/63f4910561d0d235712bff62> (2023-08-06).
- Wartburg, Walther von *et al.* 1922-2002. *Französisches Etymologisches Wörterbuch. Eine darstellung des galloromanischen sprachschatzes, 25 lib.* Bonn, Heidelberg, Leipzig-Berlin & Bäle: Klopp, Winter, Teubner & Zbinden.

**Akitaniera, Euskara Batu Zaharra
eta euskararen biziraupena.
Zer gertatu zen «mende ilunetan»?¹
*Aquitanian, Old Common Basque and the survival
of the Basque language:
What happened during the «dark ages»?***

Mikel Martínez Areta*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: Ever since Mitxelena (1981) proposed that all Basque dialects had their starting point in an *éuscaro* to be set in the 5th-6th centuries, many contributions have been made aiming at the reconstruction of its linguistic traits. In this paper, starting from Hualde's (2015: 131) well-known diagram, the external aspects of the problem will be discussed. By means of correlations between historical and linguistic elements, an attempt will be made to link Old Common Basque and Western Basque to historical processes. The relationship between Old Common Basque and Aquitanian will also be taken up.

KEYWORDS: Aquitanian; Old Common Basque; *rusticani*; Western Basque; necropolis of Aldaieta; Paleo-Christian Church of Dulantzi.

LABURPENA: *Mitxelenak (1981) euskalki guztiak abiapuntua v.-vi. mendeetan kokatu beharreko éuscaro batean zutela proposatu zuenetik, oparoa izan da EBZ honen ezaugarriak berreraiki-*

¹ Lan hau bi proiekturen babespean egin da: (1) *Monumenta Linguae Vasconum 6: avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca (MLV6)* [= PID2020-118445GB-I00], Blanca Urgellek zuzendua eta Espainiako Gobernuako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak babestua; eta (2) *Hizkuntzalaritza Diakronikoa, Tipologia eta Euskararen Historia* [= IT1534-22], Iván Igartuak zuzendua eta Eusko Jaurlaritzak babestua. Bihoazkie nire eskerrak Eduardo Orduñari, Joseba Abaituari eta Emilianara Ramosi ideia-trukaketagatik, eta Rubén Santosi mapak egiteagatik.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Mikel Martínez Areta. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila - Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitateen ibilbidea, 5 (01006 Gasteiz). – josemiguel.martinez@ehu.eus – <https://orcid.org/0000-0002-9935-0363>

Nola aipatu / How to cite: Martínez Areta, Mikel (2023). «Akitaniera, Euskara Batu Zaharra eta euskararen biziraupena. Zer gertatu zen «mende ilunetan»?», *ASJU*, 57 (1-2), 671-689. (<https://doi.org/10.1387/asju.25971>).

Jasoa/Received: 2022-09-17; Onartua/Accepted: 2022-12-16.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomerziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago

tzen jardun duten ekarpenak. Lan honetan, Hualderen (2015: 131) diagrama ezagunetik abiatuz, auzi honen kanpoko aspektuei ekingo zaie. Elementu historikoen eta linguistikoen korrelazioen bidez, EBZa eta Mendebaldeko Euskara prozesu historikoekiko loturak ezartzeko saio bat egingo da. EBZa eta akitanieraren arteko erlazioa ere eztabaidatuko da.

HITZ GAKOAK: akitaniera; EBZa; rusticani; Mendebaldeko Euskara; Aldaietako nekropolia; Dulantziko eliza paleokristaua.

1. Sarrera. Mitxelena (1981)-etik Hualde (2015)-era²

Mitxelenak 1981ean «Lengua común y dialectos vascos» idatzi arte, euskalaritzan ez zegoen ideia argirik euskalkiek ezinbestez amankomunean izan behar zuten proiektzioa zein izan zitekeen galdekizunari aurre egiteko. Onartzen zena Arturo Campiónengandik abiatzen zen planteamendu bat zen, zeinaren arabera euskalkiak Antzinatean jadanik eratuta zeuden, eta Ptolomeoren tribuei zegozkien: bizkaiera karistioen lurraldeari, gipuzkera varduloenari, goi-nafarrera baskoienari. Eskema honek bizirik dirau gaur egun zenbait historiagileren lanetan, eta oro har sakoneko pentsamoldea izan zen xx. mendeko euskalaritzan. Bestalde, Luchaire eta Sacazeren lanak euskalarien artean zabaldu zirenean, datu akitaniarren ezagutzak paradoxa bat ekarri zuen, inplikatzeko baitzuen euskara Antzinateko iturrien arabera indartsuen izan zen lurraldeetan iraungi zela, eta besteetan, aldiz, biziraun. Paradoxa honen kudeaketa eta interpretazioa izan da, hein batean, euskalaren kanpoko historiaren ikerketaren hari gidaria.


Mitxelenak (1981) argudiatu zuen euskalkiak beren artean antzekoegiak zirela hain zaharrak izateko. Haren arabera, v. eta vi. mendeetan, lehenik Erromatar Inperioaren eroraldiaren eta ondoren bisigodoen eta frankoen aurkako gatazken karietara, Pirinio mendebaldeko aldirietan aspaldiko harreman jentilizioen ahultze bat gauzatu eta ordena berri bat eratu zen, eremu linguistikoan dialekto paleo-euskaldun ezberdinen nolabaiteko *brassage* bat sustatu zuena. *Éuscaro* izendatu zuen aitzinhizkuntza hau euskalki guztien arbasoa litzateke. Lakarrak (2011: 165) adierazi duenez, narratiba honi garaietan pil-pilean zeuden Barbero eta Vigilen teoriaren kutsu nabarmena dario. Hala ere, gertakari historikoak bestelakoak izan zitezkeen arren, § 3-n ikusiko denez hurrengo hamarkadetako aurkikuntza arkeologikoei Mitxelenak EBZari esleituriko kronologiaren alde egiten dute.

Harez geroztik —bereziki 90eko hamarkadatik, Joseba Lakarraren gidaritzapean garaturiko hizkuntzalaritza historikoaren esparruan—,³ denok gaude ados EBZa mende ilunetan, 300. eta 900. urteen arteko aldiren batean, kokatu beharreko entitate linguistiko bat dela, zeinaren gainean euskalkien arteko erkaketaren edozein emaitza proiektatu behar dugun. Honek ahalbidetzen digu aniztasun dialektalaren dimentsioak koordinada kronologiko zentzuzkoetan ezartzea eta maileguen kronologiak eta zabalerak logikaz ulertzea. Argitu beharrekoa zera da: EBZa zehazki zer zen (adib. soziolinguistikoki), zein erakunde politiko edo erlijiozkorekin lot litekeen, zein zen haren erlazioa akitanierarekin, etab. Orain urte batzuk, neronek zalantza hauek

² Laburdurak: EBZ = Euskara Batu Zaharra; GI = Goi Inperioa; Goi Erdi Aroa = GEA; HG = Haute-Garonne; HP = Hautes-Pyrénées; LC = *Lugdunum Convenarum* (= egungo Saint-Bertrand-de-Comminges); ME1.estr. (2. mapan) = Mendebaldeko Euskalaren 1. estratua; PI = pertsona-izen.

³ Lakarrak (2011) hain zuzen eman zion *Euskara Batu Zaharra* izendapena Mitxelenaren *éuscaroari*.

gogoan bor-bor neuzkala, oso argigarria iruditu zitzaidan «Dialektologia dinamikoa» izenburuko lanean dagoen diagrama hau:



1. irudia

Akitanieraren bilakaera diakronikoa (Hualde 2015: 131)

Lan honetan, euskararen barneko historia albo batera utzi, eta azaldu gogo dut nola interpretatzen dudan nik 2. fasetik 3.erako igarotzea, gehi EBZetik Mendebaldeko Euskararako, kanpoko historiaren ikuspegitik. Helburua zera izango da: gaur dauzkagun erregistro orotako puzzlearen pieza guztiak —epigrafiko, linguistiko, arkeologiko, historiografikoak— uztartzen ahalegintzea. § 2 atalean, akitania eta EBZa zein euskara historikoaren arteko antzekotasunak nola azaldu eta zeren seinale diren hartuko dut hizpide. § 3 atalean, EBZa eta ME1.estr.a zein garaitakoak diratekeen eta zein gertakari historikorekin korrelaziona daitezkeen aztertuko dut, dagoeneko Abaitua, Martínez Areta & Ramos (2022)-n aurkezturiko hipotesi bat sintetizatuz. § 4 atala Abaitua, Martínez Areta & Ramos (2022)-ren nolabaiteko «prekuela» bat da, bertan EBZaren hiztunak nondik zetozkeen galdekizunari heltzen baitiot. Azken atalean, euskararen biziraupenaren auzia «berbisitatu» egingo dut, akitania eta EBZaren arteko proposaturiko erlazioaren argitan.

2. Euskararen eta akitanieraren arteko antzekotasunak nola interpretatu

Hualderen (2015) diagraman euskalari guztioi senak iradokitzen diguna irudikatzen da, alegia akitania *convenoa*⁴ eta euskara historikoaren arteko lotura zuzen bat. Antzekotasunak ezagunak dira. Zenbait aipatzearen:

⁴ *Conveno* terminoaren zentzu zabala erabiliko dut lan honetan. Izan ere, tarteka inguruko *civitate*-tako beste PI bakan batzuk ere muga hauen barnean sartuko ditut. Uste dut hau erraztasunaren mesedetan egitea justifikatuta dagoela bi arrazoiengatik: (1) oro har *Convenae* akitaniar lekukoaren erdigune geografikoa da, eta (2) § 5 atalean ikusiko den bezalako arrazoirik pentsatzeko Behe Inperioan euskararen eremua lurralde *convenora* mugatuz joan zela.

- (i) *Andere*, *Cison*, *Sembe-*, *Seni-* bezalako apelatiboak zeharo ezagun suertatzen zaizkio gaur egungo edozein euskalduni.⁵ Antzeko taxuko antroponimo eta teonimoak Nafarroan, Aragoiko Cinco Villasen, Araban edo Soriako Lur Garaietan ere aurkitu dira, baina modu askoz sakabanatuago batean, eta, azaltzen diren eskualdeetan, beste filiazio batzuetako PI indigenekin askoz tartekatuago daude. Hau ikusita, ez du ematen euskara historikoa eta akitaniera convenoaren arteko elkarketa berezia kopuru epigrafikoaren parametroari soilik zor zaionik.
- (ii) *Nescatoren* kasuan, deigarria da euskara historikoaren oinarri + atzizki konbinazioa Saléchan-eko inskripzioan jada eratua dugula akitaniera convenoan.

Elementu hauei nik beste biok gehituko nizkieke:

- (iii) Badira *Convenae* edo *Convenaetik* hurbileko toponimo deantroponimiko batzuk, oinarrian euskal apelatibo argia dutenak. Hauetarik, paralelo epigrafikoa dutenak aspaldi ohartarazi dira,⁶ hala nola *Séméac* (←*Sembe*, ~ eusk. *seme*, Tarbesetik hurbil, *Tarbellien* eremuan beraz), *Sentenac* (←*Seni-tenn-*, ~ eusk. *sehi*, bi Ariège-en, *Consorannien* eremuan) eta *Estenòs* (←*Esten-co*, ~ eusk. *ezten*, HGko Saint-Gaudens-en, *Convenaen* eremuan). Nik multzo honetan paralelo epigrafikorik ez duten eta dakidala ohartarazi ez diren *Convenaeko* beste bi sartuko nituzke:⁷ *Samuran* (~ eusk. *samur*, Barousse bailaran) eta *Jaunac* (~ eusk. *jaun*, HPn, LCen albo-alboan). Egia da ez direla Erdi Arora arte lekukotzen,⁸ baina atzizkiek berek ematen diete GIko kronologia bat, *-òs*, *-an* eta *-ac* bezalako atzizkiak PI akitaniar, latindar edo galoekin baino ez baitira konbinatzen. Marka bedi *Estenòs*, *Samuran* eta *Jaunac* LCen inguru hertsian daudela, oso hurbil beren artean, eta foku epigrafiko sarriretako baten erdi-erdian. Lekuko hauek guztiak ez daude parametro epigrafikoaren menpe, eta zaila da aipatu direnetatik urrun paralelorik aurkitzea.⁹
- (iv) Bada euskalki historikoetan modu ezberdinetan desagite bidean dagoen baina EBZari zalantzarik gabe eslei dakiokkeen ezaugarri gramatikal bat, ene iritziz akitaniera convenoan jada indarrean zegoena: Linschmann-Aresti legea. Alegia, Garona Garaian honako PIok topatzen ditugu: *Ennebox* (Montsérié), *Enne-bon* (LC), *Neure-nl* (Saint-Lizier), *Neure-se-ni* (dat., Arrien), *Neur-i* (gen., Anla), *Neuf* (Montsérié). *Enne-* eusk. *enerekin* erkatu da aspaldi, eta *Neure-* eusk. *neurerekin* lotzearen alde ere azaldu zen Mitxe-

⁵ Euskal «soinuko» zenbait izen akitaniarren euskaltasunaren gaineko Laffiteren eszeptizismoari Mitxelena (1954: 411) osteratu zionez: «[p]ero nombres como aquit. *Andere*, *Nescato* no suenan simplemente a vasco, sino que «son» vasco a secas».

⁶ Ikus Gorrochategui (1984), hurrenez hurrenoko sarreretan.

⁷ Martínez Areta (2022)-n proposatu dut.

⁸ Ikus Grosclaude & Le Nail (2000), hurrenez hurrenoko sarreretan.

⁹ Izan litekeen kasu isolatu bat Pauetik 35 km iparraldera dagoen *Arzacq(-Arraziguet)* komunan aurkitu dut, Rohlfsi jarraikiz (*apud* Gorrochategui 1984: 221) akit. *Hars-* eta eusk. *hartzekin* erlazionatzen badugu.

lena (*apud* Gorrochategui 1984: 242-243).¹⁰ Bada, akitanieraz *eNe* eta *neure* jada baldin baziren, txandaketa eragin zuen baldintzapean sintaktikoa aurretiaz sortua delako izango da.

Antzekotasun hain nabarmen hauek interpretatzeko, *a priori* bi azalbide kontzebitu ahal ditugu, Hualderen goragoko 1. irudiaren bi interpretazio ezberdini dagozkienak:

- a) Antzekotasuna neurri batean espejismo bat da, *Convenaeko* ohitura epigrafiko eskergak elementu paleoeuskaldunaren gainordezkapena eragiten duelako. Nafarroan antzeko ohitura epigrafikoa bagenu, baskoien eremua *Convena* bezain euskalduna zela egiaztatuko genuke. Hau honela bada, 1. irudiko akitaniera zentzu zabalean ulertu beharko genuke: *Conсорannen* lurraldetik guxtienez baskoienera zabaltzen zen hizkuntza bat zen, eta biziraun zuena «akitania nafarra» izan zen.
- b) Akitaniako mendebaldean zurigune epigrafiko zabalak ditugun arren, akitaniera *convena* eta euskararen arteko antzekotasunak handiegiak dira soilik ohitura epigrafikoaren parametroaren bidez azaldu ahal izateko. Elkarren antz hain handia badute, euskara *Convenaetik* datorrelako da. Kasu honetan, 1. irudiko akitaniera zentzu hertsian ulertu eta Behe Inperioan nolabaiteko populazio-mugimendu bat gertatu zela onartu beharko genuke.

Galdekizuna, lan honetan, ez da euskararen GIko lekuko nafarrak noiztik dau den Nafarroan (Neolitikotik, cromlechen garaitik?, gatazka ponpeio-sertoriarretik?), beste hau baizik: Nafarroan GIan hitz egiten zen paleoeuskara, EBZaren aurrekoa al da? Esango nuke Hualde (2015: 130) baiezkoko dagoela, diolarik: «Hau da, erromatarren garaiko akitaniarren alaben artean, batek bakarrik iraun zuen bizirik, EBZ izenarekin ezagutzen dugunak», (a)-ren formulazio bat, nolabait. Nire iritzia, ordea, (b)-ren aldekoa da. Goragoko (i) eta (iii) antzekotasunen iruzkinetan (b)-ren aldeko argudio batzuk eman ditut dagoeneko, baina arrazoi nagusia honakoa da: (a)-ren logika eza. Nafarroaren ondorengo egoera linguistikoaz une batez ahazten bagara, ez dauka logikarik lurralde berean erromanizazioak zeltiberieraren eta iberieraren desagertzea eragiteak, baina euskararena ez. Aitzitik, logikoagoa da pentsatzea baskoien lurralde osoaren erromanizazioak aldi berean hiru hizkuntzen asimilazio linguistikoa eragin zuela, eta erabateko latindartze hori garai erlatiboki goiztiar batean gertatu zela, K.o. II. menderako menturaz.

Nire datuen arabera,¹¹ Nafarroako epigrafian ageri diren ezaugarri euskaldun ziur ia guztiak K.o. I. mendekoak dira.¹² K.o. II. mendean, ekoizpen epigrafikoak nabar-

¹⁰ Gorrochategui bera zuhur azaldu zen azken baliokidetasunaren aurrean, **ni-haur-e* aitzinforma onartu behar baitugu. Ene iritziz, Gorrochateguiaren zuhurtzia gehiegizkoa da, *neure* EBZeko forma baita (euskalki guztiek dute, XVI. mendeko euskararen). Ohar bedi iparraldeko euskalkietan, zeinetan gainerako kasuetan abs. *ni-haur*, erg. *ni-haur-k*, dat. *ni-haur-i* formak garatu gabe mantendu diren, genitiboa ordea *neure* dela (genitiboaren forma berria duen zub. *nihaur-en* berrikuntza bat da).

¹¹ Kontsultaturiko bibliografia osoa ezin dut zehaztu, baina atal honetan aipaturiko datu guztiak <http://eda-bea.es/> datu-basean ikusgai daude.

¹² Teonimoen artean, Uxueko *Lacubegi* bakarrik kokatu da II. mendean (bigarren erdian). Dena dela, haren osagaien filiazioa ez da ziurra, eta bestalde hiru dedikatzaileetako bi PI grekoko libertoak

men behera egiten duen arren, epigrafia nafarrak gizarte askoz latindartuago bat islatzen du, zeinean erromatarraurreko etnizitatearen adierazle ia guztiak irauungi diren.¹³ Bestalde, Andrearriagako *Belteso-* albo batera utzita, Nafarroako lekuko epigrafiko guztiak teonimo edota antroponimo zelta eta iberiarrekin tartekaturik azaltzen zaizkigu. Hau foku epigrafiko guztietan gertatzen da: (i) Lizarrerriko *Andelos* eta *Curnonium civitas* eta haien inguruko *territoriumean* (zeinetan teonimoa indigena paleouskalduna den, antroponimia ordea zelta eta iberiarra), (ii) Zidacos eta Aragón ibaien ibaiarteko *Cara* eta Santakriz Eslaba eta inguruko *territoriumean* (Lergako paleouskaldunekin batera, *Agursenio*, *Gurtunbasis*, *Thurscando* iberiarrak eta *Araca*, *Pere-musta* indoeuroparrak ditugu), eta (iii) Cinco Villasen (erka bitez Valpalmaseko *Serhuboris* paleouskalduna, *Geseladen* iberiarra, eta Sofuenteseko *Bucco* zelta). *Convenaeko* bailaretan ez bezala, ez dago inon, baskoien eremuan, foku epigrafiko eskusiboki paleouskaldunik. Latina zabaldu zenean, zergatik utzi behar zuten bertan behera zeltiberieraren eta iberieraren hiztunek beren hizkuntza, baina eskualde bere-tako paleouskaldunek ordea berenari eutsi?

Honi osteratu lekiok euskarak Plinioren *Vasconum saltusean* (Irun inguruan) eta Pirinioetako bailaretan irauin ahal izan zuela, haietan transmititu diren datu apurrak eskusiboki paleouskaldunak baitira: Andrearriagako *Belteso-*, Pl. (etab.) *Oiarso-* (eta aldaerak), Ptol. *Itourissa* (*Eturissensis origo* marka batean), *Heraucorritsebe* teonimoa Pirinioren beste aldean.¹⁴ Alabaina, eskualde hau oso urriki jendeztatuta zegoen, eta

ditugu. Lizarrerriko teonimo guztiak —zeinetarik batzuek *h* edota *-(h)e* datibo akitaniarra agertzen duten— K.o. I. mendekoak dira. Euskal tratamendu fonetikoa agertzen duen *Andeloko Calpurniae Urchatell-i* ere K.o. I. mendean kokatzen da, eta orobat Muetzeko *Aemilio Or[d]junets-i* —ez bada aurreko mendearen amaieran— *Legio II Augustako* beteranoa baita. Euskal filiazioko gainerako Plak (*Belteso-*, *Abisunso-*, Lergakoak...) eta *h* agertzen dutenak (Lergakoak, Tafallako *Thurscando*, Valpalmaseko *Serhuboris*, Sofuenteseko *D[u]sunharis*) ere K.o. I. mendean kokatu beharrekoak dira, inskripzioen formularen eta beste faktore batzuen arabera. Salbuespena Urbiolako *Edsuri* izan liteke (euskalduna bada), *DM* formula agertzen baitu.

¹³ Nafarroako lerro varduloko PI indoeuropar batzuk *D(is) M(anibus)* formula berankorxeagoa daukaten inskripzioetan agertzen dira, hala nola Gastiaingo *An(n)ia Buturra Viriati filia* eta *Iunia Ambata Viro[ni] filia*, Marañoñeko *Doitena Ambati Celti filia*, eta beste zenbait. Hala ere, antroponimia jasotako etnizitatearen adierazle izan ohi den arren, PI baten filiazioak ez du beti zertan unean uneko hizkuntza islatu. Gizabanako hauen garaian (II. mendea?), latindartze prozesua oso aurreratuta zegoekin. Hortik aitzinera begira, argigarria da baskoien lurraldean sakabanaturik eta egitura mononimikoa eta beste ezaugarri berankor batzuk agertzeagatik printzipioz III. eta IV. mendeetan kokatu beharreko 21 Plak erakusten dituen Cantón Serranok (2009: 442-443) egindako taula. 18 eztabaidarik gabe (greko-) latindarrak dira. Gainerako 3etarik, Javierreko *Citastelule* iberiartzat jo izan da inoiz, baina ziurra dirudien osagai bakarra *-ulus/a* atzizki latindarra da (nominatiboan *-a* espero genukeen arren). Eduardo Orduñak eta Noemí Moncunill-ek diostate haien ustez ez dela PI iberiarra. Sofuenteseko *Nar[u?]/[ng?]eniri* dagokionez, tradizionalki Lergako *Narhun-ges*-ekin eta Montsérieko *Narhon-s*-ekin taldekatu bada ere, azken editoreek «[I]a presencia de una interpunción al final de lín. 2 es clara» kategorikoki baieztatu eta *[Se]renus Nar[cissi filius?]* / *[Tyc]heni uxor(i)* edo horren antzeko zerbaitekin hobesten dute (ikus Jordán & alii 2010: 224). Marañoñeko *An(a)* ustez zelta geratzen zaigu, baina honelako sekuentzia hain arrunt bat latindar izendegira aise asimilatuta ahal izan zen *Lallnamez*at jo daiteke.

¹⁴ Izkueko aldareko *Itacurrinne* teonimoa eta *Val(eri)us Badan(us?) Abisunsonis* dedikatzailea ere aintzat harturik, Iruñeko arro osoa sar genezake planteamendu berean. Ohar bedi, baina, Izkueko epigrafeko formularen *pro reditu* dela botoaren zioa. Bestalde, hala *DM* formuladun hilobi-epigrafiak, bere urrian, nola Gazteluko Plazan agertu diren —eta tipologiaren arabera datatu ahal diren— zeramikazko pusketan *post cocturam* grabaturiko jabetza-marka ugariak (ikus Unzu & Ozcáriz 2009) gizarte erromatartu eta latindartu bat islatzen dute, II. mende amaierako eta III. mendeko *Pompelon*.

hartan ez zegoen ez *civitas*ik ez lurraldearen gune artikulatzailerik. Posibilitate gisa, ezin daiteke bazter euskararen txingar batzuek bertan iraun eta EBZarekin bat egin izana.¹⁵ Baina, ikusiko dugunez, bideragarriena da pentsatzea EBZa beste nonbaitek etorri zela, eta hala bada ez dago txingar hauen biziraupena onartu beharrik. Fun-tsezkoa da honakoa kontuan hartzea: erromatarraurreko hizkuntza baten biziraupena gertakari zeharo ezohikoa da, azaldu ahal izateko arrazoi boteretsu bat —beste inon azaltzen ez den faktore bat— bilatzera behartzen gaituena.

3. Nortzuk ziren Euskara Batu Zaharraren hiztunak?

Hualdek iv.-vi. mendeak esleitzen dizkio EBZari. Hau Mitxelenak (1981) proposatu zuen kronologia bera da, aurretik mende bat gehiturik. Ezin egokiago derit-zat Hualderen urkila kronologiko honi. Hala ere, Hualdek (2015: 129) EBZaren zabaltzea Iruñeko Erresumaren hedapenarekin lotzen du, baita gehitu ere zabaltze hau «familia bereko beste dialektoen eta beharbada beste hizkuntza batzuen kalte-tan» gauzatuko zela. Hau azalbide oso zabaldua da, baina nire ustez zenbait arazo ditu.

Hasteko, Iruñeko Erresuma ez da mamitzen ix. mendera arte. Behin sortuta ere, erresumak ez du Araba eta Bizkaiko lurraldeetan politika esku-hartzailerik bultzatzen Dinastia Ximenotarrera arte (905etik aurrera). Dena dela, EBZaren mutur berankorrena hartuta eta Iruñeko Erresumaren eraginaren hasiera 800ean ezarrita ere, gutxie-nz bi mende linbo batean geratuko litzaizkiguke.

Bigarrenik, Hualdek *koine* terminoa ez darabilen arren, planteamendu honen aldekoek argudiatu ohi dute GEAn zabaldu zena Iruñeko Erresumak bultzaturiko koine bat dela. Haatik, ustezko koineizazio batek ez luke azalduko euskalkien Erdi Aroko sorrera bat. Koineak beste dialekto batzuen gainean zabaltzen dira, bi maila eratuz: administrazioaren bidez zabaltzen dena (prestigiosko testuinguruetan erabili-ko dena); eta koinearen aurreko dialektoa (testuinguru etxetiarragoetan). Lehenak eremua irabaz dezake bigarrenaren kaltetan, are desagerrarazteraino edo substratu-kutsu batera murrizteraino, baina koine baten azpian dautzan dialektoak koinea bera baino lehenagokoak izaten dira. Koine batetik ez da, berez, aniztasun dialektalik era-tortzen. Gure kasuan, EBZa Iruñeko Erresumarekin zabalduriko koine bat zela pos-tulatzeak behartuko gintuzke onartzera Mendebaldeko Euskara EBZaren zabaltzearen aurreko paleodialekto euskaloide baten nolabaiteko jarraipena dela, eta honek berriro ere Campiñonen aspaldiko planteamendura igorriko gintuzke.

Hirugarrenik, EBZa «familia bereko» beste dialekto batzuen gainean zabaldu ze-lako onarpenak ez dauka inongo funtsik datuetan. Logika orenen arabera, EBZa lu-rralde aurretiaz latindartu baten gainean zabaldu zen mendebalderantz. Latina nagu-situ aurretik zegokeen hizkuntzaz den bezainbatean, hala Arabako epigrafia oparoak nola autore eta idazki greko-latindarrek transmitituriko toponimoek *facies* linguistiko

¹⁵ Honen alde mintza lekiguke, *a priori*, K.o. i.-ii. mendeetan lekukoturiko *Oiarso*- (→*Oiartzun*) eta Pl. *Ilu(m)beritani* (→*Irunberri*, *Lumbier*) toponimo euskaldunen biziraupena. Alabaina, toponimoak *realia* iraunkorrak izaten dira, eta lurralde batean denboran zehar hitz egiten diren hizkuntza ezberdinetan gaindi iraun dezakete, jatorrizko formari erlatiboki ondo eutsiz. Erka bitez inguruko Ptol. *Gébala* → *Gebara*, *Cara* (epigrafikoki lekukotua) → *Santacara* edota Ptol. *Iákka* → *Jaca*.

argiro hispano-zelta bat erakusten dute, oinarrien filiazioan ez ezik, baita atzizkitzean eta euskal substratu fonetikorik ezean ere.¹⁶

Abaitua, Martínez Areta & Ramos (2022) lanean proposatu dugu EBZaren hiztunak Orosiok *Historiae adversus paganoseko* honako pasartean aipatzen dituen *rusticaniak* direla:

...nam interfectis illis fratribus, qui tutari priuato praesidio Pyrenaei Alpes moliebantur, his barbaris quasi in pretium uictoriae primum praedandi in Palentinis campis licentia data, dehinc supra dicti montis claustrorumque eius cura permissa est remota **rusticanorum** fideli et utili custodia. (Orosio, *AdvPag* 7.40.8-9)

409. urtea da, eta, zenbait zurrumbilo eta usurpazioren artean,¹⁷ Gerontzio generalak erromatarrek Pirinioetako pasaguneetan jagole jarritako «nekazari» (= *rusticani*) fidelak kendu, eta *honoriaci* direlako tropei esleitzen die pasaguneen ardura (luze iraun ez zuen egoera, orde). Orosioren berri honi esker jakin dezakegu Erromak lehenago —noiz ezin zehaztu— pasagune piriniotarrak ez *limitanei* ez *comitatenses* ez ziren milizia irregular batzuen —hots, *rusticanien*— zaintzapean jarriak zituela. Haien eginkizuna bidelapurreria kontrolatzea eta, agian, bidesariak kobratzea zen. *Notitia Dignitatum*aren arabera, garai honetan armada erromatarrek *cohors prima Gallica* dauka *Ueleian* (*NotDign* 42-32) eta *cohors Novempopulana*, *Lapurdon* (*NotDign* 42.19). Bien erdian ez zegoen ezer, eta hau huts nabarmena da, *Iter XXXIV*aren tarte luzea eta batez ere *Hispaniarako* sarbidea —*Summus Pyrenaeusa*— zegoela kontuan harturik. Behe Inperioan beste leku gatazkatsu edo estrategiko batzuetan erabilitako eredu bati jarraikiz, Erromak nekazariz osaturiko ezohiko tropen bidez bete zuen hutsune hau.

Bada, *rusticaniok* zenbait zantzu erakusten dituzte, beraien eta EBZaren arteko erlazio edo are identifikazio bat kontzebigarri egiten dutenak:

- a) Kontuan hartuta jarraikortasun agerikoa dutela hala Hidaziok (*Chr.* 117-150) 443. urtean kokatzen dituen *Aracellitani Bacaudae* arpilatzaileekin, nola VI.-VII. mendeetan autore bisigodoek —antzinako etnonimoaren bererabilera erudito bat eginez— *vascones* deritzen (Arabako zein Nafarroako) borrokazale nekazarekin (bai eta mende beretako mota merovingiarreko nekropoliekin ere), nabaria da *gens effera* bat direla (Taxon Zaragozakoak VII. mendean sorturiko esapidetan), alegia jende kementsu, oldarkor, gerrazale bat. Antzinate Berankorreko beste herri batzuen kasuan bezala (aldeak alde lonbardiarrak eta bretoiak kasu), izaera grinatsu horri ziur aski halako harrotasun etniko bat gehitzen zitzaion, beren hizkuntzari eusteko eta finen zabaltzeko akuilagarri gertatu zena. Testuinguru honetan ulertu behar dugu, noski, **enos-kara* ‘- (gu) mintzatzeko moduan’ endoetnonimoaren sorrera.
- b) Prozesu etnogenetiko hau guztia Mitxelenak (1981) bere *éuscarorako* proposaturiko koordinada espazio-denborazkoekin bat dator.

¹⁶ Karistioen eta varduloen lurraldeetako datuen zerrendaketa xehe eta eguneratua, eta analisisa, Abaitua, Martínez Areta & Ramos (2022)-n egin dugu.

¹⁷ Ikus Pozo (2022: 139-141), eta, ondoren datorrenarako, lan bereko III eta IV atal osoak.

- c) *Rusticani* izen «etnikoa» ez izateagatik alderdi linguistikotik arreta gutxi erakarrri badute ere, Orosiok urrezko datu bat ematen digu haiei buruz: 409an Pirinioetako pasaguneetan kokatuta daude. Eta honek, § 4-n ikusiko dugunez, erregistro linguistiko batekin lotzea ahalbidetuko digu.

Sartaldera begira, Abaitua & Unzuetak urraturiko (2011) ildotik, Abaitua, Martinez Areta & Ramos (2022)-n ere argudiatu dugu kausa-ondorio erlazio bat dagoela azken hamarkadotan Araban eta Bizkaian aurkitu diren merovingiar motako nekropolien eta lurraldeotako lekukoek GItik GEArak erakusten duten *facies* linguistikoaren aldaketa erradikalaren artean. Migrazioa eragin zuen gertaera pizgarria frankoek 541ean Zaragozara egindako espedizioa izan liteke. Hau Gregorio Toursekoak (*DLH* 3.29) eta Isidoro Sevillakoak (*HGoth* 41) kontatzen dute, eta *Consularia Caesaraugustana* deritzagun idazkiak Iruñea zeharkatu zuela zehazten du. Pozoren arabera (2022: 200), baliteke Iruñeko arroko hainbat lagun tropa frankoei atxiki izana, eta hauxe izan liteke merovingiar moden kutsaduraren nahiz *inhumation habillée* motako nekropolien eklosioaren abiapuntua. Oso deigarria iruditu zaigu mendebaldeko foku guztietan *inhumation habillée*en aztarnei C14ak ematen dizkien kronologiak data honekin bateragarriak eta beren artean mailakatuak direla antzematea: Dulantzi (ca. 550), Aldaieta (ca. 550), Finaga (ca. 600), Santimamiñe (616-648).¹⁸ Euskararen zabaltzearen lorratza marka lezaketelakoan gaude.

Gainera, 2008-2009etan Dulantzin induskaturiko basilika paleokristauak puzzlearen beste pieza bat eskaini digu, Mendebaldeko Euskararen sorreraren parte askoz argiago ikustatzeko falta zitzaiguna hain zuzen.¹⁹ Garai bertsuko Europako beste basilika batzuk bezala, Dulantzikoa apezpiku-egoitza bati lotua sortu zen (Iruñekoari), eta 550-700 bitartean egon zen indarrean. **Itxura guztien arabera, beraz, adarkadura** eklesiastiko hau ere korrelazionagarria da euskararen sartalderanzko zabaltzearekin. EBZa Iruñeko Diozesiaren sorreraren garaian ernamuindu bazen (ca. 400-550), MEZaren sehaska Dulantziko basilika eta beronen *hinterland* zabala da (Aldaietako nekropolia eta Bagoetako burdinola barne). Hemen, 550-750 bitartean, uste dugu kokatu behar direla mendebaldeko euskara ezaugarritzatzen duten bi urrats (ahulak eta alor lexikora mugatuak izanagatik): (1) ziur aski Dulantziko liturgia espezifikoari lotuak egin ziren alor eklesiastikoko zenbait hautu lexiko (*eguen* - Lcc., Lazarg. *eguaun*, *bariku*, *zapatu*, *dome(e)ka*; *berba* vs Iruñeko Diozesiko *ortzegun*, *ortzirale*, *larunbat*, *igande*; *hitz*), eta (2) dokumentazioa x. mendera arte azaleratzen ez hasi arren mendebalde osoan aldakortasunik ez agertzeagatik fase goiztiar honetan kokatu beharreko hiru garapen lexiko: *berri* > *barri*, *beltz* > *baltz*, *hiri* > *huri*.

4. Nola zuten izena, eta nondik zetozen *rusticaniak*?

Orosioren *rusticaniak* v.-vi. mendeetan izan zuten prozesu etnogenetikoaren barnean, *stock* antroponimikoa elementu aglutinatzaile bat zen. Uste dut beronen berreiriketa-saio bat egin dezakegula, honako iturriok baliatuz eta konbinatuz: toponimo

¹⁸ Datazio hauetarako, indusketa-txostenak Abaitua, Martinez Areta & Ramos (2022)-n zehazten dira. Dulantzin eta Aldaietan data hauek *inhumation habillée*aren estratu goiztiarrenei dagozkie.

¹⁹ Ikus Pozo (2022: 275-278).

deantroponimoak, Erdi Aroko kartularioetako GEAKo diplomak, Akitaniako Giko inskripzioak (zabaltzearen abiapuntua) eta Bizkaiko GEAKo inskripzioak (zabaltzearen iriste-puntueta bat). Prestatze bidean daukadan lan batean, EBZaren hiztunentzat honako *stocka* proposatzen dut: *Ahoitz*, *Aho(i)ztar*, *Andotz*, *Azter*, *Berhatz*, *BeteLu*, **Buruto*, **Étulu*, *GardeLe*, *GenduLe*, *HaNa(so)*, *Ho(i)tarr(iezo)*, **Ilundo*, *Ilurdo*, *Oro*, **Senito*, *Zuri*.²⁰ Hauetako bakoitza gutxienez bi eskualdetan lekukotuta dago,²¹ osorik edo haien konbinazio-elementuetan.²²

Berreraiketa oro bezala, hau ere proiektio inperfektu bat da, baina PI hauek EBZaren hiztunen *stock* antroponimikoaren bristada erakusgarria ematen digutela-koan nago. Are gehiago, EBZaren nolabaiteko DNA onomastiko bat osatzen dute, haren hiztunek belaunaldiz belaunaldi transmitituko eta mendealderantz barreiatuko dutena. DNA sekuentzia orok denboraren poderioz mutazioak pairatzen dituen era berean, mendeak aurrera joan ahala *stock* hau ere lausotuz eta berrituz joango da, baina haren PI batzuk sartaldeko mugaldeeraraino iritsiko dira, Bizkaian azken hatsa XI. mendean eman arte.


Antroponimo hauek honako ezaugarriok erakusten dituzte:

1. PI bakoitzak bere historia duen arren, beren orotasunean multzo konpaktua osatzen dute, aipaturiko iturrietan zehar antzeko agerpen-patroia erakusten dutela.
2. Ia denek dute jatorria *Convenaen* edo haren aldirietan (haien artean *Azter*, *GardeLe* eta *GenduLe*, izatez filiazio akitaniarrekoak ez izanagatik ere).
3. Ia denek uzten dute aztarna toponimiko bat —edo gehiago— Pirinioetako pasaguneen oinetan (penintsulako isurialdean), Orosioren pasartetik espero izatekoa denez. Ondorioz, Pirinioetako bailarek PI hauetan oinarritutako toponimo deantroponimikoen dentsitate oso handia erakusten dute, kasualitate hutsetik espero izatekoa baino askoz handiagoa. Foku sarrienak Ultzama / Mediano ibaien arroetan eta Argaren arro garaian ageri dira. Honen irudi dugu 1. mapa.
4. Kronologia konkretu batekoak dira: Giko akitaniar PIak baino berankorragoak dira (*Umme.sahar*, *Abisunso*..., zeinak aztarna toponimikorik utzi gabe desagertzen diren), baina 800tik aurrera zabaltzen diren *Garcia*, *Lope*, *Sancho/a*, *Eneko/Oneka*, *Ximeno/a*, *Otxoa*, etab. baino lehenagokoak. *Rusticantien* PIak Iruñeko Diozesiari lotuak ditugu, eta, edo Antzinate Berankorrean desagertzen dira, edo GEAn gainbeheran daude; aldiz, *Garcia*, *Lope*..., Iruñeko Erresumari lotuak sortzen edo —Gaskoiniatik— sartzen dira, eta indartsu ditugu Goi zein Behe Erdi Aroan. Fonetikan ere nabariak dira bi kronologiok: erka bitez esaterako *Genduleren ũ* itxiaren mantentzea (~ gask. *Centolle*) eta *Lope* (< lat. *lŭp-*), euskaran *ũ* > *o* erromantzean ireki ondoren sartu dena (ziurrenik gaskoitik).

²⁰ Izartxoaren dutenak toponimo deantroponimikoetatik soilik erator daitezke.

²¹ Hiru eskualdeak direla: Akitania (nagusiki *Convenaen*), Nafarroa (batez ere Pirinioetako pasaguneen oinak), eta mendealdea (= Araba + Bizkaia + Burgos + Errioxa).

²² Adibidez, **Senito* PI errustikantotzat jotzen dut alde batetik *Setoain* (< lekukoturiko *Seitoain*) Esteribar udalerriko herria, bestetik akitaniera convenoan *Seni-* eta *-to* (nahiz elkarrekin ez agertu), ditugulako.



Je regrette de n'avoir pas quelques notions de zoologie et de botanique, et surtout de ne pas connaître les noms basques des insectes, oiseaux et plantes dont il est question dans cet article, pour les faire toucher du doigt par le paysan lecteur. Parmi les noms que votre traducteur désigne, il en est que je ne connais pas. Un de mes confrères, grand ami des petits oiseaux et connaisseur assez fin, pourra peut-être m'éclairer un peu. Nous tâcherons d'être aussi pratiques et clairs que possible.

Encore une fois, Monsieur, merci.

4.3. Anton Abadiaren *Choriek egiten dituzten ongiak* artikulua (*Eskualduna* 1894-07-13)

Landare edo eraintza bakhotchak balin badu bere etsai marmutza, badu ere ordean bere begiratzaille choria. Zer ere marmutzu, ulitcha edo har baita landareari kalte egin dezokena, hura janez zaintzen du choriak landarea edo bihia.

Huna laburzki zoinek zoin zointarik begirutzen dituzten:

Huntzek eta buzokek jaten dituzte landetako saguak eta satsuriak (sagu-churiak?). Kukuak jaten ditu har handiak. *Allarda* derizan choria bizi da harrez eta ottez edo chartalez (*sauterelles*).

Biligarroa eta chochoa bare jale handiak dire. Behor-choriek jaten dituzte bareak eta har-churiak. Kardamiruak edo kardinaleak jaten du astokarloen hazia; anhitz marmutza ere ba, zenbeitetik diotenaz. Bizkitartean bertze jakintsun batzuen arabera, ez da bizi kardamirua haziz eta bihiz baikik; hartakotz diote jakintsun heiek, chori onen artean ongi gutienik dagiguna dela kardamirua. Halere ordean kalte baino ongi gehiago.

Sorbeltza deithu chori batek jaten ditu egunean bortz ehun eta berrogoi ulitcha. Behin hatzemanak izan ziren chori horietarik hamar. Hamarrek jan zituzten bortz mila eta lau ehun ulitcha; heldu baita, bana bertze, bakhotchak 540 jan zituela.

Bada ulitcha bat, ogi bihia jaten duena. Bihi bakhotcharen barnean egiten ditu 90 arroltze. Bihi bakhotchetik sor ditzake beraz laueta hogoi eta hamar ulitch-ume. Hetarik bakhotchak berriz egin letzazke bihi bakhotchean bertze hainbertze arroltza! Hortarik ageri da zenbat ogi bihi begirutzen dituen ulitcha hetarik janez bizi den chori papo-gorriak. Badakigu arren jaten dituela egunean lau ehun ulitcha. Nolako bidegabea eta kaltea ez diotegu beraz egiten gure buruei, chori papo-gorriak hiltzen ditugunean!

Frantsesez *becs-fins* deitzen diren phiko-choriek khentzen dituzte loretarik asko har gaichtoen arroltzeak. Hobeki erraiteko, harrek ez dute arroltzerik egiten. Pinpi-

¹⁶ Gorago adierazi bezala, gutunaren ondotik, *post scriptum* gisa eta aparteko orri batean, Hiriart-Urrutik nota luze bat gehitzen du Abadiak astekarira igorri artikulua aipagai duena.

rinek edo jinko-oilok dituzte egiten arroltzeak eta arroltze hetarik heldu dire harrak, loren eta fruituen etsairik gaichtoenak. Arroltzeak khen, harrak khen. Har gutiago, eta gero arroltze-egile jinko-oilo edo pinpirina gutiago, eta guk lore eta fruitu gehiago.

Ongi batek bere ondotik anhitz ongi dakharzke.

Beraz ongi handiak zor diozkategu choriei. Bertze nehork, ez eta deusek ez dagi-guken laguntza dagigute beraz choriek.

Hortakotz guk ere behar ditugu, gure onetan, chori ongi-egileak arthatu, lagundu, begiratu, ez hil.

Jadanik erran duguna chori on horien hiltzea da gure buruei harrika artzea.

5. Bururapena

Baionako departamendu-artxibategian agertu zaigun Manex Hiriart-Urrutiren gutunak agerian uzten du euskalarien arteko gutunen aztertze beharra gure hizkuntzaren historiaren ikuspegi osoaren ukaiteko. Duvoisin (Daranatz 1928, 1929, 1930, 1931), Azkue-Broussain (Charriton 1984), Bähr (Jauregi 2005) eta besteren korrespondentziek jadanik erakutsi zuten ezin utzizko dokumentu multzoa osatzen dutela garaiko giroaren eta eztabaiden berri xeheagoaren hartzeko.

Hiriart-Urrutik Abadiari igorri gutuna lekukotasun aparta da jakiteko *Eskualduna* astekariaren ortografia noiz eta zer gisatan finkatu zen, haren aktore nagusiaren esku-koa den ber. Halaber, erakusten du 1894rako astekariaren gidaritza osoki bere gain hartua zuela Hiriart-Urrutik, horrek ondorioak izanen baititu astekariaren hautu grafiko eta linguistikoetan. Izan ere, nahiz eta jakin ordurako Hiriart-Urrutik artikulu askoren ardura zuela, ez zen argi zein izan zitekeen astekariaren antolaketa haren lehen urteetan.

Bestalde, gutun horri esker, itzalean egon den *Eskualduna* astekariko kolaboratzaile bat argitara ekarri ahal izan dugu, Anton Abadia ez baita aipatu ohi astekariaren kolaboratzaile gisa (Altzibar 2004; Bidegain & Gostin 2020).

Azkenik, Hiriart-Urrutiren gutunak xurien astekariaren historia hobeki arakatzeko beharra erakusten du eta gureganaino heldu diratekeen artxiboen biltzeko premia.

Erreferentziak

- Altzibar, Xabier. 2004. Hitzaurrea. In Xabier Altzibar (arg.), *Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio*, 19-95. Bilbo: Labayru Ikastegia & BBK Fundazioa.
- Bidegain, Eneko & Andres Gostin. 2020. Eskualduna astekariko kideak eta laguntzaileak. *Euskera* 65(2). 363-400.
- Camino, Iñaki. 2018. Bigarren Euskara Modernoa. In Iván Igartua, Joaquín Gorrochategui, Joseba Andoni Lakarra (arg.), *Euskararen historia*, 666-735. Gasteiz: Eusko Jaurilaritza.
- Charriton, Piarres. 1982. Manex Hiriart-Urruty apezaren lau gutun Piarres Broussain adiskideari. *Maiatz* 2. 61-66.
- Charriton, Piarres. 1984. *Resurrección María de Azkue eta Pierre Broussain-en arteko elkarri-dazketa (1897-1920) (Iker 4)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Charriton, Piarres. 2002. Manex Hiriart-Urruty eta Pierre Broussain-en arteko gutunak (1894-1906). *Euskera* 47(1). 119-195.

- Daranatz, Jean-Baptiste. 1920. Préface. In Jean Ithurry (eg.), *Grammaire basque : dialecte labourdin*. Baiona & Biarritz: Lamaignère.
- Daranatz, Jean-Baptiste. 1928. Correspondance du Capitaine Duvoisin. *RIEV* 19(1). 58-70; *RIEV* 19(2). 280-286; *RIEV* 19(3). 425-433; 19(4). 449-492.
- Daranatz, Jean-Baptiste. 1929. Correspondance du Capitaine Duvoisin. *RIEV* 20(2). 152-181.
- Daranatz, Jean-Baptiste. 1930. Correspondance du Capitaine Duvoisin. *RIEV* 21(1). 70-368; *RIEV* 21(2). 334-368.
- Daranatz, Jean-Baptiste. 1931. Correspondance du Capitaine Duvoisin. *RIEV* 22(1). 44-73; *RIEV* 22(2). 310-337.
- Jauregi, Oroitz. 2005. Correspondencia de Gerhard Bähr Con R. M. Azkue, H. Schuchardt y J. Urquijo (1920-1944). *ASJU* 36(2). 7-354.
- Lafitte, Piarres. 1971. *Mintzaira, aurpeguia: gizon!*. Arantzazu: Jakin.

Fonologia, fonologiak: Fonologia Naturalari buruzko gogoetak J. I. Hualderen omenez

Phonology, phonologies: Reflections on Natural Phonology in honour of J. I. Hualde

Miren Lourdes Oñederra*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: This paper intends to be a celebration of Hualde's great contribution to phonology. Our almost simultaneous beginning in the field, shortly after the publication of *Current approaches to phonological theory* by D. Dinnsen, is the starting push to reflect about different ways to do phonology. We chose different theoretical paths for our work on Basque. I offer here a summary of some of the fundamental ideas of David Stampe's *Natural Phonology* that I consider worth considering.

KEYWORDS: theories; Natural Phonology; explanation; process-rule; phoneme.

LABURPENA: Artikulu honen helburu da Hualdek fonologiari egindako ekarpen itzela ospatzea. D. Dinnsenek *Current approaches to phonological theory* argitaratu eta gutxira, biok ia batera abiatzea fonologian izan nuen lehen bultzada fonologia egiteko modu desberdinez pentsatzen hasteko. Bide teoriko desberdinak aukeratu genituen euskal fonologia analizatzeko. Hemen garrantzizkotzat jotzen ditudan David Stamperen *Fonologia Naturalaren funtsezko ideien laburbilduma bat eskaintzen da.*

HITZ GAKOAK: teoriak; *Fonologia Naturala*; esplikazioa; bilakabide-erregela; fonema.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Miren Lourdes Oñederra. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila - Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitateen ibilbidea, 5 (01006 Gasteiz). – ml.oinederra@ehu.eus – <https://orcid.org/0000-0001-7337-5952>

Nola aipatu / How to cite: Oñederra, Miren Lourdes (2023). «Fonologia, fonologiak: Fonologia Naturalari buruzko gogoetak J. I. Hualderen omenez», *ASJU*, 57 (1-2), 739-755. (<https://doi.org/10.1387/asju.25973>).

Jasoa/Received: 2022-11-12; Onartua/Accepted: 2023-03-24.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago

1. Atarikoak

Fonologia bakarra da, bai hizkuntzaren osagaia den hori —hiztegia eta gramatikarekin batera, eskematikoki bilduta osotasuna—, bai hizkuntzalaritzaren atal gisa ulertuta. Haatik, bigarrena, hizkuntzalari batzuen espezializazioa dei genezakeena, egiteko modu bat baino gehiago daude. Bestela esan, ez dugu denek beti berdin ulertzen, teorizatzeako orduan, fonologia.

José Ignacio Hualde eta ni garai bertsuan hasi ginen fonologiazko ikerlanetan eta bion abiapuntua Estatu Batuetako unibertsitate bat izan zen. Gainera bion aztergaia askotan izan da euskara, euskararen fonologia. Ez dugu, ordea, aukera bera egin teorien aldetik. Hasi ginenean kaleratu berri zen *Current approaches to phonological theory*, 1979an Daniel A. Dinnsenek argitaratua. Elkar ezagutu genuen garai haietan ez genekien liburu horretan plazaratzen zirela ozenki gerora guk, bakoitzak gure aldetik, jarraituko genituen teoria fonologikoak.

Hualdek bete-betean merezi duen omenaldi honetan nik nirearen, Fonologia Naturalaren, berri eskainiko dut, ez berak ezagutzen ez duelako, baina bai berak hautatua baino ezkutuago gelditu delako. Horren azalpen da Hualderen argitalpen eta ikerlanen oparotasuna, baina baita hizkuntzalaritzaren alorrean ez dela beste batzuk bezainbat hedatu nik hautatua. Gai hauetaz euskaraz irakurri nahi dutenentzat ere irakasle urteetan azaldu izan ditudan zenbait gai hemen idatzita geratuko dira horrela.¹ Hualderen lan zehatz eta datuetan aberatsek beti lagundu izan didate nire hurbiltze teorikoaz gogoeta sakontzen. Honekin ez dut noski esker onezko zorra kitatzen baina bai aitortzen.

2. Fonologia Naturala

Fonologia Naturala (hemendik aurrera, FN) David Stampek 1960ko hamarkadaren erdi aldera sortutako fonologiaren teoria da (Stampe 1968, 1969). Orduan ari zen fonologia sortzaile edo generatiboa jaiotzen lehenago sintaxiaren alorrean garatutako Hizkuntzalaritza Sortzailearen adar gisa. Bi liburu pisudunen argitalpen datak eman daitezke, kokapen kronologikoaren mesedetan: *Syntactic Structures* (Chomsky 1957) eta *The Sound Pattern of English* (Chomsky & Halle 1968).²

Artikulu honetan Stamperen oinarritzko ideia batzuen berri ematen saiatuko naiz, espazio, denbora eta neure gaitasun-mugen barruan. FNa ulertzeko Stamperen ideiak ulertu behar dira eta horretarako biderik onena David Stampe beraren eta Patricia Doneganen jatorritzko testuak irakurtzea da: onena, ez nahitaez errazena.³ Halakoetatik aterako ditut hemen, teoriaren kontzeptu nagusienak argitu nahian, emango ditudan erreferentzia, parafraisi eta aipu zenbait.

¹ Euskararen fonologiari buruz gaztelaniaz idazten ari naizen lan luzeago baten teoriari buruzko atala izango denaren aurrerapen laburtua ere bada (Oñederra prestatzen: 2. kapitulua).

² Testua behar baino gehiago ez zamatzeke ez dira liburu horietako bakoitza baino lehentxeago bai sintaxiaz eta bai fonologiaz argitaratu artikuluak aipatzen.

³ Aurkezpen osorako Donegan & Stampe (1979) eta (2009) bikotea gomendatuko nuke. Doneganen lanak ugariago izateaz gain, aiseago irakurtzen direla esango nuke, bai bakarka, bai lankidetzan argitaratu dituenak. Horien artean azpimarratzekoa da, euskararen historiaren esparruko ikerketarako ekar lezakeen onuragatik, Nathan-ekin batera egindakoa (Donegan & Nathan 2015).

Ezer baino lehen esan behar da fonologi eredu esplikatzaile baten aurrean gaudela, ez dela eredu deskribatzailea. Gertakari fonologikoen esplikazioa bilatzen da, esplikazio iturri nagusi gisa fonetika proposatzen delarik. Horrela, bada, oinarri fonetikoaren duen fonologia da, ez dena, haatik, fonetikarekin berdindu behar (Donegan 2013: 33). Hotsen kategorizazioan edo bilakabideen aukeran hizkuntzen artean dauden desberdintasunek salatzen dute sistema mental bat dagoela hiztunon ekoizpen- eta oharren-gaitasunak kontrolatzen dituen. Horixe litzateke sistema fonologikoa FNaren arabera: aukera fonetikoaren aurrean egiten diren hautaketaren sistema, unibertsaile litekeenaren kontrola, hizkuntza jakin batez jabetzean menperatzen dena. Horrek dakar, esate baterako, lehen hizkuntza italiarra duenak bokala gehitzea herskariz amaitutako ingelesetikako hitz baten azkenean. Bere silabatze-bilakabide prosodikoen emaitza bide da *WC Net* garbikariaren izenari elementu bokalikoa gehitzea: [vitʃinetə].⁴ Era berean, ingurunez landako bilakabideei (ik. 3.3) zor diete frantses hiztunek adibidez ingelesezko /h/ ez hautematea eta *Hollywood* bezalako hitzetan kentzea. Euskara eta gaztelania edo gaztelania bakarrik lehen hizkuntza duenak italiarazko *prego* ‘mesedez, ez horregatik’ hitzaren erdiko /g/ jarraitu entzun eta ekoitziko du. Askoz adibide gehiago eman litezke. Hemen axola zaiguna da, ordea, elkarrekin dutena: hizkuntzen fonologiaren emaitza dira, hizkuntza bakoitzaren fonologia izanik, giza gaitasun fonologiko orokorraren gauzatze historiko zehatz bat.⁵

FNaren berez ez da hizkuntza jakin baten deskripziorako baliabide ona Maddiesonek (2009: 132) azaldu eta Stampe berak onartu bezala. Ez du hori helburu. Haatik, bilatzen du hizkuntza bakoitzaren sistema fonologikoa zein ardatzetan egituratzen den eta, alde horretatik, hizkuntzaren fonologia bere osotasunean ulertzeko atea irekitzen du.

Ez da nolana hiko helburua fonologia bere osotasunean ulertzea eta FNaren jarraitzaileak ez gara optimista inozoak. Rajendrah Singhek esandako zerbaitek teoria eza-gutzeko lagungarri izan litekeen zantzia ematen du. Singhen arabera, FNak lehen-tasuna arazoei ematen die, ez da galdera akademikoei berehalako irtenbidea bilatzen dien hurbiltze teorikoa. Horregatik erakartzen omen zuen bera, pentsatzen baitzuen, «in order to understand *why*, the question is *what is what* rather than *how* we describe it», *what* hori izanik silaba, fonema, alofonoa, etab.).⁶

Hain zuzen ere, FNaren kontra esan izan da formalizabideak falta dituela. Halako kritikei Stampek emandako erantzunak erakusten du bere teoriarik funtsak formalizabideen gaineratik duen lehentasuna: «When they ask us what we have at the lexical level, they want to know how we would formalize that... So they simply will not accept something like «whatever the speaker has on mind, kept in his or her memory»»,

⁴ Hegoaldeko hiztunengan omen da emankorren eransketa hori, schwaren orde [e] ere entzun daiteke maila soziolinguistikoko apaleko hiztunengan (eskerrik asko Pier Marco Bertinetorri zehaztapenagatik).

⁵ FNak fonetikaren eta fonologiaren arteko harremanaren inguruan dioenez jabetzeko ezinbesteko iruditzen zait «Phonology has a physical basis, and much of phonetics is mental» atala irakurtzea (Donegan & Stampe 2009: 24-25).

⁶ «Curso de Verão de Fonologia» (Centro de Linguística da Universidade do Porto, 2011. VII.11-15), «Tipologia Fonológica», Bernhard Hurch irakasle. 2011ko uztailearen 12ko eztabaida saioan jasotako oharra.

etc.».⁷ Alegia, FNean lan egiteko aski da maila lexikoan hiztunak buruan, memorian duena dagoela pentsatzea. Donegan eta Stampe (1979: 128) kexu agertzen dira xx. mendeko linguistikak formalizabideei emandako garrantziagatik. Beren apustua da lengoaiari buruzko galdera horiei ematea lehentasuna metodoei eta deskripzio erduei buruzkoen gainetik:

The study of natural phonology was abandoned early in this century, not because of any serious inadequacies, but because the questions about language that had inspired it were set aside in favor of questions about linguistics—its methodology and its models of description.

Halaz ere, aurkezpen lexikoak formalizabide zehatza ez izateak ez du esan nahi FNean formalizabiderik ez dagoenik, are gutxiago arbuaiatu egiten denik edo teoria formalisten kontra dagoenik FNa.⁸ Esanguratsua da alde horretatik, teoriaren bigarren eta azken laburbildumako lehen oin-oharra:

Some papers and discussion in this volume describe Natural Phonology as being «against» generative linguistics, formalism, and abstractness, or «for» external evidence, or phonetic explanation. We reject such statements. A theory may be right or wrong. It is not «for» or «against» anything. (Donegan & Stampe 2009: 1)

Hogeita hamar urte lehenagoko aurkezpen-laburbildumaren hasieran bertan FNa teoria zaharra dela iradokitzen da (Donegan & Stampe 1979: 126), «Natural phonology is a modern development of the oldest explanatory theory of phonology». Ondoren azaltzen zaigu FNak teoriaren osagai izango dituenak xix. mendean zehar garatu zirela (fonetikari, hots aldaketari, aldakortasun dialektologikoari, haur hizketari eta txandakatze sinkronikoari buruzko ikerketetan) eta baita xx. mendeko fonologiaren alor integratu gabeetan ere (fonetika dinamikoan eta oharmen fonologikoan, esaterako).⁹ Wojcicki (2009a) ere FNari buruzko bere blogaren aurkezpenean azpimarratzen du FNa atzerakoa dela, Jan Niecisław Ignacy Baudouin de Courtenayk xix. mendean «txandakatze psikofonetiko» deitu zituenean arabera eraikitako teoriaren funtsetara itzultzen baita.

1979an *Current approaches to phonological theory* agertzea esanguratsua da fonologiaren historia ezagutu nahi duenarentzat. Daniel Dinnsen argitaratzaileak sarrean adierazi bezala, argitalpena egitasmo baten zati da: hizkuntzalaritza generatiboan fonologia garatu ahala Chomsky eta Halleren (1968) liburuak eragindako zirraren ondoriozko teoria fonologikorako hurbiltze desberdinak alderatzea.

FNak hedatzeko izan dituen zailtasunek izango dute bai zerikusia fonetikan oinarritutako ikuspuntu esplikatzailea proposatzearekin hizkuntzalaritza formala berebiko indarra hartzen ari zen garaietan. Zehazki, fonologiaren eremuan erregela fonolo-

⁷ Hain zuzen ere eta adibidez, Householderen (1979: 260) kritika da FNak ez duela zehazten «the shape of lexical entries».

⁸ Stampek *sonable* bataiatu zuen eta silaba egituratze batzuen paradoxak azaltzeko lantzen ari zen kontzeptuaren formalizabide interesgarri bat proposatzen zuen. Tamalez ez zuen argitaratu eta, dakidala, nire eskola apunteetan bakarrik dago jaso (ik., agian, Oñederra prestatzen: 3. kapitulua). Bestalde, *Optimality Theory* ikuspegi teorikoaren formalizabideek zerikusi handia dute FNaren kontzeptuekin (Hurch 2006: 541).

⁹ Grammont eta Fouché aipatzen dituzte lehen eremuan; Sapir eta Jakobson oharmenarenean.

gikoen azalbidetzat fonetika hartzea arbuiatu egiten zen orduan esplizituki (Dinnsen 1980) eta, orain ere, fonetika tresnabidezko lanen bidez gauza arruntagoa denean fonologialarien artean, ahula da fonetika erregulartasun fonologikoen zergatiarekin lotzeko joera.¹⁰ FNa teleologikoa eta funtzionala zen, esplikaziorako sortua, hizkuntzalaritzan paradigma deskribatzaileak zirenean nagusi. FNak aldarrikatzen duena labur esanda: hizketa hitzunaren erosotasunaren eta seinale fonikoaren argitasunaren arteko tentsioan gauzatzen da, bi ertz funtzional horietatik azaldu daitezke bilakabide fonologikoak.

3. Bilakabideak eta erregelak FNean

3.1. Beste ikuspegiekiko nahasteak

FNean *bilakabide* eta *erregela* fonologikoak ez dira gauza bera (ik. beherago § 3.2), nahiz erraz nahasi izan diren, ziurrenik berdin formaliza daitezkeelako eta gainerako ikuspegi teorikoek ez diotelako FNak ematen dion garrantzi bera ematen bereizkuntzari. Bereizkuntzak FNaren ikuspegiaren duen garrantzia bezain handia da beste ikuspegiaren aldetik dagoen ezagutzarik eza. Esan da gorago Rick Wojciki FNa teoria atzerakoia iruditzen zaiola Baudouinen kontzeptuetatik abiatzen delako, haatik eta leku berean dienez, FNa iraultzailea izan zen, ez baitzen teoria sortzaile bat; baina hori zenez joera orokorrena, askok halakotzat hartu izan dute: «just another approach to phonology within their overall framework» (Wojcik 2009a).

Nahastea ia sortze beretik dator. Aski da Householderek (1979: 252-264) behin eta berriz aipatzen ari garen 1979ko liburuan egindako kritika irakurtzea. Deigarri gertatzen da, bestalde, ikustea zein desberdin den McCawleyk (1979: 294), biltzarren eta ondorengo argitalpenaren iruzkingile gonbidatu bezala, nola balioetsi zuen:

Except for Donegan and Stampe's paper, which expands a really comprehensive theory of phonology, and to a lesser extent also Hooper's paper, the various papers presented not phonological theories but treatments of particular aspects of phonology that could in principle serve as parts of a broad range of phonological theories.

Dinnsenen (1979: xi) hitzaurrean ere bada ildo berean uler daitekeen iritzia: «[...] fundamentally the various approaches are not that different (with the possible exception of Natural Phonology). While specifics may differ, many of the bases of generative phonology remain». Sommersteinek (1977: 235, *apud* Bjarkman 1986: 77) ere honela agurtu zuen teoria: «[...] one of the most important developments, if not the most important, since Generative Phonology itself».

FNaren teoriaren inguruko gaizki-ulertuen artean nabarmenenetakoa *Natural Generative Phonology* delakoarekin gertatua da. Argi dago izenak lagundu ahal izan duela nahastean. Batez ere Theo Vennemann eta Joan Hooper-ek abiatutako teoria honek gure inguru akademikoetan nolabaiteko hedadura izan zuen, espainierari bu-

¹⁰ Erregelak ziren fonologiako gertakariak jasotzen zituztenak erregela-eratorpen ordenatuz osatutako gramatika sortzaile klasikoaren fonologian (osagai morfosintaktikoaren ondoren zetorren atal fonologikoa). Dinnsenek (1980) Ohalaren teoria esperimentalari egiten dio aurre gogor. Ohalaren teorian fonetikazko esplikazioak FNean baino are indar handiagoa zuen.

ruzko lan ezagunak egin zirelako ikuspegi teoriko horrekin.¹¹ Horren ondoan Peter Bjarkmanek bakarrik erabili zuen FNaren teoria espainiera analizatzeko (Gil 2000: 27).¹² Egia osoa esateko, bada barruragoko antza ere, nahiz gehienbat gauzak formalizatzeko orduan balio lezakeen parekotasuna den, gertakarien sailkapena *grosso modo* ardatz beraren gainean egiten baita: baldintza fonikoak bakarrik dituztenak vs. baldintza gramatikal edo lexikoak dituztenak (ik. 3.3).

Izenak izen, ordea, parekotasun garrantzitsuagoa aurki daiteke FNaren eta Kiparskyk 1980ko hamarkadaren lehen urteetan abiatutako Fonologia Lexikoaren artean. Bereziki azpimarratzekoa da gainera esku artean dugun omenaldi honetan, Hualdek molde teoriko horretan idatzi zuelako «A lexical phonology of Basque» tesia gero *Basque Phonology* argitalpena izango zuena ondorio. Liburu horretan ematen zaigun teoriaren laburbilduma oso eskertzekoa da (Hualde 1991: 2-8), argi azaltzen baititu oinarri teorikoak eta euskararen analisiarekin nola egokitzen diren. Fonologia Lexikora hurbiltzen denari erregelen artean egiten duen bereizkuntzak berehala gogoraziko dizkio FNaren erregelak (ik. § 3.3).¹³

Behin eta berriz gainerako eskola fonologikoekin FNaren bereizgarri guztiz funtsezko bat agertzen da gordin, itxurazko antzak nabarmenduta hemen: FNean bilakabide fonologikoak eta erregela morfonologikoak gauza desberdinak dira, hiztunak desberdin bereganatu eta kudeatzen dituenak, ez soilik gramatikan kutxa desberdinetan jar ditzakegunak. Gerokoak aurreratuz, FNaren arabera erregela morfonologikoak ez dagozkio ontologikoki fonologiari (ik. § 3.3).

Labur bada ere, ezin da aipatu gabe utzi teoria berriagoen artean sona handia izan duen eta duen *Optimality Theory* (OT), Princek eta Smolenskyk 1990eko hamarkadaren hasieran abiatua. Teoriaren abiapuntuan antza nabarmena da, batik bat FNaren bilakabideen pareko direlako OTren analisisan funtsezko diren *constraint* edo murriztapenak. Majorek (2008: 80) adierazi bezala,

OT shares a remarkable similarity to Natural Phonology of nearly 30 years ago (Stampe 1969, 1979), although is not generally acknowledged in the OT literature. OT constraints are Natural Phonology processes (e.g., NoCod = coda deletion), and OT rankings in Natural Phonology are termed ordering and suppressing of processes.

Hurček (1998) ere adierazi zuen hasierako OTaren eta FNaren arteko distantzia txikiagoa zela beste ikuspegi batzuekikoa baino. Ez du merezi hemen gaia luzatzea, beste joera teorikoez ez bezala FNaren autore behinenez, sortzaileak barne, berriaz idatzi baitute FNaren eta OTaren arteko antza eta desberdintasunez. Sakondu nahi duenari Lassetre & Donegan (1998) eta Donegan & Stampe (2009), bereziki 13. atala, gomendatzen dizkiot.

¹¹ Ik. Hooper (1979: 106), teoria abiatu zutenen izen eta lan gehiagoren erreferentzia izateko. Espainieraz garatutako hizkuntz jabekuntzaren inguruko lanetan izan da beste nahaste iturri bat ere, 1980ko hamarkadan kaleratutako Ferguson & Garnika eta Ingrams itzulpenak. Lan horietatik inolako azalpen teorikorik gabe FNaren bilakabide fonologikoen zerrendak zabaldu ziren datuen sailkapenerako.

¹² Batez ere Cubako espainiera izan zuen Bjarkmanek aztergai. FNari buruzko gogoeta teoriko sakona egin zuen. Gilek aipatzen dituen pare bat lan horiek baino gehiagotan izan zuen espainiera aztergai, besteak beste Hooper eta Vennemanen eredu teorikoa eztabaidatzen duena (Bjarkman 1986).

¹³ Hemen lekurik ez duten ziklikotasuna eta bestelako gai interesgarriak ere badira fonologia ikuspegi bien arteko eraketan sakontzeko.

Teoriaren ezagutzarik eza neurtzeko orduan nahasteen ondoan jarri behar da, agian nahaste horietzek direlako errudun, maiz ez dela aipatzen, ezta kritikatzeko ere (Cole & Hualde 2011). Ereku akademikoan hori ez da eskertzekoa, kezkatzekoa baizik. Abian den Donegan, Dressler & Dziubalska (prestatzen) lanak izango ahal du bazterrak astintzeko indarra.

FNaren izenetik hasita naturaltasun kontzeptuaren garrantzia nabarmena da. Generatibismoaren barruan terminoak adierazten zuenetik aldentzen zen zentzuan erabili zuen David Stampek bere lehen aurkezpen eta argitalpenetan. Esanguratsua da 1979ko aurkezpen orokorrean Donegan eta Stampek gutxienez hiru aldiz ere justifikatzea terminoa. Lehendabizi naturaltasuna konbentzionaltasunari kontrajartzen diote (Donegan & Stampe 1979: 127). Orrialde berean, beheaxeago, Nikolai Kruszewski XIX. mendeko hizkuntzalari poloniarra aipatzen da, aitortuz bera izan zela lehena bereizten eragile fonetiko (natural) hutsez gertatzen ziren txandakatzeko fonologikoak baldintza gramatikal, lexiko edo konbentzionalak zituztenetik. Hurrengo orrialdean naturaltasuna indar esplikatzailearekin lotzen da, halako izena merezi duen teoriak ahal duena bakarrik baina osorik esplikatu behar duela aldarrikatuz: «The natural subject matter of an explanatory theory includes all and only what the theory can, in principle, explain. In the case of natural phonology this means everything that language owes to the fact that it is spoken» (Donegan & Stampe 1979: 128).

Damuaren antzekoa suma lezake inork handik hogeita hamar urtetara diotenean, «It was perhaps a bad choice. Because of the generative view that language acquisition involved an «evaluation measure», the term «natural» was interpreted as an evaluation measure» (Donegan & Stampe 2009: 6).

Bernhard Hurch izanik FNaren jarraitzaile eta garatzaile gailenenetako bat ez da harrigarri gertatuko biziki gomendagarritzat jotzea Hurch (2006) bere laburtasunean oso baita egoki FNa ulertzeko. Hizpide dugun naturaltasunaz gorago aipatutako nahaste teorikoak saihesteko berak ere gaztigu garrantzitsu bat ematen digu:

The concept of naturalness has often been paralleled yet both confused with and substituted by markedness. [...] Stampe (1973a) showed that the concept of antagonistic processes is both able to explain underlying representations and surface realizations, as well as historical change, and that what surfaces as markedness in phonology is a direct reflex of natural processes. (Hurch 2006: 542)

3.2. Funtsezko bereizkuntza bat

3.2.1. Bilakabide fonologikoak ez dira erregela fonologikoak

Donegan & Stampek (1979: 126) teoriaren oinarrian ipintzen dute XIX. mendean garatutako tesia, zioena giza ahoskatze eta hautemate indar implizituek kudeatzen dituztela hizkuntzen hots eredu biziak (*the living sound patterns*) bai hiztun bakoitzaren bai hizkuntzen mendez mendeko historietan zehar. Indar implizitu horiek Stamperen FNean *bilakabideen* bidez adierazten dira.

Bilakabideak, zailtasun fisiko eta fisiologikoei aurre egiten badiete ere, mentalak direla dio Stampek (1979: 1) bere doktorego tesiaz geroztik:

A phonological process is a mental operation that applies in speech to substitute, for a class of sound or sound sequences presenting a specific common difficulty to the

speech capacity of the individual, an alternative class identical but lacking the difficult property.

Bilakabideak ordezkatze mentalak direla esateak Sapiren fonema psikologikora garamatza eta zentzu horretan diote Donegan & Stampek (1979: 126) bilakabideei esker hautematen dugula gainerakoek hizketaren azpian datzana. Hala ulertuta gauzak, esan dezakegu bilakabideek mugatzen digutela ahoska eta hauteman dezakeguna. FNaren arabera haur txikiak lehen zezelkatze eta ahoskatzeen bidez lortzen dute jakitea zein den bere gorputzaren eta zentzumenen ahalmena, ekintza artikulatorio eta horien ondorio pertzeptiboen arteko teoria unibertsal bat eraikiz bere hizkuntzak beharko duena hautatzeko gero (Donegan & Stampe 2009: 32).¹⁴

Bada bilakabideak mentaltzat ematearen ondorio bat erraz eraman dezakeena nahastera. Bilakabideek zailtasun fisiko eta fisiologikoei aurre egiten badiete ere, bilakabideen emaitza ez da hotsa bera, hots horren abiatzea baizik, nolabait esan.¹⁵ Izan ere, FNaren arabera, horixe da fonologiaren eremua: hizketa programatu edo hautemanaren eta gauzatze fisikora bideratutako hizketaren arteko desadostasunak. Desadostasun horiek bilakabideen emaitza dira eta bilakabideak, ordezkatze mental kategorikoak Donegan & Stamperen arabera (2009: 1): «natural processes, categorical mental substitutions, each of which responds in real time to an innate limitation of the human faculty for fluent speech perception and production». Horrela *baba* esateko /baba/ da hitzunen asmoa baina euskarazko edo gaztelarazko hitzun jatorrak aparatatu fonatzaileari emango dion aginduak aintzat hartzen du bi bokalen artean erabateko hersketa (ahostuna) egiteko zailtasun erlatiboa eta bigarren kontsonantearen ekoizpenerako ezpainak ez erabat ixteko baimena emango ([baβa]). Entzuleak hitzunen oinarriko asmoa hautemango du bere fonologian bizirik badu /b/ → [β] jarraitutze bilakabidea.

Bilakabideen zioa funtsean fonetikoak denez eta, beraz, unibertsala, esperogarrien da bilakabide bat gertatzea, horretarako baldintzak betetzen diren guztietan. Kontrako arrazoirik ez badago, bestela esan, errazagoa da bilakabidea gertatzea ez gertatzea baino. Horrela uler daiteke bilakabide baten noizbehinkako gertaldia bilakabide hori atzendu ez duen hizkuntza batean, esaterako «Datorren urdean» esaldian agertzen diren /t/ → [ð] ahostuntze eta jarraitutzeak.

Hizkuntzaz jabetzean euskal hitzunek kontsonante ozenen ondoko ahostuntze asimilazioa ez egiten ikasi behar izan dute (i.e. bilakabide hori atzendu edo inhibitu egin dute), *orpo*, *hanka*, *kalte* bezalakoak hauteman eta ahoskatu ahal izateko. Baina bilakabide fonologikoak zailtasun fonetiko unibertsalei emandako erantzun naturalak direnez, hitzunenarentzat errazago da, berez, gerta daitezen. Horregatik gauzatu daitezke, blokeatzen dituen sistema fonologikoa (euskararenak, ahostuntzea) laxatzen bada presagatik, nekeagatik, urduritasunagatik, edandako alkoholagatik edo dena delakoagatik.

¹⁴ Artikulazio eta oharrenaren arteko erlazio horretaz jabetzean bereganatzen ditu haurrak tasun fonologikoak, Doneganen (1995) hizkuntz jakokuntzaren analisi fonologiko zorrotzaren arabera. Artikulu hori irakurgai interesgarri da halaber FNak hainbeste hauts harrotu izan duen sortzezkoatasunaz dioena ikusteko.

¹⁵ «Phonetic segments (phones) are not physical things. They are mental constructs with physical manifestations» (Wojcik 2009b).

Bilakabide fonologikoak ulertzeko modu horren ondorio da FNaren ekarpen handia den kontzeptu bat, bilakabide ezkutuarena (*latent process*). Halakoak dira hizkuntza batek ez inhibitu eta ezta erabiltzen ere dituen bilakabideak, ez dagoelako hizkuntzan bilakabidea atzentzea edo erabiltzea lekarkeen formarik. Hurchek (1988) hitz azkeneko ahoskabetzea aipatzen du, italeradunen ahoskeran agertzen dena ingelesa ikasten dutenean bigarren hizkuntza bezala, nahiz italeraz ez den gertatzen ez dagoelako hitz azkeneko trabaririk. *Latent process* izenaz lehenengo aldiz Churmagan (1984: 226) aurkitzen da kontzeptua, nik dakidala behintzat; dena den, lehendabizi teoriaren sortzaileak, Stampek (1969: 453), azaltzen du teoria defendatuz idatzitako lehen artikuluan *unobservable* terminoa baliatuta. Azkenik Donegan & Stampek (2009) *covert* deitzen dute.

Bilakabide ezkutuak bigarren hizkuntzen ahoskeran, mailegutan, siglak edo akronimoak irakurtzean gera daitezke agerian. Horrek FNaren beste ezaugarri bat mahai gainean ipintzeko bide ematen dit: ez dago fonologia aplikatuaren eta teorioaren arteko hesirik, ez dago kanpo-ebidentzia edo erakusgarririk. Edozein ahoskera esplikatu behar du fonologiak: edozein aurkezpen fonetiko da fonologiaren erakusgarri. Hartara maileguen edo bigarren hizkuntzaren fonologia ez da aparteko fonologia berezia.

3.2.2. Bilakabide prosodikoak, fortitioak, lenitioak

Asko axola du FNa ulertzeko orduan ohartzeak bilakabide prosodikoak direla oinarrizko sailkapen funtzionalean azaltzen diren lehenengoak (Donegan & Stampe 1979: 142-143). Ez da halabehar hutsa azaltzen diren hiru bilakabide tipoen arteko hurrenkera formala. FNean bilakabide prosodikoak beste bi bilakabide mota segmentalen aurrekoak dira. Izan ere bilakabide prosodikoek neurri handi batean baldintzatzen dute zein bilakabide segmental gertatuko den eta zein ez. Gainera, bilakabide segmentalek eremu prosodikoak dituzte gertaleku (silaba izanik txikiena). Azkenik, bilakabide prosodikoak dira hizkuntzaren hots-eredua baldintzatzen dutenak sinkroniko eta diakronikoki: «The application of prosodic processes is the most important factor in the living phonological pattern of a language and its long-range phonological ‘drift’» (Donegan & Stampe 1979: 142).

Proposatzen zaigun banaketa funtzionalean bilakabide prosodikoen egitekoa da hitz, esaldi eta perpausak doinu eta erritmo patroietan txertatzea.

Horien ondoren datoz hitzen ekoizpen fonologikoan *fortitio* bilakabideak, bokal eta kontsonanteen tasunak indartzen dituztenak eta baita ondoko beste segmentuekiko kontrasteak ere. Horrela hotsen eta hots katearen oharrena hobetzen da, nahiz ahoskera ere erraz litekeen. Euskaraz bada hala analiza daitekeen gertakari bat behintzat, kontsonante ozenen ondoko afrikatzea (Oñederra 2020). *Fortitio*ak dira disimilazioak, diptongatzeak, silabagiletzeak, epentesiak. Indartzeak gune prosodikoki indartsuetan gertatzen dira errazago.

Hirugarren dira hitzen deklinabide fonologikoan *lenitio* bilakabideak, segmentuak eta kateak ahoska-errazagoak egiten dituztenak eta ez dutenak hizkeraren oharrena hobetzen, hiztunaren erosotasuna baizik, istorio luze bat labur azalduta hemen: asimilazioak, monoptongatzeak, desilabagiletzeak, murriztapenak eta kenketak. Prosodikoki ahulak diren guneetan dute gertatzeko joera handiagoa.

Hualderen urte luzeetako euskarari buruzko lan oparoetatik ateratzen diren datu eta sailkapenak banaketa funtzional honen arabera aztertzeak etorkizun handiko ikerbidea lukeela dirudi. Bereziki interesgarria litzateke, zehazki, euskal azentuari buruzko bere azalpenak *fortitio* eta *lenitioek* azentuarekin duten erlazio desberdinen argitan ikustea. Hainbeste eta hainbeste lanen artean bilatzea bera zaila denez, autore-kide bera izatea, berritasuna eta gertutasuna erabiliko ditugu esateko, adibidez, polita litzatekeela Hualde & Beristain (2017) eta (2019) gurutzatzea, ikusteko azentuaren kokalekuaren eta ordezkatzeko (alofoniko, bere hitzetan) gertakarien artean baden erlazio esanguratsurik.

Donegan eta Stamperen sailkapen hirukoitz laburtu lasterlean aipatu gabe utzi ditudan artean, bada gai bat beheragoko 4. atalera igarotzeko orduan bereziki azpimarratu nahi nukeena. *Fortitioen* nondik norakoak azaltzean ari direla, modu kriptiko samarrean (Donegan & Stampe 1979: 141) testuak dio: «Some fortition processes may apply regardless of context».

3.3. Fonologiaren mugak: erregelak

FNak fonetikan duen oinak, bilakabideen motibatzaile eta esplikabide nagusi duelarik, nahitaez dakar morfologiarekiko hesia fonologiaren antolaketa. Fonetikak eragiten ez duena fonologian sartzen bada, fonetikari indar esplikatzailea kentzen zaio. Horregatik, FNak erabateko desberdintasuna egiten du zio fonetikoak duten hots ordezkatzeeen eta txandakatzeko morfofonemikoen artean. Lehenak bakarrik, bilakabideak, azaltzen dira fonetikoki eta lehenek bakarrik osatzen dute hizkuntzaren fonologia bizia. Txandakatzeko morfofonemikoek murriztapen lexiko edo gramatikalak izaten dituzte. 3.1. atalean adierazi bezala, bereizkuntza hau ez du FNak bakarrik egiten, noski, baina, Hurchek (2006: 541) dioen bezala, badu teoria honek bereizitasun garrantzitsu bat:

This is not just a difference of definition, but instead we are dealing with two ontologically different phenomena, and it is necessary to stress this argument, as mostly formal oriented theories do claim that these two types hold the same ontological status, differing only in the location in the grammar.

Stamperen azken argitalpenetan bizirik zirauen bilakabideen eta erregelen arteko bereizkuntza ontologikoa nabarmentzeko beharrak FNa inguruko ikuspuntu teorioetatik bereizteko orduan: «[...] generative phonology has had to draw a distinction between lexical and post-lexical rule applications, but it has treated automatic phonological processes as a sort of postlexical afterthought, not distinguished in kind from conventional (lexical) rules» (Donegan & Stampe 2009: 7). Aldarriaren aspaldikotasuna bere tesitik hartutako aipu honek erakusten du:

[...] it is essential that the distinction between innate phonological processes and acquired phonological 'rules' [...] be kept firmly in mind, for these two classes of constraints have quite different characteristics. [...] The distinction between processes and rules, as I understand it is an absolute one, a distinction between constraints which the speaker brings to the language and constraints which the language brings to the speaker [...]. (Stampe 1979: 46-47)

Erregela morfonologikoak ez dira beraz fonologia, baina erraz nahas daitezke bilakabide fonologikoekin analisisian, oso antzeko itxura baitute eta, horregatik, berdin

formaliza daitezkeelako. Izan ere erregela askoren jatorri diakronikoa horixe da: inoiz fonologikoki emankor izandako bilakabide fonologikoen fosiltzea, baldintza lexiko jakinetan edo ingurune gramatikal zehatz batzuetan bakarrik iraunez emankor. Hualdek (eta bestek, ni barne) euskaran aztertu dituen asko eta asko halakoak dira, berak agerian uzten duen bezala hots ordezkatzeen baldintzatzaile gramatikalak esplizituki adierazita (azentuaren kokalekuez, esaterako, nabarmen) edo gertarazten dituzten azpimultzo lexikoak sailkatuz.

Badu bilakabide-erregela bereizkuntzak beste ondorio bat. Erregelaren azterketak, hizkuntzaren historiak argi eman balezake ere (eta hori ez da gutxi euskararen kasuan), ez du zuzenean hizkuntzaren sistema biziaren berri ematen. Horretarako, bilakabide ez fosilduak aztertu behar genituzke eta, oso litekeena da, ordezkatze alofoniko garbiez aritu behar izatea batik bat.¹⁶

Gainera, erregela morfonologikoak izatez direlako bilakabide fonologikoak ez bezalakoak, gerta daitezke esplikaezin eremu fonologikoan baldintza fonetikoaren arabera. FNaren ikuspuntutik ez dago fonologia arbitrariorik edo baldintza soziolinguistikoko bereziek bultzatutako motibaziorik gabeko fonologia —*unmotivated*, Hualderen (1993) artikulua izenburua gogoan— baizik eta berez fonologiari ez dagozkion hots ordezkatzeak.

Esandakoak esanda, halere, onartu behar da, erregela morfonologikoak fonologiari ez badagozkio ere, hizkuntzaren fonologia biziaren zati ez diren neurrian, fonologian analizatu ohi direla, eta fonologialarioi dagokigula analizatu eta morfonologiaren sailean jartzea. Erraz da McCawleyrekin (1979: 301) bat etortzea eskatzen duenean erregela deituz informazio (berak *coverage* esaten du) hobea ematea.

Merezi luke zehazki aztertzea zenbateraino erantzun izan zaion eskariari. Izan dira aspaldi hartatik hona ekarpenak. Esaterako, beti interesgarri den Arnold Zwickyrena bezalakoak, analisiari zuzen-zuzeneko laguntza zekarkiona:

[...] morphological rules apply within morphosyntactic domains (and so can be subject to conditions statable over morphosyntactic structures) while properly phonological rules apply within prosodic domains (and so can be subject to conditions statable over prosodic domains these being systematically related to morphosyntactic structures while not being identical to them). (Zwicky 1987: 224)

Gorago aipatu den bereizkuntza (bilakabide fonologiko biziak tasun eta eremu prosodikoei dagozkie, erregelak berriz fonemei dagozkie eta eremu morfosintaktikoetan deskriba daitezke) osatzen du Zwickyren gaztiguak. Horretaz gain, ondoren, aski eskematikoki bada ere, datuen analisirako bilakabide eta erregelaren arteko desberdintasunerako zantzu garrantzitsu gerta daitezkeenak zerrendatuko dira:

Erregelak beste hiztunen imitazioz ikasten dira.

Erregelak sor daitezke, besteak beste (Oñederra 2002, 2005), bilakabide fonologikoak fosiltzean (e.g. singularreko /alaba+a/ > [alaβea]) edo zenbait bilakabide diakronikoki pilatuta (e.g. *leone(m)* > [leoʝ]). Badu euskarak palatalizazio adierazgarrian

¹⁶ Ordezkatze alofoniko «garbi» esanez (ez da ziurrenik modurik egokiena *sensu stricto* esateko), saihestu nahi ditut neutralizatzaile diren ordezkatzeak, «alofoniko» dei daitezkeenak bakarrik edozein ordezkatzaile delako ordezkatuaren alofono (e.g. Hualde & Beristain 2019).

bilakabide fonologiko baten zaharkitzetik ez datorren ordezkatzeko morfofonemiko deigarri bat (*zezen* > *xexen*).¹⁷

Bilakabideek zio fonetiko sinkronikoa dute. Erregelak konbentzionalak dira sinkronikoki aztertuta.

Bilakabideek ez dute funtzio gramatikal edo semantikorik betetzen, erregelek baitezakete.

Bilakabideak innatoak dira, gizakiak sortzez dituen zailtasun edo murriztapenei baitagozkie. Erregelak besterengandik ikasten dira. Euskaraz edonork esan lezake *ez naiz* [esnajs], baina hizkera batzuetan [enajs] esateko ohitura ikasten dute.

Bilakabideak inhibitzeak zailtasun fisikoak dakarkio hiztunari. Erregelak atzenzeak, ez. Txistukaria ekoiztea ezezko partikula ahoskatzean *ez naiz* [enais] egiteko ohitura duenari ez zaio kostatzen fisikoki. Berdin, *rápídamente* ahoskatzean *o* > *a* erregela ez erabiltzea gaztelaniaz. Baina bokalen arteko herskari ahoskunak ez jarraituzteak (*baba* [baba]) ahalegina eta deserosotasuna ekarriko lizkiguke.

Bilakabideen emaitzak oharkabean gerta dakizkioke hiztunari, batez ere alofonikoak direnean.¹⁸ Erregelak ere ez dira nahitaez jakinaren gainean gertatzen, baina ez dira inoiz *sensu stricto* alofonikoak izango, fonemen arteko txandakatzek baitira. Izan ere erregelak besteren behaketa eta imitazioz ikasi ohi dira, eta hiztunak ez dira aldaera alofonikoez ohartzen.

Bilakabideak nahigabeko hutsetan azaleratzen dira. Erregelak ez. Bereizkuntza honengatik da bereziki garrantzitsu *apo-erderea* bezalako hizkera ezkutuen azterketa.

Lehen hizkuntzaren bilakabideak bigarren hizkuntzetan ere gertatzen dira, erregelek ez.

Bilakabideek estilo eta tempoaren araberako aldakortasuna ager dezakete. Erregelek ez dute halako baldintzarik.

4. Bai, Virginia... badira fonemak

Halaxe hasten da Stamperen (1968) lan irakur-zail bezain interesgarri trinkoa, «Yes, Virginia... there are phonemes». Manifesto moduko bat da, fonemaren ezinbestekotasun eta garrantzia aldarrikatzen duena. FNean fonema ez da, noski, deskriptorako etiketa hutsa, errealitate sendoko zerbait baizik.

Stamperen aldarriaren testuingurua ezagutzea komeni da, oraindik ere orduko aukera zabaldueen ondorioak nabari baitira. Fonologia estrukturalistetan (amerikarrean eta europarrean) fonema unitate garrantzitsua zen, funtsean hotsak eta hotsen arteko aurkakotasunak sailkatzeko ezinbestekoa zelako. Ondoko aipu luze honetan jasotako lerro bakar batek ez du gaurkotasunik galdu, areago, tresnabidezko datuen arazoari dagozkionak bezala, batzuk indartu egin direlakoan nago:

Distinctive value was the foundation of the structuralists' functional definitions of the phoneme as an oppositional element (Saussure 1949), definable in terms of its distinctive features (Jakobson 1932a, Bloomfield 1933). This relativistic conception

¹⁷ Hemendik beherakoak Doneganek 2008ko Poznan Linguistic Meeting biltzarrean (Gniezno, 2008.IX.12) aurkeztu «Hypotheses of Natural Phonology» txostenaren eskuorritik jasoak dira. Txosten hori Donegan & Stampe (2009) argitalpenaren abiapuntutzat har daiteke.

¹⁸ Ik. 16. oinoharra.

of phonemes, which provided a rationale for concentrating just on the differences capable of distinguishing words, is understandably appealing to the linguist confronted by a growing but somehow irrelevant mass of instrumental phonetic detail. But words are not only *distinguished* by sounds, they are *made up* of them. It is no less important that the sounds that constitute words be distinguishable that they be pronounceable, combinable, and perceivable (articulate, audible). (Donegan & Stampe 1979: 129)

Baudouin de Courtenaygana itzultzen da Stampe, onartzeko (Trubetzkoyk Forchhammerri egindako gutunean bezala eta printzearen hitzak errepikatuta) fonema dela *Lautabsicht* ‘hots asmoa’, *Lautidee* ‘hots ideia’, *Lautvorstellung* ‘hots irudia’ (hiztunak hotsa nola irudikatzen duen bere buruan alegia).¹⁹ 1895ean Baudouin de Courtenayk *psikofonetika* deitzen zuen fonologiaren unitate oinarritzko zen fonema, oharmen unitate bat. Doneganek (1995: 61) salatu bezala estrukturalistek kontrastea, fonemak bilatzeko tresna zena, fonemaren definizio bihurtu zuten, kontzeptua hainbeste hustuz, non generatibismo klasikoak, 1959an argitaratutako Halleren tesi-az geroztik eta analisiaren ekonomia formalaren izenean, fonema-maila ez-beharrezkotzat jo zuen: «Tenuous psychological distinctions were abandoned [...] in favor of an economy criterion» (Bjarkman 1986: 82). Oraindik ere arrunta da hizkuntzalarien artean pare minimoak hartzea fonema baten existentziaren frogatzat edo *fonema* terminoa *hots unitate*-ren parekotzat jotzea, generatibismoak hustutakoa berriz ere estrukturalistek hain txukun definitutako fonema eta pare minimoekin bete balitz bezala hizkuntzalarien irudimenean.

FNaren fonema, beraz, oharmen, memoria eta intentzio unitatea da, hizkuntza jakin batean hitzunarentzat posible den hots bat: hauteman dezakeena, memorian gorde dezakeena hitz edo morfemen formak gogoratzeko, berariaz erabil dezakeena hitzak ahoskatzeko.

Badira bi gai maiz nahasten direnak baina kontuz berezi behar direnak: (a) morfemak nola aurkeztu eratorpen fonologikoaren aurreko oinarritzko forman eta (b) zeintzuk diren hitzunik berez hauteman eta nahita ahoska ditzakeen hots unitateak. Morfemak fonemetan aurkeztu behar ote diren ez da teoria guztiek berdin erantzungo luketen galdera. Pentsa dezagun fonema baino elementu txikiagoak proposatzen dituztenez, tasun geometriez, autosegmentuez, etab. (ik. Cole & Hualde 2011). Esaterako euskal kontsonante sabaikari zenbait agian ez dira oinarritzko forman berez sabaikarizat eman behar, inguruneak konpontzen badu arazoa. Edonola ere, FNaren ikuspuntutik kontsonante palatala, hitzunik bereizten duen neurrian eta berez nahita erabil badezake, fonema da. Artikulu oso baterako emango lukeen arazoa hemen telegrafikoki iragarri, FNaren arabera ahoskera bakar batek aurkezpen fonemiko bat baino gehiago izan ditzake, azalenetik zantzu morfologiko eta gramatikalei esker berreraiki daitekeen sakonenera. Esango nuke, bide honetatik luza genitzakeela Hualde & Beristainek (2019: 342-344) herskariei buruz irekitzen dizkiguten galdera interesgarriak. Aurreko ataleko eta Hualderen beste lanetako irristarian estatusari buruzko eztabaida, berriz laburragoa genuke: FNean ez dira fonema, hitzuna-

¹⁹ Ik. Oñederraren (2004: 155-160) gutun horren euskarazko itzulpena. Trubetzkoyren onarpenak zeharkakoa eta fonetikariaren aurrean beste irtenbiderik ez duelako egina dirudi. Aurrerantzean Pragako estrukturalismoaren kontraste minimoen bilaketan fonema urtu egin zen tasunen artean.

rentzat *bai* [baj] eta *bi* [bi] hitzetako azken hotsa /i/ berbera delako eta hori delako bi hitzak ahoskatzean duen intentzioa (cf. Hualde 2019: 340-342).

Bestalde, bilakabide fonologikoen funtzionamendurako fonema ez da bereziki garrantzitsu. Adosten hain zaila gertatzen den fonemaren definizioa oharmenaren aldetik bilatu du FNak, hor dago fonemaren identitatea. Hiztunaren oharmenak, intentzioak eta epe luzeko memoriak behar dute fonema, horretarako «tresna» dela esanenezake, baina bilakabide fonologikoak ez dagozkio segmentuei, baizik eta bakarrik tasun konbinaketa eta prosodiari. Gorago (§ 3.3) esan da erregela morfonologikoak direla fonemei dagozkienak.

3.2. atalaren azken lerroan iragarri bezala badira ingurunerik gabeko bilakabideak. Hain zuzen ere fonemak ingurunez landako bilakabideen bidez eratzen dira; horiek dira hizkuntzaren fonema inbentarioa kudeatzen dutenak. Ingurunez landako bilakabideak lirerateke haurrak, ahoskeraz jabetu ahala, hotsak eratzeko aurkitzen dituen tasun konbinaketa erlatiboki hautemangarriago eta ahoskaerrazagoak (Donegan 1995: 5). Hizkuntza batek konbinaketa optimoek (adib., bokal-ahokari, trabari-ahoskabe) ahalbidetzen dituzten fonemak baino gehiago behar dituen heinean bakarrik inhibitzen dira tasun konbinaketa optimoak sortzen dituzten bilakabideak. Horregatik, euskarak bezala, igurzkar mota bakarra duen hizkuntzak igurzkar ahoskabeak (eta ez ahostunak) izango ditu fonemikoki edo, bokal mota bakarrarekin aski badu, bokal horiek ahokari (eta ez sudurkari) izango dira. Esan daiteke, nolabait, hizkuntza baten aberastasun fonemikoa zailtasun fonetiko erlatiboetan ordaintzen dela.

Bilakabideen dinamikaren arabera ulertzen dugunontzat fonologia ez da beti erraz jakitea zein den zehazki delako fonema baten tasun konbinaketa zehatza. Trabari ideala hersketa dela dakigulako, erraz hautatzen dugu [b]ren eta [β]ren artean lehenaren tasun konbinaketa aurkezpen fonemikorako (/b/). Baina, zer gertatzen da [j] eta [j̥] parearekin? Ahoskune palatalean ere hersketa al da trabarik onena? Eta horrekin zeharka lotutako galdera: nola egin aurre bi norabidetan gertatzen den [r] – [ɾ] txandakatzeari (Hualde & Beristain 2019) ikuspuntu honetatik? Zein da, alegia, bi horien artean oinarrizkotasuna merezi lukeen tasun konbinaketa onena? Edonork ikus lezake hemen fonetikari begira jartzen gabela.²⁰

Edonola ere eta laburtuz, esan daiteke fonema dela hiztun jatorrak berez hauteman dezakeen tasun konbinaketa, dela bilakabide ingurunegabea gorde delako (igurzkar ahoskabeak baina ez ahostunak) edo inhibititu delako (herskari ahoskabe eta ahostunak). FNak, bilakabide naturalen bidez esplikatzeko fonema inbentarioa, fonologikoki esanguratsutzat hartzen du, hizkuntza bakoitzaren sistema fonologikoaren atal bizitzat ez besterik gabeko unitate zerrendatzat (Donegan 2002: 64).²¹

²⁰ Oso luzea litzatekeen bibliografia osagarriko eta, zalantzarik gabe, eztabaida aberastuko delako, Blevins (2019).

²¹ *Mutatis mutandis* Roman Jakobsonen elkartasun arauak (*irreversible solidarity laws*) esplikazio fonetikoak lukete bilakabide ingurunegabeen bidez. Markatutasuna dela eta, gogoratu 3.1. atal azkeneko Hurchen aipua. Kontuz gogoratzeak da FNean bilakabide bakoitza, tasun pare konbinaketa bakoitza dela fonetikoki motibatua.

5. Amaitzeko

Asko dira, noski, ukitu ere egin ez ditugun FNaren osagaiak. Teoriaren hasiera kokatu eta marratzen duen fonologiaren funts behinenean berri eman nahi izan da. Hualdek urte luzeetan euskarari buruz egindako lan oparoetatik ateratzen diren datu eta sailkapen ugariak FNaren proposamenen arabera irakurtzea egitasmo erakargarria gerta lekiok egin gure ondoko ikerlariren bati. Bitartean, fonologia egiteko urteen zama beste lan batzuetarako baino askoz arinagoa denez eta intereseko dugunari buruzko pentsamenduak gaztetasunari eusteko ariketa aproposa, segi dezagun ikasten.

Bibliografia

- Bjarkman, Peter C. 1986. Natural phonology and strategies for teaching English/Spanish pronunciation. In Peter C. Bjarkman and Victor Raskin (arg.), *The Real-World Linguist: Linguistic Applications in the 1980s*, 77-115. Norwood, N.J.: Ablex.
- Blevins, Juliette. 2019. Deconstructing markedness in sound change typology. Notes on $\theta > f$ and $f > \theta$. In Lars Heltoft, Iván Igartua, Brian D. Joseph, Kirsten Jeppesen Kragh & Lene Schøsler (arg.), *Perspectives on language structure and language change*, 107-122. Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins.
- Chomsky, Noam. 1957. *Syntactic Structures*. Haga: Mouton.
- Chomsky, Noam & Morris Halle. 1968. *The Sound Pattern of English*. New York, Evanston & Londres: Harper & Row.
- Churma, Donald G. 1984. Impossible nativizations as phonological evidence and the explanation of constraints on phonological structure. *Journal of Linguistics* 20. 223-227.
- Cole, Jennifer & José Ignacio Hualde. 2011. Underlying representations. *The Blackwell Companion to Phonology I. Segmental and Subsegmental Phonology*, 1-24. Londres: Blackwell.
- Dinnsen, Daniel A. 1979. Introduction. In Daniel A. Dinnsen (arg.), *Current approaches to phonological theory*, ix-xiii. Bloomington: Indiana University Press.
- Dinnsen, Daniel A. 1980. Phonological rules and phonetic explanation. *Journal of Linguistics* 16. 171-191.
- Donegan, Patricia. 1995. The innateness of phonemic perception. In Vida Samiian & Jeanette Schaeffer (arg.), *Proceedings of the 24th Western Conference on Linguistics*, vol. 7, 59-69. Fresno, CA: Dept. of Linguistics, California State University.
- Donegan, Patricia. 2002. Phonological processes and phonetic rules. In Katarzyna Dziubalska-Kolaczyk & Jarosław Weckworth (arg.), *Future challenges for natural linguistics*, 57-81. Munich: LINCOM EUROPA.
- Donegan, Patricia. 2013. Normal vowel development. In Martin J. Ball & Fiona E. Gibbon (arg.), *Handbook of vowels and vowel disorders*, 24-60. New York & Hove, U.K.: Psychology Press.
- Donegan, Patricia, Wolfgang U. Dressler & Katarzyna Dziubalska (arg.). Prestatzen. *The Cambridge handbook of natural linguistics*.
- Donegan, Patricia & Geoffrey Nathan. 2015. Natural phonology and sound change. In Patrick Honeybone & Joseph C. Salmons (arg.), *The Oxford handbook of historical phonology*, 431-449. Oxford: Oxford University Press.

- Donegan, Patricia & David Stampe. 1979. The study of natural phonology. In Daniel A. Dinnsen (arg.), *Current approaches to phonological theory* 126-173. Bloomington: Indiana University Press.
- Donegan, Patricia & David Stampe. 2009. Hypotheses of Natural Phonology. *Poznań Studies in Contemporary Linguistics* 45(1). 1-31.
- Gil Fernández, Juana. 2000. Un cuarto de siglo de fonología española. In Juana Gil Fernández (arg.), *Panorama de la fonología española actual*, 19-126. Madrid: Arco Libros.
- Hooper, Joan B. 1979. Substantive principles in Natural Generative Phonology. In Daniel A. Dinnsen (arg.), *Current approaches to phonological theory*, 106-125. Bloomington: Indiana University Press.
- Householder, Fred W. 1979. Review article: How different are they? In Daniel A. Dinnsen (arg.), *Current approaches to phonological theory*, 252-264. Bloomington: Indiana University Press.
- Hualde, José Ignacio. 1993. Phonologically unmotivated changes in language contact: Spanish borrowings in Basque. *Folia Linguistica* 27. 1-25.
- Hualde, José Ignacio. 2019. Fonologo baten galderak espektrogramaren aurrean. In Irantzu Epelde & Oroitz Jauregi (arg.), *Bihotz abots. M. L. Oñederra irakaslearen omenez*, 339-351. Bilbo: UPV/EHU.
- Hualde, José Ignacio & Ander Beristain. 2017. Azpeitiko azentuaren gauzatze fonetikoaz. *FLV* 123. 65-85.
- Hualde, José Ignacio & Ander Beristain. 2019. Bi alofonia-gertakari Azpeitiko euskararen. In José I. Hualde, Ander Beristain, Aintzane Etxebarria, Aitor Iglesias, Hiart Lejarreta & Asier Romero (arg.), *Traineru bete lagun: Iñaki Gaminde omenduz*, 209-227. Bilbo: UPV/EHU.
- Hurch, Bernhard. 1988. On the notion «latent process». In Pier Marco Bertinetto & Michele Loporcaro (arg.), *Certamen phonologicum. Papers from the 1987 Cortona Phonology Meeting*, 103-115. Torino: Rosenberg & Sellier.
- Hurch, Bernhard. 1998. Optimalität und Natürlichkeit. *ZAS Papers in Linguistics* 13. 115-139.
- Hurch, Bernhard. 2006. Natural phonology. In Keith Brown (arg.) *Encyclopedia of language and linguistics*, 2nd edn. vol.8, 541-543. Oxford: Elsevier.
- Lassette, Paul & Patricia Donegan. 1998. Perception in optimality theory: the frugality of the base. In Benjamin K. Bergen, Madelaine C. Plauché & Ashlee C. Bailey (arg.), *Proceedings of the 24th Annual Meeting of the Berkeley Linguistics Society*, 346-355. Berkeley: Berkeley Linguistics Society.
- Maddieson, Ian. 2009. Phonology, naturalness and universals. *Poznań Studies in Contemporary Linguistics* 45(1). 13-140.
- Major, Roy C. 2008. Transfer in second language phonology. In Jette G. Hansen Edwards & Mary L. Zampini (arg.), *Phonology and second language acquisition*, 63-94. Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins.
- Oñederra, Miren Lourdes. 2002. Palatalization revisited: bustidura adierazgarriaren estatuz ohar batzuk. In Xabier Artiagoitia, Patxi Goenaga & Joseba A. Lakarra (arg.), *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk (ASJUren Gehigarriak 44)*, 499-509. Bilbo: UPV/EHU.
- Oñederra, Miren Lourdes. 2004. *Fonetika fonologia hitzez hitz*. Bilbo: UPV/EHU.

- Oñederra, Miren Lourdes. 2005. Fonologiaren mugak: *alabea eta birjinak elexan*. In Pilar-txo Etxeberria & Henrike Knörr (arg.), *Nerekin yaio nun (IKER 17)*, 379-397. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Oñederra, Miren Lourdes. 2020. Consecuencias en el bilingüismo actual de algunas divergencias diacrónicas entre castellano y vasco. In M.^a José Martínez Alcalde, Juan Pedro Sánchez Méndez, Francisco Javier Satorre Grau, Mercedes Quilis Merín, Amparo Ricós Vidal, Adela García Valle, Francisco Pedro Pla Colomer & Santiago Vicente Llacata (arg.), *El español y las lenguas peninsulares en su diacronía: miradas sobre una historia compartida. Estudios dedicados a M.^a Teresa Echenique Elizondo*, 419-434. Valencia & Neuchâtel: Tirant Humanidades & Université de Neuchâtel.
- Oñederra, Miren Lourdes. Prestatzen. *El patrón sonoro de la lengua vasca*.
- Stampe, David. 1968. Yes, Virginia, ... *Fourth Regional Meeting of the Chicago Linguistic Society* biltzarrean aurkeztutako txostena.
- Stampe, David. 1969. The acquisition of phonetic representation. In Robert I. Binnick, Alice Davidson, Georgia M. Green & J. L. Morgan (arg.), *Papers from the Fifth Regional Meeting of the Chicago Linguistic Society, April 18-19, 1969*, 433-444. Chicago: University of Chicago (Berrargit. in Stampe 1979: vii-xxv; berrargit. Barbara C. Lust & Claire Foley (arg.), *First Language Acquisition: Essential Readings*, 307-315. Oxford: Blackwell, 2004).
- Stampe, David. 1979. *A Dissertation on Natural Phonology*. New York: Garland.
- Wojcik, Richard. 2009a. Welcome to natural phonology. *Natural Phonology* [blog, 2009-02-12]. <https://phonology.wordpress.com/2009/02/12/welcome-to-natural-phonology/> (2023/12/19).
- Wojcik, Richard. 2009b. The role of rules in speech production and perception. *Natural Phonology* [blog, 2009-03-03]. <https://phonology.wordpress.com/2009/03/03/the-role-of-rules-in-speech-production-and-perception/> (2023/12/19).
- Zwicky, Arnold M. 1987. French prepositions: no peeking. *Phonology* 4, 211-227.

Aditz sintagmaren barne-argumentuen hierarkia komuntzadurarik gabeko testuinguruetan¹

The hierarchy of internal VP-arguments in agreementless contexts

Javier Ormazabal*

Hizkuntzalaritza Teorikorako Taldea (HiTT)
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: The aim of this work is to contribute to clarify the hierarchy of the VP-internal arguments in Basque through the analysis of structures that have not been used with that goal so far. I identify a set of agreementless syntactic contexts —the different *-tze* nominalizations and participial structures, coordinated constituents, agreementless imperatives, some modal contexts— and compare them to inflected clauses. A systematic analysis of reciprocals in the *Euskal Prosa Gaur (EPG)* corpus shows that the hierarchy is the opposite in the two structure types, a result that only may be attributed to some transformation at the syntactic level. Constituent order aside, we may also conclude that the lack of overt agreement in all these structures is not a morphological «gap» but the symptom and consequence of the lack of the corresponding syntactic process. If that is right, agreement and Case must be autonomous processes, given that when there is no agreement we must look for the source of Case somewhere else.

KEYWORDS: agreement; argument hierarchy; nominalizations; coordinated structures; imperatives; Case.

¹ Euskararen gramatikaren beste hainbat alorretan bezala, gure Jose Ignacio artikulu honetan jorrazten ditudan gaietan ere aitzindaria izan da hein handi batean. Harrituko nintzateke beste hainbat gairekin gertatu ohi denez gai honetan ere ikuspuntu desberdinak edo kontrajarriak izango ez bagenu, baina gure diferentziak ez dira maila zientifikotik haratago inoiz joan. Azken urteotan gure bideak oso gutxitan gurutzatu badira ere, oroitzapen onak ditut Donostian eta, batez ere, Gasteizko kaleetan zehar, Myriamekin eta Josebarekin izaten genituen eztabaida bukaezinak —Joseba, Myriam eta Jose Ignacio tartean egonik, ezin daitezke bestelakoak izan— eta umorez beterikoak.

Lan hau Hizkuntzalaritza Teorikorako Taldearen (HiTT) *Euskal Unibertsitate Sistemako Taldeak* deialdiaren barruko IT1396-19 eta IT1537-22 proiektuei esker burutu ahal izan da.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Javier Ormazabal. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila - Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitateen ibilbidea, 5 (01006 Gasteiz). – ormazabal.linguistics@gmail.com – <https://orcid.org/0000-0002-9774-8247>

Nola aipatu / How to cite: Ormazabal, Javier (2023). «Aditz sintagmaren barne-argumentuen hierarkia komuntzadurarik gabeko testuinguruetan», *ASJU*, 57 (1-2), 757-772. (<https://doi.org/10.1387/asju.25995>).

Jasoa/Received: 2023-09-24; Onartua/Accepted: 2023-11-17.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago

LABURPENA: *Lan honen xedea euskarazko AS-barneko argumentuen arteko oinarrizko hierarkia orain arte helburu horrekin erabili ez diren testuinguru sintaktiko batzuen bidez argitzen laguntzea da. Horretarako, ageriko komunztadurarik gabeko egitura desberdinak identifikatzen ditut —TZE nominalizazio eta partizipio egitura desberdinez gain, osagai koordinatuak eta aginterazkoak, aditz aspektual eta modalen zenbait testuinguru— eta perpaus jokatuak jokoarekin erkatzen. Euskal Prosa Gaur (EPG) corpuseko elkarkarien analisi sistematikoak erakusten du hierarkia alderantzizkoa dela bi egitura motetan, eta iraulketa hori bakar-bakarrik sintaxi mailako eragiketa baten ondorioa izan daitekeela. Hurrenkeraz gain, ikus dezakegu egitura hauetan guztietan komunztadura ez agertzea ez dela «butsune» morfologiko bat, komunztadurari dagokion prozesu sintaktikoaren faltaren sintoma eta ondorioa baizik. Hala bada, komunztadura eta kasu erkaketa zeharo prozesu autonomoak behar dute izan, komunztadura erlaziorik ez dagoenean kasu erkatzearen iturria komunztadura ez beste leku batean bilatu behar dugunez.*

HITZ GAKOAK: *komunztadura; argumentu-hierarkia; nominalizazioak; perpaus koordinatuak; agintera; Kasua.*

1. Sarrera: perpausaren DetS argumentuen hierarkia

Sintaxialarien artean euskararen perpaus egitura konfigurazionala dela ez da eztabaidatzen den zerbait gaur egun. Eztabaidaren pil-pilean dago, berriz, konfigurazio hori zein den eta hori erabakitzeke irizpide egokiak zeintzuk izan daitezkeen. Horien artean luze jo duen eztabaida bat (1) bezalako egitura ditransitiboan argumentuen hurrenkera hierarkikoarena da.²

- (1) Nire amak aitari prakira gorria ekarri dio.

Deskripzio mailan, egitura hauekin hainbat ezaugarri lotu dira literaturan; horietako batzuk nolabaiteko akordioa lortu dute urteetan zehar. Adibidez, egitura hauetan badaude argudio sintaktiko eta morfologikoak komunztaduradun datiboak izen sintagmak direla —eta ez postposizio sintagmak— erakusten dutenak, lan askotan argudiatu bezala (Hualde 1986; Elordietza 2001; Albizu 2001; Oyharçabal 2010; Etxepare 2014; Fernandez 2014; Pineda 2014; besteak beste). Halaber, adostasun orokorra dago ikerlarien artean perpaus ditransitiboetako aditzarekin komunztadura erakusten duten hiru osagai gramatikalen arteko hierarkia kanonikoa (2)-koan zehazten dena dela:

- (2) Subjektua_{ergatiboa} > Zehar Osagarria_{datiboa} > Osagarri zuzena_{absolutiboa}

Euskararen hitz hurrenkera askea kontuan izanda, askotan zaila da argumentuok euren lekuan iltzatzea, baina zehar objektua osagarri zuzena baino gorago dagoela erakusten duten anitz frogak aurkeztu dira (Fernández 1997; Montoya 1998; Elordietza 2001; Arregi 2003; Oyharçabal 2010; besteak beste). Argudio hauetako bat errepikatzearen, azter dezagun ondoko kontrastea:

- (3) a. Jon_i ez zen ohartu *pro*_i bere burua_i aipatzen niola.
b. *Jon_i ez zen ohartu *pro*_i bere buruari_i aipatzen niola.

² Ez da eztabaida bakarra. Ez da gutxiagokoa, adibidez, antisimetriaren vs. buru-parametroaren inguruko eztabaida korapilatsua; gai honen inguruan ikusi, batez ere, Arteatz, Artiagoitia & Elordietaren (2008) liburuko sarrera eta bertako artikulua sorta eta erreferentziak —haien artean Elordietza (2008) bereziki—. Ikusi, baita ere, Haddican (2004) eta Etxepare & Haddican (2017).

(3a)-ko menpeko zehar objektuaren posizioko argumentu isilak absolutiboan agertzen den anafora (*bere burua*) uztar dezake. Kontrako erlazioa, berriz, osagarri zuzen posiziotik datiboko anafora uztartzea, ezinezkoa da (Oyharçabal 2010). Asimetria honek erakusten duenez, datibo komunztaduradun perpaus jokatueta, zehar objektuak osagarri zuzena o-mandatzen du, hortaz, gorago dago egituran. Oyharçabalen froga hau bereziki adierazgarria da, uztartzailea izenordain isila izanik, perpausaren balizko osagaien arteko segidarekin jolasteko aukerak murrizten direlako, A²-mugimenduen bidez iraultzeko faktoreen eragina kontrolatuz.

(3)-ko komunztadura posizioen hierarkiari buruz eztabaida gutxi badago ere, teoria bihurtzailean honek ez du ziurtatzen oinarrian argumentuak hurrenkera berean sortu direla euren θ -posizioan, eta maila honetan eztabaida gehiago dago, bai euskararen gramatikaren eremuan baita beste hizkuntzenetan ere. Ikertzaile askoren arabera (Elordieta 2001; Oyharçabal 2010; Etxepare & Oyharçabal 2009, 2013; besteak beste) oinarritzko θ -egituran ere hierarkia bera dugu —hau da, aurrekoan bezala absolutiboa datiboa baino beheiago sortzen dela— baina saio gutxi egin dira proposamena enpirikoki finkatzeko. Oyharçabal (2010) saiatzen da argudiatzen, *-na* eta *bakoitza* distributiboen portaeran oinarriturik, zehar objektua osagarri zuzenaren gainean dagoela deribazioaren une guztietan, baina ez dut uste argudioa borobila denik. Har dezagun *bakoitza*-ren kasua. Haren ustez, (4) adibideak erakusten du ez bakarrik datiboa bere komunztadura posizioan absolutiboa baino gorago dagoela, baita ere erlazio hierarkiko hori deribazio osoan zehar apurtu ez den hurrenkera dela:

(4) *Irakasleak ikasle bati liburu bakoitza eman zion.

Argudioa da oinarrian *liburu bakoitza* osagarri zuzena *ikasle bati* zehar objektuaren gainean egongo balitz, maila horretan *bakoitza*-ren o-komando baldintza estrukturala beteko litzatekeela eta esaldiak ona izan beharko lukeela. Baina *bakoitza*-ren baldintza azaleko hierarkiari dagokiola ematen du eta, Oyharçabalek iradokitzen duenaren kontra, deribazioek ez dituzte sakonean suerta daitezkeen irakurketak «gordetzen». Haren beste adibideek *bakoitza*-ren sintagma mugitzen denean konfigurazio gokia sor dezakeela erakusten dute, ez *bat* duen DetS-a kuantifikatzailearen gainetik mugitu daitekeela.³

Zehar objektua objektu zuzenaren gainean sortzen dela proposatzeko teoria barneko argumentuak ere plazaratu dira, deribazioaren baldintzekin lotuak behinik behin, baina kontrako ordena justifikatzeko argumentu teorikoak ere badaude.⁴ Gainera, inakusatibo datibodunen azterketan, ikerlanek bi aditz mota identifikatu dituzte (ikus Rezac 2008, 2009; Albizu 2009, 2011; Fernández 2014; besteak beste):

³ Kontrakoa iradoki zezakeen kasu bakarra (i) adibidearen egitura da —bere (55) adibidea:

(i) Nik eman nion liburu bat ikasle bakoitzari

Adibide honetan [liburu bat] sintagma [ikasle bakoitza]-ren ezkerrean agertzen da eta, hala ere, *bakoitza bat* uztar dezake; baina ikusi aditz jokatu ere bi sintagmen ezkerretara agertzen dela. Itxura guztiz, [ikasle bakoitzari] sintagma bere komunztadura posiziotik goragoko foko/topiko posizio batera mugituta dago (ikus Etxepare & Uribe-Etxebarria 2008 eta bertako erreferentziak), eta o-mando erlazioa InfiS barneko A-erlazioak komunztadura posizioan dauden argumentuen artean gauzatzen da.

⁴ Bi posizio teoriko kontrajarri nagusien konparazio baterako, ikusi Fernández (2014: § 1.4) eta bertako erreferentziak.

oinarrizko ABS > DAT hurrenkera erakusten dutenak (5a) eta DAT > ABS hurrenkera hierarkikoan sortzen direnak (5b) (Artiagoitia 2001a,b; Etxepare 2014; Fernández 2007, 2014; Rezac 2008, 2009; Albizu 2009, 2011; Fernández & Ortiz de Urbina 2010, eta bertako erreferentziak).⁵

- (5) a. mutila bere aitari hurbildu zitzaion
b. mutilari etxe zaharra gustatzen zitzaion

Gainera, *hurbildu* iragangaitzaren —eta beste egoera aldaketa aditzen— kasuan argumentuak ABS > DAT hurrenkera sortzen badira, ez dirudi inkoatibo-kausatibo txandakatzean *hurbildu* aditzaren bertsio iragankorra DAT > ABS hurrenkera sor daitekeela oso erraz argudia daitekeenik, postposizio lokatiboen bertsioan zaila den bezala:

- (6) a. Umea hurbildu zitzaion.
b. Lagunak umea hurbildu zion.
- (7) a. Umea etxera hurbildu zen
b. Lagunak umea etxera hurbildu zuen.

Beraz, egitura ditransitiboetan «iraultze» bat gertatzen den edo zenbaitetan gerta daitekeen ala ez arazo enpirikoa da, eta horrelako konfigurazioak baleude nola deriba daitezkeen sistemaren arkitekturaren inguruko eztabaida formala litzateke, eztabaida horrek ondorio teorikoak dituelarik.

Oinarrian hierarkia ABS > DAT dela ondorioztatzeko argumenturik sendoena, nire ustez, Iparraldeko komunztadurarik gabeko datiboen azterketatik dator. Ezaguna denez, euskalki hauetan, testuinguru askotan, datibo argumentua komunztadurarekin edo gabe ager daiteke:

- (8) a. Amak semeari ogia igorri dio.
b. Amak ogia igorri du semeari.

Ikerketek erakutsi dute datibo-komunztadurarik gabeko egitura hauek ez dituztela NOR-NORI-NORK egitura arruntek dituzten propietate berberak: alde bate-tik, komunztadurarik gabeko datiboa postposizioen kategoriakoa da, PostpS (Albizu 2001; Etxepare & Oyharçabal 2013; Etxepare 2014; Fernández 2014; Odria 2014, 2017; Ormazabal & Romero 2017, eta bertako erreferentziak). Bigarrenik, erakutsi da (8a) eta (8b)-ko datiboek posizio desberdina okupatzen dutela egituran (Albizu 2001; Etxepare & Oyharçabal 2009, 2013; Ormazabal & Romero 2017; besteak beste). Ez hori bakarrik, egitura ditransitiboetan absolutibo argumentua datiboa o-mandatzen duen posizio batean dagoela ikus daiteke, (9)-ko bikote minimoak eta (10)-ko adibideek argi erakusten dutenez, argumentu absolutiboak datiboan dagoen anafora uztartzen baitu (Ormazabal & Romero 2017: (19)-(20) adibideak):

- (9) a. *Jon eta Miren_i ez ziren ohartu *pro*_i **elkarri**_i lotu nizkiola
b. Jon eta Miren_i ez ziren ohartu *pro*_i **elkarri**_i lotu nituela

⁵ Aipatu lan hauetariko askoren arabera, deribazioan absolutiboak subjektu posizioan bukatzen du bi egitura motetan. Hala bada, badugu testuinguru bat zeinetan oinarrizko egituran beherago sortutako argumentuak —absolutiboa, kasu honetan— datiboaren gainetik goragoko subjektu posizioa gurutzatzen duen, o-komando erlazioak irautiliz.

- (10) a. Arbelbide (1895: V)
Nork uste duzu **elkharri** iratxiki dituela bi gauza horiek?
b. Abbadie (1887-1903: «Har ogi bi jaleak»)
[harrak] lotzen ditu elgarri bortz sei ogi bihi.

(9)-ko adibideak Maia Duguine eta Beñat Oyharçabali egin genien galdetegi txiki batetik aterata daude. Arbelbide eta Abbadie-renak ez dira adibide solteak; 2017 urtean bi saio desberdin egin nituen *Euskal Klasikoen Corpusa (EKC)* aztertzeko; bietan corpuseko lapurterazko testu guztiak ustiari nituen parametro desberdinak erabiliaz. Lehenean, Etxepare & Oyharçabalen (2013) sailkapenean komunztadurarik gabeko datiboa onartzen duten aditzen corpuseko agerraldi guztiak jaso nituen eta eskuz analizatu. Lan hori Ormazabal & Romero (2017) lanean proposatzen dugun azterketa diakronikoaren oinarri enpirikoa da, gaiaren ikerketako beste lanetan eztabaidatzen diren hainbat adibiderek (batez ere, Ortiz de Urbina 1995; Pikabea 1993; Fernández & Landa 2009; Fernández, Ortiz de Urbina & Landa 2009; Etxepare & Oyharçabal 2013; Etxepare 2014) eta *Orotariko Euskal Hiztegia*-n (Mixelena & Sarasola 1987-2005) ematen diren zenbait iruzkinekin osatuta. Argitaratu gabeko bigarren lan batean (2017) lapurterazko testuetako *elkar* eta bere aldaeren agerraldi guztiak aztertu nituen. Lan horretan ondoriozta daitekeenez, absolutibo argumentuak datibozko elkarkaria uztartzea oso ohikoa da —batez ere *-TZE* perpausetan (nominalizazioetan) baina baita ere (10) bezalako perpaus jokatuetan— baina agertzen diren adibide guzti-guztiek komunztadurarik gabeko datiboa dute.

Hori dena kontuan izanda, badirudi arrazoi sendoak daudela aditz ditransitiboen zenbait testuingurutan ere argumentuen arteko hurrenkera hierarkikoa (ERG) > ABS > DAT dela ondorioztatzeko, nahiz eta datiboa eta absolutiboaren arteko hurrenkera eratorria kontrakoa izan komunztadura erlazioak tartean. Hala ere, badira emaitza hauei jar dakizkiekeen bi eragozpen: batetik, semantikoki eta sintaktikoki justifikatzen zaila bada ere (ik. Ormazabal & Romero 2017), batetik argudia lezake oinarrian beregainak diren bi egituraren aurrean gaudela, bata komunztaduradun egitura, DetS datiboa absolutiboaren gainean proiektatzen duena, eta bestea komunztadura gabeko PostpS datiboa absolutiboaren azpian duena, eta bi egitura hauek ez lirateke deribazioan loturik egongo (Etxepare & Oyharçabal 2010; Etxepare 2014; besteak beste). Bestetik, egitura hauetan datiboa komunztadura posiziora igo ez denez, posible da absolutiboa datiboa baino behiago sortu izana, ABS > DAT hurrenkera absolutiboaren komunztadura posiziorako mugimenduaren ondorioa delarik, zenbait inakusatiboren egituren antzera.

Ondoko atalak ikerketa enpiriko baten deskribapena eta haren ondorioen eztabaida dira. Bertan, Iparraldeko euskalkietan ez ezik orokorrean euskarazko argumentuen arteko oinarriko hurrenkera argitzeko beste metodo bat bilatzea eta berau erkatzea dut helburu. Horretarako, batere ageriko komunztadurarik erakusten ez duten testuinguru desberdinak aztertuko ditut. Burura berehala etortzen diren era desberdinetako *-TZE* perpausetan (11a-b) eta egitura partizipialetan (11c) gain, bilatzen ditugun baldintzak bete ditzaketen beste bizpahiru testuinguru identifikatu ditut: koordinazioaren osagaien arteko aditz laguntzailerik gabeko perpausak (11d), joka-

tugabeko inperatiboak (11e) eta, agian, aditz aspektual eta modalen zenbait testuinguru (11f):⁶

- (11) a. Praka gorria aitari bidaltzea erabaki nuen.
 b. Amak aitari praka gorria bidaltzeko eskatu zidan.
 c. Aitari praka gorria eramanda, lasai gelditu nintzen.
 d. Praka gorria aitari eraman eta lanean jarriko naiz.
 e. Aitari praka gorria eraman!
 f. Ez dago aitari praka gorria eraman beharrik.

Egitura horietan aditzaren argumentuen arteko hurrenkera hierarkikoa zehazteko asmoz, *elkar* anaforaren portaera analizatuko dut. Hausnarketa azkar batek dagoneko aurreratu diezakiguke hauetako zenbait egituratan espero ditzakegun emaitzak, ez baita zaila absolutibo argumentuak datibozko elkarkaria uztartzen duen testuinguruak aurkitzea eta, hauek nahiko naturalak diruditen bitartean, kontrako erlazioa zaila da irudikatzea.⁷

- (12) a. Munduko su guztiak elkarri erantsiz egingo litzatekeen sua. (*Euskaltzaindiaren hiztegia*)
 b. Terminoak elkarri lotzeko bilaketa-operadoreak erabili behar dira. (Bizkaiko aldizkari ofiziala)
 c. Horrek aukera eman zuen pintura, eskultura eta arkitektura elkarri uztartzeko. (*Wikipedia*)

Hala ere, corpus analisi zehatz batekin —kasu honetan *Euskal Prosa Gaur* (EPG) corpusarena— emaitza hauen hedadura zehaztuko dut hurrengo atalean. ABS eta DAT argumentuen hurrenkerari buruzko berehalako ondorioetatik haratago, ikerketatxoak egitura hauen barneko erlazioen eta, ondorioz, euskararen kasu/komunztadura sistemaren ezaugarri orokor interesgarri batzuk ere azalarazten ditu bide batez. Hauetako batzuei 3. atalean eutsiko diet labur-labur.

2. Aditzaren barne-argumentu hurrenkera *Euskal Prosa Gaur* (EPG) corpusaren argira

2.1. Corpusaren arakatzearen gorabehera zenbait

Esan bezala, lanaren helburua elkarkariek bat ere komunztadurarik gabeko testuinguruetan duten portaeraren azterketaren bidez aditz ditransitiboen barne-argumentuen antolaketa hierarkikoari begiratzea da, eta horretarako *elkar* aztertu dut *Euskal Prosa Gaur* (EPG) corpusaren barruan. *EKC* ez bezala, *EPG* corpusa etiketatuta dago eta horrek bilaketaren baldintza morfologikoak zehazkiago egokitzeko aukera ematen zidan.

⁶ Azken testuinguru honen inguruan Fernándezek (2014) saio interesgarri bat aurkezten du, hemen aurkeztuko dudana bestelako metodologia erabilita.

⁷ Keine & Mendiak (2020) elipsiarekin lotura duten hainbat egitura tratatzen dituzte PCC-ren ildora. Zoritxarrez egitura hauek ezin dira corpusean zuzenean testatu. Itzuliko naiz euren analisiari buruz bi iruzkin egiteko 3. atalean.

Lehen saioa Ormazabal & Romero (2017) lanaren argitaratzea eta Ane Odriaren tesiaren (Odria 2017) defentsaren garaian egin dago. Hau da, bilaketak 2017ko abuztuan hasi eta 2018ko urtarrilean bukatu nituen (azkena 2018/01/28-koa da), eta aipatu bi lan horien ildotik sortutako eztabaida baten testuinguru teorikoa zegoen tartean. Bilaketa horietan, absolutibo plurala eta elkarkaria datiboan (hitz kopuru tarte baten barruan) erakusten duten adibide guztiak (13a) eta, alderantziz, datibo plurala eta absolutibozko elkarkariarekin batera (13b) aztertu nituen. Badaezpada, alderantzizko hurrenkera erakusten duten adibideak ere kontuan izan nituen (14), baina multzo horretan ez da datibo eta absolutiboaren harreman hierarkikoa argitzeko adierazgarria izan daitekeen adibiderik agertzen, espero zitekeenez.

- (13) a. [ABS + PLUR] 3 [elkar + DAT] → [688 agerraldi]
 b. [DAT + PLUR] 5 [elkar] → [11 agerraldi]
- (14) a. [elkar + DAT] 3 [ABS + PLUR]
 b. [elkar + ABS] 3 [DAT + PLUR]

Lehen emaitza aipagarria zera da, DAT > *elkarkaria* segida erakusten duten adibideen kopurua oso txikia dela (11 agerraldi besterik ez corpus osoan) eta bertan ez dagoela adibide bat ere zeinetan datibo argumentuak absolutibozko elkarkari bat uztartzen duen, ez perpaus ez-jokatueta ezta jokatueta ere. Are gehiago, ez dago adibide bat ere non ergatibozko subjektuak absolutibozko *elkar* uztartzen duen datiboaren gainetik pasatuz; datibo plurala agerian dagoen kasu guztietan, hurbilago dagoen subjektu isil batek uztartzen du anafora, (15)-ean bezala:

- (15) Bidea eman zien horrek gure arbasoei [pro elkar laguntzeko], beste hominidoek edo tximinoek izan ez zuten moduan. (Edu Lartzanguren, *Berria*, 2006-02-22)

Hori emaitza harrigarria da, guztiok aurreikusiko genuenaren kontrakoa, goian aipatu bezala gaia jorratu duten ikerlari guztiek komunztaduradun datiboa absolutibo argumentua baino gorago dagoela argudiatu dutelako. Ondorioz, agertzen ez diren egiturak espero zitezkeen konbinazio bakarrak lirateke, Oyharçabalen adibide bikote minimoak argi erakusten digun bezala.

Hein batean arrazoi horregatik eta, orokorrago, euskararen kasuan horren nonnahikoak diren *pro-drop* eta osagaien hurrenkera askearen faktoreak ere analisisan sartu ahal izateko, artikulua hau idazten ari nintzela bigarren azterketa bat (2022ko uztailetik azarora bitartean) egitea erabaki nuen eremua zabaltzen zuena. Beraz, bigarren saio honetan EPG corpuseko *elkar* izenordainaren agerraldi guzti-guztiak datiboan (*elkarri*) zein absolutiboan (*elkar*) jaso eta euren testuinguru sintaktikoak aztertu ditut:

- (16) a. [elkar + DAT] → [3784 agerraldi]
 b. [elkar + ABS] → [3790 agerraldi]

2.2. Elkarkaria testuinguru jokatueta

Goiko arazoari lehenbailehen eusteko asmoz, [elkar + ABS]-en corpusaren ia erdia (lehen 1750 adibideak) aztertuta, ondoriozta dezaket bertan agertzen diren aditz guz-

ti-guztiak NOR-NORK aditzak direla eta ez dela lagin osoan datibo bat ere agertzen elkarkariaren inguruan, ez agerikoa ezta inplizitua/isila ere. Badaezpada, nire galdetegiaren arazo bat egon zitekeen saiheste aldera, azken saio bat egin nuen datiboak absolutibozko *elkar* uztartzen duten adibideak bilatzeko. Corpusa morfologikoki ondo etiketatuta dagoela baliatu nuen elkarkari absolutiboa NOR-NORI-NORK aditzekin konbinatuta agertzen den kasuen multzoa jasotzeko baina honetan ere, adibideak oso gutxi izateaz gain, ez dago gure ikerketarako baliagarria izan daitekeen kasu bat ere.⁸

(17) [*elkar* + ABS] 3 [Nor-Nori-Nork Aditza] → [31 esaldi]

Ondorioz, goian aipaturiko argumentu teoriko eta enpiriko guztiek NORK > NORI > NOR hierarkia babesten dute, baina *EPG* corpuseko elkarkariaren analisiak ez du horren aldeko zantzu txikiena ere erakusten.⁹

Perpaua jokatuena portaerarekin bukatzeko, espero zitekeenez, elkarkari bat duten esaldi guztiak kontuan hartzen baditugu, gehien-gehienetan subjektua da elkarkariaren uztartzailea, berdin da *elkar* datibo posizioan egon (18a) zein absolutiboan (18b):

- (18) a. Enpresako gerenteak eta grebalariek salaketak aurkeztu dizkiote elkarri atzoko liskarragatik. (*Berria*, 2004-06-24)
 b. Noizbait elkar ikusteko aukera bagenu...

Orokorra da, baita ere, subjektu absolutiboak datiboa uztartzea predikatu iragan-gaitzekin. Adibideen aditzak «behe datiboak» deitu izan direnak dira, hau da oinarrian ABS > DAT erakusten dutenak, agian (20)-ko adibideen salbuespenarekin:

- (19) a. moldakaitz antzean trebeki, [...] gure besoak elkarri lotu zitzaizkion. (Ch. De Lacos, *Harreman arriskutsuak* [itz. J. Muñoz, 1997]: 52)
 b. Etxartea lasterregi ilundu zen, hormak elkarri hurbildu zitzaizkion, eta sabaiak kuzkurtu egin ziren. (D. Thomas, *Artistakume baten erretratua* [itz. Koro Navarro, 1999]: 14)

⁸ Adibide guztiak hitanozko formak (ia) edo, aurreko bilaketan bezala, hutsak (ib-c) dira, azken hauek corpus barneko bilatzaileak muga sintaktikoak aurkitzeko ezintasunaren ondorioak:

- (i) a. Elkar maite diagu
 b. Orduan [elkar laztantzeari] ekin genion
 c. Bidea eman zien gure arbasoei [elkar laguntzeko]

⁹ Kontrara, harrigarriki hiru adibide aurkitu ditut zeintzuetan absolutibo pluralak datibozko elkarkaria testuinguru jokatueta uztartzen duen:

- (i) a. Joskera edo sintaxiari dagokion aldetik, esan nezake nereak omen diren bizi-puska sintagmatikoak elkarri josiko lizkioketen orratz eta bizi-hari paradigmatorik ez dudala uste kausi litekeenik. (Segurola, *Gaur ere ez du hiltzeko eguraldirik egingo*, 2005)
 b. Auskalo ze itxura izango duen trasteak, piezak elkarri jotzen dizkiotenean. (Harkaitz Cano, *Belarraren ahoa*, 2004)
 c. Atzeko eskuin hanka eta aurreko eskuin hanka elkarri estekatzen dizkio. (J. M. Coetzee, *Lo-tsaizuna*, 2004).

Egia esan, adibideak oso gutxi izateaz gain nahiko bitxiak direla esango nuke, eta zaila da hortik inolako ondorio sendorik ateratzea, baina corpusean horrelako hiru adibide egotea eta erraz espero zitekeen kontrako egitura bat ere ez agertzea zer pentsa ematen duen emaitza bitxia da gero.

- c. [fosfato, oxalato eta azido urikoaren kristalak] batzuetan bai, eransten zaizkio elkarri, eta harriak eratzen dituzte, oso mingarriak giltzurrunean edo ureterrean trabaturik geratzen direnean (J. Lenihan, *Giza gorputza lanean* [itz. I. Aldasoro, 2006]: 200)
- (20) a. Horrengatik, elkarri gogaikarri baldin bazaizkio, ez da, urrundik ere, gauza bera maite duten aldetik ez eta izaeran bat datozen bezainbatean. (Spinoza, *Etika* [itz. P. Xarriton, 1997])
- b. Nahi nukeen halaber gutun sobera luze batzuk mozteko baimena izan, haietariko anitzetan elkarri guztiz ere arrotz zaizkion sujetak aipatzen baitira, bereizirik, eta ia iragaitzarik gabe. (Ch. de Laclos, *Harreman arriskuak* [itz. J. Muñoz, 1997])

Haien artean ez dira gutxi perpaus jokatuan datibo komunztadura falta dutenak —ez Iparraldeko idazleen lanen artean bakarrik, hegoaldekoenetan ere— edo komunztadura korapiloak sortzen dituztenak, aditz ditransitiboekin (21) zein inakusatibo datibodunekin (22):

- (21) a. Emaztearekin eta egurgileekin geroxeago ukan zuen elkarriketa airosak elkarri lotzen zituen adiskidantzari buruzko zalantzak oro haizatzen zituen. (Toti Mtz. De Lecea, *Hautsi da katea* [itz. E. Touyarou, 2004])
- b. Sexuak elkarri lotzen gaitu. (L. Elberdin, *Sexua noiznahi*, 2005)
- (22) a. bere osagaiak elkarri halabeharrez egokitzen ez direnean (I. Kant, *Arrazoimen hutsaren kritika* [itz. I. Uribarri, 1999]: 291)
- b. Zenbait hilabete lehenago Europako bi oilar zaharrak [...] elkarri lotu ziren berriz. (A. Epalza, *Lasto sua*, 2005)
- c. Elkarri dagozkien aldeak (sic) proportzionalak direnean eta haien angeluak berdinak direnean banan-banan (D. Guedj, *Loroaren teorema* [itz. J. Muñoz, 2006]: 159)

2.3. Elkarkaria jokatu gabeko testuinguruetan

Goian aipatu ditudan komunztadurarik gabeko testuinguru guztietan nahiko ohikoa da ABS pluralak datiboazko elkarkaria uztartzea egitura ditransitiboetan. Ohikoena, noski, *-TZE* perpausenak dira.¹⁰

¹⁰ Kontuan izan behar da absolutibo-datibo jokabidea duten aditz asko —gehienak ez badira— inkoatibo/kausatibo txandakatzean sartzen diren egoera aldaketa aditzak direla. Hori kontuan harturik, baztertu ditut egitura inakusatibotzat har daitezkeen adibide guztiak: hasteko, adibideen interpretazioak berak hala iradokitzen duen kasuetan:

- (i) a. Ezaugarri formalei dagokionez, elkarri jositako zenbait koaderno osatutako ezkuizkribu honek, indartzeko, pergaminotako azalak zituen erantsirik. (A. Gorostitzu, *Berria*, 2004-02-19)
- b. Ez dakigu zerk eragozten dien fosfato, oxalato eta azido urikoaren kristal mikroskopikoei elkarri eranstea eta harriak eratzea giltzurrun normalean (J. Lenihan, *Giza gorputza lanean*, [itz. I. Aldasoro, 2006])

- (23) a. Hari-mutur pare bat neure buru barruan elkarri lotzeko behar izan nuen denbora, hain zuzen. (I. Mujika Iraola, *Gerezi Denbora*, 1999)
- b. Kanpoko eragileak - Hegoaldearen konkurrentzia - eta barneko eragileak - aldaketa teknologikoak - elkarri kontrajartzea, izan ere, artifiziala da hein handi batean. (J. Adda, *Ekonomiaren globalizazioa* [itz. K. Navarro, 2004])
- c. Bata, aitzindarien lanen berreskuratze eta aldarrikapena; bestea, literaturak (letrak elkarri josteak) eskaintzen dituen aukeren aurkikuntza eta ikerketa. (I. Aranbarri, *Hitzak eta giltzak*, 2001)
- d. Bikain asmatu zuen bi ezaugarri horiek elkarri uztartzen; hainbeste, non Donostian, Sarriegirengana jotzen baitzuten, ezinbestean, ereserkia behar zuten kaleko konpartsa guzti-guztiek. (Askoren artean, *Rataplán*)

Ez dira falta, halaber, aditz laguntzailerik gabeko menpeko perpausen eta inperatiboen adibideak:

- (24) a. Liburu biak elkarri josi ondoren [...] (Ch. De Laelos, *Harreman arrisku-tsua* [J. Muñozek itzulia, 1997])
- b. Pasadizo bi horiek elkarri lotuz gero ondorioztat ateratzen denez, [...] (E. Jimenez, *Hemingway eta euskaldunak zerbitzu sekretuan*, 2003)
- c. Lagunik potoloena jarriko zen bizkar emanda arbolaren kontra, bi esku-txokoak lotu zilborrondoan, hatzak elkarri sardean gurutzatuz, (P. Perurera, *Trapuan pupua*, 2001)
- (25) a. Josi zapiak elkarri, bost alde batetik eta sei bestetik; seigarren zapia tolestaturik jarriko duzu oihal-etxolaren aurrealdean. (*Elizen arteko Biblia*, 2004)
- b. Egiak elkarri josi, ez egiaren sekuentzia bat egia huts balitz bezala eman. (I. Aranbarri, *Hizlandia*, 2006)

Bukatzeko, ikuspuntu teorikotik interes berezia du juntagailu baten bidez lotutako perpausen jokaerak: koordinazioan komunztadurarik gabeko osagaietan absolutiboak datiboa erraz uztartzen duen bitartean, jakatuta dagoen koordinatuetan inoiz ez da horrelakorik gertatzen:

Halaber, baztertu ditut partizipioa edo *-tal-rik* osagarri zuzenaren gainean predikatutako egitura guztiak, euren barne egitura zuzen ez bada ere, hauentzako analisi gehienek nolabaiteko bertsio inakusatiboa dagoela argudiatzen dutelako, dela egitura pasiboa osatzen dutelako (Rebuschi 1983, etab.) dela nolabaiteko egitura biklausala dutelako (Ortiz de Urbina & Uribe-Etxebarria 1991; Oyharçabal 1991; Zabala 1993; Berro 2019 eta bertako erreferentziak).

- (ii) a. Hotzak eta maskurrez beteak, eskuak elkarri tinko helduak zituen; hildako baten eskuak ziruditen. (J. Dos Passos, *Manhattan Transfer* [itz. López de Arana, 1999])
- b. Eta elkarri apata, pega-pega, multzotuta datorrean, elur-moltso [...] hauek [...] (P. Zabala, *Naturaren mintzoa*, 1999)

Testuan eztabaidarako erabiliko ditudan adibide guztiak zalantzarik gabe egitura ditransitiboa dutenak dira.

- (26) a. Ukondoak idazmahai gainean jarri, eskuak elkarri lotu, kokotsa haien gainean ipini, eta serioz begiratu zion. (M. A. Mintegi, *Denak du bere prezioa*, 2002)
- b. Galoidunak hatz luzea eta erakuslea elkarri itsatsi eta agur keinu bat egin digu bi hatzak kaskora eramanez, begia keinatuz. (H. Cano, *Piano gainean gosaltzen*, 2000)
- c. Onartu ezin den falazia horren baiespena jokaera oker honetan biltzen da: datu zientifikoak (hoc post hoc) aurkitu ahala 'hautespen' izena duen (propter hoc) eskupeko hariaz elkarri josi, eta gero zera baietsi: datuek eurok dakartela 'hautespen' haria. (J. Garate, *Gizakia maitagogoada*, 2001)

Ondorioz, *EPG*-ren azterketak datibo argumentua deribazioan absolutiboaren gainean —berau o-komandatzan duen posizio batean, hain zuzen— buka badezake ere, erakusten digu bi argumentu hauek komunztadura erlazioetan sartzen ez diren egoeretan datiboa absolutiboaren o-mandoaren eremuan dagoela, predikatu batzuekin behintzat. Faktore adierazgarria komunztaduren presentzia da, baina egituraren erlazio hierarkikoak iraultzen dituen heinean, ez gara ari ezaugarri morfologiko bati buruz soilik, komunztadura erlazio sintaktikoari buruz baizik. Hurrengo atalean honen inguruan zenbait ohar azkar egingo dut.

3. Zenbait ondorio sintaxi egiturari begira

Alde enpirikoan, aurreko atalaren punturik nabarmenena da *-TZE* perpausetan eta, orokorrago, aditz komunztadurarik gabeko zenbait egituratan, datiboa eta absolutiboaren erlazio hierarkikoa komunztaduradun perpaus jokatuenean kontrakoa dela. Egitura ditransitiboegi dagokiela, Ipar-ekialdeko datibo komunztaduraren auzian bi egitura daudela pentsatzea dagoeneko zaila bazen, hemen aztertu ditudan testuinguruetarako egitura *ad hoc* bat dagoela proposatzea ez dirudi erraz oinarritu daitekeenik. Beraz, perpaus jokatuena eta ez jokatuena erlazio semantikoen islapenean gutxieneko batasuna onartzen bada, beste guztia berdina mantendurik bien arteko erlazio hierarkikoen iraulteta bakar-bakarrak sintaxian gertatutako eragiketa baten ondorioa izan daiteke. Bietarik «oinarrizko» egitura perpausa ez jokatuena islatzen dela eta, ondorioz, $ERG > DAT > ABS$ hurrenkeraren eratorria dela pentsa daiteke, beraz.

Baina, argumentuen hurrenkeraz haratago, beste ondorio teoriko batzuk ere atera daitezke euskal gramatikan garrantzia izan dezaketenak. Lehena kasu eta komunztadura erlazioaz: egitura hauek bat ere komunztaduraren morfologiaren arrastorik erakusten ez badute ere aditzaren argumentu nominalak perpaus mailako ohiko kasuekin markaturik datozela. *-TZE* perpausen kasuan, egiturazko kasuaren hipotesia jarraitu ohi da euskal gramatikan, eta ezkutuko kasu eta komunztadura erlazio abstraktuak proposatu izan dira lan gehienetan, Ortiz de Urbina (1989) lan aitzindariarekin hasi eta gaur egun arte. *Hatsarre eta Parametroen* ereduaren urteetan gobernatu duen kasu teoriaren barruan, txanpon beraren bi alde desberdin ziren kasua eta komunztadura. Hortaz, hipotesi neutroena zen pentsatzea *-TZE* perpaus beste testuinguruetan kasua ezartzeko erabiltzen ziren mekanismo berberak

errepikatzen zituztela. Hizkuntza gehienen joera orokor eta eredutzat hartzen den perpausezko subjektuen ezintasunarekin konparatuta, euskararen *-TZE* perpausen portaera arazo teoriko interesgarritzat hartu izan da beti, baina ez zen zalantzan jarzen argumentuok kasua jaso behar zutela ohiko konfigurazioen modura eta, ondorioz, *-TZE* perpausetan ere ergatibo, datibo eta absolutibo argumentuek komunztadura abstraktua mantentzen zutela aditz ez-jokatuekin. Desberdintasuna modu batera edo bestera aditz morfologiara murrizten zenez, argumentuen arteko hierarkia bera ontzat ematen zen eta ez da motibazio handirik egon argudiatzeko ageriko komunztadura zuten beste testuinguruetakoko *NORK > NORI > NOR* hierarkia testuinguru ez-jokatuetan bestelakoa izan zitekeenik; adibide gisa, ikusi Ortiz de Urbina & Uribe-Etxebarriaren (1991: 1007) eztabaida gai honen harira. Ildo beretik, *Agree* sistemak (Chomsky 2000, 2001 etab.), teknikoki beste modu batera egiten badu ere, kasu erkaketa mantendu egiten du komunztaduraren nolabaiteko bizkarroi gisa.

Hala ere, aspaldidanik dakigu *-TZE* perpausak ez direla perpaus jokatuak bezala portatzen komunztadurarekin zerikusia duten beste zenbait ezaugarri begira. Desberdintasun ezagunena, Lakak (1993) erreparatu zuenez, perpaus jokatuak eta ez-jokatuak Pertsona-Kasuaren Mugari (PKM; *Person-Case Constraint* ingelesez) begira erakusten duten kontrastea da:

- (27) a. *Zuk (ni) harakinari saldu n(a)iozu
 b. Gaizki iruditzen zait [zuk ni harakinari saltzea]

Euskarazko harakinaren adibidea eta bere aldaerak ezagunak dira PKM-ren literaturan mundu osoan, gehienetan murriztapena semantikoa izan ezin daitekeela argudiatzeko erabilia, baina gehienetan *-TZE* egiturei esleitu zaizkien analisi gehienak ez dira emaitza hauekin guztiz bateragarriak eta (28a-b)-ren kontrastea oso gutxitan leporatu zaio bi egituren arteko oinarritzko desberdintasun sintaktiko zehatz bati.

Hemen landutako aditz jokaturik gabeko egitura guztien portaerak iradokitzen du ageriko komunztadura duten egiturekiko oinarritzko diferentzia sintaktiko bat badagoela, aditzaren barne argumentuei dagokiela behintzat. Badirudi ageriko aditz komunztadura duten perpausetan erlazio hori estrukturalki gauzatzen den bitartean —erlazio hierarkikoen aldaketak, besteak beste, erakusten duenez—, komunztadurarik gabeko egituretan aditzaren argumentuak AS barruan iltzaturik gelditzen direla, argumentu hauek komunztadura proiektzioetara (*aS*, *ahotsS*, *AplikS*, *DenbS* edo dena delakora) mugitu gabe. Bestela esanda, egitura hauetan guztietan komunztadura morfologikoaren falta ez da «hutsune» morfologiko bat, dagokion prozesu sintaktikoaren faltaren sintoma eta ondorioa baizik.¹¹ *-TZE* perpausen kasuan komunztadurarik gabeko egiturak direla defendatu izan da inoiz, baina ondorio hauek ez

¹¹ Bere orokortasunean harturik, badirudi aztertu ditudan testuinguru ez-jokatuen komunztadura morfologikoaren eta komunztadura sintaktikoaren falta bat datozela, azken hau argumentuen arteko hierarkian islatzen delarik. Baina horrek ez du esan nahi nahitaez komunztadura morfologikorik gabe komunztadura sintaktikoaren erkatzerik ez dagoenik ez eta komunztadura morfologikoa diruditen guztiak komunztadura sintaktiko baten isla izan behar dutenik ere, euskaraz zein beste hizkuntzetan.

dagozkie *-TZE* perpausei bakarrik. Adibidez, elkarkarien frogak egitura erlazio baten adierazleak badira, (28b-c) adibideek aspektutik beherako koordinatuak izan behar dute, (28a)-ko perpausen koordinaziotik desberdindu (adibideak, Euskaltzaindia 2022: § 28.4.5h-koak):

- (28) a. Manexek liburuei begiratu zien eta azkenean bizpahiru aldizkari erosi zituen.
 b. Manexek liburuei begiratu eta azkenean bizpahiru aldizkari erosi zituen.
 c. Manexek liburuei begiratu zien eta azkenean bizpahiru aldizkari erosi.

Hala bada, komunztadura eta kasu erkaketa sistemak zeharo banaturik daudela ondorioztatu behar dugu, komunztadura erlaziorik ez dagoenean, kasu erkatze edo ezarketa sistema komunztaduratik kanpoko beste leku batean bilatu behar dugunez.

Emaitza hauek bat datoz Pertsona-Kasuaren Mugaren emaitzekin, ez bakarrik *-TZE* perpausen kasu ezagunean. PKM-ren testuinguruak *EPG*-ren bidez zedarriztatzea ezinezkoa iruditzen zait baina, *-TZE* perpausetan bezala, aipatu beste komunztadurarik gabeko testuinguruetan ere baldintza eten egiten dela dirudi.

- (29) a. Gu denok elkarri aurkeztu eta bilera hasi zuen.
 b. Gu biok elkarri ondo lotuta hasi zen antzerkia.
 c. Gu epaileari salatu ondoren komisaldegira joan zen.
 d. Joan baino lehen, gu biok elkarri ondo lotu!

Ageriko komunztadura falta, argumentuen hierarkia eta PKM-ren etena bat etortzeak azken komunztadura murriztapen hauek forma fonetikoa edo morfologia mailako analisiak (Keine & Mendiak 2020, besteak beste) berpiztearen kontra aholkatzen du.¹² Korrelazioek propietate guztien analisi estruktural bateratua eskatzen du eta,

¹² Keine & Mendiak (2020) hainbat elipsi testuinguru aztertzen dute eta erakusten dute, (29)-n bezala, horietan ere PKM ez dela aplikatzen. Ikusi, adibidez beraiek ematen duten ondoko zatiki erantzunak (Keine & Mendiak 2020: (16)):

- (i) a. Galdera: Nor saldu dio Koldok nori?
 Erantzuna: alkateari Jon Δ eta harakinari **ni/zu**

Elipsirako Forma Fonetikoaren ezabaketaren hurbilketa bat hartzen dutenez, sintaxian egitura eliptiko hauen azpian ohiko egitura osoa, komunztadura eta guzti, dagoela ondorioztatzen dute. Beraz, euren egitura hauek —eta, pentsatzekoa da, (29)-ko egiturak ere— sintaxian PKM bortxatuko lukete, baina Forma Fonetikoan elipsiak deribazioa konpontzen du aditz laguntzailea ezabazten duenean. Kontuan izan beraien FF-ren elipsiaren aldeko argumentu nagusia eta egitura osoa dagoela postulatatzeko arrazoiak kasuaren konektagarritasun efektuetan oinarritzen dela. Baina, ikusi dugunez, lan honen emaitzek kasuak eta komunztadurak bide desberdina jarraitzen dutela iradokitzen dute eta egitura hauetan ez dirudi komunztadura sintaktikoa dagoenik. Interesgarria litzateke, bestalde, euren adibideen argumentuen arteko hurrenkera sakonean aztertzea.

Modu berean, Etxeparek egitura erdi-arrailduak (*pseudo-cleft*) tratatzen ditu datibo komunztadurarik gabeko egitura jokatuak balira bezala komunztadurari erlazioei begira (Etxepare 2014: (82)-(83)):

- (ii) a. [_{Erlat} Op_i Jonek igorri t_i duena/*diona] da [_{AS...} liburu bat bere anaiari]_i
 b. [Liburu bat Mireni], horra zer igorri duen/*dion Jonek.

Etxeparek dio biak, absolutiboa eta datiboa, AspS-ren azpian egon behar dutela perpausari goragoko egitura guztia falta zaiolako; hau da, datibo argumentua datibo komunztadura posiziotik baino dezente

nik ikusten dudala, helburu hori komunztaduraren hurbilketa konfigurazionalak lor dezake bakarrik.

Erreferentziak

- Albizu, Pablo. 1998. Generalized Person-Case Constraint: A case for a syntax-driven inflectional morphology. In Myriam Uribe-Etxebarria & Amaya Mendikoetxea (arg.), *Theoretical issues on the morphology-syntax interface (ASJUren Gehigarriak 40)*, 1-33. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU.
- Albizu, Pablo. 2001. Datibo sintagmaren izaera sintaktikoaren inguruan: Eztabaidarako oinarritzko zenbait datu. In Beatriz Fernández & Pablo Albizu (arg.), *Kasu eta komunztaduraren gainean. On Case and agreement*, 9-70. Bilbo: UPV/EHU.
- Albizu, Pablo. 2009. Construcciones inacusativas con dativos posesivos y dativos de interés en vasco: Un análisis derivacionalista. UPV/EHUko eskuizkribua.
- Albizu, Pablo. 2011. Microvariación en las construcciones inacusativas de dativo posesivo del euskera. *Wedisyn's Second Workshop on Syntactic Variation*, 2011ko otsailaren 17-18, Universitat de Barcelona. <https://basqueandbeyond.ehu.eus/pdf/EncuentroBarcelonaProgramaFinal.pdf> (2024/01/26).
- Arregi, Eurídice. 2003. Dative alternations in Basque. Gasteiz: UPV/EHUko master tesia.
- Arteax, Iñigo, Xabier Artiagoitia & Arantzazu Elordieta. 2008. *Antisimetriaren hipotesia vs buru parametroa: euskararen oinarritzko hitz hurrenkera ezbaian*. Bilbo: UPV/EHU.
- Artiagoitia, Xabier. 2001a. Irudiak eta emaleak. *ASJU* 35(1). 29-64.
- Artiagoitia, Xabier. 2001b. Seemingly ergative, ergatively seeming. In Julia Herschensohn, Enrique Mallén & Karen Zagona (arg.), *Features and Interfaces in Romance: Essays in honor of Heles Contreras*, 1-22. Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins.
- Berro, Ane. 2019. Basque adjectival participles: Stative, resultative or experiential. *Glossa: A Journal of General Linguistics* 4(1). 66 (1-37). <https://doi.org/10.5334/gjgl.730>.
- Chomsky, Noam. 2000. Minimalist inquiries: the framework. In Roger Martin, David Michaels, Juan Uriagereka & Samuel Jay Keyser (arg.), *Step by Step: Essays in Honor of Howard Lasnik*, 89-155. Cambridge, MA: MIT Press.
- Chomsky, Noam. 2001. Derivation by phase. In Michael Kenstowicz (arg.), *Ken Hale: A Life in Language*, 1-52. Cambridge, MA: MIT Press.
- EKC = Euskara Institutua (2013).
- Elordieta, Arantzazu. 2001. *Verb movement and constituent permutation in Basque*. Leiden: Leiden University-ko doktorego tesia.
- EPG = Sarasola et al. (2007).

baxuagoa dagoela eta, Ipar-ekialdeko datibo komunztadurarik gabeko egituretan bezala, ABS > DAT hurrenkera dugula. Hala dela dirudi baina, aldi berean, Ipar-ekialdeko egituretan ez bezala, datibo komunztadura baino gehiago falta dela ematen du. Absolutiboa ere komunztadurarik gabe dago eta aditz laguntzailearen NOR3 komunztadura forma ez-markatuaren adierazlea besterik ez da. Konparatu, adibidez, honako adibideak:

- (iii) a. Jonek hautatu t_i duena/*zaituena] zu $_i$ zara.
 b. Jonek aurkeztu t_i duena/dituena/*gaituena] da. [$_{VP}$...gu gure gurasoei] $_i$
- (iv) a. [Ni bere mendiko bordan] horra nor ezkutatu zuen Jonek.
 b. [Zu gure gurasoei], horra nor aurkeztu duen/*dion/*zaituen Jonek.

- Etxepare, Ricardo. 2014. Contact and change in a minimalist theory of parameters. In Carme Picallo (arg.), *Linguistic variation in the minimalist framework*, 108-139. Oxford: Oxford University Press.
- Etxepare, Ricardo & William Haddican. 2017. Repairing final-over-final condition violations: Evidence from basque verb clusters. In Laura R. Bailey & Michelle Sheehan (arg.), *Order and structure in syntax I: word order and syntactic structure*, 135-158. Berlin: Language Science Press.
- Etxepare, Ricardo & Beñat Oyharçabal. 2009. Bi datibo ifar-ekialdeko zenbait hizkeratan. *Lapurdum* 13. 145-158.
- Etxepare, Ricardo & Beñat Oyharçabal. 2013. Datives and adpositions in Northeastern Basque. In Beatriz Fernández & Ricardo Etxepare (arg.), *Variation in datives: A micro-comparative perspective*, 50-95. Oxford: Oxford University Press.
- Etxepare, Ricardo & Myriam Uribe-Etxebarria. 2008. On negation and focus in Spanish and Basque. In Xabier Artiagoitia & Joseba A. Lakarra (arg.), *Gramatika jaietan Patxi Goenagaren omenez (ASJUren Gehigarriak 51)*, 287-310. Bilbo: UPV/EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Euskaltzaindia (Gramatika Batzordea). 2022. *Euskararen gramatika*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskara Institutua. 2013. *Euskal Klasikoen Corpusa (EKC)*. Bilbo: UPV/EHU. <http://www.ehu.eus/ehg/kc/> (2024/01/05).
- Fernández, Beatriz. 1997. *Egiturazko kasuaren erkaketa euskaraz*. Bilbo: UPV/EHU.
- Fernández, Beatriz. 2014. Goi- eta behe-datiboak eta datibo-komunztaduraren murriztapena: iparekialdeko hizkerak eta euskara estandarra. In Irantzu Epelde (arg.), *Euskal dialektologia: Lehena eta oraina (ASJUren Gehigarriak 69)*, 37-63. Bilbo: UPV/EHU.
- Fernández, Beatriz & Josu Landa. 2009. Datibo komunztadura beti zaindu, inoiz zaindu ez eta batzuetan baino zaintzen ez denean. Hiru ahoko aldagaia, datu iturri bi, eta erre-minta bat: Corsyntax. *Lapurdum* 13. 159-181.
- Fernández, Beatriz & Jon Ortiz de Urbina. 2010. *Datiboa hiztegian*. Bilbo: UPV/EHU.
- Fernández, Beatriz, Jon Ortiz de Urbina & Josu Landa. 2009. Komunztadurarik gabeko datiboen gakoak. In Ricardo Etxepare, Ricardo Gomez & Joseba A. Lakarra (arg.), *Beñat Oihartzabali gorazarre (= ASJU 43)*, 352-380. Donostia: UPV/EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Haddican, William. 2004. Sentence polarity and word order in Basque. *The Linguistic Review* 21. 87-124.
- Hualde, José Ignacio. 1986. Case assignment in Basque. *ASJU* 22(1). 313-330.
- Keine, Stefan & Jon Ander Mendia. 2020. Silencing the PCC. University of California at Los Angeles (UCLA) eta Universitat Autònoma de Barcelona (UAB)-ko eskuizkribua.
- Laka, Itziar. 1993. The structure of inflection: a case study in X_0 . In José Ignacio Hualde & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *Generative studies in Basque linguistics*, 21-70. Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins.
- Mitxelena, Koldo & Ibon Sarasola. 1987-2005. *Orotariko Euskal Hiztegia / Diccionario General Vasco*, 16 lib. Bilbo: Euskaltzaindia (11. argit. elektr. 2023: <http://www.euskaltzaindia.eus/oeh>).
- Montoya, Estibaliz. 1998. Objektu bikoitzeko egiturak euskaraz. UPV/EHUko eskuizkribua.
- Odria, Ane. 2014. Differential object marking and the nature of dative case in Basque varieties. *Linguistic variation*, 14(2), 289-317.

- Odria, Ane. 2017. *Differential Object Marking in Basque syntax: A microcomparative survey*. UPV/EHUko doktorego tesia.
- Ormazabal, Javier. 2017. Lapurterazko datiboen aldaketak *EKC* corpusean: kronologia baterako arakatzeta. UPV/EHUko eskuizkribua.
- Ormazabal, Javier & Juan Romero. 2017. Historical Changes in Basque Dative Alternations: Evidence for a P-based (neo)derivational analysis. *Glossa: A Journal of General Linguistics* 2(1). 78 (1-39). <https://doi.org/10.5334/gjgl.103>.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1989. *Parameters in the grammar of Basque*. Dordrecht: Foris.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1995. Datibo komunztaduraren gainean. In Ricardo Gómez & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskal Dialektologiako Kongresua (Donostia, 1991ko Irailak 2-6) (ASJUren Gehigarriak 28)*, 579-588. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Ortiz de Urbina, Jon & Myriam Uribe-Etxebarria. 1991. Participial Predication in Basque. In Joseba A. Lakarra & Iñigo Ruiz Arzalluz (arg.), *Memoriae L. Mitcelena magistri sacrum (ASJUren Gehigarriak 14, 2. lib.)*, 993-1012. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. <https://doi.org/10.1387/asju.9259>.
- Oyharçabal, Beñat. 2010. Basque ditransitives. In Maia Duguine, Susana Huidobro & Nerea Madariaga (arg.), *Argument structure and syntactic relations from a crosslinguistic perspective*, 233-260. Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins.
- Pikabea, Josu. 1993. *Lapurtera idatzia (XVII-XIX). Bilakaera baten urratsak*. Donostia: UPV/EHU & Kutxa.
- Pineda, Anna. 2014. *Les fronteres de la (in)transitivitat: estudi dels aplicatius en llengües romàniques i basc*. Barcelona: Universitat Autònoma de Barcelona (UAB)-ko doktorego tesia.
- Rebuschi, Georges. 1983. Autour du parfait et du passif basques. In *Piarres Lafitte-ri Omenaldia (Iker 2)*, 545-558. Iruñea: Euskaltzaindia.
- Rezac, Milan. 2008. The syntax of eccentric agreement. The Person-Case Constraint and absolutive displacement in Basque. *Natural Language & Linguistic Theory* 26. 61-106. <https://doi.org/10.1007/s11049-008-9032-6>.
- Rezac, Milan. 2009. Person restrictions in Basque intransitives. *Lapurdum* 13. 305-322.
- Sarasola, Ibon, Pello Salaburu, Josu Landa & Josu Zabaleta. 2007. *Ereduzko Prosa Gaur (EPG)*. Bilbo: UPV/EHU, Euskara Institutua. <https://www.ehu.eus/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/> (2024/01/05).
- Zabala, Igone. 1993. *Predikazioaren teoriak gramatika sortzailean (euskararen kasua)*. Gasteiz: UPV/EHUko doktorego tesia.

Ohar bat Zuberoako bokal asimilazioen kronologiaz¹

A note on the chronology of vowel assimilations in Souletin

Manuel Padilla-Moyano*
UPV/EHU & HSE University (Mosku)

ABSTRACT: Beyond the well-known vowel interactions that took place in the whole Country of Soule (i.e., the changes conventionally noted as [e + a > ia], [o + a > ua] & [ü + a > ia]), more recently other changes usually termed as *vowel assimilations* started; they can be formulated in a very simplified way as [í + a > í] & [ú + a > ú]. Today, these secondary changes are one of the most remarkable intradialectal differences within Souletin Basque. This paper focuses on the chronology of Souletin vowel assimilations. Firstly, I propose an overview on what is known about the topic (§ 1); secondly, I bring some evidence from old Souletin texts (§ 2), and analyze some data closer to the present-day language (§ 3). Then I will deal with the chronology and spreading of vowel assimilations (§ 4), and draft some conclusions (§ 5).

KEYWORDS: Basque phonology; Souletin Basque; Souletin texts; intradialectal variation; vowel assimilation; low vowel deletion.

LABURPENA: *Zuberoa osoan obratu ziren bokalen arteko elkarreaginez harago (hots, konbentzio ordinarioan [e + a > ia], [o + a > ua] & [ü + a > ia] arauetan adierazten direnak), une batetik aitzina bokal asimilazio deitu obi diren aldaketa berriagoak abiatu ziren, arras modu sinplifikatuan [í + a > í] & [ú + a > ú] bezala formula daitezkeenak. Egun, aldaketa bigarrendar horiek zuberearen barneko desberdintasun markagarrienetarik dira, beharbada ezaugarri intradialektal nagusia. Lan honek Zuberoako bokal asimilazioen kronologia du jomuga. Gaiiaz dakiguna bildurik (§ 1), Zuberoako testu zaharren lekukotza ekarriko dugu (§ 2), eta egungo hizkuntzatik hurbil diren da-*

¹ Beti lagutzeko prest, José Ignacio Hualdek onartu zuen ene doktorego tesiarentzat txostengile izatea, iruzkin ezin pagatuzkoak eginik; geroztik, haren laguntza eta babesa ez dira hor bukatu. Beraz, euskalari guztiak bezala, harekiko zorretan nago. Lan xume honetan José Ignacio handiak jorratu dituen gaietako batean barnatzen naiz, hura Ameriketan eta ni Errusian izanik, Zuberoan batzen gaituena.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Manuel Padilla-Moyano. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila - Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitateen ibilbidea, 5 (01006 Gasteiz). – manuel.padilla@ehu.eus – https://orcid.org/0000-0002-2051-2885

Nola aipatu / How to cite: Padilla-Moyano, Manuel (2023). «Ohar bat Zuberoako bokal asimilazioen kronologiaz», *ASJU*, 57 (1-2), 773-783. (https://doi.org/10.1387/asju.25925).

Jasoa/Received: 2022-09-27; Onartua/Accepted: 2022-12-16.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago

tuak aztertuko ditugu (§ 3). Ondoren, asimilazio bokalikoek kronologiaz eta hedaduraz arituko gara (§ 4), ondorio batera etortzeko (§ 5).

HITZ GAKOAK: euskararen fonologia; zuberera; Zuberoako testuak; aldakortasun intradialektala; bokal asimilazioak; beheko bokalaren ezabatzea.

1. Sarrera

Bokalen arteko elkarreraginak euskararen fonologiaren ezaugarriak nabarrenta-koak dira, aldakortasun diatopikoa gradu gorenera eramaten baitute. Gaiaren erreferentziatzko deskripzio sistematikoan —«a nearly exhaustive catalogue»— bakarrik absolutibo singularrean gertatzen diren aldaketak kontuan hartuz 29 eredu deskribatu dute (Hualde & Gaminde 1997). Horregatik, eta are gehiago fenomeno bereziki hautemangarri eta maiztasun altukoa izanik, bokalen arteko elkarreraginak euskal hizkeren ezaugarritzatzeko elementu baliagarriak dira. Hortaz, 29 eredu haietara begiratzean, gauza markagarria da Zuberoa osoa mota bati egokitzea, eta mota hori soilik Zuberoan ezagun izatea.

1. taula

Bokalen arteko elkarreraginak Zuberoan (Hualde & Gaminde 1997: 212)

bilkura	<i>a + a</i>	<i>e + a</i>	<i>i + a</i>	<i>o + a</i>	<i>u + a</i>
emaitza	<i>á</i>	<i>ia</i>	<i>ia</i>	<i>ua</i>	<i>ia</i>

Banaka hartuta, 1. taulak erakusten dituen aldaketak beste hainbat lekutan ere dira ezagun, baina ez denak batera, konbinazio jakin horretan. Zubereraren bere ezaugarritzatze orokorrean, Zuazok (1989: 620-623) bokalen arteko elkarreragi-nei ere arreta eman die, berarenganainoko aipamenak bilduz eta ordenatuz. Lehenik, Bonapartek (1869: 257 [*Observations*, xxix]) *euphonies* deitu zituen aldaketak: (1) [*o > u / _V*] (*otsua*), (2) [*ě, ů > i / _V*] (*měhĩa, xahĩa < mēhě, xahũ + a*), eta (3) [*e, ü > i / _V*] (*semia, eskia*). Zuazok xehetasunez biltzen ditu, besteak beste, [*ü + a > ia*] arauari ezagutzen zaizkion salbuespenak (Bonaparte 1869: 34; Gèze 1873: 20; Lafon 1962: 86), eta [*ü, ů > i / _V*] arauaren tarteko emaitza bide den *uya* (Lafon 1951: 318; Sarasola 1983: 173-178), Leizarragaren zubereraren hiztegiñoa eta Zalgizeren erran-zaharrak lekuko.² Bigarrenik, Zuazok «zubereran bete ohi diren asimilazio zenbait» aipatzen ditu, hots, lan honek arrangura dituen aldaketak, ondoko bi erregeletan formulaturik:

i + a > í: (égin) din (dían), (égin) düükínin (düükíanian), zin (zían), hi(r)ín (hirían)... Bada salbuespen bat hala ere: baldin eta aipatu bokalok euren artean izan-

² Arrazoibide horri objektiorik egin gabe, preseski ohartarazi nahi dut Zalgizeren erretrauek arazo franko pausatzen dutela *zubererazko* testutzat hartuak izateko: adibide batez ilustratzeko, *-te* pluralgilea ergatiboan (*baitiutze* 35, *dute & dutena* 116). Menturaz, Oihenartek bezala, Zalgizek distantzia hartu zukeen bere sort hizkerarekiko —gauzarik ohikoena letra gizon batengan—. Are gehiago, 141. atsotitza bi gisatara da emana, bigarrena preseski Zuberoako antzora eskainia: *Gainian eder, barnian lander. Zuberoan: Gañian gaillo, barnian harro.*

dako *-r-* galdu ondoren suertatu badira elkarren jarraian, ez da orduan asimilaziorik burutu: *zia* (*zira*), *bagia* (*bagira*), *beitia* (*beitira*)...

ú + a > ú: *gaxtúk* (*gaxtúak*), *júnen* (*júanen*), *gozúk* (*gozúak*)... Oraingo honetan ere badira salbuespenak: a) ergatibo singularrean deklinatutako hitzak —horrela absolutu pluralekoekin nahasten ez direla—: *ardúak*, *lanhúak*, *phozúak*, *billúak*... eta b) mailegu zenbait, alegia biarnesez *-û* eta fr. *-on* amaiera dutenak.³ (Zuazo 1989: 622)

Jakina, bokalen arteko elkarreraginetan zein bokal asimilazioetan hainbat aldaketa metazen da. Hualdek (1993: 297-298) prozesu fonologiko horiek banaka azaldu ditu; hona hemen, hurrenkera kronologikoan:

1. Erdiko bokalen goratzea (*Mid Vowel Raising*): V [-low] → [+high] / _V. Horren arabera, [e + a > ia] & [o + a > ua] aldaketak obratzen dira.
2. *ü*-ren desborobiltzea (*Unrounding*) > Desborobiltzea bokal aitzin: V [-back] → [-round] / _V. Hortik [ü + a > ia] & [ü + e > ie] aldaketak datoz.
3. Beheko bokalaren ezabatzea (*Low Vowel Deletion*): /a/ → Ø / V _X_o. Azken aldaketa hau konbentzioz *bokal asimilazio* deitzen ditugun arauetan gauzatzen da: [i + a > i] & [ú + a > ú].

Hualderi jarraikiz, Zuberoan singularreko ergatiboaren eta inesiboaren formak opako gerta daitezke, inflexio oinaren bukaerako bokalek goraturik edo desborobil-durik baitirudite, horien ondoan beste bokalik ez izanik (ikus 1. adibidea). Forma horiek beheko bokalaren ezabatzearen ondoriozkoak dira.

- (1) Bokalen arteko elkarreraginak izenaren inflexioan (Hualde 1993: 298)

UNINFL	ABS SG	ERG SG	INES SG	ERG INDEF	ERG PL
<i>étxe</i>	<i>etxia</i>	<i>etxik</i>	<i>etxin</i>	<i>etxek</i>	<i>etxiék</i>
<i>sóho</i>	<i>sohúa</i>	<i>sohúk</i>	<i>sohún</i>	<i>sóhok</i>	<i>sohuék</i>
<i>múndu</i>	<i>mündia</i>	<i>mündik</i>	<i>mündín</i>	<i>múndük</i>	<i>mündiék</i>

Beraz, singularreko ergatiboaren eta inesiboaren formek erdiko bokalaren goratzea ala desborobiltzea iragan dute, bai eta beheko bokalaren ezabatzea, honako hurrenkeran:

	/soho-a/	/soho-a-k/	/mündü-a/	/mündü-a-k/
1. Mid Vowel Raising	<i>sohua</i>	<i>sohuak</i>		
2. Unrounding			<i>mündia</i>	<i>mündiak</i>
3. Low Vowel Deletion		<i>sohuk</i>		<i>mündik</i>

(Hualde 1993: 298)

2. Zuberoako testuen lekukotasuna

Atal honetan bokal asimilazioen lekukotza aztertuko dugu zuberera historikoaren corpusaren argitan.⁴ 1770 arte ez da fenomenoaren isla grafikorik; hortik aitzina han-

³ Egiazki, bigarren salbuespen hori ez da existitzen, aipatu maileguez zubereraz ere «-û amaiera» dutelako, hots, /u/-tik bereizten den fonema. Biarnesetikako maileguei lotzekoa den /ü/ sudurkari *berriaz* —berria /ü/ etimologikoaren pare— ikus (Padilla-Moyano 2017: § I. 1 atala).

⁴ Zuberoako testuen corpusaren osakeraz, ikus Padilla-Moyano (2017: § 3.2 «Atalasean»).

hemen kausitzen dira horren herexak. Jarraian, XVIII. mendearen bigarren erditik aitzinako lau testutako datuak aurkezten dira.

2.1. *Saint Julien d'Antioche* (Sarrikotapea, 1770)

Beheko bokal ezabatzearentzat datatzen ahal ditugun lehen agerraldiak *Saint Julien*en ageri dira, hots, argitaratua den trajeriarik zaharreanean. Sarrikotapean antzeztu zuten, 1770ean, errejenta eta izkribuaren kopiagile nagusia Simon d'Altxürrüt izanik (Loidi 2004: 5-7). Badira *i* ondoko adibideak, hala izen morfologian (*ifernialat* < *ifernialat* 254, *tapiz pila* < *tapiz piala* 1261-di,⁵ *triate bazterrila* 1285-di, *mahainin* < *mahainian* 134-di, *ezustin* < *ezustian* 635-di) nola aditzarenean (*dila* < *diala* 809, *zütinian* < *zütianian* 031, *zianin* < *zianian* 1051). Horiekin batera, *u* ondoko adibiderik ere kausitzen ahal da: *aingürik* [ABS PL] *tortxuk* [ABS PL] *eskietan* 161-di, *emazte gaiztuk* [ERG SG] *senhar gaizturi* [DAT SG] *bezala* 632, *jun* 1261-di & 1285-di.

2.2. *Aberatzarsun gussién guils bakhoitza* (1782)

Peillen Egiategiren *denin* 'denean' bezalako etsenplu bakanetan oinarritu zen beheko bokalaren ezabatzearen hastapena XVIII. mendean datatzeko.⁶ Jüsef Egiategiri doakionean, bada zer emenda. Galdutzat jotzen genuen haren eskuizkribu bat, *Aberatzarsun gussién guils bakhoitza*, berriz aurkitua izan da (Ugarte 2020; Segurola Azkobieta & Ugarte 2021), eta haren edizioa ere berriki atera da (Padilla-Moyano 2022). Eskuizkribua oso aberatsa da zuzenketa eta gainidatzietan; besteak beste, Egiategik bere burua zuzentzen du bere hizkeraren ezaugarri fonologikoa den beheko bokalaren ezabatzearen estaltzeko. Horrela, lehen idatzaldiko *osagarriren*, *anderiri*, *herenila*, *dinak* edo *zereiola* bigarren idatzaldian *osagarriaren*, *anderiari*, *hereniala*, *dianak* edo *zereiuala* bihurtzen dira, hurrenez hurren. Izkribuan gandi Egiategik halako 140 autozuzenketa utzi du, eta beste berrogei bat alditan zuzentzea ahanzi du. Datu horiek azterturik, Egiategiren hizkeran beheko bokalaren ezabatzearen testuinguruak honakoak dira:

1. [*i* + *a* > *î*]. Izen morfologian etsenplu guztiak singularrekoak dira, genitiboan (*osagarriren* 15r), datiboan (*beharlüziri* 15v) eta adlatiboan (*lürrila* 11r). Aditz morfologian, araua *-ala* atzizkia (*zaitekila* 43r) zein *-an* atzizki menderatzailea eta horren eransketarik bat gehitzean betetzen da (*eztina* < *eztiana* 19v, *elirokinik* 16r, *dino* < *diano* 'dueno' 3v). Bere burua zuzentzean, zenbaitetan Egiategik behar ez den *a* berrezartzen du, halako hiperzuzenketa (*batekiala* 'batekila' 37r, *dadian* 'dadin' 56r).
2. [*u* + *a* > *u*]. Izen morfologian genitiboan (*sanoren* 30v), datiboan (*Jinkori* 42r) eta adlatiboan (*heriola* 30v) lekukotzen da; aditz morfologian, *-ala* atzizki

⁵ Orrialdeetarako darabilgun notazio sisteman, «-di» honek *didaskalia* adierazten du. Ikus orobat § 2.3.

⁶ Peillen *Filosoffo huscaldunaren ekbeia* liburuaz ari da. Testua ez da erraz datatzekoa: Larramendiren hiztegiaren eragina da elementu seguruen (beraz 1745 ondokoa); bestenaz, eskuizkribuaren kopiagileak 1782.eko data agerrarazi arren, bigarren parteak Belako Zaldunaren heriotzari erreferentzia egiteak testua «1796-1797.ean berriz ukitu zuela» erakusten du (Peillen 2011: x).

konpletiboa eranstea (*zereiola* ‘ziola’ 16r).⁷ Egiategirengan beheko bokalaren ezabatzeak erroak ere hunki ditzake: *gutzala* < *guatzala* 17v.

2.3. *Sainte Elisabeth de Portugal* (Eskiula, 1750-1810)

Testua Eskiulan datatua izan da, ca. 1810, baina azken orrialdeak 1750ekoak dira (Segurola Azkonobieta 2015). Izkribuan gaindi beheko eta erdiko bokalen ezabatzeak berrogei bat agerraldi du, horren herena *didaskalietan*, hots, kopistaren antzez-oharretan —agian bertan laxoago idazten duelako—. Etsenpluak hiru bilakabidetan sailka daitezke:

1. [*i* + *a* > *î*]: *büriren* 1138, *praubik* [ABS plural] 190-di, *ginandilarik* ‘ginelarik’ 1411. Horiekin batera *büriaren* 874, *praubiak* 191, 192 & 206-di (guztiak ABS plural) & *ginandian* 1424.
2. [*ú* + *a* > *û*]: *tortxuk* 1317-di & 1372-di.
3. Erdiko bokalaren ezabatzea [*i* + *e* > *î*], hasikin gisara: *zütit* < *zutiet* ‘zaituztet’ 1506 —baina *zütit* 1, 236, 463.

2.4. *Uscara Libria* (ante 1814)

Vinsonentzat (1891: § 132a) «L’édition doit être du dernier tiers du xvii^e» —du darik gabe xviii zuen gogoan—, eta zuhur iruditzen zait Iraultza ondoko urteetan datatzea.⁸ Vinsonen hitzetan, «On ne connaît pas l’auteur de ce livre de piété, mais à en juger par l’orthographe et le style, on peut dire qu’il était originaire de Barcus» (*ibidem*). Vinsonek Barkoxeko euskara identifikatzeko argudioa azaldu ez arren, zubereraren ezaugarri intradialektal nagusia den beheko bokalaren ezabatzea gogoan izan behar zuen. Bada, *Uscara Librian* horren adibide ugari ediren daitezke, bereziki «Alexis Saintiren Bicitce admirabilia» izenburua duen atalean (211.-228. orrialdeak). Kontu errendatze zehatzik ekarri gabe, aski izan bitez honako pasarte hauek: *Haien artin igaran ziradin feitak haier jüntatzen zilarik* 223 & *Inperadoria ützüli züzün ordin Eufemienen aldilat zoiñ khantın present beitzin* 224. Aldiz, *u* ondoko asimilazioaren adibide bakana atzeman dut: *Jinkuk* ‘Jinkoak’ 223.

3. Zuberoako bokal asimilazioak *Euskararen Herri Hizkeren Atlasean*

*EHH*Aren datuak lagungarri zaizkigu bokal asimilazioak xx. mende bukaeran zertan ziren konprenitzeko. Hortaz, hamalau mapa aztertu dut,⁹ eta bertako datuak 2., 3. eta 4. tauletan hustu.

⁷ Adibide horietan [u] ahoskera estaltzen duen <o> grafia etimologikoa datzala pentsatzeko arrazoiak ditut.

⁸ Testu honen datazio aferaren berri zehatza jakiteko, ikus Padilla-Moyano (2017: 49. oin-oharra).

⁹ Hona hemen: 1054 «les bœufs» (*i* + *a*, ABS PL), 1055 «le bœuf mange de l’herbe» (*i* + *a*, ERG SG), 1057 «il faut donner de l’herbe au bœuf» (*i* + *a*, DAT SG), 1060 «la force du bœuf est grande» (*i* + *a*, GEN SG), 1064 «dans le village il n’y a pas grand monde» (*i* + *a*, INE SG), 1068 «tes ânes sont devant la porte» (*o* + *a*, ABS PL), 1070 «l’âne mange l’herbe» (*o* + *a*, ERG sg), 1073 «que donnes-tu à ton âne ?» (*o* + *a*, DAT SG), 1077 «les oreilles de l’âne sont grandes» (*o* + *a*, GEN sg), 1093 «l’enfant est tombé dans le trou» (*o* + *a*, INE SG), 1056 «les bœufs mangent de l’herbe» (*i* + *e*, ERG PL), 1061 «la force des boeufs est grande» (*i* + *e*, GEN PL), 1071 «les ânes mangent l’herbe» (*o* + *e*, ERG PL) & 1078 «les oreilles des ânes sont grandes» (*o* + *en*, GEN PL).

2. taula

EHHAko datuak: beheko bokalaren ezabatzea *i* ondoa

	<i>i + ak</i> ABS PL	<i>i + ak</i> ERG SG	<i>i + ari</i>	<i>i + aren</i>	<i>i + an</i> INE SG
Altzai	iđiak, beharik	iđiak	iđiaĭ	iđiaēn	
Altzürükü	iđiak, estik	iđi ^a k	iđijé ⁱ	iđien, árdjan, ardien	herín
Barkoxe	iđik	iđik	iđiaĭ	iđiaĭn	herín
Domintxaine	iđiak, aspják	iđiak	Iđjári	iđjaĭn	
Eskiula	iđiak, behík, titik, herik	iđik	iđjá ⁱ (?), nauśi, iđiaĭ	ardiaĭn, iđián	herín
Larraine	iđiak	iđiak	iđiaĭ	iđian	
Montori	iđiak	iđiak	iđiaĭ	iđjá ^c n	heRín
Pagola	iđiak	iđiak, iđik	idiaĭ	iđjaĭn	heri:n
Santa Grazi	iđiak	iđiak	iđiaĭ	iđian	
Sohüta	iđik	iđik	iđi:	—	herín, hérin
Urđiarbe	iđik	iđik	iđiaĭ	iđjaĭn	herín
Ürrüstoi	iđik	iđik	iđjá ⁱ ardjái	iđián	herín, herían

3. taula

EHHAko datuak: beheko bokalaren ezabatzea *u* ondoan

	<i>o + ak</i> ABS PL	<i>o + ak</i> ERG SG	<i>o + ari</i>	<i>o + aren</i>	<i>o + an</i> INE SG
Altzai	ástúk, etfekú:k	ástúk	ástóaj	ástwáen, ástwán, ástwáan	ĭilhúan, ajsúan
Altzürükü	ástúk, olúk	ástúk	ástóái, ástwéĭ	ástú ^a en	silhú:n
Barkoxe	ástú:k, ondokúk, olúk	ástú:k	ástóaj	ástóaj ⁿ	ĭilhún, khampún
Domintxaine	ástwak	ástwák	ástwári	ástwáĭn	ĭilhwán
Eskiula	ástúk, onddúak	—	ástóúĭ	ástóen	itfaśún, ĭilhún
Larraine	ástúak	ástúk	ástóaj	ástúan	ĭilhúan, otójan
Montori	ástúak, étſenjúk, ajsúk, olúk, khantykúk, khantykúak	ástuk (?)	ástúej ástwáĭ, etſenkwáĭ	ástún	silhúan, lephún, byrójan
Pagola	ástwák, olúk	ástúk	ástwáĭn	ástwáĭn	ĭilhú:n, silhwán
Santa Grazi	ástúak	ástúk	ástúaj	ástún	ĭilhúan
Sohüta	ástúk	ſofúk, bilhayarúk	ástwí	ástüen	ĭilhún
Urđiarbe	ástúk, mandúk	ástúk	ástwáĭ	ástwáĭn	ĭilhún, khampún
Ürrüstoi	ástúk	ástúk, ſófuk	ástóaj	ástúan	itfaśúan, lejhún, otójan, otoan, ástún

*EHHA*ko mapek irudi mudakorra erakusten dute, testuinguruaren arabera aldatzen dena. *Idiak* ABS PL > *idik* aldaketak Zuberoaren iparraldeko eremua definitzen du: Sohüta, Ürrüstoi, Pagola, Urdiñarbe, Barkoxe, Eskiula. Ohartarazi behar da eremu bertsuan berdin betetzen dela *idiak* ERG SG > *idik*, zenbait euskalarik bi forma horien arteko kontrastea defendatu arren. [*i + a > i*] arauak sendoago dirudi inesibozko formetan, aipatu herriei Altzürükü eta Montori gehitzen baitzaizkie, espazioan jarraikortasuna erakusten duen eremu bat osatuz. Aldiz, datibo singularraren morfema eranstea mapak Sohüta baizik ez du markatzen.

*EHHA*ko datuen arabera, *u* ondoko bokalaren ezabatzea gehiago hedatu dateke. Bada, *astúak* ABS PL > *astúk* bezalako emaitzak Sohütan, Ürrüstoin, Pagolan, Urdiñarben, Barkoxe, Eskiulan, Altzürükün, Montorin eta Altzain bildu dira. Eta *astúk* ERG SG Zuberoa kasik osora hedatu da, salbuespena Domintxaineko lekukoa delarik.

Gehiago dena, *EHHA*ko datuek beheko bokalaren ez ezik, erdiko bokalaren ezabatzea ere badela iradokitzen dute; testu zaharretan ere horren zantzuak atzeman daitezke (ikus § 2.3). Beheko bokalarekin gertatzen den bezala, erdikoa *i* zein *ú* ondoren ezabat daiteke. Halere, 4. taulako datuetan ez da eremu lektal trinkorik hautematen, *e*-ren ezabatzea era kontsistentean bakarrik Santa Grazin ageri baita. Horrezaz gainera, *o* ondoko ergatibo pluralean Altzai, Montori eta Urdiñarbeko lekukoek asimilazioa egin dute.

4. taula

*EHHA*ko datuak: erdiko bokalaren ezabatzea

	<i>i + ek</i> ERG PL	<i>i + en</i> GEN PL	<i>o + ek</i> ERG PL	<i>o + en</i> GEN PL
Altzai	iðiek	ardien	aštúek, ajsúk	aštúen
Altzürükü	iðiek	iðjén	aštúek, aštwek	aštwen
Barkoxe	idjék	iðién	aštwek	aštwen
Domintxaine	iðiek	iðjén	ástoék, ajswék, aštwek	aštwen
Eskiula	iðjék	iðién	—	ástoén
Larraine	iðiek	iðién	aštúek	aštúen
Montori	iðiek	iðién	aštuk	aštuén
Pagola	—	iðjén	aštwek	aštwen
Santa Grazi	iðík	iðín	aštúk	aštún
Sohüta	—	behien	aštwe:k	aštwen
Urdiñarbe	iðík (?)	iðjén	etjekúk	aštwen
Ürrüstoi	iðjék	iðjén	aštwek	aštúen

4. Noizdanik eta nondik hedatu dira Zuberoako bokal asimilazioak?

Ikusi dugunez (§ 2), Zuberoako bokal asimilazioen lekukotza XVIII. mendearen bigarren erdian hasten da. Haiekiko lehen erreferentzia, inplizitu bezain argia, Augustin

Chahok egin zuen 1848. urtean. Ondoko pasartean, atharraztarra bere sort hizkerari arrotz zitzaizkion asimilazioez baliatu zen Pettarreko apez bati arrapostu emateko:

Iracourtu ukhen-dit, Parisen *berin*, *Internacionalin*, goure contre izquiribatu-
duçun letera ecinago-lucia, eta eçagutu-dit *mementin*, çu cinela jaon-apez-bat, sorthia
Petharrin, Maüle *khantin*, gaizqui escolatia Bayonaco *hirin*, doctor handi ignoranten
artin, ignorant-urguillutsu-bat *funtsin*; eçagun-beïta çoure lumati nounco ciren, nour
ciren eta cer ciren: eta berantiago-gabe nahi deïçut igorri bi hitz arrapostu, hobeque-
nic daquidan Bassaburuco uscara *eïgerrin*, bena ez çourin. («Apez-bati arrapostu»,
Ariel, 1848-7-25) [letra etzana nirea]

Beraz, badakigu 1848an basabürütar batentzat bokal asimilazioak ongi ezagu-
nak zirela, eta *Petharreko*, *Maule khantüko* ezaugarritzat zituela; hainbeste, non aski
zitzaizkiokeen bere solaskide anonimoaren salatzeke. Pasarteak fenomenoaren hamar
agerraldi dakartza, hamarrak $i + a > i$ sailekoak, eta guztiak inesiboan. Peillenek
(1992: 257) XVIII. mendean kokatzen du beheko bokalaren ezabatzearen abiapuntua:

Noizdanik agertu den Pettarrean diptongoen ezabatze hori? Lehenik badirudi
—gaurko gipuzkeran bezala (*jün*, *mendün*, *kanpün*)— azken silabetan gertatu dela.
Pastoraletan eta XVII-XVIII. mendeko eskuidazkietan ez da irakurtzen, behin ikusi dut
Egiategiren obra nasaiean *denin* «denian» itxuraren lekuan. Ordukotz XVIII. mendean
agian abiatu zen aldaketa ta Etxahunekin XIX. mende erditan Pettarran —bertsolari
erraztasunez ote?— argi ta garbi dago eta Etxahunen eskutik idatzirik, ez gaur bildua,
Jean Haritschelhar-ek erakutsi zigun bezala, famatu da gainera Etxahunen *Desertüko*
ihizik eta ez, orain ere Basabürüan entzuten den *ihiziak*. (Peillen 1992: 257)

XIX. mendean, Chahorenaz gain beste testigantza bat mintzo zaigu ezaugarriaren
hedaduraz: «*ia* se prononce comme en français, mais en appuyant généralement sur
l'*i*. Dans une partie de la Soule (pays de Mauléon et de Barcus) on prononce cette
diphtongue dans certains mots comme s'il n'y avait qu'*i*. On trouve des ouvrages éc-
rits suivant cette prononciation» (Gèze 1873: 3). Geroztik, Gavelek (1921: 6-12)
ohar mamitsuak egin zituen, adibidez, asimilazioak jendea arta handirik gabe min-
tzatzean entzuten direla, edo biarnesean ezaguna den prozesu batekin konparaturik,
zubererarena barneko garapena dela. Zorigaitzez, deus ez zuen zehaztu fenomenoaren
hedadura geografikoaz.

Larrasquet ere asimilazio berrien hedaduraz mintzo da, lausoki mintzo ere. Ho-
rien muga nonbait Zuberoa Beherearen eta Garaiairen artean kokatzen du, baina
orain Basabürüaren eremu batera hedatu dela dirudi, maiztasun baxuagoak hastapen
fasearen seinale izanik:

En Basse-Soule, les diphtongues sont contractées, sauf de très rares exceptions dues
à des raisons particulières ; en Haute-Soule, les courants de contraction atteignent à
peine le tiers du domaine et peut-être le tiers ou le cinquième des mots à diphtongues
qui sont innombrables. (Larrasquet 1939: 17)

Peillenen arabera, Pettarreko euskaldunak «diphtongoen etsaiak dira», eta asimila-
zioak Basabürüan sartzen hasiak dira,¹⁰ han-hemen, haren ezagun batzuen mintza-

¹⁰ Zuazoren interpretazioan, Peillenek Larrasqueten (1939: 17) ondorioak berresten ditu, «baina, antza, Basabürüa bertara ere hedatuz joan da Pettarrako ohitura» (1989: 623). Oker ez banaiz, Larrasquetek jada eman zuen hedatze horren berri, Zuberoa Garaiko heren batean bederen.

tzeko manerari erreparaturik (1984: 249-250). Peillenek ez du, aldiz, diptongo eta hiatoen arteko bereizkuntzarik egiten, *kanbitü* < *kanbiatü* (diptongoaren desegitea) eta *khantín* < *khantían* (hiatoaren desegitea) zaku berean sartuz.

Beheko bokalaren ezabatzea xx. mendeko bigarren erdiko Basabürüan nola zen sartua ilustratzeko, Madalena de Jauregiberri anderearen hizkerari so bat egin diot. De Rijkek (1999) 1966. urtean erregistratu zuen alozartsa. Testuak 2.500 bat hitz du. Bertan *-i + ala* zazpi aldiz *-ila* bihurtzen da (*aitzinila*, *dila* —bitan—, *badila*, *zilarik*, *etzila*, *etzitila*), eta hamabi aldiz *-iala* mantentzen. Halaber, *i + an* > *ín* ere ageri da: hala inesibozko formetan (*khantín*—bitan— eta *Zünharrin*), nola adizki batean (*zünin*); baina Jauregiberrik 83 aldiz *-ian* ekoitzi du. Gainerakoan, *u* ondoko ezabatzearen arrastorik ez da ageri.

5. Ondorioak

Zuberoako euskararen bokalismoan gertatu diren aldaketa berrienak, hots, euskalaritzaren tradizioan *bokal asimilazio* deitu ohi direnak —eta modu teknikoagoan *beheko bokalaren ezabatzea*— zubereraren barneko diferentzia nagusienetarik dira. Euskalaritzaren tradizioan aipatu ohi diren [*i + a > i̯*] eta [*ú + a > ú̯*] arauz gainera, erdiko bokalaren ezabatzea ere badela proposatu dut, [*i + e > i̯*] eta [*ú + e > ú̯*] gisara formulatua. Azken aldaketaren zantzuak jada *Sainte Elisabeth de Portugal* trajeriaren eskuizkribuan (ca. 1810) atzeman ditut, eta *EHH*Ako datuek fenomenoaren islatu dute.

Bokal asimilazioak segur eta oparo lekukotuak dira gutxienez xviii. mendearen bigarren erdiko lau testutan: *Saint Julien d'Antioche* trajerian (Sarrikotapea, 1770), *Sainte Elisabeth de Portugalen* (Eskiula, 1750-1810), Jüsef Egiategiren *Aberatzarsun gussién guils bakhoitza* izkribuan (1782) eta *Uscara Librian* (Iraultza ondoko urteetan). Fenomenoaren agerpen grafiko goiztiarra testuinguru morfonologiko guztietan ageri da: /i/ zein /ú/ ondoren, izen nahiz aditz morfologian. Jakina, beheko bokalaren ezabatzearen testuinguru guztiak 1770-1780 urteetan ongi lekukotuak izateko, berrikuntzak lehenagotik abiatua izan behar zuen, baina horretaz honako aierua baikizik ez dugu egiten ahal: fenomenoaren belaunaldi bat edo bi lehenago hasi zela, hots, xviii. mendearen hastapenean.

Testu zaharren datatzeko eta espazioan kokatzeko ditugun arazoak gorabehera, ez da dudarik bokal asimilazioak Zuberoako iparraldetik abiatu zirela, nonbait Sohüta-Eskiula-Barkoxe herrietarik. Ondoko testuek (adibidez Etxahun Barkoxekoarenek) zein euskalarien deskripzioek bokal asimilazioak *Pettarra*, *Zuberoa Beherea* edo *iparralde laua* gisara izendatzen den eremu batean kokatzen dituzte, maizenik *Basabürüa*, *Zuberoa Garaia* edo *hegoalde menditsu* batekiko kontrastean. xx. mendeko testigantzek erakusten dutenez, beheko bokalaren ezabatzea Zuberoa Garairat hedatzen hasi da, eta mende akabantzan beheko zein erdiko bokalaren ezabatzea lekukotzen da, testuinguruaren arabera eremu geografikotan.

Harago, bi idazleren testuetarik bestelako informazioa idoki dezakegu. Lehenik, *Aberatzarsun gussién guils bakhoitza* eskuizkribuan Jüsef Egiategik bokal asimilazioen desagerrarazteko xedez bere burua zuzentzea oso adierazgarria da. Bada, testu horretan Egiategi zuberotarrei zuzendu zitzairen, eta ez, Tartas, Oihenart edo Zalgizeren antzora, eremu zabalago bateko euskaldunei. Eta hala izanik ere, Egiategiri bokal

asimilazioen ondoriozko formak ez zitzaizkion egoki iruditu. Bigarrenik, Augustin Chahok ongi ezagutzen zituen bokal asimilazioak, eta aski zituen inoren zubereraren ezagutzeko, baina bere Basabürüko euskara *eijerrian* ez zituen nahi. Azkenik, *Saint Julien d'Antioch* (1770) eta *Sainte Elisabeth de Portugal* (1750-1810) pastoraletan ikusi denez, errejent-kopiagileek asimilazio bokalikoen ondoriozko formak proportzioz anitzez ere maizago grafiatu zituzten antzez-oharretan, ezen ez arizaleek deklamatzeko ziren pasarteetan.

Erreferentziak

- Bonaparte, Louis-Lucien. 1869. *Le verbe basque en tableaux, accompagné de notes grammaticales, selon les huit dialectes de l'euskara : le guipuzcoan, le biscaien, le haut-navarrais septentrional, le haut-navarrais méridional, le labourdin, le bas-navarrais occidental, le bas-navarrais oriental et le souletin, avec les différences de leurs sous-dialectes et de leurs variétés...* Londres: Strangeways & Walden (Berrarg. in José Antonio Arana Martija, *Opera Omnia Vasconice* I, 175-442. Bilbo: Euskaltzaindia, 1991).
- Chaho, Augustin. 1848. Apez-bati arrapostu. *Ariel* 1848/7/25.
- EHHA = Euskaltzaindia. 2010-2022. *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa*. Bilbo.
- Gavel, Henri. 1921. *Éléments de phonétique basque*. RIEV 12. 1-542.
- Gèze, Louis. 1873. *Éléments de grammaire basque. Dialecte souletin*. Baiona: Lamaignère-ren alarguntsa.
- Hualde, José Ignacio. 1993. Topics in Souletin phonology. In José Ignacio Hualde & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *Generative studies in Basque linguistics*, 289-327. Amsterdam: John Benjamins.
- Hualde, José Ignacio & Iñaki Gaminde. 1997. Vowel interaction in Basque: a nearly exhaustive catalogue. *ASJU* 31(1). 211-245.
- Lafon, René. 1951. La langue de Bernard Dechepare. *BAP* 7(3). 309-338 (Berrarg. in Jean Haritschelhar & Piarres Charritton, *Vasconiana*, 729-758. Bilbo: Euskaltzaindia, 1999).
- Lafon, René. 1962. Sur la voyelle ü en basque. *BSL* 57(1). 83-102 (Berrarg. in Jean Haritschelhar & Piarres Charritton, *Vasconiana*, 95-112. Bilbo: Euskaltzaindia, 1999).
- Larrasquet, Jean. 1939. *Le basque de la Basse Soule Orientale*. Paris: Klincksieck.
- Loidi, Ane. 2004. Antiokiako San Julianen pastorala (1770). *ASJU* 38(1). 1-133.
- Padilla-Moyano, Manuel. 2017. *Analyse diachronique du dialecte souletin (XVI^e-XIX^e siècles) – Zuberoako euskararen azterketa diakronikoa (XVI.-XIX. mendeak)*. Gasteiz, Bordele: UPV/EHU & Université Bordeaux Montaigne-ko doktorego tesia. <https://tel.archives-ouvertes.fr/tel-01806475/document> (19/12/2023).
- Padilla-Moyano, Manuel. 2022. *Juseff Eguiatéguyren «Aberatzarsun gussièn guils bakhoitza» (1782) eskuizkribuaren edizio kritikoa*. *Egan* 75(1-2). 42-244.
- Peillen, Txomin. 1984. Zuberoako euskalkiaren, Basaburuko motaz, ohar batzu. *Euskera* 29(1). 249-254.
- Peillen, Txomin. 1992. Zubereraren bilakaeraz ohar batzuk. In Gotzon Aurrekoetxea & Xarles Videgain (arg.), *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra (IKER 7)*, 247-272. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Peillen, Txomin. 2011. *Egiategiren Filosofo huskaldunaren ekheia, bigarren liburukia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Rijk, Rudolf P. G. de. 1999. Zuberoa Garaiko mintzaeraren eredu bat *FLV* 80. 155-163.

- Sarasola, Ibon. 1983. *Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos (ASJUren Gehigarriak 11)*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU.
- Segurola Azkonobieta, Koro. 2015. *Sainte Elisabeth de Portugal pastoralaren eskuizkribua. Azterketa kodikologikoa*. Eskuizkribua.
- Segurola Azkonobieta, Koro & Antón Ugarte. 2021. Jusef Egiategiren *Aberatztarzun gussién guils bakhoitza* (1782) eskuizkribuaz gehiago. *Egan* 74(1-2). 105-124.
- Ugarte, Antón. 2020. El manuscrito «encontrado» de *Aberatztarzun gussién guils bakhoitza* (1782) de Juseff Eguiatéguy. *BAP* 46(1/2). 561-572.
- Vinson, Julien. 1891. *Essai d'une bibliographie de la langue basque*. Paris: Maisonneuve (Berrarg, Donostia: Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», 1984).
- Zuazo, Koldo. 1989. Zubereraren sailkapenerako. *ASJU* 23(2). 609-650.

Fent un tomb amb *aquí* (català), *ahí* (castellà) i *hor* (basc) pel paradigma¹

*Taking a stroll through the paradigm of demonstratives
with aquí (Catalan), ahí (Spanish) and hor (Basque)*

Manuel Pérez Saldanya*
Universitat de València

ABSTRACT: This paper deals with the main changes that have occurred in the demonstrative system of Catalan and Spanish. The analysis is situated in the framework of the Romance languages and is used as a starting point to develop insights into the reconstruction of the demonstratives in Basque. Special attention is paid to the cyclical change of the spatial deictic systems and, more specifically, to the tendency to turn ternary systems into binary systems, and these, again, into ternary systems.

KEYWORDS: spatial deixis; anaphora; demonstratives; restructuring; grammaticalization.

RESUM: *En aquest treball s'analitzen els principals canvis que s'han produït en el sistema de demostratius del català i el castellà. L'anàlisi se situa dins el marc de les llengües romàniques i es pren com a base per avaluar algunes de les propostes formulades sobre la reconstrucció dels demostratius en basc. En el treball es presta una especial atenció al canvi cíclic dels sistemes de dixi espacial i, més concretament, a la tendència a convertir els sistemes ternaris en binaris i aquests, de nou, en ternaris.*

PARAULES CLAU: *dixi espacial; anàfora; demostratius; reestructuració, gramaticalització.*

¹ Aquest treball s'ha realitzat dins el projecte d'investigació PID2021-128381NB-I00 subvencionat pel Ministeri de Ciència i Educació. Agraïxo a Beatriz Fernández, Daniel Luján Cazalilla, Julen Manteola i Josep Ribera els valuosos comentaris i suggeriments que em van fer a una versió prèvia de l'article i que han contribuït a millorar la forma i el contingut d'aquest treball.

* **Correspondència a / Corresponding author:** Manuel Pérez Saldanya. Departament de Filologia Catalana - Facultat de Filologia, Traducció i Comunicació (Universitat de València), Avda. Blasco Ibáñez, 32 (46010 València). – Manuel.Perez-Saldanya@uv.es – <https://orcid.org/0000-0001-8652-7476>

Com citar / How to cite: Pérez Saldanya, Manuel (2023). «Fent un tomb amb *aquí* (català), *ahí* (castellà) i *hor* (basc) pel paradigma», ASJU, 57 (1-2), 785-803. (<https://doi.org/10.1387/asju.25975>).

Rebut/Received: 2022-10-20; Acceptat/Accepted: 2023-01-13.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Aquesta obra està subjecta a una Llicència-

Creative Commons Atribució-NoComercial-SenseDerivades 4.0 Internacional

1. Introducció

Amb José Ignacio Hualde hem parlat sovint de la dixi espacial en algunes de les excursions muntanyenques que solem fer aquí i allà a l'estiu. Va ser José Ignacio el primer que em va comentar l'interès que tenia l'estudi dels demostratius en basc, perquè el sistema documentat des dels primers textos presentava tres graus díctics, però possiblement provenia d'un sistema de només dos graus. Va ser ell qui em va preguntar com s'explicava que el català tingués un sistema de dixi espacial marcat tipològicament, que diferenciava dos graus, però amb unes oposicions diferents de les que tenien altres llengües amb dos graus. I va ser ell també qui em va comentar que a les universitats dels Estats Units encara s'usaven manuals de lingüística romànica que asseguraven que el sistema ternari del castellà era continuïtat del sistema ternari llatí, tot i que aquesta hipòtesi no està avalada per la documentació de què disposem.

En aquest treball ens centrarem en els temes apuntats i els exemplificarem sobretot a partir de l'evolució dels adverbis demostratius *aquí* (català), *ahí* (castellà) i *hor* (basc). Incloent aquesta introducció, el treball s'estructura en nou apartats. En § 2, s'analitzen els demostratius del català i s'apunten els canvis formals i funcionals que s'hi han produït històricament. En § 3 es presenten i comparen els sistemes de dixi espacial de les llengües romàniques. En § 4 i 5 s'estudia l'evolució dels sistemes díctics del català i el castellà: primer, el pas d'un sistema binari a un de ternari en totes dues llengües, i més tard, el pas de nou a un sistema binari en la major part del català. En § 6, s'analitzen els demostratius del basc a la llum dels canvis produïts en les llengües romàniques. El treball es tanca amb les conclusions (§ 7), la bibliografia (§ 8) i el corpus (§ 9).

2. Els demostratius del català

Els demostratius constitueixen una categoria transversal o creuada (IEC 2016: 131-132), això és, una classe de mots integrada per elements que comparteixen propietats sintàctiques i semàntiques, però que pertanyen a categories lèxiques diferents. En català, com en altres llengües romàniques, n'hi ha que són determinants, pronoms i adverbis. En la Taula 1 es recullen les formes més generals del català antic i el significat bàsic amb què es documenten en els textos més antics.

Taula 1

Demostatius més freqüents en el català antic

Categoria	Proximitat	Anàfora	Llunyania
Determinant	<i>aquest/est</i>	<i>aqueix/eix</i>	<i>aquell</i>
Pronom	<i>açò</i>	<i>això</i>	<i>allò</i>
Adverbi	<i>ací/ça</i>	<i>aquí</i>	<i>allí/(a)llà</i>
Pronom individualitzador		<i>ço</i>	

El paradigma de demostratius del català antic té una certa complexitat, ja que conté catorze elements que presenten força heterogeneïtat formal i funcional. Pen-

sem, per exemple, que entre els determinants hi ha formes simples (*est, eix*) i formes compostes que deriven de demostratius llatins amb el reforç díctic ECCU (*aquest, aqueix i aquell*), com ocorre sobretot en les llengües iberoromàniques. I que entre els pronoms i els adverbis hi ha formes amb el reforç més antic ECCE (*açò, ací, çà i çò*), més típic de les llengües gal·loromàniques.²

Atenent a la funció díctica i/o anafòrica, la majoria dels demostratius s'estructuren en tres sèries, com en les llengües iberoromàniques i occità. Inicialment, dues de les sèries establien una oposició díctica de proximitat (*aquest/est, açò, ací/ça*) i llunyania (*aquell, allò, allí/(a)llà*). La tercera quedava fora d'aquesta oposició, perquè només tenia un valor anafòric (*aqueix/eix, això, aquí*). A més d'aquestes tres sèries, en català també hi havia el pronom *ço*, paral·lel al *ço* de l'occità i el *ce* del francès, que assumeix funcions pròximes a les de l'article neutre castellà *lo*.

L'estudi diacrònic dels demostratius resulta especialment interessant en català tant pels canvis que s'hi han produït com per la informació que aquests canvis poden proporcionar sobre la inestabilitat dels sistemes díctics espacials. Pel que fa al primer tema, el paradigma dels demostratius ha experimentat una forta reducció en el català general, que ha passat de les catorze formes bàsiques inicials a les set actuals. En la Taula 2 apareixen ratllades les formes que han caigut en desuetud en la major part dels parlars catalans i s'indica el significat díctic que presenten les dues sèries en què s'ha reestructurat el sistema.

Taula 2

Demostratius més freqüents del català actual

Categoria	Proximitat		Llunyania
Determinant	<i>aquest/est</i>	<i>aqueix/eix</i>	<i>aquell</i>
Pronom	<i>açò</i>	<i>això</i>	<i>allò</i>
Adverbi	<i>ací/ça</i>	<i>aquí</i>	<i>allí/allà</i>
Pronom individualitzador		<i>ço</i>	

El segon punt d'interès té a veure amb els canvis funcionals que s'hi han produït al llarg de la història de la llengua i amb el fet que aquests canvis mostren la inestabilitat dels sistemes de dixi espacial i la tendència cíclica a convertir els sistemes ternaris en binaris i aquests, de nou, en ternaris. En la Taula 3 donem compte d'aquest canvi en bucle, o en espiral, des del llatí clàssic fins al català actual. Exemplifiquem el canvi amb la sèrie dels determinants —o pronoms en llatí— en les formes del masculí singular —i en llatí clàssic també de nominatiu. Amb el primer grau de dixi ens referim a la proximitat immediata o a l'emissor; amb el segon, a la proximitat mediata o al receptor, i amb el tercer, a la llunyania.

² En la llengua antiga també es documenten els determinants *(ai)cest* i *(ai)cell*, derivats de demostratius llatins amb el reforç ECCE. Es tracta, però, de formes amb poca vitalitat, que apareixen sobretot en els textos més antics o d'influència occitana.

Taula 3

L'evolució dels sistemes díctics espacials del llatí al català actual

Graus de dixi	Llatí	Llatí tardà	Català primitiu	Català baixmedieval i altmodern	Català baixmodern i contemporani
1r	HĪC	<i>(ecce/eccu)istu</i>	<i>(aqu)est</i>	<i>(aqu)est</i>	<i>aquest</i>
2n	ISTE		<i>aquell</i>	<i>(aqu)eix</i>	
3r	ILLE	<i>(ecce/eccu)illu</i>		<i>aquell</i>	<i>aquell</i>

Com mostra la taula 3, la dixi ternària del llatí clàssic es convertí en binària en el llatí tardà i aquesta situació es mantingué en els primers estadis de la llengua catalana, com en la resta de llengües romàniques. En el català baixmedieval, però, es recrea el sistema ternari, que es torna a convertir en binari en el català general de final de l'edat moderna. Notem també que el sistema binari del català actual coincideix, pel que fa a les formes, amb el del català primitiu, però no pel que fa a la funció dística d'aquestes formes. Com hem dit al començament de l'article, el sistema del català actual és un sistema tipològicament marcat, o almenys no coincident amb el de la majoria de llengües amb sistemes binaris (Hualde 1992: 120-121; Ribera 2007: 153-155; IEC 2016: 602).³ En paraules de Hualde «the meaning of the Catalan demonstratives does not correspond to that of English demonstratives. The proximative demonstrative *aquest* corresponds both to English 'this' (referent near speaker) and to English 'that', when the referent is near the listener. The distal demonstrative *aquell* corresponds to 'that over there'» (Hualde 1992: 120). Reproduïm tot seguit els exemples utilitzats per Hualde amb les seves paràfrasis a l'anglès.

- (1) a. *Aquest* llibre que tinc a les mans
'This book that I have in my hands'
b. Deixa'm veure *aquesta* gorra que tens
'Let me see *that* cap that you have'
c. *Aquells* ocells volen molt de pressa
'Those birds are flying very fast'

3. El català i la resta de llengües romàniques

L'evolució en espiral del sistema dístic espacial no és una característica exclusiva del català, atès que es retroba en altres llengües o dialectes romànics. En la taula 4 incloem les formes que tenen els determinants demostratius, en la forma del masculí singular, en diferents llengües i dialectes romànics. En la primera columna s'indiquen les formes que expressen proximitat immediata o a l'emissor, si el sistema

⁴ *Regimiento de la Vida*, printed in Salonica in 1564 treats among other things of the origin of good and evil, the influence of the stars, providence, the moral life, education of children, and freedom of the will. A chapter on "Dreams, Their Origin and True Nature," written at the request of Don Joseph Nasi was appended. The book was republished in Venice in 1604, in Salonica in 1729, and transliterated in Latin characters in Amsterdam in 1729. (Quintana 2002 referencing I. Révah's 1954 *Ecole Pratique des Hautes Etudes* Section V dissertation; Borovaia 2017; Zemke 2004) Almosnino's second book in Castilian, *Kronika de los reyes otomanos*, consists of four parts (the death of Soliman the Magnificent and enthronization of his son Selim II; a chronicle of events of Soliman's reign; description of life in Constantinople; negotiations in Sultan Selim's court of a Jewish delegation from Salonica including the author). Written between 1566 and 1567 it remained in manuscript form until the twentieth century (*Crónica de los reyes otomanos* / Moisés Almosnino critical edition by Pilar Romeu Ferré. Barcelona: Tirocinio, 1998), but in 1638 a partial adaptation of it was published in Latin characters by Jacob Cansino in Madrid under the title *Extremos y Grandezas de Constantinopla* and was well known in Hispanist circles. Moshe Almosnino wrote many religious books in Hebrew.

cation (prayer books and homiletic works) and also, as Attias' book indicates, books in Spanish printed in Hebrew characters.

The language shift from different varieties of Romance to Castilian as a basis for the vernacular left traces in Judeo-Spanish. For example, even when we know where a significant majority of some Balkan Sephardic communities originated in Iberia, a genealogical relation between their Judeo-Spanish varieties and specific dialects or languages of Iberia cannot be established. Non-Castilian speech features are present, but they are randomly distributed in the vast Judeo-Spanish domain and do not indicate continuity of local Judeo-Spanish varieties with specific Iberian regional varieties. This observation was made in Révah's pioneering study (1965: 1355) on the basis of interviews conducted with a large sample of Judeo-Spanish speakers from multiple communities. It corrected a widespread earlier view that went in the opposite direction, as the first serious scholarly studies of the Judeo-Spanish language were conducted in specific local communities in the Balkans and advanced speculative views without knowledge of the distribution of linguistic features in the wider area. Révah's observation was not fully digested and its import remained unrecognized, until a new generation of researchers confirmed it in the 1990s. The lack of continuity between Judeo-Spanish dialects and regional Iberian Romance languages suggests a linguistic break after resettlement in the Balkans and the Middle East, rather than gradual evolution following contact by mutual adjustment between separate speech forms.

Another characteristic pointing in the same direction is that Judeo-Spanish seems to possess features that are more recent than late fifteenth century Castilian, or traits that at the end of the fifteenth century were not yet dominant in it. One of them is the word-initial aspirated /h/. In late medieval Castilian this phoneme replaced the word initial /f/ in Latin words, but eventually it disappeared to produce the modern Castilian forms that start with a vowel (*h* now preserved in orthography). Judeo-Spanish has no trace of this aspirated /h/. It has some words that preserved the initial /f/ of Latin, and these must be intrusions from Portuguese or other Romance varieties, but the as yet unsettled situation of aspirated /h/ versus zero at the time of exile (as I understand it), finds no reflection whatsoever in Judeo-Spanish (for the fricatives and affricates in Judeo-Spanish, see Hualde and Şaul 2011: 97-100). This would be hard to account for without considering that the basis of Judeo-Spanish was provided by the a late-sixteenth century variety of Castilian, rather than a fifteenth century one.

Now we return to the historical circumstances of and motivations for the language shift. Modern situations of language shift generally involve a linguistic community that forms a minority subjected to the political and cultural pressure of an engulfing majority, which also controls the state or is favored by its elites. To ease the tension, the minority adopts the language of the majority. This was not the situation with respect to Castilian for Iberian exiles in the Ottoman lands or elsewhere in the eastern Mediterranean. Yet a parallel to language shift—to a language that is not that of the controlling state—exists in more recent Sephardic history, undertaken, not under compulsion by the commingling majority or from the state, but because of the promise of incorporation into a wider world. This is what happened when the Ottoman Sephardic communities turned to French in the early decades of the twen-

tieth century. The catalyzer in that situation was the creation of dozens of elementary schools by the *Alliance Israélite Universelle* society, which dispensed a shallow but massive education to boys and also a large number of girls, a total novelty, and made them capable of speaking and reading French. Naturally, French also presents a parallel to sixteenth century Castilian, in being a variety of Romance confronting another variety of Romance that was Judeo-Spanish. The attraction for the Ottoman Sephardim was the perception of greater employment opportunities in changing economic circumstances and the prestige value of a West European tongue (Şaul 2001; for a general description, Benbassa and Rodrigue 1995). Many families adopted French for daily use, with the outcome that the generations of parents and children did not share a “mother tongue” and grandparents and grandchildren had difficulties communicating. This linguistic development was cut short before it was completed, because of strong opposition inspired by linguistic nationalism in the Turkish republic, and also a new set of educational and economic institutions that necessitated competency in Turkish. Such constraints and alternative opportunities did not exist in the sixteenth century. Similarly, we can point out briefly other language shift situations in our day as outcome of international migration. Filipinos or African migration communities quickly become English-speaking in exile, because migrant parents choose to not transmit their native tongue to the new generation but raise them speaking an internationally useful language, after prolonged residence in host societies that are not necessarily English speaking.

The experience of language shift in the origins of Judeo-Spanish may account for some enduring features of Sephardic linguistic culture. For example, the propensity of this vernacular to adopt new forms, the disposition that contemporary historical linguists consider the “innovativeness” of Judeo-Spanish, in vocabulary and syntactic forms, but also in phonetic development, can be due to the sense of constructedness and arbitrary resulting from having adopted for daily usage a medium learned as a foreign language. Concomitantly, native speakers in Turkey were susceptible to thinking that Judeo-Spanish is “mixed”, impure, that somewhere else better standards and proper norms for this language exist. A popular feeling considered that Iberian varieties were *el espanyol halis* (‘unadulterated Spanish’) (Varol Bornes 2008: 88, 351). For its native speakers, the changes, borrowings or innovations in the daily use of the language constituted creolization or bastardization. This entire complex, which surfaced time and again in multiple strata of Judeo-Spanish speaking Sephardim, may have its roots in the residual feelings of inadequacy or resentment due to the subliminal memory of the foundational language shift of the sixteenth century.

This attitude to the vernacular is often attributed to the nature of schooling that the Jewish communities encountered after late nineteenth century, when French-trained teachers instilled in children a sense of language insecurity and inferiority. But the native idea of mixing in the vernacular was already expressed before this schooling had an impact. Rafael Uziel, editor of the first ever Judeo-Spanish newspaper published in Izmir in 1845, *Sha'are Mizrah, o Puertas del Oriente*, wrote in his editorial for the initial issue (29 December) that this *lingua espanyola ke nozotros praktikamos en Turkia* (‘Spanish language that we use in Turkey’—terms almost identical to the ones written by Attias 75 years earlier in Livorno) was blemished

with *la erida de la mestura* ('the wound of mixing').⁵ The statement simultaneously provided the sense of "Spain" as geographic and historical origin. This mythical realm constituted a basic element of identity, fixing the boundaries against the Jewish communities of other speeches and geographic origins: *Lehlis* (Ashkenazic Jews of Germanic speech), *Romanos* (Byzantine Jews of Greek speech), and eventually *Arabos* and *Gurdjis* (mustarab Jews of Iraq or the Aramean speakers of the eastern provinces and the Georgian Jews who became part of the Istanbul community in the twentieth century), but was little more than a construction projecting the reality of Judeo-Spanish language.

This was the case with Balkan, Ottoman, and Levantine Jews, who did not have direct contact with Spain, Portugal, or Latin America for the last few centuries, as opposed to North African Sephardim who experienced Spain as a real kingdom with an imperial and colonial agenda. In the eastern Mediterranean, Spain was a neverland that vaguely maintained its medieval contours of Iberia, the vernacular counterpart of Sepharad, as spoken Judeo-Spanish was the specification of Ladino, the *la'az* of the hierogloss 'Hebrew' (*ebreo*).

References

- Aslanov, Cyril. 2002. Quand les romanes se confondent... La Romania vue d'ailleurs. *Langage et Société* 99. 9-52 <https://www.cairn.info/revue-langage-et-societe-2002-1-page-9.htm> (12/17/2023).
- Banitt, Menahem. 1972. *Le Glossaire de Bâle*. Jérusalem: Académie Nationale des Sciences et des Lettres d'Israël.
- Benbassa, Esther & Aron Rodrigue. 1995. *The Jews of the Balkans: The Judeo-Spanish Community, 15th to 20th Centuries*. Oxford & Cambridge, Mass.: Blackwell.
- Bernaldez, Andrés. 1869. *Historia de los Reyes Católicos Don Fernando y Doña Isabel*, vol. 1. Sevilla: Imprenta que fue de J.M. Geofrin. <https://archive.org/details/historiadelosrey00bern/page/n7/mode/2up> (12/17/2023).
- Borovaia, Olga. 2017. *The Beginning of Ladino Literature: Moses Almosnino and his Readers*. Bloomington: Indiana University Press.
- Bunis, David. 2016. The Earliest Judezmo Newspapers: Sociolinguistic Reflections. In Rifat Bali (ed.) *Jewish Journalism and Press in the Ottoman Empire and Turkey*, 143-230. Istanbul: Libra.
- Cohen, Dov. 2013. Un "bien conocido negociante i luchador comunal": Muevas notisias sobre Rafael Uziel (1816-1881), precursor de la prensa en djudeoespaniol. In Rosa Sanchez & Marie-Christine Bornes Varol (eds.) *La presse judéoespagnole, support et vecteur de la modernité*, 231-253. Istanbul: Libra.
- Hualde, José Ignacio & Mahir Şaul. 2011. Istanbul Judeo-Spanish. *Journal of the International Phonetic Association* 41(1). 89-110.
- Lehmann, Matthias B. 2005. A Livornese "Port Jew" and the Sephardim of the Ottoman Empire. *Jewish Social Studies* 11(2). 51-76.

⁵ Uziel's editorial is reproduced in Bunis's pioneering article on *Sha'are Mizrah* (2016, after an earlier version in 1993), the passage quoted on p. 202. Dov Cohen (2013) published a precious biographic article, written *por demás* in Judeo-Spanish, on what he discovered about Rafael Uziel.

- Minervini, Laura. 2006. El desarrollo histórico del judeoespañol. *Revista Internacional de Lingüística Iberoamericana* 4.2(8). 13-34.
- Minervini, Laura. 2011. De Cataluña a Sepharad: la aportación lingüística del Judaísmo catalán al mundo judeohispánico. In Silvia Planas i Marcé (ed.), *Temps i espais de la Girona jueva: actas del simposi internacional celebrat a Girona, 23, 24, 25 de març de 2009*, 125-137. Girona: Patronat del Call de Girona.
- Ostler, Nicholas. 2011. Language maintenance, shift and endangerment. In Raj Mesthrie and Walt Wolfram (eds.), *Cambridge Handbook of Sociolinguistics*, 315-374. Cambridge, UK: Cambridge University Press.
- Penny, Ralph. 1992. Dialect Contacts and Social Networks in Judeo-Spanish. *Romance Philology* 46(2). 125-140.
- Pountain, Christopher J. 2001. *A History of the Spanish Language Through Texts*. London & New York: Routledge.
- Quintana, Aldina. 2002. Geografía lingüística del judeoespañol de acuerdo con el léxico. *Revista de Filología Española* 82(1-2). 105-138.
- Quintana, Aldina. 2010. El judeoespañol, una lengua pluricéntrica al margen del español. In Paloma Díaz-Mas and María Sánchez Pérez (eds.), *Los Sefardíes ante los retos del mundo contemporáneo. Identidad y mentalidades*, 33-54. Madrid: CSIC.
- Quintana, Aldina. 2014. Judeo-Spanish in Contact with Portuguese: A Historical Overview. In Patricia Amaral and Ana Maria Carvalho (eds.), *Portuguese-Spanish Interfaces: Diachrony, Synchrony, and Contact*, 65-94. Amsterdam: John Benjamins Publishing Company.
- Ray, Jonathan. 2013. *After Expulsion: 1492 and the Making of Sephardic Jewry*. New York: New York University Press.
- Révah, Israel S. 1965. Formation et évolution des parlers judéo-espagnols des Balkans. In Georges Straka (ed.), *Actes du Xe Congrès International de Linguistique et Philologie Romanes (Université de Strasbourg, avril 1962)*, vol. 3, 1351-1371. Paris: Librairie Klincksieck.
- Robert, Jean-Noël. 2006. Hieroglossia: A Proposal. *Bulletin, Nanzan Institute for Religion and Culture* 30. 25-48.
- Şaul, Mahir. 2001. The Mother Tongue of the Polyglot: Cosmopolitanism and Nationalism among the Sepharadim of Istanbul. In Mehmet Tütüncü (ed.), *Turkish-Jewish Encounters: Studies on Turkish-Jewish Relations through the Ages*, 129-165. Haarlem: Stichting SOTA (Edited version from *Anthropological Linguistics* 25(3). 326-358, 1983).
- Şaul, Mahir & José Ignacio Hualde. 2017. Sepharad as Imagined Translocal Mediterranean Community. In M. Şaul and J. I. Hualde (eds.), *Sepharad as Imagined Community: Language, History and Religion from the Early Modern Period to the 21st Century*, 1-25. New York: Peter Lang.
- Varol Bornes, Marie-Christine. 2008. *Le judéo-espagnol vernaculaire d'Istanbul - Etude linguistique*. Bern & New York: Peter Lang.
- Zemke, John M. 2004. *Moşe ben Baruk Almosnino. Regimiento de la Vida. Tratado de los Suenyos (Salonika, 1564)*. Tempe, AZ: Medieval and Renaissance Texts and Studies.

Inprentaren historiaren beharra grafiaren historia berreraikitzeke: lehen hurbilpena¹

*The necessity of a history of printing houses to reconstruct the history
of spelling: An initial approach*

Koldo Ulibarri Orueta*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: In order to carry out a general analysis of the Basque spelling, in this article we intend to highlight the relevance of taking into account the variable of the printing office. We first expound the importance of the topic (§ 1), while presenting a proposal to the study of spelling from the point of view of printing houses (§ 2): we want to propose an analysis of the texts published during the *Labourdin* classical literature period and, to this end, we will bring a list of the (known) editions of books from that time and area, specifying the printing office of each one (§ 3). Finally, we will expose the links between printing and spelling with examples: we will describe the graphic differences between the texts made from the workshops of *Millanges* and *de la Court*, both printers of Bordeaux (§ 4).

KEYWORDS: Basque spelling; printing offices; Old Classical Basque; Labourdin literature.

LABURPENA: *Euskal grafiaren azterketa orokor bat egiteko, inprenten aldagaiak kontuan hartzearen garrantzia aldarrikatu nahi dugu artikulu honetan. Horretarako, horren justifikazioa egingo*

¹ Lan honek Ministeritzak finantzaturiko «Monumenta Linguae Vasconum. V. Periodización y cronología» [FFI2016-76032-P] eta «Monumenta Linguae Vasconum. VI. Avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca» (PID2020-118445GB-I00), ikerketa taldearen laguntza izan du, «Lingüística Histórica e Historia de la Lengua Vasca» del Gobierno Vasco [GIC.IT1344-19] Talde Kontsolidatuak babesturik dagoena. Zorretan nago Blanca Urgellekin, gai honetan (eta beste askotan) egindako ohar eta iradokizunek asko hobetu baitute testu hau. Azkenik, eskerrak eman behar dizkiot Eneko Zuloagari, egindako oharrengatik eta testuaren azken orrazketan harturiko lanagatik. Nola ez, ager daitezkeen akatsak sinatzen duenari bakarrik egotzi ahal zaizkio.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Koldo Ulibarri Orueta. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila - Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitateen ibilbidea, 5 (01006 Gasteiz). – koldo.ulibarri@ehu.eus – <https://orcid.org/0000-0003-0573-986X>

Nola aipatu / How to cite: Ulibarri Orueta, Koldo (2023). «Inprentaren historiaren beharra grafiaren historia berreraikitzeke: lehen hurbilpena», *ASJU*, 57 (1-2), 885-906. (<https://doi.org/10.1387/asju.25986>).

Jasoa/Received: 2022-12-17; Onartua/Accepted: 2022-12-16.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago

dugu (§ 1), bai eta grafiaren azterketari inprenten alderditik ekiteko proposamen bat ekarri ere (§ 2): lapurtera klasikoaren garaian argitaraturiko testuen azterketa bat proposatu nahi dugu eta, horretarako, garai eta eremu hartako liburuen edizio (ezagun) guztiak ekarriko ditugu zerrendaturik, ba-koitzaren inprenta zehazturik (§ 3). Azkenik, inprentaren eta grafiaren arteko loturak adibideekin ikusiko ditugu: Bordeleko Millanges eta de la Court inprimatzaileen tailerretatik ateratako testuen arteko ezberdintasun grafikoak ikusiko ditugu (§ 4).

HITZ GAKOAK: Euskal grafia; inprenta; Euskara Zaharra; lapurtera klasikoak.

Sarrera

Filologiaren esparruan, grafiarekiko interesa bigarrenkaria izan ohi da; oro har, grafia garaiko fonologia ulertzeko bidetzat hartu izan da: ahozko grabazioak egiteko aukera teknikorik ez zegoen garaietako hitzunek nola hitz egiten zuten iradokitzen digu grafiak eta horrexegatik alderdi honen azterketa orduko fonologia berre-raikitzeke ezin utzizko ikerbidea da. Horretan (ere) maisua izan dugu Jose Ignazio Hualde, bere azterketek (2010, bereziki) erakusten dute nola baliatu euskal eta gaztelau testu zaharren grafia orduko bilakabide fonetiko-fonologikoak ulertzeko. Hala ere, grafiak beste ikuspegi bat ere izan dezake, ez bakarrik fonetiko; hizkuntza idatzaren gainontzeko atalek ez bezala, idazkera ez da hizkuntzaren elementu naturala, kulturala baizik: hitz egiten eta ahoskatzen era naturalean jabetzen gara, baina idazteko heziketa formala jaso behar du hiztunak (Auroux 1994); beraz, grafiaren azterketak lagun gaitzake testu bat bere testuinguru kulturean kokatzen: ohitura batzuen agertzeak edo ez agertzeak, letren formak eta letra batzuk eta ez besteak agertzeak testua atondu duenaren garaia edo lurraldea zehazteko baliatzen dezakegu (cf. Cano Aguilar 2000: 41). Horixe erakusten digute, atzengo urteetan, nazioarteko ikerketek (Baddeley 1993; Baddeley & Voeste 2012; Villa & Vosters 2015).

Grafiaren bestelako ikuspegi honetatik, euskal grafiaren historiak aritu diren lanetan orokorrean egile edo testu konkreturen baten zein batzuen inguruko azterketak planteatu izan dira (Mitxelena 1979; Urgell 1987; Altzibar 1992; Agirre 1996, 1998, 2001). Grafiaren historia ikuspegi orokor batetik eginiko Mujikaren lan bide-urratzaileak ere (Mujika 2002), euskararen garai bat harturik ere, egileka egindako azterketa du oinarri. Gure ekarpen honetan, baina, grafiaren azterketan egileek eurek daukaten partaidetzaz gainerako aldagaiak badirela aldarrikatu nahi dugu: aurretik aipaturiko lanek erakusten digute idazleak giro kulturalen pean egon zirela (*scripta* edo idazte ohitura ezberdinekin), baina, ohitura grafiko horiek aztertzeko, testu inprimatuek leku garrantzitsua behar dutela deritzogu (Ulibarri prestatzen, cf. Ulibarri 2010: 50-53). Grafiaren azterketa batean ez bakarrik testugileak, baina inprentak eurak ere kontuan hartu behar direla planteatu nahi dugu hemen (cf. Lucía Megías 2009), jakina baita inprimatzaileek eta inprentek hizkuntzen gramatizazioan garrantzi handia izan dutela (Gaskell 1999; Rico 2005), baita euskaraz inprimatutako testuetan ere, azken azterketekin bat (Arcocha-Scarcia & Lakarra 2019; cf. halaber Urgell 2015a: xi). Ondoko lerroetan hau guztiau kontuan hartuko lukeen ikerketa baten oinarriak zirriborrazera mugatuko gara, lehen hurbilpen legez: ziur gaude Hualde bezalako ikertzaile batek oinarri hauek hobetzeko hainbat ohar iradokigarri izango dituela: gaiak elkarrekin mintzatzeko aukera sortzearekin bakarrik, bere egitekoa beteko du ekarpen honek.

Lehenengo atalean azterketa honen beharraz arituko gara, ikerketaren zergatia azalduz eta hau justifikatzeko zenbait ohar ekarriz (§ 1), eta bigarren atalean proposamena bera azalduko dugu (§ 2): Euskara Zaharrean *lapurtera klasiko* deitu izan den korrontearen barruan argitaraturiko testuen azterketa bat proposatu nahi dugu, ez testuen egileak kontuan harturik, testuak argitaratu zituzten inprentak oinarri harturik baizik. Hirugarren atalean, lana aurrera ateratzeko corpusaren zirriborroa dakargu: lapurtera klasikoko liburuen edizio (ezagun) guztiak bildurik ekarriko ditugu, bakoitzaren inprenta zehazturik (§ 3). Ikerketa honek izan ditzakeen emaitzen erakusgarri, proposaturiko corpusa txekeatzen hasiko gara Bordeleko *Millanges* eta *de la Court* inprimatzaileen tailerretatik ateratako testuen arteko ezberdintasunak ikusiz (§ 4).

1. Ikerketaren aurrekariak: zergatik inprentak?

Inprentekin zuzenean hasi aurretik, ohar bat egin nahi genuke *scripten* gainean. Erdi Aroko eskuizkribuen azterketako terminoa da bereziki, eta horretan ezaugarri amankomunak dituzten lekukotasunak *scriptatan* sailkatu ohi dira (cf. Dees 1988, 1991); lurralde beretik ateratako testuek ezaugarri grafiko eta gramatikal bertsuak izango dituztela aurreikusten da, dialekto zein kultur giro bertsuan sortuak direlako. *Scriptaren* kontzeptu hori, alderdi grafikotik bederen, baliagarri zaigu ez bakarrik Erdi Aroko testuetarako: edozein garaitan ohitura amankomunak dituzten idazleak ditugu, ezaugarri bat sortu edota beste norbaiti ikasitakoa hedatzen dituztenak. *Scriptaren* adibidea litzateke Urgellek (1987; cf. 2018: 608) erakusten zuena txistukari frikari palatala adierazteko xix. mendean sortu zen <sh> grafia aztertu zuenean: Añibarro-Zabalak, Zarauzko komentuan ziren idazleek, sortu ei zuten baliabidea eta grafia honek arrakasta izan zuen literatur gipuzkeran, Iztuetak, Iturriagak edo Arruek idazleek baliatu baitzuten, eta «Donostiako eskola» deitu izan den xix. mende amaierako idazleengana heldu baitzen.²

² Bide batez, hala Iztuetak (1824 eta 1847) nola Iturriagak (1842) Donostiako Jose Ignacio Barojaren inprimategian argitara eman zituzten euren lanak, non eta Zabalaren *Verbo Regular Bascongado* (1848) argitaratuko zen inprimaleku berean. Gainera, ezaguna da bi idazle horiek egin zuten 1841ean Zabalaren lanaren irakurketa eta kritika, obra argitaratzeko gomendatuz (Urgell 1987: 365). Urgellek planteatu du Iztuetak hor ikusi zuela <sh> eta, ondoren, 1847an argitaratu testuan erabili zuela. Iturriagari dagokionez, Iztuetari bidalitako gutun batean ikusten du Urgellek <sh> grafema (*ibidem*). Badi-rudi, baina, azken idazle hori izan zela lehenengoa <sh> grafia erabiltzen Gipuzkoan: Barojaren inprentako fabuletan (1842) oraindik ere <gaiso-> erakoak darabiltza, baina Hernanin argitaratzen zaizkion 1841eko gramatikan <aushe> (16. or.) eta 1842ko elkarriketetan <urash> (10) ageri zaizkigu. Argitalpen hori legez kanpokoa dela dirudi, ziurrenik idazleari irakaskuntzarako baimena kendu ziotelako, saraketa bat medio (erbesteratua izateaz gainera; ik. Alberdi 1990: 4), ondorioz, egileza ezkutaturik dago A. P. I. A. siglen atzean edizioaren *egoera* nagusian (ik. Fernández de Casadevante 2015: 412-413) eta nork argitaratu zuen ere ez dakigu, ez baitakar inprentaren daturik. Alabaina, Iturriagaren adiskidetzagatik posible da Baroja inprimatzailea egon izana, hark argitaratu baitzuen fabula-liburua 1842an, irakaskuntzari inolako aipamenik egin gabe. Guztiagatik, inprimatu horretan Barojaren parte-hartzea gorabehera, Baroja inprimatzaileak eragina izan zezakeen ondoren etorritako «Donostiako eskolaren» idazkietan <sh>-ren erabilera hedatzean. Nola ez, hemen ere (cf. § 3) «Donostiako eskola» horren inprimatuaren azterketa behar dugu inprimatze-lantegien aldagaiaren ikuspegitik, hipotesi honen alde edo kontra egiteko.

Adibide honek grafian *scriptez* hitz egin genezakeela erakusten digu, garai zaharretan eta zeinbait ezaugarritan bederen: ohitura grafiko batzuk izango ditugu idazle talde edo testu sorta batean, momentu batean sortu, hedatu, orokortu edo gal zitezkeen ohiturak. Erdi Aroko *scripten* kasuan, eskuizkribuak kopiatzen diren tailerrak (scriptak) hartzen dira oinarri, eta proposatu nahi dugu gure kasuan ere testuak sortzen dituzten tailerrak hartzea helduleku, hots, inprimalekuak edo inprimatzaileak. Izan ere, inprenta-lanek euskal testuetan duten eraginaren gaineko gogoeta sakon bat planteatu da azken urteetan, ekarpen berriekin bat: Salaberrik (2007 eta 2011) ikusi du inprentetan uste genuena baino aldaketa gehiago egiten zirela testuei eta Urgellek egin Axularren edizioaren hitzaurrean ere (2015a: x e. hh.) ohar garrantzitsuak ematen ditu inprentek delako testuan izandako eraginez. Hastapeneko gainontzeko euskal literaturaren obretan ere (Etxepare, Leizarraga, *RS*) inprentak izandako paper nagusia aldarrikatu izan da euskararen gramatizazioari loturik (Arcocha-Scarcia & Lakarra 2019).

Badakigu zenbait kasutan, idazle teorikoez gainera (ik. Ulibarri & Urgell 2019, Madariagak egindako lanaren azterketa baterako), euskal testu inprimatuaren idazleek ere beta hartu dutela grafiaz inguruan gogoeta eta proposamen zehatzak egiteko. Idazle klasikoez grafia/ahoskera oharrak eskaintzen dituzte hitzaurreetan: Leizarragak (1571, «euskaldunei») irakurleari aipatzen dio «Heuscarazco hitzac, nola scribatzen, hala letra guciequin Latinén ançora pronuntiatzen-ere dirade: eta u vocala, bethequi, ou baliz beçala», eta Axularrek ere oharren bat dakar garaiko liburuetan aurki daitezkeen euskal grafemez (ik. beheago, § 4). Baina eite honen kasurik muturrekoena Oihenartek dakar; zehazki, bere euskal liburuak «De l'Orthographe Basque» sarrean. Hori izan daiteke idazle konprometituaren adibiderik paradigmakoena grafiari dagokionez, euskal hotsei atxikitzen zaien ortografia berezi bat baitakar, inguruko erromantzeen grafietatik aldendurikoa. Horrez gainera, Oihenarten obra inprenteko langileek zituzten irizpideen erakusle ere bada, testua moldiztegitik pasatzera koan Oihenarten lanak eta irizpideak traketu baitziren (ik. Altuna & Mujika 2003: 20), ziurrenik inprentako langileak (kajistak, zuzentzaileak edo editoreak) grafia horrekin ohiturik ez zeudelako, edo testua euren edo garaikoen ohitura grafiko zabalduetara moldatu zutelako (*ibidem*: 35 e. hh.).

Beste kasu batzuetan, balizko inpresoreari ere idazten zaizkio oharrak: hori irakurtzen da Etxeparearen abisuan («Aduertant Impressor & lectores...») ‘Ohar bitez inprimatzaileak eta irakurleak...’; ik. Arcocha-Scarcia 2008: 24). Etxeparek beharrezko deritzo letrek zer adiera duten adierazteari («...z ez dela sekulan *m*-ren orde ezartzen ez eta *i*-ren aitzinean *t* ez dela *c* ahoskatzen»), ziurrenik inprentakoek ezer alda ez dezaten. Honek iradokiko liguke lehen ere ikusitakoa, inprentakoek aldaketak egin ohi zituztela testuetan; hala, Etxeparek gaztigitzen die, egitekotan, kontuz ibili behar dutela <z> eta <ti> letrekin, ezin baitituzte aldatu *m* edo *c* letrekin (ik. beheago, aldaketa egiteko arrazoi bat ezagutzeko). Oharraz gainera, Etxeparearen testua bera ere adibide ezaguna da inprentaren eta grafia-ohituren arteko loturei dagokienez: Lafonen azterketatik (1951) badakigu Etxeparearen testua inprentara zihoanean idatzirik atal berrietan (hitzaurrean eta azken poema bietan, alegia) berrikuntza esanguratsuak daudela, eta grafiaren alderditik atal horietan lepokari afrikatua <tz>-ren bidez adieraztea dugu aipagarriena (gainontzeko testuan <z> darabil frikaria zein afrikatua adierazteko). Alde honetatik, berrikuntza «horietako zenbait (<tz> bereziki) inprentako

ohitura zabalduenek azal ditzakete» (Mounole & Lakarra 2018: 392), eta erakusten digu inprentaren aldagaiaren garrantzia grafiaren historian, eta azterketaren beharra areagotzen du.

Horrek inprenten izaeraz, historiaz eta garrantziaz gehiago sakondu duten filologietan ikusi dutenarekin lotzen gaitu: inprentek garrantzi handia izan dute testuen transmisioan, eta askotan horiei egotzi behar zaizkie testu eta edizioetan aurkitzen diren aldaerak eta aldaketak. Aldaketa horietako bat testuen grafia eta puntuazioa genuke (Urgell 2015a: xi).³ Gaztelaniazko tradizioaren Urrezko Mendeko idazle gehienek grafia eta puntuazioa zuzentzea eta finkatzea inprenten betebehartzat zuten (Rico 2005: 77-8), eta inprentek zituzten langileak, bereziki zuzentzaileak, lan horren garrantziaz jakitun ziren (Clavería 2019). Izan ere, inprentatik ateratako testu batek atzean lan asko duela ikusi da, eta esku asko egon daitezkeela inplikaturik (cf. Garza 2000; Ruiz Astíz 2018). Frantziako tradizioari dagokionez ere, frantses testuetan azentuak eta bestelako marka tipografiko osagarriak sartzeko lehenengo aurrekaria inprimatzaile paristarren talde txiki bat izan zen: hasieran latinezko testuetarako baliatzen ziren elementuak eredu izan ziren ondoko frantses testuen tipografiarako (Baddeley 1993: 124 e. hh.).

Gainontzeko European ere antzeko egoera kausitzen ahal dugu: ortografia bateraturik egon ez arren, tipo-paratzaileek edo kajistek elkarrengandik ikasten zuten ogibidea eta euren lanak trukatzeko zituzten; beraz, elkarri eragiten zioten, baita ortografian ere (Gaskell 1999: 432). Horrekin loturik, gertatu izan da arazo ortografiko baten atzean inprimatzaileak egotea, ez hizkuntzaren gramatizazioarekin loturiko arrazoi bategatik, inprentan sortzen zaien arazo bati aurre egiteko baliabideengatik baizik: eskuizkibuek ez bezala, inprentak gaintitu behar duen arazoa da orrialdearen *justifikazioa*, hots, lerro guztiek beterik egon behar dute. Horretarako zenbait baliabide dituzte, hitzen arteko espazioak handitzeaz edo txikiagotzeaz gainera: letra batzuen *aldaera alografikoak* badituzte (<s> eta <j>, kasurako) eta beste batzuetarako *tipo lotuak* erabiltzen dira, espazioagatik tipo bi erabiltzerik ez dutenean (Voeste 2015: 249). Espazioa bete behar dutenean eta zuriune handiegirik ez uzteko, letrak bikoiztu ere egin ditzakete, eta horixe da Zainerrek 1475/76an argitaraturiko Biblian gertatu omen zena (*ap.* Voeste 2015): *und* 'eta' beharrean <unnd> idatzi zuten lerroko testua labur geratu eta justifikatzeko luzatu behar izan zutenean. Kajistek beharrez sorturiko grafia bikoitz erredundante hauek, dirudiezez, eztabaida mamitsuak eragin zituzten xv. eta xvi. mendeetako Alemaniako gramatikarien artean (Voeste 2015: 251 e. hh.). Kasurik muturrekoenetan, inprentakoek obra moldatu eta testua gehitzera zein kentzera heldu dira, beharrianen arabera (ik. Bleuca 1983).

Azken ideia hori gurera ekarriz, testua justifikazio egokia ahalbidetzeko sorturiko *tipo lotu* horien artean euskalaritzarako esanguratsuak ere egon daitezke. Kajistek eskura zituzten *composed glyphs* tipoen artean atal berezi bat sortzen dute *s* luzearekin egindako [ʃ + X] loturek (<ʃt>, <ʃb>, <ʃl>), nahiko hedatuak inprentetako tipoen ka-

³ Honez gain, zenbait inprenta nagusik ez zuten inolako ardurarik testua aldatzeko eta euren interesei (askotan ekonomikoek) egokitzeko (cf. Chartier 2000: 249). Blecuak dioenez, inprimatzaileen artean bazegoen obrak gehitzeko ohitura, bai plegua osatzeko, bai testu famatu bati berritasuna emateko, bai erakargarriago egiteko (Bleuca 1983: 178).

xetan (ik. 1. irudia). Alde honetatik, iradokigarria da pentsatzea lapurtera (Materra, Axular, Harizmendi...) zein zuberera klasikoko (Belapeire, Oloroeko katexima...) idazleen lanetan apikariz adierazten diren kontsonante aurreko bizkarkarien (*gaste*, *dituste*) adibide askoren atzean justifikazioaren eta tipo lotuak erabiltzearen beharra egon daitekeela (cf. Mounole & Gómez 2018: 499). Proposamen honek, nola ez, ikerketa berezitua planteatzera garamatza, baina ez testuaren edozein edizio erabiliz: testuen edizio faksimileen bidez bakarrik egin daiteke, edizio modernoetan ez baitira jasotzen tipo lotu horiek (cf. § 3).

A	B	C	D	E	F	G	A	B	C	D	E	F	G
H	I	K	L	M	N	O	H	I	K	L	M	N	O
P	Q	R	S	T	V	X	P	Q	R	S	T	V	X
â	é	î	ô	û	Y	Z	J	U	Æ	Æ	ſ	Y	Z
á		í	ó	ú	;	fb	ff	¶	¶	¶	+	[]	!
à	è	ì	ò	ù	ft	fl	fl	ç	ç	W	w	()	?
*	ct	J	U	j	ft	ff	ff	ë	ï	ü	É	É	”

°	ç	é	-	,	e	1	2	3	4	5	6	7	8
&	b	c	d		e	s	f	f	g	h	9	o	
z	l	m	n	i					ff	ff	k		<i>Forma Quadrata</i>
y						o	p	q	fi	fi	:		<i>Quadrata</i>
x	v	u	t	Espaces		a	r	.	,				<i>Quadrats</i>

1. irudia

Inprenta-tipoen banaketa kaxan, ligadurak markatuta
(*L'Encyclopedie* 29; guk markatua, K.U.O)

Esandakoak esanda, uste dugu argi dagoela zergatik aldarrikatzen dugun euskal testuen grafiak aztertzean inprentak (ere) kontuan hartu behar ditugula, euskal grafiaren historiaren ikuspegi globala nahi izatekotan. Bada, azterketa horretarako lehenengo pausoa dakargu hurrengo atalean: inprentetatik ateratako testuen azterketa zehatza, eta lana bideratzeko proposamen orokorra.

2. Lan-proposamena: *Lapurtera klasikoaren lan inprimatuak*

Orain artean esandakoa laburbilduz, ezin dugu euskal grafiaren azterketa orokorrik egin euskaraz inprimatu zuten lantegiak kontuan hartu barik: inprentek partaidetza aktiboa izan zuten grafia-ohituren hedatzean eta hizkuntzaren gramatizazioan, oro har. Europako hizkuntza askotan gertatu bezala (Baddeley 2012), lehenengo euskal testu inprimatuetan ere berebiziko garrantzia izan zuten alderdi grafikoan (ik Arcocha-Scarcia & Lakarra 2019) eta, ondorioz, euskal grafiaren historiaren azterketa sistematikoa egiteko, ez ditugu euskal obrak egileka bakarrik baloratu eta aztertu behar, orain artean egin bezala: euskaraz argitaraturiko lanak zein inprentatetik atera den ere aintzat hartu behar dugu. Grafia bezalako ikergai konplexu batean datuetan ez galtzeko eta azterketa anekdotario ez bihurtzeko, beraz, beharrezko deritzogu ikerketa egituratua egiteari, eta hori da ondoko lerroetan egin nahi duguna: euskal testuen grafia azterketa bat inprentaren ikuspegitik nola egin daitekeen zirriboratu. Orain, lanaren eitea planteatu eta ikerketa bera bideratzea da lehentasuna. Horretarako, lapurtera klasikoaren garaian argitaraturiko liburuetan jarriko dugu arreta lehenbizi, grafiak izan duen bilakabidea aztertzeko.

Corpus edo garai hau hainbat arrazoiengatik aukeratu dugu: batetik, corpusaren tamaina bera dugu, ugaria eta nabarra baita: inprimatze-tradizio edo -mugimendu haren baitan hainbat herritako hainbat inpresorek hartu zuten parte. Bestalde, obra originalen argitaratze bakarraz gainera, inpresore ezberdinek garai ezberdinetan behin baino gehiagotan inprimatutako obrak baditugu. Berrargitalpen horiek ere ez dituzte guztiak ezaugarri editorial berdinak: egoki zehazturiko edizioak baditugu, inprenta-oin berriarekin (urtea, inprimatzailea), baina baditugu *edizio kontrafaktuak*,⁴ aurreko edizio baten errepikapen totala, inprentaren datu batzuk behintzat errepikatuz, bai eta *faltsutzeak* ere⁵ (Axularren *Geroko gero* izan daiteke horien adibide paradigmaticoa, portadan *Bordele* eta *Millanges* aipatzen badira ere, ez baitzen lantegi hartatik atera, ik. Urgell 2015a: xv e. hh.). Alde honetatik, gainontzeko inprimalekuetan (Iruñea, Bilbo...) izango ez genituzkeen nabardurak aurkituko ditugulakoan gaude.

Azkenik, aukeraketan beste arrazoi berebiziko bat ere badago; hots, inprimaturiko testu hauetan orain artean egin diren lanak badirela: Mujikak (2002) egindako euskal grafiaren azterketan testu horietako batzuek leku garrantzitsua dute, baina azken urteetan garai eta lurralde horietako zenbait obra zehatzen grafiaren azterketa berriak ere baditugu (osoak zein zatikakoak): Urgellek (2015a: xiv e. hh.) Axularren *Gero* eta *Geroko Gero* testuen arteko erlazioa finkatzeko hauen grafiak erkatzen ditu, eta Marterraren dotrinaren lehenengo bi edizioen azterketa zehatza (Krajewska *et al.* 2017)

⁴ «*Edizio kontrafaktuak* aurreko edizio legalen lekua hartu nahi duten berrargitalpenak dira. Testua estutu ohi dute, atarikoak osorik edo zati bat behintzat errepikatu eta kopiatzen dituzte inprimategi-zigiluan dauden datu batzuk edo guztiak —normalean urtea aldatu ohi dute—. Batzuetan portadan ageri den liburu-saltzailearen izena aldatzen dute, eta edizio kontrafaktuaren editorearen izena jarri. Edizio originalaren garaikide izan daiteke; hala ere, hauetako asko ostekoak izan ohi dira» (Pedraza *et al.* 2003: 254; itzulpena neurea K.U.O.).

⁵ «*Edizio faltsutuak* inprenta-oineko datuak faltsuak dituen edizioak dira, bai eta baimen eta oniritziak ere. Aurreko edizioaren portada imitatzen dute, baina izenburua, urtea edota inprimatzailearen edo liburu-saltzailearen izena aldatzen dituzte» (Pedraza *et al.* 2003: 254; itzulpena neurea K.U.O.).

ere gidari izanenez lehenengo pauso hauetan. Azken honi loturik, berriki corpus honen testuinguru soziolinguistikoa aztertu izan da (Zuloaga & Krajewska 2021), eta horrek ere lagundu gaitzake testuen eta inprimatuen nolakoa zehazten eta proposatzen dugun ikerketa aberasten.

Corpusa kronologikoki zehazteko, *Euskara Zaharra* hartuko dugu ikerketa-garaitzat, eta denbora-tarte horretan lapurtera klasikoaren barruan inprimaturiko euskal testuak (ik. Oihartzabal 2001, cf. Mounole & Gómez 2018: 484), lehenengo momentu honetan. Euskararen periodizazioan garaiari ematen zaion amaierako data (1745) 1760ra arte atzeratu dugu gure planteamentuan; Xurioren *Jesukristoren imitazioearen* 3. edizioa arte, alegia. Hala, Haranederren bi obra inprimatuak ere baliatuko ditugu, eta Lehenengo Euskara Modernoak ekarritako berrikuntza grafikoak lehenengo urteetan Iparraldeko inprimategietara heldu ote ziren xerkatu ahalko dugu (badakigu hango testuetara berehala heldu zirela berrikuntza batzuen oihartzunak, ik. Padilla-Moyano 2011). Corpusaren muina inprentak direnez, eta ez testuak edo egileak eurak, aukeraketan ez dugu bakarrik *editio princeps*etan (hots, lehenengo edizioetan) arreta jarriko: testuen berrargitalpenetan agertzen diren aldaketa grafikoak aztertzeak ere oso ekarpen baliotsuak izango dituelakoan gaude; ondorioz, ipinitako kronologia-tartean argitaratu ziren edizio guztiak bildu nahi ditugu gure azterketan. Garai honetan sorturiko obra batzuk inprimatzen jarraitu ziren jarri dugun epeaz kanpo: *Exercicio spirituala bere salbamendua eguiteco* (Vinson 46)⁶ liburua 1716an argitaratu zen lehenbizikoz eta 63 argitalpenen ostean, Vinsonek dakarren azkena 1888koa dugu (Vinson 46); 1720an Xuriok itzuliriko *Imitazioeak* ere bederlatzi argitalpen izan zituen 1872ra arte (Vinson 49). Halakoetan, hasieran ezarritako denbora-tartea mantendu dugu, eta tarte hartan argitaraturiko edizioak bakarrik sartuko ditugu gure zerrendan.

Irizpide horiekin zerrenda batean ezarri ditugu obra eta edizio guztiak (ik. § 3). Zerrendak erakusten digu lehenengo garaian Bordele zela euskal testuak ekoizteko bilgunea, bereziki Millanges eta de La Court inprimatzaile-familien lantegiak; tartean Baionan ere inprimatzen bazen ere (1648an baditugu Baionan argitaraturiko liburua), 1677ra arte Baiona ez zen euskal liburuen ekoizle nagusi bihurtu; zehazki, Maffre (Bordeleko Millanges inprimatzailearen Baionako ordezkaria izan zitekeena; ik. Atutxa 1999: 246, 18. oin-oharra) eta Fauvet inprimatzaile-familia hiri hartan ezarri ziren arte. XVIII. menderako, Fauvetarrek hartu zuten euskal testuen monopolioa Baionan, eta egiteko horrekin jarraitu zuten Lehen Euskara Modernoan ere (Urgell 2018: 438).

Behin corpusa ezarrita, oraingo gure lana edizio bakoitzaren ale bat behintzat biltzea litzateke. Egungo baliabide elektronikoak erabilita eta artxiboek euren funtsak digitalizatu eta eskura jartzeko egin duten lanari esker, baditugu edizio askoren faksimileak, baina oraindik biltze-fasean gaude. Edizio faksimileak hartu behar ditugu, eta ez inork egindako edizio kritikoak, zehaztasun grafiko batzuk galtzen baitira edizio modernoetan hartzen diren irizpideengatik (cf. § 1 atala).

⁶ Besterik esan ezean, *Vinson* laburdurari laguntzen dion zenbakiak ikertzaileak liburuari (eta horren edizio bakoitzari) ipinitako katalogo-zenbakiari dagokio. Bestela, lan honetako orrialde zehatz bati erreferentzia egiteko [abizen urte: orrialde] sistema orokorra erabiliko genuke.

Bilketa egitearekin batera, aztertu beharreko ezaugarri grafikoen behin-behineko zerrenda bat ere atondu dugu,⁷ hasieran arreta non jarri ikuste aldera. Nola ez, zerrenda behin-behinekoa dugu, lanean hasteko oinarri bat, eta ziur gaude ikerketarekin aurrera joan ahala moldatu beharko dugula, dela ezaugarriak gehituz edo kenduz, dela ezaugarrien nolakoa hobeto zehaztuz:

1. <u> / <v> eta <i> / <j> txandakatzea
2. *j-ren adierazpen grafikoa
3. Hiatoa markatzeko hotsaren adierazpena: *ziteke<i>en*
4. Herskari ezpainkariaren adierazpena <v> /
5. Txistukariaren adierazpen grafikoa
 - 5.1. Txistukari palatalak
6. Herskari hasperendunak
7. Herskari belarrak
8. <mp>, <mb> / <np>, <nb>
9. zeinu diakritikoak
 - a) sudurkariaren ordezeko <^>
 - b) bokalismoa markatzeko <¨ >
10. Grafia etimologikoak:
 - a) erdaratikoak: <ph>*iloso*<ph>*ia*, <Ch>*ristus*
 - b) euskaratikoak: *hi*<tz>*cunça*, *ba*<tt>*asun*
11. Sudurkari palatalen adierazpena: <iñ> - <ñ> / <in>
12. Gainontzeko palatalen adierazpena: <tt>, <ll>

Inprentez ari garenean, zehaztu behar dugu tailerrak hartuko ditugula kontuan eta familiaka egingo dugula lan hasieran; hau da, inprenta beraren lantzat hartuko ditugu *Jacques Millanges*, *Gillen Millanges* zein *Jacobe Mongiron Millanges* inprimatzaileen lanak, guztiak *Millanges* tailerraren parte baitira (cf. Batcaveren, Claudinen, Desgravesen edo Labadien lanak bibliografian, Bordele zein Baionako inprenten historiarako). Aukera honek ikuspegi ximpleegia dakarrela badakigu: nagusi bakoitzak irizpide propioak izan ditzake eta, ondorioz, inprimatzaile bakoitza bereiz tratatu beharko litzateke. Hala ere, kontuan izan behar dugu alde batetik nagusiaren izena dagoela, baina inprentaren langileak ere badaudela bestalde, eta azken horiek testuaren egiazko moldatzaileak, Gaskellek (1999: 132-139) eta Ricok (2005: 77-78) gatzigitzen dituzenez. Horren adierazle da, orobat, Urgellek *Geroko Gero* edizioa azterterakoan eta *Gero* edizioarekin erkatzean dioskuna (2015a: § 1.3): bera langileez edo paratzaileaz ari da, eta ez, berez, inprimatzaileaz. Inprentaren jabearen izena aldatu baina langileak (eta euren ohiturak) mantentzen bide ziren; kontrara, nagusia aldatu gabe langileak edota ohiturak alda zitezkeen. Honexegatik, inprenta baten atzean pertsona (eta aldagai) asko egon daitezkeenez, lehenengo momentu honetan erosoago

⁷ Ezaugarrien zerrenda honetan, berebiziko garrantzia izan du Blanca Urgell ikertzailearen eskarmentuak testu zaharren grafiarekin, bai eta bere gomendio eta oharrek ere; ohar xume honek ezin erakutsi ditzake merzei dituen eskerrak.

ikusten dugu inprimatzaile-familien arabera lan egitea eta, datuak (hala linguistikoak nola historikoak) bildu ahala, euren arteko eragin eta aldagaiak zehazten joatea. Izan ere, Bordeleko eta Baionako inprentaren historiak arakatu beharko lirateke (cf. Desgraves 1972, 1975, 1995, 1998; Labadie 1900, 1913; Godinot 1965 eta beste), bereziki horiek dokumentatzeko erabili dituzten lehen mailako iturriak zeintzuk diren ezagutzeko eta lantegietako beharginen zerrendarik edo antzeko dokumentu pribaturik gordetzen diren jakiteko: agian dokumentu horietan paratzaile edo zuzentzaile euskaldunik bazela erakusten diguten datuak egongo dira (cf. de Páiz 2017, Gaztelako inprentan horiek duten garrantziaz).

3. Corpusa

Corpusa izango litzatekeen hau, orobat Vinsonen datuz (1891-98) osaturik legoke eta, hein batean, ondoko ikertzaileek egindako ekarpenez gaurkotua. Oraindik *in progress* dagoen zerrenda da hona dakarguna, eta gure nahia litzateke zerrenda hau osatzen joatea inprimatzaileen historia eta testuen konparaketarekin aurrera joan ahala, irizpide grafikoen aldetik garrantzitsuenak izan daitezkeenetan arreta jarritz.

Zerrenda osatzeko, irizpide hauek hartu ditugu:

- a) Inprimatze-urtearen arabera zerrendatu ditugu lanok, hala lehenengo argitalpenak nola berrargitalpenak (azken hauek argitalpen urtea letra lodiz ekartzen dute). Urterik ez dugunean, bitara jokatu dugu: hala egiten duenean, Vinsonen ematen dion behin-behineko data ezarri diogu, *c.* laburdurarekin aurrean. Vinsonen datarik ematen ez dion edizioa XXX baliatuz markatu dugu. Data batzuk apostrofearekin eman ditugu: horrekin adierazi nahi dugu, Vinsonen iritziz, edizio hori *edizio kontrafaktua* dela eta, ondorioz, data ez dela egiazkoa.
- b) Idazlearen (edo argitaratzea agindu zuen gotzainaren) izena eta idazlanaren izenburuak egungo grafiaz eman ditugu, bietarako Euskal Klasikoen Corpusak (*EKC*) darabilen grafia baliatuz.
- c) Ondoren, zutabe banatan inprimalekua eta inprimatzailea paratu dugu. Lekuari dagokionez, euskarazko egungo forma arautuan ezarri dugu; inprimatzailearekin, ordea, portadan agertu bezala (edo Vinsonen eman bezala) idatzi da. Egindako aldaketa bakarra <I> / <i> eta <V> / <u> hizkiak gaur egungo sistemaren arabera moldatzea izan da. Edizio batzuen kasuan, gugana heldu diren aleak azalik gabekoak dira (eta ondorioz, inprenta-oinik gabeak): horiek <??> baliatuz markatu ditugu, bai argitalpen-lekua, bai inprimatzailearen izena. Ale ezagunik gabeko edizioak *galduta* moduan markatu ditugu. Kasuren batean, Vinsonen non argitaratu zen esaten digu, eta Vinsonen informazio hori parentesi karratuen bidez erantsi dugu gure taulan.
- d) Azkenik, edizioetako bakoitzari Vinsonen emandako zenbakuntza ere gehitu diogu, ikertzaile frantsesaren lan hau oraindik ere erreferentea baita testu zaharren katalogazioan.

Urtea	Egilea, <i>Izenburua</i>	Inprimalekua	Inprimatzailea	<i>Vinson</i>
1617	Matera, <i>Doktrina Kristiana</i>	Bordele	Pierre de la Court	11.a
c. 1620	Voltaire, <i>Tresora hirur lenguaJETAKUA</i>	Lyon	A. Rovyer	12.a
1623	Matera, <i>Doktrina Kristiana</i> (2. argit.)	Bordele	Jacques Millanges	11.b
1627	Etxeberri Ziburukoa, <i>Manual debozio- nezkoa</i>	Bordele	Guillen Millanges	14.a
c. 1630	Etxeberri Ziburukoa, <i>Noelak</i>	[Bordele]	[Guillen Millanges] <i>Galdua.</i>	15.a
1635	Haranburu, <i>Debozino eskuarra</i>	Bordele	P. de la Court	16.a
1636	Etxeberri Ziburukoa, <i>Elizara erabiltzeko liburua</i>	[Bordele]	[Guillen Millanges] <i>Galdua.</i>	17.a
1641	Pierre Argaiñarats, <i>Abisu eta exortazioe probetxosak</i>		Galdua.	21
1642	Voltaire, <i>Tresora hirur lenguaIETAQUA</i>	Baiona	Frances Bourdot	12.b
c. 1642	Haranburu, <i>Debozino eskuarra</i>	???	???	16.b
1643	Axular, <i>Gero</i>	Bordele	G. Millanges	22.a
1645	Etxeberri Ziburukoa, <i>Noelak</i>	Bordele	Guillen Millanges	15.b
1648	Matera, <i>Doktrina Kristiana</i> (3. argit.)	Agen *Baiona	J. de Gayau *Francez Bourdot <i>saldu</i>	11.c
1651	D'Olzek argitararazitako <i>Pregarioak Baionako Diozezakotz</i> [lapurtera]	Bordele	G. de la Court	23.a
1651	D'Olzek argitararazitako <i>Pregariak Baionako Diozezakotz</i> [baxenafarrera]	Bordele	G. de la Court	23.b
1656	Pouvreau, <i>Giristinoaren dotrina</i>	Paris	Jean Roger	25
1660	Harizmendi, <i>Ama Birjinaren Ofizioa</i>	Bordele	G. de la Court	27
1664	Pouvreau, <i>Filotea</i>	Paris	Claude Audinet	28
1665	Pouvreau, <i>Gudu Espirituala</i>	Paris	Claude Audinet	29
1665	Argaiñarats, <i>Deboten Brebiarioa</i>	Baiona	B. Bosc	30
1665	Etxeberri Ziburukoa, <i>Elizara erabiltzeko liburua</i>	Bordele	J. Mongiron Millanges	17.b
1666	Etxeberri Ziburukoa, <i>Elizara erabiltzeko liburua</i>	Paue	Joannes Desbaratz	17.c
1669	Etxeberri Ziburukoa, <i>Manual debozio- nezkoa</i>	Bordele	Jacobe Mongiron Millanges	14.b
1677	Etxeberri Dorre, <i>Liburu hau da Itasoko Navigazionekoa</i>	Baiona	[Antonio] ⁸ Fauvet	37

⁸ Originala hautsita dago, eta Vinsonek berreraikitzen du urte horretako inprentaren jabearen araberak.

Urtea	Egilea, <i>Izenburua</i>	Inprimalekua	Inprimatzailea	<i>Vinson</i>
1684	Voltaire, <i>Tresora hirur lenguaJETAKUA</i>	Baiona	Antoine Fauvet	12.c
1684	Aranbillaga, <i>Jesu Kristoren Imitazionea</i>	Baiona:	Antonio Fauvet	38
1686	Gasteluzar, <i>Egia katolikak</i>	Pauc	Joannes Desparatz	39
c. 1690	[Harizmendik zuzendutako] Joanes Haranburu, <i>Debozino eskuarra</i>	???	???	16.c
1693	Materra, <i>Buketa lore dibinoena</i> (4. arg.)	Baiona	Piars Dussarrat	11.d
c. 1693	Leon apezpikuaren aginduzko <i>Doktrina Kristiana</i>	Baiona	Antonio Fauvet	23.f
1697	Etxeberri Ziburukoa, <i>Noelak</i>	Baiona	Maffre ⁹	15.c
1697'	Etxeberri Ziburukoa, <i>Noelak</i>	Baiona	Maffre	15.c-1 ¹⁰
XXX	Axular, <i>Geroko Gero</i>	Bordele	G. Millanges	22.b
1699	Etxeberri Ziburukoa, <i>Noelak</i>	Baiona	Maffre	15.d
1699'	Etxeberri Ziburukoa, <i>Noelak</i>	Baiona	Maffre	15.e
²² *Gallica*-n aurkitutako 1653ko edizio bat erabili dut, I. eta II. liburuak elkarrekin eman zituena, «Enrichie de Figure de Taille Douce sur chaque Chapitre» (De l'Imprimerie de L. Maurry, Rouen). A laginari dagokion testua 167-170. orrialdeetan dago, eta aipatutako bi ahapaldiak 167. orrialdetik datoz.

<i>L'Imitation de Jesus-Christ (1653)</i>	<i>Jesus-Christoren Imitacionea (1720)</i>
Cap. III. <i>De l'homme pacifique.</i>	III Capitulua <i>Barreneco baqueaz.</i>
Avant que de sôger à mettre en paix les autres, Prens soin de l'affermir chez toy, Leurs esprits aisément se reglent sur les nostres, L'exemple est la plus forte loy.	1. Hazçaita behindic behiñ çure bihotcean ba- quearen eçartcen, eta guero bertceen artean ema- nen duqueçu.
Ce calme interieur est le tresor unique, qui soit digne de nos souhaits, L'homme docte sert moins que l'homme pacifi- que, Et le fruit du sçavoir cede á ceux de la paix.	Guiçon baquezcoa progotchosago da bertceençat guiçon sabanta baino.

Mende berean hitz lauuko itzulpen bat ere irten zen argitara, De Beüil jaunak —«prieur de Saint-Val»— sinatutakoa. Goitizena delakoan, itzulpen hori «Le Maître de Sacy» izenaz ezagunago denari egotzi zaio, hots, Louis-Isaac Lemaistre, Sacy-ko jaun (1613-1684), apaiz, teologo, Bibliaren ikertzaile eta humanista, batez ere Port Royal-eko bibliaren itzulpenagatik ezagun denari.²³ Honen *Imitatione*-aren itzulpena (1662) hainbat aldiz argitaratu zen: adibidez, Julio Urquijoren alea (Bordele, 1683) eskura dago Koldo Mitxelena Kulturunean (J.U. 4742),²⁴ digitalizatu gabe damurik, baina sarean errazki topatu ditut 1673ko bat (18. edizioa omen), 1686ko bat (25.a dela dio), bai eta 1674ko bi ere, biak Parisen eginak, bata «Chez C. Saureux» eta beste «Chez Guillaume Desprez, au pied de la Tour de Nostre-Dame», biak 19.a iza-teko ohorea aldarrikatzen dutenak.

Hasieran bederen, denak ere egokiak dira *Imitationearen* iturria izateko, liburu honekiko Xuriotarren debozioa ez baitzatekeen egun batetik besterakoa, aspaldikoa baizik, Darreche Ziburuko erretorari sinistuz gero: «aspaldi çuen [Mixel Xuriok] li-buru saindu hau bere bihotcerat, eta accionetarar ekharri çuela» (1720: iii). Hala eta guztiz ere, edizioen arteko gorabeheretan sakontzeko zio berezirik ez izanik, lehen unean Gallican bildutako Lyongo liburutegiko alea (Paris, Chez C. Saureux, 1674) baliatu nuen konparaketa egiteko, nahiz gero egiturazko ezaugarri batek bultzaturik 1686koa hobetsi dudan, hurrengo atalean azalduko denez. Eranskinetan, bada, tes-tuan 1686koa dago, eta oharretan 1674koa, hemen esandakoaren berme.

2.1.3. *Erkaketaaren ondorioak*

Euskarazko itzulpenak latinezkoaren antz handia duela esan badugu ere, frantsezkoarekin erkatzen hasi baino ez, eta lehen atalean, izenburuarenean, hala bi osagaien arteko hurrenkerak nola izenburuak berak euskarazkoa frantsesezkoarekin lotzen dute, eta latinezkotik banantzen bi laginetan:

²³ Kalifikatzaileak euskarazko Wikipediatik hartuak dira (s.v. *Louis-Isaac Lemaistre de Sacy*). Gehiago sakontzeko Delassault (1957) gomendatzen da.

²⁴ Azkenotan horrelako liburu zaharrak Oñatiko Artxiboan kokatzen ditu KMKren katalogoak.

(1)	<i>De bono pacifico homine.</i> Cap. III.	Cap. III. <i>De la paix interieure.</i>	III. CAPITULUA <i>Barreneco baqueaz.</i>
	<i>Qualiter standum sit, ac dicendum, in omni re desiderabili.</i> CAP. XV.	CHAPITRE XV. <i>Se soumettre à Dieu en tout, & ne vouloir que ce qu'il veut.</i>	XV. CAPITULUA. <i>Estugula nahi behar Jaincoac nahi duenic baicen.</i>

Bigarreanean, gainera, latinez dioena ez dator frantsesez eta euskaraz dioenarekin bat, guztiz kontrara baizik: arrazoiak arrazoi, bi izenburu ezberdin ditugu.

Berdin gertatzen da formazko osagai gehiagotan: adibidez, *Jesus-Christ* = *Jesus-Christoc* (B2) dago frantsesez eta euskaraz, hurrengo lerroetan berak hitz egingo duela jakinarazteko, baina ez horrelakorik latinez. Halaber, latinez otoitzak izena dauka, beste bi hizkuntzetan ez bezala:

(2)	B16	<i>Oratio pro beneplacito Dei perficiendo.</i>	PRIERE.	OTHOITÇA.
-----	-----	--	---------	-----------

Frantses bertsiotik kopiatuak dira etzanak ere:

(3)	B24	In hac pace, in idipsum, hoc est, in te vno summo aeterno Bono dormiam, & requiescam.	<i>Faites-moy donc la grace de gouter ce sommeil divin, & ce repos, qui se trouve dans la souveraine paix; c'est à dire dans vous, ô mon Dieu, qui estes le Bien unique, souverain & eternal!</i>	<i>Beraz ene loa, eta pausua hartuco dut baque soberaco hartan, ceña baitçare çu ceroni, o ene Jaincoa ene ontasun guciz handia, eta eternala halabiz.</i>
-----	-----	---	---	--

Alderantziz, 1674ko frantses edizioak ez du kapitulu barneko atal zerbakirik, eta latinezkoak bai. Edizio kontua izan litekeelakoan, eskura ditugun beste biak miatu eta egoera bera aurkitu dut 1673ko edizioan, baina, beldur nintzenez, zerbakiak egon badaude 1686koan; beraz, zerbakiok ezin dira latinaren alde ekarri.

Dena dela, aurkikuntza honek kolokan jarri du 1674ko frantses edizioaren aldeko ene hasierako hautua, eta behartu nau 1686koarekin konparatzera (ik. I. eta II. eranskinak). Lehen laginean, frantses ortografiari dagozkion aldaketa urri eta ni-miñoak alde batera utzirik (*mesme* > *même*, *apres* > *après*, etab.), ez zegoen frantses edizio bata baino bestea *Imitazionearen* iturria izateko hobe en lezakeen ezaugarririk, 1686koak ez baitu oro har ezberdintasun aipagarririk, zerbakiak kontuaz besterik, are gutxiago euskarari eragin liezaiokeenik. Alabaina, 2. laginean ezberdintasun bat dago (1674 *une* vs 1686 *vostre*), eta euskarazkoa 1686koarekin dator bat (*Çure*; B14). Ondorioz, 1686koa hobetsi dut konparagarri gisa, baina argi utzi nahi nuke ez dugula *Imitazionearen* iturri zehatz gisa proposatzeko oinarririk: *une* irakurketa 1674ko edizioaren okerra da, latinez ere *In manu tua* baitio eta, beraz, ezberdintasun honek 1674koa baztertzeko baino ez du balio oraingoz.

Latin-frantses erkaketara itzulirik, formazko bizpahiru ezaugarri frantsesaren alde nabarmen egiten badute ere, lehen inpresio honetat fido izatea oker handia li-

tzateke, izenburuaz beheragoko lerroetan ez baita beti erraza bietan zeini jarraitzen dioten jakitea: noiz batari, noiz besteari, noiz bietako edozeini, orokorrean frantseskoa bera aski gertu baitago latinezkotik; are noiz edo behin bere kasa ere badabil-tza itzultzaile euskaldunak, gaingiroki ideia berak eta perpaus berak emanez, baina maiz hitzez hitz aritu gabe.

Nolanahi ere den, zantzu argiak daude frantsesaren alde, formazkoak bezain gardenak hiru hizkuntzak bata bestearen parean jartzen direnean. Azpian bildutako 4. adibidean eusk. *Hazçaitte* 'has zaitez' fr. *Commencez*-ekin dator bat, eta ez lat. *Pone te* 'jarri zeure burua'-rekin. Halaber, eus. *çure bihotcean* fr. *dans vostre coeur*-etik baino ezin daiteke etorri, ez baitu ordainik latinez:

(4)	A1	Pone te primò in pace, & tunc poteris alios pacificare.	<u>Commencez</u> par bien établir la paix <u>dans vostre coeur</u> , & vous pourrez ensuite la donner aux autres.	1. <u>Hazçaitte</u> behindic behiñ <u>çure bihotcean</u> baquearen eçartcen, eta guero bertceen artean emanen duqueçu.
-----	----	---	---	--

5. adibidean bi pasarte azpimarratu ditut euskarazko bertsiotan: lehenengoan lat. *in*-i ez, fr. *pendant*-i zor zaio *gareño*; bigarreanean, lat. preposizio-sintagmaren ordez, euskarazko *humilqui pairatcean* [adberbioa + aditza] egitura frantsesari darraio:

(5)	A17	Et tamen tota pax nostra <u>in hac misera vita</u> , potiùs <u>in humili sufferentia</u> nonenda est, quàm in non sentiendo contraria.	Il est vray neanmoins que <u>pendant que nous sommes dans cette miserable vie</u> , nostre paix consiste plûtost <u>à souffrir humblement</u> ce qui s'oppose à nous, qu'à ne trouver rien qui nous soit contraire.	Guciarequiñ-ere gure baquea <u>bizitce dohacabe</u> huntan <u>gareño</u> , hobequi datça trebesien <u>humilqui pairatcean</u> , ecen ez atsecaberic gabe içatean.
-----	-----	--	---	---

Antzera 6.ean: *Baiñan* juntagailuak irekitzen duen perpausetik abiatzen da euskarazkoa, frantsesekoa *Mais*-etik bezalaxe; latinez *Sed*-i dagokion perpausa, aldiz, juntagailutik banandu eta bukaeran emana da. Berebat, lat. *gratia* & *factum*-en ordez, fr. *grace* & *vertu* dugunez, honetatik izan behar eus. *gracia* & *berthute*:

(6)	A13	<u>Sed</u> cum duris, & peruersis, aut indisciplinatis, aut nobis contrariantibus, pacificè posse viuere, <u>magna gratia</u> est, & <u>laudabile nimis, virilè que factum</u> .	<u>Mais c'est l'effet d'une grande grace</u> , & d'une <u>vertu masle & courageuse</u> , de pouvoir vivre paisiblement avec des ames dures & déréglées, qui sont sans-joug & sans discipline, ou qui nous contredisent & nous combattent.	<u>Baiñan gracia</u> handibat, eta berthute sendobat behar da, buru gaitz eta errebesequiñ, desordenatuequiñ, makhurrequiñ, eta contrestatçailleequiñ baquean bicitceco.
-----	-----	--	---	--

Hurrengo adibidean, frantsesak latin hitza itzultzeko baliatu duen perifrastik datorke, halaber, euskarazko perifrasiak:

(7)	A4	passionatus	qui est encore assujetty au trouble de ses passions	bere pasioneen gathibu den[a]
-----	----	-------------	---	-------------------------------

8. adibidean, azken perpausa ez da berdin-berdina euskaraz eta frantsesez, aditza aldatu da batetik bestera, baina aditzaz gainerakoa bai latinetik zeharo ezberdina bietan:

(8)	B14	In manu tua sum, gyra, & <u>reversa me per circuitum.</u>	Je suis dans vostre main divine; tournez-moy, & <u>retournez-moy comme il vous plaira.</u>	Çure escuan naiz, iira naçaçu, <u>eta erabill placer duçun beçala.</u>
-----	-----	---	--	--

Adibide gehiago eman daitezke, baina buka dezagun argi batekin, zeinean *bere baquea eta bozcarioa* frantsesetik baino ezin datorren:

(9)	B21	cor meum in te pacificare.	que mon coeur trouve en vostre sein <u>sa paix & sa joye.</u>	eta ene bihotçac (...) çure baithan causi deçan <u>bere baquea, eta bozcarioa.</u>
-----	-----	----------------------------	---	--

Honainoko adibideek ondorio garbi batera garamatzate: 1720ko *Imitazione* Le-maistre-ren itzulpenaren zordun da. Hala eta guztiz ere, ezin da esan frantsesezko bertsiorearen itzulpen soila denik. Aitzitik, latinaren alde makurtzeko zantzu txiki ugaririk topatu ditut. Hona latinari gehiago begiratu izanaren zantzu horietakoak:

(10)	A3	Homo pacificus	L'homme qui jouit de cette paix	Guiçon baquezcoa
	A3	bene doctus	les plus éminens en science	guiçon sabanta
	A4	Bonus pacificus homo	l'homme de bien qui est étably dans cette paix	guiçon baquetiarrac
	A8	Habe ergo primò zelum	Que vostre zele donc agisse premierement	Duçon beraz zelo lehenic
	A11	Vide	Considerez	Ikus açu
	A11	adhuc	—	hortic
	A12	cum bonis, & <u>mansuetis</u>	avec ceux qui sont bons & doux	onequiñ eta <u>mansoequiñ</u>
	A18	Qui <u>meliùs</u> scit pati	Plus l'homme a de douleur & de patience	Cembatenaz baitaqui guiçonac <u>hobequi</u> pairatcen

B laginean berebat nabarmena da latinezko bertsioari ere begiratu izana. 11. adibidean frantsesak erantsi dituen lehen bi perpausetako hitzak azpimarratu ditut, beste bi hizkuntzetan ez daudelako, bai eta frantsesez ez dagoen izenaren aipua ere beste bietan:

(11)	B3	FILI, sic dicas in omni re: <i>Domine</i> , si tibi placitum fuerit, fiat hoc ita. Domine, si sit honor tuus, fiat <u>in nomine tuo</u> hoc.	1. Mons fils, <u>je veux</u> que vous me disiez en toutes choses: Seigneur, que <u>ce que je vous propose</u> se fasse si c'est votre volonté. Si vous estes honoré en une telle chose, qu'elle se fasse pour vostre gloire.	1. Ene semea huna aldi gucian itchequi behar duçun solasa. Jauna, hauche eguiñ bedi baldiñ çure nahiaren arabera bada, Jauna, gauça hau çure loria-cotz balinbada guertha bedi <u>çure icen sainduaren ohoretan</u> .
------	----	--	--	---

Hona latinarekiko beste kidesan batzuk, euskarazkoa frantsesetik aldentzen dutenak:

(12)	B9	<u>cum timore Dei</u> , & cordis humilitate	<u>avec crainte</u> & humilité	humiltasunequiñ, eta <u>Jaincoaren beldurtasunequiñ</u>
	B9	Igitur semper (...) desiderandum est, & petendum, quidquid desiderabile <u>menti occurrit</u>	Vous devez toujours m'offrir vos demandes & vos desirs	Hala beraz <u>gogorat heldu çazquigun gaueraric</u> eztugu behar deuz desiratu edo galdetu

Hurrengo pasartean frantsesa guztiz beste bide batetik doa:

(13)	B22	Tu vera pax cordis, tu sola requies:	Vous seul estes nostre azyle & nostre port.	Çu çare eguiazqui bihotceco baquea: çu bakharric çare gure arimaco sosegua.
------	-----	--------------------------------------	---	---

Gure azken adibidean euskarazkoa frantsesezkoetik aski gertu egon arren, konparaketak diosku latinezkoa nahikoa dela euskarazkoa azaltzeko (erreparatu *scit pati* = *baitaqui pairatcen* batetortzeari batik bat):

(14)	A18	Qui melius scit pati, pacem tenebit maiorem.	Plus l'homme a de douceur & de patience, plus il a de paix.	Cembatenaz baitaqui guiçonac hobequi pairatcen, hambatenaz du baque guehiago.
------	-----	--	---	---

Honaino ikusitakoarekin ondorio zehatzago batera heldu gara, alegia, latinezkoa eta frantsesezkoa, nola edo hala biak kontsultatuak izan zirela 1720ko *Imitazionea* itzultzeko. Hona latinetik eta frantsesetik, bietatik ezaugarriak bide dituen pasarte

bat, zeinean euskarazko bertzioak latinaren trinkotasuna hobetsi duen, nahiz azken aldeko *çure nahi sainduaren arabera* frantsesari zor zaion:

(15)	B10	<i>Domine, tu scis, qualiter melius est, fiat hoc, vel illud, sicut volueris.</i>	Seigneur, vous sçavez ce qui est de meilleur. Que cecy se fasse ou ne se fasse pas selon l'ordre de vostre sainte volonté.	Jauna çuc daquiçu cer den hobe; eguiñ bedi hau edo hori çure nahi sainduaren arabera.
------	-----	---	--	---

Ez da ezohikoa bi hizkuntzetan (ia) edozeinetatik izan litezkeenak aurkitzea. Hasteke, ikusiko ditugu zalantza gehiago sor lezaketen bi pasarte:

(16)	A19	Iste est victor sui & dominus mundi, amicus Christi, & <u>heres caeli</u> .	<u>Et</u> celuy-là est <u>veritablement</u> le vainqueur de soy-mesme, le maitre du monde, l'amy de Jesus, & <u>l'heritier du Paradis</u> .	Paciencia duena da bere buruaren garraitçaille, munduaren nausi, Jesu-Christoren adisquide, eta <u>parabisuco primu</u> .
	B20	4. Da mihi omnibus mori, quae in mundo sunt: & propter te amare contemni, & nesciri in hoc <u>seculo</u> .	4. <u>Faites</u> que je meure à <u>tout ce qui est dans le monde</u> , que j'aime à demeurer inconnu au monde, & à estre méprisé pour l'amour de vous.	4. Arren <u>eguiçu</u> naicen hilla <u>munduco gauça gucienciçat</u> , eta dudan laket munduaz ahançtia, eta arbuatua iça-tea çure amoreagatic.

A19 atalean hirurak oso antzekoak dira, baina frantses bertzioak erantsitako *Et* eta *veritablement* falta ditu euskarak, nahiz *parabisuco primu* frantsesezko *l'heritier du Paradis*-tik den (vs *heres caeli*); B20 atalean lat. *seculo* ez dago beste bietan, eta hantxehemengo xehetasunek frantsesaren alde egiten dute: esate baterako, eus. *eguiçu* = fr. *Faites* vs lat. *Da*, edo eus. *munduco gauça gucienciçat* = fr. *tout ce qui est dans le monde* vs lat. *quae in mundo sunt*. Hurrengo pasartean, aldiz, bietatik edozein izan daiteke alderdi guztietan:

(17)	B8	Multi in fine sunt decepti, qui primò bono spiritu videbantur inducti.	Plusieurs ont esté trompez à la fin, qui paroissoient d'abord conduits par le bon Esprit.	Hañitz presuna azquenerat enganatuac guerthatu dire, ceñec conduits par le bon Spiritu onaz guidatuac cirela.
------	----	--	---	---

Halere, gorago esan eta tarteka ikusi ahal izan dugunez, *Imitazionea* zenbaitetan bere kasa dabil, ideia bera eman bai, baina hitzez hitzekoari lotu gabe:

(18)	B13	& liberè age mecum in omnibus.	& disposez de moy pour toutes choses avec une entiere liberté.	eta gauça gucietan compli bedi ene baithan çure borondatea.
------	-----	--------------------------------	--	---

Bildutako zantzuon arabera, badirudi itzultzaileek lan egiterakoan bi hizkuntzetako bertsioak begien aurrean zituztela, noiz batari segituz, noiz besteari, noiz buruak ematen ziena idatziz, hitzez hitzekoari lotu gabe. Orain haien itzulpen-teknikak aztertuko ditugu, latinari edo frantsesari zegokion begiratu bitartean sumatu ditugun garrantzizko edo nabarmenenak behintzat.

2.1.3.1. Itzulpen-teknikak²⁵

Esango nuke *Imitazionean* itzulpen aski fidela egin zela, aldez bederen ikusi bezala, baina aukeran apaindura gutxikoa, trinkotzeko halako joera duena.²⁶ Beste bi hizkuntzekin konparaturik euskarazkoan ez dauden osagaiak maiz topatu ditut. Galdera da ea ohartuki ala oharkabean eginak diren, hau da, itzulpen-teknika den (*elisia*) edo itzulpen-akatsa (*ezabatzea*). Azpian, uste dut bildu ditugula berariazko erabakiak direla frogatzeko lain diren adibideak (elisioren bat duten pasarteak azpimarratzeko markatuak dira):

(19)	A12	<u>hoc enim omnibus naturaliter placet, & vnusquisque libenter pacem habet, & secum sentientes magis diligit.</u>	<u>puis qu'on se plaist naturellement en la compagnie de ces personnes, & que nous aimons toujurs ceux qui sont de mesme sentiment que nous.</u>	<u>natural da ecen baquea maitatcea, eta gure sentimenduco diren presunen oneztea.</u>
	A13	<u>magna gratia est, & laudabile nimis, virilè-que factum.</u>	<u>Mais c'est l'effet d'une grande grace, & d'une vertu masle & courageuse</u>	<u>Baiñan gracia handibat, eta berthute sendo bat behar da</u>
	B5	<u>Sed si mihi nociuum fore cognoueris, nec animae meae saluti prodesse, aufer à me tale desiderium.</u>	<u>Que si vous connoissez qu'il me doit nuire, & qu'il n'est pas avantageux pour mon salut, ôtez ce desir & cette pensée de mon ame.</u>	<u>Baiñan eçagutcen badoçu caltiar nuquela, khen dieçadaçu othoiguticia hura.</u>
	B18	<u>Da mihi semper desiderare, & velle, quod tibi magis acceptum.</u>	<u>Faites-moy desirer & vouloir toujurs ce qui vous est le plus agreable, & que vous desirez plus de moy.</u>	<u>Desiraraz dieçadaçu bethi guehienic çure gogara dena.</u>

²⁵ Itzulpen-teknikatkat haxe ulertuko dugu: «Procedimiento, visible en el resultado de la traducción, que se utiliza para conseguir la equivalencia traductora a microunidades textuales» (Hurtado Albir 2016: 642). Itzulpen-teknikak antzemateko eta definitzeko beraren sailkapena (*ib.* 268-271) erabili dugu, eta beraren terminologia egokitu.

²⁶ Hurtado Albir-enean (2016: 635) *compresión lingüística* deritza teknika honi. Osagai linguistikoak sintetizatzean datza, eta geroago aipatuko dugun anplifikazioaren aurkakoa da.

Idea bera bi modutara esanda zegoen latinez (A12),²⁷ edo latinez zein frantsesez (B5), eta hein batean sinonimotzat har litezkeen *masle & corageuse* euskaraz bat egin dira (A13). B18 pasartearen hasieran mezua aditz arazlearekin trinkotzeaz gain, bi aditz sinonimoak bat egin dira (*desiderare & velle = desirer & vouloir* vs *desiraraz*). Erreparatu, bestalde, latinezkoaren trinkotasuna hobetsi duela (*quod tibi magis acceptum*), frantsesezko perifrasi bikoitzaren ordeztu (*ce qui vois est... & que vous desirez...*). Laburbildurik, akastzat hartzeko moduko ez jauzi logikorik, ez egiazko informazio galerarik bildutako adibideetan.

Trinkotzeko joera era ezberdinetara ageri da testuan. Hurrengo adibidean latin testuko nolabaiteko errepikapena frantsesak gutxiagotu du, eta euskarazkoak areago:

(20)	A14	3. Sed sunt qui seip- sos <u>in pace tenent</u> , & cum aliis etiam <u>pacem</u> <u>habent</u> .	Il y en a qui <u>conser- vent la paix</u> dans eux, & qui <u>l'ont</u> aussi avec les autres.	Badire presunac bere buruequiñ, eta bertcee- quiñ <u>baquea dutenac</u> :
------	-----	---	---	---

Hurrengoan frantsesak anplifikazioa egin arren, euskarazkoak biziki trinkotu du ideia, latinetik hurbilago:

(21)	A16	Et sunt qui seip- sos in pace retinent, & ad pacem alios reducere student.	Il y en a enfin, qui non seulement gardent la paix au dedans d'eux; mais qui travaillent encore à la donner à ceux qui sont dans la division & dans le trouble.	Bertce batçuc ezdire contentatcen bere bu- ruequiñ baquean iça- teaz, enseiatcen dire bertceei ere haren ema- terat.
------	-----	---	--	---

Azpiko adibidean, euskarazkoa frantsesezkoetik gertu dabil (latinezkoa zeharo ezberdina da), baina funtsean esanahi berekoak diren bi perpauk bat egin dira:

(22)	B1	Qualiter standum sit, ac dicendum, in omni re desiderabili.	Se soumettre à Dieu en tout, & ne vouloir que ce qu'il veut.	Estugula nahi behar Jaincoac nahi duenic baicen.
------	----	---	--	--

Frantsesez gehitu ziren adberbioei edo adberbio-esapideei ezikusiarrena egin die *Imitazioneak* behin baino gehiagotan:

²⁷ Ohartzekoa da adibide horretan frantsesak ere perpauk bakarra dakarrela, latinez bestelakoa, baina euskarazkoa ez dagokio frantsesari, *libenter naturaliter*-ekin ordezkatu eta *vnusquisque libenter pacem habet* latinezko bigarren perpaukari baizik.

(23)	A9	Iustus esset, vt te accusares, & fratrem tuum excusares.	Il seroit bien plus juste <u>au contraire</u> de vous accuser vous-mesme, & de le excuser.	ezliteque bada iustuago çure burua faltiar aithortcea, eta bertceac faltatic descargatcea?
	A12	& secum sentientes <u>magis</u> diligit.	& que nous aimons <u>toùjurs</u> ceux qui sont de mesme sentiment que nous.	eta gure sentimenduco diren presunen oneztea.
	A19	Iste est victor sui	Et celuy-là est <u>veritablement</u> le vainqueur de soy-mesme	Paciencia duena da bere buruaren garaitçaille

Latinezkoekin ere berdin inoizka, goian A12 atalean azpimarratutako *magis* bezala; hurrengo adibidean halakoak latinetik zein frantsesetik ez hartzeaz gain, lat. *habent*-i eta fr. *ont*-i dagokion *dutenac*-etik aurrerako aditz guztiak ezabatu dira euskaraz, gorago ikusi ditugun B18 eta A16 kasuen antzera (ik. 19 eta 21. adibideak):

(24)	A15	<u>Et</u> sunt qui nec pacem <u>habent</u> , nec alios in pace <u>dimittunt</u> ; alius sunt graues, sed sibi sunt <u>semper</u> grauiores.	Il y en a <u>au contraire</u> qui <u>n'ont</u> point de repos en eux, & qui <u>troublent</u> celuy de leurs freres, qui <u>sont</u> penibles aux autres, & encore plus à eux mesmes.	badire bertce batçuc ez berequiñ ez bertceequiñ baqueric <u>ez dutenac</u> , bertceençat nekharri, eta nekharriago beretçat.
------	-----	---	--	--

Oraindano ikusitakoaren arabera, «laburrago eta hobeto» izan liteke *Imitazionea*-ren ikurritza: aditz askorik gabe, adberbio apaingarririk gabe, sinonimorik gabe, errepikapenik gabe hobeto. Anplifikazioren bat edo beste ere badago; halere, gure adibideak ez dira apaingarriak, *esplizitatzeak* baizik, bigarrena testuinguruak emana, eta beste biak itzultzaileak suposatua:

(25)	A4	faciliter <u>malum</u> credit	aisément à croire <u>le mal</u> des autres	errechqui siñhesten du bertceez <u>erraten den gaizquia</u>
	A19	Iste est...	Et celuy-là est...	<u>Paciencia duena da...</u>
	B4	Domine, si mihi videris expedire, & vtile esse probaueris, tunc dona mihi hoc vti ad honorem tuum.	Si vous prévoyez que ce que je vous demande me soit utile, faites-moy la grace de m'en servir pour vostre honneur.	Jauna ikhusten baduçu nic nahi dudana on dela <u>ene arimacotz</u> , eta progotchos <u>ene salbamenducotz</u> arren eguidaçu balia nadiñ çure ohoretan.

Hurrengo bietan, ostera, Elizaren hizkuntzan topikotzat har genitzakeen aplikazioak egin dira, hots, informaziorik eranstean ez dutenetakoak, baina ohituraren ohituraz itzultzaileei ez-arian bezala bururatu bide zitzaizkienak:

(26)	B3	fiat <u>in nomine</u> tuo hoc.	qu'elle se fasse pour votre gloire.	guertha bedi çure icen <u>sainduaren</u> ohoretan.
	B 9	Atque dicendum:	Vous devez me dire toujours:	Eta erran behar diogu <u>errespetu handirequiñ</u> .

Talde berean sar liteke otoitzetan *arren* eransteko joera:

(27)	B4	tunc dona mihi hoc vti ad honorem tuum.	faites-moy la grace de m'en servir pour votre honneur.	<u>arren</u> eguidaçu balia nadiñ çure ohoretan.
	B17	3. CONCEDE mihi, benignissime IESV, gratiam tuam, vt tecum sit	O Jesus! dont la bonté est infinie, répandez votre grace dans mon coeur, <i>afin qu'elle soit avec moy</i>	3. O Jesus guçiz ona, eta mantsoa eguiçu <u>arren</u> çure gracia bethi <i>enequiñ içan</i> nadiñ

Anplifikazio gehienak lexikoaren alorrekoak dira, ordea, hurren atalean zehaztuko dugunez (§ 2.1.3.2). Gure adibidean, lat. *excusatio*-ri dagokion termino zehatzaren orde haren perifrasiak ageri da:

(28)	A9	aliorum [...] <i>excusationes</i>	les excuses des autres	bere hutsen estaltceco edo gutitceco ekhartcen ditusten arroçoñac
------	----	-----------------------------------	------------------------	---

Xehekiago azaltzeko arrazoiren bat izan bide zen tartean, zeren eta bai baitzeukaten bestetako *aitezkiea* erabiltzea ere.²⁸

2.1.3.2. Euskarazko itzulpenaren lexikoa

Excusatio-ren adibideak lexikoaren alorrera ekarri gaitu: sar gaitezen doi bat. *Imitazioneak* «erderakada politak» dituela idatzi zuen Onaindiak (1972: 249) gorago aipatu ditugun laudorioen alboan. Lafitteren hitzak (1928: 108) ere ez dira goxoak, horratik: «Irakur-azu Chourio. Harrituko zira zoin errechki eta beharrik gabe josten diozkan laphurtarrari española, frantsesa, latina bai eta kaskoina. Irakur Inchauspe. Hau ere nahas-mahas ari zaiku, nahiz ez den Chourio bezain tuluntuntun». Haien bien garaitik hona askitto aldatu da maileguei buruzko gure ikuspegia; haatik, ikuspegiak ikuspegi, *Imitazionearen* lexiko hautuak objektiboki aztertzea dagokigu, gure betiko hein txikian baino ez bada ere.

²⁸ *Aitezkiea* (III, 46, 1) OEHN aurkitu dugu, s.v. *desenkusa* (ik. halaber s.v. *aitezkiea* ere).

Jakingarritzat jotako kidesunak bostetan banatzen dira: (1) hitz elkartu-eratorriak; (2) aditz esapideak; (3) perifrasiak; (4) maileguak, eta (5) baliokideak. Sail hauen arabera antolatu ditut hurrengo taulan:²⁹

1. taula

Hizkuntzen arteko kidesun lexikoak

(29)	atala	lat.	fr.	eus.	saila
	A3	pacificus	qui jouit de cette paix	bakezko	1
	A4	pacificus	qui est étably dans cette paix	baketiar	1
	A5	commotus	Inquiet	pausu-gabe	1
	A9	excusare	Excuser	gerizatu	1
	A15	graues	Penibles	nekhagarri	1
	A17	misera	Miserable	dohakabe	1
	B5	nocium	qu'il me doit nuire	kaltiar	1
	B9	maximeque	—	beregainki	1
	B9	timore	Crainte	beldurtasun	1
	B9	humilitate	Humilité	humiltasun	1
	A5	suspicator	ne forme point de soupçons	suspitarik izan	2
	A11	indignari vel irasci	se mettre en colere	aserradurarik izan	2
	B11	placuerit	Plaist	plazer izan	2
	A4	passionatus	qui est encore assujetty au trouble de ses passions	bere pasioneen gathibu den[a]	3
	A6	omittit	Obmet	egin gabe utzi	3
	A7	considerat	Considere	artha handi izan jakiteko	3
	A9	excusare	Excuser	faltatik deskargatu	3
	A9	excusationes	Excuses	bere hutsen estaltzeko edo gutitzeko ekhartzen dituzten arrosoiak	3
	A9	accusares	Accuser	faltiar aithortu	3
	A12	sentientes	ceux qui sont de mesme sentiment que nous	gure sentimenduko diren[ak]	3

²⁹ Ahal zen guztietan, euskarazko izenkiak mugagabe eman ditut, eta aditzak zein aditz-esapideak partizipioan, grafia gaurkotzeaz gain. Beste bi hizkuntzetakoak, aldiz, zeuden-zeudenean kopiatu dira hemen, beharrik gabeko nahasteak saihesteko asmoz.

atala	lat.	fr.	eus.	saila
A3	doctus	éminens en science	sabant	4
A5	malè contentus	Turbulent	khexos	4
A5	suspicio	Soupçons	suspitxa	4
A8	zelum	Zeze	zelo	4
A9	colorare	Colorer	bernuzatu	4
A9	recipere	Recevoir	errezibitu	4
A11	caritate	Charité	karitate	4
A12	mansuetus	Doux	manso	4
A12	naturaliter	naturellement	natural	4
B17	laboret	Travail	trabailatu	4
B6	—	Avantageux	probetxos	4
B8	decepti	Trompez	enganatu	4
B24	—	Souveraine	soberano	4
B3	—	Volonté	nahi	5
B5	desiderium	Desir	gutizia	5
B12	—	le plus agreable	nahien duzuna	5
B12	—	le plus avantageux	hoberen dena	5

Hogeita hamazazpi adibide bildu ditut, eta haietan hamar hitz elkartu edo eratorriak dira, eta zazpi perifrasiak (bien artean ia erdiak, beraz). Zazpi perifrasiatan bitan (lat. *passionatus* A4; lat. *sentientes* A12) frantsesaren laguntza izan da, baina gainerako bostak euskaraz sortu dira. Bi atalok, oro har, lexikoa landu izanaren adierazleak dira, bistan denez.³⁰

Hamahiru mailegu berriak dira,³¹ hirutan bat inguru, baina euren jatorriari bainoago testuartekotasunari begiratu gero, nabarmena da ez direla nolana hikoak. Bat (eus. *manso* - lat. *mansuetus* vs fr. *doux*) latinak iradokia da; beste bi (*trabailatu* eta *soberano*) frantsesak; beste bost hala latinezkoaren nola frantsesekoaren berdina-antzekoak dira: adibidez, eus. *zelo* - lat. *zelum* - fr. *zele* (ikus *suspitxa*, *errezibitu*, *ka-*

³⁰ Gure lagin txikian elkartu-eratorrietan bat ere ez da Xuriok asmatu edota lehendabizikoz erabilia. Hona OEHren araberako lehen datak: *bakezko*, *dohakabe* eta *beldurtasun* (1571), *beregainki* eta *humiltasun* (1617), *baketiar* (1627), *gerizatu* eta *kaltiar* (1635), *nekhagarri* (1643), *pausu-gabe* (1650). Bidena-bar, honek iradokitzen du Xuriotarrek aurreko liburuak ongi ezagutzen zituztela.

³¹ Uste dut ezin garrantzizkoagoa dela mailegu guztiak maila berean ez jartzea honelako azterketetan: *gutizia*, adibidez, «baliokideak» sailean sartu dut, haren fonetikak dioskulako euskararen barnean mende anitz egin dituela. Hemendik «mailegu berriak» jarri izana: une honetan ez da aise zehaztuko baikoitza noiz izan den hartua, baina *gutizia* baino mendetxo batzuk geroago izan dela bai.

ritate eta *natural* ere). Ohartzekoa da, dena den, *natural* erdal atzizkia kalkatu gabe itzuli dela (lat. *naturaliter* - fr. *naturellement*), adjektiboek euskaraz adberbio ere izateko daukaten gaitasunaz baliaturik.

Maileguen kontu honek badu bere garrantzia. Hasteko, hamahiruretan bat ere ez da Xuriotarrek aurrenekoz sartua, Iparraldeko tradizioan —batzuetan Euskal Herri osokoa— lehenagotik lekukotuak baizik, eta haietako asko abondo erabiliak. Hona guztiak kronologikoki antolaturik (datak *OEH*ko datuen arabera emanak dira):

natural (1537); enganatu, errezibitu (1545); karitate (1564); soberano, traillaatu, zelo (1571); manso (1617); probetxos (1627); sabant (1635); khexos (1650); suspitixa (1660); bernuzatu (*bernizatu* 1660)

Horrekin batera, ohargarria da oso ez dela frantses lexikoarekiko mendekotasun zuzenik itzulpenean ageri, jadanik aski joera indartsua behar zukeen arren,³² euskaldunek bere kasa erabili zuten *sabant*-ek adieraz lezakeen bezala (A3):³³ izan ere, bistan da frantsesari zor zaiola, baina ez frantses itzulpenari (*éminens en science*). Osterantzeko bost maileguk (*khexos*, *bernuzatu*, *probetxos* eta *enganatu*) ez daukate zerikusirik beste bi hizkuntzetako ordainekin eta, gainera, frantsesaz beste etorki batekoak dirateke, oker ez banago: honek esan nahi duke berez sortu zaizkiela itzultzaileei eta, hortaz, beren ohiko jardunaren parte bide zirela.

«Baliokideak» deitu ditugunak ere ekarri behar dira alor honetara, zeren eta berma bailezakete orain artean antzemana. Bitan (*nabi* eta *gutizia*) bazegoen frantseseko hitzarekin lotutako mailegua erabiltzea (*borondate*, *desira*),³⁴ baina aukera honi uko egin zaio. Talde berean beste bi adibide sartu ditugu, atal berekoak (B12), zergatik eta mailegutzara edo eratorpenara jo baino, itzultzaileek nahiago izan dutelako euskara lainora jo: *nabien* jarri dute fr. *le plus agreable*-ren ordainetan, eta *hoberen* fr. *le plus avantageux*-en ordainetan, nahiz eta *avantageux* itzultzeko bestetan *probetxos* mailegua baliatu (B6 lekuko).

Ildo beretik doaz bereizi ditugun aditz esapideak ere: latin aditzen ordez (*suspicator* A5, *indignari vel irasci* A11 eta *placuerit* B11) zein frantsesezko askotariko ordainetan ordez (*ne forme point de soupçons*, *se mettre en colere* eta *plaist*, hurrenez hurren)

³² XVIII. mendea frantsesaren mendea da Europan, eta haren indarra lehenago ez bezalako indarrak sentitzen zen Frantzia osoan. Adierazgarria da Harrietek euskaratik abiatuta frantsesa ikasteko gramatika bat argitaratu izana (1741), ziurrenik Larresoroko seminario sortu berriaren ikasleentzat pentsatua (Urgell 2018: 624). Arcochak eta Oyharçabalek (2012: 102-103) Tartas zuberotarraren obretaraino (1666, 1672) aurreratu dute frantsesaren eragin bete euskal letretan. Nolanahi ere, Etxagibeak (2016) erakutsi du XVII. mendeko Lapurdiko eliz agirietan jadanik frantsesa nagusitua zela, legeek agindu bezala.

³³ Lehen begiratuan bakarrik. Izan ere, *OEH*-ren arabera, *sabant* Haranburuk (1635) erabili zuen aurrenik, goraxeagoko zerrendan jaso bezala, eta gero Tartasek (1666) eta Gasteluzarrek (1686). Honek erakutsi lezake hitz jasoetan, nahiz eta kide jatorrik izan (ik. *jakin* II, 2 *apud OEH*, esaterako), badagoela mailegua erabiltzeko halako joera bat, kulturarekin lotua. Bidenabar, gogora genezake Euskal Herriaren beste bazter batean Kapanagak ere, Kalahorrako apezpikuari egin zion eskaintzan, *doctoac* eta *iaquinac* idatzi zuela.

³⁴ Biak zituzketen eskura itzultzaileek (cf. *borondate* Ch III 50, 6; *desira* Ch III 49, 2; biak ap. *OEH*, s.vv.) eta, halere, aldatzea erabaki zuten, nahita. *Borondate* zaharra da euskaraz, eta orokorra. *OEH*k dakartzan lehen bi lekukotasunak, bata mendebalekoa da (*San Frantziskoren Hirugarren Ordenako formula*, c. 1520) eta bestea Leizarragarena (1571). *Desira*, berriz, Iparraldekoa baino ez da, baina jadanik ageri da Etxeparearenean (1545), *desir* forma zaharrean, baina.

«izena + *izan*» erako esapide bana aurkitzen dugu *Imitazionean* (*suspitxa*, *aserradura* eta *plazer*). Ene ustez, izenok maileguak ala eratorriak direnez, honek garrantzi guxtiago du, aditzen ordez aditz esapideak erabiltzeko joerari amore emanak baino.

Ikusi, azkenik, latinez lau adjektibo zeuden batean hiru hizkuntzen artean gertatu direnak, hauek ere gure itzultzaileek eredu(k) begien bistatik gehiegi galdu gabe beren kabuz ibiltzen dakitela erakusten digutenak:

(30)

A13	duris, & peruersis, aut indisciplinatis, aut no- bis contrariantibus	ames dures & déréglées, qui sont sans-joug & sans discipline, ou qui nous contredisent & nous combattent	buru gaitz eta errebes- quiñ, ³⁵ desordenatue- quiñ, makhurrequiñ, eta contrestatçailleequiñ
-----	--	--	--

Egiazki zaila da banan-banako egokitasunik aurkitzea pasarte honetako latinaren eta frantsesaren artean, termino batzuetan behintzat, baina baita bi hizkuntzon eta euskararen artean ere, begien bistan direnez besteetan; ordea, nork esango hiruretan ideia bera ez denik eman?

Edonola ere, ondorio behinena hauxe: objektiboki ez dago esaterik *Imitazio-
nean* maileguak «errechki eta beharrik gabe» erabili zirenik. Aitzitik, itzulpenak berak iradokitako mailegurik aurkitzekotan, eskuarki bi iturri-hizkuntzek bedein-
katuak aurkitu ditugu; gainerakoan bestelako maileguz —idatziz behintzat ohiko
zirenez—, hitz elkartu eta batez ere eratorriz, hitz lainoz, bai eta perifrasiz ere or-
dezkatu dira euskal itzultzaileek jatorrizko latinetik edota frantses itzulpenetik
«errazki» har zitzaketan balizko maileguak. Hala bada, hitz egokiak bilatzeko ha-
lako lan bat aitortu behar zaie, euskaldunek argi ulertzeko moduan emateko as-
moarekin lotzekoa dirudiena. Garbizaletasun neurritsu bat, lapurtera klasikoari
tradizionalki egotzi izan zaiona. Ziurrenik Xuriorarrek sinatuko lukete Axularren
harako hura: «Eztut liburutto haur letratu handientzat egiten. Eta ez xoil deus ezta-
kitenentzat ere».

2.2. Euskarazko itzulpenak

2.2.1. *Pouvreauren itzulpena*

xx. mendera arte argitaratu ez denez gero, nekez pentsa liteke Xuriorarrek Pouv-
reauren itzulpena ezagutu zutenik.³⁶ Dena dela, hemendik aurrera halako ziurtasun
batez hitz egin ahal izateko gure laginaren hasiera erabiliko dugu (Pouvreau 1979:
86), Corneillerekin bezala:

(31)

<i>Iesusen Imitazionea</i> (1669)	<i>Jesus-Christoren Imitacionea</i> (1720)
Hirurgarren kapitulua. <i>Guiçon prestuaz eta baquetiarraz.</i>	III Capitulua <i>Barreneco baqueaz.</i>

³⁵ «Okerra; bihurria, menderakaitza» (*Eukaltzaindiaren hiztegia*).

³⁶ Frantziako Biblioteka Nazionalan gorde da, *fonds Celte et Basque* delakoan, Colberten bilduma-
ren barruan (Pouvreau 1979: 20).

Iarçaite cerori baquean lehenic, eta orduan baquetuco ahal tutçu bertceac.	1. Hazçaite behindic behiñ çure biho-tcean baquearen eçartcen, eta guero bertceen artean emanen duqueçu.
Guiçon baquetçailleac probetchu gue-yago eguiten du iaquinsunac baino.	Guiçon baquezcoa progotchosago da bertceençat guiçon sabanta baino.

Bi itzulpenak Lapurdiko euskarara egindakoak direnez gero, halabeharrezkoa da kidedetasunak egotea, baina gure lagintxoaren arabera behintzat, argi ageri da, kapituluaren izenburutik beretik, ez daukatela erlazio zuzenik.

2.2.2. Aranbillagaren itzulpena

Egiantzekoa da, aldiz, Aranbillagaren *Jesu Christoren Imitacionea*-rekin (1684) loturaren bat izatea, itzultzeari berriz ekiteko Xuriotarrek harena gaitzetsi izan balute ere.³⁷ Zoritzarrez, kanpoko datuak eskas ditugu, eta aldekoak diratekeenak ez dira biribil-biribilak. Aranbillaga Ziburuko apaiza zen itzulpena argitaratu zitzaionean (Vinson 1891-1898: 132), baina guk ez dakigu Mixel Xurioren adina hark berea kaleratu zuenean, ezta ere zertan zebilen edota non zebilen: 1701-1718 artean Donibaneako erretoaregin zuen (Daranatz 1927: 50), bertan bikario jardun eta gero (Lafitte 1931: 62), ez dakigu noiztik.

Loturaren bat aipatzekotan, 1684ko itzulpenaren onirizgileetako batek *Churio* du izena, «Bayonaco Eliça Cathedraleco Iaun Erretor eta Theologian Bachelia» zenak. Uste dugu Pierre anaia erret notarioa ez, jakina (cf. 18. oh.), gure itzultzaileen familiako beste Pierre Xurio bat dela (ohiko izena da sendian), adinez nagusiagoa, aitaren edo aitonaren belaunaldikoa, erlazio zehatza oraingoz ezartzerik izan ez badugu ere (cf. Etxagibel & Urgell, prestatzen). Edonola ere, Azkaine, Ziburu, Donibane inguru hartan, are urrunago ere ezbairik gabe, ez zegokeen elizgizonik Aranbillagaren liburuaren berri ez zeukanik, ez gazte, ez zaharrik. Ezinezkoa dateke, hortaz, *Imitacionea* itzuli zuenak Aranbillagarena ez ezagutzea. Alabaina, aitor dezagun ezagutzea eta erabiltzea ez direla bat.

Gureaz beste xede batekin, Vinsonen Pouvreau, Aranbillaga, Xurio eta Maisterren arteko konparaketa laburtxo bat egin zuen, eta lan hura baliatuko dugu proba gisa *Imitacionean* Aranbillaga ere baliatu ote zen aztertzeke. Hona Vinsonen bertsiok (1891-1898: 133) parez pare, III. liburuko 28. kapitulukoak (1684: 76-77; 1720: 232-233), orain arteko modura perpausez perpaus bananduta, eta hala *Imitacionearen* nola Aranbillagaren ale batekin erkatu eta zuzenduta (lagin honi C letra esleituko diogu):³⁸

³⁷ Gogora dezakegu garai bertsuko Haraneder apaizak nola gaitzetsi zuen Leizarragaren itzulpena, nahiz nasaiki baliatu (Ruiz Arzalluz 1987: 712-717). Bidenabar, ez dakit inork esan duen aurrenik Pouvreauren *Philotea*-rekin ere beste hainbeste egin zuela, noski.

³⁸ Ikus «Iturriak» atala xehetasunetarako. Vinsonen kopian bi akats-zuzenketa topatu ditugu, bata Aranbillagarenean (*egiterat* pro *egiterat*, C8 atalean) eta bestea Xuriorenean (*Estugula* pro *Estugala*, C1), eta bi akats, biak Xuriorenean (*kechagune* pro *khechagune* eta *desordenaturic* pro *desordenaturic*, C9). Berriz, bere asmoa akatsak zuzentzea izan balitz, zuzendu gabe utzi zituen *Imitacione*-ko hiru akats: *asaratu* pro *asarratu* (C3), *itçateac* pro *içateac* eta *çutez* pro *çutaz* (C7). Ez da marka ona hain partate laburrean.

(32)

	Aranbillaga (1684)	<i>Imitacionea</i> (1720)
	XXXVIII. GARREN CAPITVLVA.	XVIII. CAPITULUA.
1	<i>Nola guiñonec gutas erraten ditusten gauça guciac, mespreçatu behar ditugun.</i>	<i>Estugala⁴⁰ iñan behar mihi gaichtoen beldur.</i>
2	IESU CHRISTOC.	JESUS-CHRISTOC.
3	Ene semea edo ene allaba etçaitecela assarra baldiñ cenbaitec çure contraco cenbait pensamendu badute, eta çuc nahi estuçun beçala çutas minçatcen badire.	1. Ene semea, paira çachu asaratu gabe çure contra nihorc gogoan iragaten badu, edo erraten cerbait.
4	Hec baiño çuc gaisquiago çure buruas oraiño juiatu behar duçu, eta sinhetxi, çu baiño pressuna <u>flaquoagoric</u> munduan estela.	Ecen cembait estimu guti çutaz iendeec eguiten badute-ere; cerorrec oraiño gutiago beharduçu çure burua preçatu, eta uste behar duçu estela <u>flaqueciaric</u> çurearen pareric.
5	Bicitce barnecoan eta Iaincoaren begietan bici baçare, guti penetan emanen çare <u>haiceac</u> daramatçan hitces.	Barrencoia, eta spirituala baçare contu guti eguiñen duçu <u>haiceac</u> daramatçan hitcez.
6	<u>Prudencia handia da</u> errecuntra gastotan <u>ichillic egotea</u> , eta bere baiñan sartcen dela, ene ganat convertitcea, munduco solas eta <u>jujamendues</u> trublatsu gabe.	<u>Prudencia handi bat da</u> , guerthaceten çazquigun gaitcetari, eta nahi gabeetan <u>ichillic egotea</u> , ene ganat bihotcez itçultcea, eta guiñonen <u>iuiamenduez</u> ez altaratcea.
7	Çure baquea estadilla dependi guiñonen solassetaric: <u>nahis ungui</u> , <u>nahis gaisqui</u> çuc eguiten eta erraten dituçunac explicatcen baituste ere, hargatic etçare bertce pressuna suerte bat, çarena baicen.	2. Çure baquearen itçateac edo ez itçateac ezdu egon behar guiñonen erranquiçunetan; ecen nahiz iendeac çutez mintça ditecten <u>ungui edo gaizqui</u> ; etçare hargatic çarenetic bertcebat.
8	Non da <u>baque</u> eta gloria <u>eguiascoa</u> , <u>ene baiñan</u> baicen? <u>baque saindu bates goçatuco da</u> guiñonei plazer eguitera desiraric estubena, eta halaber hei desplacer egiterat ⁴¹ beldur estena.	Non da çure ustez <u>baque eguiascoa</u> , eta eguiasco loria? Ez othe dago <u>ene baiñan</u> ? Bai segur, eta norc ere ezpaitu guiñonen gogaraco itçateco guticic, ez eta guiñonen desgogaraco itçateco beldurric, haiña <u>goçatuco da baque handi batez</u> .

⁴⁰ V Estugula.

⁴¹ V eguiterat.

	Aranbillaga (1684)	<i>Imitacionea</i> (1720)
9	Amudio erreguelatua estena eta <u>bel-durtassun vanoa</u> , bi ithurri dire, <u>bihotceco kechadura</u> eta ispirituco distraccionen guciac causatcê ditustenac.	Eta contrara, <u>bihotceco kechagune</u> , ⁴² eta spirituco barraiadura guciac sortcen dire amudio desordenaturic, ⁴³ eta guïçonentçat dugun <u>beldurtasun vanotic</u> .

Ez da erabateko batetortzerik —guztiz alderantziz, aski ezberdinak dira bi itzulpenak—, baina bai antzekotasun eta are berdintasun poxiak han-hemen (azpimarratz markatu ditut), hizkera oso hurbilekoak eta tradizio berekoak izateak azaltzen duenaz goitikoak, nik uste. Horietan oinarrিতuta Xuriorarrek Aranbillagaren bertsioa begien aurrean zutela pentsatuz gero, balirudike haren perpausen bat berariaz iraulkatu zutela —hasiera bukaerara eraman: C8 atalean, adibidez—, eta batez ere sarritan 1684ko ordaina nahita beste batez ordezkatu zutela, berez ia kalkatuak diren perpausetan edo perpaus zatietan. Hona halako batzuk (garuko grafian emanak):

zenbat pensamendu izan vs gogoan iragan (C3), *sinhetsi vs uste izan* (C4), *gastotan vs gertatzen zaizkigun gaitzetan eta nahigabeetan* (C6), *konbertitu vs bihotzez itzuli* (C6), *trublatsu vs altaratu* (C6), *dependitu vs egon* (C7), *solas vs errankizun* (C7), *gloria vs loria* (C8), *plazer egin vs gogarako izan* (C8), *desira vs gutizia* (C8) eta *desplazer egin vs desgogarako izan* (C8).

Ondorioa izan liteke Xuriorarrak beren-beregi aldendu nahi izan zirela Aranbillagaren eredutik. Zantzuak adierazgarriak direlakoan nago. Ordea, ez dugu honi buruzko egiazko ziurtasunik izango jadanik frogatutakotzat eman ditugun beste bi erduekin konparatu artean, eta bi euskal itzulpenen arteko batetortze edo lotunetzat eman genitzakeen horiek erdal erduek hobeto azal ote litzaketen jakin artean. Fun-tsean, bada, horrelakoak irudipen hutsak ez ote diren. Helburu honekin, gure bigarren laginean Aranbillagaren bertsioa erantsi dugu (ik. III. eranskina),⁴³ eta erkaketaren ondorioak hemen iruzkinduko ditugu.

Izenburuak diosku Aranbillagak ere frantsesezko eredu bera izan zuela:

(33)	lat.	fr.	eus. (1684)	eus. (1720)
	<i>Qualiter standum sit, ac⁴⁵ dicendum, in omni re desiderabili.</i> CAP. XV.	CHAPITRE XV. <i>Se soumettre à Dieu en tout, & ne vouloir que ce qu'il veut.</i>	XV. GARREN CAPI-TVLVA. <i>Nola Iaincoari gauça gucietan erremetitu behar çaiõn, eta deüs-sic esten Iaincoac nahi duenic baicen desideratu behar.</i>	XV. CAPITULUA. <i>Estugula nahi behar Jaincoac nahi duenic baicen.</i>
		JESUS-CHRIST.	IESV CHRISTOC.	JESUS-CHRISTOC.

⁴¹ V kechagune.

⁴² desordenaturic.

⁴³ Gogora dezagun Aranbillagak *Imitazionearen* III. eta IV. liburuak bakarrik argitaratu zituela; honen negatik, gure bi laginetatik bigarrenak bakarrik balio du erkaketarako, hots, B laginak.

⁴⁴ 1933 ad.

Haatik, 1720ko *Imitazioneak* ez bezala, 1684koak osoki eta den-denean jarraitu dio Lemaistreren itzulpenari, gure laginaren arabera, aldaketa nimiñoren bat edo beste alde batera utzirik, perpausaz perpaus eta hitzez hitz. Eranskinean ederki ikus daiteke hau norainokoa den. Gure baieztapenaren berme, bi gertakari baino ez ditugu hona ekarriko. Lehenik, azpian jasotako adibideetan garbi antzematen da euskarazko itzulpenak frantsesaren joskerari jarraitzen diola, ia hitzez hitz jarraitu ere, bi hizkuntzen arteko asimetriatik eratorritako ezinbesteko aldaketak gorabehera:

(34)

	fr.	eus. (1684)
B10	Seigneur, vous sçavez ce qui est de meilleur. Que cecy se fasse ou ne se fasse pas <u>selon l'ordre de vostre sainte volonté.</u>	Iauna, badaquiçu hoberena ceñ den. Hau eguiñ bedy edo estadin eguiñ, <u>çure vorondate sainduaren ordenaren araberat.</u>
B15	Me voicy devant vous comme vostre <u>esclave</u> , & je suis prest à tout, puisque je ne desire point vivre pour moy, mais pour vous, & plaise à vostre bonté que ce soit <u>dignement & parfaitement.</u>	Huna non naicen çure <u>esclaboa</u> , gucietarat prest, neuretçat bici nahi estudanas gueros, baiñan bay çuretçat; çure ontasunari nahi daquiola <u>dignequi eta perfetqui.</u>
B17	O Jesus! dont la bonté est <u>infinie</u> , répandez vostre <u>grace</u> dans mon coeur, <i>afin qu'elle soit avec moy, qu'elle travaille avec moy, & qu'elle persevere avec moy jusqu'à la fin.</i>	O Iesus, ceñaren ontassuna <u>infiniua</u> baita ô ene bihotcerat çure <u>gracia</u> issurt çaçu enequie[n] den, enequien <u>trabaila</u> dadiñ, eta asqueneraiño enequien <u>persevera</u> deçan.

Hiru adibideetan daude azpimarrak. Gehienek Aranbillagak frantsesetik ekarri dituen maileguak markatu nahi dituzte; lehenengoan (B10), berriz, esamolde oso bat kalkatu izana. Hirurokin sumatzen den frantses itzulpenarekiko mendekotasuna lagin osoko atal guzti-guztietan dago. Sakon dezagun zertxobait lexikoan. Hurren taulan frantseseko hitz eta esapide zenbaiten aldean Aranbillagaren bertsioa jaso dugu:

(35)

	fr.	eus. (1684)
B3	Propose	Proposatcen
B3	Volonté	Vorondatea
B3	Si vous estes honoré	ohoratua baçare
B3	en une telle chose	gauça batean
B3	pour vostre gloire	çure gloriarentçat
B4	Prévoyez	aitecnetic ickusten
B5	Desir	Desira
B6	Desir	Desira

	fr.	eus. (1684)
B7	Juger	Jüiatcea
B7	Absolument	Absolutuqui
B7	vostre esprit propre	çure spiritu propioa
B7	Pousse	Pusatcen
B8	Trompez	Trumpatu
B9	Offrir	offrendatu
B9	remettre tout à ma disposition	ene disposicionerat erremetitu
B12	Traitez	Tratatu
B12	Agreable	agradagarri
B13	avec une entiere liberté	libertate osso batequin
B13	Disposez	Disposa
B14	Je suis dans vostre main divine	Çure Iaincosco escuan nais
B15	Esclave	Esclaboa
B15	dignement & parfaitement	dignequi eta perfetqui
B17	Infinie	Infinitua
B17	Travail	Trabaila
B17	Persevere	persevera
B18	Agreable	agradagarri
B18	Desirez	desiratcen
B18	Parfaitement	Perfequi
B18	s'y conforme	conforme eguin
B20	Inconnu	es eçagutua
B20	Méprisé	mespreçatua
B21	Repose	errepausa
B23	Inquiet	Inquietac
B24	Repos	errepausu
B24	dans la souveraine paix	baque suberanoan

Gure lehen iritzia bermatzen du taula honek: euskal testuko hainbat hitz eta esapide zuzenean frantsesezkoek iradokitakoak dira, baten batean euskaldun irakurlearentzat ilunskoak liratekeen arren: *ene disposicionerat erremetitu* (B9), adibidez. On-

doria ezin garbiagoa da: Aranbillagak Lemaistreren frantses itzulpena itzuli zuen euskarara, ia osoki hitzez hitz itzuli ere.

Goazen orain 1720ko *Imitazionearen* alorrera. Goiko taulari honen emaitzak erantsi dizkiogu, 1720koan parekorik ez dutenak ezabaturik:⁴⁵

(36)	fr.	eus. (1684)	eus. (1720)
B3	volonté	Vorondatea	Nahia
B3	Si vous estes honoré	ohoratu baçare	çure icen sainduaren ohoretan
B3	en une telle chose	gauça batean	gauça hau
B3	pour vostre gloire	çure gloriarentçat	çure loriacotz
B4	prévoyez	aitcINETIC ickusten	Ikhesten
B5	desir	desira	Guticia
B6	desir	desira	Guticia
B7	juger	jüiatcea	Iaquitea
B7	absolument	absolutuqui	Chuchenqui
B7	vostre esprit propre	çure spiritu propioa	gure Spiritu propiaetic
B8	trompez	trumpatu	Enganatu
B12	agreable	agradagarri	Nahien
B14	Je suis dans vostre main divine	Çure Iaincosco escuan nais	Çure escuan naiz
B15	esclave	esclaboa	Cerbitçaria
B15	dignement & parfaitement	dignequi eta perfetqui	dignequi eta perfetqui
B17	infinie	infinitua	Guçiz
B17	travaille	trabaila	Trabaila
B17	persevere	Persevera	bethi egon
B18	agreable	Agradagarri	gogara dena
B18	s'y conforme	conforme eguin	iunta bedi
B20	inconnu	es eçagutua	Ahantcia
B20	méprisé	Mespreçatua	Arbuiatua
B21	repose	Errepausa	sosegua causi

⁴⁵ Gogoan izan bedi itzulpen honek sarritan latinari segitu ziola, Aranbillagak ez bezala (ik. § 2.2.2).

	fr.	eus. (1684)	eus. (1720)
B23	inquiet	Inquietac	khexaduraric ičan
B24	repos	Errepausu	Pausua
B24	dans la souveraine paix	baque suberanoan	baque soberano

Aurreko taulan bilduen arabera, gutxi batzuetan euskarazko bi bertsioek berbera dioten arren (*dignequi eta perfetqui* B15, *trabaiilla* B17), gainerakoan balirudike 1720ko *Imitazioneak* 1684ko euskarazko itzulpena ispilu izan zuela, gehienetan gustuko ez zen ispilua, eta honegatik hark zer ipini, eta honek beste zerbait hautatu zuela. Bereziki gardena ematen du Aranbillagareneko frantsesetiko mailegu berri ugari kasuan, 1720an bestelako ordainak bilatu baitzaizkie. Haatik, antzematen da Xuriotarrak ez zirela maileguen etsai, baina bai saiatu zirela itzulpen hitzez hitzeko gitik ihes egiten, eta euskaraz ohikoago, ulergarriago edota dotoreago iruditzen zitzaizkien esapideak lortzen, alegia, garbizaletasun neurritsu baten arabera ondua dela 1720ko *Imitazionea* (§ 2.1.3.2), baina ikasi berri dugu garbizaletasun hori ez bide dela erdararekiko sortu, euskarazko aurreko itzulpenarekiko baizik.

2.2.3. Frantsesetik ala euskaratik?

Aranbillagaren itzulpena zuzenean eta aldaketa aipagarririk gabe frantsesezkotik datorrela egiaztatu ondoren, Ockhamek geure buruari galde egitera gonbidatzen gaitu: frantses itzulpena eta Aranbillagarena, biak behar ote ditugu 1720ko *Imitazionearen* testua azaltzeko, ala aski dateke bietako batekin? Erantzunaren bila, berrar ditzagun gorago latinari ez, baizik eta frantsesari egotzi dizkiogun 8. eta 9. adibideetako pasarteak (gogoratu B laginekoak bakarrik azter ditzakegula 1684ko itzulpenean):

(37)

	fr.	eus. (1684)	eus. (1720)
B14	Je suis dans vostre main divine; tournez-moy, & retournez-moy comme il vous plaira.	Çure Iaincosco escuan nais, turna naçaçu baterat eta bertcerat <u>placer içaren çaitçun beçala.</u>	Çure escuan nais, iira naçaçu, eta erabill <u>placer duçun beçala.</u>
B21	Faites que je me repose en vous <u>plûtost qu'en tout</u> ce que je puis jamais désirer, & que mon coeur <u>trouve</u> en vostre sein <u>sa paix & sa joye.</u>	<u>Eguiçu arren</u> munduco desira ahal deçaquedan <u>gauça gucietan baiño hobequi</u> çure baithan errepausa nađiñ, eta ene bihotçac çure galtçarrean <u>bere baque eta boscarioa causi deçan.</u>	<u>Eguiçu arren</u> çure baithan causi deçadan neure sosegua, eta ene bihotçac <u>gauça gucietan baiño hobequi</u> çure baithan <u>causi deçan bere baquea, eta bozcarioa.</u>

Bietan gauza bera dakusgu: aldeak alde (adib. *tournez-moy*, & *retournez-moy* ezin izan zuen hitzez hitz itzuli B14n), 1684koa frantsesaren kide-kidekoa da, 1720koa ez bezala, eta honen aldaketak 1684kotik abiatuta ere azal daitezke, frantsesaren beharrik gabe: *divine* = *Iaincosco* (B14) eta *ce que je puis jamais desirer* - *munduco desira ahal deçaquedan* (B18) elisioak, eta *en vostre sein* = *çure galtçarrean* > *çure baithan* aldaketa. Haatik, Aranbillagarenetik ari izanak baino ezin azal ditzake bi euskal itzulpenen arteko kidetasunak (azpimarratutakoak). Berez deigarriena ez bada ere, ohar bekio *arren-en* eransketari (B21), beste pasarte batzuetan 1720ko *Imitazione*ari egotzi dioguna.⁴⁶

Esanguratsua da, halaber, 1720ko itzulpenari egotzi dizkiogun beste ezaugarri zenbait, ez latinetik, ez frantsesetik ez zetozenak, baizik eta euskaldunaren senetik, 1684koan egotea, hala nola *desiraraz* (gogora 19. adibidean aditz arazleaz esana):

(38)

	lat.	fr.	eus. (1684)	eus. (1720)
B18	<i>Da mihi semper desiderare, & velle, quod tibi magis acceptum, & carius placet.</i>	<i>Faites-moy desirer & vouloir toujours ce qui vous est le plus agreable, & que vous desirez plus de moy.</i>	Cer ere agradagarrri baitçaitçu, eta cer ere ene ganic güehienic desiracten baituçu hura bera <u>desiraras dieçadaçu.</u>	<u>Desiraraz dieça-daçu</u> bethi güehienic çure gogara dena çure borondatea den bethi enea; enea iarraic bequio bethiere çureari, eta enea bethi iunta bedi çurearequiñ.

Pasarte nabarmen batean, non frantsesa latinaz beste bidetik doan eta Xuriotarrak latinarekin bat (ik. 13. adib.), erkaketa berri honek erakutsi digu honetan ere Aranbillaga dela eredurik egiantzekoena:

(39)

	lat.	fr.	eus. (1684)	eus. (1720)
B22	<i>Tu vera pax cordis, tu sola requies:</i>	<i>Vous seul estes nostre azyle & nostre port.</i>	Çu çare bihotxaren baquea, çu haren errepausua.	Çu çare eguiazqui bihotceco baquea: çu bakharric çare gure arimaco sosegua.

Bi ondorio atera genitzake atalxo honetatik: bat, 1720ko itzulpenaren iturri zuzen bat hautatzekotan, 1684koak du aukera gehien, nahiz zuzendu (*bihotxaren* > *bihotceco*), aldatu (*haren* > *gure*; *errepausua* > *sosegua*) eta emendatu (*eguiazqui*, *arimaco*), bai eta lat. *sola*-ren ordaina erantsi ere; biga, Aranbillagak frantsesarekiko izan ohi duen atxikimenduaren aurkako adibide honek iradokitzen du berriro —hasieran 1674koarekin gertatu zaigun legez (§ 2.1.3)— agian oraindik ez dugula Lemaistreren edizio zehatza asmatu.

⁴⁶ Gorago aipatu ditugun *arren-en* bi eransketak (ik. 27. adib.) 1720koak dira, baina hemen egiaztatuta ahal izan dugu 1684koak ere egin zituela halakoak.

Azken adibide gisa, itxuraz euskaldunek beren kasa —ez latinari, ez frantsesari gehiegi begiratu gabe— itzuli zituzten pasarteetako bat hautatu dut:

(40)

	lat.	fr.	eus. (1684)	eus. (1720)
B13	Pone me vbi vis, & liberè age mecum in omnibus.	Mettez-moy où vous voudrez, & disposez de moy pour toutes choses avec une entiere liberté.	Nahi duçun leçkuan eman naçaçu, eta gauça gucietan libertate osso batequin nitas disposa çaçu.	Eman naçaçu nahi duçun lekhuan, eta gauça gucietan compli bediene baithan çure borondatea.

Honela ikusirik, lehenagoko azalpena (ik. 18. adib.) nahikoa aldatu behar dugu. Izan ere, Aranbillagak trantsizioa eskaini digu frantsesezko bertsioaren eta 1720koaren artean, ohiko lekualdaketak (*Nahi duçun leçkuan eman naçaçu > Eman naçaçu...*) gorabehera: 1684ko *libertate osso batequin nitas disposa çaçu* guretzat bezain arrotza, edo are arrotzagoa zatekeen orduko lapurtar irakurleentzat, Xuriotarren ustetan berderen, eta horrek urrundu ditu erdal bertsioetatik, ez bestek, antza denez.

Nolanahi ere, ez latinak, ez Aranbillagak ez dituzte azaltzen 1720ko letra etzaneko pasarteak (ik. 3. adib.): honen arabera, are III. eta IV. liburuak itzultzerakoan ere, nahiz nagusiki Aranbillagarenetik aritu bide ziren, bazegoen Lemaistreren frantses itzulpenaren ale bat ere zabalik Xuriotarren mahai gainean.

Finean, gure helburuetarako ere balio duen ondorio garrantzizko bat lortu dugu: Xurio neba-arreben itzulpena arakatzerakoan, ez da Aranbillagarena begien bistatik galdu behar.

3. Ondorioak

Hasierako helburua *Imitazionearen* 1720ko euskarazko itzulpenean Mixel Xuriorren arrebak parte hartu zuenetz egiaztatzea bazen ere, berehala ohartu nintzen oinarritzkoago lan batetik abiatu beharrak ginela: itzulpenaren iturria(k) bilatzetik, alegia (§ 1).

Aukeran latin jatorrizkoa zegoen, hamaika edizio ezberdinetan, frantsesezko itzulpenak beste hainbestetan, bai eta Xuriok baino lehenago euskaratu zuten *Pouvrearen* eta *Aranbillagarenak* ere (§ 2).

Jatorrizko hizkuntzari dagokionez, lan honetan egiaztatu da 1720ko *Imitazionea* itzultzeko liburu honek Frantzian izan zuen tradizio oparotik XVII. mendearen erdialdetsuan egin ziren edizioetako bat erabili bide zela, baina, edonola ere, oraingoz edizio zehatza aurkitu ez izanak ez duela ikerketa oztopatzen (§ 2.1.1). Izan ere, kidedatasun nabarmenak idoro ditugu, Xuriotarrek latinezkoa mahai gainean zutela frogatzen dutenak (§ 2.1.3).

Frantsesezko itzulpenetan, inolako dudarik gabe, bat erabiltzekotan Lemaistre de Sacy-ri egotzi zaiona (1662) erabili zuten, ziurrenik XVII. mendearen erdialdetik aurrerako edizio ugariatetik bat, 1674koa ez, besteren bat (§ 2.1.2). Izan ere, hala formazko nola edukizko kidedatasun ugari antzeman ditugu, eta lehen hurbilketa honetan iruditu zaigu frantsesezko bertsioari latinezkoari baino gehiago jarraitu ziotela (§ 2.1.3).

Latinezkoa eta frantsesezkoa aztertu ondoren, Xuriotarren itzulpen-teknika zenbait aurkeztu ditugu (§ 2.1.3.1), konparaketan agerian gelditu zaizkigunak: batetik, testua trinkoago bihurtzeko joera handia, errepikapenak eta apaindurazko adberbioak-eta kenduz; bestetik, tarteka badago anplifikazioaren bat edo beste ere: espezifikatzeak batzuetan, bestetan topikoak, hau da, Elizaren hizkeran espero izatekoak direnetakoak, ezer handirik eransten ez dutenak.

Lexikoa ere aztertu dugu zertxobait, Lafittek eta Onaindiak Xurioren maileguzaletasunaz esandakoak frogapean jarri beharrez (§ 2.1.3.2). Ondorio nagusiak bi dira: batetik, ahalegin berezia egin zutela askotan frantsesezko mailegu zuzenik ez egiteko; bestetik, 1720ko itzulpenaren lexikoa lapurtera klasikoa espero dugun bezalakoa dela —ez jasoezia, ez apalegia—, eta ordainetan erabili zituzten elkartu-eratorriek zein maileguk (gure lagintxoan %100) guztiek lehenagoko lekukotasunak dituztela: itzulpena egiterakoan txukunak bai, baina ez dirudi berritzaileak izateko asmo handirik zutenik. Hemendik erator daiteke, berebat, aurreko euskal literatura ondo ezagutzen zutela: ikertzeko dago, aldiz, zein obra zehazki.

Imitazione-aren euskarazko itzulpenetan, alde batera utzi dugu Pouvreuren itzulpen eskuizkribatua (1669): erkaketa txiki bat aski izan da Xuriotarrena guztiz ezberdina dela frogatzeko (§ 2.2.1). Aranbillagarena (1684), aldiz, ia ezinbestekoa zirudien ezagutu izanak, haien bizitzan argitaratua izanik, eta gertu-gertu zeukaten herri bateko semeak egina. Halere, Aranbillagaren itzulpenaren liburu bi bakarrik argitaratu zirenez, litekeena zen ezagutu bai baina ez erabiltzea.

Aitzitik, erkaketak erakutsi digu 1720ko *Imitazionea* itzultzeko Aranbillaga erabili zutela, etengabe erabili ere, gutxi batzuetan harena kopiatuz edo zertxobait egokituz, baina gehienetan hura hobetzeko saiakera gisa soilik deskriba daitekeen moduan erabiltzen dute. Izan ere, frogatu dugu Aranbillagak, esateko moduan, kalkatu egin zuela Lemaistreren frantsesezko itzulpena, esaldiz esaldi eta hitzez hitz; hala bada, 1684ko itzulpenak frantsesarekiko kideetasun ugari ditu joskeran, esamoldeetan eta lexikoan. 1720koan, aldiz, Aranbillagaren joskera maiz alderantzizkatu da, eta oro har esapide eta hitz jatorragoak edo frantsesari ez hain lotuak bilatu dira. Hitz gutxitan esanik, Xuriotarrek Aranbillaga sarrienik *a contrario* baliatu zuten euren itzulpena ontzeko.

Gauzak honela, birplanteatu beharra zegoen ea frantsesezko itzulpena ere erabili ote zuten, ala hasieran aurkitutako frantsesarekiko kideetasunak Aranbillagaren itzulpen kasik hitzez hitzekoari zor zaizkion (§ 2.2.3). Gure lagintxoaren arabera, badi-rudi *Imitazionea*-ren III. eta IV. liburuetako 1684ko itzulpena aski dela gehienetan; ez guztietan, halere. Nolanahi ere, ezin dugu inondik inora honegatik baztertu Lemaistreren frantsesezkoa ere tartean izatea, ezinbestekoa baita I. eta II. liburuen itzulpena ulertzeko.

Azken ondorioak hasierara garamatza: 1720ko *Imitazioneak* XVIII. eta XIX. mendeetan izan zuen garrantziarekin konparaturik, ez du inolaz ere merezi duen arreta izan. Areago, Mixel Xurioren arrebaren aferaz inor kezkatu ez izana garai batean espero izatekoa bezain gure egunotan barkaezina dela esango nuke. Zinez espero dut lerro hauek *Imitazionea* Mitxelenaren «gutti ezagun diren idazle trebeak» azpizaldetik ateratzeko akuilu ere izatea.

Iturriak

- Aranbillaga, 1684. *Jesu Christoren imitacionea d'Aranbillaga Apheçac escaraz emana*. Baiona: Antonio Fauvet. Koldo Mitxelena Kulturunean, Julio Urquijo zenaren funtsean gordetako alearen (J.U. 4232) bertsio elektronikoa. <https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DBKVisorBibliotecaWEB/visor.do?ver&amicus=25758>.
- Kempis, Thomas à. 1649. *Thomae / A Kempis / canonici regularis / ordini S. Augustini / de Imitatione / Christi / libri quatuor. / Ex recensione P. IOANNIS FRONTONIS [...]* Parisiis, Sebastianum Cramoisy, Architypographum Regis, & Reginae Regentis: et Gabrielem Cramoisy.
- Lemaistre, Louis-Isaac. 1674. *De l'imitation de Jesus - Christ. Traduction nouvelle par le sieur De Beüil, prieur de S. Val. Dix-neuvième edition*. Paris: Guillaume Desprez. http://numelyo.bm-lyon.fr/BML:BML_00GOO0100137001100716393
- Lemaistre, Louis-Isaac. 1686. *De l'imitation de Jesus-Christ. Traduction nouvelle, Par le Sieur De Beüil, Prieur de Saint Val. Vingt-cinquième Edition*. Bruxelles: Eugene Henry Fricx. <https://books.google.es/books?id=nexoAAAAcAAJ>
- Xurio, Mixel. 1720. *Jesus-Christoren Imitacionea. M. Chourio Donibaneco Erretorac escararat itçulia*. Bordele: Guillame Boude Boe. Bizkaiko Foru Liburutegiaren alearen bertsio elektronikoa: <http://hdl.handle.net/20.500.11938/74867>

Erreferentziak

- Arcocha-Scarcia, Aurélie & Beñat Oyharçabal. 2012. The Seventeenth Century: The Publishing and Development of Septentrional Basque Letters. In María José Olaziregi (arg.), *Basque Literary History*, 89-108. Reno (Nevada): Center for Basque Studies. CNRTL = *Centre National de Ressources Textuelles et Lexicales*. <https://www.cnrtl.fr/>.
- Dainville, François de. 1957. Collèges et fréquentation scolaire au xviiè siècle. *Population* 12(3). 467-494.
- Daranatz, Jean Baptiste. 1927. *Curiosités du Pays Basque*. Baiona: Librairie Lasserre.
- Delassault, Geneviève. 1957. *Le Maistre de Sacy et son temps*. Paris: Nizet.
- Elizalde, Jean, «Azkaindarra». 1954. Hirur Chourio. *Gure Herria* 26(5, buruil-urrieta). 306-310. (Berrargit. *Azkaine, gure sorterrria*, 59-62. Donostia: Elkar, 1985).
- Etxagibel, Javier. 2016. Hizkuntz irizpideak xvii. mendeko Lapurdiko eliz agirietan, eta haietan bildutako zenbait zertzelada garaiko autoreen gainean. *ASJU* 50(1-2). 47-76.
- Etxagibel, Javier & Blanca Urgell, prestatzen, Marie Xurio euskal itzultzaile isilduaz (1720), eta haren familiaz.
- Euskaltzaindia. 1991-2015. *Euskaltzaindiaren hiztegia*. (Online bertsio zuzendu eta eguneratua: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegiabilatu&task=hasiera&Itemid=1693&lang=eu).
- Gregory, Equite G. de. 1833. *Codex de Advocatis seculii XIII. De imitatione Christi et contemptu mundi omniumque ejus vanitatum libri IV fideliter expressus cum notis et variis lectionibus*. Lutetiae: Firmin Didot Fratres.
- Hiribarren, Juan Martin 1853. *Eskaldunac. Iberia, Cantabria, Eskal-Herriac, Eskal-Herri bakhotcha eta hari darraicono*. Baiona: Foré eta Lasserren Inprimeria. (Berrargit. faksim. Donostia: Hordago, 1979).
- Hosington, Brenda M. 2014. Women translators and the early printed book. In V. Gillespie & S. Powell, *A Companion to the Early Printed Book in Britain 1476-1558*, 248-271. Cambridge: D. S. Brewer.

- Hurtado Albir, Amparo. 2016. *Traducción y traductología. Introducción a la traductología*. Madril: Cátedra.
- Irure, Leyre. 2023. *Corpusaren egoera hobetzen: Xurioren Imitacionearen aleak XVIII. mendean*. Gasteiz: UPV/EHUko Gradu Amaierako Lana. *ASJU*n (2022:2) online first argitaratua.
- Kempis. 1910. *Imitation of Christ*. In *The Catholic Encyclopedia*. New York: Robert Appleton Company. <http://www.newadvent.org/cathen/07674c.htm> (2023-07-28).
- Lafitte, Pierre. 1928. Leon Jaun Aphezak eskuaralat itzuli duen *Jesu-Kristoren imitacioneaz*. Jaun lechu bati bi hitz. *Gure Herria* 8(2, epaila-jorraila). 105-112.
- Lafitte, Pierre. 1931. *Eskualdunen loretegia: XVI garren mendetik hunateko liburuetatik bildua*. Baiona: Lasserre. <http://hdl.handle.net/10357/1795> (2023-07-28).
- Michel, Francisque. 1857. *Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses mœurs, sa littérature et sa musique*. Paris. (Berrargit. faksim. Elkar: Donostia, 1981).
- Mitxelena, Koldo. 1960. *Historia de la literatura vasca*. Madril: Minotauro. (Berrargit. *OC* 13, 81-205).
- Mitxelena, Koldo. 1978. Euskara eta euskal literaturaren lekukoak. *Euskera* 23. 251-252 (Berrargit. *OC* 10, 523-524).
- Mitxelena, Koldo & Ibon Sarasola. 1987-2005. *Orotariko Euskal Hiztegia / Diccionario General Vasco*, 16 lib. Bilbo: Euskaltzaindia (11. argit. elektr. 2023: <http://www.euskaltzaindia.eus/oeh>).
- OEH* = Mitxelena & Sarasola (1987-2005).
- Onaindia, Santi. 1972. Mixel Xurio. In *Euskal literatura I*. Donostia: Etor. <https://zubitegia.armiarma.eus/?p=ona-716>.
- Oyharçabal, Beñat. 2001. Zenbait gogoeta euskarak letra hizkuntza gisa izan duen bilakae-raz. *Litterae Vasconicae* 9. 9-46.
- Pouvreau, Silvain. 1979. *Iesusen imitacionea*. Donostia: Hordago.
- Ruiz Arzalluz, Iñigo. 1987. Notas sobre algunas traducciones vascas del Nuevo Testamento. *ASJU* 21(3). 709-726.
- Satrustegi, Jose Maria. 1979. Hitzaurrea. In Pouvreau (1979), 7-20.
- Tomamichel, Serge. 2017. Le latin dans l'enseignement secondaire français. Formes et légitimités sociales d'une discipline scolaire entre monopole et déclin (xvi^e-xx^e siècles). *Espacio, Tiempo y Educación* 4(2). 209-226. <http://dx.doi.org/10.14516/ete.141>.
- Urgell, Blanca. 2018. Lehen euskara modernoa (1745-1891). In Iván Igartua, Joaquín Gorrotxategi & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*, 543-657. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Villasante, Luis. 1979. *Historia de la literatura vasca*. 2. argit. berrikusi eta osatua. Oñati: Aranzazu.
- Vinson, Julien. 1891-1898. *Essai d'une bibliographie de la langue basque*. Paris: J. Maisonneuve. (Berrargit. faksim. J. Urquijoren oharrekin, *ASJU*-ren gehigarriak 9, Donostia, 1984).
- Xurio, Mixel. 1788. *Jesu-Christoren Imitacionea*. Baiona: Trebos liburu saltçaille baitan. Sancho el Sabio Fundazioaren alea (ZRV 4120).
- Xurio, Mixel. 1978. *Jesu-Christoren imitacionea*. 1788ko edizioaren faksimilea. Donostia: Hordago.
- Zelyck, Lorne R. 2005. An evaluation of Thomas à Kempis' *The imitation of Christ*. *Journal of the Grace Evangelical Society* 35. 77-88.

I. eranskina. A lagina

Landu dugun lehenengo lagina II. liburuko 3. kapituluak osatzen du, latinez (Kempis 1649: 92-94), frantsesez (Lemaistre 1686: 93-95; 1674: 123-125) eta euskaraz (Xurio 1720: 99-101). *De advocatis* kodex zaharraren irakurketa ezberdinak (Gregory 1833: 86-88) oharretan eman ditut,⁴⁷ eta berdin jokatu dut iturritzat baztertu dugun frantsesezko 1674koarekin (ik. § 2.1.3). Perpausaz perpaus ataltxoak eratu ditut, eta zenbaki bana esleitu (ik. ezkerreko zutabea), lanean zehar honi egingo zaizkion erreferentziak errazteko.

	<i>De Imitatione Christi</i> (1649)	<i>De Imitatione Christi</i> (1674)	<i>Jesus-Christoren Imitacionea</i> (1720)
1	<i>De bono pacifico homine.</i> Cap. III.	CHAPITRE III. <i>De la paix interieure.</i>	III. CAPITULUA <i>Barreneco baqueaz.</i>
2	Pone te primò ⁴⁹ in pace, & tunc poteris alios ⁵⁰ pacificare.	1. Commencez par bien établir la paix dans vostre coeur, & vous pourrez ensuite ⁵¹ la donner aux autres.	1. Hazçaite behindic behiñ çure bihotcean baquearen eçartcen, eta guero bertceen artean emanen duqueçu.
3	Homo pacificus plus prodest, quàm bene doctus.	L'homme qui jouit de cette paix, servira plus les autres que les plus éminens en science.	Guiçon baquezcoa progotchosago da bertceençat guiçon sabanta baino.
4	Homo passionatus etiam bonum in malum trahit, & faciliter malum credit. Bonus pacificus homo, ⁵² omnia ad bonum conuertit.	Celuy qui est encore assujetti ⁵³ au trouble de ses passions, change souvent le bien en mal, & se porte aisément à croire le mal des autres; mais l'homme de bien qui est étably dans cette paix, change au contraire tout en bien.	Bere pasioneen gathibu den guiçonac ona ere gaitcera itçulcen du, eta errechqui siñhesten du bertceez erraten den gaizquia, baiñan guiçon baquetiarrac guciac onerat aldatcen ditu.
5	Qui bene in pace est, de nullo suspicatur. Qui autem malè contentus est, & commotus, variis suspicionibus agitur: nec ipse quiescit, nec alios quiescere permittit.	L'ame qui est dans ce calme ne forme point de soupçons contre personne; mais l'esprit turbulent & inquiet est agité de divers soupçons, & ne peut ny demeurer en repos, ny y laisser les autres.	Bere baithan baquean den guiçonac estu nihortaz suspitcharic, baiñan guiçon khechosa, eta pausu-gabea hañitz suspitcha suertez bethea da, eta ez bere buruari, ez bertce nihori ustendio halacoac baqueric.

⁴⁷ Ez ditut aintzat hartu azentuak, <u> vs <v> grafiak, <e> pro <ae> idazkera, ezta *et* pro *et* ezberdintasun guretzat hutsalak ere.

⁴⁹ 1833 primus.

⁵⁰ 1833 alios poteris.

⁵¹ 1674 ensuite.

⁵² 1833 homo pacificus.

⁵³ 1674 assujetty.

	<i>De Imitatione Christi</i> (1649)	<i>De Imitatione Christi</i> (1674)	<i>Jesus-Christoren Imitacionea</i> (1720)
6	Dicit saepe ⁵⁴ quod dicere non deberet, & omittit quod ⁵⁵ sibi magis facere expediret. ⁵⁶	Il dit souvent ce qu'il ne devoit point dire, & omet ⁵⁷ souvent ce qu'il devoit faire.	Mintço da maiz erran behar ezlitzuquen gauceç, eta ustenditu eguiñ gabe guehienic eguiñ behar lituzquen gauçac.
7	Considerat quod alij facere tenentur, & negligit quod ipse facere tenetur.	Il considere en ⁵⁸ quoy les autres sont obligez, & negligé luy-même ⁵⁹ ce qu'il est obligé de faire.	Artha handi du iaquiteco certara diren bertceac obligatuac, eta berac usten ditu eguiñ gabe obligacionez eguiñ behar lituzquen gauçac.
8	Habe ergo primò ⁶⁰ zelum super teipsum, ⁶¹ & tunc zelare poteris iustè etiam ⁶² proximum tuum.	Que vostre zele donc agisse premierement sur vous-même, & après ⁶³ cela vous pourrez l'étendre ⁶⁴ sur vos freres.	Duçun beraz zelo lehenic çure buruarentçat, eta guero bertceatara ere hedatuco duqueçu.
9	2. Tu bene scis facta tua excusare, ⁶⁵ & colorare, ⁶⁶ & aliorum non vis recipere ⁶⁷ excusationes. Iustius esset, vt te accusares, ⁶⁸ & fratrem tuum excusares.	2. Vous ⁶⁹ sçavez bien excuser & colorer ce que vous faites, & vous ne voulez point recevoir les excuses des autres. Il seroit bien plus juste au contraire de vous accuser vous-même, & de les excuser.	2. Badaquiçu choill ungui çure hutsen eta falten gueriçatçen eta bernuçatçen; eta ezdituçu erre-cibitçen bertceec bere hutsen estaltceco edo gutitceco ekhartçen ditusten arroçoiñac[:] ezlitateque bada iustuago çure burua faltiar aithortcea, eta bertceac faltatic descargatcea?
10	Si portari vis, porta & ⁷⁰ alium.	Si vous voulez estre supporté, accoûtumez-vous aussi à supporter.	Nahi baduçu bertceec iasan çaiçatçen, iasan çatçu çuc ere bertceac.

⁵⁴ 1833 sepe.

⁵⁵ 1833 omittit sepe quod.

⁵⁶ 1833 expediret, et negligit, quod ipse facere tenetur. (Oharkabean perpaus bat (lerro oso bat?) ahaztu du, gure 7. atalaren bukaeratik 8. atalaren bukaerara jauzi eginik).

⁵⁷ 1674 obmet.

⁵⁸ 1674 à.

⁵⁹ 1674 mesme (ez dut aldaketa hau gehiagotan jasoko).

⁶⁰ 1833 primum.

⁶¹ 1833 te ipsum (eta komaren ondoren ez dago & ikurraren kideko *et* lokailurik).

⁶² 1833 etiam juste.

⁶³ 1674 apres.

⁶⁴ 1674 l'étendre.

⁶⁵ 1833 Tu bene facta scis excusare.

⁶⁶ 1833 tollerare.

⁶⁷ 1833 accipere.

⁶⁸ 1833 Justus esses si te accusares.

⁶⁹ 1674 Vous (zenbakirik gabe).

⁷⁰ 1833 &-rik ez dago.

	<i>De Imitatione Christi</i> (1649)	<i>De Imitatione Christi</i> (1674)	<i>Jesus-Christoren Imitacionea</i> (1720)
11	Vide quàm longè es adhuc à vera caritate, & humilitate: quae ⁷¹ nulli nouit indignari, vel irasci, nisi tantùm sibiipsi. ⁷²	Considerez combien vous estes éloigné de la vraye charité, & de la vraye humilité, qui ne sçait se mettre en colere que contre soy-même.	Ikus açu hortice cein urrun çaren oraino eguiazco caritatetic, eta eguiazco humiltasunetic, ceinac ez paitu aserraduratic bere buruaren contra baicen.
12	Non est magnum cum bonis, & mansuetis conuersari: hoc enim omnibus naturaliter placet, & vnusquisque libenter pacem habet, & secum sentientes magis diligit. ⁷⁴	Il n'est pas besoin d'une grande vertu pour vivre en paix avec ceux qui sont bons & doux, puis qu'on se plaist naturellement en la compagnie de ces personnes, & que nous aimons toujurs ceux qui sont de mesme sentiment que nous.	Ezda gaitz baquezco icatea onequin eta mansoequin, natural da ecen baquea maitatcea, eta gure sentimenduco diren presunen oneztea.
13	Sed cum duris, & peruersis, aut indisciplinatis, aut nobis contrariantibus, pacificè posse viuere, magna gratia est, & laudabile nimis, virilèque factum.	Mais c'est l'effet d'une grande grace, & d'une vertu masle & courageuse, de pouuoir vivre paisiblement avec des ames dures & déreglées, qui sont sans joug & sans discipline, ou qui nous contredisent & nous combattent.	Bainan gracia handibat, eta berthute sendo bat behar da, buru gaitz eta errebesequin, desordenatuequin, makhurrequin, eta contrestatçailleequin baquean biciteco.
14	3. Sed sunt qui seipso ⁷⁵ in pace tenent, & cum aliis etiam pacem habent.	3. Il y en a qui conservent la paix dans eux, & qui l'ont aussi avec les autres.	Badire presunac bere buruequin, eta bertceequin baquea dutenac:
15	Et sunt qui nec pacem habent, nec alios in pace dimittunt: alii sunt graues, sed sibi sunt semper grauiores.	Il y en a au contraire qui n'ont point de repos en eux, & qui troublent celuy de leurs freres, qui sont penibles aux autres, & encore plus à eux-mêmes.	badire bertce batçuc ez berequin ez bertceequin baqueric ez dutenac, bertceençat nekhagarri, eta nekhagarriago beretçat.
16	Et sunt qui seipso ⁷⁶ in pace retinent, & ad pacem alios reducere student.	Il y en a enfin, qui non seulement gardent la paix au-dedans d'eux; mais qui travaillent encore à la donner à ceux qui sont dans la division & dans le trouble.	Bertce batçuc ezdire contentatcen bere buruequin baquean icateaz, enseiatcen dire bertceei ere haren ematerat.

⁷¹ 1833 que. Hemendik aurrerako *ae* > *e* aldaketak ez dira jaso.

⁷² 1833 sibi ipsi.

⁷⁴ 1833 diligit.

⁷⁵ 1833 se ipsos.

⁷⁶ 1833 se ipsos.

	<i>De Imitatione Christi</i> (1649)	<i>De Imitatione Christi</i> (1674)	<i>Jesus-Christoren Imitacionea</i> (1720)
17	Et tamen tota pax nostra in hac misera vita, potiùs in humili sufferentia ponenda est, quàm in non sentiendo contraria.	Il est vray neanmoins que pendant que nous sommes dans cette miserable vie, nostre paix consiste plùtost à souffrir humblement ce qui s'oppose à nous, qu'à ne trouver rien qui nous soit contraire.	Guciarequiñ-ere gure baquea bicitce dohacabe huntan gareiño, hobequi datça trebesien humil-qui pairatcean, ecen ez atsecaber-ric gabe içatean.
18	Qui meliùs scit pati, pacem tenebit maiorem.	Plus l'homme a de douceur & de patience, plus il a de paix.	Cembatenaz baitaqui guiçonac hobequi pairatcen, hambatenaz du baque guehiago.
19	Iste est victor sui & dominus mundi, ⁷⁷ amicus Christi, ⁷⁸ & heres caeli.	Et celuy-là est veritablement le vainqueur de soy-même, le maistre du monde, l'amy de JESUS, & l'heritier du Paradis.	Paciencia duena da bere burua-ren garaitçaille, munduaren nausi, Jesu-Christoren adisquide, eta parabisuco primu.

II. eranskina. B lagina

Bigarren lagina III. liburuko 15. kapituluak osatzen du, latinez (Kempis 1649: 176-179), frantsesez (Lemaistre 1686: 186-189; 1674: 214-216) eta euskaraz (Xurio 1720: 189-192). Aurrekoan bezala, *De advocatis* kodex zaharraren irakurketak (Gregory 1833: 159-162) oharretan eman ditut, eta frantsesezko 1674koak ere berdin.

	<i>De Imitatione Christi</i> (1649)	<i>De Imitatione Christi</i> (1674)	<i>Jesus-Christoren Imitacionea</i> (1720)
1	<i>Qualiter standum sit, ac⁷⁹ dicendum, in omni re desiderabili.</i> CAP. XV.	CHAPITRE XV. <i>Se soumettre à Dieu en tout, & ne vouloir que ce qu'il veut.</i>	XV. CAPITULUA. <i>Estugula nahi behar Jaincoac nahi duenic baicen.</i>
2		JESUS-CHRIST.	JESUS-CHRISTOC.
3	FILI, sic ⁸⁰ dicas in omni re: <i>Domine</i> , si tibi placitum fuerit, fiat hoc ita. Domine, si sit honor tuus, fiat in nomine tuo hoc.	1. Mons fils, je veux que vous me disiez en toutes choses: Seigneur, que ce que je vous propose se fasse si c'est vostre volonté. Si vous estes honoré en une telle chose, qu'elle se fasse pour vostre gloire.	1. Ene semea huna aldi gucian itchequi behar duçun solasa. Jauna, hauche eguiñ bedi baldiñ çure nahiaren arabera bada, Jauna, gauça hau çure loriacotz balinbada guertha bedi çure icen sainduaren ohoretan.

⁷⁷ 1833 mondi.

⁷⁸ 1833 Xpti.

⁷⁹ 1833 ad.

⁸⁰ 1833 si.

	<i>De Imitatione Christi</i> (1649)	<i>De Imitatione Christi</i> (1674)	<i>Jesus-Christoren Imitacionea</i> (1720)
4	Domine, si mihi ⁸¹ videris expedire, & vtile esse probaueris, tunc dona ⁸² mihi hoc vti ad honorem tuum.	Si vous prévoyez que ce que je vous demande me soit utile, faites-moy la grace de m'en servir pour vostre honneur.	Jauna ikhusten baduçu nic nahi dudana on dela ene arimacotz, eta progotchos ene salbamenducotz arren eguidaçu balia nadiñ çure ohoretan.
5	Sed si mihi nociuum fore cognoueris, nec animae meae salutis prodesse, aufer à me tale desiderium.	Que si vous connoissez qu'il me doit nuire, & qu'il n'est pas avantageux pour mon salut, ôtez ⁸³ ce desir & cette pensée de mon ame.	Baiñan eçagutcen baduçu caltiar nuquela, khien dieçadaçu othoi guticia hura.
6	Non enim omne desiderium à Spiritu sancto est, etiam si homini videatur rectum, & bonum. ⁸⁴	Car tout desir n'est pas inspiré du Saint Esprit, quoy qu'il paroisse bon & avantageux à l'homme.	Ecen estire Spiritu saindua ganic heldu guticia guciac, ez eta on eta probetchos diruritenac-ere.
7	Difficile est pro vero iudicare, vtrum ⁸⁵ spiritus bonus, an ⁸⁶ alienus ⁸⁷ te impellat ad desiderandum hoc vel illud: an etiam ex proprio mouearis spiritu.	Il est bien difficile de juger absolument si c'est le bon Esprit ou le mauvais, ou si ce n'est point vostre esprit propre qui vous pousse à desirer quelque chose.	Gaitz-ere da chuchenqui iaquitea ea gure desirac heldu diren Spiritu ona ganic, ala gaichtoaganic, ala estiren heldu gure Spiritu propialeitic.
8	Multi in fine sunt decepti, qui primò bono spiritu videbantur inducti.	Plusieurs ont esté trompez à la fin, qui paroisoient d'abord conduits par le bon Esprit.	Hañitz presuna azquenerat enganatuac guerthatu dire, ceñec baitciduriten hastean Spiritu onaz guidatuac cirela.
9	2. Igitur semper cum timore Dei, & cordis humilitate ⁸⁸ desiderandum est, & petendum, quidquid ⁸⁹ desiderabile menti occurrit: maximèque cum propria resignatione, mihi totum committendum est, atque dicendum:	2. Vous ⁹⁰ devez toujours m'offrir vos demandes & vos desirs avec crainte & humilité, & remettre tout à ma disposition, en renonçant entierement à vostre volonté propre. Vous devez me dire toujours:	2. Hala beraz gogorat heldu çaiçquigun gaucetatic eztugu behar deuz desiratu edo galdetu humiltasunequiñ, eta Jaincoaren beldurtasunequiñ baicen. Eta beregaiñqui orduan behartugu utci guciac Jaincoaren nahirat, eta erran behar diogu errespetu handirequiñ.

⁸¹ 1833 michi. Hemendik aurrerako *michi* pro *mibi* aldaerak ez dira jaso.

⁸² 1833 da.

⁸³ 1674 ostez.

⁸⁴ 1833 iustum rectum et bonum.

⁸⁵ 1833 an.

⁸⁶ 1833 aut.

⁸⁷ 1833 malus.

⁸⁸ 1833 humilitate cordis.

⁸⁹ 1833 quicquid.

⁹⁰ 1674 Vous (zenbakirik ez dago).

	<i>De Imitatione Christi</i> (1649)	<i>De Imitatione Christi</i> (1674)	<i>Jesus-Christoren Imitacionea</i> (1720)
10	<i>Domine</i> , tu scis, qualiter melius est ⁹¹ , fiat hoc, vel illud, sicut volueris.	Seigneur, vous sçavez ce qui est de meilleur. Que cecy se fasse ou ne se fasse pas selon l'ordre de vostre sainte volonté.	Jauna çuc daquiçu cer den hobe; eguiñ bedi hau edo hori çure nahi sainduaren arabera.
11	Da ⁹² quod vis, & quantum vis, & quando vis.	Donnez-moy ce qu'il vous plaist, en la maniere qu'il vous plaist, & au temps qu'il vous plaist.	Indaçu placer duçuna, placer duçun maneran, eta placer duçun demboran.
12	Fac mecum sicut scis, & sicut tibi magis placuerit, & maior honor tuus fuerit. ⁹³	Traitez-moy ⁹⁴ comme vous sçavez le devoir faire, selon qu'il vous sera le plus agreable, & le plus avantageux pour vostre ⁹⁵ honneur.	Eguiçu nitaz behar dela daquiçuna, çuc nahien duçuna, eta çure loriarentçat hoberen dena.
13	Pone me vbi vis, & liberè ⁹⁶ age mecum in omnibus.	Mettez-moy où vous voudrez, & disposez de moy ⁹⁷ pour toutes choses avec une entiere liberté.	Eman naçaçu nahi duçun lekhuan, eta gauça gucietan compli bedi ene baithan çure borondatea.
14	In manu tua sum, ⁹⁸ gyra, & reuersa me per circuitum.	Je suis dans vostre ⁹⁹ main divine; tournez-moy, & retournez-moy comme il vous plaira.	Çure escuan naiz, iira naçaçu, eta erabill placer duçun beçala.
15	En ego seruus tuus, paratus ad omnia: quoniam non desidero mihi viuere, sed tibi: vtinam dignè, & perfectè.	Me voicy devant vous comme vostre esclave, & je suis prest à tout, puisque je ne desire point vivre pour moy, mais pour vous, & plaise à vostre bonté que ce soit dignement & parfaitement.	Bai Jauna huna non naicen çure cerbitçaria prest gauça guciatarat, ecen estut enetçat bici nahi; baiñan bai çuretçat; ochala eguiñ baneça dignequi eta perfetqui.
16	<i>Oratio pro beneplacito Dei perficiendo.</i> ¹⁰⁰	PRIERE.	OTHOITÇA.

⁹¹ 1833 Da michi.

⁹³ 1833 fuerit tuus.

⁹⁴ 1674 moi.

⁹⁵ 1674 vôtre.

⁹⁶ 1833 liber.

⁹⁷ 1674 moi.

⁹⁸ 1833 ego sum.

⁹⁹ 1674 une.

¹⁰⁰ 1833 faciendo dei.

	<i>De Imitatione Christi</i> (1649)	<i>De Imitatione Christi</i> (1674)	<i>Jesus-Christoren Imitacionea</i> (1720)
17	3. CONCEDE mihi, benignissime IESV, ¹⁰¹ gratiam tuam, vt mecum sit, & mecum laboret, mecúmque vsque in finem perseueret.	O Jesus! dont la bonté est infinie, répandez vostre grace dans mon coeur, <i>afin qu'elle soit avec moy, qu'elle travaille avec moy, & qu'elle persevere avec moy jusqu'à la fin.</i>	3. O Jesus guçiz ona, eta mantsoa eguiçu arren çure gracia bethi <i>enequiñ içan</i> dadiñ <i>enequiñ trabailla</i> dadiñ, eta fiñeraïño bethi enequiñ egon dadiñ.
18	Da mihi semper desiderare, & velle, quod tibi magis acceptum, ¹⁰² & carius placet. Tua voluntas mea sit: & mea voluntas, tuam sequatur semper, & optimè ei concordet.	Faites-moy desirer & vouloir toûjours ce qui vous est le plus agreable, & que vous desirez plus de moy. Que vostre volonté soit la mienne, & que la mienne suive toûjours la vostre, & s'y conforme parfaitement.	Desiraraz dieçadaçu bethi guenhienic çure gogara dena çure borondeata den bethi enea; enea iarraic bequio bethiere çureari, eta enea bethi iunta bedi çurearequiñ.
19	Sit mihi vnum velle, & nolle tecum: ¹⁰³ nec aliud posse velle, aut nolle, nisi quod tu vis, & non vis. ¹⁰⁴	Que vouloir ou ne vouloir pas soit toûjours en moy de même ¹⁰⁵ qu'en vous, & que je ne puisse jamais vouloir que ce que vous voulez, ny ne vouloir pas que ce que vous ne voulez pas.	Nahi içatea, eta ez nahi içatea diren osoqui çure baithan, eta ene baithan halaco façoïñez non ezpaituquet ahalic nahi içateco çuc nahi estuçuna, edo ez nahi içateco çuc nahi estuçuna.
20	4. Da mihi omnibus mori, quae in mundo ¹⁰⁶ sunt: & propter te amare contempni, ¹⁰⁷ & nesciri in hoc seculo.	4. Faites que je meure à tout ce qui est dans le monde, que j'aime à demeurer inconnu au monde, & à estre méprisé pour l'amour de vous.	4. Arren eguiçu naicen hilla munduco gauça gucientçat, eta dudan lakhet munduaz ahantçia, eta arbuiatua içatea çure amo-reagatic.
21	Da mihi super omnia desiderata in te quiescere, & cor meum in te pacificare.	Faites que je me repose en vous plûtost qu'en tout ce que je puis jamais desirer, & que mon coeur trouve en vostre sein sa paix & sa joye.	Eguiçu arren çure baithan causi deçadan neure sosegua, eta ene bihotçac gauça gucietan baiño hobequi çure baithan causi deçan bere baquea, eta bozcarioa.

¹⁰¹ 1833 Yhesu.¹⁰² 1833 acceptum est.¹⁰³ 1833 et unum nolle tecum.¹⁰⁴ 1833 nisi quod tu vis, aut nollis.¹⁰⁵ 1674 mesme.¹⁰⁶ 1833 mondo.¹⁰⁷ 1833 contempni.

	<i>De Imitatione Christi</i> (1649)	<i>De Imitatione Christi</i> (1674)	<i>Jesus-Christoren Imitacionea</i> (1720)
22	Tu vera pax cordis, tu sola requies:	Vous seul estes nostre azyle ¹⁰⁸ & nostre port.	Çu çare eguiazqui bihotceco baquea: çu bakharric çare gure arimaco sosegua.
23	extra te omnia sunt dura, & inquietata.	Hors de vous tout est penible, tout est inquiet.	Çutaz campoan esta penaric, eta khechaduraric baicen.
24	In hac pace, in idipsum, hoc est, in te vno summo aeterno ¹⁰⁹ Bono dormiam, & requiescam. ¹¹⁰	<i>Faites-moy donc la grace de gouter ce sommeil divin, & ce repos, qui se trouve dans la souveraine paix; c'est à dire dans vous, ô mon Dieu, qui estes le Bien unique, souverain & eternel!</i>	<i>Beraz ene loa, eta pausua hartuodut baque soberano hartan, ceña baitçare çu ceroni, o ene Jaincoa ene ontasun guciz handia, eta eternala halabiz.</i>

III. eranskina. B lagina Aranbillagaren bertsioa gehiturik

Gogora dezagun bigarren lagina III. liburuko 15. kapituluak osatzen duela, latinez (Kempis 1649: 176-179), frantsesez (Lemaistre 1686: 186-189) eta euskaraz (Xurio 1720: 189-192). Oraingo honetan Aranbillagaren itzulpena (1684: 41-43) gehitu diogu azken aurreko zutabeen.

	<i>De Imitatione Christi</i> (1649)	<i>De Imitatione Christi</i> (1674)	<i>Jesu Christoren Imitacionea</i> (1684)	<i>Jesus-Christoren Imitacionea</i> (1720)
1	<i>Qualiter standum sit, ac dicendum, in omni re desiderabili.</i> CAP. XV.	CHAPITRE XV. <i>Se soumettre à Dieu en tout, & ne vouloir que ce qu'il veut.</i>	XV. GARREN CAPITVLVA. <i>Nola Iaincoari gauçagucietan erremetitu behar çaiion, eta deüssic esten Iaincoac nahi duenic baicen desideratu behar.</i>	XV. CAPITULUA. <i>Estugula nahi behar Jaincoac nahi duenic baicen.</i>
2		JESUS-CHRIST.	IESV CHRISTOC.	JESUS-CHRISTOC.

¹⁰⁸ 1674 azile.

¹⁰⁹ 1833 uno et summo et eterno.

¹¹⁰ 1833 Amen.

	<i>De Imitatione Christi</i> (1649)	<i>De Imitatione Christi</i> (1674)	<i>Jesu Christoren</i> <i>Imitacionea</i> (1684)	<i>Jesus-Christoren</i> <i>Imitacionea</i> (1720)
3	FILI, sic dicas in omni re: <i>Domine</i> , si tibi placitum fuerit, fiat hoc ita. Domine, si sit honor tuus, fiat in nomine tuo hoc.	1. Mons fils, je veux que vous me disiez en toutes choses: Seigneur, que ce que je vous propose se fasse si c'est vostre volonté. Si vous estes honoré en une telle chose, qu'elle se fasse pour vostre gloire.	Ene semea edo allaba nahi dut gauça gucietan erran dieçadaçun; Iauna, arren nic proposatcen durotçudana ¹¹¹ eguiñ bedy, çure vorondatea hala bada. Baldiñ, Iauna, gauça batean ohoratua baçare, çure gloriarentçat eguiñ dadilala.	1. Ene semea huna aldi gucian itchequi behar duçun solasa. Jauna, hauche eguiñ bedi baldiñ çure nahiaren arabera bada, Jauna, gauça hau çure loriacotz balinbada guertha bedi çure icen sainduaren ohoretan.
4	Domine, si mihi videris expedire, & vile esse probaueris, tunc dona mihi hoc vti ad honorem tuum.	Si vous prévoyez que ce que je vous demande me soit utile, faites-moy la grace de m'en servir pour vostre honneur.	Baldiñ aiticinetic ickusten baduçu nic galdeguiten darotçudana progotçusco çaitala, eguidaçu gracia hartas çure ohoretan cerbitçatceco.	Jauna ikhusten baduçu nic nahi dudana on dela ene arimacotz, eta progotchos ene salbamentucotz arren eguidaçu balia nadiñ çure ohoretan.
5	Sed si mihi nocuum fore cognoueris, nec animae meae salutı prodesse, aufer à me tale desiderium.	Que si vous connoissez qu'il me doit nuire, & qu'il n'est pas avantageux pour mon salut, ôtez ce desir & cette pensée de mon ame.	Niri calte eguiñ ahal dieçaquedala, eta ene salbamenduaren etxaia dela eçagutcen baduçu, ene arimatic halaco desira eta pensamenduac ken çatçu.	Baiñan eçagutcen baduçu caltiar nuquela, khien dieçadaçu othoi guticia hura.
6	Non enim omne desiderium à Spiritu sancto est, etiam si homini videatur rectum, & bonum.	Car tout desir n'est pas inspiré du Saint Esprit, quoy qu'il paroisse bon & avantageux à l'homme.	Ecen desira guciac estire spiritu saindua ganic heldu, guiçonari on eta çucenac iduritu arren.	Ecen estire Spiritu saindua ganic heldu guticia guciac, ez eta on eta probetchos diruritenacere.
7	Difficile est pro vero iudicare, vtrum spiritus bonus, an alienus te impellat ad desiderandum hoc vel illud: an etiam ex proprio mouearis spiritu.	Il est bien difficile de juger absolument si c'est le bon Esprit ou le mauvais, ou si ce n'est point vostre esprit propre qui vous pousse à desirer quelque chose.	Absolutuqui jüiatcea, ea spiritu ona ala gais-toa den, gauça gaitça da, edo çure spiritu propioa espada cerbeit gauçaren desiratcerat pusatcen çaituena.	Gaitz-ere da chuchenqui iaquitea ea gure desirac heldu diren Spiritu ona ganic, ala gaichtoaganic, ala estiren heldu gure Spiritu propioatic.

¹¹¹ Sic, *darotçudana*-ren ordez.

	<i>De Imitatione Christi</i> (1649)	<i>De Imitatione Christi</i> (1674)	<i>Jesu Christoren</i> <i>Imitacionea</i> (1684)	<i>Jesus-Christoren</i> <i>Imitacionea</i> (1720)
8	Multi in fine sunt decepti, qui primò bono spiritu videbantur inducti.	Plusieurs ont esté trompez à la fin, qui paroissoient d'abord conduits par le bon Esprit.	Asquenean hainitxac trumpatu ičan dire, ceñfec vste baitçuten spiritu onas guidatuac cirela.	Hañitz presuna azquenerat enganatuac guerthatu dire, ceñfec baitci-duriten hastean Spiritu onaz guidatuac cirela.
9	2. Igitur semper cum timore Dei, & cordis humilitate desiderandum est, & petendum, quidquid desiderabile menti occurrit: maximeque cum propria resignatione, mihi totum committendum est, atque dicendum:	2. Vous devez toujours m'offrir vos demandes & vos desirs avec crainte & humilité, & remettre tout à ma disposition, en renonçant entierement à vostre volonté propre. Vous devez me dire toujours:	Bethiere çure galdetce eta desirac bel-durtassun eta humilitaterequiñ offrendatu, eta ene disposicionerat erremetitu, ceure vorondate propioari vcko eguiten dioçula, behar darosquidatçu. Bethiere erran behar darotaçu;	2. Hala beraz gogorat heldu çaiçquigun gauçetarie ezтуgu behar deuz desiratu edo galdetu humiltasunequiñ, eta Jaincoaren beldurtasunequiñ baicen. Eta beregaiñqui orduan behartugu utci guciac Jaincoaren nahirat, eta erran behar diogu errespetu handirequiñ.
10	<i>Domine</i> , tu scis, qualiter melius est, fiat hoc, vel illud, sicut volueris.	Seigneur, vous sçavez ce qui est de meilleur. Que cecy se fasse ou ne se fasse pas selon l'ordre de vostre sainte volonté.	Iauna, badaquiçu hoberena ceñ den. Hau eguiñ bedy edo estadin eguiñ, çure vorondate sainduaren ordenaren araberat.	Jauna çuc daquiçu cer den hobe; eguiñ bedi hau edo hori çure nahi sainduaren araberat.
11	Da quod vis, & quantum vis, & quando vis.	Donnez-moy ce qu'il vous plaist, en la maniere qu'il vous plaist, & au temps qu'il vous plaist.	Indaçu placer duçuna, placer duçun maneran, eta placer duçun demboran.	Indaçu placer duçuna, placer duçun maneran, eta placer duçun demboran.
12	Fac mecum sicut scis, & sicut tibi magis placuerit, & maior honor tuus fuerit.	Traitez-moy comme vous sçavez le devoir faire, selon qu'il vous sera le plus agreable, & le plus avantageux pour vostre honneur.	Nola tratatu behar den baitaquiçu, eta hala eguiñ naçaçu, çuri agradagarri eta çure ohoreari guhien içaren çaiçon beçala.	Eguiçu nitaz behar dela daquiçuna, çuc nahien duçuna, eta çure loria-rentçat hoberen dena.
13	Pone me vbi vis, & liberè age mecum in omnibus.	Mettez-moy où vous voudrez, & disposez de moy pour toutes choses avec une entiere liberté.	Nahi duçun leckuan eman naçaçu, eta gauça gucietan libertate osso batequin nitas disposaçau.	Eman naçaçu nahi duçun lekhuana, eta gauça gucietan compli bedi ene baithan çure borondatea.
14	In manu tua sum, gyra, & reuersa me per circuitum.	Je suis dans vostre main divine; tournez-moy, & retournez-moy comme il vous plaira.	Çure Iaincosco escuan nais, turna naçaçu baterat eta bertcerat placer içaren çaitçun beçala.	Çure escuan naiz, iira naçaçu, eta erabill placer duçun beçala.

	<i>De Imitatione Christi</i> (1649)	<i>De Imitatione Christi</i> (1674)	<i>Jesu Christoren</i> <i>Imitacionea</i> (1684)	<i>Jesus-Christoren</i> <i>Imitacionea</i> (1720)
15	En ego seruus tuus, paratus ad omnia: quoniam non desidero mihi viuere, sed tibi: vtinam dignè, & perfectè.	Me voicy devant vous comme vostre esclave, & je suis prest à tout, puisque je ne desire point vivre pour moy, mais pour vous, & plaise à vostre bonté que ce soit digne-ment & parfaitement.	Huna non naicen çure esclaboa, gucietarar prest, neuretçat bici nahi estudanas gueros, baiñan bay çuretçat; çure ontasanari nahi daquiola dignequi eta perfetqui.	Bai Jauna huna non naicen çure cerbitçaria prest gauça gucietarar, ecen estut enetçat bici nahi; baiñan bai çuretçat; ochala eguiñ baneça dignequi eta perfetqui.
16	<i>Oratio pro beneplacito Dei perficiendo.</i>	PRIERE.	OTHOITÇA.	OTHOITÇA.
17	3. CONCEDE mihi, benignissime IESV, gratiam tuam, vt mecum sit, & mecum laboret, mecúmque vsque in finem perseueret.	O Jesus! dont la bonté est infinie, répandez vostre grace dans mon coeur, <i>afin qu'elle soit avec moy, qu'elle travaille avec moy, & qu'elle persevere avec moy jusqu'à la fin.</i>	O Iesus, ceñaren ontassuna infinitua baita ò ene bihotcerat çure gracia issurt çachu enequie[n] den, enequien travailla dadiñ, eta asqueneraiño enequien persevera deçan.	3. O Jesus guçiz ona, eta mantsoa eguiçu arren çure gracia bethi <i>enequiñ ičan</i> dadiñ <i>enequiñ travailla</i> dadiñ, eta fiñeraiño bethi enequiñ egon dadiñ.
18	Da mihi semper desiderare, & velle, quod tibi magis acceptum, & carius placet. Tua voluntas mea sit: & mea voluntas, tuam sequatur semper, & optimè ei concordet.	Faites-moy desirer & vouloir toujourns ce qui vous est le plus agreable, & que vous desirez plus de moy. Que vostre volonté soit la mienne, & que la mienne suive toujourns la vostre, & s'y conforme parfaitement.	Cer ere agrada[ga]rri baitçaitçu, eta cer ere ene ganic güehienic desiratcen baituçu hura bera desiraras dieçadaçu. Çure vorondatea den enea, eta eneac çurea deçan segui eta perfequi harequien conforme dadiñ eguin.	Desiraraz dieçadaçu bethi guehienic çure gogara dena çure borondatea den bethi enea; enea iarraic bequio bethiere çurareari, eta enea bethi iunta bedi çurearequiñ.
19	Sit mihi vnum velle, & nolle tecum: nec aliud posse velle, aut nolle, nisi quod tu vis, & non vis.	Que vouloir ou ne vouloir pas soit toujourns en moy de même qu'en vous, & que je ne puisse jamais vouloir que ce que vous voulez, ny ne vouloir pas que ce que vous ne voulez pas.	Nahi edo ez nahi içatea, den bethiere ene baithan, çure baithan beçala, eta estudan secular nahi çuc nahi duçuna baicen, eta ez nahi, çuc nahi estuçuna baicen.	Nahi içatea, eta ez nahi içatea diren osoqui çure baithan, eta ene baithan halaco façoñez non ezpaituquet ahalic nahi içateco çuc nahi estuçuna, edo ez nahi içateco çuc nahi estuçuna.
20	4. Da mihi omnibus mori, quae in mundo sunt: & propter te amare contemni, & nesciri in hoc seculo.	4. Faites que je meure à tout ce qui est dans le monde, que j'aime à demeurer inconnu au monde, & à estre méprisé pour l'amour de vous.	Arren eguiçu, naicen hilla munduco gaucentçat, eta es eçagutua munduas, hala nola çure amorea gatic mespreçatua.	4. Arren eguiçu naicen hilla munduco gauça gucientçat, eta duan lakhet munduaz ahanctia, eta arbuiatua içatea çure amoreagatic.

	<i>De Imitatione Christi</i> (1649)	<i>De Imitatione Christi</i> (1674)	<i>Jesu Christoren</i> <i>Imitacionea</i> (1684)	<i>Jesus-Christoren</i> <i>Imitacionea</i> (1720)
21	Da mihi super omnia desiderata in te quiescere, & cor meum in te pacificare.	Faites que je me repose en vous plutôt qu'en tout ce que je puis jamais désirer, & que mon coeur trouve en vostre sein sa paix & sa joye.	Eguiçu arren munduco desira ahal deçaquedan gauça gucietan baiño hobequi çure baithan errepausa nadiñ, eta ene bihotçac çure galçarrean bere baque eta boscarioa causi deçan.	Eguiçu arren çure baithan causi deçadan neure sosegua, eta ene bihotçac gauça gucietan baiño hobequi çure baithan causi deçan bere baquea, eta bozcarioa.
22	Tu vera pax cordis, tu sola requies:	Vous seul estes nostre azyle & nostre port.	Çu çare bihotxaren baquea, çu haren errepausa.	Çu çare eguiazqui bihotceco baquea: çu bakharric çare gure arimaco sosegua.
23	extra te omnia sunt dura, & inquieta.	Hors de vous tout est penible, tout est inquiet.	Çutas campoan gauça guciac gogor eta inquietac dire.	Çutaz campoan esta penaric, eta khechaduraric baicen.
24	In hac pace, in idipsum, hoc est, in te vno summo aeterno Bono dormiam, & requiescam.	<i>Faites-moy donc la grace de gouter ce sommeil divin, & ce repos, qui se trouve dans la souveraine paix; c'est à dire dans vous, ô mon Dieu, qui estes le Bien unique, souverain & eternal!</i>	Arren gustaras dieçadaçu Iaincosco lo eta errepausu baque suberanoan causitcen dena, erran nahi da, çure baithan, ene Iaincoa, ontassun backar, suberano eta eternala.	<i>Beraz ene loa, eta pausua hartuco dut baque soberano hartan, ceiña baitçare çu ceroni, o ene Jaincoa ene ontasun guciz handia, eta eternala halabiz.</i>

Real and Presumed Categories: A Formal Approach¹

Juan Uriagereka*
UMD

Voicing alternation rate (%) is shown in Figure 4 for both languages as a function of the position of the segment in the word. For both languages, voicing alternation occurs more in word-final than in initial or medial positions. GLM results for French confirm that voicing alternation tends to occur less word-initially [log odds ratio = -0.405476 , $|Z| = 22.436$, $p < 0.001$] or word-medially [log odds ratio = -0.512482 , $|Z| = 30.703$, $p < 0.001$] compared to the word-final position. A similar tendency is observed in GLM results for Spanish. Voicing alternation tends to happen less word-initially [log odds ratio = -1.0264385 , $|Z| = 50.384$, $p < 0.001$] or word-medially [log odds ratio = -1.3888030 , $|Z| = 69.767$, $p < 0.001$] than in word-final position.




Figure 4

Voicing alternation rates of canonically voiceless (/ptk/, top panel) and voiced (/bdg/, bottom panel) stops as a function of position of the phoneme in the word in French (grey) and in Spanish (dark grey)

5.5. Ranking of the factors (results from Random Forest models)

Results of the random forest models are shown in this section. We first present the obtained accuracy rate, then the factors that contribute the most to each model via the figures illustrating the permutation importances.

5.5.1. Voicing alternation in French

The accuracy of the prediction on voicing alternation of stops in French is ~68%. The variables examined are ranked by importance in Figure 5, according to the random forest model. The decrease in accuracy score is shown on the x-axis and the relevant factors are listed on the y-axis according to their contribution in the model. If a factor is dropped, the relevant impact on the accuracy score will decrease by the number indicated on the x-axis.

For French, Figure 5 indicates that the right-hand (following) context is shown to be the factor that contributes the most to the prediction of voicing alternation, followed by phone duration, the canonical voicing of the stop (/ptk/ vs /bdg/), the duration of the previous phone, and the left-hand context.

POS is the factor that contributes the least. By dropping POS, the accuracy of the model is minimally impacted.




Figure 5
Results of the random forest model for French




Figure 6
Results of the random forest model for Spanish

5.5.2. *Voicing alternation in Spanish*

The accuracy of the prediction on voicing alternation of stops in Spanish is over 70% ($\approx 71\%$). The ranking of the contributing factors is illustrated in Figure 6 according to the random forest model. Contrary to what is observed for French stops, the canonical voicing nature of the stop (/ptk/ vs /bdg/) is shown to be the factor that contributes the most to the prediction of voicing alternation in Spanish, followed by phone duration, left-hand (preceding) context, the duration of the previous phone and the right-hand (following) context.

As for French, part-of-speech again plays a minor role in this analysis.

6. Conclusion

This study investigated voicing alternation in two Romance languages – French and Spanish. We focused our analyses on canonically voiceless stops /ptk/ and canonically voiced stops /bdg/. Different variation factors were investigated to examine the link between these factors and patterns of stop voicing alternation in French and Spanish. About 400 hours of continuous speech in each of French and Spanish were used. The data was automatically annotated using forced alignment with systematic voicing variants (i.e. canonically voiceless /ptk/ can either be aligned as voiceless [ptk] or voiced [bdg]; canonically voiced /bdg/ can either be aligned as voiced [bdg] or voiceless [ptk]). The approach using forced alignment with voicing variants allows us to investigate the voicing of canonically voiceless segments (lenition) and the devoicing of canonically voiced segments (fortition). In addition to variation factors attested in the literature on Romance languages (position in the word, nature of the surrounding segments, duration of the segment and its neighboring contexts), we also considered speech rate, local speech rate, and part of speech.

We ranked the contribution of these factors to stop voicing alternation in each language by applying random forest paradigms to the dataset. Random forest models were implemented for the two languages separately. Results show that, although French and Spanish have similar rates of stop voicing alternation, the two languages pattern differently with regards to the contribution of the individual factors. Based on the ranking proposed by random forest models, the contribution of the voicing nature of the stops appears to be very different in Spanish and in French. The Random Forest model predicts the voicing alternation in French first according to contextual and acoustic factors; the voicing nature of the stops (voiceless stops *vs* voiced stops) comes third only. Whereas for Spanish, the factor that contributes the most to the model is the voicing nature of the stops. Other than the voicing nature of the stops, immediate context, as well as duration of the stops were ranked as most relevant for both languages, but do not tend to contribute equally to the models. Interestingly, even though both Romance languages have a voiced-voiceless phonological contrast in stops, the results suggest different patterns of stop voicing alternations.

References

- Adda-Decker, Martine & Lori Lamel. 1999. Pronunciation variants across system configuration, language and speaking style. *Speech Communication* 29(2-4). 83-98.
- Adda-Decker, Martine & Lori Lamel. 2018. Discovering speech reductions across speaking styles and languages. In Francesco Cangemi, Meghan Clayards, Oliver Niebuhr, Barbara Schuppler, Margaret Zellers. (eds.) *Rethinking Reduction: Interdisciplinary perspectives on conditions, mechanisms, and domains for phonetic variation*, 101-128. Berlin & Boston: Mouton De Gruyter.
- Broś, Karolina, Marzena Żygis, Adam Sikorski & Jan Wołłejko. 2021. Phonological contrasts and gradient effects in ongoing lenition in the Spanish of Gran Canaria. *Phonology* 38. 1-40.
- Bybee, Joan, & Shelece Easterday. 2019. Consonant strengthening: A crosslinguistic survey and articulatory proposal. *Linguistic Typology* 23(2). 263-302.
- Chitoran, Ioana, José Ignacio Hualde, Oana Niculescu. 2016. Gestural undershoot and gestural intrusion – from perceptual errors to historical sound change. In Gilles Adda, Verginica Barbu-Mititelu, Joseph Mariani, Dan Tufiş & Ioana Vasilescu (eds.), *2nd ERRARE Workshop: Errors by humans and machines in multimedia, multimodal, multilingual data processing, Sinaia, Romania, 11-13 September 2015*, 123-316. Bucharest: Editura Academiei Române.
- Chitoran, Ioana, Ioana Vasilescu, Lori Lamel & Bianca Vieru. 2018. Connected speech in Romanian: Exploring sound change through an ASR system. In Daniel Recasens & Fernando Sánchez Miret (eds.) *Production and perception mechanisms of sound change*, 129-143. München: Lincom Europa.
- Cohen Priva, Uriel & Emily Gleason. 2020. The causal structure of lenition: A case for the causal precedence of durational shortening. *Language* 96. 413-443.
- de Carvalho, Joaquim Brandão, Tobias Scheer & Philippe Ségéral (eds.). 2008. *Lenition and fortition (Studies in Generative Grammar 99)*. Berlin & New York: De Gruyter Mouton.
- Hallé, Pierre & Martine Adda-Decker. 2007. Voicing assimilation in journalistic speech. In Jürgen Trouvain (ed.), *Proceedings of the 16th International Congress of Phonetic Sciences ICPhS XVI, 6-10 August 2007, Saarbrücken, Germany*, 493-496. Saarbrücken: Universität des Saarlandes.
- Gauvain, Jean-Luc, Lori Lamel & Gilles Adda. 2002. The LIMSI broadcast news transcription system. *Speech communication* 37(1-2). 89-108.
- Gauvain, Jean-Luc, Gilles Adda, Martine Adda-Decker, Alexandre Allauzen, Véronique Gendner, Lori Lamel & Holger Schwenk. 2005. Where are we in transcribing French broadcast news? In *Proceedings of Interspeech 2005*. 1665-1668. <https://doi.org/10.21437/Interspeech.2005-544>.
- Gurevich, Naomi. 2013. *Lenition and contrast: the functional consequences of certain phonetically conditioned sound changes*. New York: Routledge.
- Honeybone, Patrick. 2008. Lenition, weakening and consonantal strength: tracing concepts through the history of phonology. *Lenition and fortition* 99. 9-92.
- Hualde, José Ignacio & Marianna Nadeu. 2011. Lenition and phonemic overlap in Rome Italian. *Phonetica* 68. 215-242.
- Hualde, José Ignacio & Pilar Prieto. 2014. Lenition of intervocalic alveolar fricatives in Catalan and Spanish. *Phonetica* 71. 109-127.

- Hutin, Mathilde, Yaru Wu, Adèle Jatteau, Ioana Vasilescu, Lori Lamel & Martine Adda-Decker. 2021. Synchronic Fortition in Five Romance Languages? A Large Corpus-Based Study of Word-Initial Devoicing. In *Proceedings of Interspeech 2021*. 996-1000. <https://doi.org/10.21437/Interspeech.2021-939>.
- Jatteau, Adèle, Ioana Vasilescu, Lori Lamel & Martine Adda-Decker. 2019. Final devoicing of fricatives in French: Studying variation in large scale corpora with automatic alignment. In *Proceedings of the 19th International Congress of Phonetic Sciences*. 295-299. <https://hal.science/hal-02270089> (28/12/2023).
- Katz, Jonah. 2016. Lenition, perception and neutralisation. *Phonology* 33. 43-85.
- Lamel, Lori, Sandrine Courcinous, Julien Despres, Jean-Luc Gauvain, Yvan Josse, Kevin Kilgour, Florian Kraft, Viet Bac Le, Hermann Ney, Markus Nußbaum-Thom, Ilya Oparin, Tim Schlippe, Ralf Schlüter, Tanja Schultz, Thiago Fraga da Silva, Sebastian Stüker, Martin Sundermeyer, Bianca Vieru, Ngoc Thang Vu, Alexander Waibel & Cécile Woehrling. 2011. Speech recognition for machine translation in Quaero. In *Proceedings of the 8th International Workshop on Spoken Language Translation: Evaluation Campaign*. 121-128.
- Lavoie, Lisa M. 2001. *Consonant strength: Phonological patterns and phonetic manifestations*. New York: Routledge.
- McCullagh, Peter. 2019. *Generalized linear models*. New York: Routledge.
- Meunier, Christine & Robert Espesser. 2011. Vowel reduction in conversational speech in French: The role of lexical factors. *Journal of Phonetics* 39(3). 271-278.
- Niebuhr, Oliver & Christine Meunier. 2011. The phonetic manifestation of French /s#/ and /ʃs/ sequences in different vowel contexts: On the occurrence and the domain of sibilant assimilation. *Phonetica* 68(3). 133-160.
- Ohala, John J. 1989. Sound change is drawn from a pool of synchronic variation. In Leiv E. Breivik & Ernst H. Jahr (eds.), *Language change: Contributions to the study of its causes*, 173-198. Berlin & Boston: Mouton de Gruyter. <https://doi.org/10.1515/9783110853063.173>.
- Popescu, Anisia, Mathilde Hutin, Ioana Vasilescu, Lori Lamel & Martine Adda-Decker. 2023. Stop devoicing and place of articulation: a cross-linguistic study using large-scale corpora. In Radek Skarnitzl & Jan Volín (eds.), *Proceedings of the 20th International Congress of Phonetic Sciences, Prague 2023 (ICPhS 2023)*, 3186-3190. Prague: Guarant International. <https://guarant.cz/icphs2023/429.pdf> (05/01/2024).
- Posner, Rebecca. 1996. *The Romance languages*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Qi, Peng, Yuhao Zhang, Yuhui Zhang, Jason Bolton & Christopher D. Manning. 2020. Stanza: A Python natural language processing toolkit for many human languages. *arXiv preprint arXiv:2003.07082*.
- Ryant, Neville & Mark Liberman. 2016. Large-scale analysis of Spanish and /s/-lenition using audiobooks. In *Proceedings of Meetings on Acoustics 22ICA* 28(1). p. 060005. <https://doi.org/10.1121/2.0000500>.
- Ségéral, Philippe & Tobias Scheer. 2008. The Coda Mirror, stress and positional parameters. In de Joaquim Brandão Carvalho, Tobias Scheer & Philippe Ségéral (eds.), *Lenition and fortition (Studies in Generative Grammar 99)*, 483-518. Berlin & New York: De Gruyter Mouton.
- Snoeren, Natalie D., Pierre A. Hallé & Juan Segui. 2006. A voice for the voiceless: Production and perception of assimilated stops in French. *Journal of Phonetics* 34(2). 241-268.

- Van Engen, Kristin J., Melissa Baese-Berk, Baker, Rachel E., Arim Choi, Midam Kim & Ann R. Bradlow. 2010. The Wildcat corpus of native- and foreign-accented English: Communicative efficiency across conversational dyads with varying language alignment profiles. *Language and Speech* 53. 510-540. <https://doi.org/doi:10.1177/0023830910372495>.
- Vasilescu, Ioana, Bianca Vieru & Lori Lamel. 2014. Exploring pronunciation variants for Romanian speech-to-text transcription. In *Proceedings of the 4th Workshop on Spoken Language Technologies for Under-Resourced Languages (SLTU 2014)*. 161-168.
- Vasilescu, Ioana, Nidia Hernandez, Bianca Vieru & Lori Lamel. 2018. Exploring Temporal Reduction in Dialectal Spanish: A Large-scale Study of Lenition of Voiced Stops and Coda-s. In *Proceedings of Interspeech 2018*. 2728-2732. <https://doi.org/10.21437/Interspeech.2018-1256>.
- Vasilescu, Ioana, Yaru Wu, Adèle Jatteau, Martine Adda-Decker & Lori Lamel. 2020. Alternances de voisement et processus de lénition et de fortition : une étude automatisée de grands corpus en cinq langues romanes. *Revue TAL (Traitement automatique des langues)* 61. 11-36. <https://hal.science/hal-03040177> (28/12/2023).
- von Wartburg, Walter. 1950. *Die Ausgliederung der romanischen Sprachräume*. Bern: Francke
- Wu, Yaru, Mathilde Hutin, Ioana Vasilescu, Lori Lamel & Martine Adda-Decker. 2022. Extracting Linguistic Knowledge from Speech: A Study of Stop Realization in 5 Romance Languages. In *Proceedings of the Thirteenth Language Resources and Evaluation Conference, Marseille, France*. 3257-3263. <https://aclanthology.org/2022.lrec-1.348/> (28/12/2023).

Burundako euskararen fonologia egitura *The phonological structure of Burunda Basque*

Koldo Zuazo*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: The Burunda region is located in western Navarre, on the border between the territories of Alava and Gipuzkoa. The Burunda speech is well known to be influenced by this border location, but it also bears its own distinctive features. In this article I describe the phonological structure of this local variety to honor Professor Jose Ignacio Hualde, who has done so much and such a good work in the field of phonology.

KEYWORDS: Basque dialectology; phonology; Burunda; Sakana.

LABURPENA: *Burunda eskualdea Nafarroako mendebalean dago, Arabaren eta Gipuzkoaren mugan. Hango hizkeran ere ezagun da kokagune horren eragina, baina badira, gainera, bertako bereizgarriak. Hizkera horren fonologia egitura erakutsiko dut, fonologiaren alor horretan hainbeste lan, eta hain ona, egin duen Jose Ignacio Hualde irakaslearen omenez.*

HITZ GAKOAK: *euskal dialektologia; fonologia; Burunda; Sakana.*

Jose Inazio Hualde irakasle eta adiskidearen omenez, Burundako hizkeraren fonologia egitura hartu dut hizpide. Euskal hizkeren artean fonologia aberatsenetakoa da Sakanakoa, eta, jakina, horixe izan da hizkera hori aukeratzeko arrazoia. Hain zuzen, Hualdek berak ere izan du hizkera hori aztergai (Hualde 1990, 1991, 1996).

Nafarroako mendebalean dago Sakana eskualdea, Gipuzkoaren eta Arabaren mugan. Eskualdearen ekialdean, Uhartea Arakildik sortaldera, galduta dago euskalkia. Burunda dago eskualdearen mendebalean, sei herriz osatuta; horietako bakarrean dirau euskalkiak bizirik: Urdiainen. Eskualdearen erdigunean bost herri dira: Etxarri Aranaz, Ergoiena, Arbizu, Lakuntza eta Arruazu.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Koldo Zuazo. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila - Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitatean ibilbidea, 5 (01006 Gasteiz). – koldo.zuazo@gmail.com

Nola aipatu / How to cite: Zuazo, Koldo (2023). «Burundako euskararen fonologia egitura», *ASJU*, 57 (1-2), 991-998. (<https://doi.org/10.1387/asju.25979>).

Jasoa/Received: 2022-06-30; Onartua/Accepted: 2022-10-23.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomerziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago

Sakanako hizkeren artean bada batasuna, baina Burundakoak badu nortasuna. Alde batetik, mendebaletik —Arabatik—, Gipuzkoatik eta Nafarroatik elikatu da. Bestetik, bertan sortu dira hainbat gauza berri eta, aldi berean, gauza zaharrak ere gorde dira. Burundako hizkera horixe hartu dut neure lanerako oinarri, baina Sakanako erdigunea ere sarri agertuko da harekin batera.

Esan dezadan hiru egonaldi egin ditudala Burundan: 1990ean lehena; orduko emaitzak (Zuazo 1995) txostenean aurkeztu nituen; 2007-2010 bitartean bigarrena; horren emaitza (Zuazo 2010) liburuan aurkeztu nuen; 2018-2021 bitartean hirugarrena; (Zuazo 2022) hiztegia agertu dut.

1. Bokalak

Gertakari hauek ageri dira Burundako bokalen sailean:

1. Nafarroako euskararen ezaugarri diren aferesiak (*kusi* ‘ikusi’) eta sinkopak (*atra* ‘atera’) ez dira ohikoak Sakanan. Aldiz, *-i* galtzeko joera dago aditz partizipioetan Sakana guztian. Urdiaingoak dira adibideak: *ekar ber dik* ‘ekarri behar dik’; *etor dok* ‘etorri duk’; *ibil dia* ‘ibili dira’; *ibil diai* ‘ibili [eduki] ditek’; *ikas genduken* ‘ikasi genian’; *ikus dot* ‘ikusi dut’; *itxas dot* ‘itsatsi dut’; *yakus zuatziken* ‘erakutsi zizkidaan’; *yos jitunu* ‘erosi ditinagu’. Arauzkoa da geroaldian: *ekarko* ‘ekarriko’; *etorko* ‘etorriko’; *ibilko* ‘ibiliko’; *ikusko* ‘ikusiko’.

2. Nafarroa gehienez, eta Hego Euskal Herriko eremu zabalean bezala, Sakanan ere gertatzen da *a > e* asimilazioa, aurreko silaban *i* eta *u* bokalak daudenean. Honetan bada alde Burundatik Sakanako erdigunera. Erdiguneko hizkeretan indartsua da asimilazioa; Burundan, gehienbat, *a* artikulua denean gertatzen da, horren ondoren kontsonanteren bat dagoenean: *txoiek* ‘txoriak’; *umiek* ‘umeak’; *aitzien* ‘haitzean’; *baitien* ‘batean’. Artikuluaren ondoren kontsonanterik ez bada, ez dago asimilaziorik: *baserria* (ez **baserrie*); *eguna* (ez **egune*); *sua* (ez **sue*). Hain zuzen, Jose Ignazio Hualde izan zen debeku honetaz konturatzen lehena (Hualde 1990), Arbizuko hizkera aztergai zuela. Geroago, Jose Luis Erdoziak (2001: 97) Sakanako beste hizkera batzuetan ere aurkitu zuen gertakari bera: Dorraon, Unanun eta Arruazun.

Burundan, artikulua ez denean, hitz jakin batzuetan baizik ez da gertatzen *a > e* asimilazioa: *bier* ‘bihar’; *biets* ‘behats, mehats [bakan]’; *iekin* ‘irakin’; *ikeatu* (eta *ikatu*) ‘ikaratu’; *maietz* (eta *maiatz*); *miezkatu* ‘miazkatu’; *siets* ‘sirats [zingira]’. Hitanoko 1. pertsonako adizki batzuetan ere gertatzen da: *diet* ‘diat’; *jitwet* ‘jituat [ditiat]’; *nuek/nuen* eta *niywek/niywen* ‘noak/noan’; *jakiēt* ‘jakiat [zakiat]’. Baita *-txo* atzizki txikigarria *bat* zenbatzailearekin elkartzen denean ere: *katutxwet* ‘katutxo bat’; *txikitxwet* ‘txikitxo bat’.

3. Erdialdeko euskararen bezala, Burundan ere *e > a* egiteko joera dago dardarkari azkarraren aurrean: *asarre* ‘haserre’; *baztar* ‘bazer’; *egwardi* ‘eguerdi’; *ifarnu* ‘infernu’; *izardi* ‘izerdi’; *iztar* ‘izter’; *maiztar* ‘maizter’; *muskar* ‘musker’; *pitxarreko* ‘pitxer’; *uzkar* ‘uzker’. Sakanako erdigunean ez dauka indarrik: *asarre*, *baztar* badira; leku batzuetan *ear* ‘eder’ eta *egwardi* ere bai.

4. Asimilazio/disimilazio gertakari hauek ageri dira Burundan: *agi* (< *agiri*) ‘ageri’; *sinistatu* ‘sinestatu [sinetsi]’; *apiki* ‘apika’; *bekela/bezela* ‘bezala’; *emen* ‘omen’;

erleju ‘erloju’; *bultzurrun* ‘giltzurrun’; *ikutu* ‘ukitu’; *irriti* ‘urruti’; *piliskorrien* ‘biluzgorrian’; *zuldur* ‘zuldar’; *zuztur* ‘zuztar’.

5. Hiatoetan berezi agertzen da Sakana. Bost arau nagusi ikusiko ditugu:

5.1. /e + a, e, o/ > i egiten da Sakana osoan. Urdiainen, esate baterako: *etxia* ‘etxe hau’; *astiontan* ‘aste honetan’; *umiorrek* ‘ume horrek’; *bior* ‘behor’; *lior* ‘lehor’.

Nabarmentzekoa da bokal horien arteko kontsonanteren bat galtzen denean ere gauzatzen dela araua: *abiastu* ‘aberastu’; *biandu* ‘berandu’; *biar* (< *berar*) ‘belar’; *etxia* ‘etxera’; *urtio* ‘urtero’. Sakanatik kanpo, Otxandion (Bizkaia) baizik ez dut aurkitu gertakari hau (Zuazo 2017: 115-116).

Hitz hasieran ere gauzatzen da: *yain* ‘eragin/erein’; *yainun* (< *ereinegun*) ‘herenegun’; *yaizi* (< *ereitzi*) ‘iritzi’; *yakusi* ‘erakutsi’; *yan* ‘edan/eroan [eraman]’; *yanzi* ‘erantzi’; *yanzun* ‘erantzun’; *yasi* ‘erausi [hizketaldi zaratatsua, zalaparta]’; *yaztun* ‘eraztun’; *yon* ‘egon’; *yosi* ‘egosi/erosi’; *yozein* ‘edozein’; *yon* ‘egun’; *yozki* ‘eguzki’. Erdoziaren (2001: 61) esanetan, Etxarri Aranatzen, Lizarragan, Unanun eta Lakuntzan ere bada gertakari hau. Sakanatik kanpo, Larraungo hego-ekialdean, Basaburuan eta Imozko alderdi batzuetan aurkitu du Amaia Apalauzak (2012: 259-261). Zuberoan ere bada. Barkoxen, esate baterako, adibide hauek bildu nituen 2022ko udazkenean: *iosi* ‘erosi’; *iaiki* ‘eraiki’; *iaitsi* ‘eraitsi’; *iaaman* ‘eraman’; *iauntsi* ‘erauntsi [ari izan]’; *ioi* ‘erori’.

5.2. /o + a, e, o/ > u egiten da Sakana osoan: *goxuena* ‘goxoena’; *mutikwoi* ‘mutiko hori’ Urdiainen. Bokal horien arteko kontsonanteren bat galdu denean ere gauzatzen da: *basuwa* ‘basora’; *kanpuwa* ‘kanpora’; *gwakun* ‘goraka’.

5.3. /i + a, e, o/ artean *-y-* epentesia sartu izan da, baina gaur egun arau honek Sakanako erdigunean baizik ez dirau bizirik. Burundan ere bazen xx. mendearen erdialdean (Ondarra 1965; Izagirre 1967), baina xxi. mendeko bigarren hamarkadan aztarna gutxi batzuk baizik ez ditut bildu Urdiainen. Alde batetik, *iyo* ‘igo’, *liyo* ‘liho’ esaten dira. Bestetik, [iw] sekuentzia desegiteko sartzten da *-y-* epentetikoa: *nerbiywa* ‘nerbioa’; *manifestaziywa* ‘manifestazioa’; *oliywa* ‘olioa’; *seriywa* ‘serioa’; *ganbiywek* ‘kanbioak’; *juiziywen* ‘juizioan [epaiketari]’; *radiywen* ‘radioan [irratian]’; *telebisiywen* ‘telebisioan [telebistan]’. Izenordainetan ere ageri da: *iywere* ‘inor ere’; *iywerk* ‘inork’; *iywerkin* ‘inorekin’; *iywendako* ‘inorendako’; *iyn* ‘inon’; *iyundik* ‘inondik’; *iywa* ‘inora’.

Bizkaiko eta Gipuzkoako hizkera askotan sartzten da epentesi hori. Nafarroan, berriz, hizkera gutxi batzuetan baizik ez: Sakanako erdigunetik kanpo, Aranon (Zubiri & Perurena 1998: 40), Bortzirietan eta Sunbillan. Malerrekako iparraldean (Doneztebe, Donamaria) eta Bertizaranan ere entzuten omen da tarteka (Zelaieta 2008: 148).

5.4. /u + a, e, o/ artean *-b-* epentesia sartu izan da, baina arau honek ere gaur egun Sakanako erdigunean baizik ez dirau bizirik. Nabarmentzekoa da, gainera, Arbizun, Lakuntzan eta Arruazun daukan ahoskera gogorra, Jose Ignacio Hualdek berak nabarmendu zuen bezala (Hualde 1996: 50-53). 2007-2010 garaian indartsu ikusi nuen Urdiainen 80 urte ingurutik gorako hiztunen jardunean. 2018-2021eko egonaldian bi hitz hauetan baizik ez dut entzun: *subei* ‘suari’; *gaubien* ‘gauean’.

Harrigarria da epentesi hori erabiltzeak denbora gutxian egin duen atzerakada. xix. mendearen erdialdean oso eremu zabalean jaso zuen Bonapartek ([-1868]). Gaur egun, Sakanako erdigunetik kanpora, Gipuzkoako Beterri eskualdean eta Uro-

laldeko leku gutxi batzuetan (Urrestilla...) baizik ez da erabiltzen; azken honetan adin handiko hiztunen jardunean.

5.5. Mendebaleko euskararen bezala, $a + a > (-ea) > -ia$ egiten da Burundan: *alabiá* ‘alaba’; *amenaziá* ‘amenaza [mehatxua]’; *arropiá* ‘arropa’; *pomadiá* ‘pomada hau’; *errekioi* ‘erreka hori’; *kamisetiōnek* ‘kamiseta honek’; *problemīonekin* ‘problema honekin’.

Mendebalean bezala, era berean, berez *-e* amaiera duten hitz batzuk *-a* amaierakotzat hartzen dira Burundan: *andra* ‘andre’; *antxuma* ‘antxume’; *ardila* ‘artile’; *bara* ‘bare’; *basurda* ‘basurde’; *batza* ‘baratze’; *bela* ‘bele’; *erguneral/ergunara* ‘erbinude’; *fara* ‘joare’; *gata* ‘kate’; *giltza* ‘iltze’; *golda* ‘golde’; *kutza* ‘gurutze’; *mihisa* ‘mihise’; *ota* ‘ote [landarea]’; *pika* ‘bike’; *sara* ‘sare’; *txistara* ‘zizare’; *udara* ‘udare’; *zuma* ‘zume’. Arauzkoa da *-kume* > *-kuma* egitea: *astokuma* ‘astakume’; *basurdakuma* ‘basurdekume’; *katakuma* ‘katakume’; *txakurkuma* ‘txakurkume’. Baita *-(g)une* > *-(g)una* egitea ere: *beirakuna* ‘begirakune [begirada]’; *biurguna* ‘bihurgune’; *utsuna* ‘hutsune’.

6. Diptongoen sailean gertakari asko daude aipatzeko:

6.1. Ohikoak dira goranzko diptongoak Sakana osoan. Urdiaingoak dira adibideak: *mutikworrek* ‘mutiko horrek’; *egwaiziōnekin* ‘hego haize honekin’; *gōkwek* ‘gerokoak’; *gwaikwen* ‘oraikoan [oraingoan]’. Arauzkoak dira adlatiboan: *mendiá* ‘mendira’; *erríá* ‘herrira’; *estudiátziá* ‘estudiatzera’; *baswá* ‘basora’; *kanpwá* ‘kanpora’.

6.2. *-ei-* diptongoa *-ai-* egiteko joera dago Burundan: *alain* ‘ahalegin’; *araitz* (< *areitz*) ‘haritz’; *axai* ‘azeri’; *eztai* ‘eztei’; *gainu* ‘keinu’; *gáio* ‘gehiago’ (eta *gaiái* ‘gehiegi’, *gaien* ‘gehien’); *iraikan* ‘igerika’; *kaixa* (< *keixa*) ‘gerezi’; *laio* ‘leiho’; *laitu* ‘leitu [irakurri]’; *oraitz* (< *oreitz*) ‘oritz’; *yain* ‘erein’; *yaitzi* (< *ereitzi*) ‘iritzi’. Era berean, *-tegi* > *-tai* egiten da: *alondai* ‘alondegi’; *artai* ‘artegi’; *oilatai* ‘oilategi’; *usotai* ‘usategi’. Baita *-egi* > *-ai* ere: *altuai* ‘altuegi’; *aundiái* ‘handiegi’; *gaiái* ‘gehiegi’; *gizenai* ‘gizenegi’; *luzíai* ‘luzeegi’.

Burundatik kanpo, Bizkaiko sartaldeko hizkera batzuetan aurkitu dut gertakari hau (Zuazo 2017: 74-75).

Bestalde, diptongo gabeko aldaera hauek esaten dira Burundan: *bintzat* ‘behintzat’; *leze* ‘leize’; *zizilu* ‘zizeilu’. Aldiz, *-ei-* agertzen da *azkein* ‘azken’ hitzean.

6.3. *-ai-* > *-ei-* egiteko joera handia dago Sakanako erdigunean. Burundan ez da horren indartsua, baina han ere badira adibideak: *eskeini* ‘eskaini’; *ezpein* ‘ezpain’; *zerbeit* ‘zerbait’. Era berean, *baiko* ‘gabeko’ > *beiko* egiten da: *burubeiko* ‘burugabeko’; *etxurabeiko* ‘itxuragabeko’. Sarri egiten da *-gaiti* ‘-gaitik’ > *-geiti*: *zengeiti* ‘zerengatik’.

Hitz gutxi batzuetan *-ai-* > *-i-* egin da Burundan: *albitai* ‘albeitari’; *apiz* ‘apaiz’ (eta *apiztxori* ‘buztanikara’); *gaztina* ‘gaztaina’; *lirin* ‘lirain’; *Urdin* ‘Urdiain’. Alderantziz, *-ai-* diptongoa agertzen da *jaraio* ‘jario’ eta *laister* ‘laster’ hitzetan.

6.4. *-au-* diptongoa *-a-* gertatu da zenbait hitzetan: *alki* ‘aulki’; *jangoiko* ‘jaungoiko’; *lanbat* (< *launbat*) ‘larunbat’; *larogei* ‘laurogei’; *zade* ‘zaude’.

Eduki-ren adizkietan *-u-* bilakatu da Burunda gehiengan; Iturmendin eta Bakai-kun ez bestean: *dukat* ‘daukat’; *duka* ‘dauka’; *dukagu/duku* ‘daukagu’; *dukai* ‘daukate’; *zukan* ‘zeukan’. Hitanoan: *jukat/jukanat* ‘zaukaat/zaukanat’; *jukak/jukan* ‘zaukak/zaukan’; *jukagujukanu* ‘zaukaagu/zaukanagu’. Beste hitz hauetan ere *-u-* eman du: *baru* ‘barau’; *basurda* (< *basaurda*) ‘basurde’; *irulkan* ‘iraulka’; *yutsin* ‘erauntsi’; *ziun* ‘ziraun’.

Hitz bi hauetan *-o-* agertzen da: *arrantza* ‘arrautza’; *intxor* ‘intxaur’.

Hitz gutxi batzuetan, azkenik, *-a-* > *-au-* gertatu da: *aundi* ‘handi’; *auntzu* ‘antzu’.

6.5. *-eu-* diptongoa *-au-* egiteko joera dago Sakanako erdigunean. Urdiainen (Burunda) hitz hauetan gertatzen da: *autsi* ‘eutsi’; *autzi* (< *eutzi*) ‘utzi’; *aurri* ‘neurri’; *yauli* ‘euli’; *yauri* ‘euri’.

Sakanatik kanpo, Bizkaiko sartaldean gertatzen da (Zuazo 2017: 73-75). Iñaki Caminok (1997: 315-316) Aezkoan ere aurkitu zuen, baina ez zuen zehaztu araua zen ala hitz jakin batzuetan baizik gertatzen ez ote zen.

6.6. Goranzko diptongoetan *-we-* > *-e-* egin da hitz hauetan: *zek* ‘zuek’ (eta *zen* ‘zuen’, *zekin* ‘zuekin’, *zendako* ‘zuendako’); *den* ‘duen’; *nen* ‘nuen’; *zen* ‘zuen/zeduen’; *genden* ‘geunden’; *pañelo* (gazt. *pañuelo*) ‘pañelu’.

Beste hauetan *-ĭe-* desegin da: *balinte* ‘baliente’; *pazenzia* ‘pazientzia’.

6.7. Mendebalean bezala (Zuazo 2017: 26), *-un* amaiera gertatu da Burundan hitz hauetan: *asun*, *biun* ‘bigun’, *lurrun* eta *mun* ‘muin’.

7. Bokalen saila ixteko, Burundako aldaera batzuk erakutsiko ditut: *alkar* ‘elkar’; *bildur* ‘beldur’; *burruka* ‘borroka’; *eskuera* ‘euskara’ (eta *eskwaldun* ‘euskaldun’); *etzin* ‘etzan’.

Baita bokal epentetikoa erantsi den hitz hauek ere: *arramaio* (gazt. *armario*) ‘armairu’; *errenai* ‘ernari’; *esene* ‘esne’ (eta *esenatu* ‘esnatu [iratzarri]’); *sarrena* ‘sarna [hazteria]’.

2. Kontsonanteak

Sail honetan ere badira nabarmendu beharreko gertakariak.

1. Asimilazio bustidura ezak bereizten du Burundako hizkera inguruko gainetarakoetatik. Euskal hitzetan ez da ageri: *gaineti* ‘gainetik’; *laino*; *oilo* (eta *oilaki*, *oilanda*, *oilar*, *oilasko*, *oilategi*); *saltzaile*; *zaila*.

Erdararik aspaldi hartutako hitzetan ere sailhestu egin da bustidura: *ailatu* ‘ailegatu’; *ainaitu* ‘ainaditu [gehitu]’; *bainu*; *dainu* ‘kalte’; *goinata* eta *goinatu*; *kainu* ‘hodi/kanoi’; *kutxilo* ‘ganibet’; *ladrilu* ‘adreilu’; *parmila*; *pastila* ‘pastilla, pilula’; *seinale*; *sila* ‘silla [aulki]’; *teila* (eta *teilatu*).

Gaztelaniatik hartutako hitz berriak dira salbuespena: *bonbilla*, *kuadrilla*, *pasillo*, *tortilla*...

2. Hitz hasieran erdialdeko [x] ahoskera nagusitu da Sakana osoan. Urdiainen entzun ditut hauek: [x]abe ‘jabe’; [x]agi ‘jaiki’; [x]ai ‘jai’; [x]ainko ‘jainko’; [x]aio ‘jaio’; [x]aitxi ‘jaitsi/jetzi’; [x]akin ‘jakin’; [x]an ‘jan’; [x]antzi ‘jantzi’; [x]araio ‘jario’; [x]arein ‘jaregin [askatu]’; [x]arri ‘jarri’; [x]aso ‘jaso’; [x]ator ‘jator’; [x]aun ‘jaun’ (eta [x]angoiko ‘jaungoiko’); [x]o ‘jo’; [x]oku ‘joko’; [x]orratu ‘jorratu’; [x]osi ‘josi’; [x]ostai ‘jostai [trumoi, ostots]’.

Nabarmentzekoa da Sakana gehiengan **joa-* > *fā-* egin dela. Burundan *fān* ‘joan’; *fāra* ‘joare’ esaten dira. Kandido Izagirrek (1967) *afolabaiku* (< *ajolabaiku*) ‘axolagabeko’ jaso zuen Altsasan; *forratu* ‘jorratu’ esaten da Iturmendin eta Bakaikun.

3. Erdialdeko euskararen ez bezala, /f/ ondo errotuta dago Sakanan; ez da *f* > *p* egiteko joera handirik. Urdiainen, esate baterako, aldaera hauek entzun ditut: *afai* ‘afari’; *afizio*; *alfer*; *desafio*; *fanfarron* ‘fanfarroi’; *feia* ‘feria’; *ferra* (eta *ferratoki*, *ferratu*); *festa*; *fixti* ‘piztia’; *furi-furien* ‘puri-purian’; *furrustada* ‘purrustada’; *ifarnu* ‘infernu’; *nafarrei gorri* ‘nafarrei gorri [elgorri]’; *tufa* ‘tupa’.

Hitz gutxitan agertu zait /p/: *napar* ‘nafar’, *pago*, *pattal*, *patxada*, *paxa*, *paxo* (gazt. *fajo*), *piku*.

4. *-r-* zaharra gorde da Sakanan. Urdiaingoak dira adibideak: *irar* ‘ilar’ (*ider* Sakanako erdigunean); *irargi* ‘ilargi’ (*idargi/idergi* Sakanako erdigunean) eta *zidar* (< *zinar*) ‘zilar’ (*zider* Sakanako erdigunean). Burundan *bear/bĩar* (< *berar*) ‘belar’ ere esaten da. Aldiz, *elur* esaten da; ez **erur/edur*.

5. Herskarien sailean bada zeresana. Burundako egoera azaltzera mugatuko naiz.

5.1. Hitz hasieran herskari eza ageri da hitz hauetan: *odoldi* ‘goroldio’; *okotz* ‘kokots’.

5.2. Alderantziz, beste hauetan herskaria ageri da: *gailtzau* ‘altzairu’; *kafi* ‘habia’; *kaskal* ‘oskol’.

5.3. Hitz hasieran herskari ahostuna aurkitu dut hitz hauetan: *barre*; *bikor* ‘pikor’; *dalo* ‘talo’; *dermioldermau* (gazt. *término*) ‘herriko soro eta larre pribatuak’; *dolostatu* ‘tolestu’; *gainu* ‘keinu’; *galbaio* ‘kalbario’; *galte* ‘kalte’; *galtzada*; *garzela* ‘kartzela’; *gata* ‘kate’; *girten* ‘kirten’; *goinata/goinatu* ‘koinata/koinatu’; *gonbestazio* ‘konbertsazio [elkarrizketa]’; *gonbiatu* ‘gonbidatu’; *goru* ‘(elizako) koru’; *gostatu* ‘kostatu’.

5.4. Beste hauetan, berriz, ahoskabea agertzen da: *kaixa* ‘gerezi’; *kataxka* ‘gatazka’; *kisa* ‘gisa’; *kisu* ‘gisu’ (eta *kisubile/kisibile* ‘gisugile’); *kitarra* ‘gitarra’; *kosti* ‘gorosti’; *kutza* ‘gurutze’; *paltsa* ‘baltsa [putzu]’; *partz* ‘bartz’; *pekatu* ‘bekatu’; *pika* ‘bike’; *pits* ‘bits [apar]’; *tanpor* ‘danbor’; *torre* ‘dorre’.

5.5. Herskari ahostunak bata bestearekin trukutzen dira sarri: *bultzurrun* ‘giltzurrun’; *deztera* ‘geztera’; *kisubile/kisibile* ‘gisugile’; *mubita* ‘mugita’; *nago* ‘nabo [arbi]’; *sagona* ‘xaboi’; *sube* ‘suge’.

5.6. Inoiz edo behin, herskari ahoskabeak ere trukutzen dira bata bestearekin: *aitatu* ‘aipatu’; *kipula* ‘tipula’.

5.7. Hitz barruan herskari ahostunaren orde ahoskabea agertzen da *alpertziku* ‘albertxiko’ hitzean. Geroaldiko morfeman *-ko* agertzen da *n* ondoren: *inko* ‘egingo’; *izanko* ‘izango’; *jakinko* ‘jakingo’; *yainko* ‘ereingo’. Ziurrenena, *-ko* hori eskualde honetan berria izatea da arrazoia. Orain gutxi arte *inen* ‘eginen’, *izanen*... esan ohi ziren, geroaldiko morfema *-en* zela.

5.8. Herskari ahostunak eta /r/ dardarkaria ere trukutzen dira. Herskaria ageri da hitz hauetan: *apibil* ‘apiril’; *babatxui* ‘baratxuri’; *kadena* ‘karena’; *odoldi* ‘goroldio’. Beste honetan dardarkaria: *iraikan* ‘igerika’.

5.9. Hasperena desagertu ondoren, herskari ahostunak agertzen dira inoiz haren lekuan. Alde batetik, /b/ duten *obera* ‘ohara [txakur emearen beroaldia]’; *ubal* ‘uhal’; *ubalde* ‘uhalde [uholde]’; *ubarka* ‘uharka’. Bestetik, /g/ duten *ago* ‘aho’; *agotz* ‘ahotz’; *egun* ‘ehun’. Azkenik, /d/ duen *medar* ‘mehar’.

5.10. Hitz hasieran *m-/b-* trukutzen dira. Herskaria ageri da hitz hauetan: *biets* ‘mehatz [bakan]’; *bendu* (< *berendu*) (gazt. *merienda*) ‘askari’. Aldiz, ezpainkaria *mentzagi* ‘berantzagi [legamia]’ hitzean. Nabarmendu dezadan Burundan *musti* ‘busti’ aldaera zaharra gorde dela. Toponimian, gainera, *madura* ‘padura’ agertzen da.

5.11. Euskara nafarraren bereizgarria da *g-* garatzea *ua-* hasierako hitzetan. Burundan *gwai* ‘orain’ eta *gwartu* ‘ohartu’ esaten dira, baina *oia* ‘ohea’ (*guatze* Sakanako erdigunean).

5.12. Herskarien saila ixteko, metatesi adibide hau aipatuko dut: *gilbor* ‘bilgor’.

6. Euskara nafarrean bezala, erdal *-on* amaiera bere horretan egokitu da euskarara Sakana guztian. Burundan batzuetan *-a* berezkoa hartu du (*-ona*): *balkona* ‘bal-

koi'; *balon* 'baloi'; *baston* 'bastoi [makila]'; *botona* 'botoi'; *buzon* 'buzoi [postontzi]'; *flemon* 'flemoi'; *fronton* 'frontoi [pilotaleku]'; *kajona* 'kajoi [tiradera]'; *pantalon* 'pantaloi [praka, galtza]'; *sagona* 'xaboi'. Berdin *-ion* amaiera ere: *akordion* 'akordeoi'; *kamion* 'kamioi'. Hiru hitzetan agertu zait *-oi*, beharbada mailegu zaharrak direlako: *arratoi*, *arrazoi*, *sermoi*.

7. Burundako bereizgarria da *-n- > -nd-* egitea. *Izan*-en pluraleko adizkietan gertatzen da: *gindan* 'ginen'; *zindan* 'zinen'; *zindain* 'zineten'. Kontsonante multzo horixe agertzen da muga adlatiboko morfeman: *eztarriaindo* 'eztarriraino'; *ezurretaindo* 'hezurretaraino'; *iturriaindo* 'iturriraino'. Baita *baindo* 'baino' hitzean ere.

8. Euskara giputzean eta nafarrean bezala, **-ani > -ai* egin da Sakanan: *arrai* 'arrain' (eta *amurrai* 'amuarraïn'); *usai* 'usain'; *zai* 'zain' (eta *artzai* 'artzain') esaten dira Urdiainen.

9. Mendebalean eta erdialdean bezala, *-st-* kontsonante multzoa agertzen da Sakanan: *beste*, *bost*, *este* 'heste', *ostegun*, *ostiral*.

10. Hitzak batzean, gehienbat aditz partizipioa eta laguntzailea elkartzen direnean, *l*, *n*, *r* ondoren, txistukari frikaria ahoskatzen da Sakanan. Urdiaingoak dira adibideak: *etorko al za!* 'etorriko ahal zara!'; *il zaio* 'hil zaio'; *fan zan* 'joan zen'; *in zen* 'egin zuen'; *yan zain* 'eroan [eraman] zuten'; *yon zian* 'egon ziren'; *etor zian* 'etorri ziren'; *in ber zela* 'egin behar zuela'.

11. *EZ* partikula adizkiekin elkartzen denean, gertakari bi nabarmendu behar dira.

11.1. Alde batetik, Burundan *j-* ahoskera duten adizkiak erabiltzen dira. Horrelakoetan *ez + j- > etx-* ahoskatzen da: *etxukat* 'ez zaukaat'; *etxakiet* 'ez zakiat'; *etxakin* 'ez zakin'; *etxakiei* 'ez zakitek'; *etxok* 'ez zagok'; *etxuan* 'ez zidan'. Ezaguna denez, mendebaleko euskararen bada bilakaera hau (Zuazo 2017: 48).

11.2. Bestetik, *ez + z-* elkartzen denean, txistukari frikaria ahoskatzen da Sakanan. Urdiaingoak dira adibideak: *eza* 'ez zara'; *ezan* 'ez zen'; *ezairak* 'ez zaidak'; *ezon* 'ez zegoen'; *ezukalako* 'ez zeukalako'; *ezikein* 'ez zitean'. Gertakari hau ere bada mendebalean (Zuazo 2017: 49).

12. Kontsonanteen saila ixteko, Burundako aldaera batzuk aipatuko ditut: *aitxur* 'aitzur'; *arrantza* 'arrautza'; *be* 'gabe' (eta *baikol/beiko* 'gabeko'); *beal/baia* 'baina'; *burni* 'burdina'; *lazka* (eta *nazka*) (eta *lazkagarri/nazkagarri*); *narru* 'larru'.

Argibide bibliografikoak

Apalauza, Amaia. 2012. *Nafarroako ipar-mendebaleko hizkeren egitura geolinguistikoa*.

Iruñea: Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia.

Bonaparte, Louis-Lucien. [-1868]. *Phonologie de la langue basque dans tous ses dialectes, comprenant les règles de la prononciation, de l'accent tonique et du changement des lettres, suivie de la loi de l'affinité ou harmonie des voyelles, et précédée d'une nouvelle classification des dialectes, sous-dialectes et variétés de l'euscara. D'après de nombreux renseignements pris sur les lieux en 1856, 1857, 1866 et 1867. Par le prince Louis Lucien Bonaparte*. (1868 inguruko txosten argitaragabea).

Camino, Iñaki. 1997. *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.

- Erdozia, Jose Luis. 2001. *Sakana erdialdeko euskara*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Hualde, José Ignacio. 1990. Vowel Lengthening in Basque. *Folia Linguistica* 24. 269-288.
- Hualde, José Ignacio. 1991. *Basque Phonology*. London & New York: Routledge.
- Hualde, José Ignacio. 1996. Arbizuko hizkeraren zenbait soinu bereizgarriak. *Uztaro* 18. 49-60.
- Izagirre, Kandido. 1967. Altsasuko euskeraren gai batzuk. *ASJU* 1. 45-97.
- Ondarra, Francisco. 1965. Voces vascas de Bacaicoa. *BAP* 21. 387-412.
- Zelaieta, Edu. 2008. *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa*. Iruñea: Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia.
- Zuazo, Koldo. 1995. Burundako hizkera. In Ricardo Gómez & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskal Dialektologiako Kongresua (ASJUren Gehigarriak 28)*, 297-364. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Zuazo, Koldo. 2010. *Sakanako euskara. Burundako hizkera*. Iruñea: Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia.
- Zuazo, Koldo. 2017. *Mendebaleko euskara*. Donostia: Elkar.
- Zuazo, Koldo. 2022. *Burundako hiztegia*. Leioa: UPV/EHU.
- Zubiri, Juan Jose & Patziku Perurena. 1998. *Goizueta eta Arano herrietako hizkeren ezaugarri orokorrak*. Iruñea: Nafarroako Gobernua, Goizuetako Udala & Aranoko Udala.

-ubV epentesiaren bilakabide historikoaz¹ *On the historical evolution of the epenthesis -ubV*

Eneko Zuloaga*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: It has been a long time since Basque dialectologists investigated, from a synchronic point of view, a whole series of vowel interaction phenomena grouped under the name of *euphonies*. However, the investigation of the history of these phenomena has been relegated among Basque diachronists due, among other reasons, to the fact that they are relatively modern and do not allow us to reconstruct prehistoric stages. In this paper, I present the historical evolution of epenthetic *-ubV*, an innovation that emerged in the Old Basque period. Specifically, I have analyzed the first testimonies, the texts and places where it is documented, and the historical trends of its use, taking into account both folk varieties and the printed and canonical written tradition.

KEYWORDS: historical dialectology; historical phonology; epenthetic *-ubV*; Basque.

LABURPENA: *Garai batean bokal-eufonia deitutako fenomeno-multzoari buruzko ikerketa ugari egin ziren euskal dialektologia sinkronikoaren esparruan, baina fenomeno horien azterketa diakronikoa ez dago hain aurreratuta, arreta gutxiago eman baitzaie, fenomeno historikoak diren heinean historiaurrea berreraikitzeke aukerarik ematen ez dutela eta. Lan honek -ubV ereduko epentesiaren bilakabide historikoaren berri dakar. Zehazki, epentesiaren lehenengo lekukotasunak, ageri den lurraldeak eta erabileraren joera historikoa(k) ditu aztergai: berrikuntza Euskara Zaharraz geroztik sortu eta hedatu zen eta, testu-corpus historikoa lagun, garai horietan izandako bilakaera aurkezten da hemen, bai hizkera herrikoiei begira, bai euskalkietako tradizio inprimatu kanonikoan izandako lekuari begira.*

HITZ GAKOAK: *dialektologia historikoa; fonologia historikoa; -ubV epentesia; euskara.*

¹ Lan honek «*Monumenta Linguae Vasconum* VI: Avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca» (PID2020-118445GB-I00) ikerketa-proiektuaren eta «Historia de la lengua vasca y Lingüística histórico-comparada» (IT1344-19) ikerketa-taldearen babesa izan du.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Eneko Zuloaga. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila - Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitateen ibilbidea, 5 (01006 Gasteiz). – eneko.zuloaga@ehu.eus – https://orcid.org/0000-0003-2579-6327

Nola aipatu / How to cite: Zuloaga, Eneko (2023). «-ubV epentesiaren bilakabide historikoaz», *ASJU*, 57 (1-2), 999-1017. (https://doi.org/10.1387/asju.25980).

Jasoa/Received: 2022-11-18; Onartua/Accepted: 2023-03-24.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago

1. Sarrera

Euskal dialektologiari buruzko ikerketak irakurrita, agerikoa da hiatoetako bokal-bilkuretako fenomenoari eman zaien garrantzia: XIX. mendean, Zabalak (1848) Bizkaiko hizkerak bereizteko baliatu zituen eta, Elorduiren (1995) arabera, Bonapartek ere berebiziko garrantzia eman zien, Zabalaren azalpeni jarraikiz, *Langue basque et langues finnoises* (1862) eta *Phonologie de la langue basque* (1868) saioetan.

XX. mendean ere hainbat ikertzaile arduratu dira hiatoetako bokal-bilkuretako fenomenoez: derrigor aipatu behar dira de Rijk (1970) Bizkaiko euskarari buruz eginiko saioa, lan honen bidez omendu nahi den Hualdek argitaratutako askotariko ikerlanak —Hualde (1991) tesitik hasita, baina inola ere ez hartara mugatuta— eta Hualde & Gaminde (1997) zehatza. Ezin utzizko dira, halaber, monografia dialektal-tako deskripzioak —fenomeno bokalikoak azaltzen abiatu ohi direnak— eta ikuspegi zabalagoz egindako lanak: gogoan ditut, besteren artean, *Euskal dialektologiaren hastapenak* (UEU 1987 [1983]) eta *Euskararen herri-hizkeren atlasa* (Euskaltzaindia 2008-2020).

Ez eremu zabalak, baina eskualde, ibar edo herri jakin bateko hizkera bereizteko erabili dira, gehienbat, hiatoetako bokal-bilkuretan sortutako fenomenoak eta horien konbinazio bereizgarri eta, batzuetan, eksklusiboak. Zehazki, dialektologia sinkronikoaren esparruan deskribatu eta baliatu dira batez ere: euskal diakronisten lanetan ez dute hainbesteko lekurik hartu, funtsean gertakari modernotzat eta axalekotzat jo direlako, eta historiaurrean sakontzeko biderik ematen ez dutelako (FHV, 89).

Azken urteotan dialektologia diakronikoan egindako ikerlanek hein batean berretsi dute arestiko ikuspegia, baina zenbait banaketa eta ideia interesgarri agerrarazi dituzte; cf. Zuloaga (2020: § 4.5). Ikerketok erakutsi dute luzaroan *eufonia* izenpean multzokatu berrikuntza guztiak ez direla sorta bakar bateko osagai, ezpada elkarrengandik beregain, zein bere garaian eta geografian sortutako berrikuntzak.

Lan hau de Rijk (1970), Hualde (1991) eta Hualde & Gaminde (1997) saioetan aurkeztutako fenomeno nagusien ibilbide historikoa aztertzeko eta ezagutarazteko sorta zabalago bateko kide da. Epemugek eta gehieneko luzerak gaia mugarazi ostean, *-ubV* ereduko epentesia hartu dut aztergai; beraz, saio honek datuak eta irakurketak dakartza epentesi horrek tradizio idatzian dituen agerraldi zaharrenez eta Euskara Zaharretik (EZ hemendik aurrera)² Lehen Euskara Modernoaren (LEM hemendik aurrera) erpinera (-1840; ikus Urgell 2018) bitarteko bilakabideaz.

Garaian garai, hainbat hizkeratan lekukotu da *-ubV* epentesia, baina hizkera guztietan ez du ibilbide bera egin. Egun, Hego Euskal Herriko eskualde gutxi batzuetako hiztunek —eta, eremua zein den, adin batetik gorakoek— besterik ez dabilte: Sakana (Hualde 1991, 1996; Zuazo 2010), Donostia eta Beterri aldea (Camino 2000) eta Lapurdiko kostaldea (Duhalde 2023; Epelde 2011) aipatu dira sarrien, eta *EHH*Ak ere eremu horietan ematen du berrikuntza gehienetan.

² Periodizazioari dagokionez, Lakarrari jarraitzen diot; ikus azken bertsioa Lakarra *et al.* (2019) lanean.

2. Hiatoetako kontsonante epentetikoez

Euskal hiatoetan, /i/ eta /u/ goiko bokalen edo horien kide irristarien ondoren /a/, /e/ edo /o/ bokalak daudenean, hizkera batzuetan segmentu kontsonantiko bat sortu da geminazio-prozesu baten ondotik: «The insertion of these segments can be understood as a sort of gemination process in which skeletal slot is inserted in an empty onset position after a high vowel and associated with the features of the high vowel to its left» (Hualde 1991: 49). Fonotaktikari dagokionez eta Hualderi (1991) jarraikiz, kontsonante epentetikook berdin ager daitezke hitz-erroan eta morfemamugan —are klitikoetan sortutako bokal-bilkuretan ere—, baina ez eratorpen-atzizkiak eransteaz; halaber, ezohiko dira beheko bokalak bigarrenkari direnean.

3. Epentesiaren ibilbide historikoaz

3.1. Euskal Herriko mendebala

3.1.1. Arabako testuak

Euskal Herriko mendebal zabaleko corpusean, Arabakoak eta EZkoak dira -ubV epentesiaren lehenengo adibideak; zehazki, Urduñako³ xvii. mendearen amaierako hiztegitxoan (Ros 2011) epentesia dago egon zitekeen bi adibideetan: *açero - calcaiduba* eta *brevas - ustapicuba*.⁴ Lehenago, eta Arabako ipar-mendebaletik irten barik, Mendietaren *Quarta parte de los annales de Vizcaya* laneko 8 *beste asco ditubalak* fenomenoaren datazioa xvi. mendearen amaierara edo xvii.aren hasierara aurrera lezakeela pentsa liteke, baina besterik proposatzeko arrazoiak daude. Lehenik, egun BNEn gordetzen den eskuizkribua ez da Mendietarena, ezpada xviii. mendeko kopia (Ulibarri 2013: 179); alegia, hala -ubV nola hiatoetako beste fonetismo batzuk ugaritu eta hedatu ziren garaikoa. Bigarrenik, Mendietak bere eskuz idatzitako testuetan ez dago epentesiaren aztarnarik: *foruac* dakar koadro bateko idazkunak 1609an —berdin 1773ko kopiak—, eta *ibitua* ‘bare(tu)a’ eta *mendua* dakartza *Aerario* eskuizkribuak.

Urduñako berba-zerrendako adibideek ezaugarria inguru hartan izan bazela erakusten dute, baina oso isolaturik daude: hurrengo adibideak xviii. mendearen lehen urteetakoak dira Araban —eta mendebaleko euskaran—, eta kasu honetan ere asistematikoa da berrikuntza.

Barrutiak 294 *Lastasacuba* dakar, baina adibide isolatua da. Gainerako adibideak Arabako ipar-sortaldekoak eta mendearen amaierakoak dira: Albenizen lanak baditu aldaera epentesidunak (167 & 168 & 172 *orduba*, 167 & 172 *santuba*, 167 *bienaventuradubac*, 170 *orduban*, 172 *deseaduba*, 173 *santuban*), baina epentesirik gabeak ere badaude: 167 *afligidua*, 169 & 170 *becatuac*, 170 *pecatuquin*, 170 *ninduanari*, 171 *pecatuagaitic*, 171 *ofendiduagaitic*, 172 (bitan) *ofendidua*. Jatorrian -o duten edo izan dezaketen formak baztertuta, epentesidunen eta epentesirik gabeen arteko kopu-

³ Administrazioz Bizkaiko hiri da Urduña, baina geografikoki Arabako ipar-mendebalean dagoela eta, ikuspuntu diatopikotik bertako eremu eta dinamikei loturik aztertu behar da.

⁴ Altzibarrek (1992: 476) *Viva Jesús*en bazela aipatu zuen, baina ez dut adibiderik aurkitu; cf. Ulibarri (2010).

rua nahikoa orekatua da Albenizengan. Arabako ekialdetik irten barik, aldiz, ez dut epentesirik aurkitu Gamizen olerkietan, eta Aiara aldeko testu modernoetan ere ez dut ikusi.

3.1.2. Bizkaiko testuak: tradizio modernoa (-1730-1800)

Bizkaiaz den bezainbatean, 1730eko hamarkadakoak eta Durangokoak dira aurkitu ditudan adibide zaharrenak. Are gehiago, tokiko hizkeraren ezaugarri izateaz gain, idazleen hautu ere izan zitezkeela islatzen dute idazle durangarrek.

Urkizuren *Virgína santísimien...* (1737) liburuak adibideak dakartza bai berbarroan, bai morfema-mugetan —8 *Egubénétan*, 9 *Egubastèñ*; 4 *zeinzubenzat*, 4 *zaituben*, 4 *zaitubenzat*, 5 *socorruba*...—, nahiz eta salbuespenak ere ugari diren: 1 *Santuena*, 3 *Liburua*, 4 *sagraduetan*, 6 *santua*, 28 *contua*, 33 *pecatuen*... Idazle beraren 1740ko kopletan 13 *gustubá* eta 46 *deusuben* daude, baina baita 18 *cerúetaco* ere, epentesirik gabe. Aldiz, herri bereko Arzadunen dotrinak (1731) ez dakar adibide bakar bat ere: hala garai linguistikoa nola Urkizuren lekukotasunak aintzat hartuta, idazleen hautuei egotz dakieke hain urte gutxiren buruan halako aldea agertzea. Arzadunek gordetzaila jokatu zuelakoa daukat, eta Durangoko euskara dialektalean bazatekeen ezaugarria baztertu zuelakoa.

Lan honetan langai den epentesia Lehenengo Euskara Modernoko idazleen errepertorio linguistiko-estilistikoko ezaugarri bihurtu zen, eta horrek zalantzak eragiten ditu 1730az geroztiko testuak lantzen direnean: ikertzaileak ez du ziur esaterik zer den tokiko hizkeraren isla eta zer egotzi behar zaien idazleen hautuei. Idazle ikasiei eta hautu linguistikoei loturik, ez dira ahaztekoak Larramendik Bizkaiko euskarari buruz jardutean aipatutako formak: «En el Bizcaíno, *ecárte-déuvat*, *ecárten déuze*, *ecárten-déuvagu*, *ecárten-déuve*» (1728: 121). Halaber, Larramendiren jarraitzaile Kardaberatzek pasarte interesgarria eman zuen *Eusqueraren berri onac* lanean (Altuna & Zulaika 2004 [1761]: 44), «Andre elorriorearen erretorica» izenekoa, non Elorrioko andre baten hizkera imitatu baitzuen. Pasarte horretan hirutan ageri da *cituban* adizkia, eta *segurubagoric* ere badago, baina pasarte urrun dago Elorrioko berbetaren transkripzioa izatetik; Elorrioko XVIII. mendeko bertso iraingarrietan (Arejita & Biddart 2010) ez dago *-ubVrik*.

XVIII. mende erdialdeko testuen artean ez dut berrikuntzaren alerik aurkitu Arzadunen dotrinaren bigarren edizioan (1758), Gandararen gabon-kantetan (1758-1762), eta Kardaberatzen (ca. 1762) eta Olaetxearen (1763) dotrinaren lehenengo edizioetan, nahiz eta Kardaberatzek jaurerriko euskararen emandako *Jesus, Maria eta Joseren...* (1764) lanean 20 *Egubenetan* eta 23 & 59 & 139 *ceuben* ageri diren. Azken idazle horien dotrinaren berrargitalpen eta egokitzapenei begiratuta, berriz, bestelakorik ikusten da.

Kardaberatzen dotrina birmoldatuta agertu zen 1783an, egilea hil ondotik eta portadan «Orain urteten dau eusquera apaindubaguan» zehaztapenarekin. Dirudienez, J. A. Mogel arduratu zen lana atontzeaz (Altzibar 1991a, 1991b; Arejita 2018), eta Markinako idazleen hizkera-eredura makurtu zuen. *-ubV*epentesiari dagokionez, ca. 1762ko eta 1783ko edizioak erkatzeak ezin argiago azaleratzen du epentesiaren sistematizazioa bigarrenean; cf. 1762ko 3 *santuagaz*, 3 *pecatuen*, 4 *santuaren*, 5 *ceruetan*... vs 1783ko 3 *santubagaz*, 3 *pecatubaren*, 4 *santubaren*, 4 *cerubetan*...

Olaetxearen dotrinari dagokionez, arestikoaren parekoa da bilakabidea. Lanak arrakasta bete izen bide zuen, hurrengo edizioak XVIII. mendean bertan argitaratu baitziren —datazio-arazoez, ikus Zuloaga (2020: 623-624)—, 1774-1775ean eta 1780an bigarrena eta hirugarrena, 1787an laugarrena, eta 1794an bosgarrena, dotrinaren bertsio laburtua, egilea hil baino urtebete lehenago argitaratua. Arestian aipatutakoekin bat, denboran aurrerago, testua lerratuago ageri da Markinako idazleen eredura, eta -ubVEpentesia sistematikoa da bigarren ediziotik (1774) aurrera, 1. taulan ikusten den legez:

1. taula

Olaetxearen dotrinaren lehenengo edizioak

1763	1774-1775	1780	1787
4 cristinauaen	4 cristinaubaen	5 cristinaubaen	3 cristinaubaen
4 cristinauac	4 cristinaubac	5 christinaubac	3 christinaubac
4 bedeñcatua	4 bedeñcatuba	5 bedeñcatuba	3 bedeñcatuba
4 santuaen	4 santubaen	5 santubaen	3 santubaen
5 sua	4 suba	5 suba	3 suba
5 santuetaric	5 santubetaric	6 santubetaric	4 santubetaric
6 mercecimentuacaz	5 mercecimentubacaz	6 mercecimentubacaz	4 mercecimentubacaz
6 ceruetan	5 cerubetan	6 cerubetan	5 cerubetan
6 erreñua	5 erreñuba	7 erreñuba	5 erreñuba

Olaetxea ez zen josulaguna, ez zuten erbesteratu eta Kardaberatz baino beranduago hil zen, 1795ean: bere dotrinaren berrargitalpeni dagokienez, ageri diren aldaketak egileak berak egin edo baimendu zituela pentsa daiteke.

1750-1800 artean, Bizkai osoko idazleengan ageri da -ubVEpentesia. Sartaldean, Sarriaren sermoietan (-1790) daude lehenengo adibideak, baina ez da inondik inora ere erabilera sistematikoa. Sorterriko euskaratik hurrago idatzitako sermoietan forma epentesidunak eta epentesibakoak txandakatzen ditu (Zuloaga 2010: 398-399). Sarriak, gainera, badu aparteko konplexutasunik, Markinako idazleenganako atxikimendua ageri baitu hautu linguistiko batzuetan: sermoitegian epentesia ugaritzen da Markinako idazleen euskara-eredura hurbiltzen denean, baina Bizkai sartaldeko euskaratik hurbilagoko eredu linguistikoan idaztean ere ageri da tarteka.

Hautu estilistikoak eta tokiko hizkerak aurrez aurre jarrita, ez da aise ezer argirik erabakitzea, baina aldirietako lekukotasunak aintzat hartuta, arazo handirik gabe proposa daiteke Nerbioi ibarraren iparraldean ere bizirik egon zela epentesia sasoi batean. Inguruko lekukotasunei dagokienez, Orozkoko 1739ko otoitzek eta Zolloko 1770eko galdetegiak ez dute -ubVrik, baina Orozko eta Baranbio aldeko lekukotasun modernoago batzuek⁵ zein Barakaldoko toponimia modernoak eta Astigarraga basauriarraren sermoi batzuek (Zuloaga 2013: 607) epentesia sartalde muturreko hizkera batzuetan bizirik zegoela pentsarazten didate.

⁵ Ikus Azkuek Orozkon bildutako aditz-paradigmak, *apud* Gaminde (1983).

Jaurerriaren iparraldean, De la Quadrak (Bilbao 1997, 1998) Bermeo aldeko euskara imitatu zuela baina hizkerari landu-kutsu nabarmena dariola ahazteke, epentesiak ugari ageri dira bai hitz-erroan, bai morfema-mugan bai, hain ohiko ez izanik ere, klitikoetan, hala nola 2 *desterrubau* adibidean.

Bermeotik irten barik, *Errosariyo santuba...* (1780) liburuan ia sistematikoa da epentesia: 1 *Santuban*, 1 *moduban*, 1 *sagraduba*, 1 *pausuben*, etab.

Apur bat hegoalderago, Gandarak adibiderik ekarri ez arren, Gernikako gabonkantan (1801; Arejita 1993) sistematikoa da berrikuntza: 1-1 *ejercitubac*, 2-3 & 5-3 *munduban*, 3-3 *anguerubac*, 5-5 *pecatubac...* Epentesirik gabeko adibide bakarra 10-7 *proximuari* da.

Bizkaiko ipar-sortaldeko lehenengo testu luzeak XVIII. mendearen bigarren erdikoak dira, eta horietan sistematikoa da *-ubV*. Altzibarrekin (1992: 476-477) bat, epentesiak oinarri fonetikoa zuen Bizkaiko ipar-ekialdeko eta hurreko lurraldeetan, baina, halaber, Astarloaren, Humboldtten eta Mogelen iritzi eta hautu linguistikoen eragina hedatzen hasia zen Bizkaian ordurako, eta eragin hori are nabarmenagoa da jaurerriaren ekialdeko testuetan.

Apoita bolibartarraren bederatziruurenetan sistematikoa da epentesia: 1 *ainguerubaquin*, 1 & 7 & 8 & 9 *ceuduban*, 1 & 2 & 6 & 7 & 8 *mercimentubac*, 1 *justubaren*, etab. Halaber, Iturriza berriztarraren Andramendiko idazkien bertsio eraberrituan badaude epentesiaren adibideak (1-3 & 2-4 *buruba*, 2-5 *escubetan*, 2-6 *ditubeela*), eta Abadiñoko gabonkantan (1804; Altzibar 1993) sistematikoa da: 4 *situben*, 17 *suben*, 22 *cerubac*, 34 *Aingueruben...*

3.1.3. Idazle kanonikoez (-1800-1850)

Nahiz eta hainbatetan aipatu den konbentzioz *literatur bizkaiera* deitu izan dena XIX. mendearen hasierako testuen bidez sortu zela, agerikoa da lan horiek inprimatu orduko garaiko hizkera-ereduen aldeko hautu orokorrak eginda zeudela, ondoko urteetako egokitzapenak egokitzapen. Hala XVIII. mendearen amaierako lan xumeek nola XIX.aren hasierako obra zabalagoek argiro islatzen dute Markinako idazleen joera/eredu (*hiper*)*herrikoiak* arrakasta bete izan zuela LEMaren finkatze-urteetan (ikus Urgell 1985, 2018).

Markinako euskararen jatortasuna aipatu zuen Humboldttek (1925 [1801]), eta bertako *eufoniak* erabiltzearen alde agertu ziren Astarloa (1883 [ante 1806]) eta J. A. Mogel (1881 [ca. 1802], 1803), nahiz eta ezaugarri hedadura murrizta eza gutu: «Se notará en el lenguaje de este diálogo, continuado en diversas conferencias, que muchas veces termino en *ja* y *ba* contra la costumbre de la mayor parte de los vizcainos, guipuzcoanos y vascos» zioen Mogelek (1881 [ca. 1802]: 17) *Peru Abarcaren* hitzaurrean; ondoren, ezaugarri horiek Markinan, Lekeition, Elorrioren eta hurreko eremuetan —Gipuzkoako herri mugakideak barne— baliatzen zirela zehaztu zuen. Astarloak, bestalde, *eufoniko* eta *dialektiko* epitetoak baliatu zituen, eten barik, halakoez aritzean; *-ubVz*, hala zioen:

Esta letra [*b*] es dialéctica usada por los vizcainos, siempre que á una voz acabada en *u* ha de seguirsele otra que empieza con vocal; y como la voz que antecede á dicha *b* es la radical del auxiliar que acaba en *u*, y la que sigue empieza con vocal, hé aquí la causa de la interposición de la dicha *b*. (Astarloa 1883 [ante 1806]: 730-731)

Hiatoetako bokal-elkarteetako beste fenomeno batzuk baino sistematikoago ageri da -ubVbai arestiko idazleen lanetan, bai ildo beretik aritu ziren beste batzuegan (F. Bartolome, P. J. Astarloa, B. Mogel, J. J. Mogel, J. P. Ulibarri, etab.; ikus Altzibar 1992: 487). Gogoratzekoa da Kardaberatzen dotrinaren 1783ko edizio eraldatuan -ubV sistematizatu zuela Mogelek, eta Olaetxearen dotrinaren ondoz ondoko edizioetan egin-dako aldaketetan lehenengoa izan zela epentesi berori ezartzea. Denboran are atzerago, Mogelen platika goiztiarretan arrunt ageri da berrikuntza; ikus Altzibar (1991a).

Bizkaiko idazleen artean, nahiz eta lan gehienak hil ostean argitaratu ziren, eza-gun da Añibarrok Markinako idazleen hautuak baztertu zituela garai batetik aurrera. Besteren artean, tokian tokiko fonetismoak alboratu eta eredu linguistiko orokorra-goaren alde egin zuen arratiarrak,⁶ «pues sobre no haber necesidad de mudar estas letras que el uso ha introducido, es más natural, y más fácil el no mudar, y alterar estas letras» (Villasante 1969 [ca. 1820]: 14).⁷ Ezagun da, halaber, Mogeli Markinako eus-kara larregi estutzea egotzi zioneko pasartea: «Cada vez achica Vmd. más el bascuence de Marqui[na] después de significar las inconexiones de mutaciones de *o* en *u*, *e* en *i*, *uba* y *ija*, añade Vmd. que en Marquina no aciertan a pronunciar la *f*, y que se borre del alfabeto vascongado» (apud Urgell 2001: xxx).

Añibarroren lanen artean, dena den, Urgellek (2001: xxxi) 1791-1793 aldera da-tatutako sermoi goiztiarrek interes berezia dute hemen, garai hartan markinarren ere-duaren arabera aritu baitzen. Besteak beste, -ijV eta -ubVepentesiak aurki daitezke testu horietan, gerora argitaratutako *Escu-liburuan* (1802) ez bezala; ikus xehetasu-nak Altzibarren (1992: 476) eta, batez ere, Urgellen (2001: § 2.3.1) lanetan. Añi-barroren lehenengo joera, azken batean, bete-betean lotzen zaio XVIII. mendearen amaieran (edo ordutik) Bizkai osoan zabalduetako moda linguistikoari, Markinakoen eredia jaurerri osora hedatu zuenari; ikus Zuloaga (2020: § 5.3.3).

Markinako idazleen hautu linguistikoaren arrakastak XIX. mende osoa eta XX.aren zati bat zeharkatu zituen, hein batean lan argitaratuen urriak lagunduta. Gizaldiaren erdialdera, Zabalak (1848), Astarloari jarraikiz, *eufonien* arabera berezi zituen Biz-kaiko hizkerak, eta xehetasunok eman:⁸

Las [eufonías] más célebres son las marquinesas, llamadas por el señor Astarloa vizcainas, y de las que han usado tanto el mismo, como nuestros escritores, á escepcion de Añibarro, Cardaveraz y Arzadun. Ellas están en uso en la Villa de Marquina y pueblos de su circunferencia, y siguiendo por la raya de Guipuzcoa, se estiende también á los de esta provincia que hablan el dialecto vizcaino, y á otros muchos de ella y aún de Navarra. (Zabala 1848: 54)

Larramendiz geroztik argitaratutako lanei buruzko saiotxoan arestiko ideia errep-i-katu zuen, salbuespenen zerrendara Busturiko katixima gehituta (Zabala 1856: 9).

⁶ Busturiko bikariotzako dotrinak (1802) ere hizkera-eredu zabalagoa dakar, *Bizcay barrucuentzat* prestatutakoa; ikus Rementeria (2018: 59-60).

⁷ Ikus, halaber, nahasteak saihestu nahari emandako garrantzia: «Pero ocasionan alguna equivocación a los oyentes o lectores que no están acostumbrados a estas mudanzas: pues, para estos *ordia* es borracho; *Asia*, comenzado; *betia*, lo de siempre» (Villasante 1969 [ca. 1820]: 168). Ikus, halaber, Urgell (1985: § 3.2).

⁸ Aldiz, bere sermoietan (Villasante 1996) ez zuen epentesirik baliatu, *gaubV* (*gaubean*, *gauberdi-tic...*) eta *jaube* (*jaube*, *jaubeari*, *jaubeguei...*) aldaera orokorretan izan ezik.

Urte gutxiren buruan, eta arestian aipatutako idazleengandik edanda, Bonapartek aparteko estatusa aitortu zion Markinako idazleen euskara-moldeari, eta berau bihurtu —edo berretsi— zuen literatur bizkaieraren eredu. Pagolak eta bestek (1992) argitaratutako corpusari begiratuta, berehala ikusten da Uriartek prestatutako material «orokorrak» eredu horren arabera idatzi zituela; hemengo aztergaiari dagokionez, beraz, sistematikoki ageri da *-ubV*epentesia bai corpusean, bai Uriartek idatzitako bestelako lanetan.

Arian-arian hitzun arrunten hizkeratik desagertu zen *-ubV*epentesia, baita Markinan ere (Camino 2018: 718); alabaina, hiperbizkaieraren garai gorenean, idatziaren esparruan S. Aranek arestiko tradizioari jarraitu zion, eta Aranaren itzala Espainiako Gerra Zibilera bitarteko idazle abertzale eta garbizaleen testuetan ageri da (Altzibar 1992: 480).

3.2. Euskal Herriko erdialde zabala

3.2.1. Gipuzkoako testu modernoak (XVIII.-XIX. mendeak)

Euskal Herriko beste lurralde batzuetan legez, *-ubV*epentesiaren lehenengo adibideak Gipuzkoan EZtik LEMera bitarteko trantsizio-urteetakoak dira.

Probintzian aurkitu dudak adibide zaharrena Arrasateko 1705eko udal-bandoan dago (9 *sittuben*), nahiz eta aurkako adibideak ere badauden: 6 & 11 *barruan* eta 22 *buruaq*. Ezaugarri honi dagokionez, Eibarko testu zaharrak interesgarriak dira, lurraldearen mendebalean berrikuntza noiztsu gertatu zen ikusteko aukera ematen baitute: 1668ko eta 1685eko kopletan ez dago adibiderik, baina 1721ekoetan 15 *esconduba* ageri da. Mende laurden baten buruan, hiribildu bereko 1754ko udal-ordenantzetan sistematikoa da epentesia: 1 *atrebiduba*, 1 *adelantauba*, 1 *onrauba*, 1 *Abonauba*, etab.

Deba ibarraren inguruetan koka daitekeen testu bakar batean aurkitu dut epentesia Eibarko testuetan bezain indartsu: *Istoria sagraduco...* argitaragabeen (Ariztimuño & Uribe-Etxebarria prestatzen), non sistematikoa baita: 1r *capituluba*, 1r *munduba*, 1v *situban*, 1v *paraysuba*, 2r *Ainguerubac*, 2r *frutuba*... Dena den, Eibarko ordenantzak baino testu modernoagoa dirudi. Halaber, Oñatiko eskuizkribuetan sistematikoa eta Gatzagako 1862ko dotrinan —funtsean, hitz gramatikaletan— ugaria da epentesia, baina testuak beste garai linguistiko batekoak dira.⁹

Hego-mendebaletik kanpoko lekukotasun gehienak berankorrakoak dira Gipuzkoan, XVIII. mendearen bigarren erdikoak oro har. Alde batetik, Muniberen *El borracho burladon* ez dira sistematikoak, baina batzuk badaude, batez ere obraren lehenengo hogeita bost orrialdeetan: 8 *sacristauba*, 14 *estubenac*, 16 *zubeac*, 18 (bitan) *zuben...* *Gabonsariac* lanean ere aurki daiteke aldaera epentesidunen bat; zehazki, «Copla jostalluac» izeneko sortan, non 35 *gastelaubarequin* baitago. Beste alde batetik, epentesia oso arrunta da *Grand tour* lanean (1772): 2r *altuwa*, 2r *aubetatic*, 2v *aubec*, 2v (bitan) *subec*...

Azpeitiko 1786ko administrazio-agiri batean (Madariaga *et al.* 2009) ere epentesia agertzea da arau: 34 *juban* ‘joan’ —bide batez, kasu honetan goiko bokala

⁹ Aita Palaciosen testuetan ere badagoela dio Altzibarrek (1992: 475).

bigarrenkari dela—; 24 *conventubetaco*, 24 *porticubetan*, 25 *permitituba*, 27 & 42-43 *castigatubac*, 35 *señalatubetan*. Sistematikoki ez bada ere, Loiola aldeko XVIII. mendeko sermoi argitaragabe batzuetan ere badago epentesia (Segurola 2005: 259).

Goierriko testuetan bestelakoa da egoera eta nahasteak sor litezke, inguru hartan [aw] eta [ew] diptongoak idatziz *-a(u)b* eta *-e(u)b ematen direlako sistematikoki*. Hori dela eta, Zegamako dotrinako (1741) nahiz Otxoa Arinen laneko (1713) *christauba* forman epentesia dagoela pentsa liteke (cf. Altzibar 1992: 472, 613. oin-oharra),¹⁰ baina aintzat hartu behar da, alde batetik, bi testu horietan *kristau* berban besterik ez dela ageri *-ubV*, eta, bestalde, Zegamako dotrinan *kristaub* zela oinarria: cf. 36v *Nor da christaub fiel*, 37v *beti diraden christaub asco*.

Donostian eta Beterin oso bakanak dira epentesiaren adibideak XIX. mendea baino lehen. Lubietaren (1728) hiztegiak ez dakar adibiderik: 385 *christaubac* hitzean ikus liteke, baina Goierriko testuez esandakoak ere hemen balio dezake, 393 *christaub* ere badakarrelako. Halaber, Peperen eta Josefaren arteko gutunerian (1761) ez dago epentesirik. Donostiatik hegoaldera, Lasarteko 1716ko bertso-sortak (*ETZ*, § 18) eta Hernaniko 1726ko gutun batek (Carrión 1985) ez dakarte epentesirik, eta Larramendiren lanetan ere ez da ohiko:¹¹ San Agustín eguneko sermoian (1738) baliatu zuen, hirutan: *zeruba*, *santubaren* eta *famatubac* hitzetan. Bestalde, Gandarari igorritako gutunean *zeuwen* baliatu zuen, behin, Bizkaiko euskarara hurbildu nahian (Altuna & Lakarra 1990).

Donostian, XIX. mendearen hasieran arrunt da Etxagarairen bertsoetan (Zabala 1964): *mundubac*, *estaduban*, *paguba*, *orduban* eta abar daude, esaterako, 1813ko sorta batean. Mendearen bigarren erdian, bestalde, Bilintxen sorta ugaritan aurki daitezke epentesiak: 1-3 *dubena*, 1-4 *cerubaen*, 2-5 *cerubac*, 5-1 *duben*, 6-2 *dituben* nahiz 8-6 *dubena* «Pozez ta bildurrac» sortakoak dira; 2-1 *Partiduba*, 3-1 *zubela*, 5-5 *nuben* eta 5-9 *zuben* «Apaizaren cantac» sortakoak, etab. Garai hartako donostiar antzerkilarien lanetan ere arrunt askoa da epentesia —cf. Soroaren 1880ko *Gabon: dostirudia euscara nastuban eta eguintza bacarran* izenburua bera—, bai eta Berminghamen hasierako solasetan ere (Pérez-Gaztelu & Toledo 2021: 48-49). Hegoalderago, berbera da egoera: *AZTH* bilduma gainbegiratuta, Lasarteko auzo-alkateak Hernaniko alkateari igorritako gutunean (1829) *ygoituba* eta *dubela* daude, Hernaniko 1839ko bando batean *deklaratuba* eta *zitubenac*, Hernaniko bertako 1847ko bertso-sorta batean 1-8 *contuba*, 2-1 *Descuidatuba*, 5-3 *gaituben*, 5-6 *ainguerubac*...

Gipuzkoako ipar-ekialdeari helduta, Minondotarren gutunerian (Salaberri *et al.* 2021) ez dago adibiderik. Dirudenez, inguru hartan Irungo 1721eko udal-agirikoak dira *-ubV*epentesiaren lehenengo adibideak, baina ezaugarria ez da sistematikoa: 13 *contubac*, 15 *dañuba*, 37 *basubeq*, 37 *nuben vs* 10 *zuela*, 20 *ispillua*, 33 *escuetan*, 59 *liñuac* aipatzen dituzte Altunak eta Mirandak (1995: § 2.2). Hain zuzen, ez dirudi XVIII.-XIX. mendeetan berrikuntza erabat nagusitu zenik Irun eta Hondarribia

¹⁰ Mende baten buruan ba omen zegoen: «*Ezazube* por Goyerri está bien, aunque no agradará a los gipuzcoanos, por cuanto se ha escrito poco con eufónicas» ziotson Uriartek Bonaparteri (Ruiz de Larrinaga 1954: 74).

¹¹ Gipuzkoako XVIII.-XIX. testu landuez, ikus § 3.2.2.

aldeko euskaran. Ondarrak editatu eta 1783-1789 artean datatutako platiken artean, lehenengoan *-uber*en bost adibide daude, eta epentesirik gabeko berrogeita hamalau kasu. Bigarren platikan, aldiz, bestelakoak dira zenbatekoak: ager zitekeen hamabost alditan ez da ageri, baina beste berrogeita hamabi alditan badago *-ube*. Irungo testuok badute beste berezitasun bat: Ondarrak (1987: 290) ikusi bezala, epentesia forma gramatikaletan besterik ez dago; zehazki, izenordainetan eta adizkietan. Egoera hori errepikatzen da Hondarribiko 1778ko predikuan (ikus Letamendia & Sagarzazu 1992: 508): *niñubenián, ezaten duben* (bost aldiz), *eguin zuben, botatu zubenian...* daude alde batetik, eta *batzubequiñ, subec & zube* 'zuek', *zuben* 'zuen' beste alde batetik. Salbuespen bakarra *zuba* 'sua' da.

Irungo 1854ko erlijio-testu batean ere (ETZ, § 41) epentesia ez da sistematikoa, eta, XIX. mendearen bigarren erdian, Bonaparteren (1868: 7) arabera Irunen bazen, baina Hondarribian ez.

3.2.2. Gipuzkoako idazle kanonikoen joerak (XVIII.-XIX. mendeak)

Bizkaiko hainbat idazlek *-1775*az geroztik ez bezala, *literatur gipuzkera* gorpuztu zuten idazleek, oro har, ez zituzten tokian tokiko fonetismoak islatu edo/eta orokortu nahi izan. *-ubVri* dagokionez, badirudi Gipuzkoako mendebaleko eta erdialdeko hizkeretan berankorra izan dela, baina agerrerarik eza idazleen hautuekin ere lot liteke LEMean. Batera nahiz bestera, XVIII. mendean ez dut alerik harrapatu Irazuztaren dotrinan, Loiolakoan (XVIII), Oikiakoan (*-1784* [1759]) eta Ubillosenean. Halaber, ez dut adibiderik ikusi Arakistainen eta Aldazabalen euskal testuetan, eta Otaegi beizamarrarengan.

Gipuzkeraz idatzitako testuetan, Larramendik San Agustin eguneko sermoian besterik ez zuen erabili *-ubV*, nahiz eta ezaugarria ezagutu; hortik kanpo, ikus *Hiztegi hirukoitzeko auba, aubena, lauba, chauba & chauva, üala & uvala* eta *zamauba & zabauba*, ustez Azpeiti aldean jasoak eta Urgellek (2001: §§ 8.4.2, 8.5.2, 258-259) andoaindarraren ikuspegi irekiarekin lotu zituenak.¹² Larramendiren osteko idazle handien artean ere epentesia ez da ohiko; XVIII. mendean ez dut adibiderik ikusi Mendibururen lanetan, eta Kardaberatzengan gehienbat idazlea hil ostean argitaratutako lanetan ageri dira, beti bakan.

XIX. mendearen hasieran arreta ematen dute Mogeldarrek, Bizkaiko euskaran aritu zirenean ez bezala, Gipuzkoako euskaraz egindako lanetan fonetismo lokalak baztertu baitzituzten: J. A. Mogelen *Eracasteac* (1800) lanean epentesi bakar bat aurki daiteke —3 *mandamentubac*—, eta B. Mogelen *Ipui onacen* (1804) bat ere ez dago. Hala zioen Bizenta Mogelek: «Ez arren erriertarik jaso bacoitzaren gogora itzac jocatzen ez badira. Guipuzcoan ere ez dabilta berdin [...] aiec esatea nai dute *burua, lecuá...* oec, *buruba, lecuba; duven, zuven; duen* edo *zuen* [...] Aurqueriac dira oec, ta guizon aitua ez dira gueldituco utzqueria oetan» (Mogel 1804: 91). Hain zuzen ere, ildo horretatik aritu ziren gipuzkoar idazle nagusiak XIX. mendean, nahiz eta tarteka aldaera epentesidunak agertu, agian idazleei eurei «ihes» eginda,

¹² Pomier hiztegi berankorragoan (cf. Lakarra 2023) ere badaude epentesiak; ikus Gómez-López & Zulaika (2020: 58) laneko zehaztapenak.

agian inprentan ezarrita. Agirre Asteasukoren *Eracusaldiac* (1823, 1850) sortan, 1850eko bigarren liburukian 249 *cristaubac* bakan bat dago, eta hirugarrenean 631 *buruban*. Halaber, Iturriagaren fabuletan (1842) 54 *pensamentuba* ageri da behin, baina Lardizabalen *Condairan* (1855) eta Gerrikoren erlijio-lanean (1858) ez dago alerik.

Iztuetaren lanak aberatsak dira: Gipuzkoako dantzen historiari buruzko saioan (1824) 145 *gaubeti goicera* dago behin, 178 *Mutubarekin* eta 179 *burubanekin* batera, baina azken bi horiek Aita Meagerren bertsoetakoak dira; halaber, *Euscaldun anciña-anciñaco...* (1826) lanean bildutako kantetan epentesia ageri da. *Condaira* (1847) konplexuagoa da, epentesia ugariago ageri baita, baina forma eta hitz gramatikalei loturik: *zeintzuki* eta *batzuki* (adb.: 16 *ceinzubei*, 40 *ceintzobetaco*, 55 *ceintzubetan...*; 195 *batzubetara*, 213 *batzubec...*), eta **edunen* adizkiei: 116 & 187 *ditubala*, 231 *nuben*.

Arestikoena ez bezalako kasua da J. C. Etxeberriarena eta J. B. Errorena. Lehenngoari dagokionez, epentesiaren berri bazuen, baina lana zein den, epentesia agertu edo falta egiten da. Hala, *Ongui bizitzeco...* (1824) liburuan *laubac* bakan bat besterik ez dago; *Devociozco...* (1821) mardulean, berriz, badira adibideak hor-han:¹³ 14 *subac*, 79 *gauba*, 204 *neguban*, 262 *villlaubac...*; *Jesusen imitacioco...* (1829) delakoan ugari ageri da epentesia sustantiboetan: Azala *libruba*, 1 *escubetan*, 3 *sagraduba*, 6 *burubac...* Erro dela eta, Altzibarrek (1992: 487) markatu legez ziurretik Astarloa maisuari jarraitzen ziolako, arrunt ageri da epentesia; *Observaciones filosóficas* lanaren euskarazko hitzaurrekoak dira *arrotuba*, *apainduba*, *Ichuben*, *ezquendubala* eta *prestu-bequiñ*.

3.2.3. Nafarroako lekukotasunak

Nafarroa Garaiko eremu zabalean ez dirudi epentesia inoiz arrunt izan denik: besteak beste, ez dago -ubVrik Aezkoan, Zaraitzun eta Erronkaribarren, ez eta Bonapartek *hego-nafarrera* deitutakoak besarkatzen duen eremu zabalean ere (ikus Camino 2003).¹⁴ Añibarrok (Villasante 1969 [1820]: 13 eta 167), Bizkai-Gipuzkoetan ez ezik, Nafarroako Bortzirietan ere bazela azaldu zuen XIX. mendearen hasieran, eta lurraldearen ipar-mendebalekoak dira epentesiaren lekukotasun gehienak Nafarroan; goiztiarrenak, XVII. mendearen azken laurdenekoak.

Reguerori (2019: § 3.1.1.4) jarraikiz, Berako olagizonaren gutunetan (1674, 1676) 1 *escussatuba*, 3 *contuban* eta 3 *duben* daude; orduz geroztik, arrunt lekukotu da epentesia Nafarroako ipar-mendebaleko testuetan, Lapurdiko eta Gipuzkoako zenbait eremu mugakidetan legez.¹⁵ M. Elizalde bere izekorekin trukaturako gutunetan (*post* 1677) 2r *duzuben*, 2r *emayezube*, 2v *salduba* eta 2v *dubela* daude —baita aurkako 2v *cargua* eta 2v *escuan* ere—, eta J. Elizalde etxalartarrak Mexikotik arre-

¹³ Testu konplexua da, ordea. Etxeberriak berak hala zioen (1821: 6): «Topatuco dute bear bada provinciaco eusquerarequin batian Nafarroacoa, Vizcayacoa, ta Arabacoa, cergatic guztietatic nabillela, ta beti corrica, escribitu det».

¹⁴ Horrek, ageriko da, barne biltzen ditu XVIII.-XIX. mendeetako nafar idazle nagusietarik bi: F. Elizalde eta J. Lizarraga Elkanokoa.

¹⁵ Alta, Ignazio Bergara goizuetarraren gutunetan (Salaberri *et al.* 2023) ez dago adibiderik.

bari igorritako gutunetako batean (1699) 2r *zuben* dago. Berrikuntzak luzaroan iraun zuen bizirik Nafarroako ipar-mendebalean: Etxalarren bertan, Sanzberroren testuan (1749) 1 *auban*, 1 *zuben*, 2 *santubac*, 2 *santuven* eta 3 *mandamentubac* daude (Reguero 2017: 7), eta mendearen amaierako eta XIX. gizaldiko testuetan ere arrunt da epentesia (Santazilia & Taberna 2019: 836-837).

Hegoalderago, Sunbillako XIX. mendeko bertso-sorta erlijioso batek (ETZ, § 42) *escuba* dakar leloan, eta Bertizaranako eskuizkribuen artean Oierregiko erlijio-kantuetan (Ondarra 1989) *suban* eta *subac* bakan bi daude. Bestalde, XIX. mendearen amaieran arreta ematen du Etxeberri abade elizondoarrak Zugarramurdiko euskarara hurbilduaz idatzitako lehenengo sermoiak, *-ubV* arrunt izateaz gain (cf. *burubaren*, *eztizubegu*, *errañen dubena*, *garaituba...*), oro har espero ez den kasuetan ere ugari agertzen baita.¹⁶ Zehazki, *o > u* / *_V* gertatu ondotik: *Jaungoicubac*, *gogubac*, *urbille-necubetanic*, *artecubac*, *besubac...* Idazlea bertakoa ez zela eta adibideon ugaritasuna ikusita, hiperzuzenketa-kasua dirudi; alegia, idazleak <u> ondotik sistematizatu zuela. Ikus Montoya (2003: 44) Zugarramurdiko eta Urdazubiko XIX. mendeko testuen fidagarritasun ezaz ezaugarri honi dagokionez.¹⁷

Adibideak dakartzaten testuekin batera, Bortzirietako XVIII. mendeko beste idazle/testu batzuetan ez dago epentesirik: Mikelestorena lesakarraren kasuan (Reguero 2017: 7), Berako lurrei buruzko 1716ko agiri batean eta 1785eko Larrungo kapilautzaren gaineko gutunean (Santazilia & Taberna 2019: 638).

Bestalde, merezi du Sakana aldeko testuak aipatzea, kronologikoki duten interesarik: gaur egunera arte iraun du *-ubV* epentesiak Sakanako hiztun batzuen euskarari, baina inguru hartako testu zaharrenetan ez dago adibiderik: Altsasuko/Burundako -1648ko auzibidean «ez da eufoniarik ageri» (Urrestarazu 2022: 212); *-ubVri* dagokionez, cf. 18v *prestuagoren*, 93 *honrraduagoaren*, 225v *honrratuaren*, 250r *honrratuaren*, 301 *honrratuagoren*, 302r *honrratuaren*. Badirudi berrikuntza XVIII. mendean-edo sortu edo hedatu zela eremu hartan, XIX. mendearen lehenengo erdiko testuetan indar bizia baitu: cf. Satrustegik (ETZ, § 37) Aralar mendiaren hegoaldean kokatutako 1833ko sermoietako *moduban*, *jaquinsubac*, *entendimentuban*, *contentuba...* edo Lakuntzako 1838ko predikuko *Erreñuba*, *bedicatuba*, *orduban*, etab. (ETZ, § 39).

3.2.4. *Ipar Euskal Herriko lekukotasunak*

Gipuzkoatik eskuin eta Bidasoa ibaiatz harago, Ipar Euskal Herrian Lapurdiko kostaldean besterik ez da ageri *-ubV*: XVI. mendearen amaierako espioitza-gutunetan (Floristán 1993) ez dut adibiderik ikusi, baina XVII. mendearen hasierako testuetan badaude; hain zuzen, horiek dira corpus historikoko adibide zaharrenak.

Voltoireren *L'interpretcean* (-1620) aurkitu ditut 5 *buruban*, 53 & 81 *souba* 'sua' eta 89 *lacouba* 'lakua' (Lakarra 1997), eta Etxeberri Dorreren laneko (1677) portada-

¹⁶ Abade berak 1857an Lesakako euskara imitatuaz idatzitako testuetan (ETZ, § 43) arrunt da epentesia.

¹⁷ Fidagarritasun arazotsuko bestelako testuak ere badaude ETZn, hala nola Muruzabalgo testu-bilduma, non epentesia tarteka lekukotzen baita —bereziki 1761eko testuan (cf. *ditubenian*, *escubetan*, *orduban*, *santubac...*)—, eta López de Luzuriaga arabarrarena.

koak eta lehenengo orrialdeetakoak dira 1 *abançatuba*, 3 *atheratuba*, 3 *seindubaren*, 3 *contubac*, 3 *Ternubacoac*, 3 *iscribatubac*, 3 *maistrubençat edo pillotubentçat* eta 3 *ditubella*. Azken horren garaikidea da Urruña eta Hondarribia arteko gutuneria (1680), non bilakabidea azaltzen baita; zehazki, urruñarrek igorritako lehenengo gutunean daude 1 & 2 & 12 & 15 & 16 & 31 *zuben*, 13 *zubey*, 19 *dusubela*, 20 *estatuban* eta 34 *juratubac* (*ConTAV*, 132).

Ipar Euskal Herrian —eta, zehatzago, Lapurdin— kokatu izan diren eta ahozko euskaratik hurreko materialen artean, ezin utzizkoak dira *Glossaria vasco-islandica* deituriko materialak (Bakker *et al.* 1991): bertako lehenengo hitz-zerrendan ohiko da epentesia (cf. 4 *esconduba*, 8 *mastruba*, 9 *pilotuba*, 12 *contromastruba*...); alabaina, bigarrenean ez dago halakorik (cf. 35 *dirua*, 54 *sua*, 61 *amua*, 86 *burdua* ‘burua’, 95 *evaskua* ‘eskua’...).

Lapurdiko kostaldeko XVIII. mendeko bizilagunen testuetan ere ohikoa da epentesia: Ziburuko 1747-1751ko administrazio-testu batzuetan (Santazilia & Taberna 2019: 836) eta Donibane Lohizuneko alkate Tausinek Berara igorritako gutunetan (1788; *ETZ*, § 34) ez ezik —*cuben*, *dubela*, *çubelaric*, *buruba*...—, *Le Dauphin* itsasontzikoetan ere badago, XVII.-XVIII. mendeetako lapurtar idazle nagusi gehienen obra inprimatuetan ez bezala. Padilla-Moyanok (2015: 178) zioenez, kostaldetik hurrago, epentesia indartsuago ageri da, eta Hendaiak eta Donibane Lohizunek dirudite foku nagusiak. Esate baterako, Marie d’Etcheverryk Hendaiatik 1757/2/4an igorritako gutunak *iduri dubena* eta *conseluwaq* dakartza, eta Gacina de Biscarrondok herri beretik 1757/2/12an bidalitakoak *etxituba* & *esxituba*, *cuben* ‘zuen’ & *cubec* ‘zuek’, *eztuzube* eta *penatuba*. Halaber, Mari Darburuk 1757/3/13an Donibane Lohizunetik emandako gutun luzexkan *defuntubarequin*, *siricubarequin*, *baixuben*, *premubarequin*... ageri dira.

-ubV epentesia dakarten testu modernoagoen artean Mihuraren *Andredena Mariaren imitacionea* (1778) eta, are geroago, Websterren ipuinak aipatzen ditu Padilla-Moyanok, eta horiei Haranaderren adibide bakanak gehi dakizkieke; *Gudu izpirituala* lanean 54 *fermubago* bakan bat aurkitu dut, eta *Jesu Christoren evangelio saindua* lanean 105 *eguberdia* eta 552 *eguberditic* alde batetik, eta 159 (bitan) & 160 & 271 *ceuben* beste alde batetik. Urte donibandarrak, halaber, «hiztegian *basiumen* ordain gisa *mussua* dakarrelarik, honela dio ondoren: «*dic* mussuba» (III, f. 275)» (Letamendia & Sagarzazu 1992: 509).

XVIII. mendean bertan Lapurdiko notaritzagiriak erantsitako euskarazko testuen artean (Elosegi 2018) ez sistematikoki, baina arrunt ageri da epentesia kostatarrengan: cf. MH-10 (1749) *hartzen dubena*, *abisatuba*, *fornituco dituben*, *obligatuba*...; MH-46 *neurthuba*; MH-48 *cantaxen dubena*; D-01 *buruban*...

Santaziliak eta Tabernak (2019: 836), bestalde, Donibane Lohizunetik Berara 1788an igorritako gutun argitaragabe batzuetan ere epentesia badagoela baieztatzen dute. Hain zuzen, Bonaparteren [BDV m/s Bv75] eskuizkribuko datuek berresten dute Donibane Lohizunen ugari zerabilte la epentesia, bai eta Ziburun, Azkainen eta Biriaturun ere (Duhalde 2019: 154, 2023: § 6.1.3.4.3), nahiz eta Kamusarrik, adibidez, halakorik ez islatu.

Bestelako lekukotasunen artean, aipagarria da Bidarteko eliz atariaren aurreko hiltartitza (ikus 1. irudia), urtearen adierazpenik gabekoa: HAV DA BVTVRENECO IARLEQVBA idazkuna dio, epentesi eta guzti:



1. irudia

Bidarteko (Lapurdi) eliz atariko hilartitza

4. Ondorioak

Sarreran aipatu legez, bilakabide edo historia gorabeheratsuko berrikuntza da *-ubV* epentesia. Lehenik, aldaketa beregainki gertatu zen Hego Euskal Herriko eta Lapurdiko kostaldeko hizkeretan, eta beregaintasun horrek geografia ez ezik, kronologia ere ukitzen du. Bigarrenik, epentesia idazleen hautu-gai izan da historikoki, eta horrek fidagarritasun-arazoak eragiten ditu tokiko errealitatea aztertu nahi delarik. Hirugarrenik, sortu zen ber desagertu da berrikuntza hizkera gehienetatik, bokal-bilkuretako gainerako fenomenoak —edo fenomeno gehienak— ez bezala: aurreko mendeetako corpusak Bizkaiko hainbat hizkeratan, Gipuzkoako mendebalean, erdialdean eta ipar-ekialdean, Lapurdiko kostaldean eta Nafarroako ipar-mendebalean lekukotzen du; gaur egun, aldiz, Sakanan, Beterri aldeko hizkera batzuetan eta Lapurdiko kostaldean —azken arrastoak— besterik ez da entzuten.

Kronologiari dagokionez, euskara historikoko berrikuntza da *-ubV* epentesia; zehazki, EZkoa. Adibide zaharrenak Lapurdiko kostaldekoak eta xvii. mendearen hasierakoak dira, Voltoirerenak (~1620); Arabako mendebaleko eta Nafarroako ipar-mendebaleko lehenengo adibideak garai linguistiko berekoak dira, xvii. mendearen amaierakoak. Orduz geroztik, lurraldea eta hizkera zein diren, adibideen kronologia goiztiarra edo berankorra da:

- Lapurdiko kostaldean eta Nafarroako ipar-mendebalean halako jarraitutasun bat dago lehenengo lekukotasunetatik gutxienez Bigarren Euskara Modernora arte: *-ubV* arrunt erabili zela dirudi, gerora galduz joan bada ere.

- Bizkaiko ekialdean, Debagoienean, Beterrin eta Irun aldean EZtik LEMera bi-tarteko trantsizio-urteetan (xviii. mendearen lehen erdian) ageri da epentesia lehenengoz.
- Zenbait eremutan are berankorragoa dirudi epentesiak: Bizkaiko erdialdean eta mendebalean, Arabako ipar-ekialdean eta Gipuzkoako Urola ibarrean xviii. mendearen bigarren erdian azaltzen da lehenengoz, eta Donostian eta Sakanan xix. mendeetako testuetan, indar biziz agertu ere.

«Garapenaren teoria»-ri jarraikiz (Fabb 2010), *-ubV* epentesia hautatu, indartu eta hedatu zuten idazleek euskara herriko(i)et)an bizirik zegoen ezaugarri bat marka-tzaile linguistiko-estilistiko bihurtu zuten, eta horrek zaildu egiten du, ezaugarriaren agerrera-urteak eta idazle gehienak noizkoak diren aintzat hartuta, LEMeko adibi-deak zeren isla diren ikustea eta erabakitzea.

Bizkaian argi dago xviii. mendearen bigarren erdian hedatzen hasi zela Marki-nako euskalari eta idazleen eredu linguistikoa: orduz geroztik arian-arian indartu eta zabaldu zen eredu hura, eta xix. mendearen lehenengo bi hamarkadetako lan inprimatu nagusien bidez finkatu, aurkari bakar Añibarro heldua(goa) zuela. Gai-nerako lurralde eta euskalkietan, aldiz, aurkakoa izan zen joera nagusia: Larramen-direngandik hasita, gipuzkoar idazle kanoniko gehienek —salbuespentzat jo dai-tezke Erro eta, hein batean, Etxeberria— eredu supralokala hobetsi zuten beren liburuetan, are epentesia garai hartan nahiz gerora erabili den eremuetan ere. Bi-koiztasun hori ezin argiago uzten dute Lapurdiko kostaldeko lekukotasunek, Padi-lla-Moyanok (2015) erakutsi bezala, oro har xviii.-xix. mendeetako testu inprima-tuetan ez baitago epentesiaren erabilera zabalik, nahiz eta dokumentu pribatueta(n) (gutunak, notaritza-agiriak, hiltartitzak...) eta euskara-islandiera hitz-zerrendetan arrunt agertu.

Sarreran (§ 1) aurreratu legez, lan honetan *-ubV* ereduko epentesiaren bilakabide diakronikoa aztertu dut, indar berezia eginez lurraldekako lehenengo lekukotasunen aurkikuntzan, lehenik, eta LEMaren barneko erabilera-joera historiko nagusien des-kripzioan, bigarrenik. Alta, lan honen mugetatik kanpo geratu da, mugatu eta la-burtu beharrez —baina etorkizun hurbilean egiteko esperantzaz—, xix. mendeko —eta, bereziki, bigarren erdiko eta Bigarren Euskara Modernoko— corpus zabala, berriazko azterketa behar duena eta, besteak beste xix.-xx. mendeetako ikerketa dia-lektologikoak barne biltzeaz gain, aurreko hainbat egileren euskara-ereduen sustrai herrikoiez edo hautu estilistikoiez gehiago jakiteko aukera eman dezakeena.

Bibliografia

- Altuna, Fidel & Paloma Miranda. 1995. Irungo Udaleko zazpi agiri euskaraz (1721). *ASJU* 29(2-3). 527-544.
- Altuna, Patxi & Joseba A. Lakarra. 1990. *Manuel Larramendi. Euskal testuak*. Donostia: Andoaingo Udala.
- Altuna, Patxi & Esther Zulaika (arg.). 2004. *Agustin Kardaberaz. Eusqueraren berri onak (1761). Edizio kritikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Altzibar, Xabier. 1991a. J. A. Mogelen hasierako idazkera: hiru platika eta 1783ko dotrina. *ASJU* 25(2). 623-650.

- Altzibar, Xabier. 1991b. Kardaberazzen bizkaierazko dotrina: 1783ko edizioa. In Joseba A. Lakarra & Iñigo Ruiz Arzalluz (arg.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, 259-276. Donostia: GFA & UPV/EHU.
- Altzibar, Xabier. 1992. *Bizkaierazko idazle klasikoak*. Bilbo: BFA.
- Altzibar, Xabier. 1993. Durangaldeko AndreMari- eta Gabon-kanta zahar batzuk zor-zikoan. *Litterae Vasconicae* 6. 35-55.
- Arejita, Adolfo. 1993. 1801. urteko Gernikako Gabon-kanta bat. *Litterae vasconicae* 6. 9-34.
- Arejita, Adolfo. 2018. Bizkaierazko dotrinen liburuari atze-oharrak. In Jose Maria Rementeria, *Euskerazko dotrinak. I. Bizkaieraz*, 242-262. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- Arejita, Adolfo & Asier Bidart. 2010. Elorrioko ziri-bertsotzatzen izkribu hondarrak XVIII. mendean. *Litterae vasconicae* 11. 265-275.
- Ariztimuño, Borja & Oxel Uribe-Etxebarria. Prestatzen. *Istoria sagraduco...* (edizioa).
- Astarloa, Pedro Pablo. 1883 [ante 1806]. *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva*. Bilbo: Pedro Velasco.
- AZTH = Trebiño (2001).
- Bakker, Peter, Gidor Bilbao, Nicolaas G. H. Deen & José I. Hualde. 1991. Basque Pidgins in Iceland and Canada (*ASJUren gehigarriak* 23). Donostia: GFA.
- Bilbao, Gidor. 1997. De la Quadrak Bermeon 1784an idatzitako eskuizkribuak: I. Doctrina christinaubarena. *ASJU* 31(1). 247-336.
- Bilbao, Gidor. 1998. De la Quadrak Bermeon 1784an idatzitako eskuizkribuak (II). *ASJU* 32(1). 165-229.
- Bonaparte, Louis-L. 1862. *Langue basque et langues finnoises*. Londres: [l.g.].
- Bonaparte, Louis-L. 1868. *Phonologie de la langue basque dans tous ses dialectes*. Eskuizkribua.
- Camino, Iñaki. 2000. Abiaburu bat Donostiako euskera aztertzeko. In Koldo Zuazo (arg.), *Dialektologia gaiak*, 51-81. Gasteiz: AFA.
- Camino, Iñaki. 2003. *Hego-nafarrera*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Camino, Iñaki. 2018. Bigarren Euskara Modernoa. In Iván Igartua, Joaquín Gorrotxategi & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*, 659-735. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzia.
- Carrión, Ignacio. 1985. Una carta de 1726 escrita en euskera procedente del archivo municipal de Hernani. *BAP* 41. 372-374.
- ConTAV = Sarasola (1983).
- Duhalde, Maitena. 2019. Donibane Lohizuneko eskararen ahoskera: Louis-Lucien Bonaparteren inkestak. In Irantzu Epelde & Oroitz Jauregi (arg.), *Bihotz ahots. M. L. Oñederra irakaslearen omenez*, 151-163. Bilbo: UPV/EHU.
- Duhalde, Maitena. 2023. *Lapurdikoko itsas hegiko euskararen azterketa dialektologikoa*. Gasteiz: UPV/EHUko doktorego-tesia.
- EHHA = Euskaltzaindia (2008-2020).
- Elordui, Agurtzane. 1995. Bonapartek osaturiko bizkaieraren sailkapenak: iturriak eta erizpideak. In Ricardo Gómez & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskal dialektologiako kongresua*, 433-463. Donostia: GFA & UPV/EHU.
- Elosegi, Xabier. 2018. *Senpereko (eta Lapurdiko) euskara XVIII. mendean*. Senpere: Lapurdi 1609 elkartea.
- Epelde, Irantzu. 2011. Lapurdiko itsasegiko euskararen ahoskera: Donibane Lohizune. In Joseba A. Lakarra, Joaquín Gorrotxategi & Blanca Urgell (arg.), *Koldo Mitxelena Kate-draren II. Biltzarra*, 307-321. Gasteiz: UPV/EHU.

- Etxeberria, Juan Cruz. 1821. *Devociozco vicitzaraco sarrera*. Tolosa: Francisco de la Lama. ETZ = Satrustegi (1987).
- Euskaltzaindia. 2008-2020. *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Fabb, Nigel. 2010. Is literary language a development of ordinary language?. *Lingua* 120. 1219-1232.
- FHV = Mitxelena (1977).
- Floristán, José Manuel. 1993. Conflictos fronterizos, espionaje y vascuence a finales del siglo XVI: 20 documentos inéditos. *Fontes Linguae Vasconum* 63. 177-220.
- Gaminde, Iñaki. 1983. Orozkoko aditza. *FLV* 42. 37-96.
- Gómez-López, Ricardo & Josu Zulaika. 2020. *El vocabulario Pomier*. Bilbo: UPV/EHU.
- Hualde, José I. 1991. *Basque phonology*. Londres & New York: Routledge.
- Hualde, José I. 1996. Arbizuko hizkeraren zenbait soinu bereizgarriak. *Uztaro* 18. 48-60.
- Hualde, José I. & Iñaki Gaminde. 1997. Vowel interaction in Basque: A nearly exhaustive catalogue. *ASJU* 31(1). 211-245.
- Humboldt, Alexander. 1925 [1801]. *Diario del viaje vasco*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Lakarra, Joseba A. 1997. Hizkuntza eskuliburuen tradizioa Euskal Herrian: I. *L'interpréter ou Traduction du François, Espagnol & Basque (-1620)*. *ASJU* 31(1). 1-66.
- Lakarra, Joseba A. 2023. *Jatorr(i), aitor(tu), ilor(tu), bihor(tu)*. Filologia ala hil. In Iván Igartua & Jesús A. Cid (arg.), *Tu voz en muchas voces: escritos en homenaje a Jon Juaristi*, 401-460. Bilbo: UPV/EHU.
- Lakarra, Joseba A., Julen Manterola & Iñaki Seguro. 2019. *Euskal hiztegi historiko-etimologikoa (EHHE-200)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Larramendi, Manuel. 1728. *De la antigüedad y universalidad del bascuense en España*. Salamanca: Eugenio Garcia de Honorato.
- Letamendia, Juan A. & Txomin Sagarzazu. 1992. Hondarrribiko hizkera Roque Jazinto Salazarren predikuan (1778). In Gotzon Aurrekoetxea & Xarles Videgain (arg.), *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra (IKER 7)*, 497-533. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Madariaga Juan, José A. Azpiazu & Jerardo Elortza. 2009. XVIII. eta XIX. mendeetako Azpeitiko euskal testu batzuk. *FLV* 110. 5-45.
- Mitxelena, Koldo. 1977. *Fonética histórica vasca*. 2. argit. Donostia: GFA (1. argit., 1961; berrarg. OC 6).
- Mogel, Juan A. 1800. *Confesio ta comunioco sacramentuen gañean eracasteac*. Iruñea: Ezqueroren alarguna.
- Mogel, Juan A. 1881 [ca. 1802]. *Peru Abarca*. Durango: J. de Elizalde.
- Mogel, Juan A. 1803. *Confesino ona*. Gasteiz: Fermín Larumbe.
- Mogel, Bizenta. 1804. *Ipui onac*. Donostia: Antonio Undiano.
- Montoya, Estibalitz. 2003. *Zugarramurdiko eta Urdazubiko euskara*. Gasteiz: UPV/EHUko doktorego-tesia.
- Ondarra, Frantzisko. 1987. Dos pláticas en vascuence del siglo XVIII. *FLV* 50. 281-316.
- Ondarra, Frantzisko. 1989. Nafarroako Bertizaranan aurkitutako euskal testuak. *ASJU* 23(3). 706-756.
- Padilla-Moyano, Manuel. 2015. A new view of Basque through eighteenth-century correspondence. In Eivind Torgersen, Stian Hårstad, Brit Mæhlum & Unn Røyneland (arg.), *Language Variation - European Perspectives V (Studies in Language Variation 17)*, 169-182. Amsterdam: John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/silv.17.13pad>.
- Pagola, Rosa M. (koord.). 1992. *Bonaparte ondareko eskuizkribuak*. Bilbo: DU.

- Pérez-Gaztelu, Elixabete & Ana Toledo. 2020. *J. Berminghamen solasak*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Reguero, Urtzi. 2017. xviii. mende erdialdeko Etxalarko dotrina. *FLV* 124. 355-367.
- Reguero, Urtzi. 2019. *Filologiatik dialektologiara, Nafarroako euskarazko testu zaharretan barena (1416-1750) (ASJUren Gehigarriak 71)*. Bilbo: UPV/EHU.
- Rementería, Jose M. 2018. *Euskerazko dotrinak I. Bizkaiera*. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- Rijk, Rudolph P. G. de. 1970. Vowel interaction in Bizcayan Basque. *FLV* 5. 149-167.
- Ros, Ander. 2011. Nerbioi goieneko euskararako material gehiago: xvii. mende amaierako Urduñako berba zerrenda bat. *ASJU* 45(1). 387-402.
- Ruiz de Larrinaga, Juan. 1954. Cartas del P. Uriarte al Príncipe Luis Luciano Bonaparte, con notas bio-bibliográficas. *ASJU* 1. 35-106.
- Salaberri, Patxi, Juan J. Zubiri & Iker Salaberri. 2021. *Jose Ramón Minondo goizuetarraren gutunak*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Salaberri, Patxi, Juan J. Zubiri & Iker Salaberri. 2023. *Ignazio Bergara goizuetarraren gutunak. Arranbide (Arano) eta Elama (Artikutza). 1787-1811*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Santazilia, Ekaitz & Mikel Taberna. 2019. Uscaldunac garen ezquero. Berako euskal testu administratibo berri bat (1822). *Euskera* 64. 811-869.
- Sarasola, Ibon. 1983. Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos. *ASJU* 17. 69-212.
- Satrustegi, José M. 1987. *Euskal testu zaharrak I*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Segurola, Koro. 2005. xviii. mendeko autore ezezagun bat. *Lapurdum* 9. 243-282.
- Trebiño, Imanol. 2001. *Administrazio zibileko testu historikoak*. Gasteiz: IVAP.
- UEU. 1987 [1983]. *Euskal dialektologiaren hastapenak*. Bilbo: UEU.
- Ulibarri, Koldo. 2010. *Viva Jesús* dotrina: edizioa eta azterketa. *ASJU* 44(2). 41-154.
- Ulibarri, Koldo. 2013. Un nuevo texto para la historiografía vizcaína: *Aerario de la hidalguía y nobleza española y plaza de armas de Vizcaya* por Francisco Mendieta, ayalés. *Oihenart* 28. 173-191.
- Urgell, Blanca. 1985. Literatur bizkaieraz: Añibarroren *Esku-liburua*. *ASJU* 19(1). 65-117.
- Urgell, Blanca (arg.). 2001. *Fr. Pedro Antonio Añibarro. Geroko gero. Edizio kritikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Urgell, Blanca. 2018. Lehen Euskara Modernoa. In Joakin Gorrotxategi, Iván Igartua & Joseba A. Lakarra (arg.). *Euskararen historia*, 549-657. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Urrestarazu, Iñigo. 2022. Auzibidea Burundakoa da, eta euskara?. In Dorota Krajewska, Sergio Monforte & Eneko Zuloaga (arg.), *Aziti bibia: euskal filologia eta hizkuntzalari-tzaren adarrak*, 203-227. Bilbo: UPV/EHU.
- Villasante, Luis (arg.). 1969 [1820]. Fr. Pedro A. de Añibarro. *Gramática bascongada*. Donostia: GFA.
- Villasante, Luis (arg.). 1996. *J. M. Zabalen sermoiak*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Zabala, Antonio. 1964. *J. V. Echagaray. Festara: bere bertso guztien bilduma*. Tolosa: Auspoa.
- Zabala, Juan M. 1848. *El verbo regular vascongado*. Donostia: I. R. Baroja.
